

EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA
TESTUAK ETA ARGIBIDEAK

1

EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA
ERDI AROTIK ERRENAZIMENTURA

Euskal Literaturaren inguruko antologia ugari atondu dira orain arte, askotariko bideak jorratuz. Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordearen (LIB) egitasmo honek antologiaren esparruan ekarpen berri bat egitea du xede: orain artekoak baino osoagoa, landuagoa eta elkarlan handiagoko antologia eratzea. Osoagoa, hau da, autore eta testu gehiago, euskalkien eta genero edo literatur praktiken ikuspegi zabalagoa jasoko duena. Landuagoa, hots, testuen pilaketa soila gaindituz, testuen zehazte zorrotzagoa eta dagokien ingurune paratestuala, sarrerek, oin-oharrak eta bibliografia barne, bilduko dituen. Lankidetzan egina, talde lanean erabakia eta elaboratua. Hiru ezaugarriok garrantzitsuak izanik ere, azkena azpimarratu nahi da. Honela, Antologia hau ikuspegi desberdinen joskera eta emaitza da.

EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA
TESTUAK ETA ARGIBIDEAK

Koordinatzailea:
Karlos Otegi

Sarrera egileak:
Karlos Otegi
Patri Urkizu
Iñaki Aldekoa Beitia

Atal arduradunak:
Sebastian Gartzia Trujillo
Iratxe Retolaza
Jean Haritschelhar
Iñaki Aldekoa Beitia
Jon Casenave
Karlos Otegi

Lankideak
Gorka Aulestia
Jon Kortazar
Txomin Peillen
Ana M. Toledo Lezeta



1

ERDI AROTIK ERRENAZIMENTURA

EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA

TESTUAK ETA ARGIBIDEAK

1

ERDI AROTIK ERRENAZIMENTURA

XIV, XV eta XVI. mendeak

EUSKALTZAINDIA

2015

Koordinatzailea

Karlos Otegi

Sarrera egileak

SARRERA OROKORRA:

Euskal Literaturaren Antologia: Karlos Otegi

LIBURUKIAREN SARRERA:

Erdi Aroa Euskal Herrian: Patri Urkizu

Erdi Arotik Errenazimentura: Iñaki Aldekoa Beitia

Atal arduradunak

Kanta eta bertso zaharrak: Sebastian Gartzia Trujillo

Iratxe Retolaza

Bernat Etxepare: Jean Haritschelhar

Joan Perez Lazarraga: Iñaki Aldekoa Beitia

Joanes Leizarraga: Jon Casenave

Gutunak: Karlos Otegi

Paremiak: Karlos Otegi

Lankideak

Gorka Aulestia

Jon Kortazar

Txomin Peillen

Ana M. Toledo Lezeta

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:
www.euskaltzaindia.eus/azkue

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Hizkuntza-orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA).

Azaleko irudia: Manu Urbietak Illarramendi.

Diseinua: Ikur, S.A.

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.

Inprimategia: Impresión Tecnigraf, S.L.L.

I.S.B.N.: 978-84-943211-9-1

Lege-gordailua: BI-312-2016

AURKIBIDEA

Eskaintza	11
Aurkezpena	13
Sarrera orokorra: Euskal Literaturaren Antologia	17
ERDI AROTIK ERRENAZIMENTURA	
Liburukiaren sarrera: Erdi Aroa Euskal Herrian	73
Erdi Arotik Errenazimentura	77
Taula kronologikoa	93
Ortografia eta hitz formen egokitzapenak	111
Laburdurak eta ikurrak	125
IRUDIEN KAIERA	127
1. KANTA ETA BERTSO ZAHARRAK	145
1.1. EPIKOAK	152
Beotibarko guduaren kanta	154
Akondiako guduaren kanta-hasiera	156
Urrexolako guduaren kanta	157
Peru Abendañoaren deitorea (Aramaioko kanta)	158
Mondragoeren erreketaren kantak	160
Olasoko kanta	166
Sandailia	167

Errodrigo Zaratekoaren kanta	169
Salinasko kondearen kanta	171
Bereterretxen kantorea	172
Kantabriarren kanta (Leloren kanta)	175
1.2. EROSTAK	179
Milia Lasturkoaren eresiak	180
Martin Bañez Artazubiagakoaren eresia	184
Joan Amenduzekoaren elegia	186
Alos-dorrea	189
1.3. HILARTITZA(K)	193
Martin Ibañez Labierokoaren hilartitza	194
1.4. AMODIOZKOAK	195
Perutxoren kanta	196
Maria Estibaliz Sasiolarenak	198
– Eleizara juen ohi naiz	199
– Amore linda galant bata	200
– Mendi altuan erurra daidi	201
– Ohereanik jagi nintzan	202
Andre Emilia	205
Atsein handia	207
Urrutiako anderea	208
Atharratze jauregian	211
1.5. ISEKAZKOAK	216
Arageako Petrika	217
Martitxo Musuren kopla	218
Orain negua bada bere	219
Martin Sanzen koplak	220
1.6. LAUDORIOZKOAK	221
Bretainiako kanta	222
Gure printzipe don Henrike jaunari	224
2. BERNAT ETXEPARE	225
2.1. ATARIKOA(K)	230
Gomendiozko karta: Bernard Leheteri	230
2.2. POESIA	231
Judizio jenerala	231
– Judizio jeneralaz nola orit ez dira	231
– Non dirate egun hartan hebengo jaun erregiak	233

– Seinaliak jinen dira aitzinetik tristerik	234
– Ez da anitz luzaturen exekuzionia	235
Emazten fabore	236
Ezkonduien koplak	239
Amorez errekeritzia	242
Amorosen disputa	245
Mosen Bernat Etxeparere kantuia	249
Kontrapas	252
Sautrela	254
3. JOAN PEREZ LAZARRAGA	257
3.1. PROSA: KONTAKIZUNA	263
Artzain-kontakizuna	263
3.2. POESIA	271
Zu ekusi ta beste gauzarik	271
Arren, egia bat zarrezt	273
Fama handia, zatoz nigana	276
Barri onak dakart	279
Monesterio santu debotoa	281
Zegaiti begiratu gura ez dozu	286
Ahaide handiok bidaldu deustae	292
Salbatierra egun ei dago tristerik	299
4. JOANES LEIZARRAGA	307
4.1. ATARIKOAK	313
Gomendiozko karta: Joana Albretekoa erreginari	313
Oharra: Euskaldunei	316
4.2. ITZUL-LANA	319
Ebanjelioa Mateoren arabera (6, 5-15): Gure Aita	319
Ebanjelioa Lukasen arabera (15, 11-32): Seme prodigoa	321
Ebanjelioa Joanen arabera (8, 1-11): Emazte adulteriogilea	323
Paulok Erromatarrei egindako gutuna (3, 21-30): Fedea eta obrak	325
Apokalipsia (12): Emaztea eta dragoia	327
5. GUTUNAK	331
Fraí Joan Zumarragakoaren gutuna	337
Bertrand Etxauzen gutuna	341
Urtubiako anderearen gutunak	343

6. PAREMIAK	353
Ezagumena eta gogoeta existentziala	360
Pertsona arteko eta gizarte harremanak	362
Lana eta ondasunak	365
Eguraldia, egutegia eta laborantza	367
Onomastika	369
Bestelako egiaztatze eta aholkuak	372
Bibliografia	375
Irudien kreditu-orria	389

ESKAINTZA

Antologia hau sustatu eta taldean landu zuen

Jean HARITSCHELHAR

Literatura Ikerketa Batzordeburu ohiari

haren

benazko jendetasuna

lankideekiko adeitasuna

askotariko jakituria

kudeaketarako malgutasuna

lanerako prestutasuna

gogoan

esker onez

AURKEZPENA

Jean Haritschelharri zegokion, eta ez niri, Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak liburuki honekin abian jartzen duen Antologia aurkeztea. Agindua zeukan egitea, baina, zereginari heldu aurretxoan, us-tekabean agertutako gaitzak eraman du (G. B.).

Lizardik “Eusko-bidaztiarena” kantuan adierazitako nahia, “Baina nik, hizkuntza larrekoa, nahi haunat ere noranahikoa”, handik hamarkada gutxi batzuetara, xx. mendearen bigarren erdian, hasi zen bidea egiten poliki-poliki. Larrekoa zena noranahiko bilakatzeak: batetik, lan-zama erraldoia zeraman berarekin; bestetik, gizarte oso baten parte hartzea eskatzen zuen; izan ere, euskara noranahiko izatea nahi zukeen herritarrik ezean, alferrikakoak ziren ahalegin guztiak.

Euskara noranahiko bihurtzeko lantegira bere harri-koskor xumea ekartzeko asmoz Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeak, 1996an eratuaz bat, hiztegi berezitu batean ikusi zuenez bere zereginik eraginkorrena, literatura terminoen hiztegi bat taxutzeari ekin zion, literaturaren alorrean erabiltzen diren terminoak definituz eta kontzeptuen ulermena errazteko euskal testuetatik ateratako adibideak gehituz. Egun, *Literatura Terminoen Hiztegia* (2008) edonoren eskura dago, nola paperean, hala Euskaltzaindiaren web orrian.

Funtsezkotzat jo zuen eginkizuna burutu ostean egitasmo berri bati heldu zion, funtzionaltasun-maila desberdinekoa oraingoan; izan ere, hura, bakarrik

edo ia bakarrik, eskolarako zen bitartean, lehen liburuki honekin gauzatzen hasten denak eskolaren mugak gainditu nahi lituzke.

Egitasmoak Euskal Literaturaren antologia bat moldatzea du jomuga literaturarekiko zaletasuna indartzen laguntzeko. Buruen-buruenik, hartzaileak literaturaz goza dezan nahi da, nola zaleari, hala oraindik zaletasunik ez duelako ikasgai soiltzat daukanari, irizpide batzuk jarraituz hautatu diren testuen lagin zabal samarra emanaz.

“Literaturaz gozatu” da antologiaren oinarrian dagoen hitz-gakoa. Horregatik, euskarri digitalaren abantailek orain gutxi arte inprimatutako paperak zuen gailentasuna zalantzan jarri duten arren, uste izan da paperean ere plazaratu behar zela, lan-tresna gisa ez ezik, gozamen-iturri legez ulertu delako. Bestela esanda, zeregin praktikoek eskatzen duten denboraren kudeaketa eraginkorretik askatuz, argitalpen-modu jada tradizionalak lasaitasunez egindako irakurketa errazten duelakoan, patxadaz irakurtzeko gailua ere izan zitekeena lortu nahi zen. Zorionez, batak ez du bestea ukatzen: bi euskarriak osagarri izan daitezke. Hala, astiarekin eta, horrenbeste asti gabe ere, erabilgarri izango da paperak eta sareak eskainitako baliabide desberdinei esker.

Esan bezala, “gozatzea” da hitz-gakoa; helburu honek, haatik, ez du deuseztatzen ikastea: betiere, euskararen eta euskaldunaren historiaren zati diren testuetatik, nahiz testuoz eta testuon inguruan emaniko argibideetatik ikas daiteke.

Litekeena da norbaitek harriduraz atzematea Euskal Literaturaren antologia “gozatzea” hitzari lotuta aurkeztu izana. Gauza ezaguna da “irakatsi” goiburua “gozatu”ri nabarmenki nagusitu zaiola euskal letren ibilbidean eta biak uztartzen saiatu den testua ere urria dela, gutxienez, XIX. mende arte. Antologia batek, ezinbestez, ekoiztutakoa behatu beharko du hauta-lanari ekiteko. Eskuratu den altxorrean egileak hartzaileak goza dezan asmo zuela sortutako testu askorik ez dago Euskal Literaturaren historiaren zenbait alditan, nahiz eta, seguru asko, jaio ziren garaiko hartzailearentzat egungoarentzat baino erakargarriagoak izango ziren. Lehen liburuki honek jasotzen dituen aldie-tarako nahiz geroagokoetarako hautatuko diren testuak taxutu ziren aroko ikuskerara hurbilduz irakurtzen badira orainalditik irakurrita baino atsegina-goak suertatuko dira. Argi eta garbi esanda, erakarmen-ahalmenik indartsuena literatur genero tradizionaletan kokatzen diren idazlanei darie, baina barruti horretatik at lekutzen direnen erakarmen-ahalmen handiagoa edo txikiagoa hartzaileak testuaren aurrean hartutako jarreraren baitan egon daiteke: irakurketa-erregimenean. Alegia, irakurleak irakurketaren ekintzari heltzen diotenean abian jartzen duen deskodetze moduan: irakurketaren bidez testua gauzatzeko hartutako norabidean, irakurketaren prozesua garatzeko eta ixteko aukeratutako eran.

Egitasmo baten lehen liburukia da. Euskal Literaturaren antologia bat burutzea jomuga duen egitasmoaren lehen emanaldia eta, horregatik, hain justu, eginkizun dagoenaren egitura ezartzen duena. Lehen liburukiak irekitako ildo jarraituz prestatuko dira hurrengoak: xede-mailan, nahiz xedeari erantzuteko erabilitako bitartekoetan bat egingo dute. Beraz, mamitu egin nahi den antologiaren eredia ere azaleratzen du.

Lantalde baten proposamena da, jadanik izendatu diren Euskaltzaindiaren Literatura Ikerketa Batzordeko kideen proposamena. Lantaldea, formazio-modu, baita ikuspegi, sentsibiltate eta gustu desberdinetako kideen topagune da, noski. Ondorioz, aitortu beharra dago irizpideak bateratzeko ahalagin berezia egin behar izan dela. Nolanahi ere, garrantzizkoena ez da lantegi hori, emaitza emankorra izatea baino. Hala izan bedi.

Ana M. TOLEDO LEZETA
Literatura Ikerketa Batzordeburua

EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA

Lehenengo liburuki honekin argitara iristen den Euskal Literaturaren Antologia hau, ez da jadanik oso-osorik gauzaturiko antologia. Oraingoz, liburuki hau besterik ez dago atondurik. Abian jarritako, lantze prozesuan bideratutako, Antologia da.

Sarrera hau, beraz, ez da Antologia bete-betean amaitu eta gero idatzia izan, hastapenetan, lehenengo ale hau bukatu ostean baizik. Egitasmoari buruzko sarrera delarik, bere xedea ez da ibilbidearen eta azken emaitza osoaren azalpena eta balantzea egitea, lan antologiko hau gidatzen hasi diren eta gidatuko duten jomugak eta oinarritzko indar lerroak argitzea baino.

1. Planteamendua

Euskal Literaturaren sistema, beste edozein sistema dinamiko eta sortzaileren moduan, etengabeko osatze, egokitze eta integratze prozesuan dago murgildua: alde batetik, lehendik jada bere barnean txertatuak diren osagaiak eguneratuz eta euren artean txirikordatze gero eta konplexuagoak ezarriz, eta, bestetik, sistemaren dinamikan sartu ahala, hura garatzen eta aberasten laguntzen duten osagai berriak bereganatuz.

Dagoeneko landu eta argitaratu izan diren taxu eta hedadura desberdineko Euskal Literaturaren antologiak multzoa, gehiago edo gutxiagoko

eraginez, sisteman jokatzeko ari diren osagai horietariko bat da. Antologiaren corpus horretan aurkitzen dira, batzuk aipatzearen: tankera orokorreko antologiak (Pierre Lafitte, 1931; Karmelo Etxenagusia, 1969; Patri Urkizu, 1992; Xabier Mendiguren Elizegi eta Koldo Izagirre, 1998...); euskalkien arabekoak (Mikel Zarate, 1970; Karmelo Etxenagusia, 1981...); ahozko literaturarenak (Xabier Paya, 2013...); genero literarioei dagozkienak, poesian (Santi Onaindia, 1954; Ibon Sarasola, 1973; Joan Amenabar, 1983; Iñaki Aldekoa Beitia, 1993; Patri Urkizu, 2009...), narrazioan (Iñaki Aldekoa Beitia, 1995; Mari Jose Olaziregi, 2005...) eta teatroan (Patri Urkizu, 2009...). Bilduma hauen eta gainerakoen erreferentzia zehatzak, Antologiaren barruan bakoitzari dagokion liburukiaren bibliografian jasoko dira.

Euskal antologiaren sail hau ez da multzo itxia, behin betiko bukatua, corpus irekia baizik. Aukerak ez daude agortuak. Onartuz, asumituz, oinarritzeko abiapuntu gisa, literatura gertakari edo adierazpen kultural baliozkoa dela eta antologia literaturara hurbiltzeko bitarteko proposa dela, uste izatekoa da, oraindik badagoela ekarpen berriak egiteko aukerarik, gainerako antologiek eskaini ez duten funtsezko zerbait eskuratzeko tarterik. Orain artekoak baino osoagoa, landuagoa eta elkarlan handiagoa izateagatik bereiziko den antologia.

Osoagoa, hau da, autore eta testu gehiago, euskalkien eta genero edo literatur praktiken ikuspegi zabalagoa jasoko duena. Landuagoa, hots, testuen pilaketa soila gaindituz testuen zehazte zorrotzagoa eta dagokien ingurune paratestuala, sarrerrak, oin-oharrak eta bibliografia barne, bilduko dituen. Lankidetzan egina, talde lanean erabakia eta elaboratua.

Hiru ezaugarriok garrantzitsuak izanik ere, sarrera honen hasieran, azkena azpimarratu nahi da. Antologia hau Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordea (LIB) hasi eta ari da jorratzen. Ez da bakar batek edo bizpahiruk taxututako obra, talde zabal samar baten zeregina baizik. Liburuki honetan, zehazki, noizbehinka argibide edo aholku eske kontsultatutakoez gain, hamaika dira zuzenean eta iraunkorki, atal arduradun edo laguntzaile moduan, parte hartu duten kideak.

Talde lanaren bidez, hautaketa antologikoan lortu nahi dena objektibotasun handiagoa da, jakinik, aldeztu aurretik, ordea, esparru honetan erabateko objektibotasun zehatza ezin iritsizkoa dela.

Lankidetzak edo partaidetzak ez da, berez, objektibotasunaren berme eztabaiaezina. Elkarlan zabalak ez du ziurtatzen, derrigorrean, egindako autore eta testuen aukeraketan benetan asmatu denik, objektibotasuna erdietsi denik. "Zenbat eta hautatzaile gehiago, orduan eta, ezinbestez, objektibotasun eta aukeratze zuzenagoak" bezalako formulak ez du hemen balio, ez da hertsiki betetzen. Subjektibotasuna saihetsezina da edozein lan antologikotan.

Horregatik, talde lana, gehienez, subjektibotasun maila ñabartzeko saio apal moduan hartu behar da: lankideen gustuak eta irizpideak uztartuz, jarrera subjektiboen arteko adostasuna bilatuz, era desberdinen arteko ikuspuntuak josiz, objektibotasunaren bidean urrats bat egiteko ahalegina. Horretarako, taldekideek, noiz batzuek, noiz beste batzuek, uko egin behar izan diete eta uko egin behar izango diete euren uste oso, hobespen eta balio iritziei, bilatuz, eztabaida eta elkarren arteko trukearen bidez, kontsentsua, adostasuna, gehiengoaren mesedetan. Honela, Antologia hau ikuspegi desberdinen joskera eta emaitza da, eta ez, noski, taldekide bakoitzak bere aldetik osa zezakeen antologia.

Objektibotasunean irabazteko asmoari bidea emateaz gainera, talde lanak jakite desberdinez baliatzeko aukera eskaintzen du. Taldekide bakoitza Euskal Literaturaren sail batean, edo batean baino gehiagotan, da jakituna. Dena den, taldekide guztien artean ez da Euskal Literaturaren eremu osoa, modu espezializatu batez, besarkatzen; taldekideen jakituria ez da Euskal Literaturaren bazter guztietara iristen. Horrela izanik, taldekideek Antologiaren atal batzuk espezialista moduan landu dituzte; beste atal batzuk, berriz, taldekide soil gisa. Baina haiek nola hauek, guztiak, apaltasunez, zehaztasunez eta, behar izan denean, taldez kanpoko espezialistei argibidea eskatuz, izan eta izaten ari dira taxutuak.

Taldekideak, euren espezializazioaz gain, Literaturaren arlo orokorrari eta, bereziki, Euskal Literaturari buruzko prestakuntzaz daude hornituak; irakurle jantziak dira, literatur testuak duinki hautatzeko eta lantzeko gaituak.

2. Helburua eta objektua

Antologia honen helburua da, mendeetan zehar, hastapenetatik edo lehenengo lekuko ezagunetatik –Erdi Aroko bukaera aldeko testigantzetatik– gaur arte, Euskal Literaturaren esparruan eta ibilbide historikoan sortu diren testu onenen aukera zabala biltzea eta eskaintzea. Antologiak nahi du izan Euskal Literaturan sortu denaren erakusleiho panoramikoa, ahalik eta osoena, besarkagarriena eta adierazgarriena; Euskal Literaturaren arloan jalgi denaren erakusmahai oparo eta kritikoa.

2.1. Antologia honen asmo nagusia literatur alorreko testuak hautatzea da. Objektua literatur testuak dira.

Aipatu denez, proiektu honen errotikako premisa abiarazlea literaturan jarritako konfiantza da. Literatura gertakari baliotsua da, estimua merezi duena, askok egiatan aintzat hartutakoa. Honela ez balitz, ez Antologia

honek, ez bestelako antologiek ere –eta, bidenabar, ez eta literaturari buruzko ezein ikastaro, gradu, biltzar, katedra, ikerketa, argitalpen eta abarrek– ez lukete inongo zentzurik izango, eta iruzurra, jardute hutsal baten kontura antolatutako biziraupen bizkarroia lirakeke.

Orain dela bizpahiru hamarkada edo, honelako ohar bat egitea inori ez zitzaion bururatu ere egingo, ez zen beharrezko izango. Literaturaren egokitasun eta onura jakintzat, begien bistakotzat, emango zen. Gaur egunean, ordea, gertakari literarioa inguratzen duen giroa ezkorra da, literaturaz entzuten den leloari krisi hotsa dario. Badirudi, beraz, jarduera literario bati ekiten zaion bakoitzean, literaturaren balioa eta interesa justifikatzen aritu beharra dagoela.

Justifikazio luzetan sartu gabe, hemen, soilki, aldarrikatu literaturak duen pertinentzia, egokitasuna eta interesa. Arrazoi eta esperientzia askorengatik, literatura gizabanako eta gizartearen osaketarako onuragarria da. Literatura askori zaio axola, askorentzat *literature matters*.

Literatura gertakari baliotsua dela eta Antologiak literatur testuak bilduko dituela aitortzeak, “literatura” eta, zehazkiago, “literatur testua” kontzeptuak argitzea eskatzen du, hots, azaltzea zein material den Antologian jaso izateko gai. Bestalde, antologia orok, autore eta testuen hautaketa izanik, balio iritziz jokatzen duelarik, “literatura”ren izaerari buruzko ikusmoldea eskatzen du. Antologia ororen planteamenduan, funtsean, aurretik barneratutako “literatura”ri buruzko ikuskera erabili ohi da, eta nabari da.

Sarrera hau ez da, noski, une eta lekuri egokiena “literatura” gertakariaren izaerari buruzko azalpen akademiko landu bat, argitze garatu bat –posible bada– eskaintzeko. Hala ere, bidezkotzat ikusten da Antologia honetan aurrera eramandako hautaketa literarioa ulertzen lagunduko duten zenbait ardatz ematea.

Literaturaren izateari buruz proposatu diren definizio edo azalpenak bi multzo edo joera nagusitan bildu ohi dira: esentzialistak eta erlatibistak.

Esentzialistentzat, euren jarrera hertsienean eta muturrekoenean, “literatura” gertakari berezia eta objektiboa da. Nagusitasuna eta ekimena testuan dautza. Literatur testuek ezaugarri propioak, espezifikoak, intrintsekoak, beren izatean txertatuak, dituzte, eta horien bidez testu ez-literarioetatik bereizten dira. Testu literarioen ezaugarriak, balioa edo bikaintasuna, errealitate objektibo, egiaztagarri, eta iraunkorrak dira. Beraz, literaturaren definizio ontologiko, zehatz eta finkoa, testuz kanpoko testuingurura jo gabe berezko ezaugarrietan oinarrituta eman daiteke, eta esentzialistek bereak proposatzen dituzte.

Erlatibisten iritziz, literatura, literaturaren kategoria, ezin da azaldu arreta osoa soilik testuaren balizko barne ezaugarrietan jarritz, inguruko faktoreen

eragina eta baldintzapenak kontuan izan gabe. Literatur testuen balizko literaturtasuna, balioa, taxuketa estetikoa, iradokizunerako gaitasuna eta abar, izatekotan, ez dautza testuan bere horretan. Aldakorrak dira, historikoak, garai, leku eta kulturen arabera. Hartzailearen erabilerak, irakurleen komunitateak, erabakitzen du testu bat literatura gisa hartzen den ala ez. Jarrera erradikalenean, irakurlea da esanahiak eta balioak sorrarazten dituen, eta literatura testua ez da gainerako testuetatik bereizten, ez da tankera edo ezaugarri propioz nabarmentzen.

Esentzialistentzat funtsezko galdera “Zer da literatura?” bada, erlatibistentzat “Zeri deitzen diogu literatura?” (Pozuelo Yvancos, 1994: 71).

Antologia honetan, ahal den neurrian, etengabeko tirabira hau leuntzea, bi joeren arteko orekatze eta uztartzea, praktikatu nahi da. Ziur asko, irtenbiderik egokiena, eskuragarriena, joserik horretan datza: “literarioa” pribilegiatu testuinguruan txertatuz. Hona hemen, literatura testuaren deskripzio, edo definizio, posible bat:

mintzaira, dela dotorea dela egunerokoa, biziz, estetikoki taxutuz eta gaiari egokituz, eratutako ahozko zein idatzizko hitzezko sorkuntza, zeinean, bere formazko eta edukizko konfigurazioaren eta irakurlearen jardura gauzatzailearen bitartez, lortzen den zentzu aniztasuna, esanahi konplexuak, adieraztea eta erantzun esanguratsuak sorraraztea, hala nola emozioak eta esperientzia berriak piztea, ideiak esnarazi eta garatzea, jarrerak eta desirak eragitea, irudiak eta mundu imajinarioak eraikitzea, edo maila sinbolikoetara igaroaraztea, horrela, hartzailea, bere ingurumarian kokatua, entretenitu, gozatu, kezkatu, hunkitu, osatu eta bizi egiten delarik.

“Literatura” da literatura testuak eta testuetan gurutzatzen diren subjektuak eta testuinguru osoa, testuinguru soziokultural eta historikoa, literarioa barne. Hitz bitan, bizitza literarioa. Literatura osatzeko ezinbestekoa da testua, baina baita testuaren inguruan sortzen den dinamika eta jardura pertsonal eta soziala ere: harremanen sarea, harrera eta erabilera, transmisioa eta eragina, jarrera etikoak, funtzionamenduak eta abar.

Antologian, testuen bilketa denez, testuak pribilegiatzen dira, haiei ematen zaie protagonismo nagusia. Bizitza literarioa, berriz, testuetan, jakina, sarreretan eta testuak aukeratzeko eta artikulatzeko estrategian islatzen da.

2.2. Antologia honetarako, testu literarioen artean, testurik onenak, baliotsuenak, hautatzeko asmoa dago.

Santi Onaindiak euskal poesiaren bere bilduma oparo eta txalogarriari *Mila euskal olerki eder* (1954) izenburua jarri zion. “Eder” ipini zuen eta ez “on”, “ederrenak” edo “onenak”. Onaindiarentzat bilduman jasotako olerkiak

“ederrak” dira, edertasunez jantziak, besterik gabe, ez “ederrenak” edo “onenak”.

Mugatu eta mugagabeak eransten duten ñabardura alde batera utzita, kontzeptu edo formulazio hauek ezaugarri komunak dituzte. Lauretan aukeratze ekintza, kalitate zantzu, eta hautatzailearen aldetiko erabaki-hartze eta apustu arriskutsua sumatzen da. Baina ez dira, berez, zehazki gauza bera, badituzte ezaugarri desberdinak ere.

“Eder” eta, literarioki, artistikoki, “on” terminoek iritzi edo baieztapen absolutua adierazten dute. Horrela kalifikatutako objektua, egiatan, ederra, ona, kalitate berezikoa da, ez beste batzuen aldean, baizik eta bere horretan, inolako erkaketaren beharrik gabe. Agian, literaturarako, arterako, egokiagoa da “eder” terminoa “on” baino, nahiz eta “edertasun” kontzeptua aldakorra, eztabaidagarria, ñabartu beharrekoa, izan. Bestalde, objektu “ederrek” edo “onek” ez daukate, berez, hartuak izan diren multzo osoko “ederrenak” edo “onenak” zertan izan.

“Ederrenak” eta literarioki “onenak” formek, berriz, superlatibo erlatiboak direnez, erkaketa batetik eratorritako iritzia adierazten dute. Hautatutako objektuak jasoak izan diren osotasuneko ederrenak, onenak, dira. Halakoak badira, uste izatekoa da badutela, bere horretan, edertasun eta ontasun literarioa, baina ez dute, berez, “eder” eta “on” izan beharrik. Horrela bada, objektuak “onenak” izateak adierazi nahi du objektu horiek, antologia-egileen iritziz, kalitate mailaz multzoko baliotsuenak, gorenekoak, direla. Baina “onenak” izateak ez du, berez, “onak” direnik esan nahi. Objektu bat, eskasen edo kaskarren artean, “onena” izan daiteke, eskasa, eskasiarik gutxienekoa alegia, bada ere.

Beraz, Antologia honetan testu literario “onenak” biltzeko asmoa dagoela esatean, ez da, berez, balio iritzi absolutua ematen, soilik erlatiboa baizik, alegia, sortu den literaturan, dauden literatur testuen artean, aukeratutakoak “onenak” direla. Testu “ederrenak” baino gehiago, testu onenak, bikainenak, berezienak, hautatu nahi dira. Honekin ez da esan nahi, jakina, hautatutakoen artean asko, berez, onak, baliotsuak, ederrak, ez direnik; alderantziz, guztiz.

2.3. Euskal Literaturaren antologia bat osatzeak, landu beharreko objektu mailan, bi hautapen nagusi egitea eskatzen du: bata, ikusi denez, literatura, literatur testuak hautatzea; bestea, objektutzat, baita ere, “Euskal” Literatura hartzea. Antologia hau “Euskal” Literaturarena da, hots, jatorriz euskaraz, ahoz zein idatziz, sortuak edo argitaratuak izan diren testu literarioen Antologia. Elebakarra, euskarazkoa, beraz.

Beste hizkuntzetan asmatuak izan diren testuen itzulpenek Euskal Literaturari eginiko ekarpena biziki estimagarri eta onuragarria izan eta izaten ari dela, eta itzulpen horiek, era batera edo bestera, Euskal Literaturaren sistemaren atal osagarria direla aitortzea nahitaezkoa bada ere, Antologia honek ez du jatorrian euskara ez den beste hizkuntza batean ekoiztutako testuen itzulpenik jasotzen. Ezta ere, aurrena erdal moldaeraz agertu diren euskal testuak edota jatorrizko argitalpenean euskal testuaren parean erantsitako erdarazko bertsio edo itzulpenik, *Refranes y Sentencias* (1596) bilduman ageri den gaztelaniazko bertsioa, kasurako. Bai, ordea, euskaraz egindako egokitzapenak, landuak eta eraldatuak direnean, Oxobiren *Alegiak* (1926), esaterako. Irizpide honetan salbuespenak, bakanak: Joanes Leizarragak moldaturiko Testamentu Berriaren itzulpena (1571), adibidez, eredu linguistiko bestelakoa proposatu eta proiektio eta esangura historikoa izan duena.

Ondorioz, Antologia honetarako ez dira hautatzen, ezta ere, *Euskal herriarren beste literaturak/Las otras literaturas de los vascos/Les autres littératures des basques/Basque people's other literatures* <www.basqueliterature.com> delako multzoan sailkatu ohi diren testuak. Euskal Herrian sortu izan da eta sortzen da, besteak beste, gaztelaniaz eta frantsesez idatzitako literatura. Baina irlandera/gaelerazko literatura eta Irlandako literatura, frantsesezko literatura eta Frantziako literatura, finlandiera/suomierazko literatura eta Finlandiako literatura, gauza bera ez diren moduan, Euskal Literatura eta Euskal Herriko literatura –edo literaturak– ez dira kontzeptu edo errealitate baliokideak. Antologia honetan, behintzat, ez dira horrela hartzen. Hizkuntzaren bidez gauzaturiko jardunetan bederen, “euskal” terminoa “euskarazko”ren baliokidetzat, sinonimotzat, jotzen da. Erdarazko “vascos/basques” kontzeptuan kokatutakoek sortutako literatur testuak, bakar-bakarrik, jatorriz euskaraz sortuak edo plazaratuak izan direnean jasotzen dira.

Egia da, bai, Euskal Literatura ez dela planeta isolatu bat eta bere eremuan beste zenbait literaturaren presentzia nabari dela, nahiz kanpoko ukipen soilez, nahiz barne testuartekotasun sakonez txertatua. Egia da, orobat, Euskal Herrian, garai historikoetan bederen, ez dela soilik euskaraz hitz egin, eta euskara beste hizkuntza edo mintzamolde batzuekin (latina, gaztelania, frantsesa, gaskoia, nafar-aragoiera...), areago gaur egunean, elkarrekin bizi izan dela. Koldo Mitxelenaren hitzez: “ez da sekula euskara hemengoen adierazpide edo mintzabide osoa izan. Beste hizkuntzaren bat izan du beti aldamenean” (1981a: 264).

Baina, orrialde hauetan, Euskal Literatura, jatorriz euskaraz sortutako edo argitaratutako testuak besterik ez jasotzea hautatu da. Mitxelena berriro

harira: “Euskal Literatura ezin izan daiteke euskaldunek euskaldunentzat egin dutena besterik”, eta, noski, itzulpenaren zubiz, baita euskara ezagutzen ez dutenentzat ere. Eta jarraituz: “Aitzitik Euskadiko jendeak (...) erdaraz, edozein erdaratan, idazten duen neurrian ezin daitezke izan euskal idazle” (1981a: 260). Bada bestelako iritzirik. Hemen, oraingo honetan, auziari buruzko eztabaida alde batera utziz, bat egiten da Mitxelenaren baieztapenarekin.

Kontuan izan behar da, bestalde, arlo literarioak baduela alde instituzionala eta Antologia hau erantzukizun nagusitzat euskararen zaintza duen erakunde baten babespean –ez mendean– ari dela lantzen. Lan hau Euskaltzaindiaren asmo, ahalegin eta jardueren ildoan kokatzen da.

Hautaketa hau egiten bada, ez da, inolaz ere, jarrera murriztaile setati bati eusteagatik. Ez da, inondik ere, hizkuntza, nazioa eta literatura identifikatuz, Erromantizismoak literatur historiako sustatutako ereduaren hondar edo gotorleku atzerakoia. Xedea da, besterik gabe, naturaltasunez, beste hainbat hizkuntzatan egin eta egiten den moduan, mintzaira batez, kasu honetan euskaraz, sortutako literatura jasotzea.

2.4. Antologiaren sailkapenerako egin diren proposamenen artean, bada antologia gehienak oinarritzko tipologia bitarikoan biltzen dituenak: panoramikoak eta programatikoak (Ruiz Casanova, 2007: 119-139; 166-167). Panoramikoetan, alde historikoa da nagusi, ikuspegi historikoak du eraginik nabarmenena. Programatikoetan, antologiarako teorikoki hautatutako premisa edo balio estetikoak azpimarratzen dira gehienbat.

Antologia honek, jarrera biekinean zerikusi izan arren, gehiago bilatzen du panoramikoa izatea, programatikoa baino. Informatiboa, ikuspuntu zabalekoa, izan nahi du, Euskal Literaturaren ibilbide historiko osoa besarkatuko duena, eta ez aldi, literatur genero edo korrante estetiko bati lotua, mugatua. Antologia hau euskal literatur testu onenak, bikainenak, oparoki, eskuzabalki, aurkeztu saiatuko da, testuak hurrenkera diakroniko kronologikoan, aldi historiko eta mugimendu literario eta soziokulturalen arabera antolatuz, eta, dagokionean, genero edo idatzizko praktikaz sailkatuz. Asmoa, oinarritzko Antologia, testu literario aukeratuen funtsezko bilduma landua, balizko iturburua izan litekeen Antologia, osatzea da.

Testu onenen bidezko literaturaren ikuspegi orokorra bada ere, antologia bat ez da espresuki, berez, literatur kanon bat, ez eta literaturaren historia bat edo, nahiago bada, osokiago, historia literario bat. Antologia, kanona eta historia interdependenteak dira: bai teoriarik, bai jarduerarik literarioan, elkarrekin sakonki erlazionatuak daude. Hirurek alde komun ugari dituzte. Antologiek, bestalde, badute nolabaiteko eragina kanonaren eraketan eta

literatura baten historiaren konfigurazioan (Di Leo, 2004: 2). Baina, berez, entitate eta jarduera desberdinak dira.

1) “Kanon” hitza ez da, hemen –arte plastikoetan, literaturan edo modan, kasurako, inoiz hartu ohi den eran–, garai jakin bateko eredu, ildo edo joera estetiko nagusiaren adieran ulertzen. Azalpen honetarako, literatur kanona da, kultura jakin baten testuinguruan, literaturan sortu diren testu, obra, autore estimatuenen, erdigunekoenen, zerrenda edo multzoa. Sortutakoaren ardatza, muina, zentroa. Idazlan eta autore horiek, maiz, bikaintasun literario edo eredu jarraigarri moduan aurkeztu ohi dira.

Gaur egunean, sarritan, kanona ez ohi da oso begi onez ikusten bizitza literarioaren plazan. Itxi den zerrenda estatiko, ortodoxia eta tradizioaren euskarri, bidegabekeriak ilundutako hautatze eta finkatze gisa, da atzemana, maiz. Baina onuragarria eta erabilgarria izan daiteke. Horretarako, bere funtzioa zuzen bete dezan, kanonak entitate irekia, malgua eta dinamikoa izan behar du: etengabe berraztertua, gaurkotua, testuinguru kulturalen bilakaeran, literatura eta literatur balioaz hartzen diren ikuspegi egiaztatuen arabera.

Kanonak bezala, antologiak ere literatura batean nabarmentzen den onena, baliotsuena, jaso nahi du, eta honen harira, eduki, funtzio eta erabilerazko alde komunak ditu kanonarekin. Nolanahi ere, antologia eta kanona bat etor daitezke edo ez, antologia kanona izan daiteke edo ez. Badago antologia kanon moldean, asmo eredugarritz, autore eta testu jarraigarrien bilduma gisa aurkezterik, baina, baita ere, bestela, soilki literatura baten ardatz eta lerro nagusien bilduma antolatu modura. Berez, antologiak ez du zergatik, derrigorrean, kanon, autoritate zerrenda, izan. Gainera, antologia, kanona ez bezala, benetako testuen multzoa da, ez zerrenda soila.

Antologia izan daiteke, bai, kanonerako proposamena. Antologiak, hain zuzen, lagundu egiten du kanonaren eraikuntzan. Baina kanonizatzea ezin da antologia soil baten ondorioa izan (Ruiz Casanova, 2007: 154).

Horrela bada, Antologia honekin, ez da kanon bat eta, are gutxiago, jarraitu behar diren modeloen zerrenda gisa aurkeztutako kanon bat bilatzen. Asmoa ez da kanonizatzea edo ereduz hornitzea. Joan Bautista Agirre Asteasukoa edo Domingo Agirre nobelagilea, ez dira gaur egun literatur idazketa praktikarako eredu edo ispilu funtsezko; izatekotan, gehienez, gordailu linguistiko aberats, garaiko idazkeraren lekuko, edota baliabide konkretu zenbaiten maisu trebe. Hori dela eta, ez lirateke literatur sortze lanerako kanon eredugarri modernoa izan nahiko lukeen antologia batean sartuko. Baina euren garaiko Euskal Literaturaren barne joeren adierazpide dira eta, horregatik, aurrerago azalduko denez, onargarriak Antologia honetan.

Antologia honek biltze zabal izatea du helburu, literatur kanon bat baino irekiagoa. Biltze honen barruan, jakina, kanon batean segurki jasoak izango liratekeen idazlan eta autoreak ere daude hartuak. Baina Antologia, horiek baino gehiago da: Euskal Literaturan sortu diren testu bikainen hautapen zabal eta oparoa.

2) Antologia panoramikoa literaturaren historiatik hurbil dabil, baina ez da propioki literaturaren historia bat, are gutxiago historia literario bat.

Literaturen historia eta historia literario orok aurretiko antologia bat eskatzen du; edozein antologia literaturaren historia eta historia literario bati buruzko kontzeptuaren ondorioa da. Hortaz, biak ala biak, historia eta antologia, elkarri egokitzen zaizkio, konkaboa eta konbexua, molde hutsa eta erliebeko domina modura (Reyes, 1930/1983: 125-126). Elkarren artean teilakatzen dira.

Antologia, testuen eta testuei erantsitako sarrera eta oin-oharren bidezko historia literario gisa uler eta erabil daiteke, eta, bestalde, historia literarioa, berez, da “el trazado de una antología que selecciona de entre todo lo escrito aquello que merece destacarse, presentarse y enseñarse” (Pozuelo Yvancos eta Aradra Sánchez, 2000: 125). Antologia eta historia elkarren beharrean dira, elkar sostengatzen dute.

Hala eta guztiz ere, antologia bat, zehazki hartuta, ez da literaturaren historia ohikoa. Antologiak, panoramikoa izanik ere, ez du historia literario osoa jasotzen, ez eta garai historiko jakin batean literaturaz nagusi den ikusmoldearen alde oro islatzen. Antologia bat ez da literatura guztia, literaturaren historia osoa, literatur bizitza betea, muga nabariak dituen ikuspegi zabala baizik.

Hortaz, Euskal Literaturaren Antologia hau Euskal Literaturaren historiatiko osagaiez, guneko osagaiez –testuak, alegia– dago moldatua, eta, alde honetatik, euskal testu literarioen bidezko Euskal Literaturaren historia gisa ere irakur daiteke. Ez da, haatik, propioki Euskal Literaturaren historia osoa.

Bestalde, barne egiturari, hots, aldikatze edo periodizatze orokorrari, dagokiola, Antologia hau gehiago da tradizional edo klasikoa, errotik berritzaile edo ezustekoa baino. Darabilen aldikatzeari, egituraketa, ezaguna da oro har. Aldikatze eta azalpenetarako, jadanik landutakoez, argitaratutako historia eta ikerketek ari da baliatzen: horiek eratu, osatu, ñabartu, eta euskal bizitza literarioaren azterketan egingo diren balizko aurreratze eta proposamenen zain geratzen da.

Noski, dibulgazioa eta azterketa uztartuz, unean uneko ekarpen berriei muzin egin gabe. Euskal Literaturaren ikerketan eginiko azken ekarpenak jaso bai, baina, egoki edo beharrezko ikusten denean, baita planteamendu

propioak ere eginez, bai aldikatzearen alorrean, bai generoen banaketa edo testuen azalpenean. Gainera, jakinik antologia bat ez dela ukiezinezko eraikuntza eta garai bakoitzak bere antologiak izan ohi dituela, irekia dago, behar konkretuen arabera, balizko berrikuste eta egokitzapenetara.

3. Hartzailea, maila eta funtzioa

Antologia honen zuzeneko jomuga, hartzaile eredua, Unibertsitateko Gradu hasierako ikasle eta irakasleak dira. Zehazkiago, Euskal Literaturaren historiaren oinarritzko literatur testuen ezagutza beharrezkoa duten Gradu hasierako ikasturteetako ikasleak eta euren irakasleak. Horiengana dago zuzendua begirada, bereziki.

Halaber, material baliagarri eta erabilgarria izan daiteke Irakaskuntza Ertaineko azken ikasturteetako ikasle eta irakasleentzat, eta, nola ez, Euskal Literaturaren ezagutzaz eta esperientziaz zinez interesatutako irakurle ororentzat, Euskal Literaturaren munduan murgiltzea edo hasierako harreman fidagarria bilatzen duen espezializaziorik gabeko letrazale edonorentzat.

3.1. Zuzeneko jomuga hori dela eta, Antologiaren maila zientifikoa, eskakizun maila, Unibertsitate hasierari dagokiona da, goi-mailako dibulgazioarena alegia, ikerketa eta dibulgazioa uztartzen dituen. Informazioa, zabalkundea, baina landua, jorratua.

Antologia hau ez da, beraz, beti aise eskuragarriak, entretenigarriak edo denbora-pasa hutsezkoak diren testuen bilduma. Jasotako testuen artean badira euskararen berezitasun lexiko eta gramatikalen ezagutza egokia eskatzen duten testu zailduak, agian, inoiz, *xxi.* mendeko irakurle ertainarentzat arrotz samarrak, ez irakurketa eroso eta atseginez jasotzekoak. Baina badira baita gozatze literario samurrekoak ere. Esan liteke, testuetatik gehienak testu landuak baina erakargarritasun nahikoz jantzitakoak direla. Azalpenek eta oin-oharrek, bestalde, testuetarako sarbidea errazten dute.

Horrela bada, dibulgaziorako asmoa baztertu gabe, Antologia honek denbora-pasa jolasgarri hutsezkoa baino gehiago, teknikoa, sistematikoa, izan nahi du.

3.2. Euskal Literaturaren Antologia honek badu baliotsua, funtzionala, izateko aukera. Hortaz, merezi du gauzatzea.

Onartua eta azaldua jadanik literatur gertakariaren balioa eta estimua –ezinbesteko urratsa hurrengo hau emateko–, asumitzen da, hemen, antologia batek, eta zehazki Antologia honek, baduela funtzionaltasunik, baliagarritasunik.

Noski, antologia baten balioa eta erabilgarritasuna ez dira aho batez baietsitako gauzak. Jarrera kritikoak, arbuiagarriak ere, ez dira falta, eta aurrerago aurkakotasun horren balizko arrazoi batzuk azalduko dira. Hala ere, nahiz eta antologiak ez diren, ezta gutxiagorik ere, *bestseller* horietakoak eta ez duten eragin nabarmenik izaten edo ez diren erruz irakurtzen eta erabiltzen, kritika, zalantza eta zenbait jarrera postmodernoren gainetik, proiektu honetan onartu egiten da Euskal Literaturaren Antologia hau interesgarria eta onuragarria izan daitekeela.

Antologia bat, Antologia hau hain zuzen, teorian bederen, posibilitate modura hartuta, funtzionala da edo izan daiteke alde askotatik.

Oinarritzko maila primarioenean, antologia batek funtzio informatiboa betetzen du. Tresna aproposa da literatur testu onenen zabalkunderako. Euskal Literaturaren Antologia honek balio dezake, gutxienez, zenbait euskal testu ezagutarazteko eta, bereziki testu horien bidez, euskal bizitza literarioaren alde ugariz informazioa jasotzeko. Ahalbidetu lezake Euskal Literaturaren bilakaera prozesua edo ibilbidearen tarte bat, hurbiletik eta materialki, testuen bidez, aiseago ezagutzea.

Maila kolektiboago batean, kultur komunitateari begira, antologia batek gordailu eta transmisio funtzioa izan dezake. Komunitatearen memoria azkartuz eta elikatuz, zerbaitegatik baliotsua eta iraunaraztekoa den tradizioa bizirik mantentzeko zutabeetariko bat da.

Izaera kolektibokoa orobat: funtzio aglutinatzailea. Antologiak sakabaturik dauden testuak batera ipiniz (Manguel, 1987: 70), historia literarioan zehar barreiatutako osagaiak elkarretaratuz, horren erabateko ez diren mugarrien gainetik mugimenduak kateatuz, literatur segidaren jarraitutasuna jartzen du agerian. Antologia, modu honetan, tresna apal eta mugatua baina errealia eta eraginkorra izan daiteke komunitate linguistiko kulturalaren kohesioa, bere literatur praktikaren bidez, apur bat gehiago estutzeko.

Euskal Literaturaren antologia batek lagun dezake euskal komunitatearen memoria literario eta kulturala antolatzen, eta euskal bizitza literarioa, ez 1978an (*Etiopia*), 1964an (*Harri eta Herri*), edo 1957an (*Leturiaren egunkari ezkutua*), ez eta xx. mendean ere, baizik eta zenbait mende lehenago hasten delako kontzientzia hartzen. Euskal imajinarioaren taxuketan eta euskal irakurleria sendotzeko prozesuan bidelaguna.

Ez bakarrik komunitatearen barrurantz, baita kanporantz begira ere. Antologiak balio lezake, itzulpenari esker eta elkarkomunikazio ekintzaz, euskal ekoizpen literario bildua eta hautatua beste komunitate linguistikoen aurrean aurkezteko, elkarrekiko ezagutza, harremana eta erkaketa partekatua sustatuz.

Gizabanakoaren mailan, antologiak funtzio ebaluatzailea betetzen du. Irakaskuntza Ertaineko eta Unibertsitateko programak, irakurketa zerrendak, hedabideetako literatur kritika, sariak, inkesta eta *rankingak*, irakurleen arteko ahoz ahokoa, eta beste faktore zenbaitekin batera, antologia, bikainen jotzen dituen testuak aurkeztean, literatur kritika eta ebaluaziorako eragile bat da. Euskal Literaturaren esparruan kritika urritasuna eta beharra maiz aldarrikatzen den honetan, eskasia hori arintzeko ekarpen xume bat.

Antologiak, funtzio informatibo eta ebaluatzaileari esker, funtzio pedagogikoa ere joka dezake, ikasleentzat, euren irakasleentzat eta, oro har, irakurle interesatuentzat onuragarri izan baitaiteke. Aurkitzen beti erraza ez dena bilduz, testuen zurrumbilo maiz itogarri, nahasgarri eta zorabiagarritik bikainenak hautatuz eta eskura jarritz, material egokia eskaintzen du kontsulta, ikasketa, ikerketa eta gozamenerako. Testuak eta hornidura paratestuala irakaskuntza eta hezkuntzarako baliagarriak eta eraginkorrak dira.

Azkenik, antologiaren funtziorik behinena, balio izateko arrazoirik sakonena, funtzio eragilea da. Antologiaren betekizunik funtsezkoena: irakurzaletasuna sustatzea, gehiago, maizago eta hobeto irakurtzeko akuilu gisa jokatzeta. Bere horretan kontsultatua eta irakurria izateaz gainera, antologiak bultza dezake –bultza egin behar du– bertan jasotako eta ez jasotako autoreen testuak oparoago eta arretatsuago irakurtzera.

4. Izaera

Berez, antologia da aurretik badiren eta, betebeharrak eta irizpide jakinen arabera, osotasun zabalago batetik hautatuak izanik, egitura berri batean integratuta jokatzera aldatzen diren objektuen bilduma.

4.1. Antologia, hortaz, objektuen edo zatien batzea, bildumatzea, da. Jasotako atalak, objektuok, mota askotarikoak izan daitezke, kulturaren alor ugaritakoak: musika, zinema, pintura, fotografia eta abarretakoak, eta, jakina, literaturaren eremukoak, direla poemak, kontakizunak, teatro lanak, saiakerak eta bestelakoak. “Antologia” hitza, bereziki, literaturarako erabili ohi da.

Atalak, piezak –testuak hemengoan–, badira jadanik bildumara ekarriak izan baino lehenago; aurretik asmatuak, argitara emanak eta transmitituak izan dira. Hautatutakoak ez dira espresuki antologiarako sortuak. Antologiak atzera begiratzen du, iragana jasotzen du, aspaldikoa edo duela gutxikoa, baina beti iragana.

Antologia literarioa, beraz, testu biltegia da, liburuen liburua (Ruiz Casanova, 2007: 44), mikrokosmosen makrokosmosa (Antonio Colinas, in Palenque, 2007: 4).

Baina antologia ez da biltze hutsa, pilaketa amorfo soila. Bildutako testuak hautaketa prozesu baten ondorioz daude jasoak, euren bikaintasun edo berezitasunagatik onenak direlakoan aukeratuak. Helburua ez da literatura, mugimendu literario, hizkuntza edo genero bateko testu guztiak biltzea. Antologia bat egitea, funtsean, hautatzea da. Ezaugarri saihetsezina.

Etimologikoki “antologia” grezierazko *anthologiatik* dator: lore bilketa eta aukeraketa esan nahi du. Esanahia zabalduz, irudizko adieran, lore literarioen, hots, testu literario onenen bilketa eta aukeraketa. “Antologia” hitzak, beraz, jatorriz, bilketaz gain hautaketa ere adierazten du.

Antologia hau hautatze-bildumatze motakoa da.

Dena den, ohiko hautatze antologikoa bigarren graduako hautatzea da (Guillén, 1985/2005: 375). Berez, prozesu antologikoak autorearekin berarekin du hasiera. Hura da lehenengo hautatzailea, argitaratuko duen obrarako testu batzuk aukeratu eta beste batzuk baztertu egiten dituen: lehen graduako hautapena. Aukeratze lan horretatik abiatuz, irakurleak, dela irakurle arruntak, dela antologia-egileak, aukeraketa berri bat egiten du, bigarren graduakoa. Azkenean, hirugarren graduakoa jarduna, antologiaren erabiltzailearena (Ruiz Casanova, 2007: 76-77).

Hautatutako testuak, antologian, multzo eta egitura berri batean txertatuak izatera pasatzen dira. Antolamendu berri baten harira gelditzen dira eratuak, euren artean bestelako lotura, harreman eta testuarterekotasunak sortzen direla. Berez testu diskretuak, etenak, jarraitutasun ezaz markatuak dira, muga zehatzak, objektiboak dituztenak. Beren jatorrizko testuingurutik erauziak, deskokatuak, izan dira, baina orain, eraikuntza berri batean, antologian alegia, birkontestualizatuak, birjosiak eta jarraitutasun eza lotuan birkokatuak.

4.2. Antologia-egileak, zerbait izatekotan, aurren-aurrena, irakurleak dira, gustu edo sentiberatasun literarioz, eta irakurleen batez bestekoa baino irakurketa esperientzia landuago eta zorrotzagoz jantziak. Horrez gain, irakurle antologia-egileei eskatzen zaie hala literatur tradizio eta historiaren nola oinarritzko kontzeptu teoriko eta kritikoen ezagutza, eta, halaber, testuak editatu eta euren testuinguruan aztertu, interpretatu eta balioesteko gaitasuna.

Arretaz irakurri eta berrirakurri egiten duten irakurleak izanik, identifikatuago sentitzen dira testu batzuekin besteekin baino, hots, eurengan inarrote, dardarazte edo liluratze sakonena pizten duten testuekin. Antologia-egilearen rola bereganatuz, bildu egiten dituzte testu horiek egitura

berri batean, antologian alegia, itxaron izanez eurengan sorrarazitako inpresioa sorrarazitako dutela gainerako irakurleengan ere.

Antologia-egileak testuen eta irakurleen artean zubi lana betetzen duten irakurleak dira, literatur testuen ugaritasun ezin besarkatuzkotik beren iritzi eta esperientziak irakurriak eta gordeak izatea merezi dutenak aurkeztuz. Bitartekaritza apala. Irakurle kualifikatuak badira ere, ezin dute besteen ordeztu irakurri. Gainerako irakurleek beren irakurketa propioa egin behar dute. Horregatik, antologia-egilea ezin da obraren protagonista nagusia izan, irakurketarako laguntzailea, gida edo bitartekoa baizik.

Bestalde, irakurle oro da, berez, alderen batetik, antologia-egile. Irakurle arruntak ere antologia edo hautatze lana betetzen du. Literatura-lanak irakurri ahala, idazle eta obra gogokoenak izatera iristen da, zirrararik bereziaren sorrarazi diotenak, eragin biziena izan dutenak. Horiek gainerakoak baino arrasto sustraituagoa utzi eta iltzatuago gelditzen zaizkio oroimenean eta imajinarioan. Irakurleak beren antologia pertsonala osatzera ere hel daitezke. Baina askoz gutxiago izaten dira testu hautatu horiek obra batean jaso eta bilduma landu moduan argitaratzera iristen direnak. Hori, jadanik, antologia-egile bereziaren eginkizuna da (Manguel, 1987: 68).

4.3. Antologia eta, batik bat, bere-berea duen hautatze eta, ondorioz, baztertze ekintza, gizarte bizitzan ageri diren beste zenbait praktika edo egoerarekin alderatu ohi dira. Konparazio batzuk, noski, besteak baino egokiagoak, hobeto asmatuak, dira.

Iradoki izan da antologiak mapak bezalakoak direla, irudikapen kartografikoen antzekoak, eta ez lurraldeak. Mapa, berez, ez da benetako lurraldea, honen marrazki murritzua eta bertako toki nagusien seinatze grafikoa baizik. Antologia ere ez da lurraldea, literatura osoa alegia, egiazko literatur bizitza bera, gida edo panoramika hautatua baino. Dena den, bada desberdintasunik. Mapak ez du ezer egiazko lurraldetik; antologiak, aldiz, lurralde testual osoa ez bada ere, benetako testuak jasotzen ditu. Ez da literaturaren mapa, irudi grafiko, hutsa.

Katalogoarena edo inbentarioarena ere ez da oso konparazio zuzena. Katalogoa, inbentarioa, zerrenda soila da, gehienez objektuen irudi batzuez hornitua. Zerrenda horretan ez dago objektu errealik, egiazkorik, izenak besterik ez baizik. Antologian, katalogoaz gainera, esanahia sortzeko abiapuntu diren testuak euren materialtasunean ageri dira. Katalogoan, bestalde, oro har, ez dago hautapenik.

Hurrengo konparazioak hurbilago daude antologiaren izaeratik. Horietan, hautatutako objektuak ez dira modu grafiko edo birtual soilez azaltzen, beren benetako forma errealean, nahiz eta ez beti osoan, baizik.

Dastatze menu bat, zerrenda soil moduan hartuta, aurrekoak bezala, ez litzateke konparazio egokia izango. Mahaira egiazki ateratako menu gisa, ordea, zuzenago. Hor, jada, egiazko janariak daude; hautatutakoak benetako platerak dira. Eragozpena, antologian ez bezala, beti ez direla plater onenak hautatzen, jabetxearen estrategia komertzialari hobeki doazkionak baino.

Trailerrek edo film aurrerapenek, eta hedabideetan idazlan osoaren lagin gisa aurreratu ohi diren zatiek badute antologian biltzen diren testuekin antzekotasunik. Hautatuak dira eta ikustera edo irakurtzera bultzatzen dute. Dena den, mugatu samarrak dira eta, nagusiki, publizitate helburuz, salmenta eta kontsumoa berotzeko asmoz sortuak. Gainera, trailer, pasarte edo lagin horietan, ez dira, berez, obraren zatirik onenak hautatzen, liburu hasierak, pasarte nabarmenenak eta horrelakoak baizik.

Antologia museo batekin ere konparatu ohi da. Museoan, antologiaren moduan, ez da autoreen produkzio osoa, obra guztiak alegia, baina bai benetako obra osoak erakusten. Baina, antologian ez bezala, ohiko museoetan, ez da hautapen bat egiten, ez dira artisten obra onenak aurkezten, askotariko gorabeheraz edo zirkunstantziaz, museora iritsi direnak baizik. Antologia zehazkiago konpara liteke bertan presente diren artisten obra onenak, hautatuenak, jasoko lituzkeen balizko museo batekin.

Agian, konparaziorik egokiena erakusleihoarena, erakustokiarena da. Bertan, dendan, biltegi edo funts osotik hautatutako pieza errealak, benetakoak, osorik edo zatiz, azaldu ohi dira. Hautapena eta egiazkotasuna uztartzen dira. Kanpaina, merkealdi edo denboraldi bereziak salbu, lagin aukeratua, osotasunaren adierazgarria, izaten da. Eragozpena, berriro, denda bateko erakusleihoa salerosketa sustatzera dagoela bideratua.

Disc-jockey baten lana ere egokia da antologiaren izaera konparazioz azaltzeko. Disko jartzaileak disko zatiak, girorako aproposenak, hautatu eta modu desberdinez konbinatuz, lotura edo gurutzaketa berriak sortzen ditu. Dena den, praktika hau antologiaz harantzago doa, antologian testuak bereiz eta egoera estatikoagoan baitaude jarriak.

Beraz, laburbilduz, antologiak badu, konparatiboki, dastatze menu, trailer, museo edo disko jartzailearen lanarekin kidetasunik, baina, ñabartuz gero, batez ere erakusleihoarekin. Erakusleihoarena, salmenta kutsua, dendarekin duen lotura, ezabatzen edo lausotzen bazaio eta laginen erakustoki gisa soilik hartzen bada, irudi ezin argiagoa da Antologia honek zer izan nahi duen adierazteko: hautatutako pieza edo testu onenen erakusleiho panoramikoak, erakustoki zabal, ikusgai eta irekia, non sartzera, bide egitera, arakatzera eta goatzera gonbidatzen den.

4.4. Ikuspuntu konparatibo eta antropologiko batetik begiratuta, pieza hautatuen bildumak, albumak, lorategiak edo antologiak mendebaldeko zein ekialdeko kultura ugari eta askotarikoetan izan dira moldatuak. Ia-ia ez dago antologia edo antzekorik ez duen kulturarik. “Es más, difícil es concebir la existencia de una cultura sin cánones, autoridades e instrumentos de autoselección” (Guillén, 1985/2005: 375). Gertakari ia unibertsal hau, beraz, ez da kointzidentzia hutsezko ondorioa, baizik eta “la comprobación de una dimensión supranacional, es decir fundamentalmente humana” (ib.: 41).

Halaxe da. Biltze eta hautatze horren unibertsaltasuna, hots, jarduera hori denbora eta espazioz gainekoa, kultura gehienei komuna, izatea, ezin da txiripa hutsezko ondorioa, ustekabeko batera-gertatze edo kointzidentzia soila izan. Praktika honen sustraia, sakoneko zergatia, giza izaeran bilatu behar. Jarduerak oinarri antropologikoa du.

Gizakiak, batetik, ezin du errealitate osoa besarkatu, bereganatu. Ezagutza, gaitasunaren eta denborazko iraupenaren aldetik, mugatua da. Kanpo eta barne mundua aztertu eta balioetsi ondoren, egoera, interes eta helburuen arabera, errealitate horretako osagaien artetik batzuk nabarmentzera, aukeratzera, jotzen du. Bestetik, baliotsua, onuragarria, gordetzen eta iraunarazten saiatzen da. Iraute nahia eta aldaketa, berritze gosea, elkarrekin doaz.

Hau guztia, eguneroko bizimoduan, alor eta jarduera ugaritan sumatzen da. Bidaietan, tokiak eta harremanak hautatzen dira; lehiaketetan, iaioenak, bikainenak; politikan, hautagai eta programen artetik, prestuenak, egokienak; salerosketetan, onuragarrienak, beharrezkoenak; eta abar. Hitzeko komunikazio prozesua bera ere, ahozkoa zein idatzizkoa, itzulpen eta literatur lantze oro barne, beste ezer baino lehen, konbinazioan amaituko den hautapena da.

Giza bizitza, objektu edo errealitate pusken arteko aukeratu beharraz dago blaitua. Etengabeko hautaketa, maiz jasotze eta kontserbatze urratsez osatua. Oraingo giza izaerak errotiko aldakuntza izaten ez duen bitartean, hautatzeak, biltzeak eta iraunarazteak ohiko giza jarrerak izaten jarraituko dute.

Antologiaren izateko arrazoiatariko bat honetan datza. Antologiak jarduera edo behar sakonki gizatiar bati erantzuten dio.

5. Betebeharrak eta hautatze-irizpideak

5.1. Antologia batek gutxieneko betebeharrak zenbait zaindu behar ditu, ganorazkoa, benetakoa, izan dadin.

Adierazgarritasuna edo errepresentatibitatea. Antologiak, hautaketa egiteko hartu den multzo zabal osoa ahalik eta zehazkien adierazten saiatu behar du, jorratu nahi den esparru osoaren eta egiatan hautatutako gune mugatuagoaren artean elkarrekiko egokitzea lortzen ahalegindu. Osotasunean dagoen onenarekin batera, bertako aniztasuna erakutsi behar du, askotariko joerei, tankera desberdineko lerro literarioei, toki eginez.

Antologia honek Euskal Literatura leialki ordezkatzera, euskal bizitza literarioan ageri diren praktika eta sailak adieraztera, iritsi nahi du: euskalki, eremu geografiko, jarrera tradizional eta berritzaile, genero literario, sexu identitate, euskarri erabilgarri (ahozko, inprimatu, digital...) eta bestelako alorretan gauzatzen diren jarduera literarioak.

Horien guztien ordezkari edo adierazgarri izan behar du benetako antologiak. Jakina, ez edonola, edozein preziotan, gutxieneko kalitateari eutsiz baizik.

Adierazgarritasuna neurriz, proportzionaltasunez, gauzatu behar da, autore, testu eta atalen arteko orekari eutsiz, onena islatzeko nahiaren eta ordezkatutakoen arteko parekotasuna adostuz. Ahal den neurrian, autore eta testuen tratamendu parekatua desorekatuko duten aurreiritzi baztertzaila eta lerratze okerrak saihestea komeni da. Honek ez du partiketa guztiz uniforme, espazioen banaketa zeharo berdindua, esan nahi. Adierazgarritasuna ez da autore, testu edo orrialdeen kopuru kontua soilik. Proportzionaltasunez jokatzeko, merezimendua, balioa eta singularitasuna ere gogoan izan behar, orekak ez baitu iritzi kritikoa baliogabetzen.

Antologia orokor baten azalean eta izenburuan, hautatutako autoreen izenik ez agertzea parekotasun printzipioaren seinale garbia da. Hor ikusten da antologia idazle askorena dela eta bildumak guztiei sarbide aukera berdina eskaini nahi diela. Testuen kalitate maila, garrantzia eta berezitasuna izango dira, oro har, galbahea. Gainera, bestalde, badira berdintasun artifiziala ñabartzeko bitartekoak: aukeratutako testuen kopurua, sarreraren tonua, tipografia eta abar.

Adierazgarritasun proportzionalak koherentziari eutsi behar dio. Hautatze antologiko osoan zehar, aurretik ezarritako eta lanean, prozesuan, zizelkatzen diren hautapenerako irizpideei eta jokamoldeei atxiki behar zaie, desbideratzeak, lotura ezak, kontraesanak, ahalik eta gehien gutxituz.

5.2. Antologia batek, beste edozein hautatze ekintzak bezala, aipatutako betebeharrak zaintzeaz gain, gustu, zaletasun eta balio-irizpide zenbait jarraitu ohi ditu.

Askotarikoak izan arren, irizpide oinarritzkoenak ardatz gutxi batzuen arabera molda daitezke. Sarrera honetako aurreko ataletan, agertu dira

dagoeneko, zuzenean edo zeharka, Antologia hau gidatzen ari diren irizpide horietariko zenbait. Oraingo honetan, gaiari espresuki heldu eta irizpideen azalpen zehaztuago eta lotuagoa ematen da.

Antologia baten konfigurazioan bi irizpide mota zabalek eragiten dute edo eragin dezakete (Reyes, 1930/1983: 128-129; Torre, 1942/1948: 122-123; Everett, 2010: 64-65).

Irizpide estetikoa. Honen arabera, arreta literatura-lanean gauzatutako lorpen estetikoetan jarri ohi da. Balio, kalitate, perfekzio artistikoa hartzen da kontuan. Antologiak nagusitzat funtzio estetikoa duten idazlanak hautatzera jotzen du. "Estetikoa" modu irekian ulertuz.

Irizpide historiko-kulturala. Batik bat idazlanen balio historikoa, adierazgarritasun historiko-kulturala, hartzen da aintzat. Antologian, garai historiko eta literario baten izaera erakusteko eta literatura horren garapen diakronikoa azaltzeko aukerakoenak diren idazlanei ematen zaie lehentasuna.

Modu zabal eta orokorrean formulatutako funtsezko irizpide hauek baliza orientatzaile moduan jokatzeko dute antologiaren taxutzean. Hauekin batera, badira bestelakoak ere, konkretuagoak, unean unekoak, aurreko horien osagarriak: idazlanari eta autoreari dagozkienak, hala nola ospea, denboran zeharreko iraupena, obra eta autorearen gaurkotatzea eta abar; irizpide funtzionalen arloan, esaterako, irakurlearen beharrak edo eskakizunak, irakaskuntzarako erabilgarritasuna, edo balio ideologikoa; erakunde eta kolektibitate mailako irizpideen artean, berriz, argitaletxe eta salerosketen interesak, tankera politiko eta instituzionaleko zergatiak, gizartearen aniztasun kulturala islatzeko asmoak eta abar.

Irizpide hauek guztiak ez dira euren artean bateraezinak, ez dituzte batzuek besteak baztertzeko. Antologia gehienetan erabilgarriak irizpideak, nahiz eta bakar batzuek osatu ardatz nagusia, askotarikoak izaten dira.

5.3. Euskal Literaturaren Antologia hau oinarritzko hautatze-irizpide gutxi batzuek eta osagarri diren beste zenbaitz baliatzen da.

Irizpide horietako zenbait lan antologikoari ekin baino lehen eztabaidatu eta erabaki dira. Beste zenbait prozesuan, praxian, zehazten eta berresten ari dira. Esana da, hasieran, Antologia hau arian, martxan, dagoen antologia bat dela. Antologia honi oraindik gelditzen zaion ibilbidea luzea da eta, seguruenik, irizpide eta erabaki berriak hartu beharko dira, aurrekoekin bateragarriak.

1) Bi dira oinarritzko hautatze-irizpide gidariak.

a) Goi-mailako dibulgazioa. Antologiaren helburuak eta hartzaile ereduak, hau da, obra Unibertsitateko Graduoko lehenengo ikasturteetarako izateak

eskatzen du –jadanik azpimarratutakoa berretsiz– aukeratutako testuek eta moldatze paratestualek maila zientifiko duin bati edo, bestela esanik, goi-mailako dibulgazio jarrera bati eustea.

b) Irizpide estetikoaren eta historiko-kulturalen arteko uztarketa. Irizpide estetikoaren eta soziokulturalen, kontestualen, gurutzaketak gidatzen du Antologia hau. Gorago azaldutako literaturari eta literatur bizitzari buruzko ikusmoldeak, testuen hautaketan eta paratestuen taxuketan, irizpide estetikoak eta historiko-kulturalak konbinatuz jokatzera behartzen du.

Ez faktore estetikoak, ez eta historiko-kulturalak, bakoitza bere aldetik, bereiz hartuta, ez dira gai gertakari literarioaren azalpen nahikoa emateko. Literatur bizitza esplikatzen eta ulertzeko biak ala biak hartu behar kontuan, bai idazlanaren adierazte eta edukizko eraikuntza, bai sortu zen testuinguru historikoan izan zuen eta gaur egungoan betetzen duen funtzioa eta funtzionamendua. Beraz, testuak hautatzeko eta paratestuak moldatzeko unean bi irizpide motak josi eta jarraitu behar dira.

Horrela, beren balio estetiko, kalitate literario edo asmo artistiko sortzaileaz nabarmenak diren testuak hautatzen dira. Besteak beste, euren originaltasun, edukiaren balio edo aberastasun semantiko, formaren egokitasun eta edertasun, edo baliabide eta figura erretorikoaren erabilerarengatik aipagarriak diren testuak. Halaber, maila estetiko jasoaz hornituak izanik, adierazgarritasun historiko eta kulturala duten testuak. Alegia, Euskal Literaturan, adierazgarritzat hartuak izan diren autore eta testuak; euskal tradizioan, mendeetan zehar, ezagutu, erabili, balioetsi eta transmititu egiten direnak.

2) Erabilitako beste zenbait hautatze-irizpide osagarri.

Batzuetan, unean uneko gorabeheretan, lantaldeak testuak hautatzeko beste zenbait irizpide baliatu ditu. Segidan horietako batzuk.

Testua, gaurko ikuspegitik, gaur egungo harrera modutik, onartua izatea, hots, modernotasuna darion testua izatea. Bernat Etxeparearen “Kontrapas”, kasurako.

Testua zerbaitean lehenengoa izatea. Ez da guztizko irizpidea, zeren eta gaiak zeinetan testuak lehenengoak izan litezkeen, lehenengoak izateko aukerak kontaezinak, atzeman ezinak, baitira. Bakarrik, ekarritako berritasuna egiazki esanguratsua bada. Literatura-lanaren atarikoaren alorrean, lehenengo “Gomendiozko karta”, Etxeparearena, esaterako.

Erabatekoa ez bada ere, aukera denean, testua erakargarria, irakurgarria, interesa pizteko modukoa, izatea.

Inoiz, arrazoi filologiko edo linguistikoengatik, berezia, nabarmena den testua. Leizarragak egindako Testamentu Berriaren itzulpena, adibidez.

Autoreak landutako gai, molde, egitura edo genero nagusien lagin adierazgarri bat bederen jasotzea, horrela autorearen sortze aniztasuna garbi ageri dadin.

Euskal eremuko zantzuak, erreferentziak (toponimoak, bizimodua...) erakusten dituen testua izatea. Paremien arloan, esaera zahar edo atsotitz zenbait, esaterako.

Eta abar.

5.4. Hautatze-irizpideen atal hau aproposa da testuen kopuru eta neurri edo luzeraz aipamen bat egiteko.

Autore bakoitzetik hartutako testu kopuruari begira, malguki jokatzeko ari da. Autoreen artean, euren produkzioaren barruan, kalitate eta adierazgarritasun mailak daude. Printzipioz, kalitatea zenbat eta bikainagoa eta hedatuagoa izan, orduan eta testu kopuru handiagoa. Garrantzitsuetan apalagoetan baino testu gehiago jaso behar.

Hala ere, jadanik seinatu den moduan, oreka nahi da, proportzionaltasuna. Baina neurri matematikoak ez dira hemen baliagarriak. Autore batek produkzio txikia izan arren –Etxeparek esaterako–, bere testuen kalitate edo adierazgarritasun esanguratsuagatik, kopuru proportzionalerik, obra handiagoa baino garrantziz eskasagoa den beste autore batek baino tarte zabalagoa izan dezake Antologian.

Oro har, autore edo genero bakoitzetik kopuru oparo, lagin eskuzabala, jasotzera jotzen ari da, Antologia honi eman nahi zaion izate panoramikoaren harira.

Testuen neurriari, luzerari, dagokiolarik, testu unitate osoak edo ahalik eta osoenak biltzen dira. Osoak, jakina, erlatiboki: kontakizun laburrak salbu, ez baita obra (nobela, antzerkia, poema-bilduma, saiakera...) bete-betean jasotzen.

Neurtitzetan, oro har, poema edo bertso zerrenda osoak hartzen dira. Prosa narratiboan, kapitulu edo kontakizun osoak. Artikulu, saiakera, antzerki agerraldi, eskutitz, hitzaurre eta horrelakoetan, batzuetan osorik, besteetan zatiz, baina beti testuari hasiera, garapen eta amaiera lotua, koherentea, ematea bilatuz.

6. Anbibalentziak eta arazo komunak

Antologia, beste entitate edo ekintza askoren moduan, jarduera eta emaitza baliobiduna, anbibalentea, da. Antologiak baditu, aldi berean –zein ikuspuntutik hartzen den–, alde argi, positibo, onuragarriak, bai eta,

alderantziz, aurpegi ilun, negatibo edo oker antzekoak. Tirabiran, muturreko joeren arteko tentsioz zipriztindutako lur ezegonkorrean gauzatutako praktika da, eta neurriz kanpoko polarizazioan erortzeko arriskua izaten du.

Hortik, antologia baten taxuketan agertzea, ezinbestean, arazoak, arriskuak, gabeziak. Antologia hau ere ez dago tentsio, gorabehera edo galzoritik libre. Antologia hau ere anibalentea da.

6.1. Arrisku eta problema batzuk antologia mota bakoitzari dagozkionak izaten dira. Euskal Literaturaren antologia batek, esaterako, baditu bere arazo bereziak. Baina beste asko antologia gehienei komun zaizkienak, orokorrak, dira.

Tentsio, baliobitasun edo arazo batzuek antologiaren izaeran berean dute abiapuntua, antologiaren izate propiotik dira eratorriak. Ezin saihestuzko anibalentziak dira, tenka halabeharrezkoak, eta horiekin egin daitekeena, gehienez, leuntzea, ematzea, da.

1) Antologia subjektibotasunaren eta objektibotasunaren arteko tentsioan garaturiko jarduera izan ohi da.

Hautatzea izanik, aukeratu beharra eskatzen duenez, antologia batek subjektibotasun zama nahiko du berekin, ezinbestez. Hautatze lana, inoiz arbitrarioak edota inkontzienteak, eta ez beti logikoki edo objektiboki justifikagarriak diren hautatzailearen balio-irizpide eta zaletasunen mende dago. Antologia oro aukera bat denez, iritziaren edo ustearen eremuari dagokio (Rabadé, 2004: 192).

Baina, bestalde, antologia baten taxutze zintzo, parekatu eta orekatuak al bait objektibotasunik garbiena du helburu, alegia, ahalik eta alderdikieriarik ezan, koherentzia eta arrazoizkotasunik handienez oinarritutako hautapena, objektibotasuna zertan datzan eta zeintzuk diren bere oinarri enpiriko zehatzak garbi jakin, osoki lortu eta lortu den maila bermatzerik ezin bada ere.

Antologia-egilea, hortaz, nahitaez, subjektibotasunaren eta objektibotasunaren, gehiegizko parte-hartze pertsonalaren eta neutraltasunaren artean dabil kulunkan. Subjektibotasunaren ezinbestekotasunak eta egiazko objektibotasunaren ezintasunak esplikatzen dute zergatik ez diren bi antologia, literatura corpus beraren bi hautapen, berdin-berdinak izaten.

Tentsio honetan, literatura baten benetako adierazgarria izan nahi duen antologiaren arriskurik larriena, eta bazterrezina, gehiegizko subjektibotasuna da, alegia, antologia literatur testuen hautatze subjektibo alderdikoi soil, gutxieneko berme objektiborik gabeko aukeratze, bihurtzeko arriskua. Komeni da, beraz, tentsio hau orekatzea, gehiegizko subjektibotasunerako errazkeria kontrolatuz, hautatze-irizpide ahalik eta objektiboen eta koherenteenak bilatuz eta erabiliz.

Antologia hau, gorago azalduriko irizpideez gain, hasieran nabarmendutako talde kontsentsuaz baliatu da, horrela gustu eta jarrera pertsonalak bateratu eta konbinatzeko. Hala eta guztiz ere, Antologiak hautatze bat izaten jarraituko du, talde baten hautatze adostua. Bakarkakoa, norbanako soilarena baino zabalagoa eta irekiagoa izanik, teorian bederen, euskal irakurleen komunitateak erabakiko lukeen batez besteko balizko hautapenetik hurbilago egoteko aukera badu.

2) Antologia, alde batetik, bilduma, konpilazioa, testu entziklopedia, da. Biltze lan honetan, literaturaren ikuspegi ahalik eta adierazgarriena lortu nahian, testuak oparoki baina besterik gabe, hola eta hola jasotzeko, pilatzeko, arriskua dago.

Antologia bat, ordea, antologia egokitzen hartua izan dadin, ezin da soilik biltze, metatze, ahal den ugariena izatera mugatu. Antologia egiteko hartu den esparruan dagoen materialaren artean hautaketa gauzatu behar da.

Hemen ere, antologia-egilea bi muturren artean dabil, pilatzearenaren eta hautatzearenaren artean. Arriskua, oraingoan, metatze soilean edo gehiegizkoan erortzea. Bide zuzena, biak egoki uztartzea. Dena den, mutur horietako bat pribilegiatzen, pilatzearenari hautatzearena nagusitu beharko litzaioke.

Egokiena oreka lortzea da, bi joeren arteko erdigunea. Tradizioaren irakurketan ezin da edozerk balio duelako irizpidez edo hautatze lana desitxuratuko lukeen nolana hiko pilatze soilez jokatu. Baina ezta ere, ez da bidezkoa, antologiak bete behar duen adierazgarritasun baldintza gehiegizko elitismoz edo alderdikieriaz urtea, ahultzea.

3) Antologiak balioetsi eta hautatu egiten du. Galbahe gisa jokatzeko duenez, ezinbestez, testu eta autore batzuk jasotzearekin batera beste batzuk baztertu eta kanpoan uzten ditu. Batzuen bertaratzeak beste batzuen kaleratzea dakar. Antologian, izatez, ez dago guztientzat lekurik.

Horregatik, zenbait nabarmendu, aipatu, eta beste zenbait behekitu, eraitsi, egiten dituelako, antologia, behin baino gehiagotan, politikoki ez-zuzena den jardueratzen hartu ohi da. Postmodernismoaren oihartzunak bizirik diren, autoritatea eta pribilegioak eztabaidan jartzen, eta nolabaiteko berdina letasuna aldarrikatzen den garaioan, antologiak ez du oso ospe onik. Ez dirudi postmodernitatearen testuingurua, oro har, antologiaren mesederako denik. Antologiak hautatu egiten du, baietsi, zerrendak eta lehentasunak proposatu, osotasun eta sintesiak konfiguratu, continuum edo jarraitutasunak taxutu, irauteko asmoz moldatutako kontaketa irmoa eraiki eta abar. Ez du ematen haiek guztiak ideia postmodernoei erraz uztar daitezkeenik.

Badago, hala ere, nolabaiteko kidetasunik ezaugarriren batean edo bestean, fragmentazioan edo aniztasunean kasu. Gainera, antologia erabiltzen ari da ingurune postmodernoan, luzaroan baztertu eta isilarazitako zenbait errealitate edo eremu ikusgai bihurtzeko tresna lagungarri gisa: emakumeen, gizatalde gutxituen edo erotismoaren literaturen antologiak, esaterako. Dena den, jarrera postmodernoak, oro har, autoritatea, erdigunea, sintesia, jarraitutasuna, ziurtasuna... kolokan jartzen ditu.

Antibalentzia hau dela-eta, testuen eta autoreen aukeraketan arretaz jokatu beharra dago: hautatutakoak egiazko merezimenduz hautatuak izan daitezen, balio eskasekoak atzeko atetik sartu ez, eta, ezinbesteko baztertzeak gertatzean, antologian sarrera beharko lukeen testu edo autorerik kanpoan gelditu ez dadin.

4) Antologiak testuak eta autoreak babestu egiten ditu. Ahanzturatik libratzeko, oroimen kolektiboan gordetzeko, tresna izanik, nolabaiteko iraunkortasuna ematen die. Baina, bestalde, testuak iraunaraziz, testuak sarri askotan errepikatuz, testuok fosil bihurtzeko, zurruntzeko, arriskua dago. Ohikeriaz, testuei freskotasuna, distira, berritasuna higa, itzal, dakieke.

5) Antologiak birkokatu egiten ditu testuak, bilduman jasotako testuen testuinguru, konfigurazio, berrian birlandatuz.

Baina horretarako, aurretik deskokatu egiten ditu testuak, euren lur jatorrizko eta naturaletik erauziz. Antologiak testua idazlan osotik, autorearen obratik eta garaiko testuinguru historiko-kultural eta sozialetik urruntzen du. Testuak pieza isolatu, estraktu, bihurtzen ditu eta, horrela, testuek euren berezko harremanak galtzen dituzte. Antologiak eskaintzen duen materiala, alde batera, artifiziala, desitxuratua eta engainagarria da.

Antologia-egileak, beraz, sarrera, oin-ohar esplikatibo eta hautaketa burutsuen bidez, deskokatze hori konpentsatu behar du, jatorrizko testuinguruko erreferentziak eta osagaiak berreskuratuz eta azalduz.

6) Jatorriz euren artean urrun diren testuak, antologiak segida edo continuum historiko batean josi, harilkatu, egiten ditu. Antologia jarraitutasun printzipioa da (Guillén, 1985/2005: 41), sakabanatzean, barreiatzean, ordena ezartzen duena, eta testuak elkarrenagana hurbilduz, euren arteko harreman berriak, ez bakarrik bisualki, azaleratzen dituena.

Baina lotu ahal izateko, aurretik piezatan zatikatzen ditu testuak, jatorriz baturik zegoena puskatuz, nobelak, antzerkiak edo poema-bildumak desjosiz, atalduz. Antologiak unitate etenak, banakakoak, eta funtsean atomizatuak biltzen ditu. Piezak txirikordatzen. Alde batetik, jarraitutasun sortzailea da eta, bestetik, hautaketa eta segmentatze eragilea.

Antologiak deseraiki egiten du berreraikitzeke. Jacques Derrida-ren (1974: 28) iruditeria erabiliz, lorea –gurean testua– biltzerakoan, moztu egiten da, gillotinatu, baina horrela jalgi, altxatu egiten da, “Être décapité, c’est apparaître”.

Honek antologia behar bezala antolatzea eskatzen du, testuak euren artean egokituz, eta elkarrekiko harremanak eta loturak nabarmenduz.

7) Antologiak, batera biltzean, elkartu, batu, egiten ditu testuak, bata besteari hurbildu. Baina, aldi berean, elkarrekin jartzean, ito egiten ditu nolabait multzo horretan, bakoitzaren singularitasuna lausotuz edo itzaliz.

Arrisku horretaz ohartarazten digu Paul Auster-ek:

An anthology, therefore, is a kind of trap, tending to thwart our access to the poems even as it makes them available to us. By gathering the work of so many poets in one volume, the temptation is to consider the poets as a group, to drown them as individuals in the great pot of literature. Thus, even before it is read, the anthology becomes a kind of cultural dinner, a smattering of national dishes served up on a platter for popular consumption (...). To approach poetry in that way is to miss the point entirely –for it allows one to avoid looking squarely at the poem on the page–. And that, after all, is the reader’s primary obligation. One must resist the notion of treating an anthology as the last word on its subject. It is no more than a first word, a threshold opening on to a new space (Auster, 1984: xxxiv).

Oharra, zehazki, poesia antologia baterako egina bada ere, literatur mota guztietako antologia bati ere aplika dakioke. Nahikoa *poem*, *poet* eta *poetry* hitzak *text*, *writer* eta *literature* hitzez ordezkatzeari.

8) Antologia, nobela edo poema-bilduma ez bezala, ez da, berez, sortze-ekintza; ez dio benetako literatura-sortze asmoari erantzuten. Bestalde, ordea, bada eraikuntza berria, sentiberatasun sortzailetik oso hurbil den jarrera batetik jalgia.

9) Antologia gauza da subjektuak, autoreak, testuak, gaiak, ideologiak, generoak, garaiak... indartzeko, sustatzeko. Badu horretarako baliabiderik: antologian tarte zabala eskaintzea, sarreretan garrantzia azpimarratzea, alde jokatzeari edo lehentasuna ematea, esaterako. Baina gai da baita ere ahultzeko, pisua kentzeko. Horrela zeharkako kanonizatzea eragiten du.

Anbibalentzia honetan, arriskua proportziorik eza da, alegia, testu eta autorearen gehiegizko gorespina zein praktikan deuseztatzeri iristen den apaltze edo beheratzea. Berrirori, jarrerarik egokiena: oreka, proportzionaltasuna.

10) Antologia, emaitza edo ondoriozko hautapen gisa, izan daiteke zoriontsua, ongi asmatua, arrakastatsua, baina baita ere engainagarria, itxurazkoa, iruzurgilea.

Lor dezake egiazki literaturaren adierazgarri zuzen eta benetakoa izatea, testuak eta autoreak euren egiazko izate eta esanahiaz aurkeztea. Bestela ere gerta daiteke, ordea. Alegia, literatur unibertsoaren ikuspegi murriztua ematea, bizitza literarioaren zabaltasun eta egiazkotasuna ez adieraztea. Makurrago, testuak okerki manipulatzera, testuaren gunea saldu eta funtsezko esanahia desitxuratzera, iristen bada.

6.2. Beraz, funtzio edo onura posibleak baina baita anbibalentziak, arriskuak eta tentsioak ere egiaztatuta, ez da harritzekoa, antologiari begira, susmoak, desadostasunak, bat ez datozen ikuspegiak, are kontrajarriak, sortzea. Batzuentzat antologia entitate edo emaitza funtzional eta onuragarria da; beste batzuentzat ia alferrikakoa edo alferrikakoa baino apenas ezer gehiago; eta gehiengoarentzat, kontraesanez ez bada, gutxienez, anbibalentziez astindutako ekintza eta produktua. Uste izatekoa, hortaz, antologia jarduera eta eraikuntza eztabaidatua, ez-asegarria eta zalantzek eraso izatea. Batzuek, alde positiboak nabarmenduz, babestu egiten dute; aldiz, beste batzuek, negatiboak azpimarratuz, arbuia edo errezeloz begiratzen.

Horrela, antologiaren alde egiten dutenak haren funtzionaltasunean, onuretan eta antologiaren objektua den literaturara hurbiltzeko duen gaitasunean oinarritzen dira. Anbibalentzien eta tentsioen alde baliagarriak, lortzeko modukoak direlakoan, ekartzen dituzte gogora, hala nola: subjektibotasunaren eta objektibotasunaren, eta pilatzearen eta hautatzearen arteko oreka; testu baliotsuen babesa; eraikuntza lotuan gauzatutako birkokatzea; testuen txirikordatzea segida historikoan; ekintza eraikitzaile berria; literatur munduaren eta bizitzaren ikuspegi panoramiko zabal eta adierazgarria; eta abar.

Aitzitik, antologiari uko egiten diotenek, besteak beste, funtzionaltasunik eza edo egiazko baliatze eskasa, irakurle edo erabiltzaile kopuru urria, epe laburrean zaharkituta eta argitaratzetik kanpo gelditzea, leporatzen diote. Anbibalentzien eta arazoaren alde negatiboak nabarmentzen dituzte. Esaterako: gehiegizko subjektibotasuna; testu pilaketa hutsa; baztertze bidegabeak; testuak fosil bihurtzea eta kontserbadurismoa; testuen deskokatzea eta euren jatorrizko testuingurutik erauztea; testu zatiketa; ekintza sortzailea ez izatea; literatur arlo eta bizitzaren hautatze murriztua; eta abar. Gainera, antologia, askotan, salerosketa munduaren, editorialen eta erakundeen jarrera literario, kultural edo politiko jakinen mende aurkitu ohi da.

Hemen, bistan denez, jarrera bateratzailea hartzen da, baina antologiaren alde jokatzuz, antologia lanaren alde apustu eginez.

Antologia, bai, langintza eta emaitza anbibalentea da. Askotarikoak eta nabarmenak dira haren alderdi positibo eta negatiboak, onurak edo abantailak, eta arriskuak edo arazoak. Baina alderdi horiek posibilitateak dira, gertagarriak, gauza litezkeenak ala ez, eta ez derrigorrezkoak; indartu edo leundu daitezkeenak, gehiago eta gutxiagoko neurrian.

Abiarazitako Antologia proiektu honetan, funtzional izateko eta anbibalentzien alderdi positiboak jorratzeko aukerak nahikoak eta gehiago direla uste da zinez. Antologia entitatean konfiantza jartzeaz gain, ikusten da anbibalentzien balizko alde negatiboak, arriskuak, disfuntzioak, ez direla lan antologikoa baliogabetzeko eta bertan behera utzarazteko, ez eta antologiaren egokitasuna zapuzteko, adina arrazoi (Torre, 1942/1948: 125). Balioak eta onurak ez dira gutxi; gabeziak, hutsuneak, erabat saihesgarri eta ezabagarriak ez badira ere, leungarriak bai.

Antologia honetako lantaldea, anbibalentzia sare horretaz jabeturik, alde onuragarriak indartzen, sustatzen, eta kezkarriak apaltzen, baretzen, saiatzen ari da eta saiatzen jarraituko du. Antologia ez da, agian, gogobeteko eraikuntza izango, baina ez eta bere osotasunean arbuiagarria, erabateko uko orokorreaz gaitzesteko modukoa.

7. Euskal Literaturaren antologia baten arazo bereziak

7.1. Euskal Literaturaren antologia batek arestian aipatutako anbibalentzia, arazo eta arrisku komunez gain, baditu bere-bereak, propioak. Euskal Literaturan, bere garapen historikoan, aukeratze antologikoan eragin zuzen eta sakona duten baldintza eta ezaugarri bereziak hautematen dira.

Euskal Literaturaren historialari eta aztertzaileek behin eta berriz seinalatu izan dituzte zirkunstantzia eta nolakotasun horiek, adostasun nahikoz gainera. Hainbestearino errepikatuz non, batzuk, ia-ia higitutako topiko bihurtu eta zabalki onartuak izan baitira. Azpimarratu izan eta izaten diren baldintza eta ezaugarri horietako asko, gehienak agian, tankera negatibokoak dira. Euskal Literatura inguratu eta moldekatzen duten zirkunstantziek, oro har, haren alde egin ordez, aurka jotzen dute, desabantailazkoak gertatzen zaizkio.

Mitxelenak berak, *Historia de la literatura vasca*-n jadanik, ezaugarri orokor zenbait –negatiboak nagusiki– zehaztu eta laburbildu zituen, makina bat aldiz gogora ekarria izan den pasarteaz:

La literatura popular vasca, esencialmente oral, es probablemente tan rica y tan variada como la de cualquier otro pueblo. La literatura culta es por el con-

trario, tardía, escasa y en conjunto de no muy alta calidad. Se salva, con todo, un puñado de obras que no desmerecen junto a producciones análogas en las literaturas vecinas (Michelena, 1960: 11).

Hari beretik, urte batzuk geroago, ezkor berriro: “Euskal testuak oso urriak dira” eta bistan da “oso berankorra dela euskal literatura, berandu dabilela”; areago, “euskal literatura berankorra dela, berandu agertzen dena, urria eta eskasa izateaz gainera” (1981a: 267, 264). Iritzi honek bide egin du, hedatutako ikusmolde bihurtu da. Lagin adierazgarri bat, *Elhuyar Hiztegia* (1996) bezalako hiztegi orokor eta oinarrizko batean, “berankor” sarrerari jarritako adibidea: “Euskal literatura berankorra izan da”.

Balorazio honekin, funtsean, bat etorri arren, zenbait ñabardura zaizkio derrigorrezko.

Adierazpen horiek –1960koa batik bat– argitaratu zirenetik, Euskal Literaturaren bilakabide eta azterketan emankorrak izan diren hamarkada batzuk joan dira dagoeneko. Hiru kalifikazio horiek –berantiarra, urria, guztira hartuta ez oso goi-mailakoa– aplika dakizkioke zehaztasun nahikoz hastapenetatik, hots, Behe Erdi Arotik, xix. mendearen erdialdera arte sortutako Euskal Literaturari, aldi horietan ezaugarriok garbi, gordinki, nabari baitira, oro har. Ezin dira horrenbesteko zehaztasunez aplikatu, ordea, xix. mendeko bigarren erdian eta xx.eko bi lehenengo herenetan sortutakoari, eta nekez, jada, xx. mendeko hirugarren herenetik gaur artekoari. xix. mendearen erdialdetik aurrera, nolabaiteko hazkundera gertatzen da literatur produkzioan, batez ere poesia arloan, kopuru absolututan bederen. Astiro baina etengabe, kopurua haziz eta, literatur genero eta praktiken ugaltzearen bidez, hutsarteak betez joan dira. Aldi berean, xx. mendeko 30eko urteetatik, eta bereziki 60koetatik aurrera, kalitate neurriak ere gora egiten jarraitu du, maila orokor duinak erdietsiz.

Literatura bati buruzko iritzi orokor eta, noski, bidezkoa eman nahi bada, gogoan izan behar dira literatura horren eta bera euskarritzen duen hizkuntzaren garapenean historikoki zerikusia izan duten faktoreak, aldekoak zein aurkakoak. Goraxeago aipatu denez, gauza jakina da Euskal Literaturaren ibilbidean tartekatu diren gorabehera eta eraginak ez direla izan sarritan, hain justu, lagungarriak, oztopagarriak baino. Baldintza eta traba ugari, soziolinguistikoak eta soziopolitikoak nagusiki, batik bat xx. mendearen azken herena arte: euskararen tamaina eta hedadura txikia, hiztun kopuru urria; euskalkitan sakabanaturik, mendeetako batasunik eza; euskara alboetako bi hizkuntza eta kultura ahaltsuen desabantailazko eta dependentziazko ukipenean aurkitzea; euskarazko benetako eskolatzearen falta edo eskasia; euskarari eta euskaldunei legezko estatus ofiziala, bete-beteko eta salbuespenik gabekoaren ukazioa; euskararen sostengu eta

sustapenerako egiazko botere politiko propio eta batu baten gabezia; euskaldunen aldetik, hizkuntza eta sortze literarioarekiko ardura ez gehiegizkoa, literatur praktika eta trebatze lanetan saiatze laburra; eta beste. Egoera diglosiko nabarmena.

Elkarren artean kateaturiko baldintza eta arazo horiek guztiak, xx. mendearen hirugarren herenetik aurrera ere, ez dira erabat konpondu eta, oraindik ere, neurri batean, oztopo izaten segitzen dute. Hizkuntza bera ere, mendeetako lasta eta traben eraginez, arazoa da maiz. Bitoriano Gandiaga lekuko, bere *Uda batez Madril*en poema liburuan. Poetak, bere burua Madril bezalako hiri erraldoi zurrunbilotsuan murgilduta eta zorabiatuta ikusirik, behin baino gehiagotan eta era askotara adierazten duen kezka: “Kantagairik asko, baina / ez dakit nola kantatu / kantagairik asko baina. / Hizkuntza ez zait iristen, / ala ezin dut moldatu” (1977: 48). Azken hamarkadotan euskararen taxutze eta gaitze arloan egundoko urratsa eman bada ere, Gandiagak azaldutako asegabetasuna ez da oraindik gogobete.

Literatura bat, gure kasuan Euskal Literatura, ikuspuntu desberdinez balioetsi edo epai daiteke: absolutuki, hau da, bere horretan eta neurri jakin batzuen eredura, edo erlatiboki, beste hizkuntzetako literaturekin alderatuz. Balorazio absolutua egiazki korapilatsua da, irizpide zehatzetan sartzea irristakorra baita. Zaila da, gainera, konparazio erlatiboetatik aske jokatzeko. Azken buruan, praktikan, konturatuta edo konturatu gabe, erlatiboa erabili ohi da gehienbat. Balorazio erlatiboa, ordea, nahiko aldatzen da konparaziorako hartzen diren beste literaturen arabera.

Balorazioa arras ezberdina izango da –soilki Europa izanik kontuan– Euskal Literatura erkatzen bada: zabalki sustatu, garatu eta hedatutako hizkuntza ahaltsuen (ingelesa, frantsesa, espainiera, alemana...) eta literatura sistema unibertsalaren erdigunean kokatutako euren literaturekin; konparatzen bada lokalizatuagoak baina, hala ere, indartsuak diren hizkuntzen (portugesak, suediera, poloniera, nederlandera, katalana...) eta sistemaren erdigunetik hurbil dauden beren literaturekin; edo –askotariko arrazoi eta zirkunstantzia soziohistorikoak direla eta– apalkiago landu eta garatu diren hizkuntzen (erretorromaniera, bretainiera, islandiera, letoniera, esloveniera, albaniera...) eta sistemaren periferia omen den esparruan diharduten horien literaturekin.

Konparazioaren ondorioak erabat aldatuko dira batzuekin ala besteekin erkatuz gero. Bistan denez, euskararen eta Euskal Literaturaren kasuan, alderaketarik zuzenena azken horiekin egindakoa litzateke, eta hor, Euskal Literaturak ez luke ziur asko burumakur atera beharrik izango. Patxi Salaberri Muñoarekin (2002: 23-24) bat eginez, esan beharra dago ez dela bidezkoa estatus zainduagoa, jasoagoa, garatuagoa eta hedatuagoa duten beste

hizkuntzetako literaturekin konparatzea. Euskal Literaturak aski egin du irautearekin, baldintza horien pean sortu duena –apala bada ere– sortzearekin.

Dena den, ez da lerro hauen eginkizuna Euskal Literaturaren ibilbidean izan diren traba eta gabezien azalpena eta justifikazioa ematea. Atal honi bereziki dagokiona da: Euskal Literaturan zerikusia izan duten –edo, beharbada, oraindik ere, duten– gorabehera eta faktore askotarikoetatik, Antologiaren taxuketan eragin baldintzatzaille zuzena duten batzuk seinalatzea. Oztopo eta hutsune horien inguruan argibide zehatz eta sakonagoa behar izanez gero, Euskal Literaturaren historiak eta arazoari buruzko lan espezifikoak kontsulta daitezke.

7.2. Ñabardurak ñabardura, euskal literatur ekoizpena, oro har, kopuruz urria da, eta xx. mendeko erdialdera arte, oso urria. Estatus eta maila paretsuan aurkitzen diren beste literatura batzuen bezala, literatura-lanen emaitza oparoa izatetik urrun da.

Joan Mari Torrealdai (1997: 54-57) bildutako datuen arabera, 1545-1875 bitartean, 723 dira argitaratutako euskal liburuak. Horietatik 498 jatorrizkoak, eta lehen edizioan 326. Produkzio horretan 30 bat inguru dira helduentzako literatura moldekoak, eta benetan literaturatzat har daitezkeenak gutxiago.

Urritasun horrekin korrelazioan, Euskal Literaturaren ibilbide historikoa xx. mendeko azken hamarkadak arte, jarraitutasunari dagokionez, nahiko irregularra da. Produkzio literarioaren katea ahuldu edo hautsi egiten da sarritan. Badira aldi luzeak non ia ez dagoen ekoizpen literariorik, non literatura genero edo praktika literario zenbaiten falta edo lantze urria nabari den, iritsi zaigun edo bildu den produkzioa kontuan izanik, jakina. Etenduraz, tarte hutsez eta jauziz jositako garapena, nolanahi. Krisiz eta gorabeheraz ukitutakoak dira, halaber, esaterako, norvegiera, islandiera, esloveniera, galiziera, katalana, finlandiera edo irlandiararen literaturak.

Ezaugarri eztabaidatuagoa adituen artean: Euskal Literaturaren berankortasun delakoa. Berankortasuna bi moduz, besteak beste, uler daiteke. Gauza bat da egoera, irekitze, mugimendu ideologiko edo artistiko batera behin abian jarria izan eta gero, baina erabat igaroa eta itzalia gertatu baino lehen iristea, eta beste bat mugimendua pasatu eta gero heltzea, alegia, garaiz edo jokoza kanpo, *offside*, ibiltzea. Lehenengo kasuan, berankor baina artean garaiko izan daiteke, eta bizigiroari atxiki, aldiko adierazpide eta edukietan, amaitu baino lehen, txertatu. Bigarrenean, ordea, berankortasuna anakronismo, desfase garbi, bihurtzen da, joandako garaiari dagozkion moldeak eta jarrerak baliatzen baitira.

Dena den, anakronismo kontua nahiko erlatiboa da eta tentuz erabili beharrekoa. Izan ere, maiz, aldi historiko berean, momentuko joera berritzaile nagusiak eta lehenagoko garaietatik luzatzen diren joera higatuagoak bizi izaten dira elkarrekin, hala sortzaileen nola irakurleen eta erakundeen esparruan. Horrela izanik, anakronikoa omen den ekoizpen kultural edo literario batek aldi horretako gizarte multzo bati erantzun diezaioke, jarrera tradizionalerik, joandako balioetan oinarrituta bizi den komunitateari hain zuzen. Alde horretatik, produktu hori, hein batean, garaikoa da, atzera begira dagoen irakurleria sail horren eskakizunak betetzera bideratua baitago. Bestalde, berankortasun anakronikoak ez du derrigorrean balio artistiko eta historiko eskasa esan nahi, sortutako lana baliotsua izan baitaiteke. Hala eta guztiz ere, aitortu beharra dago: anakronismoak lausotu egiten du produktu artistikoa, distiraz erantzi eta, inoiz, kaltetu edota hondatu ere.

Bereizketa honetaz gain, beste bat egin behar da, gertaera literarioaren arloan, literatura jakin baten esparruan. Kontu desberdinak dira: jarduera literarioaren benetako hasiera (ahozkoa zein idatzizkoa), historiaren garai lausotan galdua, zehazten ezinezkoa edo zaila gehienetan; sortze literarioaren lehenengo aipamen dokumentatuak; sortze literarioaren lehenengo testu edo agerpen idatziak; literatur inprimatuaren hasiera; eta mugimendu literario bakoitzaren hasiera eta bukaera.

Hortaz, Euskal Literatura berantiarra den ala ez erabakitzea, gauza konplexua da. Berankortasunaren arazoak alde ugari ditu. Aipatutako bi bereizketa horiek beharko lirateke izan kontuan. Hemen, oso labur, ohar bakar batzuk.

Lehenengo euskal sortze edo testu literario idatziak honako hauek dira: Etxeparerenak, 1545; Lazarragarenak, 1567 inguruan; Garibaik 1571n jasotakoak; eta abar. Garibaik bildutako testu horien artean, batzuk, 1571n argitaratuak izan arren, xiv eta xv. mendeetan sortutakoak dira. Horiek dira, hain zuzen, euskal sortze literario baten lehenengo lekuko dokumentatuak, eta, horrenbestez, mende horietan kokatzen da euskal jarduera literarioaren hasiera egiaztatua, hasiera benetan xumea eta apurra bada ere. Beraz, Euskal Literaturaren lehenengo lekukoak, literatura handien hasikin literario idatziekin alderatuz gero, berantiarrek dira; ez, ordea, Euskal Literaturaren parekoak diren beste zenbait literatura periferikoren idatzizko lehenengo dokumentuekin konparatuta. Eslovenieraz, lituanieraz edo finlandieraz, besteak beste –batzuetan ahozko literatura aberats baten jabe badira ere–, benetako literatura profano baten hasierak, orobat, xvi. mende ingurukoak dira. Beranduagokoak oraindik, xvii. mendetik aurrerakoak, eslovakeraz, letonieraz edo estonieraz.

Literatura inprimatuaren hasierari dagokionez, berriz, inprentaren sorrera kontuan izanez gero (1450 ing.), Euskal Literatura ez da oso goiz plazaratzen (1545), berandu samar baizik. Ez oso berandu, ordea: zenbait literaturatan, lehenengo liburu inprimatuak garai bertsuan ateratzen dira, batzuetan beranduago eta, gainera, behin baino gehiagotan, liburu horiek ez dira literatura arlokoak, bestelakoak baino. Adibide moduan: lehenengo liburu inprimatua finlandieraz, Mikael Agricola-ren *ABC-kiria* (Alfabetoa) (1540 ing.); lituanieraz, Martynas Mažvydas-en *Catechismusa prasti szadei* kristau ikasbidea (1547); eslovenieraz, P. Trubar-en kristau ikasbide bat (1550); albanieraz, G. Busuku-ren misal bat (1555); letonieraz, Pedro Canisioren *Catechismus catholicorum*-en itzulpena (1585); eta abar.

Korapilatsuagoa da mugimendu, mundu ikuskera, gai, adierazpide eta abarretara garaiz iristearena.

Euskal Literatura ez da honetan beti atzeratuta ibili. Maiz garaiz heldu da aldaketa eta bidegurutze horietara. Beren garaikoak dira, esaterako: Joan Perez Lazarraga, Augustin Xaho, Jean Kamusarri, Jose Maria Iparragirre, Jean Etxepare edo Jon Mirande, eta, zer esanik ez, azken hamarkadetako idazle franko.

Bestetan, berandu samar iritsi arren, mugimendua bizirik dirauen bitartean lortu dira emaitza duinak: Bernat Etxepareren zenbait poema Errenazimentuan; Joanes Leizarragaren itzulpena Erreformatan; Axularren prosa didaktiko-erlijiozkoa Kontrarreformatan; Lauaxeta eta Lizardiren poesia klasiko eta berritzailea modernismo eta sinbolismoaren ingurumarian; Txillardegiren lehenengo nobela existentzialista; eta beste. Mugimenduaren olatua harrapatzera iritsiak direla esatea ez da gehiegikeria. “Berandu, baina artean garaiz” dio modu adierazgarri Joseba Intxaustik (1995: 124) Leizarragaren itzulpenaz diharduela.

Anakronikoak edo anakronismotik hurbil, esaterako: XVIII-XIX. mendeetako obra didaktiko-erlijiozkoak (Jose Ignazio Gerriko, Joan Bautista Agirre, Frai Bartolome...); XIX. mendeko zenbait poesia molde, sasisentimental, hanpatu eta didaktikoak; edo ohitura eleberri zahartuxea (Domingo Agirre). Horiek duten bestelako balio historiko, eta, inoiz, artistikoa, ukatu gabe. Ekoizpen hauek, eta beste, berez kokatuak egon behar zuten mugimendu, forma edo topikoa ordurako igaroa zenean gauzatu dira. Honela, sarritan, sorkuntza desfasatuak direla ematen du, atzerapenez edo atzera begira jaioak. Kultur mugimendu amaitu bati dagozkion adierazpide eta pentsamoldeak.

Era bateko edo besteko berankortasun zantzuak edo guneak, nolanahi ere, ez dira Euskal Literaturan bakarrik hautematen. Literatura guztiak ez dira beti batera iristen mugimendu literario nagusietara: Errenazimentu, Erroman-tizismo, Modernismo, edo 1910-1930. urteetako eleberriaren berrikuntzara,

esaterako. Ez bakarrik periferikotzat jotako literaturak, baita erdiguneko gisa hartutakoak ere ailegatu izan dira, inoiz, berandu mugimenduen garapenera.

Orain arte aipatutakoez gain, bada euskal antologia literario baten prozesua baldintzatzen duen beste ezaugarri edo faktore bat: kalitateari dagokiona, alegia.

Hastapenetatik orain arteko ibilbide osoa kontuan harturik, Euskal Literatura maila apalekoa da. Euskal Literatura, xx. mendean aurrera samar egin arte, ez da, oro har, kalitatez nabarmentzekoa. Salbuespenen bat edo beste eginda –Arnaud Oihenart da horietako bat– ozta-ozta aurki daiteke goi-mailako literaturarik, Lauaxeta, Lizardi eta Orixe agertu bitartean. Hortik aurrera, jada, aiseago, baina, oraindik, kalitate sare oparoa ehuntzeko puska bat falta.

Atal honetan ematen ari den diagnostiko laburra eta, ezinbestez, zatikakoa eta herrena, xxi. mendearen bigarren hamarkadaren testuinguruan moldatua da. Oraindik orain, Euskal Literatura eskasian, txirotasunean, murgilduta zebilen. Bospasei hamarkada besterik ez dira pasa normalizazioranzko bidean sartu zenetik. Epe laburregia iritzi orokorra aldatzeko, ondorio berri irmoak ateratzeko. Aurreko historiak pisu izaten dirau. Baina:

Hemendik ehun urtera, zorionez, oso desberdina izango da euskal literaturaren antologia. Autore berriak erantsi beharko zaizkio, corpus handiago bat edukiko dugu eta leku gutxiago geldituko denak sartzeko; horrenbestez, egile batzuk “erori” egingo dira, ez baita hainbesteko premiarik izango bilakaera neketsu baten aztarnak emateko (Mendiguren Elizegi eta Izagirre, 1998: 7-8).

Xabier Mendiguren Elizegi eta Koldo Izagirreren zentzuzko proiektzio honen ideia funtsezkoenarekin bat eginez, adierazi behar da, hemen seinalatutako urritasuna, irregulartasuna, balizko berankortasuna eta kalitate apala zuzenduak eta orekatuak izateko prozesuan direla. Azken hamarkadetako eta, erronka berriak gainditzen badira, hemendik aurrerako literatur sortze lana, harrera, finkatze eta sistematizatzearen bidez, Euskal Literaturak ganorazko normalizaziora iritsi behar du. Normalizazio giro eta garaiko ekoizpen literarioek proportzio gero eta handiago beteko dute historian eta antologian. Testu aukera gero eta zabalagoa izango da eta bilduma etengabe birmoldatzen eta berrosatzen jarraitu beharko da.

7.3. Esan bezala, orokorrean hautematen diren urritasun, irregulartasun, berankortasun zantzu eta kalitate apalak arras baldintzatzen dituzte antologiarako aukerabideak, bereziki xix. mendearen erdialdea baino lehenagoko aldi luzeari dagozkionak. Baldintzatu egiten da testuen hautaketa, aldien arteko proportzioa eta, batik bat, irizpidea, testuen

aukeraketarako prozedura, testuen hautaketan erabili beharreko zorroztasun eta eskaera maila.

Nola jokatu produkzioa urria izan eta dagoena, batzuetan, garaiz kanpokoak, kalitatez apala eta literarioa –gaur ulertzen den moduan– ez denean?

Lehenengo liburuki honek besarkatzen duen aldian, Behe Erdi Aroa eta Errenazimentua alegia, bakanak dira gureganaino iritsi diren testuak eta, ondorioz, oso gutxi baita ere, beren garaian edo gaur egun, literatura gisa hartuak izan direnak, kalitate literarioaren ezaugarriaz bereizi izan direnak.

Testu gabezia gorri honen aurrean, taldearen erabakia izan da testuen izaeraz zein kalitate literarioaz hautatze-irizpide zabala, ohi baino lasaiagoa, erabiltzea, baina beti gutxieneko zorroztasun maila bati eutsiz, gutxieneko kalitate estetikoa zainduz, letra ororen antologia hutsean, nasaiegian, erori gabe. Kalitate nabarmenez eta literatura moduan hartu ohi diren testuen ondoan, gutunak, atsotitzak eta abar jasotzen dira, hautatze zorrotz eta egungoan, agian, aukeratuak izango ez liratekeenak. Beraz, hautatutako materiala, zenbaitetan, ez goi-mailakoa, bikaina, baina dugun materiala da, dagoena.

Testu produkzio literarioa hazten den heinean, hautatze-irizpideak progresiboki zorrotzuz, zehatzuz, finduz, joango dira, hautapenerako eskuzabaltasuna murriztuz, estutuz, bereziki, esan bezala, xix. mendetik aurrera, xx eta xxi. mendeetan jadanik egoera, hein batean bederen, normalduagora iritsi arte.

Horregatik, gerta liteke, antologian jaso gabe gelditu diren aldi jakin bateko testuak, berez edo gaurko ikuspegitik, literarioki bikainagoak izatea egitan jasoak izan diren lehenagoko edo geroagoko aldi bateko beste zenbait testu baino. Izan ere, Antologia honek euskal testu literario onenen hautapena izan nahi badu ere, ez du hori beti modu erabatekoaz bilatzen, baita garaien arabera ere baizik, hau da, testu onenak bai, baina aldi bakoitzekoak. Aldi bakoitzeko onena, adierazgarriena biltzea da helburua: testu pilaketa soilean, euskal letren katalogo hutsean, gelditu gabe, Euskal Literaturan, aldi bakoitzean, sortu diren idazlan onenak jasotzea.

7.4. Aurreko puntuetan seinalatutako ezaugarri eta baldintzez gain, Euskal Literaturan bada beste gorabehera edo buruhauste bat, hautatze lanean ere eragin, zerikusi, agerikoa duena eta, beraz, ukitu beharrekoa: idazlan didaktiko-erlijiozkoena.

XIX. mendearen bigarren erdira arte, nabarmena da erlijioaren irakas-kuntza, heziketa, bizitze eta hedatzerako liburuen nagusitasuna: kristau ikasbideak, deboziorako eta otoitz egiteko eskuliburuak, sermoi bildumak, doktrina lanak... Torrealdaik (1997: 54-57) 52 obra erregistratu ditu 1545 eta

1699 bitartean, horietatik %78,5 erlijio eta teologia edukizkoak; 1700 eta 1875 bitartean, 671 idazlan argitaratu ziren, erlijiozkoak %89,1 izanik. Torrealdairekin batera (1977: 178) esan liteke, garai horietan, euskal produkzio idatzia “interesatua” izan zela, berehalako onura praktikoak eragina. Premietariko bat: kristau doktrina, erlijio gauzak irakastea eta zabaltzea. Hortik, molde didaktiko-erlijiozko idazlanen nagusitasuna, ideologia erlijioso-klerikalak markatutako idazketa.

Nagusitasuna, ugaritasuna, erlatiboa, bestalde. Idazlan didaktiko-erlijiozkoen kopurua ez da neurririk gabea, itzela. Neurririk gabea, gehiegizkoa, proportziorik eza da. Berez, gertatzen dena ez da erlijiozko idazlanen kopurua izugarria dela, baizik eta beste motetako idazlanak, tartean gaur egun literaturatzat erabiliko lirakekeenak, oso gutxi direla. Ondorioz, didaktiko-erlijiozkoak ageri dira gailen. Bi arloen arteko proportziorik eza nabarmenegia da, eta liburu didaktiko-erlijiozkoen nagusitasuna garbia eta itogarri samarra.

Beraz, xix. mendearen erdialdera arte (eta, orobat, 1935era arte, proportzio askoz txikiagoan bada ere), Euskal Literaturaren –zuzenago, euskaraz idatzitakoaren– arloan gehien aurkitzen dena: gaur egungo ikuspuntutik literatur gertakariaren barruan propioki edo osoki kokatzen ez diren testuak. Ez dirudi, azalez behintzat, proiektu edo idazketa literarioa osatzeko asmoz sortuak izan direnik. Beste literaturetan, erdiguneko literatura gailenen antologietan bederen, literaturatik eta, hortaz, antologiatik kanpo geldituko lirakeke.

Arazoa larriago bihurtzen da ikustean idazlan didaktiko-erlijiozkoen nagusitasunak xviii. mendearen bukaeran eta xix.aren lehenengo hamarkadetan ere oraindik iraun egiten duela. Hor, desfasea, pitzadura jada, handiegia, nabarmenegia, deserosoa da.

Funtsean didaktiko-erlijiozkoak diren eta asmo nagusitzat ia soil-soilik erlijioa duten idazlanak izan litezke onartzeko modukoak, zenbait baldintzapean betiere, xvi eta xviii. mendeetako literaturaren historia batean. Garai honetan, Erreforma eta Kontrarreforma, erlijioak –beste faktore batzuen artean– piztutako gerrak, erlijioari buruzko eztabaida sutsuak, ohiko inguruaren eta bizimodu orokorraren osagaiak zirenez, ez da harritzekoa erlijio liburuak ugaltzea, erlijio gaia idazlanetan agertzea eta biziki interesatzea, produkzio idatzian eragina izatea. Bestalde, oraindik, literario dena, nahiz eta praktikan garbi gauzatu, ez dago teorikoki ongi ñabartua; literario izateari buruzko kontzientzia ez da behar adina argitu.

Baina xviii. mendearen azken hamarkadetan, Ilustrazioa eta pentsaera modernoaren garapenaz, eta xix.aren lehenengo hamarkadetan, Erromantizismoarekin, jadanik jauzi kualitatiboa ematen da literarioari, literario

izateari buruzko ikusmoldean. Denis Diderot (1752), Gotthold Ephraim Lessing (1759-1765) edo Madame de Staël (Anne-Louise-Germaine Necker) (1810) bezalako pentsalariak, besteak beste, edertasun eta literaturari buruzko kontzeptu modernoak taxutzen dute eta espezifikoki literario diren obra eta generoei aplikatzen diete.

Diderotek, esaterako, “eder”tzat hartzen du “tout ce qui contient en soi de quoi reveiller dans mon entendement l’idée de rapports” (1752/1996: 99), eta literatura gertakari berezitzat, fenomeno estetiko apartekotzat, hartzen du, erlazioen ideia hori gugan esnarazteko gai den jarduera horietariko bat gisa. “Literatura” terminoa jarduera hori bera eta jarduera horretatik sorturiko emaitzak, literatura-lanak alegia, izendatzeko darabil. Madame de Staëlek, berriz, estilo propio baten jabe diren, eta irudimena eta bihotza dardararazten duten literatura-lanak balioesten ditu.

Literaturaren teoria erromantikoak, alemanak batik bat, edertasuna, literatura eta literatura-lanaz gogoeta egiteaz gainera, ikuspegi berriak eskaintzen ditu estetikaren autonomia, literatur genero, literatur kritika eta historia, idazle, poesia ameskizun eta ideien asoziazio aske gisa eta abarri buruz.

Orduz geroztik, “literatura” terminoak adiera modernoak hartzen du, gaurkoarenetik hurbil, eta erabili ohi da, egungo egunean bezala, literatur bizitza, jarduera literarioa eta jarduera horren emaitza izendatzeko. Literaturari, literatura denari, buruzko kontzientzia garbitu, argitu eta zorroztu egin da, osorik ez bada ere, eta dagoeneko ez dira literaturaren esparruan kabitzen asmoz, eraikuntzaz, edukiz, literaturaren kontzeptu modernoari atxikitzen ez zaizkion idazlan edo produktuak. Ez dira jadanik, oro har, literaturatzat hartzen.

7.5. Zer egin, nola jokatu, beraz, antologia osatzeko corpus zabalean, literatur bizitza izan duenetik gutxi eta, proportzioz, idazlan didaktiko-erlijiozkotik asko, aurkitzen denean? Batik bat, heldu behar zaion aldian, begi-bistako haustura, desfase nabarmenegia, kirrinka deserosoegia, sumatzen denean?

Aukerak, funtsean, bi dira: alde batera utzi asmo eta emaitza literariorik gabeko lan didaktiko-erlijiozko guztiak, ala behar direnak jaso, harrera justifikatuz eta testuak irizpide zenbaiten arabera iragaziz.

Baina sakonean, arazo labain bat nabari da, berriro tentsio baten isla. Zer aukeratu antologiarako? Bakarrik gaur egunean, gaurko ikuspegitik, literariotzat hartzen dena, literarioki benetan baliozkoa dena, merezi duena, eta, oraingoz, ematen duenez, balio izaten jarraituko duena? Ala baita ere, bere garaian, sortua izan zenean, edo gaur egungo baino lehenagoko beste zenbait testuingurutan, baliozkotzat, literaturatzat-edo hartu izan dena?

Edo, beste modu batera adierazita, zer behar du izan Antologia honek? Soilik gaur egunean berreskuragarriak, gaurkotasunez jantziak, edo eroso eta atseginez irakurgarriak diren testuen hautatzea eta biltzea? Ala, orobat, euskal kultura literarioen indar lerroen, garai bakoitzean, ahoz zein idatziz, sortu den onenaren erakusleihoa?

Badira lehenengo aukeraren alde egiteko arrazoiak. Bizpahiru segidan. Literatur antologia batek asmo eta proiektu literario bati jarraituz sortutako testuak jaso behar ditu eta ez, xede literarioen ordeztasun, bereziki, esaterako, interes linguistikoei (hizkuntza indartu, hizkuntzaren gaitasunak erakutsi, gramatika azaldu...) edo erlijiozkoak (doktrina eta moralak zabaltzeko eta sustatu) erantzuten dietenak. Literatur antologia batek jaso behar ditu, nagusiki, antologiaren zuzeneko hartzaileak literarioki eta atseginez irakurriko dituen testuak. Ezinbestez, iraganari begira badago, iraganaz elikatzen bada ere, antologia batek ez du iragana bakarrik izan behar kontuan, oraina eta geroa hurbila ere bai. Bestela, lorategi eder, bizi eta atsegin izan beharrean, hilerri ilun (Manguel, 1987: 72), zaharkitutako erlikia idatzien biltegi bihurtzeko zorian legoke.

Bigarren aukeraren aldeko justifikazioak ere ez dira falta, eta ez bakarrik, produkzioa urria dela eta, antologiaren orriak kosta ahala kosta, edozein moduz, bete behar direna. Horrelako zerbait ere badagoela ezin ukatu, baina ez da arrazoi bakarra eta, inola ere ez, garrantzitsua. Bestelakotik ere, jarraian. Bizitza literarioa izan ez duten edo, nahiago bada, "paraliterarioak"-edo diren testu horietako asko garai historikoaren mentalitatearen zantzu adierazgarriak dira. Sar daitezke antologian idatzizko euskal ondarean eta tradizioan adierazi dutenagatik, tradizio horretako osagai biziak direlako. Egokitzen jotzen bada jasotzea antologian emaitza periferikoak, literatur alorraren inguruetan, ertzetan, kokatu ohi diren testuak, hala nola herri-literaturaren esparruko ahozko zenbait testu, paremiak eta abar, garaiko literatur bizitzaren alderdi askotarikoak erakusten dituztelako, zergatik ez testu didaktikoak, erlijiozkoak zein bestelako tankerakoak, idazketa praktika zabalduta eta estimuan izandakoaren lekuko direnak?

Edukiz edo desfasetuak badira ere, beren garaian, testu horietako askok aparteko zabalkundea izan zuten. Hartzaileen beharrak, erlijiozkoak, linguistikoak zein bestelako motatakoak, asetzen zituzten. Irakurleek idazlan horietatik espero zutena ematen zuten. Hartzaileek, orduan, testu horiek irakurtzean, entzutean, baieztatze edo berreste moduko zerbait, ilustrazioa eta argitzea, gozamina ere, bilatzen zuten, eta gaur egun ere, ez gutxik, horietako zenbaitetan, beste horrenbeste bilatzen eta lortzen dute.

Jakina, ez litzateke bidezkoa izango testu horiek historia literarioan eta antologian sartzea lekukotasun soila edo erlijio balioa besterik ez balute

eskainiko. Horrela bada, ez dirudi onartzekoa, egokia, antologian jasotzea otoitz, agindu, bekatu eta bertute eta abarren zerrendaz, edo ohiko galde-erantzunez moldaturiko kristau dotrinak edo kristau ikasbideak, hala nola Joan Perez Betolaza (1596), Joan Beriain (1626), edo Josef Otxoa Arinena (1713), non ez baita helburu literarioen arrastorik ikusten; ez eta itzulpenak, San Frantzisko Saleskoaren *Philothea* (1664) edo Lorenzo Scupoli-ren *Gudu espiritual*a (1665), Silvain Pouvreaux egindakoak, esaterako.

Kontua da, bestalde, testu didaktiko-erlijiozko horietako zenbaitetan, literatur balio aipagarriak sumatzen direla: estilistikoak (figurak, dotoretasuna, esaldi antolamendua...), narratiboak (kontakizunak, anekdotak, gertakariak...), erretorikoak (pertsuaditzeko baliabide eta egiturak), pragmatikoak (hartzaileari hurbiltze eta deiak, elkarriketak...), testuartekotasunekoak (klasikoei erreferentziak...) eta abar.

Agian, ez ziren proiektu literario argi baten kontzientziak eraginik idatziak izango, baina ez dira arruntasunean erortzen eta nolabaiteko itxura literarioz daude jantziak. Hizkuntza dotoretasuna, edertasuna, bilatzen dute. Gainera, Salaberri Muñoak (2002: 19) ohartarazten duenez, obra horietan euskal prosa literarioaren jatorria eta lehenbiziko garapenak, erreferentziak, baitaude, eta berorietan aurkitu izan dituzte idazle askok hizkuntza ereduak, hor alfabetatu izan dira linguistikoki eta, inoiz, literarioki ere.

Arazoi hauez guztiez jabeturik, Antologiaren bertsio honi eman nahi zaion bideratze panoramikoari, erakusleihu eta iturburu zabalaren taxuari, jarraituz, testu didaktiko-erlijiozko horien lagin adierazgarriak sartzea hautatu da. Gaur egunean ez lirateke literariotzat jaso eta erabiliko, ez eta irizpide zorrotz eta hertsia erabiliz gero antologia batean bilduko, baina euskaraz sortutako tradizioaren osagaiak eta bizitza literario-kulturalaren emaitzak dira. Antologian bilatzen da baita ere euskaraz gauzaturiko prozesu historiko, ideologiko eta kulturala, beronen baldintzak eta lorpenak, islatzea. Aldi batzuetatik, ordea, produkzioa urria izan delako edo testuak galdu egin direlako, aztarna gutxi batzuk besterik ez zaizkigu iritsi. Aldi horiek lantzerakoan, onartu egiten da paraliteratura, literatur esparruaren alboko inguruetan kokatzen diren idazlanak, euskal komunitate linguistiko-literarioak garai jakinetan linguistikoki, literarioki, estimuan izan dituenak.

Berretsi eta azpimarratu behar da, testu hauek Antologia honetan sartzeak batzuegan zalantza, kezka, errezelo, edo sosegurik eza sorrazten duela. Lasaigarritzat, nolabait, Antologia honen egokitzapenak egin daitezkeela. Egokitzapen horietako bat, irizpide zorrotzagoz eta gaurkotuagoz egin liteke, emandako arrazoiengatik hemen onartzen diren testu zenbait ametituko ez litzukeena.

Dena dela, erabaki edo hautapen hau orekatu nahirik, ez da edozein testu, besterik gabe, onartzen. Gutxieneko literatur bikaintasuna eskatzen zaio. Antologia hau panoramikoa da, baina ez kostatzen ahala kostatzen, ezin baita berdindion hala moduzko biltegi, katalogo, bihurtu. Ez da euskal letraren ororen antologia, Euskal Literaturarena baizik.

Bestalde, zalantzazko testu hauei eskainitako tartea ez da zabala, eta sailkatzerakoan, erlijio, aszetika eta espiritualitateari buruzko sermoi, tratatu edo iruzkin formapean, saiakera barruko didaktika motako azpigenerean, kokatzen dira. Gainera, testu hauei erantsitako sarreretan, egoki ikusten denean, arazoa eta eztabaida hau gogora ekarriko dira berriro, testuak dagozkien mailan eta tokian jartzearren.

8. Egitura, bertsioa eta euskarria

Antologia bat osatzeak, antologia baterako testuak hautatzeak, tradizioa eta oraingo produkzioa irakurtzea eta berrirakurtzea, eta aukeratutako testuak berrargitaratzea eskatzen du. Baina ez da nahikoa antologia testu bilduma soila izatea, testuak segida etengabea aurkeztea. Horretaz gainera, bidezkoa da –eta benetako antologia batek horixe behar du– hornidura paratestual landuz janztea: hitzaurrea, sarrerak (informazio historiko-kulturalak, literatur analisiak...), iturriak, oin-oharrak, bibliografia eta abar. Osagarri hauek obra, antologia gisa, eraikitzeke funtsezko zutabeak dira.

Honek guztiak azterketa prozesu luzea, egituratze lana eta arazo material zenbait askatzea edo erabakitzea eskatzen du.

8.1. Antologia eraikuntza egituratua da. Hiru mailaz, hain zuzen: egitura orokorra –obra osoa ardazten duena–, liburukiari dagokiona eta, azken mailan, oinarritzko atal edo unitate bakoitza antolatzen duena.

Antologiak ardatz, egitura orokor edo printzipio egituratzaile bat behar du.

Antologia baten egituratzeko, besteak beste, honako aukera hauek dira nagusiak: kronologia hutsez (mendez edo), mugimendu literario-kulturalak, autorez, gaiez, edo generoz. Denei nabari zaizkie abantailak, onurak eta hutsuneak. Hartzen den egituratze mota hartzen delarik, ez da behin ere aski izango bizitza literario osoaren, literatura horretako gertakari guztiak, eta bakoitza, taxuz adierazteko. Ez da behin ere gogobetekoa izango. Aldi kronologikoak, mugimendu literario-kulturalak, generoak eta abar, hurbilketak besterik ez dira, antolatze gutxi-asko egokiak, marko argigarriak, literaturaren lurralde osoa besarkatzera iristen ez direnak.

Mendez egindako antolaketa, sistema eroso da, argia, zehatza, egokia liburukien banaketa bisualerako. Gainera, oso entitate zabaldua da, erabilera komun edo ia-ia unibertsalekoa. Mendez egituratuz gero, saihestu egiten da mugimenduek, mendearen neurria gaindituz, sortzen duten arazo kronologikoa. Ez dago eragozpenik, espirituz edo jokamoldez aurreko mende bateko mugimendu bati dagokion idazle edo testu bat bere mendean uzteko. Alabaina, mendeak ez du mugimendu literario-kulturalen izate dinamiko eta mugagaitza behar bezala jasotzen. Ihes egiten dio. Mendea eta mugimendua oso gutxitan, edo inoiz ez, dira batera gertatzen. “Mende” denborazko unitatea, aldikatzeko lanetan hain erabilia, ez ohi da zehazki batera etortzen hura zeharkatzen duten mugimendu kulturalen muga kronologiko lauso eta labainekin.

Mugimendu literario-kulturez moldaturiko egituraketak hobeto jasotzen du gizarte eta literatur bizitza. Espirituzko bizitza artistikoa islatzeko antolaketa egokiagoa, koherenteagoa, naturalagoa, da. Mugimenduz antolatuz gero, mendeen banaketa zurrin eta moldakaitza gainditu daiteke. Baina mugimendu kulturalarena ez da mendearena bezain egitura argi eta zehatza. Mugimenduaren ezaugarriak ez dira beti ongi definituak azaltzen, eta zenbaitetan ez da eroso izaten autore bakoitza zein mugimendutan kokatu behar den erabakitzea. Areago, badira autoreak, mugimendu konkretu berari atxikiak izan arren, aldi kronologiko desberdinetan idazten dutenak. Mugimenduak ez dira beti lurralde eta literatura guztietan batera gauzatzen; denbora tarteak ere gertatu ohi dira.

Hauk eta bestelako arrazoiak direla eta, antolamendua –dela mendez, dela mugimenduz edo generoz– ezin da zurrin izan, zeharkatu ezineko muga zorrotzez zedarritua, erabat itxitako konpartimentutan zatikatua. Egituraketak aldaketa eta egokitzapenei irekia izan behar du; errepikak, inkoherentziak, joskera ezak, neurri bateraino, barkatzekoak.

1) Antologia honetarako, nagusiki ibilbide historiko-kronologikoaren araberrako eraketaren alde egin eta egitura kronologikoa hobetsi da. Hauxe da, hain zuzen, bestalde, egin ohi diren antologia lanetan eredurik erabiliena, paradigmatisa.

Baina egituratze kronologikoaren aldeko apustuak ez du baztertzaila izan nahi, mende eta mugimenduen artean bata hautatuz eta bestea zokoratuz. Erabaki dena da ardatz kronologiko honetan mendeak, aldiak edo etapak batetik eta mugimendu artistiko-kulturalak bestetik malguki artikulatzea. Hortaz, azaleko egituraketa mendez adierazia da eta sakonekoa, berriz, mugimendu literario-kulturetan gorpuztua. Uztartze hau liburukien izenburuetan islatuko da. Horrela, lehenengo liburuki honen izenburua: *Erdi Arotik Errenazimentura. XIV, XV eta XVI. mendeak*.

Aurpegi biko hautapen kronologiko honetan, Euskal Literaturaren aldikatzek aurre egin behar dion arazoetariko bat gorago aipatutako berankortasun guneena da. Ematen duenez, mendebaldeko historia artistiko-kulturalaren aldiak, erabat ez bada ere, nahiko finkatuta daude eta, beraz, ezinbestekoa da haiei erreferentzia egitea. Euskal Literatura ez da uharte galdu eta isolatua, ingurumari kulturalarekin inolako harreman eta loturarik gabea.

Aldikatzek zehazteko unean, ordea, Euskal Literaturaren historian zehar sortutako mugimendu literarioen muga kronologikoak ez datoz beti bat mugimendu horiek beroriek mendebaldeko kultura orokorrean izaten dituztenekin. Sarritan, aipatu denez, aurreko garai edo mugimendu bati dagozkion molde eta ideia literarioak, edukiak, praktikatzen dira eta, inoiz, joera propioz moldatzen da. Horrek, aldikatzek lana zaildu eta katramilatzen duten diskordantziak dakartza.

Gertaera honen azalpen edo interpretaziorik zuzenena litzateke, denbora berean joera desberdinak bizi izaten direla elkarrekin edo elkarren ondoan, batzuk momentu historiko horri dagozkionak eta beste batzuk aurreko aldi bati atxikiak, iragana, oro har, hurbila luzatuz eta iraunaraziz. Mugimenduak ez dira gauetik goizera desegiten edo itxuraldatzen, eta berriak ez dira bat-batean osatzen; aldi batzuetan elkarren ondoan bizitzera behartuak daude.

Bada diskordantzia egoera hau are gehiago korapilatzen duen beste faktore bat. Euskal Herriko Iparraldean eta Hegoaldean, literatur mugimenduak edo joerak ez dira beti zehazki batera gertatzen. Ematen diren urratsak ez doaz beti erritmo berean, eta, beraz, aldikatzek zenbaitetan ez dira elkarri egokitzen.

Arazoak hor dirau, oraindik, konponbide garbirik gabe. Antologia honen asmoa, hala ere, ez da aldikatzek erabat berri, bestelako edo ezohikoa proposatzea, baizik eta, soilki, Euskal Literaturaren hainbat historiari eskuari erabilitako aldikatzeei –zeinetan, bide batez, konkordantzia ugari ematen diren– artikulazioa egitea, jakina, egokitzapenak moldatzeko aukera baztertu gabe. Hemen hasitako Antologia lan honek irautei duen bitartean, dela LIBeko lankideen, dela bestelako ikertzaileen azterketen bidez, aldikatzeei korapilo honi ekarpen edota irtenbide argigarriak zabalduko zaizkion itxaropenez.

Oraingo, bada, lehenengo liburukia bukatuta, sarrera orokor nagusi hau zehazteko unean, honako hau da proposatzen den behin-behineko aldikatzek orokorra: 1. Erdi Arotik Errenazimentura (xiv, xv eta xvi. mendeak); 2. Errenazimentutik Ilustraziora (xvii eta xviii. mendeak); 3. Erromanizismoaren ingurumarietan (xix. mendea); 4. Literatura garaikidea (I); 5. Literatura garaikidea (II). Behin-behineko aldikatzek hau Antologiaren

itsasketa luzean zehar –Antologia itsasaldiko kaietara onik eta osorik iristen bada– zehaztuko da.

2) Aldi kronologiko, hots, mende eta mugimendu kulturalen gurutzaketa bakoitzaren barruan, Antologiarako hautatutako literatur testuak autorez edo testu multzoz banatzen dira, eta idazlanen askotarikotasun eta kidetasunak aukera ematen dutenean baita generoz edo bestelako diskurtso jardueraz ere.

Autorez, literatur materiala urria denean, lehenengo liburuki honetan bezala, edo nortasun eta adierazgarritasun nabarmenekoak izanik, tratamendu berezia, bana-banakoa, eskatzen duten egileak direnean. Testu multzo mugatuez, autoretza pertsonala ezezaguna edo munta gutxikoa denean, herri eta ahozko literaturaren adibide askotan, kasurako. Testu kopuruak edo izateak aukera ematen duenean, generoz, eta, ahal izanez gero, xx-xxi. mendeetan jadanik, azpigenero, forma orokor, gai eta abarrez.

Autoreak eta testuak generotan eta bestelako adierazpen praktikatan banatu eta kokatzeko, honako baliabide hauek dira erabilgarriak: lerroa grafikoki taxutzeko moldea, hau da, prosa edo hitz laua zein neurtitz edo bertso-lerroa; genero teoriko edo jarrera antropologiko iraunkorra, hots, lirika, epika, edo dramatika; eta, batez ere, genero historiko konkretua, aldakorra, baina besarkatze edo edukiera zabalekoa, hala nola poema, nobela, ipuin, antzerki, saiakera eta abar. Azken hauen barruan, berriz, azpigeneroak eta espezie mugatuagoak, zehatzagoak, forma, gai, doinu eta bestelako baliabide bereziengatik ezagunak, alegia, polizia nobela, bidaia nobela, zientzia-fikzio nobela... balada eta erromantzea, bertsopapera, alegia, haikua... komedia, drama, tragedia... kazetaritzako diskurtso motak, komikia...

Guztiak euren gauzatze ahozko zein idatzian –ahozkoa idatzizko bertsioan bildua– eta erregistro kultu zein herrikoian jasotzen dira.

3) Eman dezagun aldikatze argi, zehatz eta gehiengoarentzat gogobetekoa izatea, eta testuak generotan sailkatzea lortu dela. Bada, orduan ere, aldikatze eta sailkatze lanean ez litzateke arazorik faltako.

Problema batzuk literatura gehienei komun zaizkienak dira eta, beraz, hemen ere aipatu eta erabaki beharrekoak.

Zein literaturatan kokatu hainbat literaturatan sortu duen autoreak? Antologia honetan, euskaraz produzitutakoa bakarrik jasotzen denez, alde honetatik ez dago arazorik. Korapiloa azaldu izan balitz, autoreak emaitza aipagarria izan zuen literatura edo hizkuntza guztietan kokatuko zatekeen, baina, bereziki, jarduera nagusia bete zuen literaturan landuz.

Zein mugimendu literario-kulturaletan kokatu bere literatur jarduera mugimendu edo joera batean baino gehiagotan praktikatu duen autoreak?

Aurrekoaren moduan, autore horrek emaitza egokia izan duen mugimendu guztietan, baina, batez ere, jarduera nagusia izan duen mugimenduan tratatuz.

Zein mugimendutan kokatu adierazpidez eta edukiz gainbehera doan aurreko mugimendu bati, garaikoa baino lehenagokoa den izateko modu bati, dagokion autoreak? Bere garaian, idatzi duen garaian, baina desfaseaz ohartaraziz.

Zein generotan sailkatu genero edo diskurtso jarduera bat baino gehiago baliatu duen autoreak? Hari beretik, emaitza aipagarria izan duen genero guztietan, baina, bereziki, produkzio nagusia lortu duen generoan azalduz.

Gorabehera komun, ohiko, hauez gain, bada beste bat Euskal Literaturari zuzenean eragiten diona, arazo iturri dena, harena bakarrik ez dela izango uste izatekoa bada ere.

Euskal testu zenbait, hainbat arrazoi direla medio, sortuak izan diren garaia baino askoz beranduago izan dira argitaratuak. Are korapilatsuago, zenbaitetan, iritsi zaigun testuaren bertsio edo edizioa bertan aipatutako gertaera historikoa edo islatutako giroa baino nabarmenki beranduagokoa da edo beranduago dago jaso, eta, agian, eta horixe da, hain zuzen, nahasgarriena, baita idatzia ere.

Honen adibide gisa, xix. mendeko biltzaile edo argitalpenei esker ezagunak diren Behe Erdi Aroko giro eta edukiz taxututako kanta epiko edo bestelako zenbait. Horietan ez dago ziurki jakiterik sortu ziren moduan jasoak izan diren, aldaketak jasan ote dituzten (ezabaketak, tartekatzeak, trukatzek...), jasotako garaian ala aipatutako gertaeraren garaian sortuak izan ote diren... Agian, bilduak izan diren garaian izan dira sortuak, asmatuak, agian ez.

Horrela, esaterako, "Bereterretxan kantorea" k. xv. mendearen lehenengo erdiko gertaera bat kontatzen du. Baina testua, heldu zaigun kantaren bertsio idatzia, xix. mendekoa da. Noiz izan zen sortua testua? Aukerak eta konbinazioak askotarikoak dira: gertaera jazo zen garaian ahoz sortu eta ondoren ahoz aho transmititua, xix. mendean idatziz jaso izan zen arte; xv eta xix. mendeen arteko une edo fase batean; bertsio idatzi ezagunaren garaian, xix. ean, alegia; eta abar.

Ezin denean testuaren data eta jatorria ziurtatu, zer egin, non kokatu?

Zuhurrena, beharbada, itxoitea litzateke, harik eta testuei buruzko aurkikuntza edo azterketa historiko eta linguistiko berriek testuen bertsioak zehaztasun handiagoz finka ditzaten arte. Ekarpene horiek iritsiko diren ez da ziurra; iristen badira ere, batek daki noiz. Bitartean, taxuz jokatzeko, hiru data bereizi behar dira: testuak jasotzen duen gertaera historikoa, faktikoa, jazo zenekoa; testua, ahozko zein idatzizko forman, sortua izan zeneko data edo garaia, eta jatorriz ahozkoa bada, idatzizko bertsioz gauzatu zenekoa; ezagutzen den bertsioa jaso izan zeneko data.

Bereizketa honetatik abiatuta, zalantzasako testu horiekin jokatzeko aukera nagusiak hauexek lirateke: ziurgabetasuna dela eta, testu horiek antologiatik baztertzea; testu horiek bilduak, jasoak, izan diren garai historikoan kokatzea, sarreran edo oin-oharretan lehenagokoak izan litezkeela argituz; eta, hirugarrenik, testu horiek islatzen duten gertaera edo giro historikoaren garaian kokatzea, sarreran edo oin-oharretan testu horien benetakotasun estatus edo arazoa argituz.

Antologia honetan, zenbait kasu konkretutan, alegia, testua jatorriz jaso izan deneko data baino askoz lehenagokoa delako susmoa izateko arrazoi nahikorik dagoenean, hirugarren aukeraren alde egiten da.

8.2. Antologiaren egitura orokorraz jardun ondoren, liburukiaren egitura eta barne antolamendua azalduko dira. Liburukia lau atal nagusitan gauzatzen da.

1) Liburukiaren aurkibide orokorra.

2) Antologiaren oinarritzko sarrera orokorra.

3) Liburukiak besarkatzen duen denbora kronologikoan kokatzen den, edo diren, aldia(k) edo literatur mugimendua(k). Aldi edo mugimendu bakoitzaren antolamendua: aldiak edo mugimenduak eskatzen duen sarrera; taula kronologikoa; autoreak edo testu multzoak, banaka edo generotan (bakoitza sarrera bereziz hornitua) bilduak.

4) Bibliografia. Honela sailkatua:

a) Lehen mailako bibliografia: liburukiko testuak hautatuak izan diren jatorrizko edo bigarren eskuko iturriak.

b) Bigarren mailako bibliografia: liburukiko testuen inguruko bildumak eta azterketak.

- Antologiak.

- Historia eta ikerketa orokorrak.

- Monografia bereziak.

c) Bibliografia osagarria: literaturari, antologia lanari, erabilitako informazioari eta abarri buruzkoa.

8.3. Goraxeago esan den moduan, aldia edo mugimendua, aukera izaten denean, generotan azpibanatzen da, eta generotan, berriz, autoreak eta testuak biltzen dira. Inoiz, alderantziz ere bai: autorearen obra osoaren barruan generoak bereiziz. Autoreak eta testuak dira, azken finean, bereiz zein generotan bilduak, Antologiaren oinarritzko unitate edo atal osagarri eta eskuragarriak.

Liburukiaren antolamenduaren barruan, Antologiaren sarrera orokorra [1], irakurlea une honetan irakurtzen ari dena, alegia, aldi edo mugimenduari

buruzko sarrera [2] eta, hala egokitzen bada, generoari dagokion sarreraz [3] gain, autorearen edo testu multzoaren, hots, oinarrizko unitate bakoitzaren egitura da aipatu beharrekoa.

1) Autore edo testu multzoari dagokion sarrera [4], autorearen garrantziaren arabera luzera aldakorrekoa, inoiz ez zabala. Sarrera honek, besteak beste, honako puntu hauei heltzen die: argibide biografikoak, obra, testuingurua, idazkera edo estiloa, esangura eta eragina, hartutako bertsio linguistikoaren nondik norakoak eta abar.

2) Testu hautatuak, eskuarki bakoitza sarrera laburrez [5] aurkeztua. Sarrera honetan alderdi hauek azal daitezke: testuaren kokapena obran eta giro historikoan, ideia nagusia, bertsioa edo aldaera, adierazpen ezaugarri nagusiren bat edo beste eta abar.

3) Oin-oharrak, labur-laburrak, ezezagun edo ulertzen korapilatsuak gerta litezkeen hitzen, esaldi zatien, izen berezien (antropónimoak, toponimoak), euskalki formen edo bestelako esamolderen argigarriak. Ohar esplikatiiboak dira gehienbat, semantikoak, testua ulertzen, lehen mailako irakurketa literala, hitzez-hitzezkoa, egiten laguntzeko jarriak. Ez dira –edo ahalik eta gehien gutxitu dira– interpretaziorako oharrik, ez eta tankera filologiko hutsezkoak ere, hots, hitzaren izaera filologikoa edo bilakaera diakronikoari buruzkoak. Hala ere, inoiz, errepikatua eta esanguratsua denean, ezaugarri filologiko-linguistikoa jaso egiten da, baina autore edo testu multzoari dagokion sarrerara igorritik, autore edo testuen marka linguistiko nabarmen gisa: zukako alokutiboaren erabilera, adibidez.

Terminoak forma gaurkotuen eta sinonimo edo parafrasien bidez argitzen dira: aurrena, jatorrizkoari gehien hurbiltzen zaion forma, antzekoena, jarritik, eta ondoren beste itxura batekoak. Esaterako: “erideiten: edireten, aurkitzen”.

Azalpen kultural, historiko edo linguistiko zabalago eta zehatzagoak behar izanez gero, testu bakoitzean aipatzen diren iturri eta oinarriak balia daitezke.

Antologiaren sarrera orokorra eta aldi edo mugimenduei dagozkien sarrerak izenpeturik daude. Sinatzaileak dira idazki horien erantzule zuzenak. Genero, autore eta testu multzoei erantsitako sarreretan atal bakoitzaren arduradunen izenak seinalatzen dira: eurak dira atal edo unitate horien konfigurazioaren arduradun nagusiak. Dena den, azken erantzuleak sinatzaile eta arduradun horiek badira ere, sail guztiak, oro har, eta bakarkako desadostasunez gain, lantaldeak iragazi, moldatu eta onartuak dira. Lantaldeak bere gain hartzen du Antologia eta, beraz, baita sarreraren eta atalen mailan, dagokion erantzunkidetasuna ere.

8.4. Beste eztabaida iturri eta erabakia eskatzen duen auzia: testuen bertsioarena. Ezaguna denez, euskara, historian zehar, euskalkitan banatua

egon da. Aldaera geografikoak, tokian tokikoak, oztopo dira Antologiaren testuen bertsioa erabakitzeko unean. Aldaera geografikoez gain, denborazkoak. Testu batzuek, mendeetan zehar, aldaketak jasan dituzte. Euskarak, bestalde, euskalkietan gauzatua, lehenengo lekuko literarioetatik hona, bilakaera nabarmena izan du, egoera desberdinetatik igaro da (grafian, ortografian, gramatika formetan, lexikoan...), eta ez da batasunik izan, are gutxiago batasun iraunkorrik, jakina, xx. mendearen azken herena arte.

Hizkuntzaren batasunari, erabakitasunez, xx. mendearen hirugarren herenean ekin zaio, ortografia eta oinarritzko zenbait forma gramatikal, deklinabidea eta aditza batik bat, finkatuz. Hortaz, xx. mendearen hirugarren herena baino lehen sortutako testuetako hizkuntza aldaerak, euskalkietakoak zein diakronikoak, arazo bihurri dira Antologiaren konfiguraziorako.

Bertsioaren auzian, beraz, hiru korapilo: batetik, bertsioaren eta testuaren jatorrizkotasun, benetakotasun eta osotasuna; bestetik, testuaren transkripzio edo forma linguistikoa; azkenik, testuaren egokitzea. Testuen bertsioarena, beste literatura askoren arazoa izanik ere, Euskal Literaturan ezaugarri bereziak dituena da.

Testuen benetakotasuna eta osotasuna bilatu nahian, jatorrizko iturrietara jo da. Testuen sarreretan erabilitako "Jatorrizko iturria" espresioarekin testuaren lehenengo agerpen idatzia edo lehenengo edizio inprimatua adierazi nahi da; lehenengo hori galdu edo falta denean, testua jasoz guregana iritsi den dokumentu edo bertsiorik zaharrena. Jatorrizko iturri horiek, faksimileen edo ikertzaile espezializatuak landutako edizio kritiko fidagarrien bidez eskuratu eta erabili dira. Jatorrizko iturri horien transkripzio linguistikoa ere, orobat, aztertzaile adituek egindakoez baliatu da, oro har (Mitxelena; Altuna; Bilbao, et al.; eta abar).

Azalpenak argiago eta testuak osokiago emateko, oin-oharretan hiru termino bereizi eta erabili dira. Alde batetik, "Eskuizkribuan/Jatorrizkoan", beharrezkotzat jotzen den kasuetan, bertsioan egokitu den forma eskuizkribuan edo jatorrizko testuan zehazki, berez, nola agertzen den adierazteko: "Urrexolako guduaren kanta"n, adibidez, *lenizanak* (bertsioan), *lenizanos* (eskuizkribuan). Bestetik, "Hautabidea(k)", jatorrizko testuko forman, bertsiorako hautatu denaz gain, irakurri eta transkribatu izan diren bestelako ordezkio formak erakusteko: "Martin Sanzen koplak"en, *laburko* (bertsioan), *laburra* (hautabidezko transkripzioa). Hirugarrenik, "Aldaera(k)", bertsioaren aldaeraren parean, jatorrizko aldaera esanguratsu desberdinak jasotzeko: "Atharratze jauregian", esaterako, *saldü naizü idi bat bezala* (bertsioan), *antxu/axuri bat bezala* (Xaho), *miga bat bezala* (Xaho; Francisque-Michel), *biga bat bezala* (Xaho; Jaurgain). Ataltxo hauetan jasotako testuak, "Eskuizkribuan/Jatorrizkoan" terminoen barruan jasotakoak izan ezik, bertsio

nagusikoak bezala –dagokien neurrian eta testuinguruen arabera–, egokituta ematen dira.

Testuen egokitzapenarena, berriz, arazo konplexua da, arretaz eta zuhurtasunez tratatu eta erabili beharrekoa. Hirugarren korapilo honi hiru galderaz hel dakioke: testuak egokitu ala ez; egokitzekotan, testu eta idazle guztietarako egokitze modu berdina ala bakoitzerako berezia; egokitzea nola eta noraino.

Taldea ados dago testuak egokitzearen beharraz. Euskal testu literario askoren –nagusiki lehenengoen, hots, xvi. mendean bildutakoen– itxura linguistikoa urrun samar gertatzen zaio gaur egungo irakurleari, baita landuari ere. Hurbiltze lanaren premia sumatzen da, bai testuen, bai irakurlearen mesedetan.

Behin egokitzeko erabakia hartu eta gero, testu eta idazle bakoitzerako egokitze modu propioa, berezia, hautatu ala, euskalki eta garaiez gaindi, guztietarako eredu berdintsua, orokorra? Antologia ez da euskalki, garai edo autore batena. Hala balitz, ez litzateke oso zaila izango bertsio egokitu zehatza eta koherentea atontzea. Antologiak, ordea, euskalki eta garai desberdinetako testu eta idazleak biltzen ditu. Orduan, besteak kontuan izan gabe, bakoitza bere horretan egokitu, ala, bakoitza ahalik eta gehien errespetatuz, homogeneousitasun orekatu eta koherentea lortzearen, testu guztietarako erabiliko den moldatze linguistiko paretsu baterantz jo? Antologia honetan, egokitze eredu homogeneousoaren alde egin da, jakinik, estandarizatze edo orekatze horrek ez dituela, inondik ere, testu eta autore bakoitzaren izaera eta ezaugarri bereziak deuseztatzen.

Arazoaren muina, ordea, honako hau da: egokitze ariketa hori nola eta noraino eraman koherenteki aurrera. Testuarekiko begirunearen eta bertsioa egokitu behararen arteko buruhaustea. Testuaren jatorrizkotasuna eta osotasuna zaintzekoak dira eta, orobat, gaurko irakurlearen premiak eta baldintzak.

Jarrai zitezkeen, besterik gabe, ikertzaile adituek egindako egokitzapenak. Batetik, ordea, oraingoz, ez da azaldu, beharra duten testu guztietarako, bertsio egokiturik. Bestetik, gainera, aztertzaileok helburu eta irizpide desberdinez jokatzaren dutenez, ez dute beti egokitzapen molde eta maila bera jarraitzen. Ondorioz, bertsio horiei hertsiki atxikiz gero, Antologian zehar, ortografia eta forma gramatikaletan, inkoherentzia eta heterogeneousitasuna nabarmenduko lirateke.

Tarteko bide bat hautatu da. Egokitzapenetarako oinarria, espezialistek testu zaharrekin egindako egokitze saioetan bilatu da eta, halaber, Andres Alberdik (2009) prestatutako *Estandarizatu gabeko solasak nola eman ikasliburuetan* txostenean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila-k argitaratua [Euskara: Eskola-materialen Estilo-liburua]:

<www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/estandarok.pdf>. Baina, aldi berean, lantaldeak beharrezkotzat jotzen dituen moldaketak egiteko, irizpide konkretuak taxutzeko, aukerari eutsi dio. Testuen sarreretan erabilitako “Bertsioaren oinarria” formularekin, delako testuaren forma linguistikoa, egokitzea eta oin-oharrak taxutzeko erabili den bertsio lagungarria adierazi nahi da. Ez bakarra, ez erabatekoa, baina bai nagusia.

Egokitze egitasmoa gauzatzeko igaro beharreko atakarik estuena, ortografia eta gramatika formen egokitze eta gaurkotze horretarako eredu koherente, homogeneoa eta eutsigarria erabaki eta lantzeko garaian iritsi da. Grafiak gaurkotu behar direla garbi dagoen moduan, argi dago baita ere euskararen batasunari ofizialki ekin baino lehenago (1968) sortutako testuak ez direla, besterik gabe eta erabat, euskara batuaren mailara egokitu behar. Egokitzapen grafikoaren eta euskara batuan moldaturiko bertsioaren artean, bi mutur horien artean, testuarekiko begirunean eta egungo irakurlearenganako hurbiltzea ados jarri nahirik, noraino egokitu, moldatu, batasunaren hasiera baino lehenagoko testuak?

Taldekideten artean bi joera nabarmendu dira: batzuen, jatorrizko testuarekiko begirunea pribilegiatzea; besteena, irakurlearenganako hurbilketa hobestea. Joera biok zilegizkoak, bidezkoak.

Eztabaida luze eta errepikatuen ondoren, bi aldeetatik, ederki kostata, amore eman eta, irizpide orokor gisa, erdibideko irtenbide bat aukeratu da: ortografia ahalik eta gehien hurbiltzea, gaurkotzea, eta forma gramatikalak (izenordainak, determinatzaileak, deklinabide atzizkiak, adizkiak, lexikoa...), garaia eta euskalkia kontuan izanik, ahalik eta gehien mantentzea, al bait gutxien aldatzea, behar denean forma horiek oin-oharretan egokitzuz edo argituz. Esaterako, jatorrizko *Oray aldiz içaneniz orotaco lehena* egokituko da *Orai, aldiz, izanen hiz orotako lehena* mailaraino; ez, ordea, “Orain, aldiz, izanen haiz orotako lehena” formara iristeraino. *Urtan eder arria / aen gañean choria, Urtan eder harria / haen gainea txoria*, baina ez “Uretan eder harria / haren gainea txoria”. Honela, testuarekiko atxikimendua, gaurko irakurlearenganako hurreratzea eta euskararen normalizazio bidean ahalik eta traba edo behaztopa-harririk gutxien jartzea bilatu da.

Literatur testuak, zaharrenak batik bat, gehienetan, hizkuntzalaritzaren aldetik izan dira atzemanak eta aztertuak. Jarduera horretan, ikuspuntu historiko-filologikoa nagusitu da. Antologian, berriz, testuak gertakari eta bizipen literario moduan hartzen dira bereziki eta irakurleari ahalik eta modurik erakargarrienean, atseginenean, eskaini nahi zaizkio. Xede honek testuak egokitzea eskatzen du, egokitzapen hauetan inoiz jakintza filologiko hertsiaeren arauak malguki erabiltzen badira ere.

Tirabira honetan, testuak oraindik gehiago errespetatu eta gutxiago egoki zitezkeen, baina baita egokitzea aurrerago eraman ere, inkoherentzia batzuk deseginez eta zenbait forma gaurko euskara idatzira hurbilagotuz. Oraingoan, egokitze maila “Ortografia eta hitz formen egokitzapenak” atalean agertzen den eta testuetan aplikatu dena da.

Jatorrizko testuetan gauzatutako esku-sartzea nolabait konpentsatzeko, bertako hizkuntza formen erakusgarri gisa, jatorrizko testu horietako batzuen argazkiak tartekatzen dira. Horietan, egokitu gabeko bertsio originala egiaztatzea daiteke. Bestalde, Antologiaren edizio digitalean, esteken bidez, jatorrizko testuetara iritsi eta bertan jatorrizko formez jabetzeko aukera ematen da.

Bertsio bat bakarra aukeratu behar eta, Antologiaren helburu eta jomuga kontuan izanik, faksimilekoa, paleografikoa edo erdipaleografikoa alboratu, eta bertsio gaurkotua, egokitua, hautatu da. Erabaki eztabaidagarria, bestelako bat hartu izan balitz bezala. Saiatu da txapel batez bi buru estaltzen, baina ezin. Ondorio guztiekin.

Irizpide orokor hauen arabera erabaki eta erabilitako ortografia eta forma linguistikoaren egokitzapen konkrituak, beraz, aipaturiko “Ortografia eta hitz formen egokitzapenak” (111-123. or.) atalean daude azalduak.

8.5. Gaur egun, irakurtzea –oro har, eta, zehazkiago, literatura irakurtzea– hala nola liburua, euskarri gisa, krisialdian edota trantsizio prozesuan aurkitzen dira. Liburuarena da larriena eta nahasiena, irautea, leunki berregokitzea edo bortizki desagertzea gerta baitaioke.

Lantaldeak, esan bezala, literatura eta antologia literario baten balioa aitortzen eta aldeztu du. Egoera argitu delako eta literaturaren irakurtze maiztasunak eta kalitate mailak neurri duinari eutsiko diotelako uste ona du. Agian, irakurle kopurua, oraingoaren aldean, murritzuta egingo da, baina lantaldeak espero du, zinez, oraindik askok literaturaren irakurketa arraz balioetsi eta estimu handitan izango dutela, literaturan, gozatzeko eta bizitzeko baliabide aukerakoa topatuko baitute. Espero du, halaber, euskarriak egokitu, ugaritu eta dibertsifikatzea, eta bakoitzak, bai paperezko liburua, bai liburu elektronikoa edo *on-line*ko testuek, bere garapen, esparru propio, funtzio eta atxikimendua izatea.

Antologia hau, beraz, paperezko liburu formatuan, inprimategian, eta, aldi berean, *on-line*, bertsio digitalean, argitaratzeko asmoa dago. Obraren edukia eta oinarriko egitura berdin-berdinak dira bi euskarri edo hedabideotan.

9. Erabilera

Antologia bat ez da erabiltzen, ez da irakurtzen, demagun, nobela,

egunkari edo hiztegi bat irakurtzen den jarreraz. Antologiak, nahiz eta beste obra mota batzuekin alderdi komunak izan, espektatiba eta behar espezifikoek erantzuten die. Hortaz, berezko erabilera eskatzen du.

9.1. Oro har, bi irakurketa mota daude aukeran.

Irakurketa lineala eta osoa. Antologia irakur daiteke modu jarraiki, progresibo, osoz, hasieratik bukaeraraino, obrak seinalatutako hurrenkeraz, antologia bidaia eten edo ibilbidetik atera gabe. Irakurketa lineala, antologiak islatzen duen literatura bere bilakaera osoan ezagutzeko gogoari dagokio. Berez, antologiaren antolamendu kronologikoak irakurketa mota honetara gonbidatzen du. Ez da hau, ordea, ohiko irakurketa edo erabilera modua.

Irakurketa etena eta partziala. Irakurketa linealaren, ordenatuaren eta osoaren orde, hurrenkera aske eta zatikakoa hautatzen bada, aukerak askotarikoak dira.

Atalkakoa. Irakurketa atal zabaletara eramaten duten sarbideak erabiliz egiten da, erabiltzaileak, beharren edo interesen arabera, hautatutako hurrenkeraz. Honela, irakurlea aldi, genero, autore edo gai zehatzetan sartzen da, antologia agortzeko asmorik gabe. Irakaskuntzako programek irakurketa eredu honetara bideratu ohi dute.

Noizbehinkakoa. Antologia oso behar konkretuen harira erabil daiteke. Irakurketa ez da aurrez planifikatutako ildo bati jarraituz edo atal oso bat besarkatuz gauzatzen, zirkunstantzia, zeregin, kontsulta edo premia jakinen, zedarrituen, arabera baizik.

Ausazkoa. Modu arbitrarioz, apetaren arabera, jauzika, egindako irakurketa. Beharrei edo zereginei baino gehiago, unean uneko jakin-min, gustu edo gutiziei erantzuten die. Antologiaren erabilera, testuetara jotzea, bulkadaz, bururatu ahala, gauzatzen da.

Azken finean, arlo honetan, irakurketa mota erabakitzea irakurle erabiltzailearen esku dagoela azpimarratzea da garrantzizkoena. Antologia, osotasun eta hurrenkera jakin batekoa izan arren, objektu erabilerraza eta irekia da, irakurlearen araberrako askotariko baliatzeak onartzen dituen.

9.2. Testuen azterketa, interpretazio, balioeste eta erabilerarako metodoak eta estrategiak ugariak dira. Bada horiek modu zabal eta landuz azaltzen dituen bibliografia nahikorik. Segidan adieraziko dira, soilki, testuetara hurbiltzean kontuan izan beharreko oinarritzko jarraibide zenbait. Besterik ez.

1) Sarrera honen hasieran emandako literaturari buruzko deskripzioaren edo planteamenduaren harira, gogora ekarri behar da antologiaren gunea testuak direla. Testurik gabe ez dago ez literaturarik, ez eta literatur bizitzarik. Antologia testuinguruan kokatu eta oin-oharrez hornitutako testu hautatuen bilduma da. Bilduma baina, oroz gain, testuena, hain zuzen.

2) Baina, bestalde, ez dago gertakari literarioa burutzerik irakurlerik gabe. Testuak ez badu irakurlearen bisita abegitsua izaten, ez du benetako gauzatzerik lortzen, ez du bere izate osoa iristen.

3) Biak ala biak, testua eta irakurlea, irakurlea eta testua, nahitaezkoak dira literatur egintza gauzatu dadin. Testuak irakurlea behar du, irakurleak testua. Testua irakurlerik gabe etenda, oztopaturik gelditzen da, zintzilik, peskizan. Irakurlea testurik gabe, berriz, ez da irakurlea, irakurle gisa ezindua, bere irakurle izate eta gaitasunean eragotzia geratzen baita.

4) Testuen erabilerak, testuaren eta irakurlearen arteko elkarkomunikazioa, elkarrekintza, eskatzen du. Irakurleak testuarekin hizketan jardun beharra du. Testua da, hitz, egitura, adierazle, adierazi eta abarren bidez, abiapuntua; irakurlearengan, ideia, fikzio mundu, irudi, sentimen eta abarren eragilea, pizgarria. Irakurlea da, bere nortasun, gaitasun eta egoera propiotik, adierazpide eta eduki horiek atera eta bereganatzen dituen hizketakidea. Harengan, haren izatean, gorpuzten dira mundu horiek.

5) Testuak ez du bere burua besterik gabe komunikatzen, gardentasun osoz, zilegizko interpretazio bakar bat, ez gehiago, izango balu bezala. Irekia da, testuinguru eta irakurleen arabera interpretazio mota bat baino gehiago onartzen duena. Irakurleari dagokio interpretazioen pluraltasun hori bere nortasun eta egoera aldagarri konkretuan hezurmamitzea, aktualizatzea; testuak markatutako muga batzuen barruan, hala ere, nahi bada, behintzat, testuaren berezitasuna, singularitasuna, begirunez bermatu. Testua, beraz, bere horretan, berea duen izatea zainduz eta irakurlearen aurreiritzien talaiatik, joko interaktiboz, interpretazio, lotura eta aukera berriak sortuz, irakurri behar da.

9.3. Testuei erantsitako sarrerak eta oin-oharrak ez daude irakurketa bide edo modu bakarra, bertan adierazia, zedarritzeko asmoz jarriak; ez dira interpretazio pertsonalari jarritako muga zurrin edo murriztaileak. Batzuetan, bai, zehaztapen objektiboak baitira; besteetan, ordea, iradokizunak, proposamenak, ahalik eta egiaztatuena, albait neurrira landuenak.

Horregatik ez dira nahikoak, ez eta ezinbestekoak ere. Ez dira nahikoak testua agortzen ez dutelako, testuak sorraraz dezakeen guztia, irakurlearengan pitz dezakeen guztia, jasotzen ez dutelako. Sarrera eta oin-oharrek esparru zabala irekitzen diete irakurlearen ekimen eta parte-hartzeari. Ez dira nahitaezkoak, horiek gabe ere irakurlea, behar bezala informatu eta prestatua, gai delako testuaren muina iristeko.

Baina bai direla baliagarriak, onuragarriak, testua ulertu eta ingurumarian kokatu ahal izateko material argigarriak jartzen baitituzte eskura. Neurritz eta egokiro erabiliz gero, ez azken eta behin betiko hitza izango balitz bezala

itsu-itsuan irentsiz, lagungarri gerta dakizkioke irakurleari, testuari buruzko bere jarrera kritiko edo onarpenezkoa hartzeko.

9.4. Antologiaren irakurketa eta baliatzea aberasteko eta osatzeko modu ezin hobe, Antologiarekin batera, literaturaren historia edo historia literario on bat erabiltzea da. Antologia –testuak eta gainerakoak– eta historia elkarren osagarri dira.

Txertatutako sarrerek literaturaren historia edo historia literario baten funtzioa ere bete dezakete, baina ez dute espresuki historia hori azaltzeko landutako obra batek izan ohi duen jarraitutasun eta biribiltasun maila.

Autore eta aldi edo mugimenduei buruzko monografiak, azterketa zehatzak –horietako batzuk, historiekin batera, bukaerako bibliografian jasoak– irakurketa sakontzeko baliagarri izan daitezke.

9.5. Antologia, hortaz, funtzio eragilearena berretsiz, bildutako autore eta testuetatik haratago, testu gehiago eta osoak, autore gehiago irakurtzera egindako gonbita edo zirikada da: antologian hautatutako autoreez gain, autore gogokoenak, norbere hizkuntzazkoak eta, jakina, literatura unibertsalekoak ere.

Zeren eta antologia, hautapena bada ere, horixe besterik ez da, hautapena, eta, berez, murrizte eta laburtze bat. Autore aukeratu batzuen eta literatura-lanen zati batzuen –maiz laburrak– irakurtzeak ezin du obra osoaren irakurketa ordezkatu. Gogora ekarriz gorago jasotako Auster-en aipua, azken helburua testua bere orrialde propioan, obran, literatura-lan osoan alegia, eskuratzea eta irakurtzea da. Antologia ez da azken eta behin betiko hitza, baizik eta “no more than a first word, a threshold opening on to a new space”. Antologia, berez, atek eta itxiturak ametitzen ez dituen literaturaren lurralde erreal, zabal eta osoan sartzeko atari moduko bat da. Tranpolin edo saltagailu bat, bertatik jauzi egin eta literaturaren ozeano baztergabe eta hondogabea aiseago murgil egiteko. Dastatze menu edo eskainitako lehenengo ahamen gisakoa, probatu ondoren, literaturaren karta edo produkzio osoaz nahi adina gozatzeko.

Antologiak iturburura, jatorrizko testu osora, integralera, bideratu behar du. Irakurketa da bere abiapuntua eta irakurketa bere helburua; irakurketatik jaiotzen da eta irakurketara eramaten (Guillén, 1985/2005: 375).

9.6. Antologia honek irekia, eztabaidagarria, berraztergarria eta, gainera, egokigarria, moldagarria, izan nahi du. Obra zabal, besarkatzaile, panoramikoa izateko eta balizko beste egokitzapen eta askotariko bertsioen abiapuntu gisa jokatzeko izaten ari da landua.

Bestelako moldatze, egokitzapen, posibleen aukera nahiko zabala da.

Hizkuntza egokitzapenak: hizkuntza molde oraindik gaurkotuagoa, aisatuagoa, erabiliz; baita euskara batuan jarritz ere, nahiz eta arazo eta eragozpenez beteriko irtenbidea izan, ziur asko.

Irakurle taldeen arabera egokitzapenak: irakurle gazte, euskaldun berri eta abarrentzat bereziki moldatutakoak.

Literatur generoen arabera: herri-literatura, emakumeen literatura, edo, adibidez, literatura berriztatzailea, bereziki, jasoko luketenak.

Egiturazko egokitzapenak: irizpide zorrotzagoz, hertsiki literarioz, baliaturik hautatutako testuak, edo balizko kanon bat osa lezaketena, edota gaur egun benetan irakurgarriak eta erakargarriak direnak, bereziki jasoz.

Euskarri eta formatu egokitzapenak: liburu molde edo edizio digitalak gain, esate baterako, testu gutxiagoko eta sarrera bilduagoetako antologiak, laburrak, erabilerrazak.

Eta beste.

Ezin sarrera orokor hau itxi, harrera abegitsuz argibide, kritika edo bestelako ekarpenez, Antologiaren edukia eta antolamendua zehazten lagundu duten lantaldez kanpoko kideei zinezko esker ona adierazi gabe. Liburuki honetan, besteak beste, Borja Ariztimuño, Jon Artza, Pruden Gartzia, Rikardo Gomez, Joseba Lakarra, Céline Mounole, Josune Olabarria eta Elena Redondori.

Karlos OTEGI
Antologiaren koordinatzailea

ERDI AROTIK ERRENAZIMENTURA
xiv, xv eta xvi. mendeak

ERDI AROA EUSKAL HERRIAN

Historialariak Europako Erdi Aroaren mugez oraindik eztabaidatzen ari diren arren, onartu ohi da orokorki aldi hau, gutxi gorabehera, v. mendean –mendebaldeko Inperio Erromatarren zatitze eta desagitearekin– hasten dela eta xv. mendeko bigarren erdi aldera –Konstantinoplaren erorketarekin turkopean (1453), eta garai honetan gertatzen diren aurkikuntzekin (inprenta, Amerika...), hots, Errenazimentuarekin– bukatzen dela. Ia mila urteko epea, beraz.

Zenbaiten iritziz, mende ilunak kontsideratu ohi dira eta “Erdi” hitzak berak badu halako mespretxuzko konnotaziorik, zerbait osatugabearena edo. Esan behar da, ordea, hainbeste urtetan aro ezberdinak izan zirela herrialdeetan zehar, eta Erromantizismoarekin birbaloratzen hasi zela lauso eta barbarotzat jo izan zen Erdi Aro hura.

Euskal Herriak, edota Vasconiak –horrela izendatzen baitute Arnaud Oihenart (1638), Pierre de la Marca (1640) eta beste historialari batzuek Piriñioetako bi aldeetan kokaturik dagoen lurraldea– nolabaiteko batasun politikoa izan zuen ix. mendearen inguruan, errege Eneko Aritza eta hiriburu nagusia Iruñea zirelarik.

Mendeetan zehar, Nafarroako Erresuma honi erantsiz joan zitzaizkion, lehenik, Arabako konderria, zeina Bizkaia eta Gipuzkoara hedatzen zen, eta,

beranduago, Vasconia kontinental, edo Akitaniakoa, deituaren zati bat, bertan kokaturik baitzeuden Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa.

Antso III.a Nagusia (999-1035), Nafarroako errege boteretsua izan zen, bere koroaren pean eduki baitzituen, alde batetik, euskaldunez jendeztaturiko lurak, baina baita ere Gaztela, Aragoi, Gaskoinia eta Tolosako konderria. Alabaina, egoera honek ez zuen luzaro iraun, bera hildakoan ondorengoan artean banatu baitziren erreinuak eta lurak.

Gaztelako Erresumak, 1200. urtean, Gipuzkoako lurraldea bereganatu zuen, bidegabeki, Alfontso VIII.aren testamentuak dioenez. Bestalde, Arabako konderriaren eta Bizkaiko *Señorio*aren Gaztelaratzeak beranduago gertatu ziren, XIV. mende bukaeran, hain zuzen.

Behe Erdi Aroan, ohikoa zen Gaztelako erregeek –Henrike III.ak 1393an, Henrike IV.ak 1457an, Doña Isabelek 1473an, Don Fernandok 1476an...– zin egin zitzaten Bizkaiko Foruak Gernikan, non konprometitzen baitziren lurralde hauetako lege, ohitura eta usadioak errespetatzera.

Vasconia Akitaniakoaz azpimarratu behar da Lapurdi eta Zuberoa Ingalaterrako koroaren menpe izan zirela 1154az geroztik, hau da, Henrike II.a Akitaniako Leonor [Alienor] Anderearekin, hots, Vasconia dukesarekin ezkonduz geroztik. Egoera honek Frantzia eta Ingalaterraren artean izan zen Ehun Urteko gerraren (1337-1453) amaiera arte iraun zuen, Maule, Zuberoako hiriburua, 1449an erori baitzen Gaston Foixekoaren, Biarnoko bizkondearen pean, eta Baiona, Lapurdikoa, 1451n bereganatu baitzuen Frantziak.

Kontuan eduki behar da ere, Nafarroako Erresuma, Antso VII.a Azkarraren heriotzaren ondoan (1234), Champagneko konde frantsesen jabego eta ondare izatera pasatu zela (1234-1328), eta leinu honetatik Evreux-tarregana: Felipe III.a (1328-1349), Karlos II.a Gaiztoa (1349-1387), Karlos III.a (1387-1425), Blanka I.a eta Joan II.a Trastamarakoa (1425-1441 / 1425-1479).

Boterea eta lurren ondasunak lortzeko gatazkak etengabeak ohi ziren eta ez ziren sekula amaitzen. Halaxe, XV. mendearen erdialdean (1442-1461) beaumontarren eta agaramontarren arteko borrokak gertatu ziren. Beaumontarrak Karlos IV.aren (Bianako printzea, Blanka I.a eta Joan II.aren semea) aldekoak ziren, eta Luis de Beaumontek, Leringo kondeak, gidatzen zituen. Agaramontarrek, bestaldek, Joan II.a Trastamarakoaren aldekoek, Pedro Azkoiengoaren agintepean jardun zuten. Joanek beaumontarrak garaitu eta bere alaba Leonor izendatu zuen erreginagai. Leonor I.a Foixeko kondearekin ezkondua zenez, Nafarroako Erresuma Foixeko etxera pasatu zen (1479-1517), eta Katalina I.a Foixekoa Joan III.a Albretekoarekin ezkontzean (1483-1517), albretarregana (1517-1572).

Nafarroan bezala, mendebaldeko lurraldeetan ere, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, leinuen arteko borrokak gorroto eta mendekioz beteak izan ziren.

Gregorio Monreal (1973) historialariak dioenez, Behe Erdi Aroan gertatu zen fenomeno hau oso hedatua izan zen Espainia osoan, baina Euskal Herrian bereziki bortitzak eta krudelak gertatu ziren Ahaide Nagusien arteko borrokak. Protagonistak, Ahaide Nagusiak, sortu berriak ziren hiriak eta XIII-XIV. mendeetan zehar indar hartuz joandako gizataldeak. Azken horien barruan, herrien artean sortutako “Ermandadeak”: agintari eta handikien gehiegikeriei aurre egiteko, eta merkatarien negozioak eta lanbide elkarten eskubideak zaintzeko sorturiko taldeok, gizartearen aurrerabide eta ordena sozialaren ezartzean funtsezkoak bilakatu baziren ere, beren prozedura eta borroketan kontrarioengandik alde gutxik bereizten zituen (Guerra, 1924).

Uzten, olen, etxe eta hirien erreketak, eta hilketa amaigabeak gertatu ziren, zergatia nagusienetarikoa bat hauxe izanik: nor gehiago zen, hots, batak besteak baino gehiago balio zuela, frogatzea. Batak zioen, “Ba al da? Ba al da?”, eta honi besteak erantzuten, “Bada hemen bere hi lako bat al da”. Eta odolez janzten ziren zelai eta mendiak.

Adibidez, Esteban Garibaik dioenez, Mondragoeren (Arrasateren) erreketaz (1448ko ekainaren 23a) mintzo delarik, Bergarako hirurogei izan ziren hilak, eta gerra zibil hura “la mayor que ha habido en estas tierras entre estas dos parcialidades” izan zen. Testuinguru honetan, Pero Lopez Aialakoak, Gipuzkoako epaile nagusiak, 1448ko abenduaren 18an, Mondragoeko zazpi zaldun bizirik erretzera kondenatu zituen, sutearen eragile izateagatik. Halaber, Pero Velez Gebarakoa eta bere gudarosteko hirurehun gudari heriotzara kondenatu zituzten, aitoren seme zirenak lepoan harri bat zintzilikatu eta putzura jaurtikiak izan zitezen eta nobleziakoak ez zirenak urkamendira.

Ez da harrigarria, bada, gatazkaz betetako egoera latz eta odoltsu hauen oihartzuna herri xumeak ahoz aho kontserbatu izana eta Euskal Literaturaren historian agerturiko lehen emaitzak, hain zuzen, gertakizun horiek aipatzen dituzten kanta eta poemak izatea. Gertaera eta kanta hauek XV, XVI eta XVII. mendeetako zenbait historialari eta genealogistari esker dira ezagunak.

Zein zen Euskal Herriko kulturen eta hizkuntzen egoera mendeotan? Ikerlarien arabera, V. mendetik IX.era arte, testu denak latinez daude eta euskararen uza ez da oso aberatsa, pertsonaia, jainko eta leku izen batzuez aparte (Larrañaga, 1992).

X. mendeko lehen herenean, botere politiko nafarra, Antso I.a Gartzesekin (905-925), hego-mendebalderantz hedatzen saiatu zen bere herritar eta abereentzako esparru berriak bilatu nahirik. Horrela, Araba eta ingurueta (Oja, Tirón, Arlanzón eta beste) zabaldu zen, horrek argi esplikatzen duen alderdi hauetan kontserbatu den euskal onomastika.

Goi Erdi Aroan, euskarari buruzko dokumentazioa, esan bezala, oso eskasa da. Lehen esaldiak *Glosas Emilianenses* deituak izan direnen artean aur-

kitzen dira, 974. urte inguruan, Agustin dohatsuaren eguneroko sermoietan, latinezko testua argitzearren, nafar (edo arabar, edo errioxar) ikasle batek idatzitakoak.

X. mendetik aitzina, Leire, Irantzu, Iratxe, Donemiliaga Kukula, San Salvador de Oña, San Juan de la Peña eta Saint Jean de Sorde-ko monasterioetako liburu zaharretan, eta xiv. mendeko Zuberoako zentsuko eta Nafarroako Foru Orokorreko onomastikan aurkitzen da informaziorik gehiena euskararen historiarako. Aipatu monasterio horiek gainera, Donejakue bidean zeuden kokatuta eta horrela erromes batzuek beren ibilbidean idatzitako hiztegitxoek ere (Aimeric Picaud-ek xii. mendean eta Koloniako Arnold von Harff-ek xvi.aren bukaeran) euskararen zenbait hitzen berri ematen dute. Halaber, aurkitzen ahal dira garaiko euskararen ezaugarri gisara “Pater noster txikia” deitu otoitza (Gifford eta Molho, 1957), Karlos III.aren garaikoa (1361-1425), eta honen idazkaria izandako Matxin Zalbakoaren gutunttoa (1415), besteen artean (Orpustan, 1999).

Aski ezaguna da Erdi Aroan zehar, bai Nafarroan, bai beste euskal lurraldeetan, ez zela hizkuntza batasunik izan, eta hitz egiten zirela, neurri ezberdinetan noski, mintzaira bat baino gehiago. Latina, Elizaren hizkuntza ofiziala, abade eta jende kultuek mintzatua. Arabiera, musulmanena eta Nafarroako parte batean (Tutera eta) bizi ziren mozarabiarrena. Hebreera, judu komunitateek hitz egina (Iruñea, Lizarra, Tutera, Gasteiz...). Okzitaniera, bere aldaera gaskoiarekin, Donostian eta hiri honen inguruetakoa herrietan, hala nola honen koinea, hizkuntza franko gisa, Iruñea, Lizarra, Zangoza eta Tuteran. Nafar erromantzea, zeinaren ezaugarri nagusiak aragoiar erromantze eta gaztelaniarekiko berdintsuak diren. Frantsesa, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan. Eta euskara. Euskarak mendeetan zehar aitzinamendu eta atzerakadak ukan zituen (Lacarra, 1957) eta, beraz, lehen hedatze handi eta zabal batetik murrizketak pairatu zituela kontsideratzea ez da, antza, historiak eta agiriak dioskutena. Dena den, eta oro har, haxe zen herri xumeak eta zenbait noble, infantzoi eta Ahaide Nagusik ere, mintzatzen zuten lehen hizkuntza.

Euskarak, garai hauetan zuen estatusaren inguruan bada datu esanguratsu bakan zenbait. Badakigu euskarak izan zezakeela epaietan tratamendu berezia Erdi Aroan, zeren eta *Las costumbres de la ciudad Dags e deu ressort de quere* delakoaren arabera (Bladé, 1869), urte anitzez mantenduko ziren xiv. mendean ezarritako agindu batek zioenez, eta garai honetan Maule Akizeren menpe zegoenez, eskubideen eztabaidetan lekukoek euskara erabil zezaketen.

Joan Albretekoak eta Katalina Foixekoak, 1494eko urtarilaren 12an Iruñeko katedralean foruak errespetatzea zin egin zutenean, beste solas askoren

artean, honela zioten, alegia, izanen zuten lehen haurra, beren ondarearen jabe izanen zena, Erresuman hazi eta heziko zela, bertako hizkuntza eta ohituretan, urte zenbaitez bederen (Favyn, 1612).

Simancas-ko Artxibo Orokorrean, 1498ko dokumentu bat ageri da non Valladolideko Auzitegiko eskribautza Joan Murgakoari ematen zaion, honek, euskalduna izanik, ez zuelako interpreteren beharrik euskarazkoak ziren lekukoen testigutzak aditzeko.

Oro har, ordea, garbi dago, herri xumeak eta zenbait lekutan nobleek ere euskaraz mintzo baziren ere, euskararen presentzia agiri ofizialetan guztiz marjinala izan zela. Onomastikatik at, alegia, pertsona, leku, ibai eta etxe izenatarik aparte, agiriak latinez, frantsesez, gaskoiez edota erromantzez idatzi ziren (Urkizu, 2007).

Patri URKIZU

ERDI AROTIK ERRENAZIMENTURA

1. Atariko apunte historiografikoa

Data historikoak eta periodizazio historiografikoak laguntza handiko tresnak dira edozein jardun intelektualerako, betiere, ahaztu gabe konbentzio gisa ere erabiltzen ditugun “konstrukto” intelektualak direla, garai historikoez ari garenean aldiro estropezuka ez ibiltzeko lagungarriak, oihaneko arbola bakoitzak oihanaren perspektiba ez diezagun lausotu.

Hala ere, “Erdi Aro”, “humanismo” edo “Errenazimentu” bezalako hitz eta kontzeptuen inguruko jardunak ez du beti erabateko adostasuna bildu artearen, literaturaren eta kulturaren historialarien artean. Ez da arazo makala erabilitako terminologiaren esanahi eta mugak zehaztea. Zer ote da Errenazimentua? Garai historikoa? Periodo historikoa? Edo, besterik gabe, kultura eta arte mugimendua? Hori gutxi balitz, arazoa areagotu egingo litzaiguke Erdi Arotik Errenazimenturako jauziaren tamainaz galdezka hasiko bagina. Bada Errenazimentua eta Erdi Aroaren arteko aldea progresiboa izan zela defenditzen duen historialaririk, azken batean, ez zela erabateko etenik gertatu batetik bestera igarotzean eta, beste ezertaz baino lehen, bilakaeraz hitz egin beharko litzatekeela. Hori da Johan Huizingak (1919) Jacob Burckhardt-en

(1860) lan klasikoari egotzi ziona, bi garaien artean markatzen zuen desberdintasun larria gogoan. Ikuspegi bera defendituko dute gaur egungo beste zenbait historialari ospetsuk ere: Jacques Le Goff-ek (2003), adibidez, esaten du “garai” aldaketa gertatzen dela, ez, ordea, “zibilizazio” aldaketarik. Bere hitzetan: “Erdi Aroko aldi hori, nire ustetan, Errenazimentua ere bada”.

Beste horrenbeste defendituko du Peter Burke (1978) Errenazimentuaren eta Aro Modernoaren ezagutzaile bikainak, alegia, ez zela bat-bateko haus-turarik gertatu, aldaketa graduala izan zela. Alabaina, XVIII. mendeko Ilustra-zioak eta XIX. mendeko historiografiak pisu handia izan zuten auzi honetan, eta gradualtasunaren aurrean, aldaketa bortitzaren ideia lehenetsi zuten, geu-reganaino iritsi den Historiaren periodizazioa baldintzatuz.

Garaiko kezka eta arazoak buruan hurbildu ohi zaio historialaria iraganari, hango pindarretan egungo suak ikusteraino edo, alderantziz, egungo arazoak hara eramanez, hango taula historikoan txertatzeko. Esate baterako, Pierre Bayle (1697) edo Voltaire-rentzat (1756: 121. kap.), Errenazimentua sinesga-bea izan zen. Nola ez zuten ba, Erdi Aro teozentristaren aurrean, erlijioaren zamatik arinduta irudikatuko Errenazimentua? Antiklerikala eta baita esko-lastika eta aszetikaren aurkari irudika daiteke garaia, baina inondik ere ez si-nesgabea. Hori da, ordea, gure eskoletako historia-liburuetaraino lerratu den estereotipoetako bat. Gauza bera esan genezake arrazoimenaren eta pertso-naren eskubide eta askatasunaren aldeko aldarriei erreparatuko bagenie; aski argi dago non ikusiko lituzkeen Ilustrazioko historiografiak aldarri horiek eta non teologiaren irrazionaltasun, aurreiritzi eta sineskeria. Ez zuen besterik egingo Jules Michelet-ek (1855: 6) XIX. mendean esan zuenean, Jakob Burck-hardt-i (1860) aurea hartuz, Errenazimentuari zor zaiola “(la) découverte du monde et de l’homme”. Garai modernoan argia aurrez aurre jartzen zaio Erdi Aroko iluntasunari. Ilustraziotik XIX. mendeko pasabide horretantxe finkatu zen gerora erabateko arrakasta izango zuen paradigma, eta paradigma horrek biltzen ditu XIX. mendeko historiografia progresistaren *topoi* ugari: Errenazi-mentuaren arrazionalismoa, sinesgabetasuna, indibidualismoa, naturalismoa, sentsualismoa eta abar.

Gauza bera esan daiteke “Aro Modernoa”ren eta Errenazimentuaren go-raldiaren kointzidentziari buruz. Egia da era guztietako aurkikuntzak gertatu zirela garai horretan: Amerika eta geografia berrien aurkikuntza, inprentarena, bolbora eta iparrorratza. Kopernikoren (1473-1543) aurkikuntzarekin, berriz, ordura arteko teoria geozentrista teoria heliozentrista izatera pasatu zen, ge-roago Galileok (1564-1642) baieztatu eta zientziaren bultzatzaile eta akuilu bihurtuko zuena. Handik aurrera ez zen Lurra unibertsoaren zilborra izango. Galileo eta Descartesekin jarri ziren zientziaren eta arrazoimenaren (filoso-fiaren) lehen zutabe sendoak. XVII. mendetik aurrera, zientziak hartu zion le-

kukoa humanisten ondareari. Lehenago jakintza berrietarako ezinbesteko tresna filologia zen moduan, xvii. mendetik aurrera tresna hori matematika izango da. Orduan jarri zen abian zientziaren bilakaerak goitik behera aldatu zuen mendealdeko mentalitatea.

“Aro Modernoa” izendapenak badu aurreko garaietatik bereizten duen ezaugarri bat, eta zera hori xix. mendeko historialarien ekarpena izan zen: Frantziako Iraultzaren ondoren gero eta nabariago bihurtzen hasia zen Historiaren abiaduraren kontzientzia. Ordukoa da “progreso”aren ideia eta, ordua arte ez bezala, *Ancien Régime*ko egonkortasun geldoaren aurrean, Historia mugitu egiten zenarena. Hegelen (1845) esanetan, orduantxe bihurtu zen historia zaharra letra handitan idatzitako “Historia Unibertsal”, kontingentzien andana huts izateari utzi eta kontzientzia historiko moderno batetik irudikatutako Historia Unibertsalaren kategoria kanonikoan sartuz.

Asko dira Konstantinopla turkoen eskuetan erori zen urtea (1453) (inprenta ere urte bertsuetan asmatu zen) mugarri jartzearen aldekoak; era berean, ez dira gutxiago garaiko aurkikuntzarik harrigarrienaren urtea jartzen dutenak mugarri, hau da, Amerikarena (1492). Biak ere xv. mendeko bigarren aldi-koak eta hurrengo mendeetan eragin itzela izango zuten aurkikuntzen altzoan bermatuak.

2. Erdi Aroa eta Errenazimentua (xiv-xvi. mendeak)

“Erdi Aroa” hitza eta kontzeptua xiv. mendean sortu zen estreinako aldiz Petrarca eta ondorengo humanista italiarren testuetan. Baina hitzak hasiera-hasieratik izan zuen haien ahotan zentzu gutxiesgarria: Erdi Aroa gairitu beharreko garai goibel eta iluna zen. Erdi Aroari bizkar eman eta Errenazimentuaren bidean, Antzinaroko testuak izan zituzten helburu. Aurrerantzean, tradizio hartan begiratuko dira, eta jatorrizko iturrietan edanez hartuko du abiada humanismoaren mugimenduak. Petrarca (1304-1374) hasi zen orduko Elizaren latin zabarraren ordeztu latin dotore eta garbia erabiltzen; bide batez, mendeen joanak testu klasiko paganoetan jalkitako interpretazio biziotsuak saihesten ahalegindu zen. Ezin da Petrarcaen lana aurreko klasikozaileen mailara ekarri, “xii. mendeko Errenazimentu”ko eta ondorengo klasikozaileen mailara, izan ere, haiengan ez bezala, Petrarcaengan garai desberdinen (iraganaren/orainaldiaren) kontzientzia historiko ernea zegoelako eta, gainera, filologia klasikoaren egiazko profesionala izan zelako Petrarca.

Iragan klasikoaren eta humanistek bizi duten orainaren arteko kontzientzia erne horrek bultzatzen ditu “Erdi Aroa” asmatzera, garai “ilun” hori atzean utzi nahiko lukete, etorkizuna jatorrizko iturri klasikoaren argira eraikitzeko.

Garaiko egileengan ez da faltako argiaren metaforarik, azken batean, Errenazimentua jatorrirako itzultze bat da, baina itzultze hori Errenazimentuko espiritua legami da. Danteren (1265-1321) *Divina Commedia*-ren (1307-1321) barne bidaiatik Petrarca eta Boccaccioren testuetara, hirurak XIV. mendeko egileak, nor nabarmenago nor leunago, sentsibilitate aldaketa baten katebegi dira. Danteren bizitza kontagai, hauxe zioen Boccacciok (1313-1375): “Erbestealdi luze baten ondoren, musak bueltan ziren azkenean”.

XIV. mendeko idazle eta humanistekin abian jarritako mugimenduak ez zuen etenik izan XVI. mendera arte, non Giorgio Vasarik (1511-1574), italiar artearen lehenengo historialariak, garai hura “Errenazimentu” hitzarekin baitaiatu zuen estreinako aldiz. Garai klasikoko formak imitatzeak espiritu berriaren garaipena ekarri zuen (Errenazimentua: bigarren pizkundea). Espiritu berriak bere osotasunean besarkatzen zuen gizakia: eguneroko bizitzan, artean, erlijioan eta abar. Klasikoetara itzultzean, gizakia bere baitara ere itzultzen da, eta poliki-poliki, giza nortasunaren konkistaren oinarriak finkatuz joango dira. Konkista hori norbanakoaren eta giza duintasunaren aurkikuntza ere badira, eta gizakiaren duintasun moral eta artistikoaren kontzeptu berri baten aldarrikapena. Hau guztia kontuan izanik, bi ezaugarri hauetara bilduko genuke orain arte esandakoa: Antzinaroaren eta bizitza egokitu zitzaien garaia arteko aldearen kontzientzia ernea, batetik, eta gizakiaren duintasunaren kontzientzia bete, bestetik, ez giza arimarena soilik, baita gorputzarena ere, gizakiaren dimentsio natural eta mundutarrarena. “Metodo” filologiko humanistaren emaitza eta ondorio da, baita ere, erlijioaren espiritualtasun berria. Hortaz, Erdi Aroko “teologoen” gainetik salto egin eta kristautasunaren lehen gurasoen eta Bibliako hitz gardenaren iturrietara itzuli zen. Ondorioz, kanpoko erritual eta zeremonietatik barne-espiritualtasunerako joera indartu zen, aurrerago ikusiko den moduan.

3. Errenazimentua, humanismoa eta Erreforma

XV. mendetik XVI. mende amaierarainoko aldi historikoari esaten zaio Errenazimentua (Italian lehenago garatu zen).

Errenazimentua Italian sortu eta gorpuztu zen. Han eman zituen emaitzarik distiratsuenak mugimenduak eta hantxe gauzatu zen bere espiritua zentzurik garbienean. Mugimendu urbanoa izan zen, Italiako hiri (hiri-estatu) burges eta printzeen gorte nagusietan garatu zena (Florentzia, Ferrara, Erroma, Siena, Venezia). Merkataritzatik bizi ziren hiritar burgesak eta gorteetako aristokrazia izan zituen bezeria nagusia. XVI. mendean zabaldu zen Italiatik Europako beste nazioetara. Gorago esan den moduan, mundu klasikoko ohiturak eta hizkuntzaren

eta literaturaren irakasbideak berreskuratzean datza Errenazimentua. Eta klasi-koen ereduak berreskuratuz eta imitatuz, Errenazimentuko gizakiak bere burua-
ren duintasun moral eta historikoa aurkitu zuen: gizakia da gauza guztien
neurria. Errenazimentuko gizakiak bere buruaren kontzientzia osoa du.

Hori dela-eta, antropozentrismo berri bat hedatu zen, eta aurrerantzean,
gizakiak izango zuen bere kabuz pentsatzeko, erabakitze eta bizitza anto-
latzeko ahalmena. Lehen, Elizari (edo Jainkoari) zegokion erabakizuna; Erre-
nazimentutik aurrera, ordea, gizakiari berari.

Errenazimentu garaian oso aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren politikan,
ekonomian eta gizartean, izan ere, orduan sortu eta finkatu ziren Europako
estatu nagusiak (monarkia absolutua), eta feudalismoa gaindituz, hirietako
merkataritza eta burgesia indartu ziren. Erlijioari dagokionez, Elizaren Erre-
forma gertatu zen.

Gizabanakoaren kontzientzia berri horrek gizarte eredu berriak proposatu
zituen: *Il Cortigiano* (Castiglione, 1528), *Il Principe* (Makiavelo, 1513), *Enchi-
ridion* edo zaldun kristauaren eskuliburua (Erasmo, 1503).

Last but not least, Errenazimentuaren aurren-aurreneko ezaugarria artea-
rena da, seguruenik Antzinarotik hona artean gertatu den loraldirik distira-
tsuena. Mundua ederra zen berriro Leonardo da Vinciren (1452-1519)
garaikideentzat, eta begien aurrean ikusten zutena hala margotu nahi zuten,
zen bezala. Baina begi aurrean zuten mundu hori ez zuten modu solemne,
urrun eta sakratu batean ikusi, Erdi Aroko garaietako jendeak ohi zuen mo-
duan. Atzean geratu zen katedraletako beirateetako eta liburu sakratuetako
iruditeria lausoa. Errenazimentuko jendeari naturaltasuna, argitasuna eta ze-
haztasuna zitzaizkion atsegin, eta gorputzaren zinezko neurriak. Giotto (1267
ing.-1337) pintore eta eskultorearengandik, Brunelleschi (1377-1446) arki-
tektoarengana (perspektibaren asmatzailea), salto itzela eman zuen arteak.
Greziarrek irudi bildua (eskortzoa) ezagutu zuten, eta pintore helenistek sa-
kontasunaren sentsazioa, baina ez perspektiba, urrundu ahala, objektuak gero
eta txikiago bihurtzen dituen teknika. Perspektibari esker, Errealitatearen sen-
tsazioa (distantzia eta sakonera) areagotu egin zen.

Humanismoa xiv. mendearen erdialdetik aurrera Italian gertatu zen kultura
loraldiaren muina da, eta Errenazimentuak artean, kulturean, filosofian, erli-
jioan eta gizarteko beste esparruetan eman zituen emaitzen oinarrian dago,
betiere, haien legami delarik.

Humanismoa da xiv, xv eta xvi. mendeetan Antzinaroko eredu hezitzailea
berreskuratzen ahalegindu zen mugimendua. Grezian, *paideia* hitzak “hezi-
keta” esan nahi zuen, eta espiritu hori berreskuratu nahi izan zen *studia hu-
manitatis* ikasketen bidez, baliagarri gertatuko zelakoan hiriko arazoei aurre
egiteko eta gizartearen ongizaterako. Horretarako, grekolatindarren poesia,

historia eta testu moralak aukeratu ziren, garaiko paradigma eskolastikoaren (espezializatua eta teknikoa) aurka aukeratu ere. Humanismoaren ikuspegitik, hizkuntza eta literatura klasikoak ezinbestekoak dira mundua ezagutzeko eta hobetzeko, eta filologia da zientzia guztien oinarri. Klasikoengandik datorren argitasun eta edertasunak talka egiten du garai haietan nagusi zen filosofia eskolastikoaren iluntasun esoterikoarekin (esate baterako, zenbat aingeru egon zitezkeen batera oin puntetan orratz buru batean).

Errealitatea ezagutzeko Antzinaroko testuak eta filologia baliatu ahala, area-gotu egin zen humanisten eta Erdi Aroko ikusmoldearen aldea, izan ere, humanistek beste espiritu bat zuten gidari. Latina bera (greziera baino gehiago) humanismoak helburu zuen gizakiaren eraberritze sakonaren muin bihurtu zen.

Horixe egin zuen Petrarca xiv. mendean. Gorago aipatu den bezala, Petrarcarena da lehen espiritu bete-betea humanista eta, horregatik, moderno. Berak egindako bideari jarraituz berreskuratu zuen Lorenzo Vallak (1407-1457), xv. mendeko humanistarik bikainena izan zenak, Zizeronen eta Kintilianoren latin klasikoa. Eta berari esker hartu zuen filologiak zientziaren (testu kritikaren) maila; Testamentu Berria interpretazio filologikoaren galbahe zorrotzetik pasarazi zuen. Haren ikasbidea baliatuz –Vallaren *Elegantiae*-ren miresle zen–, Erasmok Elizaren Biblia kritikatu zuen.

Erasmo (1466-1536) da humanismo kristauaren nortasun gailena, eta Montaigne (1533-1592), saiolaririk bikainena. Montaignerekin humanismoak beste dimentsio bat hartu zuen, Descartes eta Pascalen filosofiari nola filosofia modernoari ateak zabalduz. Humanismo umoa zen berea, ez mundu klasikoari begira idatzitakoa, baizik eta tradizio klasikoa bere baitan beratuz, Errenazimentuaren espiritua bete zuena zentzurik garbienean.

Italiako humanismoaren sostengua ez zen unibertsitatea izan. Ez Petrarca, ez Giovanni Pico della Mirandola (1463-1494), ez Marsilio Ficino (1433-1499) izan ziren unibertsitateko irakasle. Garaiko unibertsitateetan Aristoteles zen filosofo nagusia, baina humanisten artean platonismoa zabaldu zen, hau da, Aristotelesen fisika baztertu eta Platonen filosofiak bete zuen haren lekua. Aristotelesekin tradizioa esan nahi zuen, Platonekin, berriz, eraberritzea. Humanismoa mugimendu hiritar zibila izan zen, bere azken helburua gizarte berri bat eraikitzea zen, eta, eskolastizismo antzuar aurre eginez, gramatika, erretorika eta elokuentzia, poesia eta historia izan zituen xede. Unibertsitateko filosofia eta logikaren aurrean, dimentsio morala lehenetsi zuen. “Nola bizi” galdera premiatsuago bihurtuko zitzaien erudizio antzua baino.

Erreforma mugimendua abian jartzen da. Bizitza erlijiosoaren gainbeheraren aurrean, Errenazimentuko jendeak jatorrizko sentimendu erlijiosora itzuli nahi du, hango iturrietan edanez erlijioaren egiazko muina aurkitu eta ulertzeko. Horrela zabaldu zen Platonenganako miresmena, Ficino eta Pico della Mirandolaren

eskutik filosofo grekoaren jakinduria erlijiosoa berpiztuz. Baina hark soilik jakintsuentzat balio zuen, egiazko erlijioa bainoago, filosofia teologikoa izaki. Platonismoak ezin zitzakeen egiazko erlijiotasunaren barrenak erreformatu; Errenazimentuko eraberritze filosofikoaren aldaera bat baino ez zen izan hura.

Mendebalde kristauaren bizitza erlijiosoaren egiazko eraldaketa kristautasunaren jatorrizko iturrietara itzultzearen ondorioz soilik etor zitekeen. Ez teologoek hitzetatik, baizik eta Kristorenetatik, Bibliak agerrarazitako egia-ganako leialtasunetik. Helburua ez da doktrina aldatzea, kristau guztien bizitza aldatzea baino.

Erreformaren une filosofiko-humanista Erasmok bete zuen. Erasmorentzat egiazko erlijiotasunaren neurria ez dago merezimenduzko obrak egitean edo erritu eta formula hutsezko erlijiotasun itxurakoan, Ebanjelioen irakasbideak jarraituz, fedean eta karitatez egindakoetan baino. Barne-erlijiotasuna da berea; benetako kristautasuna ez dago kanpoaldeko janzkera eta itxuretan, sentimenduetan baino. Ospetsu egin zen haren *Monachatus non est pietas* (Fraidetza ez da pietatea): “Zinezko sentimendurik ezean, maitasun eta errukirik ezean, erlijioa gauza ezdeusa da”. Kristoren filosofiak (*Philosophia Christi*) bihozkada du elikagai, zerbait bizia eta beroa, eta ez eskolastikaren silogismoa, jakituria hotza eta antzua. Zentzu horretan, Erreformaren aitzindaritzat hartu behar da Erasmo, nahiz eta ez zituen sekula onartu Luteroren [Martin Luther] (1483-1546) irtenbide apurtzaile eta oldarkorrak. Bi izaerak mutur banatan zeuden, nahiz eta erlijioaren jatorrizko eraberritze sakonaren beharrari buruz iritzi berekoak izan. Erasmok jakintsu eta liburu artean igaro zuen bizialdia; Lutero aldarte larritu eta tragikokoa zen, baita ausartagoa ere. Bere hitzak dira honako hauek: “Nire oihua da: Ebanjelioa! Ebanjelioa! Eta berena: Tradizioa! Tradizioa! Ezinezkoa adostasuna”. Luterok Elizaren tradizioa ukatu zuen. Erasmo eta Luteroren Bibliaren irakurketa/interpretazio eraberritzaileak europar gizakiaren kontzientzia aldatu zuen. Gainera, Europako kristautasun berriaren erreformen eraginez, Biblia berehala itzuli zen hizkuntza nazionaletara eta hiritar eta laikoen eskura jarri, nazio katolikoetan izan ezik. Erreformaren eta Erasmoren ikuspegien aurka joz, debekupean jarraitu zuen katolizismoaren eremuan Biblia nork bere kabuz eta Elizaren birtartekaritzarik gabe irakurtzeko aukerak.

4. Erdi Arotik Errenazimentura Euskal Herrian

Aipatu da Errenazimentua Italian sortu eta garatu zela, eta bertan eman zuela hurrengo mendeetan Europa eta mundu osoa liluratuko zuen altxor artistikoa. Halaber, aipatu da Errenazimentuak bere oinarrian gizakiaren erabe-

rritze sakona helburu zuen espiritu humanista izan zuela bidelagun. XV eta XVI. mendeetako lehen erdialde liluragarrien ondoren, XVII. mendean itzali zen Italia, Europako beste potentzia indartsuago batzuk itota. Ordurako Errenazimentuaren lorpenak eta humanismoaren espiritua hedatuak zeuden Europako beste nazioetara. Nolakoa ote Euskal Herrian Errenazimentu horren eragina?

Rodrigo Mercado Zuazolak 1540an sortu zuen Oñatiko unibertsitatea testuinguru horretan aipatu beharko genuke. Euskal Herriko lehen unibertsitate horretan ikasi zuen Garibaik. Aski seguru pentsa liteke Oñatiko unibertsitateak eragiten zuen bizitza intelektuala diskretua izan zela. Ez zen gurea Florentzia, Venezia, Erroma, Paris edo Salamanca bezalako hirien tamainakoa, burgesia merkatari sendo baten jabe zirenak batzuk eta hiri eta unibertsitate ospetsuak besteak.

Errenazimentua mugimendu minoritario eta urbanoa izan bazen (P. Burke-k baieztatu zuen moduan), nolakoa izan zen haren eragina gure XVI. mendean? Hori litzateke galdera. Norberto Eliasen haritik, esan behar da sentsibiltate bilakaerak prozesu luze baten ondorio izaten direla (berak “zibilizazioaren prozesu” gisa irudikatu zuen bilakaera hori). Beraz, nahiz eta Errenazimentuaren epizentroa Italian egon, zera pentsa daiteke, Europa osora indar eta eragin desberdinez zabaldu zela. Hala ere, eztabaidak ez du amaierarik izan, eta XX. mendean ere jarraitu du hainbat historialari erromanisten ahotan, esate baterako Ernst Robert Curtius-ek (1948) dioenean Espainian ez zela Errenazimenturik izan. Victor Klemperer-ek (García Gibert, 2010: 17) esango du, berriz, soilik azalekoa izan zela Espainiako Errenazimentua, espiritualki indartsuegia izan zelako tradizioaren eta erlijioaren indarra, eta ez zuela arnastu Italiatik Europa osora hedatutako aire berririk. Espainiako XVI. mende osoa hartzen zuen Erdi Aroaren itzal luzeak: latin eskasak edo era guztietako espiritu eraberritzaileak berehalakoan itoko zituen Inkisizio ahalguztidunaren indarrak dira horrelako ikuspegi baten bermea. Esan gabe doa, Espainiaz bezainbatean, Pirinioetatik beherako Euskal Herrian ere beste hainbeste gertatu zela. Baina muturreko ikuspegiak alboratu eta, mugimendu historiko eta kulturalen eragin gradualaz hitz egin beharko genuke, onartuz Pirinioen inguruko bazter hauetara ere iritsi zela Italian sortutako mugimendu bortitz haren izpirik, maila apalean gehienetan, nabarmenago eta indartsuago Joana Albretekoaren fede protestantearen aldaketarekin.

Italia zen Santillanako Markesa (1398-1458) edo Juan de Mena (1411-1456) XV. mendeko espainiar poeten itsasargia, bere ahaleginen xedea. Poeta horiek garbi erakutsi zuten “italiar moldearen” (*italico modo*) –Italiako “moda”– jarraitzaile sutsuak zirela, eta hango formak imitatuz goratu nahi zutela, espirituaren eta formaren aldetik.

Hala ere, forma poetiko bezala sonettoa aukeratzen zutenean, edo tradizio klasikoko erreferentziak biltzean bere idatzietan, zenbateraino zuten beretuta humanisten espirituaren muina? Argigarria da honetan Francisco Ricoren “El quiero y no puedo de Santillana”.

“E pues non podemos aver aquello que queremos, queramos aquello que podemos; e si carecemos de las formas, seamos contentos de las materias”. En un par de líneas, he aquí espléndidamente definido el drama del prehumanismo español: la tragicomedia de una élite de curiales y nobles deslumbrados por la cultura de moda en Italia, e incapaces de seguirla (o aun de comprender de qué iba en realidad) por haberse criado a pechos de una tradición intelectual enteramente distinta (Rico, 1982: 33).

Hamarkada luze bat Italian igaro ondoren, Antonio de Nebrija (1441-1522) bere egin zituen Lorenzo Vallaren irakasbideak eta *Introductiones latinae* (1481) argitaratu zuen Salamancako unibertsitatean irakasten zuen bitartean. Esan daiteke orduan iritsi zela Espainiara humanismoaren zinezko espirituaren programa hezitzailea, handik gutxira, Nebrijaren heriotzarekin batera, zapuztu eta jarraipenik gabe geratuko zena. Baina, ukaezina da tradizio petrarkistak Espainiako Urrezko Mendeko poetengan izan zuen predikamendua. Gurean ez da, zoritxarrez, Nebrijaren edo Frantziako Guillaume Budé (1467-1540) baten parekorik izan. Azken hau Parisko Collège de France unibertsitatearen sustatzaile izan zen, hebreera, grekoa eta latina bultzatuko zituen unibertsitate hirueledunarena. Garai berekoa izan zen Rabelais (1494-1553) handia, eta famatua bihurtu zen bere maxima hau: “Kontzientziarik gabe, zientzia arimaren hondamena baino ez da”. Edo Pierre de Ronsard eta Joachim du Bellay poetak. Hurbilago, Joanès Huarte Donibanekoa baxenabarra (1529-1588) izan genuen: bere *Examen de ingenios para las ciencias* (1575) da Errenazimentuak gure artean eman zuen zientzia libururik ospetsuena. Hala ere, euskal mundutik oraindik gertuago, gurearen tamaina Garibai batek emango luke. Honela definitu zuen Julio Caro Barojak:

Resulta evidente que Garibai es un humanista regular que conoce muchos libros de su época y que bebe en ellos con frecuencia. Pero en su condición de sistematizador de los estudios genealógico-históricos (...) arranca de fuentes medievales de modo fundamental, de los comentarios de éstos y de la interpretación, también medieval, de algunos textos clásicos de la Antigüedad (Caro Baroja, 1972/2002: 261).

Garibai (1533-1599) bere *Compendio Historial*-a (1571) idazten ari zenean, ahaztu samarrak zeudela dio xv. mendean Mondragoe (Arrasate) eta inguruak sutan izan zituen oñaztarren eta ganboarren arteko borroka bortitz eta odoltsuak. Garibai jaio zen garaian, ordea, Mondragoek oso gertu zituen

oraindik Erdi Aroko gertaera latzak. Horra nola deskribatzen duen Garibaik bere *Memorias* (1598/1854) liburuan Erdi Aro hurbila (xv. mendea), esanez piztu zirela:

aquellas terribles guerras civiles de los bandos de Oñate y Gamboa en que ardían estas tierras y assolaban con muchos incendios de pueblos y caseríos y talas de árboles y bienes de riberas, de molindas y herrerías, y sobre todo, de muertes de hombres de todas edades y robos de haciendas, hasta no perdonar a ratos a las iglesias, con gravísimas calamidades y miserias, con mucha ofensa de Dios y en total ruina de toda la tierra en todos los estados de gentes, como se vio claro en el dicho incendio y robo de Mondragón (Garibay, 1586-1598/1854: 20-21).

Garibaik bere *Memorias* liburuan deskribatzen duen inpunitate osoko egoeraren zergatia, xv. mendean hartu zuen gogortasun larriaren tamainara iritsi ez arren, lehenago aurkitu behar da. XIII. mendetik aurrera sortu ziren Gipuzkoako herri asko, eta Gaztelako erregearen babesa izan zuten. Handik aurrera etengabeak izan ziren leinuen eta hiribilduko interesen arteko liskarrak. Herriek “Ermandadeak” sortu zituzten beren interes komertzialak defenditu ahal izateko, eta erabaki horrek areagotu besterik ez zuen egin Ahaide Nagusien egonezina. Ez zen egoera erosoia Gaztelako erregearentzat ere, izan ere, hiribilduetako jendeari babesa zor bazion, mairuen aurkako gerrarako oñaztarren eta ganboarren laguntza ere eskertu eta saritu behar baitzituen. Merkataritzaren eta hazkundearen alde hiriek egindako ahalegin guztiak zapuztuta geratu ziren leinuen lapurreta eta txikizioaren ondorioz, eta egoera gobernaezina bihurtu zen.

Gauzak horrela, Ermandadeek Henrike IV.a Gaztelakoari Ahaide Nagusien kontra gogor esku har zezala eskatu behar izan zioten, haien arteko liskarrak txikizioan eta hondamendian murgildurik baitzeuzkan bazterrak eta era berean zeharo oztopatzen eta galarazten zutelako salerosketan aritzea zein hiribilduen goraldia. Caro Barojaren hitzetan: “Zoritxar aldiak Errege-erregina Katolikoen garaia arte iraun zuen, eta ondoren amaitu zen”.

Bere dorretxeko gatibualdian idatzi zuen Lope Gartzia Salazarrek (1399-1475) *Las bienandanzas e fortunas* historia liburua. Sakona da ahaide nagusi zaharraren Historia unibertsalaren ikuspegiaren eta Garibairenaren artean dagoen aldea. Lope Gartzia Salazar banderizoa izan zen eta osorik dira bere mundu eta ikuspegia Erdi Arokoak. Garibai, berriz, oso gertu izan bazuen ere, ez zen dagoeneko Erdi Aroko gizona, ezta Historiaren bere ikuspegia ere. XV. mendetik XVI.era aldaketa aipagarria gertatu zen gizarte eredueta: Ahaide Nagusiak jaun eta jabe ziren gizarte feudalistatik, merkataritzaren eta burgesiaren bidez hazi nahi zuen gizarte eredu batera. Ahaide Nagusien arteko borroken oihartzun bezala sortu ziren Erdi Aroko kanta, eresi eta balada

zirrargarrienak. Haien artean dira gure ahozko literaturaren ondarean estimu merezia duten “Mondragoeren erreketaren kantak”, “Martin Bañez Artazu-biagakoaren eresia” edo “Bereterretxen kantorea”.

Oñaztar eta ganboarren leinuak Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurretan borrokatu ziren batez ere; agaramontar eta beaumontarrak, berriz, Nafarroako erresuman gehienbat. Leinuen arteko borrokek Nafarroako erresuma zafratu zuten garaian beaumontarrek (Gaztelako erregearen aldekoak) Bereterretx nola harrapatu eta hil zuten kontatzen du “Bereterretxen kantorea”k. XVI eta XVII. mendeko historialari, kronikagile eta genealogistek kanten zatiak txertatu zituzten beren obretan. Garibairen *Compendio Historial* eta *Memorias*-i esker, eta beste zenbait biltzailereren lanari esker, ezagutzen dira egun ahozko euskal ondareko eresi eta kantu epiko nagusietako batzuk.

Bi leinuen arteko borrokaren azken gertaera historikoa Nafarroako konkista (1512) izan zen. Beaumontarrak Gaztelako erregearen alde borrokatu ziren, eta Albako dukeak Nafarroako Erresuma konkistatu zuen Fernando errege katolikoarentzat.

Nafarroako errege-erreginek Frantziako Luis XII.a erregearekin sinatutako hitzarmena izan zen Nafarroa konkistatzeko Errege-Eregina Katolikoan aitzakia. Frantziak Italiari buruz zituen asmoei bermea ematearekin batera, Nafarroako erregeak galdu egin zuen Gaztelako aliatua zen aita santuaren neutraltasuna. Nafarroako konkistak aldeko eta kontrako idatzi ugari sortu zuen. Konkistaren aurka agertu zirenen artean bi izen ospetsu aurki ditzakegu, Martin Azpilikueta *Doctor Navarro* bata eta Arnaud Oihenart bestea. Nafarroako konkista zela-eta, Martin Azpilikueta (1492-1586), familiarekin batera, Tolosara (Okzitania) iragan zen. Zuzenbide Kanoniko eta Zibilean doktore zen eta ospe handiko kanonista. Azpilikueta *Manual de confesores y penitentes* (1552) liburutik bildu zuen Axularrek aipamenik bere *Gero* liburu-rako. Felipe II.aren agintaldian idatzi zuen Azpilikuetak (1556-1559) Nafarroako konkistaren bidegabekeria; bidegabea izan arren, bazekien ez zuela inoiz Felipe II.ak halakorik onartuko. Joana Albretekoak Kalbinen [Jean Calvin] fede berria besarkatu izanak areagotu egin zuen konkistaren aldeko Felipe II.aren zilegitasuna. Nantesko Ediktuak amaiera eman zien, 1598an, bai Frantziako eta Espainiaren arteko gerrari eta bai higanot kalbinistek eta aita santuaren aldekoek Nafarroa Beherean eta Frantziako erresuma guztietan izan zituzten gudu bortitzei. Gudu testuinguru horretan, nahiz aurrerago ikusiko den Amerikako aurkikuntzaren inguruan, kokatu behar da gutun gene-roaren bizitza.

Ez da hau konkistaren inguruko xehetasunak emateko lekua, bai, ordea, Nafarroaren auziarekin lotuta, zuzenean edo zeharka protagonista izan ziren hainbat izen aipagarri gogoratzekoa, hala nola Iñigo Lopez Loiolakoa oñaztarra

(gero San Ignazio Loiolakoa) (1491-1556), geroago lagun min izango zuen San Frantzisko Xabierkoa nafarra (agaramontarren leinukoa) eta Gaztelako erregearen aldeko jarrera erakusteagatik preso hartu bide zuten Etxepare poeta.

1521ean, Iruñeko gazteluko harresiak frantses-agaramontarren erasoen kontra defenditzen zituen bitartean zauritu zuten Iñigo Loiolakoa. Artean bere mentalitatea Erdi Aroko gizonarena zen. Ekintza gizona zen, eta *Amadís de Gaula*-ren (1508) gisako zaldun eleberrietako ekintzaileekin batera erraz irudika genezake (mairua borrokatu, Jerusalemara joan, Montserratren armak beilatu), Kempisen *De imitatione Christi*-k ("*gersoncito*"a, bere garaiko beste askok bezala, San Ignazio Loiolakoak ere liburua Jean Gerson-ena zela uste zuen) edo Ludolfo Kartusiarraren *Vita Christi*-ak barne-gogoetara ez balute bildu. Bi liburuak xvi. mendeko espiritualtasunaren eraberritzean hain garrantzitsua izan zen *Devotio moderno*-aren oinarrian egon ziren. Aurreneko San Ignaziok Erdi Aroko gizon izaten jarraitzen zuen, bigarrena, berriz, Errenazimentuko gizona zen.

Hasiera batean, Erreforma katolikoa (Kontrarreforma finkatu baino lehen) fenomeno nahasi eta positiboa izan zen, premiatsua zelako katolizismoaren barrutiak ere sentitzen zuen eraberritze nahia. Ez zen, beraz, Ignazio Loiolakoaren hasiera protestantismoaren aurkako erreakzio bat izan, alderantziz, Inkisizioak berak izan zuen susmopean Loiolakoaren espiritualtasuna. Eugenio Asensiok (1952: 73) azaldu zuen moduan: "La vida religiosa de la época prospera en una fabulosa confusión doctrinal", eta honako hau gaineratzen du: "Los campos de ortodoxia y heterodoxia estaban mal deslindados".

Ignazio Loiolakoak ere behin baino gehiagotan izan zuen Inkisizioaren ortodoxiaren aurrean bere bizitza erlijiosoa defenditu beharra. Bai Melchor Canorentzat (1509-1560), bai Inkisizioarentzat, Ignazio Loiolakoa "iluminista" bat zen. Izan ere, santuaren hagiografiak zuritu arren, erlijioaren bidea hartu ondorengo lehen hamabost urteek (Erroman finkatu aurrekoek) ez dute zerikusirik gero Konpainiak hartuko zuen bidearekin. Hasierako jesuiten espiritua ez zen Luteroren espirituaren aurka sortutakoa; geroago bihurtu zen horretan. Arazorik gabe beretuko zukeen Erasmoren *Monachatus non est pietas* hura, edo Luteroren komunioaren maiztasunaren aldeko jaidura, berak ere, katolizismo tradizionalaren erritualaren aurrean barne-erlijioaren alde egin baitzuen lan.

Egia da, baina, Elizaren ortodoxia defenditu zuela beti, bere barne espiritualtasunaren aurka izan bazen ere. Honen adibide, esan Ignazio Loiolakoak ez zuela Erasmo irakurri nahi izan, zeren "ciertas autoridades lo desaprobaban". Ez zuen inoiz zalantzan jarri ere Eliza ofizialaren autoritatea. Horrekin tratu etengabea eman zituen Erromako urterik onenak eta hala irabazi zuen negoziatzaile petoaren fama.

Europak XVI. mendean zehar bizi izan zuen erlijio-nahasmenduak oihartzun handia izan zuen Nafarroako Erresuman. 1534an, Margarita Nafarroakoak –*Heptaméron*-en egileak (1540-1549an idatzia eta 1558an argitaratua)– babesa eman zion Kalbini (1509-1564), hura Paristik ihesi zihoala. Frantziako errege Frantzisko I.aren arrebak beti izan zuen bere gain erreformazaleak babestu eta haien kausaren alde egin izanaren susmoa. Ez alferrik zituen lagunak garaiko humanista erreforma zaleen giroetan; horien tartean ezagunena Jacques Lefèvre d’Etaples (1455-1537) izan zen, Biblian eta Elizako lehen gurasoen idatzietan aditu handia. 1560an, Joana Albretekoak, Nafarroako erregina eta Biarnoko Andreak, katolizismoaz arnegatu eta Kalbinen doktrina besarkatu zuen. Ahalegin handiak egin zituen Joana Albretekoak doktrina berria bere erresumaren baitan hedatu eta indartzeko. Bere asmoei jarraituz euskaratu zuen Leizarragak (1508?-1601?) Testamentu Berria (1571). Joana Albretekoa 1572an hil zen, Leizarragaren itzulpena argitaratu eta hurrengo urtean, eta harekin batera, Eliza erreformatuak Nafarroako Erresuman zeukan babesik sendoena. Protestantismoaren gainbeherarekin galdu zen, orobat, euskara literario baten erredua ezartzeko aukera, eta mendebaldeko beste literatura batzuen ildo beretik joatekoa.

Bernat Etxepareren (1486?-1545...) *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) poesia liburuari buruz ere beste horrenbeste esan genezake, baduela Erdi Aroko mentalitatetik (“Doktrina kristiana”, maitasun poesia eta poema autobiografikoa) eta baita Errenazimentuko gizon bihurtzen duten poetatik ere (“Kontrapas”, “Sautrela” eta liburuaren eskaintza). Doktrinaren ortodoxia, maitasun poemen helburu didaktikoa eta egiazko “ni”rik gabeko poema autobiografikoa dira Etxepare mundu zaharrarekin lotzen duten ezaugarriak; inprimatzearen aldeko aldarre itxaropentsuak eta euskararen aldeko aldarri eta laudorioak, berriz, Errenazimentuarekin. Hanka bat Erdi Aroan eta bestea Errenazimentuan. Hizkuntza nazionalak latinaren aurrean burua altza eta kultura tresna gisa hedatzen hasi ziren garaian euskararen alde egindako aldarrak bihurtzen du Etxepare Errenazimentuko gizon.

Ez da besterik gertatuko Joan Perez Lazarragarekin (1548-1605). Ez dugu ukatuko Lazarraga Errenazimentuko idazle izan zenik, baina zein gertu duen Erdi Aroko mundua bere irudimenean zaldun arteko justez edo borrokez ari denean, esate baterako. Maila sublimatu batean izanik ere, bizitzea gustatuko litzaiekeen mundu baten irudikapenak ziren haiek; berena izandako baina jada ez zen gizarte baten ispilu. Baina fikzio hura XVI. mendean oso arrunta izan arren, Erdi Aroaren luzapena baino ez zen, eta gutxi zuen Italiako humanismoaren arragoan sortutako espiritu petrarkistarekin. Lazarragak ezin izan zuen sonetoa apaindu: formaren zergatia eta funtsa ulertu ezinik, eta hura betetzeko sakontasun moralik ezean, Erdi Arotik iritsitako kantutegien

tradiziora errenditu behar izan zuen. Lehenengo sonetoaren egilea Arnaud Oihenart (1592-1667) izan zen XVII. mendean eta harro zegoen berak idatzi zituelako lehendabizikoz neurtitz kultuak euskaraz.

Aldi berean, Jacopo Sannazaroren (1456-1530) eraginpean eta Jorge de Montemayor-en (1520-1561) *Diana*-ren (1558/1559) arrakastaren ondoren, XVI. mendearen bigarren erdian artzain-eleberrirako joera heldu zen gurerara, eta Lazarragak ere, horren eraginez, artzain-kontakizun labur bat moldatu zuen. Espainia aldean hedatu zen istorio moriskoekiko joeraren oihartzunik ere jaso zuen bere lanean, baita fabula errenazentistari zegokionean ere. Hala ere, gauza bat da Espainiako XVI. mendeko prosa eta poesiagintzan arruntak ziren fabulak eta kantutak idaztea eta beste bat litzateke Lazarragaren idatzien kalitatea gorago azaldu dugun Italiako parametroen arabera neurtzea.

Poesian eta kontakizunean ez bezala, antzertian ez da XIV-XVI. mendeetako testurik iritsi. Bada antzezpen edo ikuskizun batzuen berririk, zein hizkuntzatan –euskaraz ala erdaraz– jokatuak izan ziren beti garbi ez badago ere: teatro erlijiosoa Añanan (1510 ing.), komediak eta fartsak Baionan (1530), auto sakramentalak Donostian (1560) eta Bilbon (1566), *Artzain gorria* pastoralak Donibane Garazin (1565 ing.), eta beste zenbait emanaldi Iruñean, Lesakan edo Erreterian, besteak beste. Tamalez ez da euskaraz idatziriko testu bakar baten arrastorik gelditu.

Honela zioen Gaztelako erretrau ospetsu batek: “Iglesia, o mar, o casa real, quien quiera medrar”. Hiruretarako eman zuen Euskal Herriak: Elizako, Amerikako (“mar” horrek “Amerika” esan nahi baitu) eta errege-etxeko idazkari karguak oinordeko ez ziren “bigarrenengoz” (*segundones*) mukuru zeuden. Garaiko elizgizon ospetsu batzuk aipatu dira; Ameriketako artean, Lope Agirre (1511-1561) dugu famatuena, Felipe II.ari aurre egin zion gizona, eta Espainiako inperioaren legendarako, konkistaren aitzakian, Ameriketako bidea aukeratu zuen euskaldun askoren artean famatuena.

Gaztelara edo frantsesa zen oro har garaiko klase eskolatuen kultura hizkuntza. Beste horrenbeste esan daiteke hizkuntza administratibo edo burokratikoari buruz ere. Nahiz eta idazkari eta kaligrafista euskaldunek estimu handia izan Espainiako gortean (kristau zaharrak izaki eta “konbertituaren” susmopetik aske), ez dirudi, Pedro Madariagari kasu egitera, asko zaildu ziren euskaraz idazten. Honela zioen kaligrafo arratiarrak bere *Honra de escribanos* (1565) liburuan: “Yo no puedo dejar de tomar un poco de cólera con mis vizcaínos porque no se sirven de ella en cartas y negocios”. Hala ere, ezin da ukatu Garibaik eta Oihenart batek, besteak beste, atsotitzak eta erretrauak bilduz, euskarari eskaini zioten arreta. Ez dago zalantzarik Garibaik bere *petite langue* izan zuela euskara. Eta garaiko historialari eta kronikagileentzat ere, aldeak alde, halatsu gertatu zen. Erasmoren *Adagia* obrak

(1500-1540) kultura klasikoko esaldi eta gogoetarik distirantenen bilduma izan nahi zuen; Antzinarotik bildutako gogoeta, esaldi eta esaera zahar horiek guretzat ere irakaspen moral bat gordetzen zuten. Garibai eta Oihenartenak herritarragoak dira, ez du horrenbeste axola haiengandik jaso genezakeen irakasbide moralak nola ondare zaharrarekiko begiramenak berak. Baina, ezin ukatu, azken horien lanak ere Errenazimentuko humanismoak hedatu zuen sentiberatasunaren eraginez izan zirenik bilduak. XVI. mendean zabal-dutako aukera horiek guztiak, baina, Kontrarreforma katolikoak hartu zuen norabideak lausotuta urtuko ziren.

Iñaki ALDEKOA BEITIA

TAULA KRONOLOGIKOA

Arlo soziopolitikoa	Arlo soziokulturala		
	Humanitateak	Literatura	Artea
840. Eneko Aritza Iru- ñeko errege. Nafarroa independente	974 ing. <i>Glosas Emilianen- ses</i>		
999-1035. Antso III.a Nagusia, Nafarroakoa	1140. <i>Codex Calistinus</i> . Aimeric Picaud	1065 ing. <i>Chanson de Roland</i>	1000-1134 ing. Leireko monasterioaren garairik gorena
1154. Leonor [Alienor] Akitaniakoa, Ingalate- rrako erregina. Zuberoa eta Lapurdi bizkonde- rriak Ingalaterraren esku	1167. Euskarari <i>lingua Navarrorum</i> deritzo Antso VI.a Jakitunaren erreinaldiko agiri batean	1159. <i>Fabliaux</i> (hasiera)	1170 ing. Eunateko basi- likaren eraikitzea

Arlo soziokulturala				
Arlo soziopolitikoa	Humanitateak	Literatura	Artea	Erljioa
1200. Alfontso VIII.a, Gaztelakoa, Araba eta Gipuzkoa lurraldeez jabetu. Harrezkero biak Gaztelaren sare politikoan	1200. Parisko Unibertsitateak	XII-XIII. m. Trobadoreak: Jaufré Rudel, Bertrand de Born, Arnaut Daniel... 1200 ing. <i>Cantar de Mío Cid</i> / <i>Nibelungenlied</i>	XII-XIII. m. Katedral gotikoen eraikitzearen hasiera (Parisko Notre-Dame, Chartres...)	1209 ing. Frantziskotarren ordena erlijiosoa. San Frantzisko Asiskoa (1181/1182-1226)
1212. Las Navas de Tolosa bataila. Nafarroa garaipean partaide	1218. Salamancako Unibertsitatea 1229. Tolosako (Okzitania) Unibertsitatea	1230 ing. <i>Roman de la Rose</i> . Guillaume de Lorris (egotzia)	1238-1358 ing. Grana-dako Alhambren eraikitzea	1215. Latrango IV. Kontzilia
1237. Nafarroako Foru Nagusia		...1250-1285... Rutebeuf: <i>Miracle de Théophile</i>		1266-1273. <i>Summa Theologiae</i> . San Tomas Aquinokoa (1225-1274)
1275 ing. Ahaide Nagusien arteko gatazkak hasi. XV. mendearen erdira arte luzatuko dira				

Arlo soziopolitikoa	Arlo soziokulturala		
	Humanitateak	Literatura	Artea
1300. Bilbo hiribildua	1303-1305. <i>De vulgari eloquentia</i> . Dante Alighieri (1265-1321)		XIII-XIV. m. Gasteizko Andre Maria katedralaren eraikitzea 1303-1305. Scrovegnitarren kapera (Padua). Giotto di Bondone (1267 ing.-1337)
1321. Beotibarko gudua		1307-1321. <i>Divina Comedia</i> . Dante Alighieri 1321 ing. “Beotibarko guduaren kanta” 1323. Lore Jokoen sorrera Tolosan (Okzitania) 1327-1374. <i>Canzoniere</i> . Francesco Petrarca (1304-1374) 1330/1343 ing. <i>Libro de Buen Amor</i> . Hitako artzapeza (1290-1350 ing.) 1332-1407. Pero Lopez Aialakoa: Crónicas, Rimado de Palacio... 1335 ing. <i>El Conde Lucanor</i> . D. Juan Manuel (1282-1348)	
1332. Arabako Arriagako kofradia Gaztelako erregearen jurisdikzioa pasa			

Arlo soziokulturala			
Arlo soziopolitikoa	Humanitateak	Literatura	Artea
			Erljioa
1337-1453. Ehun Urteko gerra, Frantzia eta Ingaltarra artean 1346-1353. Izurrite Beltza Europan			
1379. Ondorengotza bidez eta Gernikako Bartzarren onarpenaz, Gaztelako erregea (Joan I.a) Bizkaiko Jauna bihurtu		1349-1353. <i>Decameron</i> . Giovanni Boccaccio (1313-1375)	1369-1415. Jan Huss, erlijio erreformatzailea 1378-1417. Mendebaldeko zisma Eliza katolikoan (Erroma eta Avignon)
1390 ing. Urrexolako liskarra / Akondia liskarra		1386-1400. <i>The Canterbury Tales</i> . Geoffrey Chaucer (1340-1400)	1383-1418. Avignonengo al-deko apezpikuak Donibane Garazin: Pierre de Sumalaga, Gartzia Eugi-koa, Guillaume Arnaud de Laborde
1394. Bizkaiko Ermandadea 1396. Lapurdiko Ermandadea 1397. Gipuzkoako Ermandadea		1393 ing. “Martin Ibañez Labierokoaren hilaritza” 1393-1459 ing. Ausias March: <i>Cant Espiritual</i>	

Arlo soziopolitikoa	Arlo soziokulturala		
	Humanitateak	Literatura	Artea
1417. Araban lehenengo Ermandade komuna. Araba jada multzo geopolitikoa	1435-1444. <i>Elegantiarum linguae latinae libri sex</i> . Lorenzo Valla (1407-1457) 1439. <i>De libero arbitrio</i> . Lorenzo Valla	1443 ing. “Aramaioko kanta” 1445 ing. <i>Cancionero de Baena</i> . Juan Alfonso de Baena (biltz.) 1448 ing. “Mondragoeren erreketaren kantak”	1420-1436. Florentziako katedralaren kupula. Filippo Brunelleschi (1377-1446) 1420 ing. <i>De imitatione Christi</i> . Tomas Kempiskoa (ustezko egilea)
1442-1461. Agaramontarren (Joan II.a) eta beaumontarren (Bianako printzea) arteko borrokak. Bitarte horrefan, edo urte gutxi batzuk lehenago, Bereterretx gaztearen erahilketa			
1443. Aramaioko borroka			
1448. Arrasateren erreketak 1449-1451. Ehun Urteko gerraren amaieran, Frantziako erregeak Lapurdi eta Zuberoa konkistatu			

Arlo soziokulturala			
Arlo soziopolitikoa	Humanitateak	Literatura	Artea
1483-1517. Katalina I.a Foixekoa eta Joan III.a Albretakoa, Nafarroakoak			1480 ing. "Udaberria". Sandro Botticelli (1445-1510)
			1480-1558 ing. Clement Janequin: <i>La guerre, Le chant des oiseaux...</i> kanta polifonikoak
		1485 (1469). <i>Le Morte d'Arthur</i> . Thomas Malory (1408-1471) 1490. <i>Trant lo Blanch</i> . Joanot Martorell (1410-1468 ing.)	1485 ing. "Venusen jaiozta". Sandro Botticelli
1492. Kristobal Kolon (1451-1506) Ameriketara iritsi / Juduak Gaztela-Aragoitik egotziak	1490 ing. Iruñean inprimategia: Arnaldo Gillen Brocar editorea		
	1492. <i>Gramática castellana</i> . Antonio de Nebrija (1441-1522)		
	1496. <i>Oratio de hominis dignitate</i> . Giovanni Pico della Mirandola (1463-1494)	1499. <i>Tragicomedia de Calisto y Melibea (La Celestina)</i> . Fernando de Rojas (1465-1541) (egotzia)	1498. "Autoerreturatua eskularuekin". Albrecht Dürer (1471-1528) / "Pietatea". Michelangelo Buonarroti (1475-1564)

Arlo soziopolitikoa	Arlo soziokulturala		
	Humanitateak	Literatura	Artea
1500-1540. Fernando II.a, Aragoikoa, Gaztelako erregeorde (Fernando v.a) 1509-1547. Henrike VIII.a Ingalaterrakoa 1511. Bilboko kontsulatua 1512. Gaztela-Aragoiko Fernando erregeak Nafarroa Garaia konkistatu. Nafarroako errege-erreginak Pauera 1513. Gudaroste gaztelar batek sarraldiak Nafarroa Beherean / Inkisizioaren Tribunalak sortu Nafarroan	1500-1540. Adagia. Desiderio Erasmo Rotterdamera (1466-1536) 1503. <i>Enchiridion militis christianiani</i> . Erasmo 1506. Cisneros kardinalak Alcalá de Henaresko Unibertsitate Konplutensea sortu 1509. <i>Encomion morias seu stultitiae laus</i> (Eromenaren gorespena). Erasmo	1501?-1536. Garcilaso de la Vega: eglogak eta sonetoak 1510-1511. Eguberrietako antzezpenak Añanan	1501. Missale Pampilonense 1503-1513. Julio II.a aita santua 1501-1504 ing. "David". Michelangelo 1503-1506 ing. "Mona Lisa (Gioconda)". Leonardo da Vinci (1452-1519) 1507. "Adan eta Eva". Albrecht Dürer 1508-1511. "Atenasko eskola". Rafael [Rafaelo Sanzio] (1483-1520)

Arlo soziopolitikoa	Arlo soziokulturala		
	Humanitateak	Literatura	Artea
1514. Lapurdiko Kostumia (Forua) Bordeleko Legebiltzarrean erregistratu 1515-1547. Frantzisko I.a Frantziakoa 1516-1556. Karlos I.a Espainiakoa 1517. Donibane Lohizuneko arrantzaleek Ternuara egindako itsasaldien lehenengo testigantzak 1517-1555. Henrike II.a Albretekoa eta Margarita Angulemakoa, Nafarroakoak 1519-1522. Munduari lehenengo bira: Joan Sebastian Elkano (1476-1526) 1520. Zuberoako Kostumaren erredakzioa 1520-1530. Bizkaiko eta Gipuzkoako arrantzaleen lehenengo kanpainak Ternuan 1521. Henrike II.a Albretekoak Nafarroa berreskuratzeko saioa. Noaingo batailan erabat garaitua 1522. Amaiurko gaztelua, nafarren azken gotorlekua, suntsitua		1516. <i>Utopia</i>. Thomas More (1478-1535)	1515-1525. Blois-ko gaztelua 1518-1563. Andres Araoz: erretaulak (Deba, Itziar, Uxanabilla...)
			1517. Luterok [Martin Luther] (1483-1546) 95 tesiak Wittenbergeko gazteluaren atean ipini 1522. Testamentu Berria alemanez. Lutero

Arlo soziokulturala			
Arlo soziopolitikoa	Humanitateak	Literatura	Artea
1524. Nafarroa erabat menderatua 1525. Sorginkeriaren aurkako prozesuak hasi Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoan 1526. Bizkaiko Foru Berria idatziz finkatua 1530. Nafarroako Erresumak Nafarroa Garaia galdu (Espainiaren menpe). Nafarroa Beherak (Biarno eta beste zenbait lurralde barne) Nafarroako Erresuma autonomo gisa jarraituko du 1789 arte		1528. <i>Il Cortigiano</i> . Baldassare Castiglione (1478-1529) 1531 ing.-1552/1564. <i>Gargantua et Pantagruel</i> . François Rabelais (1494 ing.-1553). Euskarazko bi testu: 1. lib., V. kap.; 2. lib., IX. kap.	1523. Lehenengo inprimaki protestanteak Pasaia ko portura iritsi eta erraziaz 1525. <i>De vera et falsa religione</i> . Ulrich Zwingli (1484-1531) / Testamentu Berria ingelesez. William Tyndale 1528. Biblia frantsesez. Henri Estienne 1534. Biblia alemanez. Lutero / Eliza anglikano ingelesez sortu, Erromatik aske 1535-1539. Biblia ingelesez. Miles Coverdale

Arlo soziopolitikoa	Arlo soziokulturala		
	Humanitateak	Literatura	Artea
1537. Arabako 54 Ermandadeak sei Kofradietan berrantolatu		1536. <i>Tercera parte de la Tragicomedia de Celestina</i> . Gaspar Gómez de Toledo. Euskarazko “Perutxoren kanta”, XVI. ekitaldian	1536-1541. Sixtotar kanperako “Azken judizioa”. Michelangelo
	1538. <i>Diálogos (Exercitatio linguae latinae)</i> . Juan Luis Vives (1492-1540)	1537. Frai Joan Zumarraigakoaren (1478 aurretik -1548) gutuna	1536. <i>Institutio christianae religionis</i> . Kalbin [Jean Calvin] (1509-1564)
1539. Frantsesa administrazioan ezartzeko ebazpena: “Villers-Cotterêts-ko Ordenantza”	1540. Oñatiko “Sancti Spiritus” Unibertsitatea sortu		1539. San Ignazio Loiolakoak (1491-1556) Jesusen Lagundia sortu
	1540 ing. <i>ABC-kiria</i> (Alfabetoa). Mikael Agricola. Suomieraz inprimaturiko lehen lana		1541. Biblia suedieraz. Gustavo Vasaren babespean
	1543. <i>De revolutionibus orbium coelestium libri VI</i> . Koperniko [Mikolaj Kopernik] (1473-1543)		1543. Testamentu Berria suomieraz. Mikael Agricola

Arlo soziokulturala			
Arlo soziopolitikoak	Humanitateak	Literatura	Artea
1547-1553. Eduardo VI.a Ingalaterrakoa 1547-1559. Henrike II.a Frantziakoa	1547. <i>Catechismus</i> . Martynas Mažvydas. Lehenengo liburu inprimatua lituanieraz 1549. <i>Défense et illustration de la langue française</i> . Joachim du Bellay (1522-1560)	1545. <i>Linguae Vasconum Primitiae</i> . Bernat Etxepare (1486?-1545...)	<i>Erligioa</i> 1545-1563. Trentoko Kontzilioa 1546tik aurrera. Erreformatoren aldeko predikariak agertu Maulen 1548 (1522-1541). <i>Ejercicios espirituales</i> . San Ignazio Loiolakoa 1549. San Frantzisko Xabierkoa [1506-1552] Japonia iritsi
1553-1558. Maria Tudor Ingalaterrakoa		1550 ing.-1611. Maria Estibaliz Sasiola: poemak Larraga eskuizkribua-n 1552-1578. <i>Amours</i> . Pierre de Ronsard (1524-1585) 1554. <i>Vida de Lazarillo de Tormes</i> / <i>Poésie en diverses langues sur la naissance de Henry de Bourbon</i> (...), Bernard du Poey (arg.). Poema bat euskaraz	1551. Oñatiko komentuetxea 1553. Miguel Servet (1511-1553), mediku filosofoa, Kalbinek salatu eta Inkisizioak sutan erre

Arlo soziokulturala			
Arlo soziopolitikoa	Humanitateak	Literatura	Artea
1562-1610. Henrike III.a eta Margarita Valois -koa, Nafarroakoak (1589an Frantziako Henrike IV.a) 1562-1598. Erlijio-gerrak Frantzian	1562. <i>Dictionarium Linguae Cantabrigiae</i> . Nicolas Landucci	1566. Auto sakramentalak Donostiako San Bizente elizan 1567 ing. Joan Amendu -ze-koaren (1540-1580) elegia 1567-1602. <i>Lazarraga eskuizkribua</i> . Joan Perez Lazarraga (1548 ing.-1605)	1563. Paueko Sinodo kal- binistak , Erreginaren bo- rondatez , Testamentu Berriaren euskarazko itzulpena agindu Leizarra- gari 1567. Testamentu Berria galeseraz. W. Salesbury 1569. Biblia gazteleraz. Casiodoro de Reina 1571. Jesus Krist gure Jaunaren Testamentu Be- rria . Joanes Leizarraga (1508?-1601?)
1568az geroztik. Erlijio borrorrok Nafarroa Behe- rean eta Zuberoan , bando katoliko eta protestanteen arte 1568-1581. Herbehere- tako independentzia bo- rroka. Bilbo-Flandria merkataritzaren etena	1571. <i>Los Cuarenta Li- bros del Compendio His- torial</i> (...). Esteban Garibai (1533-1599)		

Arlo soziopolitikoa	Arlo soziokulturala		
	Humanitateak	Literatura	Artea
1572. San Bartolome gaueko sarraskia Frantzia, higanoten Eliza erreformatuaren aurka 1574-1589, Henrike III.a Frantziakoa	1575. <i>Examen de ingenios para las ciencias</i> . Joanes Huarte Donibane-koa (1529-1588) 1580. Jesusen Lagundiak lehenengo ikastetxea sortu Iruñean 1584. <i>De l'infinito universo e mondi</i> . Giordano Bruno (1548-1600) 1585. Lehenengo liburu inprimatua letonieraz: Pedro Canisioaren <i>Catechismus catholicorum</i> -en itzulpena 1586-1598. Memorias . Esteban Garibai 1587. De la antigua lengua, población y comarcas de las Españas (...) . Andres de Poza (1547-1595)	1572. <i>Os Lusíadas</i> . Luis de Camões (1525 ing.-1580) 1580/1588. <i>Essais</i> . Michel de Montaigne (1533-1592) 1584. <i>Cántico Espiritual</i> . San Juan de la Cruz (1542-1591) / Bertrand Etxauzen (1556-1641) gutuna 1585. <i>La Galatea</i> . Miguel de Cervantes (1547-1616) 1588 (1577). <i>Las Moradas o Castillo interior</i> . Santa Teresa Avilakoa (1515-1582) / Poèmes chrétiens . Jean de Sponde (1557-1595)	1577. Joan Antxietak (1540-1588) Zumaia ko San Pedroko erretaula amaitu 1584. San Lorenzo del Escorial monasterioa amaituta. Juan de Herrera arkitekto nagusia 1586. "Orgazko kondearen hilobiratzea". Domenikos Theotokópulos Greco (1541-1614) 1588. Biblia galeseraz. W. Morgan
1572. San Bartolome gaueko sarraskia Frantzia, higanoten Eliza erreformatuaren aurka 1574-1589, Henrike III.a Frantziakoa	1575. <i>Examen de ingenios para las ciencias</i> . Joanes Huarte Donibane-koa (1529-1588) 1580. Jesusen Lagundiak lehenengo ikastetxea sortu Iruñean 1584. <i>De l'infinito universo e mondi</i> . Giordano Bruno (1548-1600) 1585. Lehenengo liburu inprimatua letonieraz: Pedro Canisioaren <i>Catechismus catholicorum</i> -en itzulpena 1586-1598. Memorias . Esteban Garibai 1587. De la antigua lengua, población y comarcas de las Españas (...) . Andres de Poza (1547-1595)	1572. <i>Os Lusíadas</i> . Luis de Camões (1525 ing.-1580) 1580/1588. <i>Essais</i> . Michel de Montaigne (1533-1592) 1584. <i>Cántico Espiritual</i> . San Juan de la Cruz (1542-1591) / Bertrand Etxauzen (1556-1641) gutuna 1585. <i>La Galatea</i> . Miguel de Cervantes (1547-1616) 1588 (1577). <i>Las Moradas o Castillo interior</i> . Santa Teresa Avilakoa (1515-1582) / Poèmes chrétiens . Jean de Sponde (1557-1595)	1577. Joan Antxietak (1540-1588) Zumaia ko San Pedroko erretaula amaitu 1584. San Lorenzo del Escorial monasterioa amaituta. Juan de Herrera arkitekto nagusia 1586. "Orgazko kondearen hilobiratzea". Domenikos Theotokópulos Greco (1541-1614) 1588. Biblia galeseraz. W. Morgan

Arlo soziokulturala			
Arlo soziopolitikoa	Humanitateak	Literatura	Artea
1589-1610. Henrike IV.a Frantziakoa (Henrike III.a Nafarroakoa) 1595-1598. Espainia eta Frantziaren arteko gerra 1596. Herbehereen independentzia 1598. Nantesko Ediktua. Frantziako erlijio-gerren amatera. Erlijio tolerantzia eta kultu askatasuna 1598-1601. Izurrite bubonikoa Kantauriko portuetatik bameratua. Beherakada demografikoa.	1588-1592 ing. Cuarta parte de los Anales de Vizcaya (...). Frantzisko Mendieta (1556-?)	1590 ing. “Kantabriarren kanta (Leloren kanta)” 1592. <i>Richard III</i> . William Shakespeare (1564-1616) 1594-1595. <i>Romeo and Juliet</i> . William Shakespeare 1596. Refranes y Sentencias comunes en Vascuence, declaradas en Romance (...) 1595-1598. Charles Lukuzekoaren eta Urtubiako anderearen gutunak	1589. Nafarroako Erre-suma katoliko bilakatu 1596. Doctrina Cristiana en Romance y Vascuence (...). Joan Perez Betolaza (?-1600)

ORTOGRAFIA ETA HITZ FORMEN EGOKITZAPENAK

“Euskal Literaturaren Antologia” sarrera orokorrean (ikus 8.4. puntua), jatorrizko testuen grafia eta, bereziki, ortografia eta hitz formak egokitzeko irizpide orokor zenbait azaldu dira.

Atal honetan, jatorrizko testuetan egin diren egokitzapen nagusienak, erabilienak, biltzen dira. Bide batez –bi barra zeiharrez (/ /) bereiziz–, testua egokitzerakoan aldatu gabe utzitako edo aldatu ondoren sortutako forma dialektal edo ezohiko zenbait aipatzen dira.

Egokitzapenok sailkatze eta egokitze eragiketaren ondorioz sortutako zeinuen –ez egokitu izan diren zeinuen– arabera daude ordenatuak: bokalak aurrena, kontsonanteak ondoren. Kontsonanteen sailetan, fonema edo soinuuen ohiko taula ezagunaren hurrenkerari jarraitzen zaio (p, t, k...).

Egokitzapen hauek, funtsean, idazkerazkoak dira, ez ahoskerari buruzkoak. Hemen, kontua ez da hartzen diren zeinu ortografikoen ebakera, gauzatze fonikoa, baizik eta ortografia, idazkera forma, soilik, edo gehienbat. Gehienbat, agian, zeren eta jakina da zeinu ortografikoen eta soinuuen arteko lotura arbitrarioa baina, aldi berean, adostua dela. Zeinu ortografikoei soinu konkretuak dagozkie, edo, beste era batera esanik, hizkuntz soinuak idazkeran zeinu ortografikoen bidez adierazten dira. Dena den, lotura ezinbestekoa bada ere, egokitzapenetarako zehaztapen hauetan ortografia nahi da lehenetsi.

Antologian bildutako testuen bertsio egokituetan, helburua ez da hautatutako ortografiak beti testuen jatorrizko ahoskera, testua sortu zen garaiko ebakeraren errealizazio objektiboa, adieraztea. Gehienetan bai: erabakitako ortografia eta orduko ahoskera ados dira. Batzuetan, ordea, ez. Talka gertatzen denean, oro har, ortografia pribilegiatzen da, ortografia gaurkotzea hobesten da.

Bat ez etortze horietan, gerta liteke egokitzapen ortografikoak zehaztasun filologikoaren eskakizunei iskintxo egin eta garaiko ahoskera desitxuratzera iristea. Egokitze prozesuak ez dira debaldekoak; bidesariren bat ordaindu behar izaten da. Beti, eta hemengoa ez da salbuespena, galdu egiten da zerbait. Ez da, haatik, zentzugabeko galera izango, moldatze horien bidez testuak irakurleari hurbilagotu, eskuragarriago bihurtu eta euskararen normalizazio jarduerari baliozko ekarpena egiten bazaio.

Bildutako testuen ahoskatze egiazkoa, azken finean, hartzailearen esku geratzen da. Gauzatze fonikoa irakurleak burutuko du, euskararen eta euskal testuen ahoskeraz duen gaitasun eta praktikaren arabera, eta hizkuntza erakundeek zeinu ortografikoen ebakera fonetikorako eskaintzen dituzten argibide eta erabakiak onartuz edo saihestuz. Bereziki, besteak beste, honelako formetan: *jentil*, *juje*, *begijan*... ez ta, ez nian, ez baitzen... onak dira, hilaz gero...

1. Bokalak

- Oro ohar, bere horretan gorde dira.

* "a" > "a"

çapata > *zapata*, *yçarrac* > *izarrak*... // *barria* > *barria*, *alcar* > *alkar*, *vardin* > *bardin*, *esparanza* > *esparantza*...

* "e" > "e"

erregue > *errege*, *esque* > *eske*... // *ecusi* > *ekusi*, *espilua* > *espilua*, *monesterio* > *monesterio*, *biaramena* > *biharamena*...

* "i" > "i"

bici > *bizi*, *ilinti* > *ilinti*... // *içigarri* > *izigarri*, *bildurric* > *bildurrik*, *nigar* > *nigar*... *eskietan* > *eskietan* (= eskuetan), *mitilari* > *mitilari* (= mutilari)...

* "y" > "i"

ygarota > *igarota*, *ayrian* > *airian*, *eryoa* > *herioa*, *oy* > *oi*...

* "o" > "o"

coroa > *koroa*, *odolean* > *odolean*... // *aņçora* > *antzora*, *thronora* > *tronora*, *emon* > *emon*...

- * "u" > "u"
deunsu > deuntsu, liburuacaz > liburuakaz... // aitunen > aitunen, nur > nur, emun > emun...
- * "v" > "u"
vste > uste, vra > ura, vci > utzi...
- * "ü" > "ü"
üken > üken, lüzia > lüzia, gezürrik > gezürrik, düzü > düzü, loratü > loratü...
- * "eu" > "u" (Urtubiako anderearen gutunetan)
abiseu > abisu, pleuma > pluma, deuc > duk, bazeuec > batzuek...
- * "ou" (fr.) > "u"
ourдина > urдина, chouri > xuri... // hegoua > hegua...
- * "ea" > "ea"
firmea > firmea, lurreean > lurreean... // errentea > errentea, ardurea > ardurea, estrellea > estreilea...
- * "ia" > "ia"
egüa > egia, vihia > bihia... // vidia > bidia, gaztia > gaztia, semia > semia... famatia > famatia, lekia > lekia...
- * "oa" > "oa"
gogoa > gogoa, eroan > eroan... // igoala > igoala, goarda > goarda...
- * "ua" > "ua"
eskua > eskua, guarda > guarda... // juan > juan, erua > erua, gaiztuac > gaiztuak...
- * "ue" > "ue"
çuec > zuek, ceruetaco > zeruetako... // luen > luen, banenguen > banenguen, leyuetan > leihuetan...
- * Bokal errepikatuak: içaatea > izaatea, jaaten > jaaten, arabaarrik > arabaarrik... canpaak > kanpaak, bervaac > berbaak, dolorosooc > dolorosooc...

2. Leherkariak

- * "p" > "p"
pelean > pelean, çazpi > zazpi... // parcatu > parkatu, alperra > alperra, denpora > denpora...

* "t" > "t"

aita > *aita*, *sartu* > *sartu...* // *tendaric* > *tendarik*, *tenpora* > *tenpora*, *torre* > *torre*, *nontik* > *nontik...*

* "k" > "k"

ukan > *ukan*, *ilkiric* > *ilkirik*, *laket* > *laket...*

* "c (+ a, o, u)" > "k"

carrica > *karrika*, *eguiteco* > *egiteko*, *ecusi* > *ekusi...* // *icaz* > *ikaz*, *coutoun* > *kutun* (= gutun), *cortesano* > *kortesano...*

* "-c" > "k"

hitzac > *hitzak*, *ozac* > *hotzak*, *nic* > *nik...*

* "qu" > "k"

quasi > *kasi*, *neque* > *neke*, *hobequi* > *hobeki...*

* "b" > "b"

jabe > *jabe*, *obra* > *obra...* // *eben* > *heben*, *gabetan* > *gabetan*, *ybini* > *ibini*, *parabiçuya* > *parabisuia...*

* "v" > "b"

verba > *berba*, *vicia* > *bizia*, *vocala* > *bokala...*

* "u" > "b"

fauore > *fabore*, *auança* > *abantza*, *fluuiio* > *flubio...*

* "d" > "d"

desira > *desira*, *çaldun* > *zaldun...* // *bedarra* > *bedarra*, *sendimentü* > *sendimentü*, *enendorque* > *ez nendorke*, *cantadu* > *kantadu...*

* "g" > "g"

gozo > *gozo*, *sagar* > *sagar...* // *garitates* > *garitatez*, *elgar* > *elgar*, *gollaraoc* > *goilaraok*, *frango* > *frango...*

* "gu (+ e, i)" > "g", "gu"

guerra > *gera*, *ilharguia* > *ilargia...* // *biguela* > *biguela*, *Ibarguen* > *Ibarguen...*

3. Leherkari sudurkariak

* "m" > "m"

mendia > *mendia*, *amorea* > *amorea...* // *ymyny* > *imini...*

* "n" > "n"

negua > *negua*, *senarrac* > *senarrak...* // *bana* > *bana* (= baina), *engana* > *engana*, *ganean* > *ganean...*

* "mp", "mb" > "np", "nb"

campora > kanpora, emplegatu > enplegatu... // cembatez > zenbatez, combatitzen > konbatitzen...

* "ñ" > "in", "ñ"

ceñac > zeinak, gañean > gainean, laño > laino... // batño > batño, montaña > montaña...

4. Leherkariak / Frikariak

* "i-, y-, g-, j- (+ bokala)" > "j"

iabe > jabe, Ieincuaz > Jeinkuaz... Yeinquari > Jeinkuari, yaquin > jakin... gende > jende, gentil > jentil... jauna > jauna, joco > joko...

5. Frikariak

* "f" > "f"

fama > fama, fedez > fedez, ofrendara > ofrendara... // ifini > ifini...

* "-y-, -g-" > "i"

desmayaduric > desmaiadurik, ayuta > aiuta, lecaya > lekaia... ogec > hoiek, anage > anaie, Bagonan > Baionan...

* "-g-, -j-" > "j"

passage > pasaje, lengoage > lengoaje, testimoniagea > testimoniajea, iuge > juje... omenaje > omenaje, salbaje > salbaje, consejua > kontsejua, escojidu > eskojidu...

"H" letraren erabilera

* Ezabatu egin da, nahiz eta jatorrizko testuan eraman, gaur egun "h"rik gabe idazten diren hitzetan : heuscara > euskara, hodola > odola, huda > uda...

Ondorioz, ezabatua da baita ere kontsonante ondoko posizioetan: phartitzen > partitzen, bethi > beti, ukhen > uken, leqhu > leku, senhar > senar, alhaba > alaba, orhit > orit...

* Txertatu egin da, nahiz eta jatorrizko testuan eraman ez, gaur egungo arauen arabera "h" letraz idazten diren hitzetan: egoa > hegoa, erria > herria, otsa > hotsa, aragui > haragi...

Orobat bokalen artean: bioça > bihotza, bear > behar, eun > ehun, biurquetan > bihurketan... Baita, bokalak berdinak izan eta, testuan biak espresuki agertzen direnean ere: beera > behera, çarrago > zaharrago... Bokal bat besterik

ez datorrenean eta, egokituko bada, bestea erantsi behar izaten denean ere, ezarri egin dira “h” letra eta dagokion bokala: *al* > *ahal*, *bera* > *behera*...

Bertoetan, ordea, azken aldaketa hau parentesi artean markatu da: *a(ha)/*, *a(ha)ide*... Horrela adierazi nahi da lerroaren neurria erabakitzerakoan, edo lerroa ahoskatzerakoan, ez dela silaba bat gehiago erantsi behar, jatorrizko neurriari eutsi behar zaiola. Bokal berdinen artean txertaturiko “h” letra honek ez du agintzen bi bokalak derrigorrez silaba desberdinetan banatu behar direnik, bi silaba gisa kontatu behar direnik: gauzatze zuzena lerroak letra erantsi baino lehenago zuen jatorrizko neurri bera mantentzea da. Esaterako: bost silabako *Mila ta bost eun* lerroak, nahiz eta *Mila ta bostehun* formara egokitu, bost silaba izaten jarraitzen du; *Ezkendu eta lenaengoa* neurtitzak hamar silabako lerrotzat hartzen bada, egokitu ondoren ere, *Ezkendu eta le(he)naengoa*, hamar silabakotzat erabakiko da.

Neurtitzen azterketa metrikoa egin nahi eta “h” letraren eraginarekiko zailantza izanez gero, jatorrizko testuetara jo beharko da eta bertan egiaztatu ea letra horren agertzea jatorrizkoa ala moldatua den. Argibide lagungarri moduan esan, liburukian bildutako bertso sailetan, denetarik dagoela. “Kanta eta bertso zaharrak” atalean, badira jatorriz “h” letra daramatenak eta “h” letra egokitzapenez erantsia dutenak. Etxepareren testuetan, “h” ren erabilera gaurkoarenetik nahiko hurbil dago (*çuhurcia* > *zuhurtzia*, *herria* > *herria*, *habil* > *habil*, *behar* > *behar*, *hacia* > *hazia*, *hiçac* > *hitzak*...); zenbaitetan, hala ere, ezabatu egin da (*heuscara* > *euskara*, *gauza hona* > *gauza ona*, *noha* > *noa*...), eta oso bakanetan erantsi (*eryocez* > *heriotzez*, *eure burya* > *heure buria*, *inçan* > *hintzan*...). Lazarragak ez darabil “h” rik eta, ondorioz, ugari erantsi da. Paremian, batzuetan ezabatu egin da (*hurac* > *urak*, *hogasuna* > *ogasuna*, *hoquin* > *okin*...) eta besteetan erantsi edo egokitu (*andia* > *handia*, *nay* > *nahi*, *yz eguic* > *hitz egik*, *ozac* > *hotzak*, *hao* > *aho*...).

Nahasbideak saihestearren, jada esandakoa azpimarratu behar: idazkerarako egokitze ortografiko soila da. Letra honen ezabatzeak ez du esan nahi testu konkretu hori sortu zen garaian [h] soinua hasperenez ahoskatzen ez zenik, ez eta txertatzeak aspirazioa gauzatzen zenik ere. Idazkera mailako egokitzapena da.

* “z” > “z”

ezcondu > *ezkondu*, *eguzqui* > *eguzki*, *plazer* > *plazer*, *aldiaz* > *aldiaz*...
urzo > *urzo*... // *asegindarzunic* > *atsegindarzunik*...

* “s” > “z”

ser > *zer*, *selan* > *zelan*, *serviceco* > *zerbitzeko*, *lastan* > *laztan*, *esconduco* > *ezkonduko*, *gusti* > *guzti*, *nolas* > *nolaz*...

- * "c (+ e, i)" > "z"
ceren > zeren, goicean > goizean, gacia > gazia, malicia > malizia...
- * "ç (+ a, o, u)" > "z"
çauria > zauria, çorroçac > zorrotzak, çucena > zuzena, beçala > bezala...
- * "-tia-", "-tio-" > "zia", "zio"
gratia > grazia, iustitiaren > justiziaren, natione > nazione, translatione > translazione...
- * "s" > "s"
sendo > sendo, soynean > soinean, abadesa > abadesa... // escuduac > eskuduak (= ezkutuak, babeskiak)...
- * "x" > "s"
excusa > eskusa, expressa > espresa, textu > testu...
- * "f", "ff" > "s"
femea > semea, efcura > eskura, goffete > gosete, offoric > osorik...
- * "x" > "x"
xahu > xahu, gayxto > gaixto, dozenaxe > dozenaxe... // axea > haxea, elexa > elexa, gaxqui > gaxki, gox > gox...
- * "x" > "x"
execucionia > exekuzionia, proximoari > proximoari...
- * "ch" > "x"
changrin > xangrin, chouri > xuri, lacha > laxa, ichil > ixil...
- * "j" > "x"
baracheje > baratxexe... // ajate > haxate, ajeric > haxerik, trajioe > traxioe...

6. Afrikatuak

- * "-z" > "tz"
garraz > garratz, bayez > baietz, hiz > hitz, oz > hotz, gorpuz > gorputz...
- * "c (+ e, i)" > "tz"
acean > atzean, senticen > sentitzen, ericiric > eritzirik...
- * "ç (+ bokala)" > "tz"
oça > hotza, gayça > gaitza, niçaz > nitzaz, herioçea > heriotzea, açerrian > atzerrian, urgaçi > urgatzi, içul > itzul...

* "(n, l, r +) z, c, ç" > "tz"

ninzan > nintzan, moudanzaric > mudantzarik, donzella > dontzeila, concenciaric > kontzentziarik, ancitu > ahantzitu, ançora > antzora... calcea > kaltzea, vzpelça > uzpeltza... berce > bertze, sorcen > sortzen, sporçu > esportzu...

* "s" > "ts"

isaso > itsaso, deusat > deusatz, asecabe > atsekabe, os > hots...

* "x" > "ts"

ixu > itsu, saxu > satsu, amexetan > ametsetan, quirax > kirats...

* "(n, l, r +) s" > "ts"

pensamenturic > pentsamenturik, falsa > faltsa, persona > pertsona, diuersitatea > dibertsitatea...

* "s" > "tx"

ese > etxe, isi > itxi...

* "x" > "tx"

bakox > bakotx...

* "ch" > "tx"

flechaz > fletxaz, picher > pitxer, baco chic > bakotxik, onerechia > oneretxia... // ichi > itxi (= utzi)

7. Albokoak eta dardarkariak

* "l" > "l"

mila > mila, noblea > noblea, elia > elia, leloa > leloa... // salçale > saltzale, kençale > kentzale, iustificaçale > justifikatzale...

* "ll" > "l", "il", "ll"

eullia > eulia, llobea > lobeia... ollo > oilo, eskallera > eskailera, hullerçalla > ulertzaila... bellaco > bellako, silla > silla, cuchilladea > kutxilladea...

* "r" > "r"

aran > haran, gora > gora, diru > diru... bertan > bertan, dardoac > dardoak, ondra > ondra... // belaurico > belauriko, erurra > erurra, miracuru > mirakuru...

* "r" > "rr"

erezebytu > errezebitu, eretiratou > erretiratu, apeararen > apurraren...

* "rr" > "rr"

erre > erre, bacarric > bakarrik, gorroto > gorroto... // zerren > zerren...

8. Gehitzeak eta ezabatzeak

1) Gehitzeak

* *scribatu* > *eskribatu*, *sporçu* > *esportzu*, *speranța* > *esperantza*, *spiritu* > *espiritu*...

2) Ezabatzeak

* *sanct* > *sant*, *augmenta* > *aumenta*, *dubdadu* > *dudadu*, *aduocatu* > *abokatu*, *condemnatu* > *kondenatu*, *redemptioneaz* > *redentzioneaz*...

3) Bere horretan gordeak

* *cerutica* > *zerutika*, *curela* > *kurela*, *buztaina* > *buztaina*...

* *ditubala* > *ditubala*, *mantubetan* > *mantubetan*, *bidaldu* > *bidaldu*, *damnatu* > *damnatu*...

* *thornuya* > *tornuia*, *nuçuya* > *nuzuia*, *munduyan* > *munduian*, *orduyan* > *orduian*... *çayteyen* > *zaiteien*, *duyenic* > *duienik*, *ezconduyen* > *ezkonduien*...

* *beguiyan* > *begijan*, *jariyo* > *jarijo*... Forma hauen, hots, “-iy (+ bokala)” multzoaren, sabaikaritze epentetikoa gorde nahirik, beste zenbait aukera kon-tuan izan ondoren, “j” letraz adieraztea hautatu da. Epentesiaren ahoskatzea –atal honen hasieran esan den moduan– irakurleak gauzatuko du, bere eus-kalkiaren, hizkuntza gaitasun eta praktikaren, eta arau fonetikoei zor zaien begirunearen arabera.

* *raçoin* > *razoin*, *remedio* > *remedio*, *respuesta* > *respuesta*, *republiquea* > *republikea*, *resuma* > *resuma*...

* *ta* > *ta*, *urtan* > *urtan*, *ingles* > *ingles*, *horla* > *horla*, *çatez* > *zatez*...

* *urdinaen* > *urdinaen*, *erdiaen* > *erdiaen*, *andiaen* > *handiaen*...

* *ein* > *ein*, *ezaun* > *ezaun*, *atsein* > *atsein*, *iretsiren* > *iretsiren*...

* *oheti* > *oheti*, *beguietati* > *begietati*, *ondoti* > *ondoti*... *dolorerequi* > *dolorereki*... *orai* > *orai*...

9. Elkartzeak eta bereizteak

1) Elkartzeak

* *eçagut eraciric* > *ezaguterazirik*, *sar eraci* > *sarrerazi*, *harrapa eraci* > *harrapaerazi*...

* *auço baco* (heriotzea) > *auzobako*, *su baco* (etxea) > *subako*, *adisquide baco* (bizitzea) > *adiskidebako*...

* *losa vagueac* > *lotsabageak*, (gizon) *oguen gabia* > *hogengabia*, (damu) *remedio gabia* > *remediogabia*, (lengoaje) *vsatu gabea* > *usatugabea*...

2) Bereizteak

* *gogorbat* > *gogor bat*, *pitinabat* > *pitina bat*, *bataillabat* > *bataila bat*...

* *ecusizquero* > *ekusiz gero*, *aciazquero* > *haziaz gero*, *yl azquero* > *hilaz gero*, *dan azquero* > *danaz gero*...

3) Bere horretan gordeak

* *bioçau* > *bihotzau*, *icenau* > *izenau*, *lurrau* > *lurrau*... *odolori* > *odolori*, *gazteluori* > *gazteluori*, *uztarriori* > *uztarriori*... *bervaoec* > *berbaoek*, *chorionec* > *txorionek*, *guiçonorrec* > *gizonorrek*, *pobreonençat* > *pobreonentzat*...

* *baitinçan* > *baitintzan*, *baytuc* > *baituk*, *bailiçateque* > *bailitzateke*...

* (dama) *parebaguea* > *parebagea*, (gorputz) *odolbaguea* > *odolbagea*, (itsaso) *ondarbaguea* > *hondarbagea*, (haragi) *errebaguea* > *errebagea*...

* (dautza) *tronpeta bague* > *tronpeta bage*, (enojadu) *causa бага* > *kausa бага*, (ez erabili) *derecho бага* > *deretxo бага*, *dubdadu бага* > *dudadu бага*, (jarri) *ume bagaric* > *ume bagarik*...

10. Hitzzen arteko ukipenak

1) Bereizteak + osatzeak

* *bayeta* > *bai eta*, *bayetare* > *bai eta (e)re*, *ezetare* > *ez eta (e)re*... *behinere* > *behin ere*, *ehonere* > *ehon ere*...

* *enian* > *ez nian*, *enuque* > *ez nuke*, *enendorque* > *ez nendorke*...

* *igoritzan* > *igor (d)itzan*, *gomendezac* > *gomend(a) ezak*, *zauriere* > *zauri(a) ere*...

* *esaeusan* > *esa(n) eutsan*, *içaneniz* > *izane(n) niz*, *ycustetut* > *ikuste(n) tut* (= ditut), *nitaucat* > *ni(k) daukat*...

2) Bereizteak + aldaketak bigarren osagaien

* *ezta* > *ez da*, *eztaquit* > *ez dakit*, *eztacart* > *ez dakart*... *ezquiten* > *ez giten*... *ezpaitzen* > *ez baitzen*, *ezpaninz* > *ez banintz*...

3) Aldaketak bigarren osagaian

* *liçençiaric paguindu > lizentziarik bagindu, oeac pere > oheak bere, onac tira > onak dira...*

* *erestun da joyela > ereztun ta joielā, arean da > harean ta, baldin da > baldin ta... zīrarrez da > zīrarrez ta, noblez da > noblez ta...*

* *ez padire > ez badire, ez taquie > ez dakie, ez tirean > ez direan...*

11. Bestelakoak

* Kontsonante errepikatuak: *iccassiren > ikasiren, leppora > lepora, bessō > beso, lettratu > letratu...*

* Sudurkaritze ikurra: *lādan > landan, laurēbatic > laurenbatik, carguarē > karguaren, ezcō > ezkon...*

* Apostrofoa ezabatu egin da eta haren ordeaz, parentesi artean, eliditu-tako bokala ezarri da: *Andr' Emili' > Andr(e) Emili(a)*. Tartekatutako "h" letraren arazoan bezala (ikus, gorago, " 'H' letraren erabilera" ataltxoā), bokala parentesi artean jarri da adierazteko bokal hori ez dela kontuan eduki behar lerroaren neurria erabakitzerakoan, hots, apostrofoa ezarria zegoenean lerroak zuen neurriari eutsi behar zaiola.

* Marratxoā: *bercera-ere > bertzera ere, gogo-ere > gogo ere, lurrean-ere > lurrean ere...*

* Bertso-lerroen hasierako maiuskulak, puntu baten ondokoak ez direnean, minuskula bihurtu dira.

* Kopla zaharretan, irudi sentigarria jasotzen duten bi lerroak eten-puntuez luzatu dira, irudiari darion iradokizun irekiaren eta mugaezinaren seinaleztat.

* Gaztelaniazko eta frantsesezko hitzak gaur egungo ortografiaz jarri dira: *bolando > volando, ato > hato, ipochrita > hipócrita... Bloys > Blois...*

* Liburuki honetako jatorrizko testuetan, puntuazio-marken erabilera urria da. *Linguae Vasconum Primitiae*-ren 1545eko edizioan, ia-ia estrofa bukarako puntua besterik ez dator. Lazarragaren eskuizkribuan, bakanak dira ezarritako markak. Leizarragaren Testamentu Berriaren itzulpenean bada puntuaziorik baina bi puntuak, agian, behar baino ugariago ageri dira.

Testuen egokitzerako oinarritzat hartutako bertsioak jarraituz, egokitu egin da puntuazioa gaurko erabilerara. Intonazioak hala eskatuta, galdera eta harridura markak ere ipini dira.

Bertsoan, puntuazio-marka berriak neurriz ezarri dira. Bertso-lerroaren bukaerako etenak, berez, koma edo puntu eta koma baten mailako geldialdia edo bereizketa adierazten du eta, batzuetan, puntuazio-marka eranstea erredundantea gerta daiteke, sobera dagoen zeinua.

* Egokitzen artan ahalik eta koherentziarik handiena bilatu da. Saiatu arren, jatorrizko testuen izaera errespetatu nahi bada bederen, erabakiteko koherentzia, hamarretik hamarreko uztardura, ezinezkoa gertatzen da.

Horren erakusgarri, testuetan zehar, batzuetan, hitz berean nabaritzen diren aldaerak. Arrazoiak askotarikoak: egilearen euskara moldea, erabilitako euskalkia, garaiko euskararen egoera, bertso-lerroaren neurria lortu beharra, testuen transmisioan tartekatutako okerrak eta abar. Esaterako: *baina/bana, bage/baga, elkar/elgar, Salbatierra/Salbaterra, dontzeila/dontzeilea, franko/frango, nondik/nontik, gainean/gainian/ganean, ondra/onra/onrea, eman/emon/emun, utzi/etxi/itxi, lengoaje/lenguaie/ lengoaie, denbora/denpora/denporea/ tenpora...*

* Gorde da, besteak beste, *-ia-* (*jabia, nobliak, lurrian, nekia...*) eta *-ua-* (*sekülakua, erua...*) bikoteetako bokalen itxitura, hala nola *-uia-* multzoko epentesia (*zeruia, kantua, buruia...*). Hautatze hau egiteko arrazoiatariko bat: egokitzen artan, oro har, jatorrizko bokalismoa mantentzearen alde egindako aukera. Beste bat, oraingoan erabakigarria: errimari eusteko beharra. Bokal multzo hauek egokituz gero, estrofa ez gutxitan errima hondaturik gelditzen da. Bestalde, erriman kokatzen ez direnean egokitzea eta erriman agertzen direnean mantentzea nahasbideari atea irekitzea da. Hortaz, errimari eutsi eta nahasketa saihesteko, multzo horiek agertzen diren guztietan bere horretan mantentzea hautatu da.

* Testuetan ageri den onomastika –antropónimoak eta toponimoak– sarri orokorrean (8.4.) eta atal honetan azaldutako irizpide eta moldaketen arabera izan da egokitua.

Paratestuetan beste era batera jokatu da.

Izen-deiturak, oro har, egokitu, estandarizatu, egin dira sarreretan, taula kronologikoan eta oin-oharretan. Ez, ordea, erreferentzia bibliografikoetan eta “Bibliografia” atalean, non idazlanetan agertzen diren autoreen jatorrizko izen-deiturak, bere hartan, mantendu diren.

Aipatzen diren liburu eta artikuluen izenburuak, oro har, egokitu, estandarizatu, egin dira –bakoitza bere jatorrizko hizkuntzaren arabera– sarreretan, taula kronologikoan eta oin-oharretan. Erreferentzia bibliografikoetan eta “Bibliografia” atalean, berriz, izenburuok jatorrizko forman jaso dira, soilik grafia zaharkituak aldatuz.

Antologian bildutako testuen sarreraren aurreko izenburu paratestualetan ere egokitzapenak egin dira, ortografian eta onomastikan jarraitutako irizpideen arabera.

Onomastika eta izenburuak egokitzeko, besteak beste, Euskaltzaindiaren [Hizkuntza baliabideak: Onomastika / Arauak] eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren [Euskara: Eskola-materialen Estilo-liburua: Onomastika] web orrietan jasotzen diren irizpide eta gomen-dioak jarraitu dira, oro har. Alor honetan ere, erabateko koherentzia lortu ez bada ere, ahalik eta handienera iristen saiatu da.

Hona hemen helbideak:

<www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=259&Itemid=478&lang=eu>

<www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_euskaltzaindiarenarauak&view=frontpage&Itemid=424&lang=eu>

<www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/onomastika/ONOMASTIKA.pdf>

<www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih/eu_5490/adjuntos/estilo_liburua/onomastika/IZEN_ZERRENDIAK.pdf>

Baliagarri gertatu da halaber: *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia: Klaudio Harluxet Fundazioa, 1995.

Oharra: liburuki honetan aipatzen diren webguneen azken egiaztatzea 2015eko ekainean egin da.

LABURDURAK ETA IKURRAK


arg.	= argitaratzailea
<i>ASJU</i>	= <i>Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"</i>
biltz.	= biltzailea
<i>BRSVAP</i>	= <i>Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País</i>
ed.	= editorea
esk.	= eskuizkribua
et al.	= <i>et alij</i> , eta beste
f.	= folioa
<i>FLV</i>	= <i>Fontes Linguae Vasconum</i>
fr.	= frantsesa
gask.	= gaskoia
gazt.	= gaztelania
hurr.	= hurrengo(a)
ib.	= <i>ibidem</i> , leku edo erreferentzia berean
in	= segidan aipatzen den lanean kokatua
ing.	= inguruan
K.a.	= Kristo aurreko
kap.	= kapitulua
K.o.	= Kristo ondoko

koad.	= koaderno
koord.	= koordinatzailea
lat.	= latina
lib.	= liburu(ki)a
m.	= mendea
or.	= orri(alde)a(k)
r.	= <i>recto</i> , folioaren aurrealdea
<i>RIEV</i>	= <i>Revista Internacional de Estudios Vascos</i>
<i>RS</i>	= <i>Refranes y Sentencias</i> (1596)
<i>TAV</i>	= <i>Textos arcaicos vascos</i>
v.	= <i>verso</i> , folioaren gibelaldea
zenb.	= zenbakia

/	= esanahi, hautabide, aldaera eta bertso-lerroen bereizgarria
?	= galdera markaz gain, datu zalantzazkoa edo ezezaguna
()	= besteak beste, testuan egindako osatze ortografikoa, bereziki bertso-lerroaren neurria aldaraz dezakeena: <i>esa(n) eutsan, izane(n) niz... gaztig(a) ezak, zauri(a) ere... a(ha)l, be(he)ra...</i>
(...)	= obra zein artikuluan baten izenburua, edota testu baten aipua laburtzearen ezkutatu edo jaso gabeko segmentua
[]	= testuan hondatua, ulertezina edo falta den segmentuaren berreraikitzea: <i>jabil[t], [hu]ra, Mondr[a]goeri...</i>
[...]	= testuaren jatorrizko iturrian falta, hondatua edo ulertezina den segmentua; jatorrizko testuaren luzera laburtzearen hautatu edo jaso gabeko zatia

IRUDIEN KAIERA

Euskal Literaturaren antologia orokor zenbait. Etxenagusia, Lafitte, Onaindia, Urkizu, Mendiguren Elorri / Izagirre.



Euskal liburuen ekoizpena historian. Joan Mari Torrealdei (*Euskal kultura gaur*, 1997).

EUROPA XV. MENDEAN




Europa xv. mendean. Eduardo Perez Rodriguez (*Atlas historikoa. Euskal Herria munduan*, 2008).



Erromesak Donejakue bidean (xiv. m.; Jasokundeko Ama Birjinaren elizako freskoa, Alaitza).



Oñatiko Unibertsitatea (xvi. m.).



Joan Sebastian Elkano. Antonio Valverde
Aialde (1966; Intsausti jauregia, Azkoitia).




Margarita Nafarroakoa. Jean Clouet-i egotzia (1526 ing.; Condé Museoa, Chantilly).



Inprimategia (xvi. mendeko eskuizkribu bateko miniatura; Frantziako Lliburutegi Nazionala, Paris).



Erasmus Rotterdamgoa. Quentin Metsys (1517; Antzinako Artearen Galeria Nazionala, Erroma).



San Ignazio Loiolakoa. Ignacio Valls-en grabatua (Xavier Fluvía, *Vida de San Ignacio de Loyola*, 1713).



“Jesusen atxilotzea”. Joan Antxieta (1577 ing.; Zumaiaiko San Pedro elizako erretaulako panela).



Gernikan (1476), bizkaitarren foruen zina egin ondoren, “Fernando Bosgarrena errege jaunari eskumuinak egiten”. Frantzisko Mendieta (1609; Jose Ignazio Urrutiaren kopia, 1773; Gernikako Batzarretxea).



Xabierko gaztelua (xiv. m.).



Amaiurko gaztelu birrinduaren (1522) hondakinak eta 1922an eraikitako monumentua.



Esteban Garibai (Esteban Garibairen idazlanetako grabatua; Historiaren Errege Akademia).



“Bake ezteiak”. Pablo Uranga (1907; Kutxa Fundazioaren arte-ondarea). (Triptikoa: Olasoko Martin Ruiz ganboarrak Joana Ibañezekin ezkontzeko eskaria egiten dio honen aita den Gomez Gonzalez oñaztarrari / Ezteiak Elgoibarren, Olasoko San Bartolome elizan / Borroka ganboarren eta oñaztarren artean Arrasatetik gertu, non Gomez Gonzalez hilik gertatzen den. Ikus: “Mondragoeren erreketaren kantak” eta “Olasoko kanta”).




Gebatarren jauregiaren hondakinak (xiii-xiv. m.; Gebara).



Mendozatarren gaztelua eta dorrea (xiii-xiv. m.; Mendoza).



Erdi Aroko giza-bizitzako eszenak, armazko egintzak batik bat (xiv. m.; Jasokundeko Ama Birjinaren elizako freskoa, Alaitza).



Hari-instrumentuak jotzen. Juan Oliver ("Kristoren pasioa" freskoaren xehetasuna, 1335; Nafarroako Museoa, Iruñea).



Mauleko gaztelua (xiii-xiv. m.).



Zubiaren Muturreko Andre Maria eliza
(xiii-xiv. m.; Donibane Garazi).



Ezpeldoin (Etxebarre), Bereterretxen
erailketa gogorarazten duen
orotarriaren marrazkia. Louis Colas
(*La tombe basque*, 1923).

LINGVAE VASCONVM PRIMITIAE
per Dominum Bernardum Dechepare
Rectorem sancti michaelis veteris.



Linguae Vasconum Primitiae. Bernat Etxepare (1545eko edizioaren azala).

Arimen judizioa: Mikel goiaingerua arimak balantzan pisatzen (xiv. m.; Tourseko San Martin elizako freskoa, Gazeo).





Lazarragatarren jauregia (xvi. m.; Zaldondo).



“Alargunen etxea”. 1564ko sutearen ondoren zutik geratutako eraikin zibil bakarra (Agurain).



Kalbin [Jean Calvin]
(Erreformaren Museoa, Geneva).



Joana III.a Albrotekoa.
Thomas de Leu-ren grabatua
(1597).



Jesus Krist gure Jaunaren
Testamentu Berria. Joanes
Leizarraga (1571ko
edizioaren azala).



Muntsaratz dorretxea (xv-xvi. m.; Abadiño).



Etxauztarren gaztelua (xii. m.; Baigorri).



Urtubiarren gaztelua (xiv-xv. m.; Urruña).



"Gutuna irakurtzen". Roger van der Weyden (1450 ing.; Galeria Nazionale, Londres).

1. KANTA ETA BERTSO ZAHARRAK

Lehenengo kapitulu honetan, XIV-XVI. mendeetan, han-hemenka sortu-tako kanta eta bertso solteak, autonomoak, jasotzen dira.

Kanta eta bertso hauek gaika bil daitezke, eta, batzuk, epikoak batik bat, gatazka soziopolitiko komun batzuei daude atxikiak. Baina, izatez, emaitza solteak dira: lotura xumeak nabaritzen badira ere, euren artean ez dago aparteko zerikusi edo interdependentziarik. Etxepare edo Lazarragaren bertsoak ez bezala, ez dira autore baten obra gutxi-asko zabal eta esanguratsu baten osagai gisa sortuak izan. Bakoitza unean uneko zirkunstantzia berezi batetik jalgia da, egoera konkretu bati erantzunez gauzatua. Hurbileko haurriderik gabeko poemak dira.

Konposizio hauen artean, Euskal Literaturaren testurik zaharrenak aurkitzen dira. Gutxi batzuk kenduta, “Joan Amenduzekoaren elegia”, “Maria Estibaliz Sasiolarenak”... esaterako, oro har, anonimoak dira, egile ezezagun bakar batek edo kolektibitate batek sortuak eta moldatuak. XVI. mendean idatziz jasoak izan diren poemarik gehienak garai horretako edo lehenagokoak ei dira. Hala ere, bakarren bat salbu, inork ez daki zehazki noiz eta non asmatu ziren. Dena den, bada nahiko oinarririk uste izateko kontatzen dituzten egitandi eta bestelako gorabeherak gertatu eta laster, XIV-XVI. mendeetan alegia, sortu zirela –inprobisatuak inoiz, agian–, eta, kantak diren heinean, idatziz jarri aurretik, ahoz aho transmititu zirela. Transmisio horretan, batzuk, seguru asko, galdu egin dira eta beste batzuk, berriz, eraldatu. Honetan kalitetuenak luzeenak omen, oroimenez gordetzen zailenak baitira. Maiz, historialariek eta aurkitutako dokumentu bakanek testuen zatiren batzuk besterik ez dituzte jaso.

Kapitulu honetan bildu dira XVI. mendeaz geroztik jaso eta gureganaino ondotik iritsi diren zenbait testu ere: “Bereterretxen kantorea”, “Alos-dorrea”, “Andre Emilia”, “Atsein handia”, “Urrutiako anderea”, “Atharratze jauregian” eta “Arageako Petrika”. Zalantza eta erresalbu sartuak izan badira ere, ba-

koitzari dagokion sarreratxoan azaltzen dira XIV-XVI. mendeetako garai honetan ezarriak izateko bidezko arrazoiak. Batzuenak beste batzuenak baino sendoagoak.

Auzi honetan, funtsezkoa da bereiztea eta lotzea: testuak aipatzen duen gertaera historikoaren data, kanta edo bertsoa sortua izan zen garaia, eta testua lehenengoz ezagutarazten duen dokumentu idatziaren unea. Korapilorik bihurriena, sorrerarena da. Testu beraren aldaera ugari agertzeak, bestalde, kantak edo bertsoak bilakaera jasan duela adierazten du, harentzat denbora tarte pasala. Printzipioz, zenbat eta aldaera gehiago, orduan eta transmisio prozesua luzeagoa.

Testu zahar hauetako batzuk dokumentu edo lekukotasun isolatuen bidez iritsi zaizkigu. Iturri nagusien artean, badira azpimarratu beharreko kronista edo biltzaile batzuk: Esteban Garibai Zamalloa (1533-1599), *Los Cuarenta Libros del Compendio Historial de las Crónicas y Universal Historia de todos los Reinos de España* (1571), *Grandezas de España (...)* (1573-1598 bitartean idatzia), eta aurrekoaren XI. tomoa, *Memorias de Garibai* izenburuaz argitaratutakoa (1586-1598 inguruan idatzia); Joan Iñiguez Ibarguen (1534-1609 ing.) eta Cachopin doktorearen semea (1520-1598 ing.), *Crónica de Ibargüen-Cachopín* izenez ezagutzen den eskuizkribua, XVI. mendearen bigarren erdian zehar (1558-1598 ing.), bion lankidetzan moldatua.

Beste biltzaile batzuk ere aipagarriak dira: Joan Martinez Zaldibia (?-1575), *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* (1575 baino lehen idatzia); Frantzisko Mendieta (1556-?), *Cuarta parte de los Anales de Vizcaya (...)* (1588-1592 ing.); Joan Perez Lazarraga (1548 ing.-1605), *Relación histórica (...)* (1600 ing.); Lope Martinez Isasti (1560 ing.-?), *Compendio Historial de (...) Guipúzcoa* (1625). Zenbait kanta, bereziki Iparraldekoak, biltzaile hauek, besteak beste, jaso dituzte: Augustin Xaho (1811-1858), "Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques" (1850 ing.); Francisque-Michel (1809-1887), *Le Pays Basque (...)* (1857); Jean Dominique Julien Salaberri (1837-1903), *Chants populaires du Pays Basque* (1870); Jean Jaurgain (1842-1920), "Quelques légendes poétiques du Pays de Soule" (1899).

Gaiaren aldetik, testu zaharrok, hemen, sei multzotan banatzen dira eta multzo bakoitzaren barruan konposizioak kronologiaren arabera ordenatzen: epikoak, erostak, hilartitzak, amodiozkoak, isekazkoak eta laudoriozkoak. Ez dira, orain arte bederen, inguruko literatur testu zaharretan, kanta herrikoia anonimo moduan, ohikoak izaten ziren erlijio gaiak agertu, ezta antzerti testuak ere, nahiz, azken kasu honetan, izan baziren omen.

Nabarmena, besteak beste, emakumeak hartzen duen protagonismoa, dela kontakizunaren pertsonaia nagusi edo garrantzitsu gisa, dela enuntziazio poetikoaren subjektu moduan: "Olasoko kanta", "Milia Lasturkoaren eresiak",

“Andre Emilia”, “Urrutiako anderea”, “Atharratze jauregian”, eta beste zenbait.

Kanta eta bertso hauetan, gertaera historikoak eta fikzioa gurutzatzen dira, neurri edo proportzio desberdinez. Batzuk datu historiko batean daude oinarrituak: “Beotibarko guduaren kanta”, “Joan Amenduzekoaren elegia”, “Gure printzipe don Henrike jaunari”..., eta fikzioari, alegiazko kontaketa, apenas zaio lekuri uzten. Beste batzuk, gertaera historiko batetik abiatuak badira ere, asmatutako elkarrizketen bidez edo fikziozko garapen edo osagaiez jantzi eta, inoiz, “Kantatutako elezahar” gisa izendatuak izan dira: “Bereterretxen kantorea”, “Atharratze jauregian”... Badira egoera emozional baten adierazpen poetikoak direnak, besteak beste, “Perutxoren kanta”, “Maria Estibaliz Sasiolarenak”...; edo asmo iraingarri bati irteera ematen diotenak, hala nola “Martitxo Musuren koplak”, “Martin Sanzen koplak”...

Bestalde, kanta eta bertso batzuetan, epiko batzuetan bereziki, ez dago erabat argi testu horietan jasotako gertaera zenbaiten egitasun historikoa. Gehienetan, sustraian, bertsoei sorrera eman dien jazoera historiko egiazko bat dagoela uste da. Baina ezin ziurtasunez jakin zenbateraino diren benetakoak bertsoetan agertzen diren gertaera eta datu horiek guztiak.

Dena den, bereizi egin behar da testuek diotenaren eta testuen inguruan historialari, ikertzaile eta iruzkingileek aurkitu, landu edo asmatu dituzten kokatze edo kontaketen artean. Kanta eta bertsoetan azaldutako gertaerak esplikatu nahian Garibai, Ibarguen-Cachopin, Zaldibia, Isasti eta abarrek, eta, jada XIX. mendearen bukaeran eta XX.aren hasieran, Joan Karlos Gerrak eta bestek eman dituzten azalpen historikoak tentuz hartu eta erabili behar dira.

Testuei egindako sarreretan, informazio moduan, azalpen edo iruzkin historiko horietako batzuk jasotzen dira. Ziurgabetasunaren seinalez, maiz “omen”, “dirudienez”, eta horrelako moldez ñabartzen dira. Azken batean, Antologian benetan axola duena ez da testuek kontatzen duten gertaeren egitasun historikoa, baizik eta, besteak beste, testuen edukia, konfigurazioa, garapena eta komunikatzen duten bizipena.

Egituratze aldetik, poema asko narrazio kanten esparruan sartzen dira. Hortik, batzuei, aztertzaileek “balada” edo “erromantze” deitu izana. Gehiago bat kantatua izateko sortua da eta kantatuz transmititua izan da. Eman izan zaizkien izenak ere adierazgarriak dira: “kanta”, “kantu”, “kantore”, “eresi”, “koplak”...

Formari dagokionez, euskal testu zaharretan nabarmena da latinez eta hizkuntza erromanikoez sortutako literaturaren eragina, batik bat Erdi Aroan latinez idatzitako kantuen, bai ahapaldietan, bai irudi zein metaforetan ere. Izan ere, euskal kanta eta bertso zaharrak ez dira beti, gaiez eta egituraz, hemengoak soilik, basamortuko oasi isolatua balira bezala. Batzuk, bederen,

tradizio europarraren zordun dira eta alboetako literaturen eraginak izan dituzte; gero hemengo ukitu propioz taxutu badira ere.

Esateko erari begira, euskal testu zahar hauek espresionismorako joera izaten dute: *Oinetako lurrau jabilt ikara / gorputzeko lau haragiok berala* ("Peru Abendañoaren deitorea"); *Zer ete da andra erdiaen zauria? / Sagar errea, eta ardao gorria* ("Milia Lasturkoaren eresiak"). Isekazko testuetan salbu, gainerako sailtako zenbaitetan, gai eta tonu aristokratikoa ageri da. Honek bide ematen du egiaztatzeko Erdi Aroko azken urteetaraino gutxienez, euskara herriko jende xumearen hizkuntza ez ezik, ertain eta goi-mailako pertsonena ere izaten omen zela.

Iritsi zaizkigun XIV-XVI. mendeetako literatur testu zaharren artean, badira mendebaldekoak ez diren euskalkietan idatzitakoak –goi-nafarreraz "Joan Amenduzekoaren elegia", esaterako, edo zubereraz "Bereterretxen kantorea", adibidez–, baina gehienak mendebaldekoak direnetan idatzita daude. Datu hau normala da, kantu epiko eta erostei dagokiela, kontuan hartzen bada aipaturiko kronika liburuak ekialdeko Bizkaia, iparraldeko Araba eta ekialdeko Gipuzkoako bailaretan gertaturiko ekintzez aritzen direla eta mendebaldeko euskalkia izan dela lurralde horietan erabilitakoa. Seguru asko, Euskal Herriko beste eskualdeetan ere antzeko kantak izango zituzten, galdu egin direnak, kronista faltarengatik edo.

Maila metriko-fonikoari begira, neurtitzak bilduta daude, batzuetan, aha-paldi bakar batean: "Olasoko kanta", "Orain negua bada bere", kasurako. Beste batzuetan, hein batean zedarrituta eta egituratuta dauden estrofa soiletan: "Milia Lasturkoaren eresiak", "Andre Emilia", esaterako; edo gehiagoko edo gutxiagoko luzera duten egitura zehatzik gabeko bertso-lerroen ilaretan.

Estrofak eta neurtitzen segidak, oro har, heterometrikoak izaten dira, hots, beti silaba neurri bera ez duten bertso-lerroz osatuak, gehienetan oinarritzko silaba kopuru baten inguruan gauzatzen badira ere. Hau da, eskuarki, euskal kanta eta bertso zaharretako lerroak anisosilabikoak izaten dira: estrofa edo neurtitz ilara berean, euren silaba kopurua desberdina izaten da.

Zer dela-eta anisosilabismo hori? Arrazoiak bat baino gehiago izan litezke. Agian, sortzailearen moldakaiztasuna edo ezgaitasuna; agian, egile horrek, nolabaiteko askatasunez jokatzuz, ez zuen helburutzat neurtitzen silaba kopuru perfektua lortzea. Beharbada, transmisio luzeak eragindako deformazioa. Maiz, ziur asko, abestuek izateko sortutako bertsoen baldintza metriko bereziak, doinuari eta kantuari lotuak: doinuak silaba kopuru desberdinak egokitzea ametitzen du –nota, edo soinu, batek, errepikatua, zatikatua, luzatua, silaba bat baino gehiago besarka lezake, eta, silaba bakar bat nota, edo soinu, bakar batera baino gehiagotara heda daiteke– eta, honela, egiazko neurria legoke, edo zegokeen, ez silaba kopuru hutsean, baizik eta doinuaren

eta silaben arteko uztartzean. Baliteke, bestalde, oraindik behar bezala ez ezagutzea, sortze prozesu haietan, bertso-lerroen neurketarako edo erritmoa lortzeko erabili ohi zen, edo ziren, sistema(k) (sinalefak, dieresiak, elisioak, diptongoak... erabakitzeko moduak).

Euskal neurtizkera zaharraren arazo hau argitzeko eta, bide batez, euskal bertsokeraren erritmoaren funtsezko unitatea aurkitzeko asmoz, askotarikoak dira plazaratutako azalpen saioak. Silaba edo silaba kopuruaz gainera –era batera edo bestera gehienek onartua edo erabilia–, besteak beste: “une indardun eta une argalak” edota “oin ritmiko” edo metrikoa (M. Lekuona, 1965: 214; 1918/1978: 148); “etena” (Ormaetxea, 1963); “hitz andana” (Michelena, 1977: 723); “multzo fonikoa” (Altuna, 1979: 142-146). Oraingoz, erabat gogobetetzen ez duten proposamenak direnez, eta behin-behinekotasuna nagusi delarik, euskal neurtitz zaharren gorabehera hori anisosilabismotzat baino, fluktuaziotzat hartu beharko litzateke, apika.

Neurtitzen loturari dagokiola, kanta eta bertso zaharretan, oro har, ez dago zangalatraurik, ez hemistikioen, ezta bertso-lerroen artean ere. Lerroak, aha-paldietan, idatziz antolatzeko moduari begira, berriz, jatorrizko dokumentuetan bi molde ikusten dira. Ahapaldi batzuk, Hegoaldeko usadiora, lerro laburrez daude jarriak: puntua, hau da, errimatik errimara doan berbaldi zatia edo esaldia, bi lerrotan ageri da banatua; horrela, neurtitzen errima binaka eratzen da, bertso-lerro bikoitietan, bakoitiak libre geratzen direlarik: “Beotibarko guduaren kanta” edo “Maria Estibaliz Sasiolarenak”, esaterako. Beste estrofa batzuk Iparraldeko eredura ordenatzen dira, hots, puntua, errimaz amaitzen den zatia, bi hemistikioz osatutako lerro bakar batean da idatzia, osorik; ondorioz, errima neurtitz guztietan dator: “Bereterretxen kantorea” edo “Atharratze jauregian”, besteak beste. Egia da eredu banatu edo laburreko zenbait bertso, molde bilduko edo luzeko eran jar daitezkeela, lerro guztiek errima daramatela, alegia, eta, alderantziz, eredu hedatu edo luzean eratutako estrofak molde zatikatura egokitu daitezkeela, baina hemen, oro har, jatorrizko iturrian jasotako antolamendua mantentzea aukeratu da.

Errima edo hoskidetasunaren aldetik, oro har, kanta eta bertso zaharretako neurtitzak hoskidetasun apalekoak dira, hau da, hots bateko (-i, -e, -a...) edo bikoak (-ik, -ia, -oa, -tu...) gehienetan. Aipagarria, “Andre Emilia” (-ora, -itan, -tza/e). Errimaren egitura, berriz, ia beti, jarraitua, inolako gurutzaketa edo txandaketarik gabe. Batzuetan, estrofa batetik bestera aldatzean, errimaren hotsak ere aldatu egiten dira, baina estrofa edo neurtitz segida berean, luzeak izanik ere, oro har, errima bera gordetzen da.

Atal arduradunak: Sebastian GARTZIA TRUJILLO
Iratxe RETOLAZA

1.1. EPIKOAK

Literatura gehienetan, testurik zaharrenak epikari dagozkio. Ezagunak dira *Chanson de Roland* (XI. mendearen bukaera ingurukoa), *Cantar de Mío Cid* (XII. mendearen bukaera - XIII.aren hasiera ingurukoa) edo *Nibelungenlied* (XIII. mendearen hasiera ingurukoa). Kanta hauek gizarte-funtzio bat betetzen zuten: gudarako adoreak berotu, arerioenak hoztu, eta bando-buruen edo sortu berriko nazioen lidergoa indartu.

Beranduagokoak eta apalagoak izanik ere, Euskal Literaturaren testurik zaharrenak molde epikoko kantak dira.

Kanta hauek Behe Erdi Aroan Euskal Herriko Ahaide Nagusien artean sorturiko liskarren erakusgarri dira. XI-XV. mendeen bitartean, politika eta ekonomia egitura feudala sortu, zabaltu eta indartu zen Europan zehar. Jauntxo feudalek basailuen artean banatzen zituzten lur eta ogibideak (jabegoa ez, haatik), eta basailuok, beren aldetik, herriko jendearen artean birbanatzen zituzten, gero eta gogorragoak bilakatzen ziren ekoizpen baldintzen pean, harik eta glebako jopuengana iritsi arte. Basailuek eta jopuek, trukean, errentak (jenerotan, usu) ordaindu behar izaten zizkieten jauntxoei. Sistema feudal horrek hierarkia egitura sorrarazi zuen europar gizartean. Hierarkia honen goi postuetan Ahaide Nagusiak zeuden, zeinek erregeen babesa bilatzen zuten eta, ordainez, beste errege edota Ahaide Nagusien kontrako liskarrean parte hartu behar izaten zuten. Ahaideengandik behera, jauntxoak eta maiorazko-buruak, baserritarrak, maizterrak eta jopuak ziren.

Behe Erdi Aroaren bukaera aldean, sistema feudala krisian sartu zen eta gerrek –Ehun Urtekoa (1337-1453), Flandriakoa (1325-1328)...– eta izurriteek –1346-1353 bitarteko Izurrite Beltza, kasurako– gizarte oreka hondatu zuten. Jauntxoek hartzen zituzten errentek behera egin zuten nabarmen eta Ahaide Nagusien arteko liskar eta borrokak ugaritu egin ziren. Euskal Herrian, Ahaide Nagusiak elkarren aurkako bi taldetan banandu ziren. Mendebaldeko hiru lurraldeetan, gehienbat oñaztarren eta ganboarren arteko liskarrak gertatu ziren. Oñaztarren aldean: Mendoza, Muxika-Butroe, Lazkano, Loiola... familiak. Ganboarren bandoan: Ganboa, Gebara, Belasko, Abendaño, Urkizu, Olaso... familiak. Nafarroan, berriz, beaumontarren eta agaramontarren arteko borrokak batez ere. Beaumontarren aldetik, Beaumont eta Lukuze familiak, eta agaramontarren partetik, Agaramont eta Peralta familiak, besteak beste.

Guda denboran, bandoen arteko liskarrak gogorrak izan arren, bake denboran, haatik, elkarren arteko erlazioak lagunkoiak izaten ziren eta bando ezberdinen arteko akordioak eta ezkontzak ere ados zitezkeen.

Kanta epiko zahar hauen gai nagusia, beraz, Ahaide Nagusien arteko gatazka da: gertaera bortitzak, hala nola guduak, borrokak, hilketak, suteak, ja-

zarpenak..., eta hauetan hartutako jarrerak eta piztutako sentimenduak, esaterako, etsaigoa, gorrotoa, mendekua, mendekotasuna, ohorea, dolua, ikara eta abar. Fikzioa tartekatu arren, oro har, kanta historikoak dira, benetako jazoera batetik sortuak, aipatzen diren pertsonak, tokiak edo gorabeherak zehazki egiaztatzea, behin baino gehiagotan, zaila bada ere.

Beotibarko guduaren kanta

Kanta honek nafarren eta gipuzkoarren arteko borroka bat jasotzen du. 1200. urteaz geroztik, ugariak izan omen ziren gaztelauen eta nafarren arteko liskarrak, Nafarroako Erreinuaren lurraldeak bereganatu edota berreskuratzeko ahaleaginean. Borrokaldi horietan Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Ahaide Nagusiek parte hartzen zuten, noiz nafarren, noiz gaztelauen alde. Halako batean, gipuzkoarrak Nafarroan sartu eta Gorritiko gaztelua bereganatu zuten. Errepresaliaz, Ponce de Morentain, Nafarroako erregeordea, Gipuzkoan barruratu omen zen gudari askorekin, Gaztelu herria menperatu, Berastegi hiribildua erre eta Tolosa ingururaino hurbildu zen. Gipuzkoarrek, Larreako jaun Gil Lopez Oñatzen gidaritzapean, Tolosatik hurbil dagoen Beotibarko haranean, Nafarroarantz itzultzen ari zen nafar atzeguardiari eraso eta triskantza handia egin zioten, 1321eko irailaren 19an. Gertakaria, Santa Gurutze egunaren inguruan jazo omen zenez, gaur egun, Santa Gurutze egunean gogoratu ohi da.

Especialista batzuek azpimarratu dute kanta zahar honen modernotasuna: silaba kopuru zehatza, errimaren aberastasuna, erritmo errepikakorra, literatura tradizio unibertsalean ageri den gai topiko bati –urteak, errekek bezala, ezinbesteko pasatzeari, alegia– ondo baino hobeto dagokiona.

Jatorrizko iturria: Esteban Garibay (1571), *Los Quarenta Libros del Compendio Historial* (...), XXVI. lib., 15. kap., 300. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 66-69. or.

Mila urte igarota
ura bere bidean...
Gipuzkoarrok sartu dira
Gazteluko etxean,
nafarrokin batu dira
Beotibarren pelean¹.

¹ borrokan.

300 Lib. XXVI. d'el Compendio Historial d'España

rin de la Peña, Pero Sotes, Juan Lopez de Viroz, merino mayor de las montañas, Pedro de Ayuar, Martin de Vrla, hijo de Martin de Ayuar, alférez d'el estádarte Real, que era de los caualleros mas poderosos d'el reyno, Pero Garcia, Juan de Vriz, hijo de Diego Perez Faget, y otros cinquenta y cinco caualleros y personas de mucha cuéta de Nauarros, Fránces, y Gascones. Entre los muchos prisioneros fue el mas principal el dicho Martin de Ayuar alférez d'el pé dō Real cō vn hijo suyo, y otros caualleros, y nobles hōbres. Esta victoria, q̄ en tre los Guipuzcoanos fue muy celebrada, passō en el dicho dia diez y nueue de Septiēbre, y refiere se auer sido tātos los muertos, q̄ parece cosa increyble, y hasta agora se cōseruan cantares antiguos, hechōs en memoria suya, no solo en la légua Castellana, cuyo comiēço es d'esta forma. De Amasa sale Gil Lopez. De Oñaz y de Larrea. Al encuētro de Fránces. Para lidiar en pelea, mas tãbiē en la natural de la mesina tierra deziendo. *Mila v̄rte y garota: V̄ra vere videan. Guipuzcoarroc sartu dira: Gaz zeluco echean. Nafarroquin batu dira: Beotibarrē pelean & Cuya* significaciō es dezir, que aun pallados los mil años, va la aguasf camina, y q̄ los Guipuzcoanos auian entrado en la casa de Gaztelu, y en pelea se auian topado con los Nauarros en Beotibar &. D'esta victoria no solo antiguas memorias hazē mēciō, mas aū auctores de mucha diligēcia como lo toca breuemente Hieronimo Çurita en el capitulo veynte y quatro d'el libro septimo de la primera parte de sus Anales de Aragón. De aqui comecō a auer algunas guerras entre las fronteras de Nauarra y Guipuzcoa y tãbiē Castilla, tomādo ocasiō sobre los limites de la tierra de cada vna de las partes. Algunas vezes echādo juizios sobre esta batalla y victoria, he venido, a pēsar, q̄ en el numero de las gētes de Guipuzcoa vniēse auido yerro de pēdola, escriuiendo ocho ciētos peones, por ocho mil, q̄ es numero q̄ cō mucha mas cantidad fuele Guipuzcoa en tiepo de necesidad jutar dētro d'el quarto o quinto dia para la defēsa de la patria, pero en todos los papeles de memorias d'ēstos tiēps, q̄ yo he procurado y visto, hallo cōstātēmēte ochociētos, y el daño de los vécidos fue mayor, por suceder la batalla en parte angosta y fragosa, dōde sola la auāguardia podia pelear.

AVIENDO fallecido en estos dias Roberto cōde de Flādes, comecārō grādes litigios y cōriēdas en el Real parlamēto de Paris, sobre la erēcia de los estados, cuya legitima suceffiō pertenecia mas q̄ a otro a Luys conde de Nevers. El qual cō esta esperāca venido a la ciudad de Paris, a los caualleros principales de los estados de Flādes, q̄ cō el estauā, con juramēto recibió por suyos, y por ser este caso cōtra les estatutos Reales fue echado preso en el castillo de Lupara, aū q̄ no tardō, en ser suelto, porq̄ los oydores d'el parlamēto le declararo por erederode de los estados de Flādes, y boluiō a sus tierras, auiendo prestado al Rey Dō Carlos homenaje de fidelidad. En los mēsmos tiēpos, auia en Guiayna vn poderoso cauallero, llamado Iordano Insulano, el qual auiedo sido homicida y facinoroso, y perpetrador de graues crímenes y insultos vino, a ser perdonado d'el Rey por interceffiō de algunos grādes d'el reyno, pero en sus siniestras y peruerfas cōdicionēs siēdo incorregible, matō a vna persona de cuēta, criado d'el Rey Dō Carlos. Ante el qual siēdo llamado, vino muy acompañaado de gēte armada y no pudiēdo, dar descargo de los crímenes, de q̄ era acusado, fue colgado de la viga mas alta de la horca de Paris en siete de Mayo de mil y treziētos y veynte y tres por aucto d'el parlamēto, por q̄ fue este Rey, açote muy feuero de todas las cosas malas, y muy honrador de la justicia y de los ministros d'ella, como lo deuen ser todos los buenos Reyes. No mucho tiempo despues d'estas cosas, falle-

“Beotibarko guduaeren kanta” jasotzen duen orrialdea (Esteban Garibai, *Los Cuarenta Libros del Compendio Historial* (...), 1571).

Akondia¹ko guduaren kanta-hasiera

1390. urtean, Eibar gaineko Akondia mendian, bandoen arteko liskar bat gertatu omen zen: alde batetik, Eibarko Pedro Lopez Untzueta oñaztarra eta, bestetik, Durangoko Joan Ibarguengo ganboarra. Ganboarrek bataila galdu eta mendi hegaletan “hildako asko, biandaz betetako pertzak, artilleria, zamariak eta hiru asteme” (Ibarguen-Cachopin) barreiatu geratu ziren. Hemendik atera zen kanta hau, guztiz galdu dena, hasierako hitz joko adierazgarria izan ezik: *Akondia*, *lexarraga* *lexarbaga*, hots, lizar-basoa lizarrik gabea, metaforikoki ganboar gudarosteak armak bertan behera utzi behar izan zituela adieraziz (lizarra omen zen armak egiteko zurik aproposena). XVII. mendearen hasieran, William Shakespeare antzeko irudiz baliatu zen, *Macbeth* tragedian: Birnam-go basoan, arbola adarrez estalita ezkututzen diren gudariak Macbethen gaztelurantz aurreratzen dira eta Eskoziako errege maltzur horrek, espantuz, uste du basoa, patuak edo espirituek eraginda, aurreratzen ari zaiola berari eraso eta sunsitzeko.

Jatorrizko iturria: *Ibarguen-Cachopin Kronika* (1558-1598 ing.), 77. koad. Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 69. or.

Akondia, lexarr[a]ga¹ lexarbaga²

¹ lizarraga, lizardia. ² lizargabe, lizarrik gabe. Jatorrizkoan: *lejarr[...]*ga *lejargaba*.

Urrexolako guduaren kanta

Kanta honek Oñatiko ganboarren eta Leinzko oñaztarren arteko liskarra du oinarri. Mugarri eta bazkaleku batzuen gaineko eztabaida bat izan omen zen 1388 eta 1401 bitartean gertaturiko borrokaren abiaburua. Liskarra Oñati eta Leintz arteko Urrexolako muinoan gertatu zen, non, leinztarrek, Garagartzako jaunaren hiru semeak buru zituztela, borroka egin zuten Pedro Garibairen eta Joan Ibañez Elezarragaren agindupeko oñatiarren kontra. Oñatiarrak irabazleak izan ziren. Pedro Garibai zaurituta gertatu eta egun gutxiren buruan hil zen. Are okerrago gertatu omen zitzaien Garagartzaren hiru semeei, hirurak hil baitziren larratze batean. Testuak bandoen arteko liskarraren oldarkortasuna nabarmentzeko odol sendoa “gatzαιο” bihurtu zaiela azpimarratzen du. Elezaharraren arabera, Garagartzako jaunari bere hiru semeen heriotza eta Pedro Garibai hilzorian zegoela helarazi ziotenean, haxe erantzun omen zuen: “Ene hiru semeak ondo aritu dira, Pedro Garibai hiltzen bada”.

Jatorrizko iturria: Joan Perez Lazarraga (1600 ing.), *Relación histórica (...)*. Espainiako Liburutegi Nazionala, 11263/7 esk., 14. f.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 69-73. or.

Gaitza zenduan¹, lenizanak², Urruxolako lekaioa³
sendo zenduan odolori bihurtu jatzu⁴ gatzaioa⁵.

¹ Gaitza (izan) zenuten; zaila, gogorra, gertatu zitzaizuen. J. K. Gerrak dakarrenez, “Mala la hubisteis franceses / la caza de Roncesvalles” en parekoa. ² leinztarrok. Es-kuizkribuan: *lenizanos*. ³ oihua, deiadarra. ⁴ zaizu(e). ⁵ gatzagia; (esne) gatzatua / odol gatzatua. Hautabidea: *gatzatua* (Mitxelena).

Peru Abendañoakoaren deitorrea (Aramaioko kanta)

Garibaik azpimarratzen duenez, xv. mendeko lehen erdia guztiz odoltsua izan omen zen iberiar penintsulan. Gaztelan piztutako guda-sua euskal lurraldeetan ere zabaldu zen. Butroeko Gomez Gonzalez oñaztarrak, 1443an, ganboarren hainbat etxe erre zituen Bizkaian. Peru Abendañoakoa, Gomez Gonzalezen kontra altxatu zen eta Abadiño, Otxandio eta Aramaion oñaztarren jauregi eta etxeak suntsitu zituen. Joanes Mendiola-koak, haatik, Abendañoakari aurre egin, irabazi eta alde eginarazi omen zion, Aramaio harana inguratzen duten mendi malkartsuetan gaindi. Ihesaldian, Abendañoak gudari batzuk galdu zituen, tartean Gaizto Apala, zeinen izenak faltsukeria (*Apala*) gaiztake-riarekin (*Gasto*) nahasia adierazten zuen. Kantore oñaztarrak barregarri uzten duen jaun-txorik oldarkor eta beldurgarrienetakoa izan omen zen Peru Abendañoakoa (ikus “Errodrigo Zaratekoaren kanta”), ikarati eta koldar agertzen baita.

Aipagarriak dira hirugarren eta laugarren lerroetako irudiak, euskal testu zaharretako bertsoetan behin baino gehiagotan errepikatzen direnak (ikus “Martin Bañez Artazubia-gakoaren eresia”).

Jatorrizko iturria: Francisco de Mendieta (1588-1592 ing.), *Quarta parte de los Annales de Vizcaya (...)*. Espainiako Liburutegi Nazionala, 11594 esk., 8.f.r.
Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 79-81. or.

Izarragati¹ gora (h)eltzian joeala²
jaun Peru Abendañoakok esala³:
“Oinetako lurrau jabil[t] ikara⁴,
gorputzeko lau haragiok berala⁵.
Oi, aldioneri a(ha)l banegi enpara⁶,
barriz ez nendorke Aramaioko kontrara.
Mendiola, hil deustak⁷ Gasto⁸ Apala,
bere laguntzat beste asko ditubala⁹”.

¹ “Izarraga”: Aramaio alderako mendi malkartsu baten erdian kokatutako erpin har-kaiztsua (Gerra). ² Izarragatik gora lauhazka (Gerra) / presaka, lehian (Gorostiaga), zihoala. Beharbada, (h)eltzian forma “heldu”ren “heltze” nominalizaziotik (Mitxelena). ³ zioela, esaten zuela. ⁴ dabilkit ikara, dardaraka. ⁵ (nire) gorputza (osatzen duten) lau laurdenok bezala. Eskuizkribuan: *lau aguino*. “Martin Bañez Artazubiagakoaren ere-sia”ren lehenengo bi lerroen arabera zuzendua. ⁶ Oi, alde hau gainditu ahal izango banu (Mendieta) / Oi, trantze honetatik ihes egin ahal izango banu (Gorostiaga) / Oi, mendi hegal hau gainditu ahal izango banu (Gerra). ⁷ didak. ⁸ Ga(i)zto. ⁹ dituala: di-tuela.

8

D^o Enuij 3^a

de Abendaño que se han Cingados de Liberecho y de p...
 Abendaño de que andauon cobando y de p... de p...
 Yncieronlos de Arana yona. Sobido qual se Canto e ha Canacon
 Ynnapati gora el cian pocala
 Juan Peru Abendaño cocenat
 Orotaz Ynnapati pual gora
 que puceo laa y quise b...
 di el dioneri al banqui impara
 banygenindox que Arana yoco Canacon
 Mendiola g'leuue g'ara apala
 beu Lagunat b... codabala.

Quie deci q'etione Tiedo de Abendaño Teme g'etione bl
 laticas pelcuos q' quiri de eha escapa noboluna dera a Arana y
 na q' deci q' Arana yona, banyueta a Mendiola g'ara en
 su Compania. Las Armas de eha Casa de Mendiola
 Son implata tres panelas coloradas y osla de Con octo Arma
 nos y plata en Arma. fue Teme de eha Casa el Arana y
 y Mendiola quando el Valle Se muge al P^a de Mendiola
 fue a das Armas al Teme de la Casa de Butron y Mupica
 A qual Unico su Armas y Caudillo de la gente de p...
 que Contra el Valle g'itio. Ello fue por Mendiola y a
 mucho Dano y andala Casa de Mendiola letrase
 Ma Roca en eha y llo y a Arana yona donde
 mudo gl'ar Suos de la Arana yona a Arana yona
 Cudo Pexion de Placa y Conterio de Temeueta le Selion
 Mendiola Neeu. Comencia de Arana yona g'etione de p...
 Apellido de Mendiola apocia Co. y a b... g'etione
 Personaf Terladados. Como fueron a los años de 1306
 Monro de Mendiola Comendador de la Casa de Cala
 traua g'etione de Arana yona de Santiago D^o Arana yona

A.P.C.
2.11

"Peru Abendañoren deitorea" jasotzen duen orrialdea (Frantzisko Mendieta, *Cuarta parte de los Anales de Vizcaya* (...), 1588-1592 ing.; Espainiako Liburutegi Nazionalea).

Mondragoeren erreketaren kantak

XV. mendean, Gomez Gonzalez Butroekoa zen oñaztar bandokiderik indartsuenerarikoa. Amaren aldetik, hiru etxe nagusi jarauntsi zituen Aramaio jaurerrian: Mendiolakoa, Arexolakoa eta Garaikoa. Arexolakoak eta Garaikoak ez omen zeuden pozik Gonzalezekin eta, 1445eko uztailaren 5ean, Aramaio jaurerria saldu egin zioten Peru Abendañoko ganboarrari. Gomez Gonzalezek, Aramaio jaurerria berreskuratzeko nahiaz, gudaroste bat prestatu zuen. Lehenengoz huts egin zuen, baina jarraian gudarostea berrindartu eta Aramaio jaurerrian sartu, gaztelua inguratu eta hiru astez eraso egin zion. Alferrik baina. Abendañokoak gaztelua sendoagotua zuen eta Gomez Gonzalezek setioa altxatu eta alde egin behar izan baitzuen.

Barealdiak bizpahiru urte iraun zuen. 1448an, Mondragoeko (Arrasateko) Bañez eta Guraia bandoen artean liskarra sortu zen eta Mondragoeko guraiarrek laguntza Gomez Gonzalezi eskatu zioten. Gomez Gonzalezek bostehun gizonez osatutako gudaroste bat berrantolatu zuen eta Mondragoen sartu zen, ekainaren 11n, San Bernabe egunean, Joanikote semea eta Presebal iloba lagun zituela. Ganboarrek, Mondragoez birjabetzeko, Pero Velez Gebarakoaren agindupean, 2.500 soldadu bildu zituzten (tartean Olaso, Peru Abendañokoa eta Gomez Gonzalezen suhigaia zen Martin Ruiz Ganboakoa). Gudua gogorra izan zen; zauritu eta hil asko izan ziren. Hamar egunez su eta gar borrokatu ondoren, setiatzaile ganboarrek, Mondragoe berreskuratu ezina zitzaiela ikusirik, su eman zioten hiribilduari ekainaren 23an, San Joan gau bezperan.

Gomez Gonzalez oñaztarrek hiria hustea erabaki zuen eta, Aramaiorako bide guztiak etsaiez beteta zeudenez, Bergarako bidetik jotzea deliberatu zuen. Iteera prestatzeko, Gomez Gonzalezek Lope Untzuetakoa eta gudari zaldibartarrak aurretik bidali zituen, aldiriko burdinola batean itxaroteko aginduz, eta hara Joan Lopez Lazkaokoa eta gudari bergararrak laguntza ematera etorriko zitzaizkien. Horretan zihardutela, mutil bat agertu omen zen Gomez Gonzalezentzako gutun batekin. Gutunean, Martin Ruiz Ganboakoa Gomez Gonzalez aitagarrebari abisatzen zion gudarostearen abangoardian irten zedila, berak bidea libre utziko ziola eta. Lopez Untzuetakoak, azpikeriaz baliatuz, bere burua Gomez Gonzaleztzat aurkeztu eta gutuna berarentzat bailitzan jaso zuen. Harrezkero berarentzat abangoardia-postua hartu zuen eta onik irten zen Mondragoetik. Gomez Gonzalez, oster, berandutxoago irteten saiatu zen eta ganboarrek eraso egin zioten guztiz desorekatua izan zitzaion lehia batean. Hantxe hil ziren Gomez Gonzalez, Joanikote bere semea –zeini aitak, zauriturik zegoelako, zaldia utzia baitzion–, hil arte oldartsu borrokatu zuen iloba Presebal gaztea, Santxo Lopez Ugartekoa eta beste gudari asko (Bergarako hirurogeiak barne).

Mondragoeren erreketaren inguruan kanta asko sortu ziren. Horietako zenbait *Ibarguen-Cachopin Kronika*-n agertzen dira. Eskuizkribua oso egoera txarrean heldu denez, zaila da jakitea kanta-zati horiek kanta desberdinetako ala kanta bakarreko ahapaldiak diren. Kanta-zatiak bi multzo nagusitan bana daitezke: lehenengoa, oñaztarren salaketa (1-5); bigarrena, ganboarren ikuspegiko Mondragoeren erreketak eta Gomez Gonzalezen heriotza (6-53).

Lehenengo multzoa, “Butroeko andrearen eresia” izenez ere ezagutzen da. Kanta honetan, oñaztarrek beren bandokideek egindako traizioa salatu eta haienezako zigorra eskatzen dute. Kantak bi aldaera ditu *Kronika*-n. Bigarren aldaeran, osatuxea baina na-

hiko hondatua, Butroeko andreamen ahotsez, norbaitek salaketa horri erantzun labur bat ematen dio ganboarren mendekua zurituz, zeren, bertsio honen arabera, Mondragoeren erreketak aurretik Asteasun gertatutako hilketak batzuen ordaina baita. Han piztu zen sua jada. (Ikus Arriolabengoa, 2008a: 86-90).

Bigarren multzoa lau zatiz dago osatua.

* Lehena (6-19), osagai errepikatuak dituzten bi aldaeraz edo zatiz da moldatua. Hasierakoa (6-10), eskuizkribuan marra batez dago urratua, baina irakurtzeko moduan. Segidakoa (11-19), eduki bertsukoa, baina zabalxeagoa, xehetasun gehiagoz. Aurreneko aldaera osatzeko edo hobetzeko asmoz eginga omen da, beste esku batez birmoldatua edo. Bigarren multzoko lehen zati honetan, Gomez handiaren gudari kopurua eta armak nabarmentzen dira. Hala eta guztiz, ganboarrak nagusi. Ekintzaren egitasuna azpimarratzeko, kantoreak Mondragoeko leku zehatzak nabarmentzen ditu: *ez urrun Malogenik* dagoen Madalena auzoa, esaterako; liskarrik gogorrenak hantxe gertatu omen ziren eta bentzutuen gorpuak hango ermitan omen daude lurperatuta. Ganboar kantorea kontraste teknikaz baliatzen da: oñaztar arerioaren handitasuna goraiatzeko du, irakurlea ganboarren garaipenaren merituz ohar dadin.

* Bigarren zatian (20-29), borrokaren kontaketa ematen zaio hasiera. *Kronika*-k Mondragoeko ganboarrek erre zutela garbi dion arren, kantoreak oñaztarren (zehazki bergarren) lepora bota nahi du erreketaren erantzukizuna edo susmoa: *Erre dezagun Mondragoe. / Lasterreon sar gaitezaz*. Ausardiarik ez omen: *haen bizarrak ikara zirean*.

* Hirugarren zatian (30-37), ganboarrek su ematea eta oñaztarrak itsumustuan sakanatzea jasotzen da.

* Laugarren zatian (38-53), Joan Perez Ozaetako oñaztarraren ihesaldia. Mondragoeren erreketak egunean, Joan Perez gazteak korrika alde egin zuen borrokalekutik. Hain arin omen, ezen ama ere harritu egiten den etxera itzuli izanaz, borrokari eutsi beharrean. Ihesaldi horretan, bi ganboar leinargi izan omen zituen jazarle: Martin Ruiz Ganboakoa eta hitz-motela omen zen Joan Abendañokoa. Jazarleok ez zuten iheslaria harrapatu, zauriturik bazegoen ere. Hori dela eta, Ozaetako semeak eskerrak ematen dizkio Andra Santa Marinari.

Ganboarren erantzun honetan, kantagilea narrazio bati ondo egokitzen zaion neurri laburrez baliatzen da maiz: erromantzearen zortzi silabez, alegia. Lerro bukaerako hoshikidetasun zaindua nabari da: lehenengo zatietan (1-19), errima nahiko osoz; gainera-koetan (20-53), bokalen hoshikidetasunaz, sarritan azken kontsonantez osatua. Kanta osoari begira, ahapaldi eta errima ezberdinak erabiltzeak jatorri ezberdinetako zatien hipotesiari egiten dio mesede.

Jatorrizko iturria: *Ibarguen-Cachopin Kronika* (1558-1598 ing.), 79. koad. Espainiako Liburutegi Nazionala, "Antigüedades de Vizcaya", 11760 esk.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena, (1964), *TAIV*, 81-88. or.

[G]al didila¹ Untzueta ta Bergara.
[Z]aldibarrek bere partea debala².
[Ar]amaio, suak erre hazala.
[T]a sumi ha[za]la³ Guraiarra,
zerren zeuren jauna ez zentzan enpara⁴.

* * * * *

10 Gomez handia zan arren⁵,
han zan Presebal bere,
bai Joanikote bere.
Madalenaan han ei dautza⁶
biola tronpeta bage.

Gomizek⁷ asko lagunik,
zabal arabaarrik⁸,
giputz ondo ederrik⁹,
bizkaitar urduri gogor[r]ik.
Ez diatzo¹⁰ bakarrik,
ze han daz¹¹ Presebal hilik,
Juanikotegaz¹² lagundurik,
txibuluen¹³ ospe¹⁴ bagerik,
ez urrun Malogenik¹⁵.

* * * * *

¹ dadila. ² (izan) dezala. ³ (suak) suntsi hazala. Hautabidea: *sumi ha[di]la*: suntsi hadila (Mitxelena). ⁴ ez duzue anparatu (Mitxelena); ez zenuten babestu (Gorostiaga). Kanta honen beste aldaerak, *Kronika*-ren 43. koadernoan (Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa), honela dio: *Gal didila [Un]tzueta ta Bergara, / Zaldibarrek bere parte debala, / Guraiarra / jaunak sumi hazala, / zuek gaiti hil da ene zaldun kaudala* [= buru dena, nagusia]. / *[An]dra urena* [= gorena] *Butroekoa, nantzuzu* [= entzun nazazu, entzun egidazu] / *zoriak gatx[...]* *Asteasun su heldu* [= su hartu] / *ganboar semeak ur[...]* *legean urkatu euren injuria dabe benga[tu]*. (Arriolabengoa, 2008a: 86-87). ⁵ (han) zegoen arren. ⁶ Arrasateko Madalena baselizaren (atarian) dautza. Agian, egokiago *han* kenduta; hutsa izan liteke. ⁷ Honela eskuizkribuan. Orobat 34. lerroan. ⁸ Arabako lautada zabalekorik / arabar zabalik. ⁹ oso ederrik. Hautabidea: *sendo ederrik*. ¹⁰ datza. ¹¹ datza / daude (Arriolabengoa). Hautabidea: *datz*. ¹² Honela eskuizkribuan. ¹³ txirulen (tonu altukoak), pifanoen / zinbaloen (Arriolabengoa). ¹⁴ hots, zarata. ¹⁵ Malogengo errekatik.

- 20 Argi izarrak urten dau¹⁶
 zeruan goian ostantzean¹⁷;
 bergarrok hasi dira
 traxioe baten asmatzean¹⁸,
 euroen artean dioela:
 “Erre dezagun Mondragoe.
 Lasterreon sar gaiteza[n]”.
 Kantoeko sartzaikeran¹⁹
 haen²⁰ bizar[r]ak ikara zirean
 armakaz ezin egien lege z ezer.
- 30 Ganboarrok su emaitan
 hasi dira, ta honegaz urten daude beralan²¹
 oñeztar barruangoak
 zein erre ez zitezan²².
 Gomiz Gonzalez bertan zan,
 beragaz Presebalen kaltean
 Joanikok eta beste askok
 eudela parte bertan²³.

* * * * *

¹⁶ irten du; irten da. ¹⁷ ortzean, zeruan. ¹⁸ traizio bat asmatzen. Eskuizkribuan: *trajioe*. ¹⁹ Kantoiko sarreran. Ez dago garbi lerro hau aurrekoekin (25-26) ala ondo-koekin (28-29) lotzen den; ez eta, beraz, non amaitzen den estilo zuzeneko berbaldua. Lehenengo aukeran: “(...) *Lasterreon sar gaiteza[n]* / *kantoeko sartzaikeran*.” / *Haen* (...). Bigarrenean: “(...) *Lasterreon sar gaiteza[n]*”. / *Kantoeko sartzaikeran* / *haen* (...) (Gerra; Gorostiaga; Zavala). Hemen, behin-behinean, bigarrenaren alde egiten da. ²⁰ haien; hots, oñaztarren. Kanta-zati honen (20-29) irakurketa korapilatsua da. Bertso-lerro hauen taxutzea eta elkarren arteko lotura, hala nola bertan jasotzen diren gertaeren azalpena eta hurrenkera, ez daude argi. Testuan hutsunerik tartekatu ote da? Interpretazioa, beraz, ez da erraza. Gureganaino heldu den testuaren bertsioan ageri denari atxikirik eta aurreko oin-oharreen egindako hautuaren arabera, badirudi –ezin zehazki ziurtatu– 20-26. lerroetan kantoreak bergarrei –oñaztarrei hortaz– leporatzen diela Mondragoe erretzeko asmoa. Ikaragatik (27-29) ez dute beteko. Ganboarrek bai, su emango diote hiribilduari (30-31). ²¹ irteten ari dira berehala. Hautabidea: *Ganboarrok su emaitan hasi dira*, / *ta honegaz urten daude beralan* (Arriolabengoa). ²² erre ez zirenak (bakarrik) (Mitxelena) / erre ez zitezen (Gerra; Gorostiaga). ²³ *beragaz* (...) *bertan*: berarekin (Gomez Gonzalezekin), Presebalen kaltean, Joanikok eta beste askok parte (izan) zuten han. Presebal, agian, onik atera zitekeen haiekin batera aurkitu izan ez baltz.

- Oin harrok zi[tu]an luma²⁴
 Ozaetako jaun gazteak;
 40 laster baten igaro zan
 uraz alde bestea[n].
 Ama bereak esa(n) eutsan:
 —Semea, zer dok horrelan?
 —Zaurietan kuradu²⁵ eta,
 ama, nagozu²⁶ ohera.
 Egun behin hur jarraika²⁷
 ganboar seme lasterra,
 are bere lasterrago
 Abendañuxe Motela²⁸.
 50 —Eskerrik asko emaiten deutsat²⁹
 Andra Santa Maiñ[ari]:
 bera axeitzat³⁰ sartu eta
 etxera bidaldu nau ni.

²⁴ oin harroak, lumak bezalakoak zituen (*Iliada*-ren oihartzuna). Hautabidea: *lurra*. Hau da: oin(ekin) harrotzean lurra (Arriolabengoa). ²⁵ zauriak sendatu. Hautabidea: *Zaurietan zura dut*, hots, zaurian printza (geziarena) dut (Gorostiaga). ²⁶ “*nioazu” moduko bat (gehiago “joan”, “nago” baino). ²⁷ Eskuizkribuan: *jarruta*. Azalpen zail-leko forma. Mitxelenak **jarrait(a)n*, **jarreita(n)*, proposatzen ditu. Lerroaren balizko esanahia: Gaur, lehenengoz, hurbildik jarraituta; gaur, momentuan bertan, gertutik jarraituz. Hemen, “Errodrigo Zaratekoaren kanta”ren 17. lerroaren arabera –*arerioak hur jarraika*– zuzendua. ²⁸ hitz-motela, totela / motela, geldia (Gorostiaga). ²⁹ diot. ³⁰ bere (Santa Marinaren) elizan (sartu, babestu, naiz eta etxera bialdu nau ni onik) (Gorostiaga) / “Axeritz” izeneko baserrian (M. Lekuona).

Villa emorion de los de queciana
 e Virguis carrega ad quenda e.
 Sinco Sonores con los de masia
 da mente Seridos

Los gaudios dignos de a vatali. Conque
 aborrecian por su bese memoria de la
 muerte de Gomez el y y Sabia si de muros
 guellos. Los de la de queciana. Los de Vezos

* ~~Gomez andia muros~~
 * ~~amara fuder bal bise~~
 * ~~huy fuder bal bise~~
 * ~~huy fuder bal bise~~
 * ~~huy fuder bal bise~~

Yari seoun este cantar fueron mu
 ertos. Don en un sitio q llama
 Maloquengo erre quea

x argui ycarac. bren dau/ conuan poyan
 ostancan/ Dergarac asidra/ ka
 fioe bat en azmacean/ curon artian dioela/ erre de caga mondra oos/ las cornean
 cantoreo car cay queran/ aen bi parac y carac acean/ amica/ en eguen lego
 ecar/ ganboarroc su emaytean/ asi dria ta onega/ bren dau de beratan/ oneri
 baruan goac/ cein erre ez citecan/ gomiz gontalib/ bontancan/ beragan/ p
 batan/ caltean/ joanico eta beste asist/ feude la parte beratan/ oym arre
 an luma/ Ogaetaco/ salun panteac/ larter baton y carocan/ oras al de borte
 ama bereac eraguran/ semea cordoc orrelan/ cauuetan/ ega dueta/
 nagocu vera/ egun bein bz farruta/ ganboar seme lartera/ arabere larte
 apendauje motela/ esqueerim aco emayten deurat/ andra santa ma
 bera axeycat sartueta/ esera bidaldunau m/

Gomiz e asco lagunic
 cabal arabaanie
 piupuz fondo edernic
 Gupaytar viduri gogorie
 ez diazo bazarise
 ce andaz presebal ylie
 juanicoe gar lagundurie
 cibuluen orpe baguezie
 ez brun maloquenie

"Mondragoeren erreketaren kantak". Bertso-lerro batzuk (Ibarguen-Cachopin Kro-
 nika, 1558-1598 ing.; Espainiako Liburutegi Nazionala).

Olasoko kanta

Olasoko kantak Mondragoeren erreketaren amaiera zoriontsua kontatzen du. Mondragoeko borrokaren aurretik, oñaztarren burua zen Gomez Gonzalez Butroekoak hitza emana zion Olasoko jauna zen Martin Ruiz Ganboakoari, bere alaba Joana emaztetzat emango ziola. Olasokoak sona handiko eta ondasun askokoak omen ziren: *Olaso gitxi batzuk hi laso* (*Refranes y Sentencias*, 1596: 88). Mondragoeren erreketatik alde egiterakoan, Gomez Gonzalez hilik gertatu zen, hain zuzen Martin Ruizen agindupeko gudarrien erasoz, berau aitaginarrebagaia salbatzen ahalegindu arren. Heriotza hori zela eta, Leibako Elbira andreak, Gomez Gonzalezen alargunak, senarrak agindutako ezkontzaren kontra egiten saiatu omen zen amorru biziz. Etxekoren batzuk, haatik, alaba Joana emaztegaia tartean, ezkontzaren aldekoak ziren. Azkenean, Elbira andreak eta honen semeak amore eman behar izan zuten eta emaztegaia Olasoko jauregira ezkondu zen, 1450eko urtarilaren 18an. Harrezkero, bandokideen arteko liskarrak bigundu omen ziren Euskal Herri osoan. Joana alabak, ezkontzeko bere erabaki sendoa azaldu zion amari, bertso hauen bitartez.

Jatorrizko iturria: Esteban Garibay (1573-1598 bitartean idatzia), *Grandezas de España (...)*, 9/ 2113 esk., III. tomoa, 21. lib., 84. f. Historiaren Errege Akademia (Madril). Estraktua: Juan Carlos de Guerra (1909), "Ilustraciones genealógicas de los linajes bascongados contenidos en las Grandezas de España compuestas por Esteban de Garibay (...)", *R/EV*, 3 (4), 437. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 88-90. or.

Berba horren berba gazia¹,
berba horri nahi ez dakiola balia².
Dardoak egin arren bere aldia³,
Olaso da ene goteko aulkia⁴.

¹ garratza, gozakaitza. ² berba horri ez dakiola baliogarria izan; hitz horrek ez dezala, baliorik, eraginik, izan. ³ bere eragina, bere txanda, izan duen arren. ⁴ Aitaren hilketa ez da oztoporik nahiko, Olasoko ohorezko jarlekua lortzeko, Olasoko andrea izateko.

Sandailia

1457. urtearen inguruan, Nafarroa, Gipuzkoa eta Araba bereizten dituen mugan zehar, Aralartik Oñatiraino, Aizkorrin barrena luzatzen zen "Kontrabandisten bidea"n gertatzen omen ziren ohiko bihurrikeriak islatzen dira kanta honetan. Aizkorriko San Adrian kobaren inguruan zebilen Joan Zahar mandazainari ardoa eskatu omen zioten Oñatiko Santxo Gartzia Garibairen zenbait lekaioek. Hark ezetz eta orduan lekaioek dirua (eta ardoa omen) kendu egin zioten. Mandazainak lapurreta Gipuzkoako korrejidore eta Bizkaiko prestameroa zen Hurtado Mendozari salatu, eta honek merio handia bidali zuen Oñatira Ermandadeko armadun askorekin. Santxo Gartziairen lekaioek alde egin eta Araozko bidean, Urrexolako haitzaren oinetan dagoen Sandailiaren kobako ermitatxoan ezkutatu ziren. Koba horrek sarreratxo bat omen zuen ermitatik legoa erdira edo, eta ate horretatik Zalagarda (?) deritzon morroi batek janari- eta edari-hornidurak eramaten zizkien koban gordetakoei (1-4). Sandailiaren kobaren inguruan bildutako merioaren agindupeko Ermandadekoei eraman zitzairen korrejidorearen ardo zuria ere, lapurtu egin omen zuten Santxo Gartzia Garibairen taldekoek eta, berriz ere, Zalagarda horren bitartez, ermitatxokoei eraman zieten (5-8). Gertaeraren bertsio baten arabera, Ermandadekoek kobaren inguruko hesia estutu, ermitaren atearen aurrean sua piztu, eta urdai eta txerri-gantza erre omen zituzten, barrukoak kiskali edota itotzeko asmoz. Ezin baina, eta, Ermandadekoek buztana hanka artean alde egin behar izan zuten.

Gertaera honetan nahastu izan dira, batetik, Ermandadekoen eta lapurren arteko lisakarra eta, bestetik, ganboarren (Santxo Gartzia) eta oñaztarren (lazkaotarrak) artekoa ere. Ganboarrek, lapurrak izanik ere, oñaztarrak garaitu eta barregarri uzten dituzte, hauek gauaz baliatu behar baitute ganboarren eskutik alde egiteko.

Eskuizkribua egoera txarrean iritsi da eta ezin da bereizi testuak bildutakoak kanta bakarreko ala kanta bat baino gehiagoko zatiak diren.

Jatorrizko iturria: Pedro Saenz del Puerto y Hernani doktorearen *apuntamientoak* (1588 ing.), Rafael Floranesen kopiaren araberrakoa. Lope Martinez Isasti, *Compendio Historial* (...), 1850eko inprimaketa, *Eranskina*, 36. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 92-97. or.

Ala Zalagarda
Zalagarda mala¹
Zalagarda gaizto
oñaztarra (h)ondako².

¹Lehenengo bi lerroak gaztelaniaz daude: *A la zalagarda / zalagarda mala*. "Zalagarda", berez: zalaparta, iskanbila; etsaia ustekabeen harrapatzeko segada. Morroiaren izena izatera iritsi omen zen, hots, "Zalagarda". Hautabidea: *malo* (Gorostiaga). ² oñaztarroondako; oñaztar hauendako. Hautabidea: *oñeztarroendako*: oñeztarroentzako (Gorostiaga).

- 10 Ardao zuri, ardao Madrigalgoa,
 ardao zuria Mendozagana doa,
 alabana³ Sandaili⁴ gogoa,
 Zalagarda Sandailira doa.
 Sandailiak ateak ditu zirarrez⁵
 nola zirarrez ta hala zendalez⁶.
 Ermandadea harean doa⁷ negarrez,
 Antso Gartziak gazteluori emun ez,
 [...] ⁸ esan ez.
- Lazkauarroen ihesetako lasterra!
 Lazkauarrok⁹ ostatuan honela:
 “Gauaz [...] urtenik [...] ¹⁰
 argi izarrok ditugula kandela,
 ostatuan [...] ¹¹”.

³ alabaina. ⁴ Sandailia / Sanda Ilia: Santa Ilia / San Elias (Gorostiaga) / Santa Julia(na) (Omaetxebarria: ikus Mitxelena, 1964). ⁵ Zilarrez. Jatorrizkoan: *bietan zizarrez: txitarrez, txintxortaz, gantxigorrez* (Gorostiaga). ⁶ zendal ehunez: hari edo zetazko ehun mehe eta gardena. ⁷ handik (ba)doa. ⁸ Jatorrizkoan: [*ec envinda estiquicha*]. Bertsio hondatua, ulergaitza. Hautabidea: [*eze zein dan ez dakiela*] esanez (Gorostiagaren proposamena). ⁹ Lazkaotarren (...) Lazkaotarrok. ¹⁰ Jatorrizkoan: [*ere*] [*-a obela*]. Bertsio hondatua, ulergaitza. Hautabidea: [*eze urteiera obe da*], hots, gauez irtetzea baino hobe da (Gorostiagaren proposamena). ¹¹ Jatorrizkoan: [*guera diro igu emenda*]. Bertsio hondatua, ulergaitza. Hautabidea: [*gero daigu emenda* (= itzali)] (Gorostiagaren proposamena).

Errodrigo Zaratekoaren kanta

1468. urtearen inguruan, Legution dorretxea zeukan Peru Abendañoko ganboarrak eta bere seme Joane, Zeanuriko Urkizuren laguntzaz, Erodrigo Zarateko oñaztarraren Zuiako lurak bereganatu nahi izan zituzten. Abendañoek armaz eta gizonez ondo hornituriko gudaroste bat bildu eta Zarate herrixkako Erodrigoren dorretxeari eraso egin omen zioten. Zaratekoak, guda galdua ikusirik, Abendañotarren aliatua zen Beloradoko espetxezainari babesa eskatu eta honek erraztu zion ihesa. Zaratekoak, bentzututa ere, parafernalia osoz dotoretu zen eta alde egin zuen zaldi urdin baten gainean. Joan Abendaño, haatik, txikia izanik ere, azkarra omen eta Erodrigo Zarateko hanpatua harrapatzeko zorian izan zen.

Kanta honek kopia zaharren narrazio-egitura gordetzen du. Sarrera osatzen duten lehen hiru bertso-lerroetan, formula moduko bi lerro (1-2) eta gaiaren abiapuntu orokorra (3) ematen dira. Segidan, arerioen aurkezpena (4-13) eta Erodrigo Zaratekoaren irudi bitxia (14-15), ihesa eta amaierako elkarriketa (16-23). Azken bertsoetan, garaileen ospakizuna eta fideltasun-aitorpena adierazten da.

Hemen jasotzen den itxura grafikoan, kanta bertso-lerro luzekoa da (maiz 8+8 silabakoa), eta, sarrerako hosiakidetasunaz gain, errima bakarrekia (-ean). Eskuizkribuaren egoera dela-eta, zenbait arazo sortzen dira bertsoia eta azalpenak ematerakoan.

Jatorrizko iturria: *Ibarguen-Cachopin Kronika* (1558-1598 ing.), 43. koad. Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa.

Bertsio eta oharren oinarria: Julen Arriolabengoa (2008a), *Euskara 'Ibarguen-Cachopin Kronika'n* (xvi. mendea), 101-107. or.

Arma eskuduak on dira dardo¹,
parerik ez dabe kanporakoz²,
zaratearrak galdu ei dabe Markia-Zuia³ sekulako.

¹ Arma eta ezkutua onak dira azkonez, geziz (Arriolabengoa) / ezkutarmak, armariak, onak dira, eraginkorrak dira, dardo, geziekin batera (bestela alferrikakoak).

² ez dute parekorik zelai irekirako, zelai irekian. ³ Arabako Markina-Zuia, Gorbeia ingurukoa.

- E[rrodrigo] Zarateko, zelan engana zindean⁴
jaun Juane Abendañokogaz gudua hartzen zanean⁵,
bi mila gizon ohi dituz bere le(he)lengo deiean,
lau mila bere baleduke premia letorrenean⁶,
kortazarretarrak delanterea, ibarguendarrak hurrean⁷,
Gaztelan sarmientuarrrik asko⁸, ez parerik arean⁹,
10 jaun Asentzio Gebarako ganean darda ordean¹⁰,
zaldi zuriak on[...]rrenean¹¹,
oinak arin, gog[oa] sendo, arerioaen atzean.
- Errodrigo Zarateko zaldi urdinaen ganean,
bostehun kaxkabel¹² urregorritzko zaldiak idurenean¹³,
karrerea laster eroean¹⁴ Erbitegi ganean,
arerioak hur jarraika arrebearen semea¹⁵,
oina txipi, orpo laster, Abendañoxea.
—Arren, etxozu¹⁶ orain osaba, bixook justa gaitean¹⁷.
20 —Etxi egidak¹⁸ orai iloba, gau bixirik noean¹⁹,
neure bizian ez noake Urkizuren kontrean²⁰,
omenaje egingo joat²¹ bizia dodan artean.
Bela bik sar naxaitek²² Billa Realgo torrean.

⁴ nola engainatu zinen. ⁵ hartzen zenean; onartu zenuenean. ⁶ etorriko denean, izaten denean / etorriko balitz, izango balu. ⁷ hurbilean, hurbil. ⁸ (Gaztelatik) Sarmiento leinukorik asko. Sarmiento leinua, jatorriz, Burgos aldekoa omen. ⁹ ezerez parekorik; inor ez parekorik; parekorik inon ez / ez parekorik euren lurrean (Arriolabengoa). ¹⁰ besteen gainetik dardo ilaretan; dardoak antolatzen, zuzentzen. ¹¹ Zati hondatua eskuizkribuan. ¹² kaskabilo. ¹³ idunean, lepoan. ¹⁴ lasterketa azkarra zeraman. ¹⁵ *arerioak (...) semea*: alegia, hurbiletik jarraituz, gertutik segika, datorren Abendañoxe arerioak ia-ia harrapatu du Errodrigoren iloba. ¹⁶ itxozu, itxoegin ezazu, itxaron ezazu. ¹⁷ biok borroka gaitezen. ¹⁸ Utzi egidak. ¹⁹ gaur bizirik noan, joan nadin, irten nadin. ²⁰ ez nintzateke Urkizuren kontra joango. ²¹ gorazarre egingo diat / hitzari eutsiko zioat (Arriolabengoa). ²² Bi belek –Abendañoeko aita-semeek ?– sartu naitek/naiate (preso).

Salinasko kondearen kanta

Elkarren kontra hainbestetan katramilatutako ganboarrek eta oñaztarrek indarrak bildu zituzten, lehenengoz, Bizkaiko Jaunaren eta Gaztelako errege Henrike IV.aren kontra. Henrike erregeak Pedro Fernandez Belasko, Haroko lehen kondea, izendatu zuen Bizkaiko ahaldua, jaurerrian gertatzen ziren gehiegikeriak baretzeko helburuz. Haroko kondeak gudaroste bat bildu zuen Burgosen, Gaztelako soldadu-tropaz, Bizkaiko jauntxoek kontra ari-tzeko asmoz. Bestalde, Bizkaiko Joan Alontso Muxikakoa (oñaztarra) eta Peru Abendañokoa (ganboarra), Trebiñuko kondea lagun zutela, Haroko kondearen aurka guduakatu ziren Mungiako zelaian, 1471ko apirilaren 27an, eta garaile atera ziren. Haroko kondeak ihes egin zuen eta Bizkaikoek Harokoaren aliatua zen Salinasko kondea preso hartu eta Bilbora eramane zuten, bilbotarren barregarri izan zedin.

Mungiakoa zela-eta, hasierako euskal nazionalismoak apirilaren 27ko data hau hautatzeko asmoa izan zuen Aberri Eguna ospatzeko.

Lehenengo lerroa, *Lelori lelo zarai leloa* errepika, “munstro” (honelaxe Mitxelena) antzekoa da. XVI. menderako zentzua galdua zuen euskal kanta-hondakin zaharra omen da, autore ezezagunekoa. Dirudenez, besteak beste, sarrera funtzioa betetzen zuen, hurrengo bertso-lerroei errima eta erritmoa markatzeko edo. Literatur ikuspuntutik balio gutxikoa da eta berez zentzurik gabeko leloa izan arren, interpretazio asko eta bitxiak sorrarazi ditu. Aldaera gutxirekin, kanta zahar askoren hasierako lerroetan agertzen da, bai euskal literaturan, bai eta europar literaturetan ere –Portugal eta Espainiako erromantzeetan, kasurako (ikus Arriolabengoa, 2008a: 46-55)–. Euskal Literaturan, esaterako: “Perutxoren kanta” (1536), Bernat Etxepareren “Potaren galdatzia” eta “Sautrela” (1545), Joan Perez Lazarragaren eskuizkribuko Maria Estibaliz Sasiolaren “Itai lelo i bai lelo” poema (1564 ing.) edo XVI. mendeko “Kantabriarren kanta (Leloren kanta)” apokrifoa ere.

Jatorrizko iturria: *Ibarguen-Cachopin Kronika* (1558-1598 ing.), 43. koad. Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 97-98. or.

Lelori lelo zarai leloa,
 Bilbaon katigu dago Salinasgoa.
 Kalea be(he)ra¹ burua bax[u]n daroa².
 Zer ete dan amoradu gexoa³.

¹ Kanean behera. ² baju, makur, darama. Hautabidea: *baxu* (Arriolabengoa).

³ Zer ote da maitemindu gaixoa? Hots, maitemindu gaixoa bailitzan (Mitxelena). Hautabidea: *Zer ete dau amoradu gexoa[k]*: zer (izango) ote du maitemindu gaixoak! (Arriolabengoa).

Bereterretxen kantorea

Dramatismoa eta poetikotasuna modu eredugarritz elkartzen dituen zuberotar kanta hau, Augustin Xahok osatutako kanta-bilduman ageri bada ere (ez osorik, baina), J.-D.-J. Salaberri izan zen bertsio osoa lehenengo aldiz argitaratu zuena, 1870ean. Hala ere, testuaren arkaismoa kontuan hartuz, ahozko tradizioak lehenagotik ekarria zuela pentsa daiteke. Jean Jaurgainek (1899) Bereterretxen erailketa 1434 eta 1439 bitartean kokatzen du; Henri Gavelek (1924) eta Jean Haritschelharrek (1985) kanta xv. mendearen erdialdean, erailketa jazo eta berehala sortu zela segurtatzen dute. Hasierako bi ahapaldiek, eta besteren batek, gertatu berria den tragediaren aurrean izandako zirrara oraindik freskoa erakusten dute (Gavel). Dena den, xix. mendean jasoa denez, kantaren jatorri edo sorreraren unearena kontuz hartu behar da. Horregatik, hemen, zuhurtzia horren seinaleztat, “Epikoak” sailaren bukaeran ezartzen da.

Kantak Bereterretx gaztearen erailketa kontatzen du. Erailketa jaun konde baten armaz –Luis de Beaumont, Leringo kondea (1412-1467) ote?– gertatu zen eta Beaumontarren eta agaramontarren arteko liskarren ondorioz izan omen zen. Tragediaren alde batean, konde gezurtia dago, hiru dozena gudarirekin; bestean, bakarrik atorrak jantzirik dagoen armarik gabeko Bereterretx gaztea. Bion artean, menditik korrika datorren eta tragediaren bozeramaile den Marisantz, Bereterretxen ama, zein, bere anaiak laguntzarik emango ez duela ikusi ondoren, konde traidorearengana doan erruki eske. Alferrik baina, Bereterretx gaztea dagoeneko hilik baitago *Ezpeldoi altian*, non Margarita izeneko emakumeak –herri-irudimenak emazte gaitzat hartu nahi izan du– hiru dozena zauri hilgarriak garbitzen ari den maitasunez.

Estrofak euskal neurtizkeran bereizgarria ei den “kopla zaharra”ren moldean daude eratuak, hala nola herri-literaturako eske-kantak, “Andre Emilia”, Etxepareren “Amorez errekeritzia” eta “Kontrapas”, Oihenarten “Aspaldian nabila” edo “Laur karbarien eresia” eta abar. Oraingo honetan, estrofa bakoitza hiru lerro hosiak dago osatua: lehenengoak zazpi edo zortzi silaba ditu, bigarrenak zazpitik bederatzira, eta hirugarrenak bederatzitik hamaikara lehenengo hemistikioan eta zortzi edo zazpi bigarrenengan (Gavel; Haritschelhar). Azpimarratzekoak dira, besteak beste: logikoak edo arrazionalak ez diren irudiak, testuaren dramatismoa indartzen duen elkarriketa-egitura, eta estilo eliptikoa, gertaerak laburki eta jauzika adierazten dituenak.

Oin-oharretan, bai Salaberriren (S), bai Xahoren (X) (ikus Urkizu, 2006: 87-88) aldaera nagusienak jasotzen dira.

Jatorrizko iturria: J.-D.-J. Salaberri (1870), *Chants populaires du Pays Basque*, 108-110. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Jean Haritschelhar (1985), “Bereterretxen kantoria. Commentaire littéraire”, in *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*, 1063-1074. or.

Haltzak¹ ez dü bihotzik,
ez gaztanberak² hezürrik...
Ez nian uste erraiten ziela³ aitunen semek gezürrik.

Andozeko ibarra⁴,
ala, zer ibar lüzia⁵!
Hiruretan ebaki zaitan⁶ armarik gabe bihotza.

Bereterretxek oheti
neskatuari eztiki⁷:
—Habil, eta so (e)gin ezan gizonik denez ageri⁸.

10 Neskatuak berala⁹,
ikusi zian bezala,
hirur dozena bazabiltzala borta¹⁰ batetik bestera.

Bereterretxek leihoti
jaun kuntiari goraintzi¹¹:
ehün behi bazereitzola¹², beren zezena ondoti.

Jaun kuntiak berala,
traidore batek bezala¹³:
—Bereterretx, haigü¹⁴ bortala, ütüliren hiz berala¹⁵.

—Ama, indazüt atorra¹⁶,
20 mentüras sekülakua!
Bizi denak orit ükenen dü Bazko-gaiardi ondua¹⁷!

¹ "Haltz": lur hezeetan hazten den zuhaitza, enborra iluna, liraina eta oso zuzena, eta hostoak biribilak eta erorkorrak dituen (*Alnus glutinosa*). *Aliso* (gazt.); *aulne* (fr.).
² gatzatuak, mamiak. ³ ez nuen uste esaten zutela. ⁴ Larraine eta Ligi arteko arroila sakona. ⁵ ai, zein ibar luzea! Aldaera: *Ala ibar lüzia!* (S). ⁶ zidan (ibarrak, alegia, pertsonifikatuta). ⁷ neskameari emeki, zerbitzariari leunki. Aldaera: *neskatuari apalti* (X). ⁸ Aldaera: *Habil eta so'gin ezan leiho hortarik* (X) / *ageri denez gizonik* (S). ⁹ berehala. ¹⁰ Aldaera: *ehün gizon bazerola leiho* (X). ¹¹ Aldaera: *eztiki* (X). ¹² bazizkiola. Berez, literalki: bazituela harentzat (kondearentzat) (Gavel). Hau da: eskaintzen zizkiola (Jaurgain; Gavel). ¹³ Aldaera: *Jaun kuntiak nubleki / erraiten dero eztiki* (X). ¹⁴ hakigu; hatorkigu, etor hakigu. ¹⁵ Aldaera: *haigü gureki, ütüliren hiz segürki* (X). ¹⁶ emadazu alkandora. ¹⁷ Pazko-gauerdi heldua. Aldaera: *orit düke Bazko-oi-laurentia* (= oilaritea, argi-alaba, egunsentia) (X) / *Bazko biharamena* (S).

- Marisantzen lasterra¹⁸
 Bostmendietan behera!
 Bi belainez herresta sartü da Lakarri-Büztanobira¹⁹.
 —Büztanobi gaztia,
 ene anaie maitia,
 hitzaz hunik ez balin bada ene semia juan da²⁰!
- Arreba, hago ixilik!
 Ez, otoi, egin nigarrrik!
 30 Hire semia bizi bada Mauliala²¹ dün juanik²².
- Marisantzen lasterra
 jaun kuntiaren bortala!
 —Ai! Ei! Eta, jauna, nun düzie ene seme galanta?
 —Hik bahiena²³ semerik
 Bereterretxez besterik?
 Ezpeldoi altian²⁴ dün hilik; habil, eraikan bizirik²⁵!
- Ezpeldoiko jentia,
 ala²⁶ sendimentü gabiak!
 Hila hain hüllan²⁷ üken eta deüs ere ez zakienak!
- 40 Ezpeldoiko alaba
 Margarita deitzen da;
 Bereterretxen odoletik ahürkaz²⁸ biltzen ari da²⁹.
- Ezpeldoiko bukata³⁰,
 ala³¹ bukata ederra!
 Bereterretxen atorretarik hirur dozena ümen da³².

¹⁸ Aldaera: *Ama horren lasterra* (X). ¹⁹ (Bostmendieta mendia zeharkatuz) Lakarriko Büztanobi etxera sartu da bi belauetan arrastaka. Aldaera: *Belainak sortarik* [= zamaturik; nekaturik] *zela sartü da Lakarri-Büztanobila* (X). ²⁰ hiregandik laguntzarik ez bada, laguntzarik ematen ez badidak, nire semea galdua duk. ²¹ Maulera. ²² Aldaerak: *Maulen dün ingoitik, ützüliren dün bizirik* (X) / *Hire semia bizi balin bada mentüräz Mauliala da* (S). ²³ ba ote huen; ba al huen. Galdera atzizkia: *(i)a*. ²⁴ aldean. ²⁵ altxa ezan bizirik! Ea bizirik jasotzen dun... (burla gaiztoz) (Haritschelhar) / hiltzat utzi diagu eta agian oraindik bizirik aurkituko dun (itxaropena eman ez) (Gavel). ²⁶ a, ai; bai, zein. ²⁷ hurran, hurbil. ²⁸ esku beteka. ²⁹ Aldaera: *Bereterretxen odoletarik bete ümen dü ferreta* [= edarra, suila] (X). ³⁰ bokata, lixiba. ³¹ a, ai; bai, zein. ³² (bildu, aurkitu) omen da; omen dago.

Kantabriarren kanta (Leloren kanta)

Kantabriarren eta erromatarren artean hainbatetan komentaturiko borroka mitikoa kontatzen duen kanta honek sona handia izan zuen. Hasieran, kritikoei K.o. lehen mendean idatzia zela uste izan zuten, harik eta, xix. mendean, apokrifoa zela frogatu zen arte. Testua ez zen aspaldian sortu, gero ahoz aho transmititu eta azkenean xvi. mendean bildu zen. Aitzitik, Cachopin aitak edo, agian, honen hurbileko beste norbaitek idatzi omen zuen xvi. mendean, dirudienez euskaldunen egitandia eta leinua goresteko asmoz. Testuari antzintasuna –sasiantzintasuna– erantsirik, gertakariei egiazko leku-kotasunaren eitea ezarri nahi zitzaion. Ondoren, Cachopin semeak testua jaso, transkribatu, azalpen edo itzulpen parafraseatua eman eta zabaldu egin zuen. Beraz, apokrifotzat har daiteke, aurkeztu zelako aspaldiko jatorrikoa bailitzan, xvi. mendean –noiz egiazki izan baitzen idatzia– baino askoz lehenago sortua izan balitz bezala. Faltsutze kutsu edo asmo hori dela-eta, hemen, “Epikoak” sailaren azken testu gisa kokatzen da.

Kantan, bereziki, euskaldunen eta erromatarren arteko ustezko guduak jasotzen dira, tartean ia fantasiatsuak diren gertaerak eta pertsonaiak: euskaldunak menderaezinak ziren, baina azkenean, amore eman behar izan zuten; euskaldun batzuk, haatik, Erromara joan omen ziren gudukatzerara eta, han, euren prestutasuna adierazi, izen ona bereganatu eta bertan egokitu ziren, goi-mailako postuak ere iristeraino.

Kanta honi “Leloren kanta” ere deitu izan zaio, hasierako bi lerroetan lelo horren beste aldaera bat baitakar. Interpretazio bitxiak, aldrebesak ere, sorrarazi ditu leloak; horietako bat Lelo pertsonaia mitikoarena. Baina, berez, “Kantabriarren kanta (Leloren kanta)” eta “Lelo” errepika-moldea bi adierazpen poetiko desberdinak dira, “Lelo” hori ez baita kanta honetan bakarrik azaltzen. (Ikus “Salinasko kondearen kanta”ren sarrera).

Faltsutzaileak, testuari zahar itxura eman nahirik-edo, zenbaitetan hizkuntza aldetik forma artifiziotuak eta ilunak sartu zituen, batik bat errima daramaten estrofen azken hitzetan. Lexikoan eta egitura sintaktikoetan erabilitako forma bihurriak direla-eta, pasarte batzuk ulertezinak dira. Cachopinek dakarren parafrasia ere erabiliz, Arriolabengoa testua argitzen saiatu da, baina, egia esan, ez da lan samurra testua eta Cachopinen azalpena uztartzea (ikus Arriolabengoa, 2008a: 55-79). Hemengo ohar esplikatiiboak azken honen azalpenetan oinarritzen dira.

Kanta zortziko nagusian ere antola daiteke. Errimarako -oa bukaera darabil.

Jatorrizko iturria: *Ibarguen-Cachopin Kronika* (1558-1598 ing.), 71. koad. Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa.

Bertsio eta oharren oinarria: Julen Arriolabengoa (2008a), *Euskara 'Ibarguen-Cachopin Kronika'n (xvi. mendea)*, 55-79. or.

Lelo il lelo
lelo il lelo
leloa zarak
il leloa.

Romako aronak¹
a(ha)legin eta
Bizkaiak daroa
zantzoa².

10 Otabiano³
[m]unduko jaun
leko bidi
Bizkaikoa⁴.

Itsasotati
eta lehorrez
imini deusko⁵
moltsoa⁶.

20 Lehor zelaiak
bereak dira
mendi tantaia
leusoak⁷.

Leku ironian⁸
gagozanean
nok bera(k)⁹ sendo
dau gogoa.

¹gudari armatuak (Cachopin) / armada ibiltariak (Arriolabengoa), hara eta hona dabiltzan gudarosteak. ²oihua, irrintzia (garaipenaren irudi edo zeinua). Hots: Bizkaiak eskuratzen du garaipena. ³Zesar Oktavio Augusto, Erromako enperadorea (K.a. 63-K.o. 14). ⁴salbu bedi Bizkaikoa; Bizkaikoa izan ezik. Hautabidea: *Lekobidi Bizkaikoa* (Gorostiaga), alegia Oktabiano da munduko jauna (baina) Lekobidi Bizkaikoa. "Lekobide" buruzagi eta heroiaeren mitoak segmentu honen irakurketa saihestuan du abiapuntua. ⁵ipini deusku, digu (Humboldt; Gorostiaga; Arriolabengoa) / agian, hobeto: ipini deutso, dio (Bizkaiari) (Arriolabengoa). ⁶setioa (Humboldt; Arriolabengoa). Beraz: setioa jarri digu / dio; setiatu gaitu / du. Hautabideak: gudarostea (Gorostiaga) / multzoa, lagun askoko taldea. ⁷(baina) mendi erraldoiak lausoak, lainotsuak. Hau da: laino artean, eskura ezinezko iluntasunekoak (Arriolabengoa). ⁸aproposean, egokian (Cachopin; Humboldt). ⁹nork berak, norberak. Eskuizkribuan: *noc bera*.

Bildurrik gitxi
 arma bardinaz
 oramaiasu
 gexoa¹⁰.

30 Soiak gogorrek
 badiri tuiz
 narru biloxa
 surboa¹¹.

Bost urteko
 egun-gabea
 geldi bagarik
 potxo¹².

40 Gureko bata
 hil badagian¹³
 bost hamarren
 galdoa¹⁴.

Haek anitz ta
 guk gitxitaia¹⁵
 azkinin dugu
 lalboa¹⁶.

Geure lurrean
 ta haen herrian
 birotx hainbaten
 zamo¹⁷.

¹⁰ Beharbada “eman” aditzoinaren gainean eraikitako aditza: min handia ematen diegu (Arriolabengoaren itzulpen librea). Hautabidea: *orama(ha)ia zu / gexoa*: (baina) zu oramahaia –ogia egin eta gordetzeko mahaia edo kutxa– eskas zabiltza (Humboldt; Gerra; Gorostiaga). ¹¹ Itzulpen zaileko lerroak. Agian: haien ezkutu gogorren aurrean, are gogorragoa da larru biluzia (Arriolabengoa) / armadurak edo gudurako jantzi gogorrek badaramatzate ere, (haien) larru biluzia ahula, sendotasun gutxikoa, da (Humboldt; Gorostiaga). ¹² setioa gelditu gabe; hesitzea, blokeoa, altxa gabe. *Potxo* hitza, agian, *foso* (gazt.) terminoarekin lotua: lur erretena, lubakia (Gorostiaga; Arriolabengoa). ¹³ hil egiten bazen, hiltzen bazen. ¹⁴ berrogeita hamarren galera; berrogeita hamar galtzen zituzten. ¹⁵ Hautabidea: *gitxi ta ia* (Gorostiaga). ¹⁶ azkenean (lortu) dugu bakea, tregoa; sinatu ditugu kapitulazioak (Arriolabengoa) / azkenean egin genuen ituna, hitzarmena (Humboldt) / azkenean alboratu, saihestu ditugu. ¹⁷ biok borroka eta garaipena, nork bere zama eta garaipena (Arriolabengoaren itzulpen librea). *Birotx*: “hirurok”, “laurok”en analogiaz sortua dela ematen du. *Zamo*: agian, “zama”rekin ahai-detua (Arriolabengoa); edo “zamu”rekin, “bandera” adieraz (Gorostiaga).

- 50 Ezin gehiago
 [...]teta
 [...]
 [...]¹⁸.
- Tiber lekua
 geldiko zabal
 Utxin tamaio
 grandoia¹⁹.
- [...]
 [...]
 [...]
60 [...] ²⁰.
- Handi aristak
 geizto zindoaz
 betiko nahiaz
 nar doa²¹.

¹⁸ Irakurtezina eskuizkribuaren egoeragatik. Cachopinen parafraziari jarraituz, erromatarrek amore eman eta euskaldunekin bakea egin zutela adierazi nahi dela dirudi. Ezin gehiago eta erromatarrek bakea eskaintzen dute (Arriolabengoa). ¹⁹ Tiberreko

uhartearen lekuan Utxin handia nagusi (Arriolabengoaren itzulpen librea). *Utxin*: gaztelaniazko *Urzinoren* (bizkaitarren buru izandako kapitainaren izena omen) moldaera. Hautabidea: Tiberreko hirian, eskualdean, bakealdi zabala (...) (Humboldt; Gorostiaga).

²⁰ Cachopinen azalpenean, estrofa honetan, Erromako zaldun transtiberinoek euskal jatorria dutela adierazten da. ²¹ Baroi bizkaitarrak betirako nobletzat hartuak dira (Cachopinen azalpen parafraseatua / Arriolabengoaren itzulpen librea). Hautabideak: *nardoa*, ukenduak eta baita ere perfume usaintsuak egiteko landarea; honen harira, *nardoa* saria litzateke, jatortasunari eutsiz lor litekeena (Arriolabengoa) / *marradoa*: bitxiztatua, bitxiz hornitua (Gorostiaga).

1.2. EROSTAK

Erostak, Erdi Aroan, hildako baten ekintzak goresteko eta harengatik dolu egiteko kantak izaten ziren, askotan bat-batekoak. Erdi Arotik aurrera ere luzatu ziren.

Hileta-ospakizunetan, hilobirako bidean, emakume erostari edo auhendariak eresi horiek abesten zituzten, negarrez, kexu eta lantuka. Doluak bi urte eta gehiago irauten zuen eta, bitarte horretan, erostariak hilobietara joaten ziren hil-eresiak abestera. XV. mendean, ahozko adierazpide horiek debekatu egin zituzten, bai Bizkaiko Foruetan, bai Trentoko Kontzilioan (1545-1563), eta, hartara, kultur zeinu hura galduz joan zen.

Sail honetan “Joan Amenduzekoaren elegia” ere sartu da. Berez, elegia da, tristurazko neurtitz negar-eragileak, baina, irudi moduan bederen, deitorea eta etsipenezko jarreraz, heriotzari erreferentzia egiten zaionez, hemen kokatu da. Sail honetara, orobat, bil zitezkeen “Bereterretxen kantorea” edo “Peru Abendañoaren deitorea” kantak ere, bortizki hildakoez ari baitira, baina testuinguru epikoari atxikitzea hobetsi da.

Milia Lasturkoaren eresiak

Garibaik bere *Memorias*-en dakarrenez, Milia Lasturkoa gazterik hil zen, erditzeko orduan, Arrasaten, xv. mendearen lehen erdialdean. Eresi hauetan, Miliaren ahizpak eta koinatak Milia Lasturkoaren heriotza dute kantagai. Lehen lau estrofetan (1-16), Miliaren ahizpak adierazten du Peru Gartzia Orokoa senarrak Miliari tratu onik ez diola eman, eta Arrazolako Marinarekin ezkontzeko asmoa omen duela salatzen du. Bosgarren eta seigarren estrofetan (17-24), Peru Gartziaren arrebak, Santxa Ortizek, hartzen du hitza, anaiaren alde egiteko. Azken hiru ahapaldietan (25-37), Miliaren ahizpa mintzo da ostera. Miliaren heriotzak bi familien ohorea bihurtu du auzi.

Erdi Aroan, emakumeek hiletetan eresiak abesten zituzten. Garai hartako eliza dokumentuetan, maiz, andere kantuak debekatu egiten ziren, jatorri paganokoak eta lizunak zirelakoan. Hala ere, andere eresien tradizioa iraun egin zuen berandu arte, Garibairen testigantza aintzat hartzen bada.

Testuan, kopia zaharraren ezaugarri batzuk antzematen dira: besteak beste, lehen ahapaldiko paralelismoa eta irudi sinbolikoa. Paralelismoa, esandakoaren kontrakotasun edo bikoiztasuna nabarmentzeko. Sinbolismoa, gordina gerta daitekeen errealitatea fin-tasunez adierazteko. “Sagarra”, fruitu erotiko eta *Hasiera*-n bekatuari loturikoa, baina amodio eta bizi berriari ere atxikia. “Errea”, amatasunaren oinazea, haurgintzako mina eta nekea oroitarazten duena. “Ardoa”, odolaren eta gaztetasunaren sinboloa. Miliaren erditzearen odol gorria. Sagar errea eta ardo gorria, haur jaioberriaren etorrera ospatzeko janari nobleak (Sarrionandia, 1985: 207-212).

Jatorrizko iturria: Esteban de Garibay (1586-1598 ing.), “Tomo onzeno de las obras no impresas de Esteban de Garibay (...)”, Historiaren Errege Akademia, 9/2111 esk., 2. lib., 60.f.r. / v. eta 61.f.r. *Memorias de Garibay* (izenburupean argitaratua), 1854, 177-180. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 75-79. or.

Zer ete da andra erdiaen¹ zauria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Alabaia, kontrario² da Milia:

azpian lur hotza, gainean harria.

Lasturrera behar dozu, Milia.

Aita jaunak eresten dau elia³,

ama andreak apainketan hobia.

Hara⁴ behar dozu, andra Milia.

¹ erdiaren, erdituaren. Hots: erditu duen, haurra izan duen. ² Alabaina, kontrara.

³ eraisten du, jaitsarazten du behera, abere taldea (hiletan, hildakoaren ondoan egon dadin edo eskaintza moduan aurkezteko). ⁴ Lasturrera.

10 Jausi da zerurean⁵ harria,
 aurkitu dau Lasturren torre barria,
 edegi⁶ dio almeneari erdia.
 Lasturrera behar dozu, Milia.

 Arren, ene andra Milia Lasturko,
 Peru Gartziak egin deusku laburto⁷:
 egin dau andra Marina Arrazolako.
 Ezkon bekio, bere idea⁸ dauko.

* * * * *

 Ez dauko Peru Gartziak beharrik⁹
 hain gatz handia apukaduagatik¹⁰,
 zeruetako mandatua izanik,
 andrariok hala kunpli jasorik¹¹.

20 Gizon txipi sotil baten andra zan,
 ate arte zabalean ohi zan¹²,
 giltza porra¹³ handiaen jabe zan,
 onra handi asko kunplidu jakan¹⁴.

* * * * *

 Arren ene andra Milia Lasturko,
 mandatariak egin deust gaxtoto¹⁵.
 Zerurean jausi da habea,
 jo dau Lasturko torre gore¹⁶,
 eroan ditu hango jauna eta andrea,
 bata lehen, gero bestea.

30 Bidaldu dogu zeruetara karteak:
 arren diguela¹⁷ gure andrea.

⁵ zerutik. ⁶ edeki, kendu; apurtu. ⁷ egin digu zitalki; doilorkeria gaitzesgarria egin digu. ⁸ kidea. ⁹ errurik, erantzukizunik. ¹⁰ hain gaitz handia gertatuagatik.
¹¹ Andrariok: ezteiak. Hots: ezteiak zeruko mandatua izanik, bete egiten da, onartuz (Gorostiaga). Hautabidea: *andr[e]jari ok*: andreari gauza horiek hala gertatzea behar zuen (Gerra). ¹² oparoki tratatua ohi zen; bizimodu oparoz zaindua izana zen.
¹³ "Porra": gerrian loturik, dirua, ardagaia... eramateko larruzko poltsa. ¹⁴ konplitu, bete zitzaion. ¹⁵ egin dit gaiztoki, bidegabeki, oker (mandatua). ¹⁶ gorena.
¹⁷ eman, itzul, diezagutela.

Mondr[a]goeri hartu deus¹⁸ gorroto,
giputz andraok hartu ditu gaxto¹⁹:
Iturriotz kanean andra Maria Baldako,
Arte kanean andra Oxanda Gabiolako,
Errebalean²⁰ andra Milia Lasturko.

¹⁸ diot.
hiri-inguruan.

¹⁹ gaizki, bidegabeki, tratatu ditu (andre gipuzkoar hauek).

²⁰ aldirian,

[illegible]

tt Cee de da andra ceda en fancia,
Sagar ceeen, eba aetio jencia,
Ala Baga, confiaio da Nilia
Aman bua oca, pameon avia.

te lăstău era beat dogu Milia
Ayla jumac aștău dău elia.
Ama ardă ac apă n gulan elia,
Aca beat dogu andra sîrîia.

- Lași da cum vești așea,
 Argușu dau Lăstăr en țoșu
 Exeri dîo alomene așî or
 Lăstăr era baze doșu Mihai

Deu Curi ac equi xulu labatu
 Equi deu indra, xulu deu xulu co
 Equi bequiu, deu ida dancu.

te El sentido de estos versos es, que el Chabandor confunde a una

LIBRO ~~PRIMERO~~ SEGUNDO.[illegible]

Hă! danco Domnului ac beatic
 Lin gah andia apucada gatic
 Cereu, too monadua izarie
 Ande axioe ala cumphi, fabeie

te Guicon chipi sette batmen anda con
 fite arte cabul con oy can
 Cuvila porra anda en fabe con
 Onera andi alfo cumphidu Jacom.

¶ Quieren decir, que Don Garcia no se tubo culpa
en lo que ella haggonia, sino que fue maridamiento
deleito, y que en muna grande, amando ella sustento
la vida, y ana fide ella mugera en lo en la vida, y
buena vida, y en la vida, amando la vida.

As obras com os Ritos do mesmo, que são bem largas
e por aqui, cantadas por esta harmonia e dona
Emilia.

Iti Aron ere andia Ithia Laftia in
Mandalavi ac equin dant quilibet

te Cezare, am Jangh da abea,
fo dau lăstier la torea gorea

Bala leen, gwest beftea,
 Bida leen dogu cece-tara corbea
 Leen duna lea pa gweste andea.

Ludovico si attese al suo governo
e di lui andò ad altri due gastaldi,
~~Vincenzo de' nobili~~
~~Vincenzo de' nobili~~ con Andrea Piana Balda co.
per esse in guardia d'una Cadola co.
~~Dipartimento~~ un Andrea Milla Laffre co.

[illegible]

me deo. ¹ ² ³ ⁴ ⁵ ⁶ ⁷ ⁸ ⁹ ¹⁰ ¹¹ ¹² ¹³ ¹⁴ ¹⁵ ¹⁶ ¹⁷ ¹⁸ ¹⁹ ²⁰ ²¹ ²² ²³ ²⁴ ²⁵ ²⁶ ²⁷ ²⁸ ²⁹ ³⁰ ³¹ ³² ³³ ³⁴ ³⁵ ³⁶ ³⁷ ³⁸ ³⁹ ⁴⁰ ⁴¹ ⁴² ⁴³ ⁴⁴ ⁴⁵ ⁴⁶ ⁴⁷ ⁴⁸ ⁴⁹ ⁵⁰ ⁵¹ ⁵² ⁵³ ⁵⁴ ⁵⁵ ⁵⁶ ⁵⁷ ⁵⁸ ⁵⁹ ⁶⁰ ⁶¹ ⁶² ⁶³ ⁶⁴ ⁶⁵ ⁶⁶ ⁶⁷ ⁶⁸ ⁶⁹ ⁷⁰ ⁷¹ ⁷² ⁷³ ⁷⁴ ⁷⁵ ⁷⁶ ⁷⁷ ⁷⁸ ⁷⁹ ⁸⁰ ⁸¹ ⁸² ⁸³ ⁸⁴ ⁸⁵ ⁸⁶ ⁸⁷ ⁸⁸ ⁸⁹ ⁹⁰ ⁹¹ ⁹² ⁹³ ⁹⁴ ⁹⁵ ⁹⁶ ⁹⁷ ⁹⁸ ⁹⁹ ¹⁰⁰ ¹⁰¹ ¹⁰² ¹⁰³ ¹⁰⁴ ¹⁰⁵ ¹⁰⁶ ¹⁰⁷ ¹⁰⁸ ¹⁰⁹ ¹¹⁰ ¹¹¹ ¹¹² ¹¹³ ¹¹⁴ ¹¹⁵ ¹¹⁶ ¹¹⁷ ¹¹⁸ ¹¹⁹ ¹²⁰ ¹²¹ ¹²² ¹²³ ¹²⁴ ¹²⁵ ¹²⁶ ¹²⁷ ¹²⁸ ¹²⁹ ¹³⁰ ¹³¹ ¹³² ¹³³ ¹³⁴ ¹³⁵ ¹³⁶ ¹³⁷ ¹³⁸ ¹³⁹ ¹⁴⁰ ¹⁴¹ ¹⁴² ¹⁴³ ¹⁴⁴ ¹⁴⁵ ¹⁴⁶ ¹⁴⁷ ¹⁴⁸ ¹⁴⁹ ¹⁵⁰ ¹⁵¹ ¹⁵² ¹⁵³ ¹⁵⁴ ¹⁵⁵ ¹⁵⁶ ¹⁵⁷ ¹⁵⁸ ¹⁵⁹ ¹⁶⁰ ¹⁶¹ ¹⁶² ¹⁶³ ¹⁶⁴ ¹⁶⁵ ¹⁶⁶ ¹⁶⁷ ¹⁶⁸ ¹⁶⁹ ¹⁷⁰ ¹⁷¹ ¹⁷² ¹⁷³ ¹⁷⁴ ¹⁷⁵ ¹⁷⁶ ¹⁷⁷ ¹⁷⁸ ¹⁷⁹ ¹⁸⁰ ¹⁸¹ ¹⁸² ¹⁸³ ¹⁸⁴ ¹⁸⁵ ¹⁸⁶ ¹⁸⁷ ¹⁸⁸ ¹⁸⁹ ¹⁹⁰ ¹⁹¹ ¹⁹² ¹⁹³ ¹⁹⁴ ¹⁹⁵ ¹⁹⁶ ¹⁹⁷ ¹⁹⁸ ¹⁹⁹ ²⁰⁰ ²⁰¹ ²⁰² ²⁰³ ²⁰⁴ ²⁰⁵ ²⁰⁶ ²⁰⁷ ²⁰⁸ ²⁰⁹ ²¹⁰ ²¹¹ ²¹² ²¹³ ²¹⁴ ²¹⁵ ²¹⁶ ²¹⁷ ²¹⁸ ²¹⁹ ²²⁰ ²²¹ ²²² ²²³ ²²⁴ ²²⁵ ²²⁶ ²²⁷ ²²⁸ ²²⁹ ²³⁰ ²³¹ ²³² ²³³ ²³⁴ ²³⁵ ²³⁶ ²³⁷ ²³⁸ ²³⁹ ²⁴⁰ ²⁴¹ ²⁴² ²⁴³ ²⁴⁴ ²⁴⁵ ²⁴⁶ ²⁴⁷ ²⁴⁸ ²⁴⁹ ²⁵⁰ ²⁵¹ ²⁵² ²⁵³ ²⁵⁴ ²⁵⁵ ²⁵⁶ ²⁵⁷ ²⁵⁸ ²⁵⁹ ²⁶⁰ ²⁶¹ ²⁶² ²⁶³ ²⁶⁴ ²⁶⁵ ²⁶⁶ ²⁶⁷ ²⁶⁸ ²⁶⁹ ²⁷⁰ ²⁷¹ ²⁷² ²⁷³ ²⁷⁴ ²⁷⁵ ²⁷⁶ ²⁷⁷ ²⁷⁸ ²⁷⁹ ²⁸⁰ ²⁸¹ ²⁸² ²⁸³ ²⁸⁴ ²⁸⁵ ²⁸⁶ ²⁸⁷ ²⁸⁸ ²⁸⁹ ²⁹⁰ ²⁹¹ ²⁹² ²⁹³ ²⁹⁴ ²⁹⁵ ²⁹⁶ ²⁹⁷ ²⁹⁸ ²⁹⁹ ³⁰⁰ ³⁰¹ ³⁰² ³⁰³ ³⁰⁴ ³⁰⁵ ³⁰⁶ ³⁰⁷ ³⁰⁸ ³⁰⁹ ³¹⁰ ³¹¹ ³¹² ³¹³ ³¹⁴ ³¹⁵ ³¹⁶ ³¹⁷ ³¹⁸ ³¹⁹ ³²⁰ ³²¹ ³²² ³²³ ³²⁴ ³²⁵ ³²⁶ ³²⁷ ³²⁸ ³²⁹ ³³⁰ ³³¹ ³³² ³³³ ³³⁴ ³³⁵ ³³⁶ ³³⁷ ³³⁸ ³³⁹ ³⁴⁰ ³⁴¹ ³⁴² ³⁴³ ³⁴⁴ ³⁴⁵ ³⁴⁶ ³⁴⁷ ³⁴⁸ ³⁴⁹ ³⁵⁰ ³⁵¹ ³⁵² ³⁵³ ³⁵⁴ ³⁵⁵ ³⁵⁶ ³⁵⁷ ³⁵⁸ ³⁵⁹ ³⁶⁰ ³⁶¹ ³⁶² ³⁶³ ³⁶⁴ ³⁶⁵ ³⁶⁶ ³⁶⁷ ³⁶⁸ ³⁶⁹ ³⁷⁰ ³⁷¹ ³⁷² ³⁷³ ³⁷⁴ ³⁷⁵ ³⁷⁶ ³⁷⁷ ³⁷⁸ ³⁷⁹ ³⁸⁰ ³⁸¹ ³⁸² ³⁸³ ³⁸⁴ ³⁸⁵ ³⁸⁶ ³⁸⁷ ³⁸⁸ ³⁸⁹ ³⁹⁰ ³⁹¹ ³⁹² ³⁹³ ³⁹⁴ ³⁹⁵ ³⁹⁶ ³⁹⁷ ³⁹⁸ ³⁹⁹ ⁴⁰⁰ ⁴⁰¹ ⁴⁰² ⁴⁰³ ⁴⁰⁴ ⁴⁰⁵ ⁴⁰⁶ ⁴⁰⁷ ⁴⁰⁸ ⁴⁰⁹ ⁴¹⁰ ⁴¹¹ ⁴¹² ⁴¹³ ⁴¹⁴ ⁴¹⁵ ⁴¹⁶ ⁴¹⁷ ⁴¹⁸ ⁴¹⁹ ⁴²⁰ ⁴²¹ ⁴²² ⁴²³ ⁴²⁴ ⁴²⁵ ⁴²⁶ ⁴²⁷ ⁴²⁸ ⁴²⁹ ⁴³⁰ ⁴³¹ ⁴³² ⁴³³ ⁴³⁴ ⁴³⁵ ⁴³⁶ ⁴³⁷ ⁴³⁸ ⁴³⁹ ⁴⁴⁰ ⁴⁴¹ ⁴⁴² ⁴⁴³ ⁴⁴⁴ ⁴⁴⁵ ⁴⁴⁶ ⁴⁴⁷ ⁴⁴⁸ ⁴⁴⁹ ⁴⁵⁰ ⁴⁵¹ ⁴⁵² ⁴⁵³ ⁴⁵⁴ ⁴⁵⁵ ⁴⁵⁶ ⁴⁵⁷ ⁴⁵⁸ ⁴⁵⁹ ⁴⁶⁰ ⁴⁶¹ ⁴⁶² ⁴⁶³ ⁴⁶⁴ ⁴⁶⁵ ⁴⁶⁶

“Milia Lasturkoaren eresiak”
jasotzen dituzten orrialdeak (Es-
teban Garibairen eskuizkribue-
tan, 1586-1598 ing.; Historiaren
Errege Akademia).

Martin Bañez Artazubiagakoaren eresia

Mondragoe erre eta Gomez Gonzalez indarrez hil ondoren, Gipuzkoako merio nagusia zen Pero Lopez Aialakoak, bandoen arteko liskarrak bukatzeko asmoz, zigor eredugarri batez punitu egin zituen Mondragoekoak. Zaldunak sutara kondenatu, kapareak itoarazi putzu batean, harri astuna lepotik zintzilikatuta, eta beste enparauak urkamen-dira bidali zituen, nahiz, azkenean, heriotza-zigorra lursail eta diru isunekin ordeztu. Bakea azalekoa omen zen eta 1464ko maiatzaren arratsalde batean, bost oñazarrek Martin Bañez Artazubiagakoa erail egin zuten, Ibarretako olatik Mondragoera etxeratzen ari zenean. Alargunak negar saminari eman zion, eresi askoren bidez. Horietariko bat Esteban Garibaik bildutako hau, non azpimarratzekoa den tonu oldarkorra. Lehen eta bigarren bertso-lerroak bat datoz “Peru Abendañokoaren deitorea”ko hirugarren eta laugarren bertso-lerroekin. Ez da plagio bat, urte haietako bat-bateko kantoreek erabiltzen zituzten klixetarikoa bat baizik.

Jatorrizko iturria: Esteban de Garibay (1586-1598 ing.), “Tomo onzeno de las obras no impresas de Esteban de Garibay (...)”, Historiaren Errege Akademia, 9/2111 esk., 1. lib., 23. f. *Memorias de Garibay* (izenburupean argitaratua), 1854, 46. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 90-92. or.

Oinetako lurrau jabilt ikara¹,
lau haragiok bere han berala²,
Martin Bañez Ibarretan hil dala.
Hartuko dot esku batean gezia,
bestean zuzi iraxegia³,
erreko dot Aramaio guztia.

¹ dabilkit ikara, dardaraka. ² (nire gorputza osatzen duten) lau laurdenok ere han bezala (Mixelena). Hautabidea: *berau bezala* (Gerra). ³ zuzi irazekia, zuzia sutan.

Joan Amenduzekoaren elegia

Joan Amenduzeko iruindarrak (1540-1580) idatzi zuen elegia hau 1567. urtearen inguruan. Aita zirujaua zen eta negozioak ondo omen zihoazkion. Semeak bizimodu erosoaz egutu zuen Iruñean. Zortzi urte zituela, Joan umezurtz gelditu zen. Bere ahaide Joan Osés haren tutore eta ondarearen kudeatzaile gisa jarri zen. Hori dela eta, Joan Amenduzekoak Valtierra joan behar izan zuen bizitzera. Ikasketak Tuteran eta Zaragozan egin ondoren, gaitz bat motibo, ikasketak utzi eta, Sevillan eta Flandrian ibili ondoren, Iruñera itzuli zen, non ondarearen administratzaile berri bat hartu zuen: Lope Etxebeltz. Mertzeria bat irekitzeko asmoz, Joaneke mailegu bat eskatu zuen eta bermatzaile moduan Antonio Garro osaba jarri. Dirua itzuli ez zuenez, osabak eskatuta, Joan kartzelatu egin zuten egoera txarretan, 1567an, Tafallan lehenengo eta Iruñean gero. Kartzelatik irten eta auzia jarri zuen bere ondarearen administratzaileak izandakoen aurka. Prozesuak hamar urtez iraun zuen eta, azkenean, arrazoia eman bazitzaion ere, ezin izan zuen oinordetzaz gozatu, handik gutxira hil baitzen (Ikus Jimeno Jurío, 1996).

Joan Amenduzekoak elegia hau kartzelako patu txarra islatuz idatzi zuen, preso zegoela ziegan bertan, batzuen iritziz, kartzelatik atera eta gero, beste batzuen ustez. *Hemen natza ortzirik* eta beste zenbait lerrotako (1-3, 9, 15-16) espresioak ikusiz, bada poema hau hiltartiz gisa interpretatzen duenik ere: Joaneke, kartzelako esperientzia eta bizipen ilunak baliatuz, testu hau bere hilobirako epitafio moduan aurretik moldatuko zuen (ikus Sainz Pezonaga, 2006).

Barroko hurbilaren topikoak agertzen dira, besteak beste, plazeraren eta heriotzaren arteko kontrastea. Gaiari dagokion goi tonua iristeko asmoa sumatzen da. Poema partizipio formetan oinarritutako errima bakarrekoa da eta, hamabost lerrotako silaben neurketak ematen dituen aukeren arabera, bi neurri mota proposatu dira: 4+4 / 4+3, edo zortziko txikia, moldera hurbiltzen dena, eta 4+4 / 4+4 egitura bete nahi duena.

Jatorrizko iturria: Nafarroako Artxibo Orokorra, *Kodizeak*, L.4, 26.r.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 107-110. or.

Hemen natza ortzirik¹, noizbait gozo eritzirik²,
herioak uste gabe doloroski egotzirik³.
Ene arima⁴ Jangoikoagana beldurreki partiturik⁵,
lagun gabe bide luzean peril asko pasaturik,
onak eta o[n]rak⁶ bertan mu[n]duak edekirik,⁷
plazerak azke[no]⁸ atsekabe bihurturik.

¹ ehortzirik, lurperaturik. ² gozo iritzirik, (biziaz) gozatua izanik. ³ eraitsirik, erorarazirik. ⁴ Hautabidea: *anima* (Salaberri Zaratiegi). ⁵ irtenik, abiaturik. ⁶ ondasunak eta ondraz, ohoreak. Hautabidea: (*h*)onak eta (*h*)orraz: harat-honataz, joan-eto-riak (Salaberri Zaratiegi). ⁷ kendurik. ⁸ azkenean, azkenik.

- A(ha)ideak eta adiskideak urte gutiz atzendurik⁹
 ikuste(n) tut isuririk¹⁰, harrezi¹¹ guzia deseginik,
 argi gabe, ilunbetan, ustel eta kirasturik.
 10 Nigar begi bapedarak¹² bere aldiaz oroiturik:
 nihork ere izanen ez du ni[k] ez dudan partidurik¹³.
 Ene arima duzuen gomendatu¹⁴, garitatez mobiturik.
 Zarraizkidate guzi bertan¹⁵ hitzok ongi notaturik¹⁶.
 Josafat[en]¹⁷ baturen gara judizion elkarreki;
 bitarteo¹⁸ lo dagigun, bakea dela guzieki.

⁹ urte gutxiz, urte gutxiren ondoren, ahantzirik. Hautabidea: *arte(z) gutiz atzendurik* (Irigarai; Salaberri Zaratiegi): tarte laburrez, laster, ahazturik. ¹⁰ ikusten ditut sakaba-naturik, barreiaturik. ¹¹ Harresi (Irigarai; Mitxelena). Hautabidea: *arrece/arrese*: ha-rretse; hots, (arbasoen) oinetxea (Salaberri Zaratiegiren hipotesia). ¹² bat-bederak, bakoitzak. ¹³ babesik, gerizarik / paturik, zoririk. ¹⁴ gomenda ezazue. ¹⁵ jarrai iezadazue bertatik, gertutik. ¹⁶ Hautabidea: (...) *hitzok ongi notaturik*: / *Josafaten baturen gara* (...) (Sainz Pezonaga). Irakurketa honen arabera *hitzok* ez dira orain arte esandakoak baizik ondoren datozenak, 14-15 lerroetakoak, alegia. ¹⁷ "Josafat": tradizio kristauaren arabera, Azken Judizioa gertatuko den haranaren izen sinbolikoa. ¹⁸ Hautabidea: *bi-tarte(a)(n)* (Salaberri Zaratiegi).

Veinte y nueve de noviembre de mil
 setenta y quatro y quatro de la noche
 que son sesenta y ocho mandada el Rey
 que ninguno fuese osado de llevar o porco-
 r por que sabiendo que na-
 da

[illegible]

"Joan Amenduzekoaren elegia". Joan Amenduzekoa (1567 ing.; Nafarroako Artxibo Orokorra).

Alos-dorrea

Euskal balada hau Joan Benantzio Arakistainek jarri zuen idatziz lehenengo aldiz, 1866an. Joan Karlos Gerrari zuzendutako gutun batean (Guerra, 1924: 53-54), Arakistainek dio bertso hauek hitzez hitz jaso zituela 1865ean, memoria ikaragarri ona zuen 88 urteko emakume baten ahotik. Hala balitz ere, ez dakigu zehazki noiz izan ziren sortuak, aspaldidanik ahoz aho transmitituak izan ote ziren, ez eta moldatu edo osaturiko bertso batekoak diren. Nahiz eta Arakistainek eta Gerrak Milia Lasturkoaren bertsoen garai bertsukoak direla esan, testuaren hizkuntza tankerari, hizkera literarioari edo konposizioaren egiturari, besteak beste, ez zaie antzinatasun itxurarik antzematen. Bada testua apokrifotzat hartzen duenik ere. Kanta seguruenik XIV-XVI. mendeko “Kanta eta bertso zaharrak” baino berriagoa bada ere, aspaldiko, garai bateko gertakizun batzuen oihartzun poetiko gisa, atal honetan jasotzea erabaki da, sailaren azken testu moduan.

Bertso bilduma honetan fikzioa eta, agian, gertaera historiko baten zantzuak ageri dira. Balizko jazoera hori XV. mendean agitu omen zen. Emakume bat zazpi urtetan azaldu gabe pasa ondoren, aitaren heriotza dela-eta, bere jaiotetxera, Alos-dorrera, itzuli egiten da (1-5). Segidan, denboran atzera eginez, emakumeak bere jaiotza, ezkontza eta ama izatea ekartzen ditu gogora (6-32). Jarraian (33-72) kontatzen du aitak, alargundu eta berriro ezkondu eta gero, Gaztelara joan behar izan zuela borroka batean parte hartzera. Han zegoela, Alos-dorrean gorabehera ilun eta tamalgarriak gertatu ziren: zaldun batek alabari eraso eta honek arbuia, *urre goruaz jo nuan*; bigarren andreak edo honen beste alabaren batek ez omen zuen gauza bera egin eta harremanetik haur bat jaio zen. Azken zatian (73-82), orainaldira itzuliz, hil den aitaren aurrean, alabaren lantu mindua.

Kantan gertaera ez da osorik agertzen, elipsi ugariak baitira eta baita inkongruentzia zenbait ere. Horrek bide ematen du pentsatzeko kanta bakartzat aurkeztu den testua ez dela kanta edo istorio bakarra, atal batzuen bilketa edo egokitza penabazirik. Arakistainek bertso hauetan oinarria hartuz, prosazko ipuin bat osatu zuen: “Gau-hila” (Araquistain, 1866). Moldaketa honetan, Beltran aita kanpoan dela Alos-dorrean sortu den semearena bigarren andreak alabari egotzi nahi omen dio. Nahaspila hori argitzeko, Beltranek hilik dagoen itxura egiten du, andrea eta honen alaben desleialtasuna agerian jartzeko eta semearena argitzeko. Aita hilkutzatik altxa eta errudunak zigortzen ditu. Hori guztia Arakistainen istorioaren arabera.

Bai Arakistainek, bai Jon Etxaidek (*Alos-dorrea*, 1950) sortutako kontakizunak baldintzatu egin dute, nolabait, kanta honen alderdi batzuen irakurketa. Berez irekiagoak eta polisemikoagoak diren kantaren xehetasun zenbait, irakurleak hedapen zabala izan duten bi narrazio horien arabera interpretatzera jotzen du.

Kanta lerro kopuru desberdineko multzoz dago osatua. Hoskidetasuna, oro har, apala (*-etan*, *-ian*, *-ia...*), inoiz aberatsagoa (*-ario*, *-tsa/-tza*); gehienetan lerro bikoitietan, batzuetan jarraian. Neurrian, aukera zabala, hiru silabatik hamaikaraino, gorabehera ugariz.

Resurreccion Maria Azkuek jasotako “Aldaz-dorrea” kantak, berriz, prototipo bakar baten beste aldaera bat dirudi (Michelena, 1971).

Jatorrizko iturria: Joan V. Araquistain (1866), *Tradiciones Vasco-Cántabras*, 36-40. or. Bertso eta oharren oinarria: Juan Carlos de Guerra (1921-1923/1924), *Viejos textos del idioma. Los cantares antiguos del idioma*, 45-54. or.

Etxe eder leiho bage honetan,
ez naiz sartu zazpi urte hauetan,
eta zortzigarrenian
neretzat zorigaitzian
aita Beltranen hiltzian.

Ama andria¹ neria nitzaz
bi erdi egin zanian,
mila oilo hil eta
ezkaratzian,
10 zazpi zezen korritu ere
enparantzian,
ni ere banenguen
lumatxo artian,
eta nere ama andria
urre gortina² artian.

Gero Bidania guztian
bat zan erorik eta zororik,
aita jauna neriak haura³
senartzat eman dit,
20 baina ez nuke trukatuko
hobiagoagatik.
Aita jauna neriak
niri eman zidan
iminan⁴ dotia,
ama andriak ere ixilik
bere partia.

Le(he)nen gabian
begiak bihotzak luen⁵ mendian,
baita berriz ere bigarrenian:
30 hirugarrena igaro baino le(he)n
ondo poztu zinan Alos-torria
heldu zalako neregan semia.

* * * * *

¹ Ama. ² errezel. ³ hura. ⁴ lakaritan. "Lakari": ale neurri zaharra, anegaren laurdena, hots, 14 litro inguruko edukierakoa. ⁵ loen.

Alos-torria! Bai, Alos-torria!
Alos-torreko
eskailera luzia!
Alos-torrian
nenguanian
goruetan
bela beltzak *kua, kua*
40 lei(h)uetan.
Handik jaiki eta
urre goruaz jo nuan,
baina handik laster,
berri gaiztuak jo ninduan.
Zaldunak esan zion: –Ixi! Ixi!
Ama doilorkumia!
Ez da bada hori zure
esateria⁶.
—Ixi! Ixi! Zaldun odol
50 txarreko gaztia!
Hala ere gutxiago zan
zure eginpidia⁷!
Ahizpa ederrak hor daude
ederrik eta galantik,
hatz ederrak eraztunez
beterik,
ez daukatela mantubetan⁸
zulorik.
Hala ere gutxiago
60 begijan⁹ negarrik.
Ama andriari ere bai
poza darijo;
nere bihotzari bakarrik
mindura jarijo!

⁶ esateko modua, hitz egiteko era. ⁷ eginbidea, egitekoa; esku hartzeko eskubidea.

⁸ mantuetan, gainjantzietan, soingainekoetan. ⁹ Jatorrizkoan: *beguiyan (...) dariyo (...)* jariyo.

Aita jauna neria
Gaztelan zanian,
ixil askorik jaio zan
Alos-torrian semia.
Eta hala ere ixilagorik
70 dago bakian
hazitzen Zarautz aldian,
gure jatorriaren loitukerian.
Ai! Hau mindura beltza!
Ai! Nere lotsa!
Alabak negarra ta
aitak lur hotza!
Zeinek loitu zaitu zu,
Alos-torria?
Ai! Nere aita maite,
80 aita maitia!
Hiltzia ondo egin dezu,
aita jaun maitia!

1.3. HILARTITZA(K)

Hilartitz edo epitafio askotan, informazio arrunta besterik ez da ematen: “Urlia jauna, 1925-2011. Goian bego”, esaterako. Bestetan, haatik, hildakoa-ren ekintza gogoangarriak aipatzen dira, era labur ederrean, eta, batzuetan, testu eredugarriak izaten dira poetikotasuna nolakoa den adierazteko. Oñako monasteriokoetan, adibidez: “Hektorrek Ilionekoak bezala, Espainiako itsa-sertzak babestu zituen Sandia jaunak, eta guztiz leiala izan zitzaion Berendia emazteak, hemen, negu hotzak eta udaberri atsegingarriak nola igarotzen diren kontenplazten dute eta baita nola zero-bobedapean ez dagoen ezer iraunkorrik ere”.

Hilartitzek, maiz, irakurleari pentsaraztea izaten dute helburu. Gehienetan giza bizitzaren iheskortasuna dute gaia: “Zu bezalakoa nintzen. Ni bezalakoa izango zara”. Ez gutxitan, bizitzako zintzotasuna gomendatzen dute: “Heriotzarako presta zaitez...”. Ez dira falta ironiaz idatzitakoak: “Barkatu, ez altxatzeagatik” (Groucho Marx).

Laburrak izaten direnez, hilartitzek oso adierazkorrak izan behar dute. Hilartitz laburrak txalogarriagoak izan ohi dira luzeak baino, bidaiariak aukera baitaukate errazago irakurtzeko, hilobien arteko ibilaldietan. Hori dela eta, Platonek lau hexametroko hilartitzak gurago ohi zituen.

Hilartitz bakarra jasotzen bada ere, saileko izenburuak plurala iradokitzen du, “Joan Amenduzekoaren elegia” ere, epitafio tankera duenez, hona bildua izan baitaiteke.

Martin Ibañez Labierokoaren hilaritza

1393az geroztik, Bizkaiko jauntxoak, Jaurerriko Batzarretan gehiengoa maneatuz, bandoen arteko auziak Gaztelaren erarako guda epaiketaren arabera erabakiak izan zitezten ahalegindu ziren, eta ez foru epaiketaren arabera. Erabaki “zahar eta kaltegarri” horrek Jaurerriaren aginte erreala foru erakundeei gutxitu eta jauntxorik indartsuenei pasarazi zien. Gauzak horrela, Joan Santxez Billelak eta Martin Joanes Labierokoak, foru alkateek, Bizkaiko jauntxoek kontra aritu behar izan zuten behin baino gehiagotan eta, XIV. mendearen bukaeran, biak hilarazi zituzten liskar banatan: Butroeko jaunak Joan Santxez Billela hilarazi zuen eta Ermandadekoek Martin Joanes Labierokoa. Hori dela eta, epitafio hau “dimentsio gutxikoa da, baina oso adierazgarria” (Guerra, 1921-1923 / 1924: 54), batez ere azken bertso-lerroko galdera salatzailea.

Jatorrizko iturria: *Ibarguen-Cachopin Kronika* (1558-1598 ing.), 70. koad. Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 74. or.

Marti Juanes, Labieruko zalduna,
Bizkaiko kontsejua ta zentzuna¹,
nor ete zan zuri losa igorrosi egizuna² ?

¹zentzua, zentzutasuna; zentzuduna. ²lauza (harria) igorri, bota egin zizuna? (Gerra) / lotsa igorri, sorrarazi, zizuna?; errespetua galdu zizuna? (Gorostiaga).

1.4. AMODIOZKOAK

Epika kantei herri zein talde baten protagonismoa edo heroi garaile baten nagusitasuna nabarmentzen dituzten bitartean, amodiozko kantei maitemintzearen barne sentimendu pertsonalak azpimarratzen dituzte. Hori dela-eta, lirika arloan kokatzen dira nagusiki.

Amodiozko bertso edo kantei kultura guztietako literaturaren lehen faseetan agertzen dira, epika testuen ondoren usu, herri edo pertsonen ohitura eta harremanak lasaitu eta biguntzen diren heinean. Aldakiak aldaki, amodiozko konposizioen ezaugarri batzuk herri zein kultura gehienetan errepikatzen dira: maiz kantatzekoak izaten dira, eta ezin lortuzko amodioak azaltzen dituzte, maitatua eta maitalea maila sozial ezberdinekoak direlako edota bietariko bat, anderea sarritan, dagoeneko ezkondua delako.

Dena den, amodiozko bertsoen ezaugarriak –tonua, protagonisten maila soziala eta abar– aldatu egiten dira gizarte aldaketak gertatu ahala. Eta halaxe, desberdinak izaten dira gorteko eta proventzar amodioa (xii. mendearen ingurukoa), burges amodioa (xiii.aren ingurukoa), Errenazimentukoa (xv.aren inguruan) edo erromantikoa (xix.aren inguruan) eta abar.

Amodiozko euskal bertso zaharrek, xv-xvi. mendeetakoak direnez, burgesia joerak eta pizkunde espiritua indarrean zeuden zantzuak erakusten dituzte: errealistak izaten dira, umore puntu batekoak, satirara iristeraino ere. Tartean, orobat, noblezia giroko kontakizun dramatikoak.

Perutxoren kanta

Iritsi zaizkigun amodiozko kanten artean lehenetarikoa da Gaspar Gómez de Toledo teatrogileak bere *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina*-n (1536) jasotzen duena. Kanta honetan, gazte maitaleak esaten dio gabirai azkarrari bizkor joan dadin bere maitalearengana esatera hura gabe gaixorik eta penaz bizi dela. Hitzak Gaztelara morroi gisa joana den Perutxo bizkaitarraren ahotik ateratakoak dira. Bertsoetan, Bernat Etxeparek eta beste zenbaitek erabili izan duten *Lelo lirelo* leloa errepikatzen da (ikus “Salinasko kondearen kanta”ren sarrera).

Jatorrizko iturria: Gaspar Gómez de Toledo (1536), *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina*, XVI. ekitaldia.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 102-105. or

Lelo lirelo zarai leroba,
iaz zoegia¹ nintzan
aurten erua.
Ai, joat² gabiraia
aztor[e] usua³,
lelo lirelo zarai leroba.

Ai, joat gabiraia
azto[re] bizarra⁴,
eso[k]⁵ amor[e]ari
10 gaxo naxala⁶
y⁷ penaz natzala⁸
jatorkedala⁹,
lelo lirelo zarai leroba.

¹ zogia, zuhurra, zentzuduna. ² hoakit, joan hakit. ³ azkarra, zalua. ⁴ aztore bizkorra, azkarra. Hautabideak: *Aztobizarra*, *Astobitzarra*, (Arabako) *Astobitza* herrikoa (Gerra) / *Aztobikara*, *Astobitzara*, hots, maitearen herrira (M. Lekuona). ⁵ esan iezaioke. ⁶ gaixo naizela, nagoela. Hautabidea: *natzala* (M. Lekuona). ⁷ Gaztelerazko *y* juntagailua: eta. ⁸ Hautabidea: *nazala*, hots, naizela (M. Lekuona). ⁹ betorkidala, etor dakidala; etor ahal izan dezala.



Peruchio / peruchio quā mala vida ballada te
tienes: linage hidalgo tu caualllo lipias: no fal-
ta o comer vn pedaço oguia / sin q̄ trabaso tā-
to le tēgas iuras ami siem pre caualllo a suziomē-
amo le haze: y Peruchio alimohaçado / el nada
le pena por carreras hazer en amores q̄ tien e entre tāto buf-
co otro adereçar le tēgo si pide: y cātar le empieço bizcuēça.
Elolo lūrelo çarayleroba **E**yt ioat gauiraya
yaçoe guia ningan aztobicarra
aurten erua esio amor ari
ay ioat gauiraya gajona çala
astor vsua y penas naçala
lelo lūrelo çarayleroba. sator que dala
lelo lūrelo çarayleroba.

C. (Si.) Precioso borrico es este: q̄ se q̄ra ola vida q̄ passa
y dize estar o desesperado. Y pone se a cātar: y tal le o dīos la sa-
lud como yo le entiēdo: avn q̄ no dexare o respōder a algu-
nos vocablos comunes q̄ en bizcuēçe dizē. Y por mī vida si
aguardo a oyr sus borricadas / segū el espacio tiene no aca-
be e n tres oras de alimohaçar aq̄l cuartago: o término o en-
trar a hazer q̄ luego aderece vna mula / pa y por quē tāto
tēgo de su si / como o su no: si tardamos. **Que** muscas son es-
tas hermano Peruchio a buena fe q̄ no puedes encubrir an-
dar enamorado. (Peru.) Con bueno te vienes cosas le dī-
zes q̄ no as entiēdo. (Si.) Como no yo te pmeto q̄ era o
amores el cantar: porque esio no lo niegues. (Peru.) Tu
coraçon como tienes ageno le iuzgas que amo ronda ami-
gas: tu no le faltas Peruchio el trabajo de alimpiar lodo le
hazes que me se quēbra manos poluo narizes hīneher y da-
ro le digo / a seño: mañana seruir no le tengo. (Sig.) Tan-
enoiado estas sin proposito: sepamos la causa. (Peruchio)
Sabe que quieres que yo entiēdo: z si digo cumplirele.
Si. (No passēs o ay: que te he menester pa otra cosa. (Pe.)
Tu ami menester as cabiliz orduachez. (Sige.) Mala sea

Maria Estibaliz Sasiolarenak

Joan Perez Lazarragak (1548 ing.-1605) 1567-1602 inguruan sortutako kontakizun eta poesia lanak *Lazarraga eskuizkribua*-n bildu zituen. Dokumentu honen bukaeran, neurtitzetan idatzitako zenbait testu ageri dira, “De la S.^a M.^a Estibaliz de Sasiola” izenburupean. Bertso-lerroak hiru multzo, konposizio edo neurtitz katetan daude antolatuta: bi luze, lerroak segida hutsean, inolako tarte grafikorik gabe jarriak dituztela, eta, tartean, labur bat. Batzuen azterketaz hiru poema dira, besterik gabe. Beste batzuen analisiaz, lehenengo multzo luzean bost poema bereiz daitezke eta bigarrenean bi: osotara, beraz, zortzi poema. Den modukoa dela, bi konposizio luzeen barne edukiari eta antolaketa metriko-fonikoari erreparatuz gero, garbi dirudi segmentu poetiko desberdinak nabari daitezkeela. Hemen, bigarren antolamendu horretarako nahiko arrazoi badagoela iritzirik, argitasunaren eta ulergarritasunaren mesedetan, banaketa berezitzaileri jarraitzen zaio, lau, edo bost, poema hautatuz.

Bertsoen autoretzari dagokiolarik, gauzak ez daude erabat argi. Gaztelaniazko “De” (la S.^a M.^a Estibaliz de Sasiola) horren anbiguotasunak, aztertzaileen ikuspegitik, hipotesi bat baino gehiagorako ematen du bide. Bi dira, funtsean, egiantzekoenak. Lehenengo aukera, eta kontrako arrazoirik agertzen ez den bitartean indartsuena eta ezin baztertuzkoa, bertsoen egilea Maria Estibaliz Sasiola dela eta gero norbaitek –dirudienez Lazarragak berak– eskuizkribuaren bukaeran kopiaitu zituela. Hala balitz, eta orain arteko datuen arabera, Sasiola litzateke poesia euskaraz idatzi duen lehenengo emakumea, edo, zehatzago esanik, poesia euskaraz sortu izanaren idatzizko lekukotasunik utzi duen lehenengo emakumea. Bigarren hipotesia da, Sasiola ez dela egiazko egilea, transmititzailerik soila baizik, beste norbaitek idatzitako neurtitzak Lazarragari helarazi zizkiona, alegia, eta honek bere eskuizkribuan jaso; edota andrearen jabegokoa zen dokumentu batetik kopiaitu. Edonola ere, bada nahiko oinarri esateko bertso hauek ez direla Lazarragarenak eta, hipotesi batean zein bestean, Maria Estibaliz Sasiolaren esku hartzea agerikoa dela. Andre honi buruz, bestalde, ez dago datu askorik: Debako etxe noble bateko jatorrikoa, 1550 baino lehenago jaioa eta 1611n hila. (Honetaz guztiaz, ikus Urkizu, 2004: 21-23; Bilbao, et al. (arg.), 2012).

Lazarragarenak ez direnez, bertso hauek, aparteko emaitza solte moduan, “Kanta eta bertso zaharrak” askotariko atal honetan aurkezten dira. Errima, hoskidetasun apalekoa (-tu, -ia, -i, -ean...), binaka bertso-lerro ageri da, lerro bikoitietan, bakoitiak libre. Neurrian irregulartasunak nabaritzen dira, baina –salbuespenen bat edo beste kendutazazpi eta bederatzi silaben artean dabil eta lerro bakoitiak, oro har, bakoitiak baino luzexeagoak dira. Azken finean, gehienbat, neurtitz kopuru aldagarria eta errima lerro bikoitietan daramaten poemak dira. Salbuespena, azpimarratzekoa, “Mendi altuan erurra daidi” konposizioen egitura: koplaren 10 / 8A / 10 / 8A, edo hurbil, moldekoka. Amodiozko bertsoak izanik, enuntziazioaren aldetik, ezin da, mintzo den ahotsa edo ni poetikoa emakumezkoa ala gizonezkoa den beti garbiro erabaki: “Eleizara juen ohi naiz”, “Mendi altuan erurra daidi” eta “Ohereanik jagi nintzan” bertsoetan, gizona dela dirudi.

Testu hauek ulertzea, bai konposizio osoaren, bai espresio berezien mailan, ez da beti lan eroso. Eskuizkribu originalaren egoerak ez du errazten lerroen materialtasuna finkatzeko lana: grafia ilunak, ezabatuak, zalantzazkoak, tartean. Hizkuntz forma zenbait, gainera, urrun samarrekoak dira gaur egungo euskaldunarentzat.

“Eleizara juen ohi naiz” poeman, ni poetikoa maiteaz liluratuta ageri da, beste ezer-tan pentsatu ezinik: elizara doanean ere, mezaren une bakoitzean, gogoa harengan; so-segua galduta, kontsolatu ezinik. “Amore linda galant bata”: maiteminduaren poza maitea ikustea ala ez ikustearen mendean dago. “Mendi altuan erurra daidi”: mendi al-tuko eta beheko haranaren arteko giro aldaketaren irudiaz baliatuz, maitearen desio eta amodio mudatze arinak maiteminduari sortzen dion atsekabea. “Ohereanik jagi nin-tzan”: lehenengo zati batean, nabarmenena, adjektibo eta izen edergarriz, maitearen janzkeraren deskripzio goragarria; bigarrenean, XVI. mendeko mendebaldeko Medite-rrean, erreinu, lurralde eta hiri ospetsu zenbaiten sorta bikaina bada ere, horiek guz-tiak baino nahiago, baliotsuagoa, maitea.

Jatorrizko iturria: Joan Perez de Lazarraga, *Lazarraga eskuizkribua* (1567-1602 ing.), 1204-1205. (j) or.

Bertsio eta oharren oinarria: Gidor Bilbao, et al. (arg.) (2010 eta hurr.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten esku-ragarri: < www.lazarraga.com >.

Eleizara juen¹ ohi naiz
 egin ohi det bekatu:
Ave Maria hasi baize²
 ezin ohi det notatu³,
 liburuan bere jarri ohi naiz
 begi neureok lausotu,
 fraidea predikatzen jarri
 hitzik ezin aditu;
 ofrendara⁴ dianean⁵
 10 ondo ohi det miratu⁶,
 sagara gora dianean⁷
 amore lindeaz oroitu.

¹ joan. ² Elizan, jada hasieratik, hots, “Agur Maria” (*Ave Maria*, lat.) otoitza hasi bai-zen; hasi bezain laster. ³ ezin ohi dut aditu, ezin natzaio hari (*Ave Mariari*) adi egon; ezin dut arretaz jarraitu. ⁴ eskaintzara. “Ofrenda”: mezan, irakurgaien eta predikua-ren ondorengo unea. ⁵ doanean (maitea). ⁶ begiratu. ⁷ “Sagara”: meza erdian, ogia eta ardoa kontsakratzea, Jesu Kristoren gorputz eta odol bihurtzea, eta altxatzea. Beraz: meza erdian, kontsakratutakoa gora doanean, altxatzen denean.

20

Amore linda galantorrek
gogoan oi ni banindu!
Lagunok baietz diostae⁸,
neuronek ezin sinistu.
Neuronek ezin neio⁹, baia
egingo digot mandatu¹⁰,
harentzat jaio nintzala ta
ez nagiala largatu¹¹.
Ez bisteaz¹² kontsolatu,
ez egonaz amoratu,
ez ma(ha)ian asentatu¹³,
ez ohean albergatu¹⁴.
Jaun zeruko¹⁵, ez dagizu[la]¹⁶
gizona honein amorad[u]¹⁷.

* * * * *

Amore linda galant bata¹
ene amore berria,
[...] hura dakustan² ordu orotan
hortzean hur det irria³,
[hu]ra ez dakustanean
aldean⁴ malenkonია.
Egun⁵ ekusi ez det eta,
oi, ene bekataria!

* * * * *

⁸ diostate, esaten didate. ⁹ ezin neikio, ezin (egin) niezaioke. ¹⁰ baina helaraziko, adieraziko diot mezua, norbaiten bidez. ¹¹ ez nagiala laga, ez nazala utz. ¹² bistaz, ikusmenaz. Hautabidea: *Ez bisteak (...) ez egonak*. ¹³ eseri. ¹⁴ babestu, gorde. ¹⁵ Eskuizkribuan: zeinu bat ageri da hitzaren bukaeran, -a bat agian. Lazarragaren eskuizkribuan, oro har, *Jaun zerukoa* erabili ohi da. Honetan, bertso-lerroaren neurriak izan lezake zerikusi. ¹⁶ ez dagizula, ez dezazula egin. ¹⁷ honen maitabera, maitemintzen hain erraza.

¹bat da. ² ikusten dudana. ³ aurpegian, begitartean, hurbil dut irria. ⁴ alboan, ondoan. ⁵ gaur.

Mendi altuan erurra daidi¹
haran baxuan eguzki...
Mendi-haran[a]k² guztiak baino
ene koitaok nagusi³.

Ikaz⁴ laztan ninduan dontzeila batek
aurten nahi ez ekusi,
laster kanbiatu ninduan
deseo ebenagaiti⁵.

* * * * *

¹ elurra egingo du. ² Eskuizkribuan: *mendaranc*. ³ nire penak nagusiago, nire nahigabeak larriago. ⁴ laz. ⁵ desio zuenarengatik; nahi zuenaren truke.

- O(h)[e]reanik jagi nintzan¹
astele(he)n goizean;
eskuetan busti eta
kalera nirteanean²,
ene laztan zuri ederra
berdurakin aurrean,
soinean gonaz ondo jantzi ta
jupa³ horia gainean,
gerrian gerrikoa eder
10 solea sotil⁴ oinean,
bularterian⁵ trapua zuri
labradurak⁶ urrean,
dontzeilakin f[l]ordelisak⁷
lepoan goien, [g]ainean;
dontzeila batek josi zeban⁸
Iruneko kalean,
niri ondo kosta jakin⁹
Gipuzkoako lurrean.
- Orain, aldiaz¹⁰, aita dezada[n]
20 Gaztelako noblezia,
Burgus ta Toledo
ta Kordoba ta Sibillia¹¹;
Aragoeko errein[uan]
Bartzelona ta Valentzia.
Napol herri noblea da
harik hurrean¹² Calabria.
Genoako kondaduan
Pisakin Florentzia.
Pullalekin¹³ Ferrera¹⁴ baino
30 hobeago da Venezia.
Munduak klaramentean¹⁵ daki
zurtza dana¹⁶ Zizilia.


¹ Ohetik jaiki nintzen. ² irten nintzenean. ³ tunika, atorra luze. Hautabidea: *jurapa*.
⁴ zapata edo sandalia eder, fin. ⁵ bularraldean, paparrean. ⁶ brodatuak: oihal edo
ehun batean josiz, brodatuz, egindako harizko apaindurak. ⁷ dontzeila irudiak eta lirio
edo lis-lore irudiak (dituzten apaindurak). Eskuizkribuan: *fordeliçac*. ⁸ zuen. ⁹ niri
ondo, ederki, kostata. ¹⁰ aldiz, berriz. ¹¹ Sevilla. ¹² handik hurbilean, gertu.
¹³ Pugliarekin. "Puglia": hegoaldeko Italiako Apulia eskualdearen italierazko izena. ¹⁴
Ferrara. ¹⁵ argi, garbiro. ¹⁶ isolatua, hots, kontinentetik deslotua, dela Sizilia (uhartea
baita). Hautabidea: *zurea dana*.

[Di]ostaenez¹⁷, leku on dira
Toscanarekin Lombardia.
Haek¹⁸ guztiak baino bere
hobeago ene amore onetsia¹⁹.

¹⁷ Diostatenez, esaten didatenez.

¹⁸ Haiek.

¹⁹ oniritzia, maitatua.



"Mendi altuan" poema eta "O(h)[e]reanik jagi nintzan" poemaren hasiera jasotzen dituen orrialdea. Maria Estibaliz Sasiola (Joan Perez Lazarraga, Lazarragaren eskuizkribua, 1567-1602 ing.; Gipuzkoako Foru Aldundia/Koldo Mitxelena Kulturunea).

Andre Emilia

Kanta hau Oihenartek jaso zuen idatziz XVII. mendean. Nolanahi ere, bada nahiko berme XIV-XVI. mendeetako testuen artean bildua izateko. XVII. mendean, kanta hau, nafar tradizioan txertatua zegoen dagoeneko eta, gainera, kontatzen duen jazoera XV. mendean –lehenago, agian– gertaturikoa omen zen. Urte haietan, mairuek iberiar penintsularen zati handia bereganatua zuten eta Nafarroako Erresumarekin harreman estuak izan omen zituzten, kristauen eta mairuen arteko ezkontzak onartuak izan baitziren. Kanta honek gordetzen du, XIX. mendera arte, gizarte tradizional ugarietan zabaldurik egon den ohitura baten oroimena: gurasoek adostutako alaben ezkontzak, alegia, alabon iritzia kontuan hartu gabe. Gogoratu, esaterako, “Atharratze jauregian” kanta non aitak, ama hil eta gero, alaba saltzen duen *idi bat bezala*. Orobat, Oihenarten VI. poema (“Maitenaren gal-kexua”), Domingo Agirreren *Garoa*-ren III. atalburua edo Lauaxetaren *Arrats-beheran*-go “Etxeko alabea” olerkia. Oraingoan, oster, etxe aberatseko aitak eta amak *sari handitan* egin dute alabarengatik salmenta, alabaren gogoaren kontra. Hirugarren ahapaldian, familiaren drama laburtzen da, baita Emilia neskaren askatasuna lortzen ere (ez da azaltzen zelan izan zen askatua; baliteke askatze prozesua kontatzen duen atala galdua izatea).

Poema hau lauko z dago osatua. Oihenartek uste du lauko hori beste hizkuntzetan aurkitzen ez den euskaldunen forma berezia dela. Bertsoaren ezaugarriak honela zehazten ditu: errima bereko hiru lerro (lehen, bigarrena eta laugarrena) eta bestea (hirugarrena) errimarik gabea; lehenengo laukoak zortzi silabadun lerro femeninoak (aurretik silaba luze bat duen silaba labur batez amaituak) ditu eta beste biek zazpi silabadun lerro *glissans* (aurretik silaba luze bat –azken hirugarrena– duten bi silaba laburrez amaituak).

Wilhelm von Humboldt-ek Haranbillet etimologistarengandik ikasitako kantaren beste aldaera bat bildu zuen; geroago, *Euskera* aldizkarian (1925), R. M. Azkuek argitaratua.

Jatorrizko iturria: Arnaud d’Oihenart (1665), *L’art poétique basque*. Pierre Lafitteren edizioa: *Gure Herria*, 1967, 220. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Ibon Sarasola (1983), “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *ASJU*, 85-86. or.

Andr(e) Emili(a)¹, andre gora²,
ezin diro ogirik ora³,
artorik jorra⁴ hain guti
bihoa mairu herrin gora⁵.

¹Jatorrizkoan: *Andr’Emili’*. ²jasoa, nagusia. ³ezin dezake ogirik ora: irina eta ura nahasiz, ogirako oreka egin. ⁴jorratu, landu, hazi. ⁵joan bedi mairuen herrian gora. Estrofaren aldaera: *Andre Emili, andre gora / orai ez arto-jorra / ogirik orra hain guti, / zoaz mairu herrin gora* (Humboldt: in Azkue).

Saldu nintzen saritan⁶
asko sari handitan,
ehun pizu⁷ urretan eta
berrehun dupa⁸ eztitan.

10 Aita nuen saltzale
ama diru hartzale,
anaierik xipiena
mairuetarik kentzale⁹.

⁶ Saldua (izan) nintzen dirutan, saldu ninduten ordainketan. Aldaera: *dirutan* (Humboldt: in Azkue. ⁷ peso: diru mota. ⁸ upel. ⁹ mairuengandik askatzaile.

Atsein handia

Kanta hau XVI eta XVII. mendeetako galai-olerki bizkaitarraren eredutzat har daiteke. Multzo horretan sartzen dira, esaterako, Elorrión aurkitutako “Ene begiakaz bihotzen artean” maitasun-kanta (1609 ing.), Lope de Vegak *Dos estrellas trocadas y ramilletes de Madrid* komedia-bilduman jasotako “Zure begi ederrok” bertsoa (1615), “Katigatu ninduzun librea nintzana” poema (1650 ing.), Rafael Mikoletaren *Modo breve de aprender la lengua vizcaína*-n agertzen diren bi adibideak (1653), eta baita “Perutxoren kanta” (1536) ere.

Gai eta errimaren aldetik, nabaria da Italiatik etorritako manierismoaren eragina. Erdi Aroko amodio-bertsoen parean, bertso hauetan –sarritan tragikoak, ezkontzaz kanpokoak izaten baitira– ez dira amodio-istorio errealistak kontatzen, ez eta trobadoreen ezinezko amodio-istorioak ere. Testuingururik gabeko istorio hauetan, maitasun abstraktu eta kontzeptuala agertzen da. Kanta honetan, bertsogileak Garcilaso de la Vegak eta Joan Boscàk XVI. mendeko lehen herenean modan jarri zituzten hamaika silabadun bertsoak (6+5) erabili zituen. Oihenartek, “Andre Emilia” bezala, kanta hau ere neurtizkera zuzenaren adibidetzat jaso zuen: kantitatea ondo zaindu da eta bertso-lerro guztiak hamaika silabadun neurtitz femeninoak dira. “Andre Emilia” Nafarroa Garaiko esparrutik bildua da; “Atsein handia” Bizkaikotik. Kanta Oihenarten garairako jada hedatua edo ezaguna bazen, tradizio ibilbide labur bat bederen bazuela pentsa daiteke eta, beraz, bere sorrera unea atzerago kokatu.

Jatorrizko iturria: Arnaud d’Oihenart (1665), *L’art poétique basque*. Pierre Lafitteren edizioa: *Cure Herria*, 1967, 227. or.

Bertsio eta oharren oinarria: Ibon Sarasola (1983), “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *AS/U*, 86-87. or.

Atsein¹ handia da amore eutea²
 eta bere bada³ guztiz firmea.
 Ezin esan leidiz⁴ ondo munduak
 zein handiak diren haren gustuak.
 Gloriaz beterik jaio nindia⁵
 ikusiaz gero zeu, ene eguzkia.

¹ Atsegin. ² *edutea, edukitzea, izatea. ³ eta areago baldin bada. ⁴ esan leikez: esan litzake. ⁵ nintzen.

Urrutiako anderea

Menauton, Altzürüküko Urrutia gazteluko jauna, eta Ahetzeko Domenja, Baigorriko Etxauz jaunaren arreba, 1422. urtearen inguruan ezkondu omen ziren. Domenjaren aitak, Zuberoan, Ahetze, Erbize eta Muskildiko lurrak zeuzkan. Horrela, ezkontzaz, Urrutia, hogeita hamasei etxalderekin, Zuberoako jaun aberatsena bilakatu zen. Menauton horrek tratu txarra ematen omen zien bere mendekoei ez ezik, bere emazteari ere. Hori zela eta, ezkonduetako hauen gorabeheren gainean kantak sortu ziren XV-XVI. mendeetan.

Ahozko literaturetan, sarritan, hobekienik gordetzen diren bertsoak garai batean gorrotatu izan den gizon baten inguruan asmatutakoak izaten dira. Urrutiako gertaera hauei buruzko kantetan, bi bertsio dira nagusi: “Sortu nintzan Etxauzian” eta “Hauzeko anderia” lerroez hasten direnak. Hauez gain, J.-D.-J. Salaberriren paperen artean, badira bestelako atal edo kantak ere: “Musde Urrutia leihotik”, “Amak dio alabari” eta “Mutil bilo horia” lerroez irekiak (ikus Peillen, 1986).

“Sortu nintzan Etxauzian”, aldaerarik zaharrena, Augustin Xahok jaso zuen bere kanta-bilduman hemeretzigarren mendearen erdialdean. “Hauzeko anderia” Francisque-Michelek argitaratu zuen (1857), eta, geroago, aldaketa zenbait eginez, “Ahetzeko anderia”, Jean Jaurgainek (1899). Bi bertsioak desberdinak izan arren, protagonista nagusia bera da: Ahetzeko anderea, Etxauzen jaioa, Urrutiara ezkondua. Hemen, aldaerarik soilena, Xahok bildutakoa, “Sortu nintzan Etxauzian” alegia, hautatu da. Bertsio honetan, lehenengo bertsotik jada, era labur, bakun eta estilizatuz adierazten dira: anderearen kexua jasaten ari den umiliazio eta desleialtasunengatik, eta, honen eskariz, anaiak, Etxauzeko bizkondeak, Urrutiari, lotsagarriro ihesi, ordainetan ematen dion merezitako zigorra. “Hauzeko / Ahetzeko anderia” hamazortzi ahapaldiko bertsioan, bestalde, fikzioak tarte zabalagoa hartzen du eta kanta elkarriketen bidez luzatzen da. Oraingoan, Urrutia jauna da anderearen leialtasuna zalantzan jartzen saiatzen dena; anderea, berriz, senarraren zakarkeriaz eta arrazoirik gabeko mesfidantzaz da arrangura. Goiz batean, anderea eskaleei opilak ematera doala, senarrak, emaztea jauregitik kanpo ikustean, sututa, amorante batengana doala uste du. Santa Klararen mirari batez, opilak harilko bihurtzen dira eta, modu ulergaitz samarrez, anderearen zintzotasuna agerian geratzen da.

Hartzen den neurtizkera moldearen arabera, bertso-lerroen neurria aldatu egiten da, baina, oro har, zortzi eta hamar silaben artean dabil, zortzikoa nagusia dela. Bertsoaren lerroak errima berekoak dira, hirugarrena aske. Xahok jasotako aldaeran, bertso bakoitza lau lerrotan dago banatua. Errima kontuan izanik, azken biak lerro bakar batean, segidan, bi hemistikioz, jar litezke eta bertsoa hiru lerrotan eman, “Bereterretxen kantorea”ren moduan.

Jatorrizko iturria: Augustin Xahok (1850 ing.) osatutako kanta-bilduma: “Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques”, 99. kanta. (Georges Lacomberen Ondarea. Olaso Dorrea Sorrerakundea).

Bertsio eta oharren oinarria: Jean Haritschelhar (1963), “Baigorriko zonbait kantu”, *Gure Herria*, 245-246. or.

Sortü nintzan Etxauzian
hazi Garatian Agerrian
eskolatü Baiunian
madamatü¹ Ürrütian.

Altzürükü Ürrütia
ala² lekü famatia,
enetako ja izan düzü³
penaz hiltzeko lekia.

10 Musde Ürrütia bilua holli⁴
jaun erreterak hortzak xuri,
haiek biek ni narabila⁵
Ürrütian ezterari⁶.

Kozinatik kanberala
kanberati(k) kozinala,
hiruretan üngüarazi zeitan
bilo adatsa eskietan⁷.

20 Musde Ürrütia ez zen lotzen
bere tela mihisetan⁸,
arauxe⁹ nahiago beitzen
amuriaren kapitetan¹⁰.

Etxauzeko bizkundia
beldürra düzü ahalkia¹¹,
üzten düzü penaz hiltzera¹²
zure arreba anderia.

¹ andere bihurtu. ² bai, zein. ³ ia izan da, gertatu da (zukako alokutiboa).

⁴ Musde Urrutia ilea hori. "Musde": deituraren aurrean ezartzen den ohorezko tratamendua, "jaun"en kidea. *Monsieur de* (fr.) moldetik eratorria. ⁵ narabilte. ⁶ Hutssegitea, agian, eta, berez, *esteiari* / *ezeiari*: miserable, errukarri (moduan). ⁷ hirutan bueltak emanarazi, hiru bider joanarazi zidan, eraman ninduen, tiraka, hiletatik eskuekin helduz. ⁸ ez zuen lo egiten bere maindireetan, bere maindireen artean. ⁹ dirudie-nez, eskierki. ¹⁰ maitalearen (oheko) liho zakarretan, iztupa lakarrez egindako maindireetan. Eskuizkribuan datorren aldaera batean, bertso hau beste bi lerro erantsiz hasten da: *Abendiüko gaiü hotzetan* [/ *lüzetan*] / *izotz eta karroinetan* / *Musde Ürrütia* (...). Bertso hau eta hurrengoaren parean, honako ahapaldi hau ageri da: *Ala Baigorri* / *Baigorri maite* / { *nik hilik ere* / *hara nahi nuke*} (bis) / *han harriak ere* / *alte nitüzke*. ¹¹ beldurra (izatea) desohorea, lotsabidea, da; beldurra da lotsa dakarrena. Eskuizkribuko aldaera: *non da zure ohoria*. ¹² uzten duzu penaz hil dadin; uzten ari zara penaz hiltzen. Eskuizkribuko aldaera: *xangrinez hiltzen ari da*.

Bizkundiak mitilari:
"Zela bedi zaldi hori¹³
erra bedi ürzo hori¹⁴
jar gitian bide horri¹⁵".

30 Bizkundia armatürik
zaldi urdina zelatürik
Ürrütian sartü züzün¹⁶,
Ürrütia eskapi¹⁷ leihotik.

¹³ zela jar biezaio zaldi horri. ¹⁴ erre bedi uso hori. ¹⁵ jar gaitezen bide horretan; lot gakizkion, ekin diezaioGUN, bide horri. ¹⁶ zen (zukako alokutiboa). ¹⁷ eskapatu, ihes egin.

Atharratze jauregian

Zuberoako kanta hau Augustin Xahok jaso zuen bere kanta-bilduman XIX. mendearen erdialdean. Ugariak izan dira aurkitutako kantaren aldaerak. Hogeiren bat ezagutzen dira (ikus Zavala, 1998: 38-60). Xahok berak ere hiru jaso zituen eta, ondoren, nagusienak, Francisque-Michelek (1857), J.-D.-J. Salaberrik (1870) eta Jean Jourgainek (1899) aurkeztutakoak dira. Idatziz, XIX. mendean jasoia izan bada ere, ikertzaileek, testuaren molde eta edukia kontuan izanik, kantaren ardatza, gutxienez, XVI. mendera arte eramaten dute atzera. Mendeetako ahozko transmisioa dela-eta, kantak nahasketa eta aldaketak jasan ditu. Gorabeherok honako alderdi hauetan izan dute eragina, besteak beste: ahapaldien kopuru eta ordena, gertaerak eta pertsonaiak, testuaren materialtasuna, bertso-lerroen neurria eta molde poetikoa.

Sarrera labur honetarako argibide nagusi moduan erabilitako Jean-Baptiste Orpustanen azterketari (1999) atxikiz, hemen, Xahoren (X) bertsioetariko bati ematen zaio lehenetasuna, oin-oharretan besteen aldaerak –esanguratsuenak, ez guztiak– ezarri. Xahorena da, ziur asko, bere sei estrofez, leialena, jatorrizkoena. Francisque-Michelena (FM), espresio batzuk salbu, Xahorenaren antzekoa da; Salaberrirenak (S) lau ahapaldi eransten ditu; Jourgainena (J), bederatzi ahapaldikoa, berriagoa, hartzen duen oinarri historiko eztabaidagarriari begira koherenteena, baina, halaber, nahiko orraztua, birmoldatua, bai gertaera eta pertsonaien, bai estrofen kopuru eta ordenaren aldetik.

Kantan kontatzen den istorioa Atharratzeko jauregian dago kokatua. Aitak bi alabetako bat atzerriko errege batekin ezkonaraztea erabaki du. Alabak, goibel eta etsipenez, aitari idi bat bezala saldu duela aurpegiratzen dio; ama bizi izan balitz, Salara (berak maite duenaren egoitzara) ezkonduko zen. Ahizpak senargaia errezibitzeko janztara eta sortetxetik pozez abiatzera dei egiten dio. Alabak, aitari, bere tristura azaltzen dio eta heriotza moduko zerbait iragartzen. Ahizpari, berriz, jauregiko salako leihotik haize hegoa ala iparra dabilen begiratzeko, eta, iparra bada, agur Salari! Ezkilak jotzen du, jantzi beltzak inguruan, abiatzeko ordurako. Hauxe gertaera, kantan elipsiz eta era esilizatuan ederki emana.

Xahoren ondoko biltzaile eta zuzentzaileak kontakizunaren soiltasuna, bertan nabari diren hutsuneak, betetzen eta istorioa egiazko gertaera historiko batekin lotzen saiatu dira. Salaberrik, Xahoren lehenengo bi ahapaldien artean, Atharratze deskribatzen duen bat tartekatzen du (Jourgainek zortzigarren ahapaldi gisa dakar); bigarren eta hirugarrenaren artean, beste bi, ahizpen arteko elkarrizketa luzatuz; eta hirugarren eta laugarrenaren artean, estrofa tradizional bat, “Andre Emilia” konposizioan ere ageri dena.

Istorioaren gertaerei dagokiela, Francisque-Michelek Hungariako erregearen ordeztu egiantzik ez duen ustezko “Ongriagarai” bat txertatzen du. Jourgainen bertsioan, berriz, gertaerei itxura historikoagoa ematen zaie, biltzaileak topatu, moldekatu edo asmatutako aldaketa nabariak eginez. Jourgainen bertsioan, bi ahizpa horiek Ozazeko Jourgaineko alabak lirateke. Amak, ez aitak, alabetako batentzat senargaitzat Atharratzeko jauna erabakiko zuen. Jaun hori Atharratzeko Salako Charles Lukuzekoa litzateke, pertsonaia historikoa, zeina, berrogeita hamar urte inguru zituela, egiazki Ozazeko hamazazpi urteko Maria Jourgainekin 1584an ezkondu eta arrazoi politikoak medio, erbestera (Otsagabira) joan behar izan baitzuen. Orpustanen azterketaren arabera, horrela bi istorio gurutzatu nahi izan dira: batetik, Atharratze jauregiko alaba noble baten eta Europako printze-edo

baten arteko ezkontza, erreal edo imajinarioa, baina tragikoa, sortetxetik urrutira; bes-tetik, Jaurgaineko alaba baten ezkontza Atharratzeko Salara, ezkontza erreala, baina kronologiarekin uztarrezina. Bigarrena lehenengoaren gainean eraiki da.

Xehetasun franko dago zintzilik, ilun, eta hari mutur ugari lotu beharko lirateke azalpen osoagoa eman ahal izateko. Dena den, oinarrian, ardatzean, elezaharretako kutsua duen istorioa dago. Istorio honek, agian, euskarri erreala du: Zuberoako neska noble baten eta atzerriko errege-edo baten arteko ezkontza behartua. Ez da egiantzik gabekoa, garai haietan Espainiak eta Frantziak harremanak izatea Hungariarekin. Hortaz, eta hemen jasotako Xahoren bertsioari atxikiz, kontakizun poetiko hau “behartutako ezkontza” poesia molde ohikoaren beste adibide bat litzateke, ñabardura propioz landua.

Kantaren amaiera da interpretatu beharreko puntuetariko bat. Lotua dago, jakina, istorio osoarenarekin. Proposatutakoen arteko bat: emaztegaia atzerrira abiatzen da nahi ez duen senargaiarekin, heriotzaren, bizirik tonban ehorzterearen pareko sentitzen duen desterrura. Beste interpretazio bat: maite ez duenarekin ezkontzera eta maite duena uztera derrigortuta, bere patua haizearen norabidearen arabera (errealiki edo magikoki) erabakiz, neskak Salako maiteari agur egin eta bere gorputzaren bila etor dadila eskatuz, bere burua hiltzen du. Aipagarriak dira, bestalde, azken ahapaldian nabaritzen diren mirari antzeko zertzeladak: ezkilak berak, bakarrik, jotzen duela dirudi, eta –azaltzen erraza ez den– erreferentzia egiten zaio Santa Klarari, agian, bi pertsonaien arteko bizi kideasun egiazko edo alegiazkoren batean oinarrituta, zoritxarreko neska santa honen izenez deitzeko, harekin identifikatzeko, edo...

Sei lauko dira, hoskidetasun edo errima bakarrekoak. Bertso-lerroen neurria, oinarrian, oro har, hamahiru silabakoa (7+6). Estilizazioa eta elipsiaz gain, azpimarragarriak dira, besteak beste: simetriak (*bihotza tristetürik, begiak bustirik*), irudimenaren pizgarriak (*zitroin, tunban, zaldia...*), osagai exotiko edo ohiz kanpokoak (*zitroin, Hongariako, ürrez da zelatzen, Santa Klara...*), koloreen kontraste sinbolikoak (*berdia / xuria, ürrez / beltzez*), zoriaren eragina eta bukaera irekia, sentimendu garratzen adierazpen delikatuak...

Jatorrizko iturria: Augustin Xahok (1850 ing.) osatutako kanta-bilduma: “Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques”, 83. kanta. (Georges Lacomberen Ondarea. Olaso Dorrea Sorrerakundea).

Bertsio eta oharren oinarria: Jean-Baptiste Orpustan (1999), “Lire et comprendre les textes poétiques de tradition orale: l’exemple de la chanson souletine ‘Atharratze jauregian’”, *Lapurdum*, 57-79. or.

Atharratze jauregian¹

Atharratze jauregian² bi zitroin³ loratü⁴,
 Hongariako erregek⁵ batño dü galtatü⁶.
 Arraposta üken dü⁷ ez direla huntü⁸,
 huntü diratinian⁹ batño ükenen dü¹⁰.

Aita¹¹, saldü naizü¹² idi¹³ bat bezala,
 bai eta desterratü¹⁴ ez banintzan bezala¹⁵.
 Ama bizi üken banü, aita, zü bezala,
 ni ezkontüren nintzan Atharratze Salala¹⁶.



10 —Ahizpa, jauntz¹⁷ ezazü zaia¹⁸ berdia
 nik ere jauntziren dü¹⁹ satina²⁰ xuria.
 Ingoiti²¹ hor heltü²² da zure senargeia²³,
 botzez²⁴ ützi ezazü²⁵ zure sortetxia.

—Aita²⁶, joanen gira oro algarrekin²⁷,
 etxerat jinen²⁸ zira xangrin²⁹ handirekin,
 bihotza tristetürik³⁰, begiak bustirik,
 eta zure alaba tunban ezarririk³¹.

¹ Aldaera: *Santa Klara* (X). ² Aldaera: *Ozaze Jaurgainian* (J). ³ limoi. ⁴ Aldaera: *doratü* (FM, S, J). ⁵ Aldaerak: *Ongriagarai horrek* (FM) / *Atharratzeko jaonak* (J). ⁶ bat (txikigarritz) du eskatu. Aldaera: *batto* (X, S, J). ⁷ Arrapostu izan du, erantzun egin zaio. ⁸ ondu, umotu, heldu. ⁹ onduko direnean; heltzen direnean. Aldaera: *ontzen direnian* (X, FM). ¹⁰ izango du. ¹¹ Aldaera: *Ama* (J). ¹² nauzu. ¹³ Aldaerak: *antxu / axuri* (X) / *miga* (X, FM) / *biga* (X, J). ¹⁴ Aldaera: *bai abandonatü* (X). ¹⁵ Aldaerak: *Hongarian behera* (X) / *Espainia barnara* (X) / *oi! Espainiara* (FM, J). ¹⁶ ni ezkonduko nintzan, Atharratzeko Sala jauretxera. Aldaerak: *Enündüzün ez juanen Hongrian behera / bena bai ez-kuntüren Atharratze Salala* (X, S) / *ez nintzan ezkontüren* (FM) / *enündüzün ezkontüren* (J). ¹⁷ jantz. ¹⁸ gona, oinetarainoko soinekoa. Aldaera: *arrauba* (S, J). ¹⁹ satinezko jantzia. ²⁰ Engoitik, dagoeneko. ²¹ heldu, iritsi. ²² Aldaerak: *ingoitik horra düzü Hongriako erregia* (S) / *zure jaungeia* (FM). ²³ pozez. ²⁴ Aldaera: *kita ezazü* (S). ²⁵ Aldaera: *Ama* (J). ²⁶ gu guztiok elkarrekin abiatuko gara. ²⁷ etorriko, itzuliko, sartuko. ²⁸ atsekabe, pena. ²⁹ Aldaera: *kargatürik* (S, J). ³⁰ Aldaera: *ehortzirik* (FM, S, J).

- Ahizpa, zuaza³¹ orai salako³² leihora
ipar ala hegua, zer den jakitera³³.
lparra balin bada, goraintzi Salari³⁴
20 et(a) aldiz ene txerka jin dadila sarri³⁵.
Atharratzeko zeiniak³⁶ tristerik dü joiten³⁷,
andere Santa Klara³⁸ bihar da partitzen³⁹;
haren peko zaldia ürrez da zelatzen⁴⁰,
hanko txipi handiak beltzez dira beztitzen.

³¹ zoaz, joan zaitez. ³² (gure jauregiko) salako. ³³ Aldaerak: *den emazü guardia* (FM) / *denez jakitera* (S, J). ³⁴ Sala jaunari, Sala etxeko jaunari. ³⁵ nire bila etor dadila berehala, laster. Aldaerak: *ene gorputzaren/korpitzen xerka jin dadila sarri* (FM, S, J).
³⁶ zeinuak, ezkilak; kanpaiak. ³⁷ Jotzen. Aldaerak: *berak arrapikatzen* (X, S) / *bere motuz jotzen* (FM). ³⁸ Klaratarren moja-ordena –XIII. menderako jada Baionan kokatua– sortu zuen lekaime italiarra (Asis, 1193-1254). ³⁹ Aldaerak: *herritik partitzen* (X) / *hantik partitzen* (S). ⁴⁰ zaldiari urrezko zela, eserlekua, zaio jartzen. Aldaera: *da xuriz estaltzen* (X).



"Atharratze jauregian (Santa Klara)" (Augustin Xahoren "Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques" bilduma, 1850 ing.; Georges Lacomberen Ondarea / Olaso Dorrea Sorrerakunde).

1.5. ISEKAZKOAK

Isekazko literatur testuak erregistro ugarikoak izan ohi dira: umorea, ironia, sarkasmoa... Forma aniztunekoak ere bai: parodia, fartsa, sainetea, txistea, txantxa... Helburu ludiko edota moralizatzailea izaten dute, besteak beste. Barre eragitekoak izan arren, burlazko testuak iraingarriak, krudelak ere, gerta daitezke. Trufa motiboa jende edota egoera barregarriak izaten badira ere, ez gutxitan, gizaki nobleen kontra aritzeko ere erabili izan dira.

Isekazko testuak bigarren mailako idazleek landu zituzten batik bat, baina XV-XVI. mendeetan goi-mailako sortzaileek ere ez zioten literatur azpigenero honi uko egin: Boccaccio, Rabelais, Lope de Vega, Cervantes... Zeharkako hitzak eta espresioak, herrarik gabeko ziri sartzeak dira burlazko testu egoki eta eraginkorrak lortzeko baliabide aproposak: ez argi ez eta agerian, eta gorrotorik gabeko sumindura, Lope de Vegak zioen moduan.

Isekazko euskal literatur testuak izen eta formatu bereziez agertu ohi dira eta, gehienetan, antzerkiarekin erlazionatuta daude: zintzarrotsak, toberak, xaribariak, asto-lasterrak, maskaradak eta abar. Izan ere, Erdi Aroan hasi arren, batik bat, XV-XVI. mendeetan, komedia edota auto sakramentalen atsedendietan ere isekazko antzerki-emanaldiak antzezten ziren (pastoral askotan egin ohi den bezala). Hemen jasotako testu apurrak, oso laburrak eta, gehienbat, ezkontzaren inguruko burlazko zirikadak dira.

Arageako Petrika

XVI eta XVII. mendeetako sorginkeriaren aurkako epaiketa anker eta neurrigabeen giroan, Pierre de Lancrek (1553-1631), oroitzapen gaiztoko inkisidoreak, bere *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons* (...) (1612) lanean, bertso honen bi aldaera jaso zituen. Sorginkeria salatutako Maria Tornariarena delako batek ere errepikatu zuen bertsoa aitorten batean, 1680an. Tradizio luzeko testua, beraz, aldaera bat baino gehiago dituen.

Lancrerentzat, lerro hauetan esaten diren hitzak, Deabruaren ohorez ospatzen ziren Sabbat edo akelarre batzarretan, gurutzearen seinalea egiterakoan kristau gurutzeaz eta Hirutasun Santuaz iseka egiteko erabiltzen ziren. Inkisidore erdaldunarentzat –agian “Jainko” / *Janikot* hitzen antzekotasunaz nahasita edo nahaste hori bere helburuetarako baliatuz–, *Janikot* hori Jainkoa omen zen, Deabruak eta sorginek Jainkoari ematen zioten izena, eta, hortaz, hitz horiek Jainkoari egindako burla ziren. Bertsoek, ordea, ez omen dute zerikusirik erlijio gauzekin, erregeen arteko borrokekin baizik. Pedro IV.a Aragoikoa (1336-1387), *Arageako Petrika* ezizenez, eta Joan I.a Gaztelakoa (1379-1390), *Janikot*, dirudienez, ez ziren oso maitatuak Euskal Herriko jende xehearen artean. Ahapaldi haue-
tan iseka egiten da haietaz. Bertan, hitz joko bat sortzen du egileak: *Patrika* (latinezko *patris*, aita), *Patrika* (poltsa, euskaraz) eta *Petrika* (Pedro, gaztelaniaz) konbinatuz.

Lancrek jasotzen dituen bi aldaerak biltzen dira hemen.

Jatorrizko iturria: Pierre de Lancre (1612), *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons, où il est amplement traité des sorciers et de la sorcelerie* (...), 457-458. or.

Bertsio eta oharren iturria: Ibon Sarasola (1983), “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *ASJU*, 109. or.

In nomine Patrika¹,
Arageako Petrika²,
agora, agora³ Valentzia,
juan da gure gaitz guztia.

* * * * *

In nomine Patrika,
Arageako Petrika,
Gaztelako Janikot,
ekidak ipordian pot⁴.

¹ Kristautasunean, gurutzearen seinalea egiterakoan erabiltzen den latinezko formularen hasiera, isekaz moldatua: *In nomine Patris* ..., hots, “Aitaren ... izenean”. *Patrisen* ordeaz: *Patrika*. ² Aragoiko Petrika (Pedro). ³ Gaztelaniazko *ahora, ahora*: orain, orain; une honetan, une honetan. ⁴ egidak, emaidak, ipurdian musu.

Martitxo Musuren kopia

XVI. mendearen erdialdeko epai-dokumentu batean, Etxalekuko (Imotz) auzoko bartzuen lekukotasunak jasotzen dira, zeinetan Maria Iturburuaren eta honen senarraren, Martitxo Musu lekaioaren, gertaeren berri ematen den. Diru arazoak izanik eta senarraren onarpen etsituaz, Mariak Etxalekuko bere jauregia saltzea erabaki zuen. Eroslea, Felipe de Beaumont jauntxoa, etxeaz gain, emazteaz ere jabetu zen, Uharte-Arakilgo bere egoitzara eraman baitzuen. Martitxo Musu, etxerik eta emazterik gabe, ahal izan zuen tokira erretiratu behar. Ondorioz, herrian, isekazko bertso edo kopia hau kantatu zen, ziur asko Martitxo Musuren kontrako zintzarrots batetik hartutakoa.

Jatorrizko iturria: Nafarroako Artxibo Orokorra, *Procesos*, 197511 zenb. 1541-1546 bitarteko data duen auzia.

Bertsio eta oharren oinarria: Ricardo Urrizola Hualde (2007), "La copia de Etxaleku", *FLV*, 59-63. or.

Antzareak¹ oina xabal
buztaina laburko²...
Nork berea demana³
beti da bellako⁴.
Martitxo Musu da halako
eta hala zainezko⁵.

¹ Antzarak. ² labur(re)ko. Hautabidea: *laburra* (Urrizola). ³ berea ematen duena.
⁴ bilau, doilor. ⁵ eta halako leinukoa, kastakoa / eta hala gainera errotik, jatorriz; halako izatea berezko du.

Orain negua bada bere

Azkoitiko herriari dagozkion Iruñeko elizbarrutiko paperen artean, bada bat 1566koa, non Domingo Aranguren eta Sebastian Lasao izenekoek sortutako bertso iraingarri bat jasotzen den. Azkoitiko bizilagun baten izen onari egiten zaio iseka, zeina faltsu eta adardun, senar engainatutzat hartzen den. Herri giroko trikimailuak.

Bertsoa esaera arrunt batez hasi eta, segidan, udak ekarriko duen *txori naturalea* aipatzen da. Liskarra zela-eta antolatu zen prozesuan, lekuko batek azaldu zuenez, udako txoriaren irudiak sakoneko beste esanahi bat zuen: udan kukua agertu ohi da eta herri-sineskerian, adardunen, senar engainatuen, txoria omen da. *Txori naturalea* irudiak, bestalde, seme bastarta ere adieraz zezakeen.

Dokumentuak bi aldaera dakartza. Hemen, Jose Maria Satrustegik egindako zehaztapenetan oinarritutakoa aurkezten da.

Jatorrizko iturria: Azkoitiko Udal Artxiboa, *Auziak*, 26. paper-sorta, 1 zenb.

Bertsio eta oharren oinarria: Jose Maria Satrustegi (1991), "Miscelánea de textos antiguos vascos", *FLV*, 289-290. or.

Orain negua bada bere
etorriko da udea,
udaonek ekarriko deu
txori¹ naturalea,
txorionek esango deu
berak dakian kantea.

¹ Aldaera: *txoritxo*.

Martin Sanzen koplak

Nafarroako Artxibo Orokorrean aurkitzen den dokumentu batean, Imarkoainen (Elortzibar), 1600eko San Martin jaieren gauean gertatutako tirabira baten berri ematen da. Gau hartan, mutil gazte batzuek zintzarrotsak egin zituzten, zintzarriak astinduz eta tronpeta edo adar bat joz. Gazte haien artean zen Martin Sanz, eta bi koplak kantatu zituen. Batzuek zintzarrotsak garaiko ohitura eta jai giroko zalaparta soiltzat hartu bazituzten ere, Maria Santesteban andreak gazteen aurkako kereila jarri zuen: etxe aurrean bere kontrako irainak bota, kanta itsusi eta iraingarriak kantatu zituztela, eta aipatutako kopletan bere inude baten eta gizon alargun baten arteko ezkontzaz iseka egiten zela. Ondoko prozesuan, lekuko batek eta fiskalak direlako koplak jaso zituzten.

Jatorrizko iturria: Nafarroako Artxibo Orokorra, *Procesos*, 296389 zenb.
Bertsio eta oharren oinarria: Fernando Maiora Mendiá (2011), *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*, 109-111. or.

Landan eder olatze¹
begi duenak aretze²...
Lizentziarik bagindu³
koplatzera gendozke.

Espoz zara zu,
bai atsegin baduzu⁴,
zeure andre galanta hori
ongi besark(a) ezazu⁵.

¹ olo-sail(a), oloaga. ² zaintzen duenak aratxe, zekor(ra) (izaten du); begi ona duenak txahal(a) (izaten du). ³ baimenik bagenu. ⁴ baiki, benetan, atsegin baduzu (baiespena) / benetan gogoko, gustuko, baduzu (baldintza). ⁵ Eskuizkribuan: *besar-queçaçu*.

1.6. LAUDORIOZKOAK

Laudoriozko literatur testuak ohikoak izaten dira literatura guztietan eta maiz epikarekin lotuak. Horrela, epika kanta gogoangarriak, *Mahabharata*, *Ramayana*, *Iliada*, *Eneida*, *Chanson de Roland*, *Cantar de Mío Cid*..., heroi baten –Rama, Roldan, Cid...– edota heroi bat baino gehiagoren gainean –Akiles, Hektor, Agamemnon..., *Iliadan*, esaterako– izaten ziren eraikiak, eta ekintza loriosak, luze eta korapilatsuak biltzen zituzten.

Epikazko herri-kanta oparo hauez gain, badira gorazarrezko kanta laburragoak, izaki edo gizaki, garaipen edo egitandi zehatz baten gainekoak, *flash* edo zertzeladez osatutako marrazki baten modukoak. Mota honetako laudoriozko testuek greziar eta erromatar literaturetan jainko-jainkosei eskainitako himnoetan izan zuten hasiera. Handik, zabalduz, enperadoreei eta gerlari arduratsuei dedikatutakoak daude. Erdi Aroan, kristau liturgian, Jainkoari eta santu-santei eskainitakoak ugaritu ziren. Mendeak aurrera egin ahala, giza-banakoaren protagonismoa nagusitzen ari zen heinean, laudoriozko konposizioak pertsona jakin bati egindakoak izaten ziren: “Le couronnement de Louis” (1137 ing.) Frantzian, edo “Coronación de Alfonso XI” atala (*Poema de Alfonso XI*, Rodrigo Yáñez, 1350 ing.) Gaztelan, adibidez. Errenazimentuan areagotu egin zen joera honetan kokatzen da baita ere hemen jasotako “Gure printzipe don Henrike jaunari” (1554) poema laburra.

Behin baino gehiagotan, neurtizlari edo kantagileek, euren laudoriozko bertsoetan, pertsona goratuaren merituak puztu egiten dituzte, agintari, jende aberats edo boteretsuen faboreak bereganatzeko helburuz.

Bretainiako kanta

Bretainiako konderria sagu habia bat izan zen XV-XVI. mendeen bitartean: noiz Ingalaterrako erregeen basailutzan, noiz Frantziako protektoratupean, Espainiako erregearen laguntzapean, eta Nafarroako edo Austriako babesean. Aldi berean, kortsarioak (Lekeitiokoak, Zumaiakoak... barne) beren kasa ibiltzen ziren Bizkaiko Golkoan. Salinasko kondea buru zuelarik, 1489an, Pasaiaiko portutik, bretainiar *gaiztoen bekatuak* zigortzera itsas espedizio bat nola irten zen kontatzen du kanta honek. Lauki edo tapiz bat da, Salinasko XVI. kondeari gorazarre hanpurutsua egin eta euskal gizarteari buruz berri emateko kronika bat, erlijio markaz beterikoa: *bekatuak*, *abade*, *prozisioan*, *bendizio*, *belauriko*, *jaungoikoa*. Garaipen handiaren bila joandako flota atarramentu gutxirekin itzuli omen zen.

Beste euskal kanta zaharretan ez bezala, hemen ez dago ez gogorkeriarik, ez epika zantzurik, ezta errima, paralelismo, aliterazio eta interpretazio zaileko arkaismo lexiko edo morfologikorik; tonua ere ez da garaiko genero epikoarena. Kanta ote den ere zailantzan jarri izan da. Ulergarria, beraz, Sarasolak (1983) testua tentuz aurkeztea eta itxura moderno samarrekoa dela esatea. Alfonso Otazuk (1975), testua aurkitu zuenak, dokumentuan ageri den kopia ia ziurki 1590. urtea baino lehenago idatzia behar zuela eta 1491-1510 bitartean izan zitekeela sortua adierazten du.

Jatorrizko iturria: Artxibo Historiko Nazionalea (Madril), Osuna saila, 543. paper-sorta, 335 zenb.

Bertsio eta oharren oinarria: Ibon Sarasola (1983), "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *AS/U*, 77-82. or.

Salinasgoa konde / guztien da jabe¹,
Gipuzkoa herrian / on² guztien burua.
Guztioek digoe³ / borondatez segitzen
ganboarrakin / oñaztarrok konforme
Bizkaitikan bere / akonpainatzen debe⁴
bretoe gaiztoen / bekatuak kastigatzen.
Konde handiorrek / juntadu ditu laster
Donostiako hirian / Pasajen⁵ enbarkatu
ontzi handiak txipiakin / flota handia atera
10 Frantziaren bistan / zitudadea dirudi.
Donostiako murruan⁶ / islaren goienean
abade guztiak / daode⁷ prozisioan
mila bendizio / egozten digoela⁸.

¹Salinasko konde guztien jabe da (Aresti: in Otazu) / Salinasko kondea guztien jabe da (Urkizu: in Otazu). ²(pertsona) on (Aresti) / ondasun (Urkizu). ³diote. ⁴dabe: dute. ⁵Pasaian. ⁶murailan, harresian. ⁷daude. ⁸botatzen diotela (Aresti) / botatzen digutela (Urkizu).

20 Dontzeila guztiak / daode belauriko
Jaungoikoa debeela / erreguten⁹
degiola¹⁰ eman / konde laztanari
bitoria handia / gaiztoen kontra
Bretaina guztia / bentziturik datorren¹²
konde galantori / Gipuzkoa herrira
non izango baita / beti bezela buru
Nobleza guztiaren / anitz estimatua.
Pobluaren onra / danak bezela¹³
guztiak daduzka / bere agintean.
Guztiok dioe¹⁴ / hamar bider amen.

⁹ Jaungoikoa erregutzen dutela; Jaungoikoari eskatzen diotela. ¹⁰ dagiola, die-
zaiola. ¹¹ (izan) dezala. ¹² Bretainia guztia garaituta datorrela, etor dadila.
¹³ (izaten) denak bezala; denez gero. ¹⁴ diote.

Gure printzipe don Henrike jaunari

Bernard du Poey idazle bearnesak, 1554an, Tolosako (Okzitania) Jacques Colomiés moldiztegiari, liburu bat argitaratu zuen Frantziako Henrike IV.a errege izango zenaren jaiotzaren ohoretan, hainbat hizkuntzako poemak bildurik. Poema horien artean, hizkuntza noblez, latinez eta grekoz, idatzitakoez gain, gero eta gehiago balioesten ari ziren herri-hizkuntzez idatzitakoak ere agertzen dira, hala nola: frantsesa, alemana, gaztelera, italiera, eta, hain zuzen, breizera, okzitaniera eta euskara. Hona, beraz, Henrike Borboikoari –Joana Albretekoaren eta Antonio Borboikoaren semea, hots, Margarita Nafarroakoaren bilobari– eskainia zaion olerkia euskaraz. Henrike Borboikoa, Henrike III.a Nafarroako errege (1562-1610) eta, geroago, Frantziako Henrike IV.a errege ere (1589-1610) izanen da.

Nahiz olerkiaren idazlea ezezaguna den, Nafarroa Garaikoa dela susma daiteke. Laudoriozko olerkiari dagokion moduan, handitasuna edo gorentasuna adierazten duten hitzak txertatzen dira: *handi* hiru aldiz, bitan *guzi*, eta antzeko beste zenbait, hala nola *oro*, *hanbat* edo *noble*. Azpimarratzekoa da gaztelaniaren eragina: *printzipe*, *igoala*, *varon*.

Jatorrizko iturria: Bernard du Poey (1554), *Poésie en diverses langues sur la naissance de Henri de Bourbon Prince très heureux, né au château de Pau au mois de décembre 1553*.

Bertsio eta oharren oinarria: Jean Haritschelhar (1983), “Une poésie basque du milieu du xvième siècle (1554) (...)”, *Iker-2. Piarres Lafitte-ri omenaldia*, 259-274. or.

Gure printzipe¹ don Henrike jaunari

Mundu guzia huna betor, haur noble honengana,
oin eskuen apatzera², jaun handiari bezala.
Ez jaio da ez jaioko ihor³ honen igoala
hanbat bada seinale handi zeruan dakusaguna.
Lengoaie orok badiote *varon*⁴ handia zarala
nik diotsut ziratela⁵ jaun guzien jauna.

¹ printze. ² oin-eskuetan muin ematera. ³ inor. ⁴ Gaztelaniatiko mailegua: *varón*. Hitzak, berez, sexu maskulinoko pertsona adierazten du, baina baita ere, inoiz –hemen adibidez–, gorazarre zentzuan: gorputz eta espiritzuko dohainez hornitutako gizasemea. ⁵ izango zarela.

2. BERNAT ETXEPARE (1486?-1545...)

Ez dakigu non eta noiz sortu zen ^{xvi}. mendeko olerkaria. Dakiguna da Garazi aldekoa zela, Eihalarreko erretorea zela (Rector Sancti Michaelis Veteris) eta denbora berean Garaziko bikario nagusia. Pentsa daiteke, batzuen arabera, sortu zela Duzunaritze herriko Sarrasketa auzoko Etxeparean, itxuraz ^{xvi}. mendekoa, oraindik zutik dagoena. Bizpahiru dokumenturi esker eta berak bere olerkietan salatzen duenari esker, zerbait ikasten dugu, ahortzi gabe bere garaiko Nafarroa Erresumaren historia nahasia ^{xvi}. mendearen hasieran (1512-1530):

1511ko urtarrilaren 11n, Bertran de Lehet Baionako apezpikuak Zaroko eta Eihalarreko erretore izendatzen du bere merituak kontsideratuz (Urkizu, 2012).

1518an Bernar de Chaparre, Eihalarreko erretoreak zin egiten dio Espainiako erregeari Gonzalo Pizarro kapitainaren aurrean.

1520an Espainiako erregearen zerbitzari leiala dela dio bertze dokumentu batek, Garaziko bikario nagusia delarik, kargu horretarako gai dela jakituriaraz eta fama onez.

1533an Baionako sinodo batean agertzen da Bertrandus de Chaparre, Rector Sancti Michaelis Veteris.

1559an bertze dokumentu batean agertzen da Maestre bernard de echapare, baina familia bereko bertze norbait izan daiteke “maestre” izenarengatik, berak Mosen titulua aipatuz olerki batean.

Hain zuzen, “Mosen Bernat Etxeparere kantuia” deritzanean, erraiten du Erregek deitu zuela Biarnora izterbegiek edo etsaiek gaizki salaturik eta han egon zela “gatibu”: *Erregeri, dakidala, nik ez dizit faltatu / zeren egon behar dudan hanbat gatibu*. Baina ez dakigu ez zertako deitua izana zen, are gutiago zenbat denbora egon zen Biarnon “gatibu”.

Mosen Bernat Etxepare *mosen* espainiar tituludunak argitaratu zuen bere olerki liburua 1545ean Bordelen, Morpain jaunaren moldiztegian latinezko tituluarekin *Linguae Vasconum Primitiae* edo euskal hizkuntzaren hastapenak, berak dioen bezala: *Erregeren abokatu bidezko eta nobleari, birtute eta on guziez konplituari, bere jaun eta jabe Bernard Leheteri* esker. Liburu hori *unicum* bat da Frantziako Liburutegi Nazionalean (Paris) dagoena, baina, Oihe-

nartek dioen bezala, bigarren edizio bat egin zen Erruan hirian Adrian Morront-en moldiztegian, ez duelarik erraiten noiz; xix. mendean, 1847an Franck-Michelek *unicum* delakoa lorturik agertu zen Bordelen frantses itzulpenarekin, gero Baionan 1874an Casals moldiztegian, 1893an Bordelen berriz ere, erakustera ematen duela bigarren bizi bat hartu zuela xix. mendean. Baina erran daiteke zinez salbatua dela Etxepareren obra, faksimile gisa Julio Urkixok publikatu zuelarik atalka *RIEV* (*Revista Internacional de Estudios Vascos*) aldizkarian eta liburu gisa 1933an Lopez Mendizabalen irarkolan. Gerotik agertu da Donostian 1968an espainiera eta frantses itzulpenekin, baita ere Euskaltzaindiak 1980an Patxi Altunak paratu zuen edizio kritikoa eta, azkenik, 1995ean espainiera, frantses, ingeles, aleman eta italierazko itzulpenekin, jalgi zedin Etxepareren liburua *mundu guzira*.

Linguae Vasconum Primitiae liburuan agertzen dira Euskal Literaturak baliatuko dituen gaiak: erlisioneak, amodioa, autobiografia eta hizkuntza. Erlisioneko olerkietan bada alde batetik “Doktrina kristiana” deritzana eta bertzetik “Judizio jenerala”.

Lehenak biltzen ditu Elizaren irakaspenak, nola ibili behar duen kristauak, goiz eta arratsean, hilerrian, elizan bataiarria eta gorputz saildua ikustean, gurutzearen aitzinean, zer egin behar duen igandeetan. Etxeparek eskaintzen du bere pentsamoldea heriotzaren aurrean, azken oren latz horretan, dakielarik jutatua izanen dela, paradisura altxatua edo infernura igorria. Aipatzen ditu herioaren kontra diren armak eta azkenik hamar manamenduak kristauren salbatzeko Jainkoak emanak.

“Judizio jenerala” da Erdi Aroan maiz eta maiz aipatutako gaia, nola hil guziak bilduak izanen diren Josafateko ibarrean mundua akabatuko delarik eta, orduan, bakoitzak jakinen duela zer bilakatuko den. Hasten da vi. mendean Ravennako mosaikoekin, segitzen du erromaniko eta gotiko eliza atee-tako zizelkaduretan eta bereziki xiv. eta xv. mendeetan Pietro Cavallini, Jan Van Eyck, Fra Angelico, Hans Memling, Jeronimo Bosch eta, oraindik xvi. mendean, Michelangelo Buonarroti margolariekin, zerrenda horrek erakusten duela zein hedatua zen gai hori Europan.

Amodiozko olerkietan sartu aitzin, zubi gisa dauzkagu bi olerki. “Amorosen gaztiguia” delakoan argi eta garbi lehentasuna ematen dio amodio dibi-noari, profanoa baztertuz: *Bertzek bertzerik gogoan eta nik Andre Dona Maria; / andre ona dakigula guzior, otoi, bala*. “Emazten fabore” olerkian altxatzen da emazteen gaitz erraileen aurka, Eva, paradisuaren galtzailearen alabak izanez. Emaztearen kalitate guziak goraipatuak dira: ama lehenik bere haurrak haziz eta heziz, gizonaren zerbitzari leiala, bertutez betea, ahantzi gabe eman dezakeen gozamina gizonarekin juntatzen delarik.

Amodiozko olerkiek aipatzen dituzte kasu bereziak, apez batek entzun zitzakeenak kofesioetan. Bi multzo dira. Lehenak biltzen ditu “Ezkondui

koplak", ezin lortuzko amodioa ezkondua delakotz andrea; "Amoros sekretuki dena", herabe delakotz amorantea ezin aitortuz daukan amodioa; "Amorosen partitzia", partitzeak sortzen dituen oinazeak; eta "Amoros jelosia", hau ere pairamenez betea.

Bigarren multzoak aipatzen du gizonaren ausartzia. "Potaren galdatzia" da musu bat ebastea jostatzearekin; "Amorez errekeritzia" da elkarrizketa baten bitartez emaztearen bereganatzea, nahiz galtzen duen partida; "Amorosen disputa" bukatzen da neskaren bortxatzearekin. Azken olerkia "Amore gogorraren despita"k erakusten du nola neskak baztertzen duen amorosa, hitz bortitzak erabiliz bere erantzunean.

XVI. mendekoa da Etxepare amodiozko olerkiengatik, gaitzetsia izanen delarik XVII. mendean, bereziki Oihenartenganik, eta zentsuratua XIX. mendeko edizioetan, baztertuz "Emazten fabore"ko bi ahapaldi gordinegiak zirelakoan. XVI. mendekoa da halaber "Kontrapas" eta "Sautrela"rekin: sartzen baita orduko hizkuntzen arteko borrokan, latina baztertuz, bertze hizkuntzak goraituz, hala nola frantsesa 1539an, Villers-Cotterêts-ko manuari esker, bultzatuz euskara munduko hizkuntzen dantzara.

Hizkuntzari buruzko bizpahiru ohar orokor. Zenbat eta ekialderago jo, orduan eta hedatuago dago, geroa adierazteko, genitiboaren *-en* atzizkia erabiltzea adizkietan: *egin > eginen*, *egon > egonen*, *eman > emanen*, *izan > izanen* eta abar. XVI. mendean, Etxeparek eta Leizarragak *-en* atzizkia baliatzen dute edo *-ren*, bokal batekin bukatzen delarik, geroaren adierazteko partizipio burutuekin: *ebiliren (ebiliko)*, *faltaturen*, *jarriren*, *irekiren* eta abar. Emeki-emeki *-ko* atzizkia nagusituko da. Alabaina, oraindik ere, *-en* edo *-ren* enplegatzen eta hobesten dira olerkietan; *-ko* prosarako utziz. Bestalde, *-ko* baliatzen da beti aditz izenarekin, Etxeparek bere hasierako eskaintzan egiten duen moduan: *eskribatzeko on dela (...) plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igaraiteko materia (...)*.

Garaziko euskalkian badira adizki bereziak: zukako aditz formak, *izan* eta *ukan* aditzen paradigmetan, eta *iron* aditzaren ahalezko formak. *Izan* aditzean, esaterako: *nuzu (naiz)*, *duzu (da)*, *zuzun (zen)*... *Ukan* aditzean: *dizit (dut)*, *dizi (du)*, *zizin (zuen)*, *nizi (nau)*, *nizie (naute)*... *Iron* aditzean, berriz: *niro (nezake)*, *diro (dezake)*, *liro (lezake)*, *hiro (hezake)*... Hemen hautatutako testuetan, adizki hauen erabilera, besteak beste, "Amorosen disputa", "Mosen Bernat Etxeparere kantuia" eta, nabarmenen, "Amorez errekeritzia" konposizioetan ematen da.

Adizki hauen irakurketarako hala nola testuen bertsiorako Patxi Altunak paratutako edizio kritikoa (1980) hartu da oinarritzat.

Atal arduraduna: Jean HARITSCHELHAR

2.1. ATARIKOA(K)

Gomendiozko karta Bernard Leheteri

Ez da dudarik ezagutzen zituela Etxeparek arabera gomendiozko kartak frantses edo espainol literaturetan. Goraipatzen da babeslea bai izen eta izenondoei esker, liburu egileak, aldiz, erakusten duela ikustatea eta umiltasuna esker oneko hitzen bitartez.

Azpimarratzekoa ere bada nola baliatzen dituen hirukoteak izenetan, izenondoetan eta aditzetan ere, hala nola *goraintzi, bake eta osagarri edo abil, animos eta jentil edo estimatzen, goratzen eta ohoratzen*. Pentsa daiteke horrelako erretorikaz baliatzen zirela apaizak beren predikuetan eta gero idazkietan, adibidez Axularren *Gero-an*.

Erregeren abokatu bidezko¹ eta nobleari, birtute eta on guziez konplituari², bere jaun eta jabe Bernard Leheteri, Bernard Etxeparekoak, haren zerbitzari xipiak, gogo onez goraintzi, bake eta osagarri.

Zeren baskoak baitira abil³, animos⁴ eta jentil⁵, eta hetan izan baita, eta baita, zientzia guzietan letratu handirik, miraz nago⁶, jauna, nola batere ez den asaiatu⁷ bere lengoaje propioaren faboretan euskaraz zerbait obra egitera eta eskributan imeitera⁸, zeren ladin⁹ publika mundu guzietara bertze lengoajiak bezala hain eskribatzeko on dela. Eta kausa honegatik gelditzen da abataturik¹⁰, ezein reputazione bage, eta bertze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daiteiela¹¹ lengoaje hartan, nola bertze orok baitute eskribatzen berian.

Eta zeren orai zuk, jauna, noble eta naturazkoak¹² bezala, baituzu estimatzen, goratzen eta ohoratzen euskara, zuri, neure jaun eta jabia bezala, igorten darauritzut¹³ euskarazko koplak batzu ene ignorantziaren araura¹⁴ eginak. Zeren, jauna, haiek ikusirik eta korrejiturik plazer duzun bezala, irudi bazautzu, inprimierazi ditzazun eta zure eskutik orok dugun¹⁵ joia ederra, inprimiturik euskara, orano izan ez dena, eta zure hatse¹⁶ onetik dadin aitzinerat aumenta, kontinua eta publika mundu guzietara eta baskoek, bertzek bezala, duten¹⁷ bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina eta plazer hartzeko, solas egiteko¹⁸, kantatzeko eta denbora igaraitzeko materia, eta jinen direnek gero duten kausa oboro¹⁹ haren abantzatzeke eta obligatu giren²⁰ guziak Jeinkoari otoitz egitera, dizun²¹ mundu honetan prosperoki bizia eta bertzian parabisuia. Amen.

¹ zuzen, justu. ² hornituari. ³ trebe. ⁴ kementsu. ⁵ gisako, behar bezalako.
⁶ miraturik nago. ⁷ saiatu, entseatu. ⁸ ipintzera. ⁹ ledin; zedin (alegiatzko ñabarduraz).
¹⁰ beheraturik, behehiturik, gutxiturik. ¹¹ daitekeela. ¹² izate edo leinu onekoak.
¹³ dizkizut. ¹⁴ arabera. ¹⁵ guztiok ukan dezagun. ¹⁶ hasiera.
¹⁷ ukan dezaten. ¹⁸ mintzatzeko. Jatorrizkoan: *solaz*. ¹⁹ ukan dezaten arrazoi, xede, gehiago.
²⁰ obligatu izan gaiten. ²¹ eman diezazun.

2.2. POESIA

Judizio jenerala (226-247)

Giristinoek beren bizi guzian gogoan daukaten beldurra adierazten du Etxeparek; profetek, Joanes Batistak eta Kristok berak iragarriak errepikatzen da “Sinesten dut” otoitzean nola Kristo etorriko den bizien eta hilen jujatzera. Orduan betiereko zoriona edo zorigaitza ezagutuko du bakoitzak, paradisua edo infernua: *mundu oro jarriren da bi lekutan hertsirik / glorian ezpa ifernuan; ez da eskapatzerik*.

Olerki epikoetan bezala Etxeparek hautatzen du *laisse* deritzan neurtitz multzoa (hemen bost edo lau neurtitzekoa) asonantzia edo errima berarekin.

Judizio jenerala

Judizio jeneralaz nola orit¹ ez dira,
bekatutan bizi dira beti bere aisira²;
egun hartan gal ez giten³, aitzinetik begira⁴,
han orduian ez dukegu ehork⁵ ere aizina⁶;
230 hartzaz untsa oritzia zuhurtzia handi da.

Arma! Arma!⁷ Mundu oro judizio handira!
Zeru eta lur ororen kreadore handia
munduiaren jujatzera rigoroski⁸ heldu da;
nola gauden apaindurik batbederak begira.

Manamendu igorten du mundu guzietarik
jende oro bat dakion Josafaten⁹ bildurik;
ehon¹⁰ ere ehor ere eskapatu gabarik
zeru eta lur guzia daude ikaraturik.

Herioa manatzen du, ezein falta gabarik
240 hilak oro dakatzela¹¹ aitzinera bizirik,
hantik harat ez dukela¹² botererik jagoitik¹³;
mundu oro jarriren da bi lekutan hertsirik¹⁴;
glorian ezpa¹⁵ ifernuan; ez da eskapatzerik.

¹ oroit. ² gogara. ³ ez gaitezen. ⁴ aurrez ikusi, aurretiaz kontuak atera.
⁵ ez dugu izango nehork, inork. ⁶ astia, aukera. ⁷ Atzarri! atzarri!; Erne! erne!;
Ordua da! ordua da! Deia adieraziz. ⁸ garrazki, zorrozki. ⁹ “Josafat”: Judizio je-
neraleko biltzar tokia. ¹⁰ nehon, inon. ¹¹ dakartzala, ekar ditzala. ¹² handik au-
rrera ez dukela; ez duela izango (alegiakoa). ¹³ botererik gaurdanik, hemendik goiti;
jadanik botererik, aurrerantzean botere gehiagorik. ¹⁴ estuki hertsirik, itxirik. ¹⁵ ez
bada; edo.

Manatzen du ifernuia handi¹⁶ eta bortizki
han direnak igor (d)itzan¹⁷ luzamendu gaberik,
arima eta gorputzetan nahi tuiela¹⁸ ikusi
eta emanen daraiela¹⁹ zer baitute merezi.

[...]

¹⁶ handi(zki), handiro. ¹⁷ Jatorrizkoan: *ygoriçan*. ¹⁸ dituiela: dituela. ¹⁹ diela.

Judizio jenerala (290-306)

Egun handi hura etortzen denean, mundu guzietarik jinikako jendea bildurik, ba-koitza jujatua izanen da. Juje jauna agertzen da haserre gorrian. Orduan denek agertu behar dute, zeruko sainduak isilik egonen dira, arartekorik ez delarik izanen Jainko handiaren aurrean.

Etxepare *Ubi sunt (Non dirate)* delakoaz baliatuko da lerrokatuz handi-mandi kargudunak erregeekin hasiz Elizako nagusiak barne denak, handiak ala ttipiak, nehor ahortzi gabe.

[...]

290 Non dirate¹ egun hartan hebengo jaun erregiak,
duke, konde, markes, zaldun eta bertze jaun nobliak
eta haien armadako gizon sendoen balentziak?²
Ordu hartan baliako guti³ haien potentziak.

Jurista eta teologo, poeta eta doktoriak,
prokurador⁴, abokatu, juje eta notariak?
Ordu hartan ageriko klarki haien maliziak
eta guti baliako kautela⁵ eta parleriak⁶.

Aita saindu, kardenale, apez eta prelatuak?⁷
Berez eta ardi oroz eman behar han konduia;
300 egun hartan handiena izanen da erratuia⁸
eta bardin jujaturen handia eta xipia.

Afer date⁹ egun hartan hari apelatzia,
ehon ere ez dazagu¹⁰ jaunik bere gainian;
malizia gaitzi zaika¹¹ eta maite egia.
Helas¹², otoi, orok egin orai penitentzia,
egun hartan gero ez dugun¹³ egiteko handia.

[...]

¹ izango dira. ² 1545eko edizioan, ez da galdera markarik agertzen. Hemen eta hurrengo testuetan erantsitako galdera markak, galdera intonazioak eskaturik dira ezarriak. ³ balio gutiko. ⁴ fiskal. ⁵ maltzurkeria. ⁶ elasturiak, hitzontzikeriak. ⁷ eliz-buruak, elizako goi kargudunak. Hots, non dira aita saindu (...) ? ⁸ desbideratua, galdua. ⁹ alferretan izanen da. ¹⁰ ez du ezagutzen, ez du ezagun. ¹¹ higuingarri zaio. ¹² Ai ene!; Zoritzarrez! Dolamena, atsekabea, adierazten duen hitza. *Hélas!* (fr.) ¹³ ez dezagun izan.

Judizio jenerala (307-328)

Ubi sunt delakoaren ondotik dator pasarte hau, hain zuzen jende guzia bildurik da-goela Etxeparek, orduan, erakusten ditu egun ikaragarri hartako seinale handienak lurrean, itsasoan, zeruan, nola dena nahaskatua izanen den. Deskribapen koloretsua, bi aldiz aipatzen duen odola bai eguzki-ilargietan baita ere zuhaitzetan.

Pasarte hau bost ahapaldikoa da, baina lehenbiziko biak bost neurtitzekoak dira, arnasa handikoak, zinez epikoak.

Seinaliak jinen dira aitzinetik tristerik;
elementak¹ ebiliren oro tribulaturik²,
iguzkia, ilargia odoletan etzinik³,
310 itsasoa samurturik goiti eta beheiti,
hango arrainak iziturik ebiliren jalgirik⁴.

Eta lurra izigarri oro ikaraturik,
zuhamuiek⁵ dakartela odolezko izerdi;
tenpestatez, igortziriz⁶, aire oro samurrik⁷;
mendi eta harri oro elgar zatikaturik;
mundu oro jarriren da suiak⁸ arrasaturik⁹.

Juje jaunak manaturen¹⁰, bera jaugin¹¹ gaberik,
gauza oro xahu¹² dezan behin suiak lehenik,
320 satsu¹³ eta kirats oro dohen¹⁴ mundu guzitik;
eta hala jarriren da lur guzia errerik.

Tronpeta da mintzaturen mundu guzietarik:
“Hilak oro, jaiki huna zuien hobietarik,
arima eta gorputzetan oro bertan pizturik”.
Orok hara behar dugu eskusatu¹⁵ gaberik.

Justu oro iganen da bertan goiti airian
eta egonen eskoinetik jujearen aldean;
bekatoreak dolorezki sugarrian lurrian,
harik eta dantzuteno¹⁶ sententzia gainian.

[...]

¹ hasikinak (lurra, ura, airea, sua). ² itzulipurdikaturik. ³ etzanik. ⁴ (uretik kanpo, airean) irtenik. ⁵ zuhaitzek. ⁶ ortzantzez, trumoiez. ⁷ haserreturik. ⁸ suak. ⁹ suntsiturik, hondaturik. ¹⁰ manatuko, aginduko. ¹¹ jin, etorri. ¹² garbitu. ¹³ zikin. ¹⁴ doan; joan dadin, desager dadin. ¹⁵ aitzakiatu, aitzakiarik jarri. ¹⁶ entzuten duteno, entzun dezaten arte.

Judizio jenerala (360-380)

Mundu guzietako jendea bildua da Josafateko zelaian. Jainko Jauna, aingeruez inguraturik dagoela airean eta mintzatzen zaie bortizki, denak lotsatuak daudelarik. Aldarrikatzen du Jainkoak munduaren kreatzailea dela, denak sortu dituela –lurra, sua, ura, airea– jendeen zerbitzuko. Bekatariek, ordea, horiek guziak harturik, pobrea bazterturik utzi dute, eri, gose, egarri eta biluzgorriak. Ordu da jujatuak izan daitezen, bekatoareak infernura eta salbatuak paradisura.

Azken oharra: bukatzen da Judizio jenerala bi otoiitzekin, lehena Jainkoari eta bigarrena, luzea, Andre Dona Mariari.

[...]

360 Ez da anitz luzaturen exekuzionia,
bertan date irekiren¹ lurra oren berian,
su hareki iretsiren oro bere barnian;
haur izanen bekatoren hundar irabazia².

Helas, nola izanen den heben damu handia,
damu handi, izigarri, remediogabia,
hanbat jende sekulakoz damnaturen³ denian.
O, Jaun huna, zuk gitzazu, otoi, hantik begira⁴.

Beretara⁵ itzuliren ditu gero begiak:
“Goazen oro elgarreki, ene adiskidiak,
370 beti eta sekulakoz gauden ene glorian,
desir oro konpliturik alegria handian”.

Hantik harat ez da izanen bi erretatu baiezi⁶:
damnatuia ifernuan beti dolorereki,
salbatuia Jainkoareki beti alegeraki.
Jangoikuak dagiela⁷ gure partia hoieki.

Zeruia ez da ebiliren hantik harat jagoitik⁸,
iguzkia egonen da orienten⁹ geldirik,
ilargia okzidenten¹⁰ begiz begi¹¹ jarririk;
egun honek iraunen du heben eta jagoitik¹²,
380 alabana ez izanen heben gauza bizirik.

[...]

¹ irekiren da. ² hondar irabazia, hots, azken(ik) irabazia. ³ kondenaturen, infernuratuko. ⁴ zaindu. ⁵ Bere direnengana. ⁶ erresuma baizik. ⁷ egin dezala. Hots: Jaungoikoak egin dezala (horiekin izan gaitezen). ⁸ handik aurrera jadanik; aurrerantzean gehiago. ⁹ ekialdean. ¹⁰ mendebaldean. ¹¹ aurrez aurre. ¹² hemen eta gaurdanik.

Emazten fabore

Amodiozkoetan sartu aitzin, bi olerki. “Amorosen gaztiguia” agertzen da lehenik, lehentasuna ematen diola Andre Dona Mariari, baztertuz maitasun profanoak: *Bertzek bertzerik gogoan eta nik Andre Dona Maria*. Nahiz aitortzen duen bigarren ahapaldian: *Nihaurk ere uken dizit zeinbait ere amore*. “Emazten fabore” da bigarrena.

“Emazten fabore” da emazteen alderako mintzaldia, hemen olerkia. Hasten da bi neurtitzeko ahapaldi ttipi batekin (orotara zazpi aldiz), laburbilduz bere ikusmoldea, alde batetik diola *Emaztiak ez gaitz erran*, eta bertzetik *gizonek utzi balitzate*.

Kontuan hartu behar da garai batean emazteak fama txarra zuela Evaren alaba iza-nez, batzuek adieraziz arimarik ez zuela. Olerki honetan emaztea bertutetsua da, gizona, aldiz, ez. Emaztea da lehenik ama, bizi-emailea, haurra hazten eta hezten duena, etxean denen zerbitzari leiala, etxekandere prestua, eta nola gaitz erran gizonarekin datzalarik gozamenaz oroituz. Aurrerapen handia XVI. mendean.

Emazten fabore

Emaztiak ez gaitz erran ene amorekatik;
gizonek utzi balitzate, elaidite¹ faltarik.

Anitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten,
arizki² eta desoneski baitituzte aipatzen,
ixilika egoitia ederrago litzate;
andrek gizoneki bezi³ hutsik ezin daidite⁴.

Zuhur gutik andregatik gaizki erran diroite⁵,
haiez ongi erraitea onestago litzate.

10 Emazteak zerengatik gaitz erranen dirate⁶?
Handi eta xipi oro haietarik girade.

Balentia sinplea da andren gaitz erraitea,
bat gaitz erran nahi badu, oro bardin sartzea;
ixil ladin⁷ nahi nuke halako den guzia;
damu gaitzik⁸ emazteak hari eman ditia.

Andren gaitz erraile orok behar luke pentsatu
bera eta bertze oro nontik ginaden sortu;
ama emazte luen⁹ ala ez nahi nuke galdatu;
amagatik andre oro behar luke goratu.

¹ ez lukete egingo. ² arinki, nolanahika. ³ baizik. ⁴ ezin egin dezakete.

⁵ dezakete. ⁶ izanen dira. Hau da: Emakumeak zergatik izango dira gaizki esaka hartuak? Zergatik hitz egingo da gaizki emakumeez? ⁷ ledin; zedin (alegiatzko ñabarduraz). ⁸ zoritxarrez, damurik. ⁹ luen; zuen (alegiatzko ñabarduraz).

- 20 Gizonaren probetxuko emaztia beti da,
oro behin haietarik sortzen gira mundura;
sortu eta hil ginate, hark haz ez baginitza;
haziz gero egun oroz behar haren aiuta¹⁰.
- Haren eskuz osoan behar soinera¹¹ eta jatera,
eri denian andre gabe galdu gizon egurra¹²;
hil badadi¹³, hura nola nor doake gainera¹⁴?
Ordu oroz behar tugu; ez da heben zer duda.
- Emazterik ez den lekuian ez dakusat plazerik,
ez gizona ez etxia behin ere xahurik¹⁵,
etxian den gauza oro gaizki erreglaturik¹⁶;
30 parabisuian nahi ez nuke emazterik ez balitz.
- Emaztiak ez dut entzun lehen gizona jaukirik¹⁷,
bana gizonak emaztia betiere lehenik;
gaixteria jalgiten da beti gizonetarik;
zeren, bada, daraukate emaztiari hogenik¹⁸?
- Bertuteak behar luke gizonetan handiago,
emaztetan nik dakusat ongiz ere gehiago;
mila gizon gaixtorik da emazte batendako,
gizon baten mila andre bere fedean dago.
- 40 Hek gizoner beha balite¹⁹, ez litzate bat onik,
ez diroite²⁰ deuskai²¹ denik utzi jauki gaberik,
bana anitz emazte da eskapatzen zaienik,
anderetan zeren baita bertutea hobenik.
- Nik ez dantzut emaztiak bortxaturik gizona,
bana bera zoraturik andriari darraika²²;
zenbait andre hel baledi²³ oneriztez²⁴ hargana,
zein gizonen andriari emaiten du hogena²⁵?

¹⁰ laguntza. ¹¹ jantzia. ¹² baldarra. ¹³ hiltzen bada (emaztea). ¹⁴ nor joan daiteke, nor hurbil dakioke, laguntzera? ; nor joango da, nor joango zaio, zaintzera?
¹⁵ garbirik. ¹⁶ atondurik, konpondurik, apaindurik. ¹⁷ erasorik, atakaturik.
¹⁸ ematen diote emazteari hobenik, errurik? ¹⁹ Haiek gizonen kasu egingo baliote.
²⁰ ez dezakete. ²¹ ezertarako gai, onurazkoa. ²² jarraitzen zaio. ²³ etorriko balitz (hargana); etorriko balitzaio (alegiarazkoa). ²⁴ amodioz, maitasunez. ²⁵ hobena, errua.

- Jeinkoak emaztea maite mundu oroz gainetik;
zerutika jaitsi zedin hartzaz amatoririk;
emaztiak ezarri du gure anaieturik;
50 andre oro laudatzeko haren amorekatik.
- Irudi zait emaztia dela gauza ezia,
donario²⁶ guzietan guziz gauza emia;
gaoaz eta egunaz ere badu plazer handia;
hartzaz gaizki erraitia bilania²⁷ handia.
- Munduian ez da gauzarik hain eder ez plazentik
nola emaztia gizonaren petik²⁸ buluzkorrik;
beso biak zabalduzik dago errendaturik²⁹,
gizonorrek dagiela hartzaz nahi duienik.
- 60 Jo badeza³⁰ dardoaz ere gorputzaren erditik,
ainguruiak³¹ bano hoboro³² ez larrake³³ gaizkirik,
bana dardoa ematurik, zauri(a) ere³⁴ sendoturik,
bere graziaz ezarten (d)itu³⁵ elgarreki baketurik.
- Nor da gizon modorroa³⁶ hartzaz orit ez dena
eta gero halakoa gaitz erraiten duiena?
Ez da gizon naturazko³⁷ hala egiten duiena.
Zeren ez du ezagutzen hala ongi egina?

²⁶ xarma, lilura. ²⁷ bilaukeria, itsuskeria. ²⁸ gizonaren pean, azpian. ²⁹ osoki emanik. ³⁰ Jotzen badu. ³¹ aingeruak. ³² haboro, gehiago. ³³ ez lezake erran; ez du errango. ³⁴ Jatorrizkoan: *çauriere*. ³⁵ Jatorrizkoan: *ezarteyntu*. ³⁶ arrunta, bal-darra. ³⁷ jator.

Ezkonduien koplak

Amodio dibinoaren eta amodio profanoaren artean zubi egiten duten bi olerkien ondotik, “Amorosen gatziguia” eta “Emazten fabore”ren ondotik, dator amodiozko olerkietan den lehena: “Ezkonduien koplak”. Argi eta garbi dago amodiozko kasu berezi bat dela: ezin lortuzko amodioa, gizonak maite duen emaztea ezkondua delakotz, lehenbiko bi neurtitzek adierazten duten bezala: *Jangoikoa, edetazu bertzerena gogotik, / bera katiba da eta ni gatibu hargatik*.

Olerkiak bertze bederatzi ahapaldi dauzka lau neurtitzekoak, salbu bosgarrena sei neurtitzekoa, hain zuzen junta balira amoranteak izan litezkeen ondorioak azaltzen dituztenak.

Ezkonduien koplak

Jangoikoa, edetazu¹ bertzerena² gogotik,
bera katiba³ da eta ni gatibu⁴ hargatik.

Ni gatibu nadukana katiba da bertzeren;
ene ditzak⁵ hala egin du, ni gatibu bigaren⁶;
gogo onez izane(n) niz, bizi baniz, bataren,
bana bortxaz baiezilla⁷ ez jagoitik⁸ bertziaren.

Bertzerena har dazanak beretako amore⁹
hoborotan¹⁰ ukenen du plazer bano dolore,
batzarriak¹¹ bekan¹² eta beldurreki dirate¹³,
10 guti uste dutenian gaitza bertan sor daite¹⁴.

Onestea¹⁵ bertzerena erogoa¹⁶ handi da,
plazer baten ukenen du anitz malenkonia:
begiez ikus, ezin mintza; han dakusat nekia;
beriareki datzanian¹⁷ enetako aizia¹⁸.

Perileki baiezilla¹⁹ ezin noake hargana²⁰
eta agian hark orduian ez baituke aizina²¹;
badu ere, beldur date²²; bertan doa hartzara²³;
nik nahien dudanian, bertzek besoan daratza²⁴.

¹ edeki ezazu, ken ezazu. ² Hots, beste (gizon) batena den emakumea.
³ preso. Jatorrizkoan: *captiua*. ⁴ preso. ⁵ suerteak. ⁶ biren (mugagabea). Hau da:
ni biren gatibu (izatea). ⁷ baizik, ez baldin bada; bakarrik. ⁸ hemendik goiti, he-
mendik aurrera. ⁹ Besterena hartzen duenak beretzako amorante. ¹⁰ gehiagotan.
¹¹ elkarretaratzeak. ¹² bakan, noiztenka, noizean behin. ¹³ izango dira. ¹⁴ zori -
txarra bertan sor daiteke. ¹⁵ Oneriztea, maitatzea. ¹⁶ erotasuna. ¹⁷ etzaten de-
nean. ¹⁸ haizea, hau da, deus ez. ¹⁹ Arriskuarekin baizik. ²⁰ ezin naiteke joan
harengana, ezin nakiok hurbildu. ²¹ ez baitu izango astia, denbora. ²² izanen da.
²³ gibelka, atzeka. ²⁴ etzanarazten du.

- 20 Alor hartan hel badakit²⁵ ereitera hazia
eta ene bada ere lastoa eta bihia,
ez batori ahal duket²⁶ ez eta (e)re bertzia;
lan eginaz esker gaixto, galdu irabazia,
bertzerentzat gelditzen da ene zuzenbidia²⁷;
agian gero alabareki ezkonduko semia.
- Amoria ehork²⁸ ere ez du nahi partitu²⁹;
nik ez dakit bertziak bana, ni ari niz bekatu³⁰;
beriareki ekustiaz hain hain³¹ noa penatu,
hek dostetan, ni neketan; orduian errabiatu.
- 30 Jelosia³² ez ditzaket nik gaitz erran sekulan;
maite nuiena nahi ez nuke ehork hunki liazadan³³;
bertzerenaz iza(n) nuzu³⁴ amoros leku batetan,
beria³⁵ jelosturik desesperatzer nintzan³⁶.
- Amoria ezin zentzuz ezin daite³⁷ goberna,
anitzetan onesten du guti behar duiena;
arnoak bano gaizkiago hordi diro³⁸ pertsona;
sarri estaka³⁹, berant laxa⁴⁰, hark atzeman dezana.
- Amoria itsu da eta ez dazagu⁴¹ zuzena,
ez du uste bertzerik dela, lekot⁴² maite duiena;
suiak bano gaizkiago erra diro⁴³ gizona;
40 itsasoak ez iraungi⁴⁴ eratxeki dadina⁴⁵.

²⁵ gertatzen bazait. ²⁶ ez bat hori ahal izango dut. ²⁷ eskubidea. ²⁸ nehork,
inork. ²⁹ partekatu, banandu. ³⁰ bekatu egiten dut. ³¹ Errepikaren bidezko super-
latiboa: anitz, asko; hainbeste hainbeste. ³² Jeloskeriak. ³³ diezadan. ³⁴ naiz (zu-
kakoa). ³⁵ emakumearena denarekiko. ³⁶ ia-ia desesperatu nintzen. ³⁷ ezein
zentzuz ezin daiteke. ³⁸ hordi dezake, mozkor dezake. ³⁹ berehala estekatu, laster
lotu. ⁴⁰ aska, libra. ⁴¹ ez du ezagutzen. ⁴² salbu, ezik. ⁴³ erre dezake.
⁴⁴ ez itzali; ezin du itzali. ⁴⁵ pizten dena; amodioak sutzen duena.

Ezconduyen coplac

Iangoycoa edetaçu vercerena gogotic
Bera captiuada eta ni gathibu hargatic.

Ni gathibu naducana captiuada bercereu
Ene dichac hala eguindu ny gathibu bigaren
Gogo honez içaneniz vicy baniz bataren
Bana borchaz bayecila ez iagoytic verciaren.

Bercerena hardaçanac beretaco amore
Oborotan vqhenendu plazer bano dolore
Baçarriacveqhan eta veldur requi dirate
Guti vste dutenian gayça berran fordayte.

Honestea bercerena erhogoa handida
Plazer vaten vqhenendu anhiz malenconia
Beguyez icus ecin minça handacusat nequia
Bery arequi daçanian enetaco aycia.

Perilequi bayecila ecin noaque hargana
Eta aguian, harc ordüyan ezpaytuque aycina
Baduere veldur date vertan doha harçara
Nic nahyen dudanian bercech beßoan daraça.

E

Alhor hartan helbadaquit ereytëra hacia
Eta ene vada ere lastoa eta vihia
Ez bat ori ahalduquet ezetare vercia
Lan eguinaz esquer gayxto galdü yrabacia
Bercerenzat gueldicenda ene çucenbidia
Aguyan guero alabarequi ez conduco femya.

Amoria ehorc ere eztu nahi partitu
Nicztaquit berciac vana ny aryniz beqhatu
Beriarequi eqhustiaz hayn hayn noha penatu
Hec dotteran ni nequetan orduyan errabiatu

Gelosiac eztiçauet nic gayz erran secular
Mayte nuyena nahi enuque ehorc hunquiliaçadan
Bercerenaz yçanuçü amoro leqhu batetan
Beriaçana gelosturic defelperacer ninzan

Amoria ecyn cençuz ecin dayte goberna
Anhicetan honestendu guti vehar duyena
Arnoac vano gayzqui ago ordidiro persona
Sarri estaca berant lacha harc hazeman deçana

Amoria ixuda eta eztaçagu çucena
Eztu vste berceric dela lecor mayte duyena
Suyac vano gayzqui ago erradiro guişona
Xchallsoac ez yraungui erachequi dadina.

"Ezkonduien koplak". Bernat Etxepare
(*Linguae Vasconum Primitiae*, 1545;
Frantziako Liburutegi Nazionala).

Amorez errekeritzia

Olerki hau sartzen da amodiozko olerkien bigarren multzo batean, ausartzen delarik gizona: “Potaren galdatzia” lehenik, “Amorez errekeritzia” bigarren, “Amorosen disputa” hirugarren, azkena delarik “Amore gogorraren despita”.

Olerkiaren berezitasuna kopla zaharraz baliatzen datza eta, nahiz bi lerrotan inprimatu den, lehenbiziko lerroak badauka barreneko errima eta, beraz, bertze egitura bat du: 7 / 7 / 8+7. “Kontrapas” olerkiarentzat hautu bera eginen du.

Olerki hau, multzoko denetan bezala, emazte eta gizonaren arteko elkarriketan oinarritzen da. Solasaldiari hasiera gizonak ematen dio.

Amorez errekeritzia¹

—Benedika² fortuna! Ala³ enkontru ona!
Orai begietan dizit⁴ desiratzen nuiena.

Ene maite maitena, egidazu zuzena;
joan⁵ duzuna ekardazu, ezpa⁶ eman ordaina.

—Nik dakidan gauzarik ez dadukat zurerik;
lotsaturik jarri nuzu⁷, ez baitakit zegatik.

—Ez duzula beldurrik, ez dukezu⁸ perilik,
gure auzian ez da izanen zuhaur bezi⁹ jujerik.

10 —Ez dut egin gaizkirik ukeiteko perilik,
ez eta (e)re zerengatik behar dudan auzirik.

—Bada, neure maitia, nik diotsut egia:
arrobatu nuzu¹⁰ eta balia bekit neuria.

—Ni ez nuzu ohoina¹¹ arrobatzer nizana¹²;
orai, otoi, ez nadila hogen gabe difama.

—Enetako ohoin zira, ohoin ere handi zira;
nik beharren nuien gauza daramazu zurekila.

—Ni ez nuzu jakintsu; klarki erran ezazu,
ehork untsa adi zitzan¹³ nahi balin baduzu.

¹ hertsatuki, behin eta berriro, eskatzea; galde hertsagarria. ² Gizonaren poza erakutsiz. ³ bai, zein; hau da. ⁴ dut (zukako alokutiboa). ⁵ eroan, eraman. ⁶ edo; edo bestela. ⁷ nauzu / naiz. Berez, biak izan daitezke, baina, itxuraz, “naiz” (zukakoa) bidezkoagoa. ⁸ ez duzu izango. ⁹ zeu, zerori, baizik. ¹⁰ lapurtu, ebatsi, nauzu. ¹¹ Ni ez naiz (zukakoa) lapurra. ¹² lapurtzera prest naizena, gertu dagoena (Altuna; Akesolo) / (baizik) lapurtzear, hots, lapurtua izateko zorian naizena (Lafon). ¹³ nehork ontsa, inork ongi, adi zaitzan.

- 20 —Gizonak duien maitena, bai eta (e)re hobena,
bihotzeko pausua¹⁴ du eta bere lo huna.
- Orai lorik ezin daidit¹⁵, bihotzian ez pausurik;
haiek biak galdu ditut, amoria, nik zugatik.
- Untsa pentsa badezazu, gaizki arrotatu nuzu;
zor handian zaude eta, otoi, untsa egidazu.
- Galdu balin badituzu, zeren hogen derautazu¹⁶?
Nik dakidan lekutarik ni baitara ez dituzu¹⁷.
- Orai egun batetan zenaudela pentsetan¹⁸,
hanbat zutzaz amoratu, geroz nuzu penatan¹⁹.
- 30 —Horla erraitia errax duzu²⁰, ero botzen²¹ badakizu;
zure pena diozunok²² nonbait handi bide (d)ituzu²³.
- Hanbat ere handi tuzu²⁴, ezin erran nitzakezu;
egiara baziniaki²⁵, urrikari nangidizu²⁶.
- Penak handi badituzu, axeterrik aski duzu²⁷;
sarri²⁸ sendoturen zira; larruiri oso duzu²⁹.
- Zauri banintz larruian, bada axeter herrian;
ene mina sendo ez liro³⁰ zuk baiezi³¹ bizian.
- Zure irudi ederrak eta maina jentilak³²
gaizkiago zauri nizi³³ ezi dardo zorrotzak.
- 40 Bihotzian zauri nuzu eta gatibatu nuzu³⁴;
amoretan har nazazu; nik dudana zure duzu³⁵.

¹⁴ atsedena, deskantsua. ¹⁵ ezin dezaket egin. ¹⁶ (ematen, egozten) didazu.
¹⁷ ene baitara, enegana, ez dira etorri (zukakoa). ¹⁸ zeundela pentsatzen, pentsamen-
dutan (Lafon). Hautabidea: *pentzetan*: lorategietan (Akesolo). ¹⁹ hainbeste zutaz amo-
ratu (nintzen, ezen) geroztik naiz penetan. ²⁰ da (zukakoa). ²¹ ero (moduan) pozten.
²² Horrela jatorrizkoan. Agian: dio(t)zun zure pena(-ok), hau da, esaten dituzun zure
pena hauek. ²³ dirudienez, antza denez, handiak dira (zukakoa). Jatorrizkoan: *videy-
tuçu*. ²⁴ dira (zukakoa, aurrekoa bezala). ²⁵ bazeneki. ²⁶ (ni zuri) urrikari nenki-
zuke; nitaz errukituko zinateke. ²⁷ atxeterrik aski da (zukakoa), medikurik aski dago
(Lafon) / aski duzu (Akesolo). ²⁸ berehala, laster. ²⁹ zure gorputz hori osorik da (zu-
kakoa), hots, osasuntsu, gaitzik gabe, dago. ³⁰ ez lezake. ³¹ baizik. ³² itxura pla-
zentak, politak. ³³ nau (zukakoa). ³⁴ zauri naiz (zukakoa) eta arrotatu, xoratu,
nauzu. ³⁵ da (zukakoa).

Ametsetan, agerritan³⁶, ni zugatik doloretan;
hitz bat onik erradazu, hil ez nadin, otoi, bertan.

—Zer nahi duzu darradan³⁷ gauza horren gainian?
Ni nolakorik aski duzu bertzerik ere herrian.

—Bertze oroz gainetik hanbat maite zitut³⁸ nik,
mundu oro utzi niro³⁹ zure amorekatik.

A(ha)l banerra⁴⁰ egia, nik dut pena handia;
sekretuki mintza giten⁴¹ biok, otoi, maitia.

³⁶ zure aurrean; aurrez aurre gaudenean.

³⁸ zaitut.

³⁹ utz nezake.

⁴⁰ erraten ahal banu.

³⁷ Zer nahi duzu erran dezadan.

⁴¹ gaitezen.

Amorosen disputa

“Potaren galdatzia” eta “Amorez errekeritzia”ren ondotik dator “Amorosen disputa”.

Sarrera lehenik bi neurtitez egin haietan azpimarratu behar dela *Uztazu hurrantzera*, erran nahi baita ausartago dela gizona.

Olerki guzia elkarriketatuz egin da, lehenbiziko bi neurtitzak gizonarenak eta gero, aldatuz, andrea/gizona; andreak eginahal guziak egiten ditu gizonarengatik urruntzeko, baina debaldetan, azkenean gizonak bortxatuko baitu. Nahi zuena lorturik, ironiaz betekote hitzak botatzen dizkio emazteari; baita mespretxuzkoak ere, olerki berean sartzen bada –aski arrazoi dagoenez– *Ordu gaitzareki horrat zakitzat* sarbidetzat duen lau neurtitzeko ahapaldia. Orotan neurtitz berezia (6+5).

Amorosen disputa

—Uztazu hurrantzera¹, amore maite,
orai partitzeko damu ginate².

—Amodiak, otoi, parti gitezen³;
jendiak diradela hasi bekaitzen⁴,
laidok hartu gabe geldi gitezen,
jendek irrigarri gerta ez giten⁵.

—Helas, amoria, ene galdua!
Jamas⁶ zurekila ez nainde enoia⁷,
bizirik partitzia pena handia;
10 honein sarri⁸ utzi nahi nuzuia⁹?

—Nihaurk ere gertuz¹⁰ maite bazitut,
onerizte¹¹ gabez uzten ez zitut,
baina Jeinkoaren nuzu¹² beldurtu,
sobera digizi¹³ egin bekatu.

—Orano, amore, gazte gituzu¹⁴,
Jeinkuaz oritzeko leku diguzu¹⁵;
are¹⁶ elgarreki behar diguzu¹⁷,
orai partitzeko damu gituzu¹⁸.

¹ hurbiltzera. ² izango ginateke. ³ gaitezen. ⁴ gaizki ikusten, jelosten.
⁵ ez gaitezen. ⁶ nehoiz (ez), inoiz (ez). ⁷ ez ninteke aspertu. ⁸ honen azkar,
honen goiz. ⁹ ote nauzu? al nauzu? Galdera atzizkia: -(i)a. ¹⁰ Neuk, neronek, ere
dudarik gabe. ¹¹ maitatze. ¹² naiz (zukako alokutiboa). ¹³ dugu (zukakoa).
¹⁴ gara (zukakoa). ¹⁵ astia, denbora, dugu (zukakoa). ¹⁶ oraindik gehiago.
¹⁷ dugu (zukakoa). ¹⁸ gara (zukakoa).

- 20 —Bekatu honetan hilen bagina,
damnatu lukezu¹⁹ ene arima;
ez zitela²⁰ engoitik nitan engana,
niri porogurik ez didazula²¹.
- Sineste bat dizit²² gogoan honela:
nik nola dadukat amore zugana,
Jeinkoari ere eder zaikala²³;
hargatik gaitzetsi ez gitzakela²⁴.
- Horlako lausenguz utzi nazazu;
nola eroturik narabilazu;
otoitzen nitzautzu, niri euztazu²⁵,
30 ene gogoia untsa ez dakusazu.
- Nola diostazu horlako hitza?
Beti dadukazu tema²⁶ bortitza;
joan daraudazu²⁷ lehen bihotza,
gero gatibatu neure gorputza.
- Horlako erantzutez utzi nazazu;
geldi bazinite²⁸ nahi nikezu²⁹;
gure etxian ohart badakizkigu³⁰,
biok jagoitiko z galdutuz.
- Jendiak so daudia³¹ beti gugana?
40 Nihaur sekretuki nator zugana,
zuhaurk dakikezu³² noiz den aizina³³;
neke ez zaitzula jitia nigana³⁴.
- Pitxer ebilia hautsi dihoazu³⁵;
zuk ni laido handiz beteren nuzu;
otoitzen nitzaitzu, niri uztazu;
nitzaz atseginik ezin dukezu³⁶.

¹⁹ kondenatu(a) litzateke (zukakoa); kondenatu(ko) litzateke. ²⁰ ez zaitezela.

²¹ niri larrialdirik, estualdirik, ez didazula eman / niri hil ondoko lanturik, dolurik, ez didazula sortu (Akesolo). ²² dut (zukakoa). ²³ zaiola. ²⁴ ez gaitzakeela. ²⁵ utzi nazazu. ²⁶ burkoitasuna, seta. ²⁷ eroan, eraman, didazu. ²⁸ bazintez; geldi zaitzen. ²⁹ nuke (zukakoa). ³⁰ Hots, (gutaz) ohartzen badira; ikusten bagaituzte. ³¹ daudea: ote daude; al daude. ³² zeuk (bakarrik) jakin dezakezu; zerorrek jakingo duzu. ³³ aukera. ³⁴ ez zaizula neketsu (gertatu) etortzea nigana. ³⁵ hautsi doa (zukakoa): hautsi egin ohi da. ³⁶ ezin izango duzu.

- Amore maitia, diotsut egia:
 zutan diagozu³⁷ ene bizia;
 nahiago dizit³⁸ zure ikustia
 50 ezi neuretako herri guzia.
- Horlako lausenguz utzi nazazu;
 ixil bazinite nahi nikezu³⁹;
 Jeinkoaz oritzeko ordu lukezu⁴⁰;
 bertzerik har ezazu, niri uztazu.
- Jeinko beldurturik jarri ziraia⁴¹?
 Halaz despeditu nahi nuzuia⁴²?
 Hebetik joan gabe ene buruia⁴³
 egin behar duzu ene nahia.
- Orai nahi nuzuia heben bortxatu?
 60 Aldi honetan, otoi, utzi nazazu;
 bertze aldi batez jinen nitzaitzu,
 nahi duzunori orduian daidizu⁴⁴.
- Haraitzinakorik duzu⁴⁵ errana:
 utzi dazanorrek eskuian duiena
 nahi duenian ez dukeiela⁴⁶.
 Hitzak haribira⁴⁷, dugun egina⁴⁸!
- Orai egin duzu nahi duzuna,
 eman darautazu ahalgeizuna⁴⁹,
 maradikatzen dut neure fortuna,
 70 zeren jin bainendin⁵⁰ egun zugana.
- Amore, ez zitela, otoi, despara⁵¹,
 honat begitartez itzul zakitzat⁵²;
 ni baitan dukezu⁵³ adiskide bat;
 balia dikezit⁵⁴ senar gaixto bat.

³⁷ dago (zukakoa). ³⁸ dut (zukakoa). ³⁹ isil bazintez, isil zintez, nahi nuke (zukakoa). ⁴⁰ litzateke (zukakoa). ⁴¹ ote zara? al zara? ⁴² ote nauzu? al nauzu? ⁴³ Hemendik nik alde egin baino lehen. ⁴⁴ egin ahalko duzu. ⁴⁵ Aspalditik da (zukakoa). ⁴⁶ *utzi (...) ez dukeiela*: eskura duena (ihes egiten) uzten duen horrek (gero) nahi duenean ez du izango. ⁴⁷ Hitzak atzera; aski hitzez. *Arrebira* (gask.); *arrière* (fr.): atzera, aski da. ⁴⁸ egin dezagun. ⁴⁹ eman didazu lotsaizuna; egin didazu desohorea. ⁵⁰ etorri bainintzen. ⁵¹ desespera. ⁵² zakizkit. ⁵³ izango duzu. ⁵⁴ duket (zukakoa). Hau da: izanen dut senar gaizto baten balio.

—Ordu gaitzareki horrat zakitzat⁵⁵.

—Orai behar duguia⁵⁶ konkista berri?
Eztei iraganez gomitut⁵⁷ handi;
hanbat ez zirade andere larri⁵⁸,
merexi duzuna narrake⁵⁹ sarri.

⁵⁵ Alde zakizkit nigandik ordu gaiztoan; joan zakizkit deabruetara. Emaztearen oihua.
⁵⁶ ote dugu; al dugu. ⁵⁷ Ezteiak iragan eta gero gonbidapen handi? ⁵⁸ ez zara horren
garrantzizko, inportant. ⁵⁹ esan nezake / esango nuke (Akesolo). Jatorrizkoan: *narça-*
que. Ez da eman hitz honen azalpen garbirik. Hautabideak: *nazake* (Lafon) / *nakarke*:
nekarke (Altuna).

Mosen Bernat Etxeparere kantuia (1-14; 76-103)

Mosen da Erdi Aroan eta geroago apaiz bati ematen zaion tratamendua *don* ematen zitzaizen bezala nobleei eta hori Aragoin eta Nafarroan bereziki hiztegien arabera. “Kantuia” deitzen du idazki hau, hala nola “koplak” aipatzen dituen “Ezkonduien koplak” deritzan olerkian. Ez dezagun ahantz edozein literaturatan hasiera batean olerkiak kantatzen zirela eta Etxeparek, berak, bere eskaintzan diola: (...) *eta baskoek, bertzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko* (...).

Kantu edo olerki hau autobiografikoa da baina deus guti jakiten da Biarnoko egonaldiaz, orotara gogoetak baitira Etxeparek egiten dituenak. Hemen, poemaren lehenengo hamalau lerroak eta azken hogeita zortziak jaso dira. Bere errugabetasuna adierazi eta Erregeren aurrean zergatik agertu den azaldu ondoren, bildu ez diren lerroetan (15-75), poetak hausnarketa zenbait eskaintzen ditu: gezurrezko salaketak, izterbegien maltzurkeriak, ongia eta gaizkia, presondegia ezagutzeak erakusten duela zer izan daitekeen infernua, beste mundukoak eta bertze. Jainkoarengana jotzen du: Jainkoaren aurrean bekatu egin du eta barkamena eskatzen; Erregeri dagokionez, orde, ez du hutsik egin. Jarraian, 76. lerrotik aurrera, bere buruarekiko azken aholku eta eskaerak.

Olerki luze horretan *laisse* delakoaz baliatzen da Etxepare lau neurtitzeko ahapaldiak idatziz gehienetan, salbu: lehenengoa, bi neurtitzekoa; zazpigarrena, hamabigarrena eta hogeita batgarrena, sei neurtitzekoa; hamahirugarrena eta azkena, bost neurtitzekoak, beti bezala neurtitzak hamabortz silabakoak direlarik erdiko etenaldiarekin (8+7).

Mosen Bernat Etxeparere¹ kantuia

Mosen Bernat, jakin bahu² gauza nola jinen zen,
Bearnora gabetarik³ egon ahal hintzanden⁴.

Heldu behar duien gauzan⁵ ez da eskapatzerik;
nik hogenik ez nuiela ongigitez bertzerik,
bidegabek haritu nu bide ez nuien lekutik⁶:
Erregeri gaizki saldu, gertuz hogengaberik⁷.

¹ Jatorrizkoan: *echaparere*. “Etxekapare” forma zaharrenetik. Genitibo zaharra dirudi: *-n* gabekoa. ² Toka edo hika ari zaio bere buruari: jakin izan bahu. ³ (Biarnora joan) gabe. ⁴ hintzatekeen. ⁵ Gauzak heldu behar duenean, gertatu behar duenean.

⁶ zuzengabekeriak hartu nau ez legokidan alderditik. ⁷ dudarik gabe izanik errugabe.

Jaun Erregek mezu nentzan⁸ joan nengion bertarik⁹;
gaitzez lagola¹⁰ entzun nuien, bana nik ez hogenik;
izterbegier ez neien malizian lekurik¹¹,
10 joan nendin¹², ez nagien hogengabe ihesik¹³.

Balinetan¹⁴ joan ez banintz, hogenduru nintzaten¹⁵,
ene kontra faltseria beti sinetsi zaten¹⁶;
justizian entzun banintz¹⁷, sarri¹⁸ jalgi nintzaten;
haren faltaz hasi nuzu jaugitiaz dolutzen¹⁹.

[...]

Hor balego, gaztiga hiro hihaurk bertze guzia²⁰;
bada orai gaztig(a) ezak²¹, aldiz, heure buria,
kirisailuiari nola hiri hel ez dakia²²:
bertzer argi egin eta erratzen dik buruia²³.

80 Hiri egin badaraie²⁴ bidegabe handia,
Jeinkoari gomend(a) ezak²⁵ heure gauza guzia;
hark orori emanen dik bere merexituia:
gaizkigiler pena handi, pazienter gloria.

Ez dazala²⁶ gaitzeriztez damna²⁷ heure buruia,
desiratzuz gaixtoari hel dakion gaizkia;
Jeinkuari egiten duk²⁸ injuria handia:
hura borrar²⁹ egiten duk, juje heure buruia.

90 Zertan juja hik baitazak heure izterbegia³⁰,
hartan kondenatzen dukek hihaurk³¹ heure buruia
eta hartan ez dakidik eskusarik balia³².
Erakustak ehon ere nor den hogengabia³³.

⁸ agindu zidan; mezua bidali zidan. ⁹ joan nenkion bertatik, berehala. ¹⁰ gaiztoz, haserre, zegoela. ¹¹ etsaiei ez niezaien malizian lekurik, aukerarik (eman).
¹² joan nintzen. ¹³ ez negien ihes, errugabe (nintzelarik). ¹⁴ baldin. ¹⁵ hobendun nintzatekeen. ¹⁶ sinetsi zatekeen. ¹⁷ entzuna izan banintz; entzun banindute.
¹⁸ berehala, laster. ¹⁹ hasi naiz (zukako alokutiboa) etortzeaz damutzen, atsekabertzen. ²⁰ aholka hezake heuk bertze edonor (Akesolo) / zigor hezake herorrek beste edozein (Lafon). ²¹ aholka ezak / zigor ezak. Jatorrizkoan: *gazitguezac*. ²² kriseiluari bezala hiri gerta ez dakian. ²³ erretzen dik bere burua. ²⁴ badiate. ²⁵ Jatorrizkoan: *gomendezac*. ²⁶ Ez dezaala (hikakoa). ²⁷ herraz kondenatu, gorrotoz galdu.
²⁸ Datiboa erabili gabe: diok. ²⁹ hura, hots, Jainkoa, urkatzaile, berdugo. ³⁰ Hik heure etsaia jukatzen duan horretan. ³¹ heuk, herorrek, kondenatzen duk. ³² ez dezakek erabil aitzakia gisa. ³³ inon ere badagoen ogengaberik.

Jangoikua, orai dizit³⁴ egiteko handia:
hiri honetan heriotzez hiltzen duzu³⁵ jendia.
Gatibutan³⁶ hil ez nadin, gizon hogengabia,
osorik, otoi, jalgiteko zuk idazu³⁷ bidia,
izterbegiak ez dagidan³⁸ gibeletik irria:
“Hogenduru zuian³⁹ eta han galdu dik bizia”.

Libertatia nola baita gauzetako hobena,
gatibutan egoitia hala pena gaitzena.
100 Ni bezala ez dadila, otoi, ehor engana,
ez eta (e)re hitz orotan fida ere gizona.
Jangoikua, zuk begira niri ere zuzena⁴⁰.
Amen.

³⁴ dut (zukakoa). ³⁵ da (zukakoa). ³⁶ preso. ³⁷ eman iezadazu. ³⁸ ez die-
zadan egin. ³⁹ hobenduna, erruduna zen. ⁴⁰ zaindu niri ere zuzenbidea.

Kontrapas

“Kontrapasa” Erdi Aroko dantza bat da eta hiztegien arabera “Cierta figura de la contra danza”, Covarrubiasen (1611) diolarik: “Un cierto género de paseo en la danza” eta, beraz, tituluak berak dantzara bideratzen gaitu, hizkuntzen dantzara.

Olerkiaren berezitasuna errepiketan datza, bakarra baita Etxepareren olerkietan errepikadun denik. Hasten da errepikarekin eta bukatzen da halaber. Olerki mota hori Erdi Aroko frantses literaturan dago: XIII. mendeko dantatzeko kantu bat, *rondeau* deitzen dena. Gehienetan ahapaldiaren bukaeran dago neurtitz labur bat, lehen neurtitzaren hasieratik hartua. Hemen *Euskara*, nahiz desberdinak diren errepikak *kanpora*, *mundura*, *mundu guzira*, hiru aldiz *Euskara* hitza bakarrik eta azkenik *dantzara*. Baina ez da *rondeau* delakoaren kopia hutsa, ahapaldiak kopla zaharrez eginak baitira (7 / 7 / 8 / 7), lau neurtitzetan emanak, Iparraldean, aldiz, hirutan (7 / 7 / 8+7).

“Kontrapas” eta “Sautrela” dira euskararen defentsa aipagarria, eta sartzen dira Europak eta bereziki Frantziak beren hizkuntza idatzien alde sortzen duten latinaren aurkako guduan. Ahotik idatzira doa euskara lehenbiziko aldikotz inprimatua izanez. Azpimarratzekoa, “ohi vs orain” antitesia: *uste zuten / orai dute porogatu; ohi hintzan / orai (...)* behar duk; *Oraidano / engoitik*; eta abar.

Kontrapas

Euskara,
jalgi hadi kanpora.

Garaziko¹ herria
benedika dadila²,
euskarari eman dio
behar duien tornaia³.

Euskara,
jalgi hadi plazara.

10 Bertze jendek uste zuten
ezin eskriba zaiteien⁴;
orai dute porogatu⁵
enganatu zirela⁶.

Euskara,
jalgi hadi mundura.

¹ Nafarroa Behereko herrialdea, Baigorri, Ortzaize, Oztibarre eta Amikuzerekin.

² benedikatua izan dadila. ³ maila. ⁴ zitekeela. ⁵ frogatu. ⁶ Errimarik gabeko neurtitza. Egokitze proposamena: *zirela enganatzen*.

Lengoajetan ohi hintzan
estimatze gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan.

20 Euskara,
habil mundu guzira.

Bertzeak oro izan dira
bere goien⁷ gradora;
orai hura iganen da
bertze ororen gainera.

Euskara.

Baskoak orok preziatzen⁸
euskara ez jakin arren,
orok ikasiren dute
orai zer den euskara⁹.

30 Euskara.

Oraidano egon bahiz
inprimitu bagerik¹⁰,
hi engoitik¹¹ ebiliren
mundu guzietarik.

Euskara.

Ezein ere lengoajerik
ez frantzesaz ez bertzerik
orai ez da erideiten¹²
euskararen parerik.

40 Euskara,
jalgi hadi dantzara.

⁷ gorengo, garaien. ⁸ Guztiek estimatzen, aintzakotzat hartzen, zituzten baskoak.

⁹ Errimarik gabeko neurtitza. Egokitzeko proposamena: *orai euskara zer den*. ¹⁰ gaberik.

¹¹ hemendik goiti, hemendik aurrera. ¹² edireiten, aurkitzen.

Sautrela

Euskararen aldeko bigarren kantu honek berriz ere dantza baten titulua dauka: “Sautrela”. Hau da Veneziatik jinikako dantza, *saltarella*, Frantzia ere ezagutua, *sauterelle*. Hasierak –neurtitz bakarra– erakusten du euskara jalgia dela mundura eta dantzarekin euskaldunek adieraziko dutela beren poza.

“Kontrapas”eko gai berak erabiltzen ditu laudoriozko olerki honetan eta azken estrofan eskertzen du *inprimitzalia* (François Morpain), hala nola eskaini zion liburua Bernard Lehet abokatuari hasierako hitzetan.

Ahapaldiek 8+7 silabako lau neurtitz dauzkate.

Sautrela

Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

O euskara, lauda ezak Garaziko herria,
zeren hantik uken baituk behar duian¹ tornuia².
Lehenago hi baitintzan lengoajetan azkena,
orai, aldiz, izanen hiz³ orotako lehena.

Euskaldunak mundu orotan preziatu ziraden⁴,
bana haien lengoajiaz bertze oro burlatzen,
zeren ezein⁵ eskripturan erideiten⁶ ez baitzen.
Orai dute ikasiren nola gauza ona zen.

10 Euskaldun den gizon orok altxa beza buruia,
ezi⁷ haien lengoajia izanen da floria.
Printze eta jaun handiek orok haren galdia⁸,
eskribatuz (a)hal balute ikasteko desira.

Desir hura konplitu du Garaziko naturak⁹
eta haren adiskide orai Bordelen denak¹⁰
Lehen inprimitzalia euskararen hura da;
basko oro obligatu jagoitikoz¹¹ hargana.

Etai lelori bai lelo leloa zarai leloa¹².
Euskara da kanpora eta goazen oro dantzara.

¹ duan (hikakoa). ² maila. ³ haiz. ⁴ estimatu ziren. ⁵ inongo, inolako.
⁶ edireiten, aurkitzen. ⁷ ezen, zerren. ⁸ haren galdera (egiten dute), harengatik galde (egiten dute). ⁹ Garaziko izateak, jatorriak, hots, Garazik eman duen seme batek: Bernat Etxeparek. ¹⁰ Hau da, Bernard Lehetek. ¹¹ gaurdanik, aurrerantzean.
¹² Errepikatzen den formula, gehienetan esanahi gabekoa, xv. mendean agertzen dena. Ikus “Salinasko kondearen kanta”ren sarrera.

¶ Sautrela

Heufcara da campora, eta goacen oro dançara

Oheufcara laude ezac garacico herria
Ceren hantic vqhen baytuc beharduy an thornuya
Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena
Oray aldiz içaneniz ororaco lehena.

Heufcaldunac mundu orotanpreciatu ciraden
Bana hayen lengoagiaz berce oro burlatzen
Ceren eceyn scripturan erideiten ezpaitzen
Oray dute iccassiren nola gauça honacen.

Heufcaldun den guizon oroc alcha beça buruya
Ecihuyen lengoagia içanenda floria
Prince eta iaun handiec oroc haren galdia
Scribatus halbalute iqhasteco desira.

Desir hura conplitu du garacico naturac
Eta haren adisquide oray bordelen denac
Lehen imprimiçalia heufscararen hurada
Basco oro obligatu iagoiticoz hargana.

Eray lelori bailelo leloa çaray leloa
Heufcara da campora eta goacen oro dançara.

DEBILE PRINCIPIVM MELIOR
FORTVNA SEQVATVR.

3. JOAN PEREZ LAZARRAGA (1548 ing.-1605)

Joan Perez Lazarraga Larrean (Araba) jaio zen 1548 inguruan (ez dakigu jaiotzaren data zehatza) eta 1605eko apirilaren 11n hil zen. Oñatin, Lazarragaren jauregian, zuten sorburua arabar lazarragatarrak. Familia harremanak izan zituzten, besteren artean, garibaitar eta gebaratarrekin. Ahaide Zaharren leinuko beste partaide askoren moduan, Espainiako koroaren inguruan ibili ziren lazarragatarrak ere. Adibidez, Joan Lopez Lazarraga Errege-Erregina Katolikoen idazkari izan zen, eta Joan Madrilen bizi zen 1567an. Pedro Perez Lazarraga izan zuen aita –lehendabizi Graziana Naharriarekin ezkondua eta gero Elena Saez Ordeñanarekin–, gero bere emazte izango zenaren familiako batek 1564ean hila. 1569an Gasteizen ospatutako torneo famatu batean parte hartu zuen beste hogeita bi zaldunen artean, bere ezkutuan hau idatzia zegoelarik: “El fuego en que veis que ardo / me sostiene / porque amor así lo quiere”. Irudikatuak ageri ziren bertan su handi bat, zalduna eta dama. Katalina Gonzalez Langarika, arabar aberatsa baina idazten ez zekienarekin ezkondu zen 1570ean. 1576an Larreako dorrera aldatu ziren bizitzera. Lau seme-alaba izan zituzten gutxienez: Maria –Joan Belaskorekin ezkonduko zena 1599an–, Agustin, Andres eta Pedro. Abokatu lanean Burgoen, Valladoliden (*Chancillería* delakoarekin harreman estua izan zuen), Gipuzkoan eta Araban ibili zen eta auzi ugari izan zituen batez ere bere emaztearen senideekin.

Bere obren artean, *Historia de Álava* dago, galdua; bere familiaren genealogiaz eskuizkribu bat, 79 folioduna, *Relación histórica (...)* (1600 ing.); eta 2004an Borja Aginagalde historialariak Madrilen aurkitu zuen euskaraz idatzitako eskuizkribua, *Lazarraga eskuizkribua*, 1567-1602 bitarteko testuak jasotzen dituen. Bertan: osatugabeko artzain-kontakizun labur bat eta, honekin batera, poema eta kantu sorta bat, “Lazarragaren kantutegia” dei daitekeena. Eskuizkribu honek berrogeita hamar orri pasatxo ditu eta orriak zenbakiturik ageri dira, (1138)1139tik 1203(1205)ra. Tarteetan, orriak, eta zenbakiak, falta dira. XVI. mendeko Arabako euskaraz dago idatzia.

Lazarragaren poemen arrastorik ere ez zenean, “el poeta” ezizenez eza-guna zen. Baina, dudarik gabe, aurkitutako eskuizkribuak bere bizitzako hainbat pasadizoren arrasto eta iradokizunak eskaini ditu, hala nola: artean gazte, Euskal Herritik kanpo zebilen ezkontzeko etxera zedila agindua jaso zuenean; aitaren heriotzaren ingurukoak; zaldun eleberrien erara antolatutako torneoen aldeko jaidura; eta beste.

Azken batean, Erdi Aroko mundua oso gertu bizi zuen oraindik ^{xvi}. mendeko Arabak. Lazarraga bera familia noble batekoa zen, eta zaldunen estatus horretakoak ziren zaldun eleberrien irakurleak, batik bat andereak. Maila sublimatuan izanik ere, horrelako errepresentazioetan, beren arbasoen eta neurri batean beraiek ere nolerebait partekatzen zuten gizarte aristokratikoaren balioak plazaratzen ziren. Bizi edo bizitzea gustatuko litzaiekeen mundu baten irudikazioak. Baina mundu hura desagertzeko bidean zegoen eta, gogoz kontra bazen ere, noblezia hura Espainiako monarkia absolutuaren egituran parte zuzena hartzera makurtu zen. Eta helburu horrekin erakarri zuen aristokrazia nobiliaria Gaztelako Gortera bertara, han abantailak eman eta, hiritartu ahala, gertutik hura zaintzeko. Aristokraziaren bilakaera horretan literatur generoetan ere eman zen bilakaerarik: zaldun-eleberriak indarra galduz joango dira eta artzain-eleberriak irabaziz. Azken batean, *Amadís* eta halako eleberrietako balentria heroikoak ez zetozen bat garaiko gorteko bizitza neurritsu eta zeregin berriekin, nahiz eta zaldun-eleberrietako bizitza heroiko horrek halako nostalgia igurtzi ukaezin bat izan. Izan ere, hori guztia desagertzeaz zen Erdi Aroko azken printzeekin batera. Baina zaldun-eleberrietako imajinario horren arabera dago irudikatua “Egun batean nendorrela” bertso-lerroaz hasten den poema.

Beraz, pentsa daiteke, garaiko artzain-eleberrigile asko bezala, Jorge de Montemayor-en *Diana*-k liluratu zuela Lazarraga. Baina artzain-kontakizunean nahiz garaiko –^{xv} eta ^{xvi}. mendeetako– kantutegietan ohi ziren kopletan beti agertzen zaigu kortesiatsu. Lazarragaren poesian ez dira falta ez gorte kutsuko galaitasuna, ez manera delikatuak eta ez maitasun adeitsuaren gainerako zeremonia guztiak; alegia, galai atsegina aztoratuta eta liluratuta utzi behar du bere damaren edertasunak, eta hura goraipatu beharra dauka beraren edertasun, bertute eta zuhurtziagatik, eta hura zerbitzatu beharra dauka berebat, go-lardoa berari eman diezaion erreguka ari zaion bitartean. Poesia hori poesia gortesaua da, Proventzako poeten bidez Europa osora hedatu eta halako kode propio batera errenditzen dena: damaren begiak bi gezi dira eta poetaren bihotza zauritzen dute; damaren edo, Lazarragaren kasuan, dontzeilaren begiak ikusi ondoren maiteminduko da galaia. Azken batean, Erdi Aroko eredu feudala inbertituz gauzatzen den harremana da: zalduna edo poeta da zerbitzaria eta damari zor zaio gizarte feudalean jaun feudalari zor zaiona.

Lazarragaren eskuizkribuak, beraz, prosa narratiboa eta poesia uztartzen ditu. Jasotzen diren poemen eta neurtitzen kopurua erabat zehaztea zaila da. Konposizioen arteko mugak, batzuetan, lausoak dira, eta bai poemen, bai bertso-lerroen kopurua aldatu egiten da hartzen den neurketa moduaren arabera: batzuek berrogeita sei poema zenbatzen dituzte; beste batzuek hirurogei inguru. Bertso-lerroak, berriz, 3.150 gutxi gorabehera. Poema horietatik, bederatzi bat-edo gaztelaniaz daude. Bestalde, eskuizkribuaren bukaera aldean dauden konposizio batzuk, azken-hirugarren (1204) eta azken-bigarren (1205) orrietakoak, “De la S.^a M.^a Estibaliz de Sasiola” izenburupean datozenak, Debako Maria Estibaliz Sasiolak (...1550-1611) idatziak eta bilduak omen dira; euskara ezberdina dute bai eta idazkera, zegokion bezala, Deba ez baitzen Larrea.

Poemak askotariko gaiez osatuta daude. Amodioa, irria, errefrauak, kronika historikoa, erlijioa, azken hauen artean aurki daitezkeelarik euskal lehen bilantziko edo gabon kanta eta Kristoren Pasio santuari buruzko lehen bertsoak. Espainiako Errenazimentuko poeta gisa hiru iturri nagusitatik edan zuen Lazarragaren poesiak. Bat, Biblia eta erlijio-liburuak. Bi, espainiar autoreak (Pero Lopez Aialakoa, Juan de Mena, Jorge de Montemayor, Sebastián de Horozco, Gutierre de Cetina, Macías, *Cancionero*-etakoak...), berak espresuki aitortzen dituenak – “van en algunas coplas algunas autoridades y nombres castellanos así métricos como prosaicos”–. Eta hiru, euskal poesia herrikoia, pentsa daitekeelarik, bere ahaide zen Garibaik bezala, ezagutuko zituela, agian, oñaztarren eta ganboarren arteko borrokek sorrarazi zituzten kantak.

Zenbait ohar labor neurkerari buruz. Lazarragaren kantutegian maiz erabiltzen den oinarritzko molde metriko bat 10 / 8A pare da. Batzuetan, lau-koak osatzeko, 10 / 8A / 10 / 8A, “Zu ekusi ta beste gauzarik” (1164) konposizioan, esaterako; beste batzuetan zortziko bat taxutzeko, bi lau-koak, eta bigarrenetan errima aldatuz, 10 / 8A / 10 / 8A / 10 / 8B / 10 / 8B, “Dontzeilatxoa orain zaiz” (1173) poeman, adibidez; eta, bereziki, bakoitiak libre utzi eta bikoitietan errima berdina daramaten neurtitzen segida luzeak eratzeko, 10 / 8A / 10 / 8A / 10 / 8A..., “Gugaz etorri nahi badozu” (1159) edo “Ahaide handiok bidaldu deustae” (1195-1196) kasurako. Nabarmen-tzekoa da 11 / 11A / 11A hirukoa, “Monesterio santu debotoa” luzean, besteak beste, edo gaztelaniazko metrikan “Copia de arte mayor” edo “Octava de Juan de Mena” izenez ezagutzen den moldea, eskuizkribuan hamaika silabako neurtitzez, nagusiki, eta ABBAACCA errimaz, erabiltzen dena.

Ez dira hauek egitura metriko bakarrak. Kantutegian zehar, badira beste zenbait konbinazio ere, baina gehienak poema bakar bati atxikiak, errepikatu gabeak. Errepikatzen dena, hori bai, aipaturiko lerro librea / lerro errimaduna txandaketa, beste neurri batzuen harira, hala nola, 6 / 5a, 7 / 6a, 8 / 4a, 9 /

8A eta abar, dela neurtitz ilara luzetan, dela lau, sei, zortzi edo hamar lerroko ahapalditan.

Errimari dagokionez, hoskidetasunak hartzen dituen hotsak eta hots horien aberastasuna eta aukera, distira apalekoak dira; lerro errimadunen jokoa, konbinatzea, berriz, mugatua, gehienetan, esan bezala, binakakoa.

Azkenik, hautatutako testuetan errepikatzen diren bi xehetasun linguistikori buruzko azalpen xumeak. Eskuizkribuan –zehazkiago, hemen hautatutako testuetan–, ondo bereizi beharreko forma hauek ageri dira: *eben, ebela, dabena, dabela*, hots, *zuen, zuela, duena, duela*, nork singularra; *euen/even, euela, dauela*, hau da, *zuten, zutela, dutela*, nork plurala; eta *eben, hemen* leku aditzondoa adierazteko. Hemengo bertsioan, azken hau, “*heben*” ortografiaz ematen da eta, beraz, argi dago. Besteak, eskuizkribuan dauden moduan mantentzen dira, alegia, ezberdinduz nork singularra, “*b*” grafiaz, eta nork plurala, “*u*” grafiaz. Noizik behin, argibide moduan, dagokion oin-oharrean seinalatzen dira.

Lazarragak *oi/oy, oi eta, oita* erabiltzen ditu. Gehienetan, betegarri funtzioa duten esanahi berezirik gabeko hitzak dira: bertso-lerroaren neurri ego-kia lortzearren tartekatuak, erantsiak. Oro har, neurtitzaren edo bigarren hemistikioaren hasieran daude kokaturik. Ugari, adibidez, poema luze eta lerro laburrekoetan, hala nola, “Ahaide handiok bidaldu deustae” edo “Salbatierra egun ei dago tristerik”. Horiek, hemen, bere horretan, “*oi*”, “*oi eta*”, “*oita*” ortografiaz jartzen dira eta erabilera hori noizbehinka oin-oharretan gogorarazi.

Zenbaitetan, ordea, *oi/oy* ez da betegarri soila. Batzuetan –gutxitan–, harridurazko forma da; besteetan, ekintzari maiztasun zentzua eransten dion *ohi* partikula. Arazoa antzematean datza: neurtitz bakoitzean, bereziki, betegarria ala ohiturazkoa den erabakitzea. Gidor Bilbaok eta bestek, euren azterketan, Lazarragaren eskuizkribuan hamabi bat aldiz bakarrik ulertzen dute *oi/oy* partikula *ohi* moduan. Gainerakoetan, harridurazkotzat edo neurrirako betegarritzat jotzen dute. Korapiloa ez da erabat eta kasu guztietarako askatu. Bada zalantzarik. Hemen, *ohi* dela nahiko garbi ikusten denean, “*ohi*” ortografiaz ematen da testuan.

Ettxeparerekin batera, Lazarraga dugu ^{xvi}. mendetik iritsi zaigun euskal literaturaren adierazpen gailen eta ia bakarra.

Testuen bertsioa, oin-ohar gehienak eta beste zenbait datu honako dokumentu honetatik hartuak edo moldatuak dira: Gidor Bilbao, et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz: UPV / EHU, 2010 eta hurr. Interneten eskuragarri: <www.lazarraga.com>.

Atal arduraduna: Iñaki ALDEKOA BEITIA

3.1. PROSA: KONTAKIZUNA

Artzain-kontakizuna

Lazarragaren eskuizkribuaren lehenengo atala artzain-kontakizun labur batek betetzen du (1138-1147, 1151-1154 orriak). Izenburutzat, “Dianeia” (Urkizu), “Sirena, Silbero, Silbia eta Doristeo (Lazarragaren artzain-nobela)” (Salaberri Muñoa), “Artzain-liburua” (Bilbao, et al.) jarri izan zaio. “Artzain amonatuak” (1153. or.) titulua ere eraman zezakeen.

Kontakizunaren parte bat besterik ez zaigu iritsi, tamalez. Hasiera eta bukaerako orriak –eta baita tarteko beste batzuk ere– galduta, ezin da jakin ez lanaren benetako luzera, ez bertan kontatzen den istorioaren hasiera eta amaiera, ez eta kontakizunaren garapena bere osotasunean. Halere, Lazarragak lehen euskal narratzaile edo kontalari izatearen omena me-rezi duela onar daiteke.

1567. urte inguruan idatzia izan bazen ere, lana 2004a arte ez zen plazaratu, eta, irakurle posible bakarrak Lazarragaren familia ingurukoak izango ziren, eta hain irakur-zaleak ziren andere nobleak, Zalduondoko jauregiko horma-irudian ageri bezala.

Lazarragak moldatu narrazio hau, XVI. mendean arrakasta handikoa izan zen artzain-eleberriaren generoaren inguruan kokatzen da. Pertsonaia nagusiak hauexek dira: Silbero, Sirena, Doristeo/Dorido eta Silbia/Klarian. Hauez gain, Narbaez, Marteren mandataria, Cupido eta izen berezirik gabeko beste zenbait. Protagonistak ez dira, berez, artzainak, hiri giroko ugazaben zerbitzariak baizik –salbu Doristeo, zalduna–, baina pe-ripezietan zehar, artzainez jantzi, artzain lanetan aritu eta artzain ingurunean murgiltzen dira.

Kontakizunaren gaia: elkarrekin maitemindutako gizon-emakumeen amodiozko go-rabeherak, maitemintzeak eta destainak, pozak eta, batez ere, desdixak, zoritxarrak. Silberok Sirena maite du; Sirenak Doristeo; Doristeok Silbia; eta honek Silbero. Hau da amodioaren gurgil zoroa, Jorge de Montemayorrek, gaztelaniaz, *Los siete libros de la Diana* (1558 edo 1559) nobela ospetsuan honela biltzen duena: “Amor loco, ¡ay, amor loco! / Yo por vos y vos por otro”. Lazarragaren pertsonaia molde gehienak, aldaketa batzuekin, Montemayorren eleberrian ageri dira. Bada bestelako parekotasunik ere.

Istoria ez da osorik hitz lauz ematen, ezen bertsoekin nahasten da prosa, eta, hirugarren pertsonan kontatzen den arren, narratzailearen ahotsa ere ageri da: *Lehen esan dogun konkistan lau amadore hoek egonik (...)*. Deskripzioak askoz ere zehatzago dira hiri eta gorteari dagozkienak, paisaiaz mintzo direnak baino, hau aski estilizatuta ageri baita. Solasek dute garrantzi handiena eta hauek dira istorioari ahozketasuna ematen diotenak.

[Kontakizunaren hasiera falta da eta lehenengo orrietan testu zatitxoak besterik ez dira ageri. Horietan miatuz, atera daiteke, istoriotik iristen den lehenengo argibide gisa, Silbero Sirenaz maiteminduta dagoela. Kantuz, gutunez, erreguz, Sirenaren amodioa erdietsi nahi du. Honek, berriz, ia-ia kasurik ez. Bi-hotz mindurik, arras atsekabeturik, Silbero negarrez dabil, heriotzako puntutik hurbil.

Silberoren ugazabak eta honen andreak agintzen diote Silbiari –Sirenaren laguna eta hura bezala etxeko zerbitzaria–, kontu handiz zaintzeko Silbero. Silbia, berriz, Silberoz dago amaturia. Hala ere, Silberok Sirena bere ondora etor dakion lortzeko eskatzen diotenean, Silbiak halaxe egingo du eta lortu.]

(1142) [...]

Biharamun goxean, joan zidin¹ Silbia Sirena bisitatzen, eta, osteango² beste berbaen artean, egion erregutu legiola konpainia³ Silbero egoan aposentura joaten; eta Sirenak esan eutsan eze atsegin lebel⁴; zeintzuk, alkarri eskuetarik eustela⁵, joan zirean Silberoen kamarara⁶, nun, sar zitezenean, utra⁷ kortesmente Silberori berba egin eutsaen; zeinak, ahal egian⁸ kortesia eta mesura guztiaz, saludadu zituan eta eskatu zidin⁹ harpa bat, zeina utra dultzero jaiten¹⁰ hasi zan, manera honetan kantaetan ebela:

Dontzeilea, zegati zaoz¹¹
enegaz enojadurik,
zurekin ene aitasuna¹²
horrela a(ha)ntzi jakinik¹³?

(1143)

Dontzeilatxo linda damea,
flordelisea¹⁴ zara zu;
ene penea dakusun gero¹⁵,
arren, berba bat esazu.

Ekusirik Sirenak Silberoen platikea, hartu eben Silberok eskuetan eukan harpea, zeina jaite ebela erantzun egion¹⁶, manera honetan:

Jentilonbre¹⁷ penadua,
enegaiti kautibua,
zure llantu dolorosook
emaiten deustae kontentua.

¹ joan zen. ² gainerako, bestelako. ³ erregutu zion lagun ziezaiola. ⁴ atsegin zuela. ⁵ eskuetatik eusten ziotela. ⁶ ganbarara, logelara. ⁷ oso. *Ultra* (lat.): har-ratago, areago... ⁸ ahal izan zuen. ⁹ eskatu zuen. ¹⁰ jotzen. ¹¹ zagoz, zaude. ¹² zure eta nire ahaidetasuna. ¹³ zuri ahantzirik, ahazturik? ¹⁴ lis-lorea, lirioa. ¹⁵ ikusten duzunez. ¹⁶ jotzen zuela erantzun zion. ¹⁷ Jaun prestu, zaldun gisako. Eskuizkribuan: *Jentil honbre*.

Bere kantaetea Sirenak akabadurik, urten eben hain laster Silbero egoan lekurean¹⁸, eze ez zan bastadu¹⁹ inor bere bihurketan²⁰. Silberok hainbat sentidu eben, bada, Sirenak esan eben²¹ berbaak, eze erori zidin²² jarririk egoan silla baterean²³, hain hagitz²⁴ eze, Silbia itsatsi ez ballako²⁵, ez zatean mirakuru han hila²⁶. Baegoan, bada, Silbero hain akordu²⁷ gutxigaz, eze Silbiak uste eben eze eskuartean hilgo litzakala²⁸, harean ta beregan bihurtu zeitean artean²⁹; eta, destenpleak itxi egion³⁰ orduan, hasi zan Silbia Silbero kontso-laetan; bada bere³¹, ekusirik Silberok hain kruelmente bere Sirenak trataetan lebel³², ez eben gura inork barbarik legion³³, salbo bakotxik egon baxe³⁴; eta, hala, Silbiak urten eben harean³⁵, nun Silbero geratu zidin bakotxik³⁶ eta hain kontsuelo gutxigaz nola inork pentsadu ezin leian³⁷; zeinak harturik bi-guela³⁸ bat hasi zan kantaetan, manera honetan:

Esperantzeau galdu jat³⁹,
gutziz ez arren, parte bat;
neure laztanaen amorearren⁴⁰
egin gura dot negar bat.

Ai, ene desdixadua,
gaitxez rodeadua⁴¹!
Kontentu uste neben orduan
oi jatort⁴² deskontentua.

Ene bihotz penadua,
egun gaxki kuradua,
egun askotan beharko dozu
zeure aldean medikua.

Akabadurik, bada, Silberok bere kantaetea, urten eben bere kamararean⁴³ eta igo eben bere ugazabaren aposentura, zeina idoro eben itxirik⁴⁴; eta,

¹⁸ lekutik. ¹⁹ nahikoa izan, gai izan. ²⁰ bera bihurketako, itzularazteko.
²¹ esan z(it)uen. ²² erori zen; ez erabat jausi, baizik eta makurtu, ia-ia jausteraino.
²³ batetik. ²⁴ hain asko; hainbeste. ²⁵ Silbia lotu ez balitzaio, Silbiak heldu ez balio.
²⁶ ez zatekeen mirakulu han hiltzea. ²⁷ konorte. ²⁸ zitzaioa. ²⁹ harik eta bere
baitara bihurtu zatekeen arte. ³⁰ destenpleak utzi zion; ondoezak utzi zuen.
³¹ hala ere. ³² tratatzen zuela. ³³ egin ziezaion. ³⁴ bakarrik egon baizen, bakarrik
egon baizik. ³⁵ handik. ³⁶ bakarrik. ³⁷ ezin zuen. ³⁸ "Bihuela": gitarraren an-
tzeko hari-instrumentu zaharra. ³⁹ zait. ⁴⁰ amoreagatik. ⁴¹ inguratua. ⁴² da-
torkit. ⁴³ kamaratik, logelatik. ⁴⁴ Eskuizkribuan: *ysiric*.

itaundurik etxekoai⁴⁵ nun zan, esan eutsaen nola emazteagaz joan zidin jardin batera eta beregaz eroan eben⁴⁶ Sirena eta Silbia, bere dontzeilaak⁴⁷.

[...]

[Sirenaren harrizko bihotza eta ezezko tematia ezin jasanik, esperantza galduta, ugazabarekin Italiarako bidaia bat egin ondoren, Silberok, baimena eskatu eta artzainen mendebaleko lurraldera joatea erabakitzen du. Artzain jantziak hartu, bidea egin eta Duero ibai inguruetara iristen da. Han ganadua zaintzen jartzen da.

Silbiak ere, pena handiak akuilatuta, ugazabari lizentzia eskatu, artzainez jantzi eta Silberoren bila abiatzen da, jendearen aurrean bere burua Klarian izenez azaldurik. Doristeo, ordurako Silbiaz maiteminduta dabilen zaldun gazte bat, Silbiaren atzetik, eta Sirena, Doristeoz amoratua, honen ondotik. Lau protagunistak, Silbero dagoen lekuan bilduko dira.]

(1152) [...]

Honela, bada, Doristeok eta Sirenak egin euen⁴⁸ euren biajea, harean ta Silbero egoan lekuan hel zitezkeano⁴⁹, nun, nor bere⁵⁰ ugazaba banakin [...] ⁵¹.

Egun baten, bada, Silbero eta Silbia, Doristeo ta Sirena, lauok batera nor bere ardiakin joazela, topadu zirean iturri fresko baten aldean, nun guztiak alkar ezauturik berba egin eutsaen⁵²; espezialmente Silberok, Sirena ekusen orduan, esan eben:

—Oi, Jaun zerukoa! Ni nun ete nago? Lo ete natz⁵³ ala iratzarririk nago? Ezin sinistu dut neure Sirenaen aldean nagoala.

Berba hoek⁵⁴ esanda joan zidin Sirenaren aurrera, nun belauriko jarri zan, negarrez egoala, berba hoek egite lebela⁵⁵:

—Oi, Sirena, zeinaen begiok direan nortegaz konparaduak⁵⁶! Natxazu suplikaetan⁵⁷ nahi dakizula⁵⁸, ene peneau honein handia danaz gero, remedioa emun jagiten⁵⁹.

⁴⁵ Eskuizkribuan: *esecoai*. Lazarragaren testuetan: *ese*. ⁴⁶ beragaz, berarekin, eraman z(it)uen. ⁴⁷ dontzeilak, zerbitzariak. Eskuizkribuan ageri den gainerakoetan, “dontzeila” hitzak “neska gazte” esan nahi du, ez “zerbitzari”. ⁴⁸ egin zuten. ⁴⁹ harik eta Silbero zegoen lekura heldu ziren arte. ⁵⁰ bakoitza. ⁵¹ Eskuizkribuan, hitz hau eta hurrengoa, *Egun*, jarraian daude idatziak, tarteko inolako zeinurik gabe. Zerbait falta dela nabari da, agian aditza soilik. ⁵² egin zioten elkarri; hitz egin zuten elkarrekin. ⁵³ natza. ⁵⁴ Hitz hauek. ⁵⁵ egiten z(it)uela. ⁵⁶ norte-izarragaz konparatuak; iparrizarrarekin konparagarriak. ⁵⁷ Suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut. ⁵⁸ nahi izan dezazula. ⁵⁹ (niri) erremedioa eman egiten; (niri) erremedioa ematea.

Sirenak, Silbero bere aurrean ekusen orduan, utra⁶⁰ enojadurik esan eutsan:

—Ken zatez ene begietarik, zegaiti nik ez deretxut on zuri⁶¹ bapere baino gehiago, zegaiti ene bihotza Doridogan⁶² dago.

Silberok, hau entzun egian⁶³ orduan, bere buruari itxi eutsan⁶⁴ lurrera jausten, zeinagana Silbia joan zidin lasterka, esaten eutsala:

—Jagi zatez, Silbero, horrean⁶⁵, eta itxi egiozu horrein kureldo trataetan zabenorri⁶⁶, eta zatoz nigana.

Silberok erantzun eutsan:

—Silbia, ken hakit horrean, zegaiti nik ezin ahantzitu neidi⁶⁷ hainbat denpora on deretxadan⁶⁸ gauzea.

Silbiak hau entzun egiane⁶⁹, desmaiadurik erori zan, zeinagana joan zidin laster Dorido, eta esan eutsan:

—Ai, Silbia, ene laztana! Akorda zatez zein on deretxudan⁷⁰, eta bai nola zabiltzen engainadurik higu zabenaren atzean⁷¹, ene amorioau ahantzitu jakinik⁷². Suplikaetan natxazu degidazula⁷³ remedioa emun, medezinea zu zarean gero.

Silbiak, Doridoren berbaok aditurik, esa(n) eutsan:

—Esan ze egidazu⁷⁴ berba horiek, zegaiti gurago dot Silberori on deretxadala⁷⁵ hil, eze ez ha ahantzitu⁷⁶ ta bizi izan.

Doridok eukan esportzu⁷⁷ guztia galdurik, etzin zan lurrera, utra negar asko bere begietati ezarten ebela⁷⁸. Sirenak, bada, Dori[d]o lurrean negarrez ekusi egian orduan, joan zidin hagana, konfiadurik respuesta hobe idoroko ebela hagan hark Silberori emun eutsan⁷⁹ baino, eta esaten hasi jakan⁸⁰:

—Egun askotan, Dorido, esan deusut zegaiti zabiltzen on ez deretxunoren⁸¹ atzean galdurik, eta ez dozu sinistu izan nahi, harean da zeure begio-kaz ekusi dozun artean. Bada, honela danaz gero, zeure buruori desengainadurik, nagozu⁸² mesede eske honerean⁸³ aurrera on eretxi degidazula⁸⁴.

⁶⁰ oso. ⁶¹ nik ez dizut onirizten zuri; nik ez zaitut maite zu. ⁶² Doristeo, hemendik aurrera, Dorido izenez ageri da. ⁶³ entzun zuen. ⁶⁴ utzi zion. ⁶⁵ hortik. ⁶⁶ utz egiozu horren krudelki tratatzen zaituen horri; utz ezazu horren krudelki tratatzen zaituen hori. ⁶⁷ ezin ahantz nezake; ezin izango nuke ahaztu. ⁶⁸ onirizten diodan; maite dudan. ⁶⁹ entzun zuenean. ⁷⁰ onirizten dizudan; maite zaitudan. ⁷¹ higuin zaituenaren, gorrotatzen zaituenaren, atzetik. ⁷² (zuri) ahantzirik, ahazturik. ⁷³ diezadazula. ⁷⁴ Ez ieza(zki)dazu esan. ⁷⁵ onirizten diodala; maite dudala. ⁷⁶ hura ahaztu. ⁷⁷ adore, indar. ⁷⁸ botatzen zuela, isurtzen zuela. ⁷⁹ eutsan(a), zion(a). ⁸⁰ zitzaion. ⁸¹ onirizten ez dizun horren; maite ez zaituen horren. ⁸² nagokizu. ⁸³ hemendik. ⁸⁴ oniritzi diezadazula; maite nazazula.

Doridok utra enojadurik erantzun eutsan:

—O, faltsa traidorea! Ken hakit neure begietarik, ene desditxeonen kausea hi haxanaz gero⁸⁵; zegati hik Silberori on eretxi baheutso⁸⁶, Silbiak bere niri ezin ukatu eidan⁸⁷ neure remedioa. Bada, honeinbat gatx hire kausaz etorri danaz gero, zegaiti ez don⁸⁸ lotsarik berba horiek esaten gure aurrean?

Enojuzko berba hoek Sirenak bere Doridoren ahorean⁸⁹ entzunik, zidin desmaiadurik lurrera jausi. Honela lauak eozela desmaiadurik, Silberok esan eben:

Silbero —Nagin, Sirena, remediadu⁹⁰!

Sirena —Ni Doridogaiti gaxo nax.

Dorido —Silbiak katigaturik nauko.

Silbia —Oita⁹¹ Silberok ni hil nau.

Platika hoetan lauok eozela, aditu euen hots handi bat kanputi etorrena, hain handia eze utra espantaturik eozen⁹² zer ahal zatean⁹³ [1153] ezin pent-sadurik, harean da Doridok burua goratu ta ekusi eiano⁹⁴ salbaje⁹⁵ terrible bien figurea, zeintzuk zirudien sua ahoetati ezarten euela⁹⁶; eta euren eskue-tan ekarten⁹⁷ arko bana, fletxa zorrotzakaz armaturik; eta Doridok ekusi egian orduan, esan eutsan Silberori:

—Jagi zatez horrean laster, Silbero, zegaiti heben⁹⁸ datoz salbaje handi bi ondo armaturik, guri biziok edetera⁹⁹.

Silberok entzun egian orduan Doridoen berbaak, utra espantaturik jagi zidin, eta hartu euen¹⁰⁰ nork bere armak. Bada bere¹⁰¹, haek ondo begiratu orduko, salbaje biak arrebatadu zituen Sirena ta Silbia, zeintzuk utra laster ta erroitu¹⁰² handiaz eroan zituen florestati behera, Silberok eta Doridok reme-diorik emun ahal бага; zeintzuk geratu zitezen espantu eta tristeza handiaz, nork bere euen oneretxia¹⁰³ galduagaiti, eta ezin pentsadu euen nuen¹⁰⁴ agin-tez edo nora salbaje haek eroan ahal eukeen¹⁰⁵; eta prometidu euen biak ez alkarri itxi jagiteko¹⁰⁶, harean ta¹⁰⁷ Sirena ta Silbia idoro artean.

⁸⁵ haizenez gero. ⁸⁶ oniritzi bahio; maitatu bahu. ⁸⁷ ezin ukatuko zida(na)n (alokutiboa, hikakoa). ⁸⁸ ez dun (alokutiboa, hikakoa). ⁸⁹ ahotik. ⁹⁰ Sirena, la-gundu nagin!; Sirena, salba nazan (hik ni)! ⁹¹ Betegarria, bertso-lerroen neurri egokia lortzearren erabilia. Lau lerro hauek bertso itxura dute. ⁹² oso harriturik egozen, zeu-den. ⁹³ zer (izan) ahal zatekeen. ⁹⁴ ikusi zuen arte. ⁹⁵ Zalduneria-eleberrietan figura topikoa: zaldunaren etsai edo kontrapuntua, egoera eta bizio basatien irudia. ⁹⁶ botatzen, jaurtitzen, zutela. ⁹⁷ zekarten. ⁹⁸ hemen. ⁹⁹ edekitzera, kentzera. ¹⁰⁰ hartu z(it)u(z)ten. ¹⁰¹ Hala ere. ¹⁰² harrabots, zarata. ¹⁰³ nork bere zuten oniritzia; bakoitzak zuen maitea. ¹⁰⁴ noren. ¹⁰⁵ zukeen. ¹⁰⁶ agindu zuten biek ez elkarri utzi egitea, ez elkar abandonatzea. ¹⁰⁷ harik eta.

[...]

[Maiteak galduta, espantuz daudela, hodeietatik figura eder bat agertzen zaie eta esaten salbai horiek Narbaez enkantadorearen mutilak direla, eta Sirena eta Silbia Konfusioko Etxera eraman dituztela; Narbaez horren erabakiz, Sirenak eta Silbiak, amoreaz burlatu eta krudelki jokatu dutenez, heriotzaz ordaindu behar dutela. Azkenean, Marte Jainkoaren mandatariak salbaiei, dontzeilak bertan libre utzirik, ihes eginarazten die. Une horretan, kanta eta hotsandiz inguratua, Cupido agertzen da. Eskuizkribuko kontakizuna hemen mozten da.]

zen acean eneamoribau an cñu Zaguiñe suplican nachacu
 deguidacula remedioa emun medecin cuçarean gero siluiac
 donidoren beruac aditūric esaeusan Esanceguidacu berua.
 onie cegayñ guzagodoñ siluezori onderechadala yl. ece ec aan
 cñuta biçyñ / doridoc eucane spoz guzha galduric ecincan
 luezera bñra negaz a so bere beguetati ecar tenebela. sñreñac
 bada doño luezan negarroz ecusieguiñ oruan Joan adin agana
 confidazuric respuest a ohea ydoro ebela agari are siluezori emun
 eusan bano eta esaten asi Jacan. Iguna scotān ~~siluio~~ dorido.
 Esan deu nit cegayñ cabilgen onerechunoren acean galduric
 ita edocu sñistuyñ nax azeanda ceure beguideaz ecusidocun
 artean bada onela dan azguero ceureburuori desenganasuric nago
 cu mesedeeque onerean auziera onerechi reguidacula doridoc.
 bñra eno jadyac erancun eusan / ofalsa tiaydorea quenaquie neure
 beguetaric ene desdicheonen Causa y azean azguero cegayñ.
 siluezori onerechi baeuso siluiac berenñi lein vcatueidanñi
 neure Remedioa bada / oneinbat gach yre causaz Etorridana azguero
 cegayñ epton losaric beruac onie esaten gureaurrean. eno jayz berba
 oee silbiac bere doridoren azean encunie cidñ desmayaduric.
 luezera Jausi. / onela lauac ecela desmayaduric siluezoc. Eneben
 nagusñ siñena remedio du. sñi. midoridogaiti. gaxonax dorido.
 silbiac catigaturic nauo. siluia. oya siluezoc nylnau.

silue. nagusñ siñena remedio du
 siñe. midoridogaiti gaxonax
 dori. siluiac catigaturic nauo
 siluia. oya siluezoc nylnau

Plastica oetan lauoc ecela aditueuen / osandibat canputi.
 etoren a. ain andia ece bñra espantaduric eocen ger alcatan

lan guñon cñuñ y agocun do lamente negarbafe berle gauric
 ric eguie eteñela cñincuc bigarrenegunear cerbatñ andia loac aitu
 cuñan arbole fiesabacuñ azpian nñn lorico coen agazeocen ordu
 an. aditueuen cantactaz etorñela / o deietati figura ederbat cññ ecu
 siac emuneu sen bilduz andibat ita bñle luezan siñena ita silbia
 Ezo aneueniac. lefoela aebere eroaeria bada bere / o deietati etoren a
 berbaeguñeñ slar manera / onetan. et bilduric ceuren biçetan artu
 arcay amorañac cegayñ nieznatorñ cuçy gachic eguñen dauca
 cññ gachonendañ Remedio emayñen baxe etala. atañ andia
 gar. aditueguidacu esanguradeñ beruac. euse jaguiñ o
 docu ece ara enegun ecu si ce bein salbafeac dizeala. narbae.
 in cantadoreañ mutilac çeniac bere encantamentu andiaz

goratueacucisepaño. salbafe
 in sua acoetati ecarere vela
 a flecha corrocacaz armadu
 rane vñan siluezori jaguica
 ridatorñ salbafe andi bi ordo
 toc encuneguian orduan dori
 ucidñ eta artueuen nor bere
 orduo saluafebiac arzebara
 e bñra lañer ta erroyu andiaz
 eozoc eta doridoc remedioñic.
 respantu itañ siñe a andiaz
 ita eñan ponsaduñen nuen.
 alcuqueñ eta prometiñduñen
 siñenata siluiay doro artean ore

"Artzain-kontakizuna" ren
 1152 v. eta 1153 r. orrial-
 deak. Joan Perez Lazarraga
 (Lazarragaren eskuizkribua,
 1567-1602 ing.; Gipuz-
 koako Foru Aldundia /
 Koldo Mitxelena Kultur-
 nea).

3.2. POESIA

Zu ekusi ta beste gauzarik

Amodio nahigabetua gai errepikakorra da Lazarragaren bertsoetan. Hauetan, gizona apostrofez mintzo zaio maite duen damari, zu-ni tirabira mingarrian. Gizona pozik da bere maitearekin baina honek tratu gaiztoz erantzuten dionez, bere kontentua atsekabe bihurtzen zaio. Penaturik, kexu, ez du hala ere etsiko.

Eskuizkribuan poema ageri den orriaren aurrekoak hondaturik daudenez, agian, testua ez zen honela hasten eta estrofaren bat edo beste falta da. Dena den, iritsi zaigunak badu nahiko koherentzia eta barne loturarik.

Laukoak 8 / 8a / 8 / 8a egituratik hurbil dira. Poemaren orria: 1164.a.

[...]

Zu ekusi ta beste gauzarik
oi¹ ez da zerren² ekusi,
zegaiti alegriarik ez da
munduan zure parerik.

Hain kontenturik nago ni zugaz
nola zu nigaz gaxtoto³,
zegaiti Jaunak egin ez naben
zure kontentamentuko⁴.

10 Zure begiok nekusenean⁵,
bertati⁶ neben ezautu
oi eta ezin zeindidala⁷
neure bizian gozadu.

Ene laztana, ze daidizu⁸
zeure gogoan pentsadu
zuk ni gaxki tratadu arren
oi ni naxala aspertu.

20 Zegaiti emaiten deustazu
zuk honelako bizia?
Bizi naxala iragaiten⁹ dot
munduko pena guztiak.

¹ Betegarria, bertso-lerroaren neurri egokia lortzearren erantsia. ² ez da zertan, ez da zergatik. ³ gaizki, txarki. ⁴ gozamenerako. ⁵ nekuskienean; ikusi nitue-
nean. ⁶ berehala. ⁷ ezin izango zintudala. ⁸ ez dezakezu; ez ezazu. ⁹ ira-
gaten, igarotzen.

*Penado de tanta pena*¹⁰
nago zu ekusiz gero,
*y ninguna cosa buena*¹¹
oi enetako ez dago.

¹⁰ Horrenbeste penaz penatua.

¹¹ eta ezein gauza onik; eta deus ere onik.

Arren, egia bat zarrezt

Amodio kontuak poema honetan ere, baina aurrekoan ez bezalako tankera edo jarraz. Oraingoan, nahigabe edo malenkonia tonurik ez. Maitaleak aurrez aurre, maila berean, norgehiagoka. Bestearen beharra ukatuz edo ezkutatuz: zu ez zara bakarra, badira bestelako aukerak.

Bost lauko, horietatik hirugarrena eta bosgarrena bereziak: koplaz zaharrak, 8a / 8a / 10 / 8a, edo egitura horretatik oso hurbil. Bietan, zeharkako irudi sinboliko estilizatua eta, ondoren, esanahi zuzena, argia, lotura sumatu egiten delarik.

Bigarren ahapaldian mintzo dena gizona da; ahapaldi horren eta poemaren hirugarren eta laugarren lerroen arteko lotura, *gogoan*, garbia da. Hortaz, hasiera emakumeak ematen du. Laugarren ahapaldia ere gizonarena. Hirugarrena eta bosgarrena, bienak izan litezke, bai gizonarenak, bai emaztearenak.

Poemaren orria: 1165.a.

*Otras*¹

—Arren, egia bat zarrezt²:
on dereztazun³ ala ez.

—Ahoan laztan zaitudaz⁴, baina
gogoan baterere ez.

Dontzeilatxo atrebidea⁵,
ez zabiltz ene gogoan, ez,
bestela ondo deizut⁶, baina
ezkondu baxinbatean ez.


10 Gure ortuan madari,
gurazaurik⁷ hamabi...
Beste amore bilatuko nax⁸
amore behar banadi⁹.

Ene laztantxo linda damea,
esportzu¹⁰ hartu egizu;
uste gutxien dozun orduan,
enegaz beharko dozu.

¹ "Otras canciones" edo "Otras coplas". Alegia, kantutegian, kanta edo koplaz baten ondoren, beste kanta edo koplaz batzuk. ² erran iezadazu, esadazu. Eskuizkribuan: *çarezt*. ³ onirizten didazun; maite nauzun. ⁴ zaitut. ⁵ errespetu gutxikoa, lotsagabea. ⁶ ondo egingo dizut, on egingo dizut. ⁷ "Gurazaua/duranzaua": basazuhaitz eta fruitua, albertxiko eta mertxikaren familiakoa. ⁸ bilatuko dut. ⁹ behar badut. ¹⁰ adore, kemen.

Urtan¹¹ eder harria,
haen gainean txoria...
Amorantian lekidanari¹²
20 atera neio¹³ begiak.

¹¹ Uretan. ¹² ni gorteiatzen arituko litzaidakeenari, ibil lekidakeenari; ni limur -
tzen ibil dadinari. ¹³ aterako ni(zki)oke.



"Otras: Arren, egia bat zarrezt". Joan Perez Lazarraga (*Lazarragaren eskuizkribua*, 1567-1602 ing.; Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea).

Fama handia, zatoz nigana

Ni poetikoak Euskal Herriko abantailen, bikaintasunen, laudorio egiten du. Modu orokorreaz, adjektibo generikoak, arruntak, erabiliz goraipatzen ditu: *galantak*, *galant es-tiraduak*, *eder*, *noblez*... Ez du bikaintasun horiek zertan dautzan zehazkiago argitzen.

Lehenengo atalean (1-22), Fama, txoriak eta tortolatxoak, Jaun zerukoa, zerua eta itsasoa, hartzen ditu edertasunen aldarrikari. Ondoren (23-38), gertuagotik, inguruko herritarrak, eta Gaztelako errege jauna, goresmenen lekuko. Azkenik, alabantzaren bermea, ez baita itxurazkoa edo faltsua, idazki zaharretan oinarritua baino (39-56).

Neurkera, Lazarragak usu darabilen moldea: bertso-lerroen segida luzea, oraingoan hamar eta zortzi silabako lerroak txandatzuz, errima neurtitz bikoitietan ezarriz, 10 / 8A. Poemaren orriak: 1169 eta 1170.a.

*Loa de las damas y galanes vascongados. El autor*¹

Fama² handia, zatoz nigana;
arren, zaakit lagundu³,
mundu guztiko erreinuetan
laster egizu famadu⁴.
Txoriak eta tortolatxoak,
gura deutsut⁵ agindu
gure herriko abantajaok
daikezula kantadu
oi⁶ honezkero gox hotzetan ta
10 kantu dultzeaz loadu⁷.
Jaun zerukoa, nik errazoaz⁸
beti zaidaz loadu⁹;
zerua eta izarrak bere
oita ze bitez ixildu¹⁰;
itsasoorrek orbe guztiaz
beti zagie laudatu¹¹,
zegaiti dozun Euskel Herria¹²

¹ Euskal dama eta galaien laudorioa. Autorea. Eskuizkribuan: *bascongados*.

² "Fama": Jainkosa alegoriko greko-erromatarra, etengabe abian, egia nola gezurra, ongia nola gaizkia, dakiena nola ez dakienaren zabaltzailea. ³ lagundu zakizkit. ⁴ famatu ezazu. Zein famatu? Poema irakurriz gero: gure herria (7), Araba (21), Euskal Herria (17, 37, 47). ⁵ gura deutsuet, nahi dizuet. ⁶ Bai *oi*, bai *oita*, gehienetan betegarriak, bertso-lerroaren neurria lortzeko. ⁷ *daikezula (...) loadu*: ditzazuela kantatu hemen-dik aurrera goiz hotzetan eta kantu eztiar goratu. ⁸ arrazoi(a)z. ⁹ zagidaz loadu, laudatuko zaitut. ¹⁰ ez bitez isildu. ¹¹ zagiez laudatu, goratuko zaituzte. ¹² Eskuizkribuan: *Eusquel Erria*.

- hainbat bentajaz dotadu.
Itsasoori tinta balidi¹³,
20 zeru zabala liburu,
oi Arabako abantajaok
ezin litezke kontadu.
- Jente noblea, ezin nesake¹⁴,
behar deustazu parkatu;
flakezeonen bildur nax, baia
oita gura dot azartu¹⁵.
Barrundiako¹⁶ dama galantak,
esaten irakastazu¹⁷;
30 Axparreneko¹⁸ larrosatxoak,
geraziea indazu¹⁹;
morroe²⁰ galant estiraduak²¹,
oi defendidu nagizu²²;
oi Gaztelako errege jauna,
erregiagaz ikatsu²³
zeure kortean dama ederrik
nola bapere ez dozun,
zegaiti Euskel Herrian dira
eder guztiok dotadu.
- Ene berbaok, jente noblea,
40 ze daidizu pentsadu²⁴
neure herria alabatzerren
nik ditudala finjidu;
badanik bere²⁵, jakin egizu²⁶
oita naxala fundadu
oi antxinako liburuetan,
zeinetan ditut ezautu:
Euskel Herriau oi nola eben

¹³ bihurtuko balitz. ¹⁴ ezin esan nezake. ¹⁵ ausartu. ¹⁶ Arabako Lautadako bailara; gaur egun, Dallo, Gebara, Larrea, Ozeta... biltzen dituen udalerria. ¹⁷ irakatsiezadazu(e). ¹⁸ Arabako Lautadako bailara; gaur egun, Albeiz, Araia, Egino... biltzen dituen udalerria. ¹⁹ grazia emadazu(e), trebetasuna eman iezadazu(e). ²⁰ mutil gazte (ezkongabe). ²¹ prestuak, estimatuak. ²² nazazu(e). ²³ erreginagaz, erreginarekin, ikas ezazu(e). ²⁴ ez ezazu(e) pentsatu. ²⁵ aitzitik, hala ere. ²⁶ jakin ezazu(e).

50 errege batek²⁷ pobladu
jente noblez ta lenguajeaz,
zeinak eusten agindu²⁸
zeruko Jaunaren fede santua
oi legiela kunplidu²⁹.
Oi Salamonek³⁰ eskribitzen dau,
jente noblea, jakizu,
bere bizian oi ez ebela
jente hobarik topadu.

²⁷ nola zuen errege batek. Nor ote da errege hau? Alegiazko Tubal, ustez Noeren semea? Erdi Arotik zetorren tradizioz, xvi. mendean zabalduz joan zen Tubal delakoaren mitoa: Iberiar penintsulara etorri, lurraldea kolonizatu, eta, berarekin, Babelen sortutako hizkuntzetatik bat, hots, euskara, ekarri eta zabaldu zuela. ²⁸ agindu zigun.

²⁹ konpli, bete, zezatela. ³⁰ Salomonek. "Salomon": Biblian, Israelgo erregea (K.a. x. mendea), bere jakituria zela-eta ospetsua. Poeman, figura honetaz baliatzea asmakizun poetikoa da, herriaren nobleziari ospe edo distira emateko, subjektu poetikoaren berbak funtsez hornitzeko, erabilia.

Barri onak dakart

Aingeruak, lehenengo pertsonaz, Jesus salbatzailea jaio delako berri ona jakinarazten die Peritxo eta Anton artzainei (1-4). Ondoko ahapaldietan (5-20), orain artzainek euren ahotsez, aingerua azaldu zaiela kontatzen dute eta nola, berehala, Betleemera joan diren gertakari harrigarria mirestera.

Ezagutzen den euskarazko lehen bilantziko edo gabon-kanta da. Badu iturri gertua: “Buenas nuevas buenas / Perucho y Antón, / que hoy es nacida / nuestra salvación. // Allá repastando / el nuestro ganado, / nos ha espantado / un ángel volando, / díjonos cantando / aquesta canción, / que hoy es nacida / nuestra salvación. // Y como le oímos / el ható dejamos, / luego caminamos / y a Bethlen venimos, / cosas allí vimos / de admiración, / donde era nacida / nuestra salvación (...)” (Ocaña, 1603). Gaur egun kantatzen den “Artzai buruzuri bi” gabon-kantan ere Anton eta Peru dira artzainak.

XVI eta XVII. mendeetan egiten ziren poema elebidunen (katalana-gaztelania, gaztelania-latina, italiara-gaztelania...) erara moldatua da, euskara eta gaztelania lerroka txandatzuz. Lazarragak berak, bestalde, 1170 eta 1169. orrietan jasotako poeman, gaztelania eta latina gurutzatzen ditu.

“Bilantziko” esaten bazaio, gaiarengatik eta darabiltzan bertso-lerro labur eta estrofa bukaerako errepikarengatik da. Bilantziko moldeak bestelako egitura finko eta konplexuagoak baditu. Hemen soilena erabiltzen da. “Gabon-kanta” izena, beharbada, ego-kiagoa.

Hiru estrofaz osatua dago: lehenengoa lau-ko bat, eta hurrengoak bi lau-koz jositako zortzikoak. Oinarrizko egitura metrikoa: 6 / 6a / 6 / 6a. Errima neurtitz bikoitietan, gaztelaniazko lerroetan. Poemaren orria: 1180.a.

Barri onak dakart,
Pericho y Antón:
 orain jaio dala
*nuestra salvación*¹.

Guztiok genbiltzela
en nuestro ganado,
 oi etorri jaku
un ángel volando.
 Esan deusku gero
aquesta canción:
 orain jaio dala
nuestra salvación.

10

¹ Gaztelaniazko lerroak, hurrenez hurren eta hitzez-hitzezko itzulpen soilez: Pericho eta Anton [...] gure salbazioa [...] abere zainketan [...] aingeru bat hegan [...] honako kanta hau [...] gure salbazioa [...] artaldean utzi (genuen) [...] eta Betleemera iritsi (ginen) [...] mirestekorik [...] gure salbazioa.

Barria gentzuanean²
el hato dejamos,
guztio alkarregaz
y a Belén llegamos.
Hainbat gauza egoan
de admiración
jaio zan lekuan
20 *nuestra salvación.*

² entzun genuenean.

Monesterio santu debotoa

Barriako monasterio zistertarra Erdi Aroan eta gero ere Arabako kristauen kriseilu argia izan bide zen. Burgosko Las Huelgas Reales-en kimua, XII. mendearen amaieran edo XIII.aren hasieran sortua, jada 1232an bazuen Gregorio IX.a aita santuaren bulda, eta hainbat pribilegioren jabe zen; hala, bertako kapilaua ere izenda zezakeen. Ez da gelditzen garai hartako eraikinik zutik; oraingo eraikinik zaharrenak XV. mendekoak dira. Eraikuntza-lan nagusiak XVI. mendearen erdialdean egin zirenez, ulergarria monasterioa *barria* (3) gisa aurkeztea poeman.

Lazarragatarrek harreman zuzenak izan zituzten bai Barria, bai Oñatiko Bidaurreta komentuekin. Marina Gebara Lazarraga Barrian hil zen 1560an, harrizko hilobiak adierazten duenez; ondoren, Ana Belasko izan zen abadesa, eta geroago Milia Gartzia Zuazokoa, 1603an hila. Poeman ageri dena Ana Belasko dirudi.

Poema honetan, Lazarragak, moja baten pertsonaian sarturik, honen koaitak eta ke-xuak kontatzen ditu. Hasieran, apostrofez eta laugarren ahapalditik aurrera lehenengo pertsonan mintzatuz, monasterioa, abadesa eta gainerakoak agurtzen ditu (1-24). Ondoren, mojari darion tristura eta nahigabe mingarria (25-36). Jaiotzatik jada zoritxarrekoa, orain gatibu, amodioaren samurtasunetatik urrun, gaztetasuna gozatu beharrean komentuan zimeltzen. Nahiago kanpoan libre. Kontrastez beteriko atala (37-75). Ikuskatze aitzakian, komentura iristen den fraide bisitatzailerik biziotsuaren kontra jotzen du, erasmismoaren edo erreformismo katolikoaren kutsua nabarmentzen zaiolarik. Ironia eta saminduraz bereizten den pasarte (76-96). Bukaeran, mojaren deiadar etsia (97-99) eta autorearen azken ziztada zakarra (100-105), komentua aukeratu eta gero kexatzen direnentzat aproposa, baina poemako mojarekiko, bederen, desagokia, moja honek ez baitu *eskojidu* (...) *horrelako bizitzea*.

Poema hogeita hamabost hirukoz dago osatua, hiruko guztiak 11 / 11A / 11A moldean, estrofatik estrofara errima aldatuz, taxuturik. Eskuizkribuan, ahapaldi bakoitzak (bertsio honetako zortzigarrenak salbu) bere zenbakia darama, eta, hemen, hurrenkera horren arabera antolatu da testua. Poemaren orriak: 1180, 1181, 1182 eta 1185.a.

Monesterio¹ santu debotoa,
Jaunaren graziaz heben² jarria,
etxe prentzipala³ eta barria.

Basoan zu zaoza⁴ fundadua
eta, hil zan arren fundadorea,
bakus⁵ munduak zure balorea.

Zegaiti zu zara, dudadu⁶ бага,
korridu badidi⁷ ondo mundua,
beste guztietan estimadua.

¹ Monasterio, komentu (handi).

² hemen.

³ nagusia.

⁴ zagoz, zaude.

⁵ badakus, ikusten du.

⁶ dudatu, zalantza izan.

⁷ korritu badadi; ibiltzen bada, pasatzen bada.

- 10 Oin-esku zardenok⁸ apatzen diot⁹,
il[ustr]e abadesa notadea,
zerren egin deustan mesedea¹⁰.
Konbento guztia jeneral[m(en)]te¹¹
saludatzen dot nik agur eginda;
belauriko, barriz, zu, ene lind[a]¹².
Abisada¹³ eder parebagea,
ez dakart gorgera¹⁴, ez daust¹⁵ gona;
ekusi nagi¹⁶, ze ni ona-ona¹⁷.
Ni kaso naxala¹⁸ baldin badator
20 euroen¹⁹ artera tentazioa,
bertati eske nax²⁰ parkazioa.
Monjea²¹ kausa dala, kokotean
enamoraduak ze begi hatzik²²,
zerren monjeaenak ez dau gatzik²³.
Ai ai ai ai ai ai ai ai ai ai ai
ai ai ai ai ai ai, dardo zorrotza!
Zein triste dagoan ene bihotza!
Alegere dago itsasaldean
uda ta negu beti naranjea;
30 monesterioan triste monjea²⁴.
Esan badagie ez daoze²⁵
alegere baxe sekula²⁶ triste,
nik diot egun dala aratixte²⁷.

⁸ lirainok, lerdenok. ⁹ muinkatzen, musu ematen, diot. Moja berorika ari zaio abadesari. ¹⁰ Zein mesede? Mojari komentu guztiaren aurrean bere poema irakur-tzeko hitza ematea ote? ¹¹ salbuespenik gabe. ¹² agurtzen zaitut zu (zuka oraingoan abadesari), ene linda. "Linda": "polit" adieraz gain, badu "on, zintzo, gisako, egiazko" adiera. ¹³ zuhur, buruargi, zentzudun. ¹⁴ goleta, idunek: leporako mihisezko apaindura, kizkur eran tolestatua. ¹⁵ ez zait eusten; ez dut janzten. ¹⁶ ikusi nazala (berorrek). ¹⁷ on-ona, oso ona. ¹⁸ ni kausa naizela; niregatik. ¹⁹ euren. ²⁰ berehala eskatzen dut. ²¹ moja, lekaimea. ²² maiteminduak mojaren lepondoan ez beza hatzik egin, hazka egin. ²³ ez du grazia-rik, xarmarik. ²⁴ Alegeratasuna (itsasaldea - laranjondoa) eta tristura (monasterio - moja) kontrastea: lehenengo osagaia irudi, naturaren pertsonifikazio, mailan; bigarrena, esanahi zuzenekoan. ²⁵ esaten badute ez dagozela, ez daudela (mojak, alegia). ²⁶ baizik beti. ²⁷ gaur dela aratuste, haragi-uzte (eguna), inauteri.

Zegaiti monjea inox ez dago
baize hau edo hori pentsaetan²⁸,
beti bere koitaen harilketan²⁹.

Jaiorean³⁰ nintzan desdixadea,
zerren aita neben guztiz gogorra,
senideak labor³¹, ama lehorra.

40 Ene senideak libre daoza³²,
gozatzen dauela³³ libertadea;
ni nago katigu subjetadea³⁴.

Zilegi dauela euren senarraz
iragaiten gustosoro³⁵ bizia,
nik ez "bai"³⁶ esateko lizentzia.

Ha daratzanean³⁷ bere senarrak
bere beso laztanaz estaldurik,
nik jagi³⁸ behar ohi dot hotzak hilik.

50 Gaztea sartu nintzan³⁹, sentitzaka⁴⁰
handi hartzaite neben⁴¹ engainua;
bizi nax bizi guztiz estrainua.

Kontentu бага dakust ditudala
neure urte dultzeak kastaetan⁴²,
loturik nagoala holtz hoetan⁴³.

Itxi jatzun⁴⁴, bada, sekulareko⁴⁵
kartzel gogor honetako atea.
Ai ai, ene narru zuri gazteak!

60 Ama libreaganik jaio nintzan
ditxarik ez nebenau alabea⁴⁶;
dirurren saldu nintzan esklabea⁴⁷.

²⁸ baizik hau edo hori pentsatzen. ²⁹ koaiten harilketan, nahigabeak hariltzen; penak korapilatzen. ³⁰ jaiotzatik. ³¹ haserrekor, egonarri gutxiko; doilor. ³² da-goza, daude. ³³ dutela. ³⁴ gatibu lotua, menderatua. ³⁵ iragatzen, igarotzen, gus-tura. ³⁶ Ezkontzako "bai", alegia. ³⁷ Hura eratzen duenean, etzanarazten duenean; besarkatzen duenean. ³⁸ jaiki. ³⁹ Gaztea nintzela, gazterik, sartua izan nintzen, sartu ninduten. ⁴⁰ sentitzeke, sentitu gabe, nabaritu gabe. ⁴¹ handi(a) hartzen nuen. ⁴² gastatzen, xahutzen. ⁴³ pareta (mehe) hauetan. ⁴⁴ Itxi zitzaizun. Eskuizkribuan: Ysi. ⁴⁵ sekulako, betirako. ⁴⁶ Ama (...) alabea: Ama libre batengandik alaba (gisa) jaio nintzen zoriontasunik ez nuen hau. ⁴⁷ diruagatik saldua izan nintzen, saldu nin-duten, eskriba (gisa).

Neure haragiok dakustanean
zein zarden⁴⁸ direan eskutxoetan,
bertati jasarte nax eresketan⁴⁹.

Amore dultzearen ardurea
zeinbat dodan probadu gutxiago⁵⁰,
hainbat iruditzen jat dultzeago.

Kanpuan hoba leuke atxurtzala⁵¹,
izango baleu bere beti presa⁵²,
mila monjaren baino abadesa.

70 Kontentuago dago halakoa⁵³
jaaten dabela basailorea⁵⁴,
eperki janik baino priorea⁵⁵.

Zerren beti bere da arinago
borondatez nekea egitea
baino bere posa atsedetea⁵⁶.

Orain dator fraile malmatz⁵⁷ harro bat,
atxakiz harturika bisitea,
oinagaz dakarrela agintea⁵⁸.

80 Erabilten⁵⁹ gaitu hilabetean
bere tripearentzat errastruan⁶⁰;
geur, barriz, tiri-taio⁶¹ konbentuan.

Harentzat eperra, bardin⁶² a(ha)l bada;
ez gorri tantarik, baize zuria⁶³;
aumarik⁶⁴ badogu, ez azuria⁶⁵.

⁴⁸ zimel, ihar. ⁴⁹ berehala jesartzen, jartzen, naiz erosta jotzen, lantu batean.
⁵⁰ zenbat eta gutxiago dudan probatu, hainbat... ⁵¹ Hobe luke kanpo librean, hots, landan, aitzurtzaile, aitzurlari (izan). ⁵² beti presa, estura, lehia izango balu ere; beti presaka ibili behar izango balu ere. ⁵³ Hots, aitzurlari hori. ⁵⁴ "Basailore": ogi eskasa, merkea, zahi guztia kendu gabea. ⁵⁵ priorea baino (kontentuago), (hau) eperraren okela jaten ari delarik (ere). "Priore": komentu batzuetako buru. ⁵⁶ bere bortxa, bere borondatearen kontra, atsedean egitea, atsedean hartzea, baino. ⁵⁷ malmutz, maltzur; gaizto, zuri. ⁵⁸ oina eta agintea dakarrela, maila (kategoria) eta agintea dakarrela / oinarekin batera, urratsarekin batera, dakarrela agintea, hau da, oina komentuan sarztearekin bat agintzen hasten dela. ⁵⁹ ibilarazten. ⁶⁰ bere tripa betetzeko gauzen arrastoari jarraitzen, hots, gauzak bilatzen. ⁶¹ Onomatopeia ote? Agian: goseak, ezer gabe. ⁶² baldin. ⁶³ Ardoa, alegia. ⁶⁴ antxumerik. ⁶⁵ axuria, bildotsa.

Konbenturik konbentu dabilela,
hor ase, heben bete, bigardoa⁶⁶:
mutil, mando, bota ta tabardoa⁶⁷.

90 Niri, barriz, zerren negian berba⁶⁸
neure a(ha)ide jabe prentzipal batez:
"Deo graciaz⁶⁹, zu, azota zatez⁷⁰".

*Hipócrita, bellaco, riguroso,
soberbio, regalón y deshonesto⁷¹;*
Jauna, barka zakezt⁷², *si peco en esto⁷³*.

Kabuan⁷⁴ emaiten dau firmadurik
konklusioz: "zertzero bertzerea,
nebeaz behar dala tertzerea"⁷⁵.

Ai! Ala gatzaren guztiz fortitza⁷⁶!
Ala biziaren bizi bedarra⁷⁷!
Bentzu⁷⁸ munduak ene deadarra!

EL AUTOR

100 Hona bada, *señoras*, klaram[en]te
nun relatadu dan zuen bizia,
zeina dan zuentzat guztiz gazia⁷⁹.

Bada zeurk bazenduan eskojidu⁸⁰
zeuretzat horrelako bizitzea,
zuratzat⁸¹ har ezazu sufritzea.

⁶⁶ "Bigardo": fraide aske eta bititza arinekoa, lizunekoa. ⁶⁷ zahato eta tabardoa. "Bota": hemen, oinetako luzea ere izan daiteke. "Tabardo": oihal zakarreko, landuga-beko, beroki zabal eta luzea. Bertso-lerroko izenak, agian, fraideari komentuan eman-dakoen zerrenda. ⁶⁸ berba egin nuen. ⁶⁹ "Eskerrak Jainkoari" esan nahi duen latinezko *Deo gratias*en moldaketa. ⁷⁰ azotatua, zigortua, izan zaitez / azota ezazu zure burua. ⁷¹ Itxurati, doilor, zorrotz, / harroputz, erosozaile eta desonesta. ⁷² barka zakizkit, barka nazazu. ⁷³ honetan bekatu egiten badut. ⁷⁴ Akabuan, azkenean, azken buruan. ⁷⁵ Hitz-jokoa dirudi: bisitaren amaieran, fraideak bere txostean ateratzen duen ondorioa, konklusioa, zentzurik gabekoa dela adierazteko. ⁷⁶ bortitza, izugarria. ⁷⁷ meharra, latza. ⁷⁸ entzun beza. ⁷⁹ garratza. ⁸⁰ zeuk bazenuen aukeratu. ⁸¹ zuretzat.

Zegaiti begiratu gura ez dozu

Amodiozko gaia duen beste poema bat, oraingoan zabala eta gaztelaniazko metrikari “Copla de arte mayor”, molde nagusiko kopla, izenez ezagutzen den estrofa motan erai-kia. Lazarragak estrofa eredu hori zortzi neurtitzeko ahapaldiz gauzatzen du, lerroak na-gusiki hamaika silabakoak, eta ABBAACCA errimaz osatuak. Euskarazko bi poemetan erabiltzen du estrofa eredu hau, hemen eta “Hain on emun baleust kantatzeko” (1193-1194) konposizioan; eta gaztelaniazko beste hirutan.

Lehenengo bi ahapaldietan (1-16), mutil gazteak maite duen dontzeilari Amoreak dioena entzun dezan galdegiten dio. Honek bere agindua –adierazgarria emakumeei bereziki zuzendua izatea– aldarrikatzen du: *amoradoak ondo hartu*. Datorrenaren zu-ribidea den sarreratxo honen ondoren, gainerakoa, funtsean, mutilak neskari zuzentzen dion apostrofe luzea da (17-120), batetik, maitearen edertasuna goratuz, *inor baino ede-rrago zareana, zu lako dontzeila bat hain lindarik*, eta, bestetik, hari etengabe errepika-tutako eskaerak luzatuz: hain gogorra izan ez dadin, berba bat egin dezan, bigunago joka eta gizona errukiz har dezan eta abar.

Dei luze honetan, nabarmentzekoak azken lau estrofak (89-120). Subjektu poetikoa, bere erreguan aurrera eginez, gizonaren (ni) eta emakumearen (zu) arteko jarrenen eta izaeren kontrakotasunen jokoan garatzen du. Bitxia azken ahapaldia (113-120), non erri-maren eskema hautsi egiten den. Laxotasuna edo, agian, aurreko bertsoetan ere nabari den moduan, erritmoa beste baliabide batzuen bidez lortzeko saioa: errepikak, kontras-teak, paralelismoak...

Azpmarragarriak, dontzeilaren bihotz-gogortasuna eta edertasuna agerrarazteko era-biltzen diren adjektiboak eta, bereziki, irudi sorta: *kurela, murailea, traidorea, pedernala...; kapitana, estreilea, perla lindea, espilua, larrosea, eguzki ederraren esposea*... Poemaren orriak: 1185, 1186 eta 1187.a.

Zegaiti begiratu gura ez dozu
zugaiti nola nagoan kantaetaz¹?
Bihotzau jo deustazu anetx² fletxaz,
nigaz konturik egin nahi ez dozu;
begira egizu³ zer egiten dozun,
nuen⁴ kontra ta nola oita⁵ zabiltzen,
amoreak zer deutsun zuri agintzen⁶.
Belarriok irekazu eta dantzuzun⁷:

¹ kantuz. ² anitz. ³ begira ezazu; kontu egin ezazu. ⁴ noren. ⁵ Esanahi berezirik gabeko hitza, betegarria, neurri egokia lortzearen tartekatua. ⁶ Eskuizkri-buan, lerro honetan: *amorearen legeak dau agintzen*, idatzi zuen poetak aurrena; gero, hemen ageri den moduan zuzendu. ⁷ ireki itzazu eta entzungo duzu.

10 “Dontzeila guztioi deustet aginketan⁸
dagiela⁹ amoraduok ondo hartu;
honegaz linda guztiok beukae kontu¹⁰,
zerren joango nax neurau eskaetan¹¹;
kurela ifiniko dot estuetan¹²,
baldin ta¹³ mandamentu hau goarda ez badez¹⁴.
Nik hau erraz daiket¹⁵ neure partez,
hasi banadi¹⁶ amorez konbatietan”.

20 Amoreak¹⁷ entzun dozu, ene laztana,
oi bere mandamentuan zer dioan;
apa bat baneidizu¹⁸ aho gozoan;
bakutsu¹⁹ ene fedea firmea dana.
Dontzeilea, arren, egizu ene esana,
zegaiti zuk ez dozu ezer galduko;
neure bizian ez zaut a(ha)ntzituko²⁰,
zuretzat izango da nik dodana.

30 Zu zara eder guztioen kapitana,
zeruko irargi zuria dirudizu;
ene guztiau zeure egin egizu,
inor baino ederrago zareana.
Libertadeau joan jatan²¹ zuregana,
ni bizi izaatea zure eskuan dago,
remedioaren esperantzaz beti nago,
zeina bakit²², larrosatxoa, zugan dana.

Espantadurik nago, dontzeilea:
bihotzoi nola dozu horrein kurela?
Tratadu ze nagizu²³ beti honela;
entzuzu, dama guztioen estreilea:
gura dot relajadu kereilea²⁴;
osatu ene llageau²⁵, nahi badozu.

⁸ agintzen diet. ⁹ ditzatela. ¹⁰ eduki bezate kontu. ¹¹ eskatzen, hots, kontu eskatzera. ¹² krudela estuasunean ipiniko dut. ¹³ baldin eta. ¹⁴ ez badeza.
¹⁵ dagiket; egingo dut. ¹⁶ hasten banaiz. ¹⁷ Cupidok, hots, amodioaren jainkoak.
¹⁸ musu bat egin (eman) ahalko nizuke. ¹⁹ badakutsu, ikusten duzu. ²⁰ ez zaitut ahaztuko.
²¹ zitzaidan. ²² badakit. ²³ ez nazazu. ²⁴ apaldu kexa, laxatu eskakizuna.
²⁵ zauri hau; pena hau.

- 40 Larrosa maiatzekoa, nola dozu
enetzat horrein gogor murailea?
- Dontzeilea, piadadez har nazazu;
barriz gura deusut erregutu:
katea gehiagogaz ez ni lotu,
neure bihotzau libre jafindazu²⁶;
bihurtu libertadea egidazu,
alegeratu didin ene gogoa.
Zu zerbitzeko handi dot deseo;
aldi bat²⁷ zeure besoan naratzazu²⁸.
- 50 Ediraiten ez dau²⁹ inork munduan
zu lako dontzeila bat hain lindarik;
sekula jaio ez da amoradurik
ni duin³⁰ firmerik ene lekuan³¹.
Enegaz jarri zatez partiduan³²,
zegaiti honezkero³³ da denporea;
berba bat egidazu, traidorea,
plazaz edo bestela estalduan³⁴.
- Nigana zaozela³⁵ dirudizu
enojadarik beti kausa бага;
askotan egote nax berba бага;
60 orain, edola bere, ze nafinzu³⁶;
aldi bat, perla lindea, egin egizu³⁷
nigaz, ordu bakotx bat kunplidua³⁸.
Zu zara ene begioen espilua;
azkero³⁹ zeure eskuogaz hil nagizu.

²⁶ ipin iezadazu. ²⁷ aldi batez, une batez. ²⁸ eratzan nazazu, etzanaraz nazazu;
besarka nazazu. ²⁹ ez du edireten, aurkitzen. ³⁰ bezain. ³¹ herrian. ³² harre-
manetan. ³³ dagoeneko, jadanik. ³⁴ ezkutuan, gordean. ³⁵ zagozela, zaudela.
³⁶ ez nazazu ipini, ez nazazu utzi (berbarik gabe). ³⁷ egin ezazu. ³⁸ ordu bakar bat
osatua, ordubete baino gehixeago, alegia. ³⁹ beraz.

Jaunorrek ez dindala⁴⁰ ondasunik,
 gogoau baldin badot bestegana;
 horrein kruel izaten enegana
 nik merezidu ez dot zureganik.
 70 Sekula nik ez oi⁴¹ dot beste lanik,
 honela iragaiten jat⁴² gau-egunak;
 hain dira ene begiok heltzaidunak⁴³,
 zugana laster doaz eneganik.

Beti begira nago zuregana,
 ezin azartu nax⁴⁴ ezer esaten;
 kontentu-deskontentuak puntu baten⁴⁵
 laster etorten dira enegana.
 Badozu zeure gogoa bestegana,
 alferrik engainadu ze nagizu,
 zeure gogoko barria esan egizu⁴⁶,
 80 ikasi nik dagidan⁴⁷ zугan dana.

Parerik ez dozuna a(ha)l dakizu⁴⁸,
 guztioen gainetiko larrosea,
 eguzki ederraren esposea;
 hagaiti zuk honela narabilzu.
 Kundizio kurelok nahi bekizu⁴⁹
 honezkero zeurganik kentzaitea⁵⁰;
 beraro⁵¹ har nazazu, traidorea,
 edo bestela noxbait⁵² hil nagizu.

⁴⁰ (Jainko) Jaun horrek ez diezadala eman. ⁴¹ Bertso-lerroaren betegarria ala "ohi"?
⁴² iragaten, igarotzen zai(zki)t. ⁴³ Dirudienez "heldu"tik. Hots: atzemaileak, harrapa-
 riak, hau da, heltzeko eta atxikitzeko gaitasuna duten begiak. ⁴⁴ ausartu naiz.
⁴⁵ instant batean, berehala. ⁴⁶ esan ezazu. ⁴⁷ dezadan. ⁴⁸ dirudienez, ziur asko,
 badakizu. ⁴⁹ (Ezarri dizkidazun) baldintza krudel horiek nahi bekizkizu, nahi itzazu.
⁵⁰ dagoeneko, jadanik, zeuregandik kentzea. ⁵¹ bigunki, leunki. ⁵² behingoz; az-
 kenean.

- 90 Dontzeilea, zuk banozu sentietan⁵³,
sentitzen zaitut, bai, zeurori bere;
zuk banazauzu ni⁵⁴, bai nik zu bere;
zuk ni legez, nik zu zaut adietan⁵⁵.
Ze gabiltzaden beti puntuetan⁵⁶,
dagigun⁵⁷ konbertsadu alkargaz;
zu nigaz konfesadu, ni zuregaz,
alkar daratzagula⁵⁸ besoetan.
- Nik negar dagidanean⁵⁹, zu zaoz⁶⁰ barrez;
nik barre dagidanean, zu tristerik.
Banago zure aldean jasarririk⁶¹,
100 itzulten dozu buruoi grabedadez⁶²;
berbarik badegizut poridadez⁶³,
gogorrik jarten zara berehala.
Askotan, zu bazina pedernala,
edo ni sufritzeko banintz hatxez⁶⁴!
- Neskea zara zu ta ni gizona;
zuk legez ditut nik narru zuriak;
zuk bere bai ni[k] legez haragiak;
zuk legez nik bere dot gorputz ona;
narabilzuna legez horra-hona⁶⁵,
110 haxeak ohi darabil beletea⁶⁶.
Zarean esadazu, dontzeilea,
kastaz benturaetan⁶⁷ amazona.

⁵³ sentitzen banauzu. ⁵⁴ banazaguzu ni, ezagutzen banauzu ni. ⁵⁵ aditzen zaitut, ulertzen zaitut. ⁵⁶ Ez gaitezen ibili beti eztabaidan, tirabiran. ⁵⁷ dezagun. ⁵⁸ eratzanik gaudela; besarkaturik gaudela. ⁵⁹ egiten dudanean. ⁶⁰ zagoz, zaude. ⁶¹ jesarririk, eseririk. ⁶² seriotasunez. ⁶³ egiten badizut argi eta garbi, itzulingururik gabe. ⁶⁴ zu (...) hatxez! (oxala) zu bazina pedernala (bezain gogorra) edo ni (pedernalaren golpea) jasateko haitzez(koa) banintz! ⁶⁵ zuk narabilzun bezala alde batetik bestera. ⁶⁶ ohi darabil haizeak haize-orratza. ⁶⁷ menturaz, beharbada.

Amorea da honako ez dakit zer bat,
etorten da harako ez dakit nundi;
ez dakit nola bihotzean sartzaiten da
zuk agin dagizuna⁶⁸ egiteko.
Dudatzen badozu, ene laztana,
asko da ditxoso desditxaetan⁶⁹.
Nik hain on baneu bozau⁷⁰, kantatzeko
120 padezietan dodan doloreak!

⁶⁸ agin dezazuna.
nik ahots ona banu.

⁶⁹ asko dira, jende asko da ditxoso desditxaetan.

⁷⁰ Oxala

Ahaide handiok bidaldu deustae

Mutil gazteak ez ditu oraindik hogei urte bete. Senitartekoek, hala ere, ezkonarazi nahi dute. Gaztea uzkur, libertatea galtzeko beldurrez (1-8). Ezkonduz gero, ugariak dira galduko lituzkeen aukerak: amodio harremanak, gorte egiteak, justetan parte hartzeak, gogoko jantziak, dantza eta bestelako gutiziak (9-36). Beraz, ezezko irmoa. Gaztea da ditxarik eza, kargak eta nekeak jasateko (37-48). Jarraian, oster, oraingoan ironiaz eta irudi adierazgarriaz zipriztinduta, ezkontzak ekarriko lizkiokkeen erantzukizunak, beldurrrak, ezinak: azienda zaintzeko lanak, familia gorabeherak, jan-edanean urritasuna, emaztearekiko konponezinak eta abar (49-106). Etorkizun beltza. Nahiago du oraina, oraingo egoera eroso eta libre, amaren babesean, dama bat zerbitzatuz, gaztaroa gozatuz. Ezkontzaren uztarritik aske nahi du. Itxaron dezatela senitartekoek (107-170). Bere erantzuna: ez du onartzen hain laster ezkontzea (171-174). Hau guztia lehenengo pertsonan, gaztearen barnetik jalgia, errealismoz.

Poema Lazarragaren datu biografikoekin lotu izan da. Perez Lazarraga eta Gonzalez Langarika familien arteko harremanak eta onura ekonomikoak, lehendik zetozen. Joan Perez Lazarraga eta Katalina Gonzalez Langarika ezkontzean, lotura sendotu egingo zenez, uste izatekoa da ezkontza hori gauza zedin interesik egotea.

Neurtitz segida luzea, 10 / 8A parearen errepikatuz –hamar silabako ia guztiak 5+5 eginenez– eta *-ea(n)* errimari eutsiz, poema osoan zehar.

Poemaren orriak: 1195 eta 1196.a.

A(ha)ide handiok¹ bidaldu deustae
eskrebidurik karte
ezkondu gura nindukeela².
Ene gogoko tristea!
Oi eta³ bardin⁴ honela bada,
handia jatort⁵ kaltea,
zegaiti behin ezkonduz gero
galdu dot libertadea.

10 Honeinbatenaz⁶ oi kenduko jat
amoradoen nonbrea⁷;
eragotziko deraustae⁸
damaok zerbietea⁹.
Akordaduko sekula ez jat¹⁰
kalean paseatzea;

¹ Ahaide hurkoek, ahaide hurbilek. ² ezkondu nahi ninduketela; ni ezkondu nahi lukekela (haiek ni). ³ Bai *oi eta*, bai *oi*, oro har, betegarriak dira bertso-lerroaren neurri egokia lortzeko. ⁴ baldin. ⁵ datorkit. ⁶ Honenbestez. ⁷ amatuaren izena. ⁸ didate. ⁹ zerbitzatzea. ¹⁰ Ez zait sekula onartuko, aukera moduan emango.

astirik barriz ez dot izango
 zehar ifinten gorrea¹¹.
 Gabetan barriz ez jagot¹² joko
 laztanai biguelea¹³,
 ez gehiago oneretxai¹⁴
 20 bentanarean¹⁵ flautea.
 Debekatuko oi deustae
 hari egiten apea¹⁶;
 ez gehiago ez jagot joko
 kontereagaz¹⁷ atea.
 Erraz daoke¹⁸ azkero¹⁹ geldi
 oi ene errodelea²⁰;
 arkaan²¹ barriz erraz dafinket²²
 maila finezko kotea²³.
 Oi ez dot zerren²⁴ azkero jantzi
 30 seda finozko kaltzea²⁵,
 ez gehiago haren gainean
 zapata kutxilladea²⁶.
 Oi harrezkero²⁷ nik ez dot zerren²⁸
 estudiadu dantzea,
 ez gehiago dekoru jakin²⁹
 pabaneagaz bajea³⁰.

¹¹ txapela zehar ipintzen. Dirudienez, txapela horrela janzteak damak gorteiatzeko prest egotea esan nahi zuen. ¹² diot. ¹³ laztanari bihuela (gitarraren antzeko hari-instrumentu zaharra). ¹⁴ oneritzari, maiteari, laztanari. ¹⁵ bentanatik, leihotik. ¹⁶ musu ematea. ¹⁷ "Kontera": ezpata-zorroari, bastoiari eta abarri, babesgarritzat, muturrean jartzen zaien metalezko pieza. ¹⁸ Ziurrenik egongo da. ¹⁹ geroztik. ²⁰ "Erredola": ezkutu mehe borobila. ²¹ arkan, kutxan. ²² ipiniko dut. ²³ "Kota": zaldun gudu edo justetan, gorputza babesteko erabiltzen zen burdinezko edo hiltzez hornitutako maila, ehun metalikoz egindako estalkia. Ezkonduz gero, erredola eta kota bazterturik, ez lukeela gehiago parte hartuko norgehiagoka horietan adierazi nahi da. ²⁴ ez dut zertan, ez dut zergatik. ²⁵ "Kaltza": galtza zabal dotorea; zetazko galtzerdi luzea. ²⁶ Ebaki apaingarriak dituen oinetakoa. ²⁷ ordutik aurrera. ²⁸ ez dut zertan, ez dut zergatik. ²⁹ buruz jakin. ³⁰ pabana eta dantza baxua: XVI. mendean modan izandako gorteko bi dantza mota, mugi-mendu dotore eta pausatuzkoak.

Ondasun hoek galdu badagit³¹
semea ditxabagea;
erruki nauzu³², neure a(ha)ideak,
40 zegaiti nax ni gaztea.
Oi oraingaino³³ ez nax ni heldu
oi bada hogei urtean³⁴,
oi eta, barriz, handiegi da
ezkonduaren kargea;
bertati³⁵ dakar gizonaentzat
ardurea ta plagea³⁶.
Entzuzu eta dirakatsudan³⁷
ezkonduaren dotea:

Ezkondu eta le(he)naengoa
50 ona dau hilabetea;
badanik bere³⁸, bertati dauko
kargutan aziendea³⁹.
Berandu etzin eta gox jagi⁴⁰,
iruli⁴¹ sarri ohean,
pentsamentua darabilela
leku askotan, fedea⁴²!
Pobrea bada, zegaiti ez dau
zegaz sustendu⁴³ onrea,
askotan estu⁴⁴ oi beharko dau
60 erreileagaz goldea⁴⁵;
izerdi-orio⁴⁶ franko behar dau
oi bere bular artean.
Ma(ha)ira datorrenean, barriz,
baba zigorrez⁴⁷ saldea;
zazpi librako tremes⁴⁸ handia
faisaetzat⁴⁹ aldean;

³¹ galtzen baditut. ³² erruki izan nazazu(e). ³³ oraindaino, oraindik. ³⁴ urteetara.
³⁵ berehala. ³⁶ plaga, hots, irudizko adieran, zoritxarra, desditxa. ³⁷ entzun ezazu(e)
eta irakatsiko dizu(e)t. ³⁸ hala ere. ³⁹ berehala dauka bere kargu azienda, segituan on-
dasunen ardura hartzten du. ⁴⁰ Berandu etzan eta goiz jaiki. ⁴¹ bueltak eman, ezine-
gonez. ⁴² ala ene fedea; egia-egiatan. ⁴³ zerekin sustengatu, mantendu. ⁴⁴ estutu.
⁴⁵ "Erreila": golde-nabarra, goldortza, lurra ebaki eta iraultzen duen goldearen atala.
⁴⁶ izerdi-olio, izerdi. ⁴⁷ lehorrez. ⁴⁸ tremes ogia: garia eta zekalea edo, artoa, zahia...
nahasiz egindako ogia. Hemen, ogi merkeagoa, bastoagoa, landugabea, adierazteko.
⁴⁹ faisaitzat, faisaiaren ordeaz.

ardao zuri San Martingoa
 pitxerraz iturriean⁵⁰.
 Ume txipirik oi eta badau,
 70 hazaiketako lotsea⁵¹;
 haziaz gero ezkonketako
 hotzegi dago poltsea.
 Pobreonentzat oi gatxik asko,
 aberatsonek doblea⁵².
 Mutil-neskatoz le(he)naengoa⁵³
 bete behar dau etxea,
 oi eta haen gobernatzeko
 behar dau handi mainea⁵⁴.
 Pausorik asko egin beha[r] dau
 80 sustentatzeko plazea⁵⁵;
 kontu handia behar dau egin
 ez erorteko harea[n]⁵⁶.
 Emazteori ona ez badau,
 etxean errierte.

Alkar aditu ez badagie⁵⁷,
 ez dabil ondo etxea,
 kapelaetan darabiltela
 beti haragi errea⁵⁸;
 haragionen jaaterako
 90 atsekabazko saltsea⁵⁹.
 Abenietan⁶⁰ badira bere,
 ez da fa[l]tako kargea:
 interesean beti darabil
 gizonak borondatea⁶¹.

⁵⁰ San Martingo iturriko ardo zuria, hau da, ura, pitxerrean. ⁵¹ hazteko nekea, paira-mena. ⁵² *Pobreonentzat (...) doblea*: Pobre izanez (aurreko lerroetakoa) ezkonduz gero, gaitzak asko badira, aberats izanik (hurrengo lerroetakoa) ezkontzen bada, gaitzak doble. ⁵³ lehenengo, lehenbizi. ⁵⁴ maina, trebezia. ⁵⁵ mantentzeko plaza. "Plaza", hemen, gotorlekua, irudizko adieran: etxeko gobernuaren goi postu gotortuari eusteko. ⁵⁶ handik. ⁵⁷ Elkar aditzen, ulertzen, ez badute; elkarrekin ondo konpontzen ez badira. ⁵⁸ *kapelaetan (...)* *errea*: kapelaetan, eta ez platera edo erretilueta, darabiltela beti haragi errea. Esaera zahar baten oihartzuna dirudi, gauzak ez dituztela behar bezala egiten adierazteko edo. Etxea, horrela, ez dabil ondo. ⁵⁹ *haragionen (...) saltsea*: haragi hau jaterakoan atseka-bezko saltsa, nahaste-borrastea. Aurreko bi lerroko irudiaren jarraipena. ⁶⁰ Ados jartzen. ⁶¹ gizonak beti bere interesean darabil bere nahia, nahi izateko eta hautatzeko bere ahalmena; beti bere interesa bilatzen du.

- Ama askoren seme askogaz⁶²
behar dau batu urtean;
ordu askotan oita behar dau
iregi⁶³ bere poltsea.
Semerik badeu esaten jago⁶⁴:
100 "Aita, egidak jakea".
Hari jakea egin orduko,
alabeorrek gonea.
Oi hainbat dakust lazeria⁶⁵ ze
eraetan jat⁶⁶, fedea!
Honi aparta a(ha)l dakiona⁶⁷,
ditxa onezko semea.
- Edola bere, urten artean⁶⁸
hogeta hamar urtean⁶⁹,
neuronek hala egin gura dot,
110 bizi a(ha)l banintz artean.
Jaun zerukoak, arren, dindala⁷⁰
kunplietako ditxea.
Nigaz ezkondu gura dabena
sosega bidi⁷¹ bakean;
oi honegaiti itxaden begi⁷²
dozenaxe bat urtean;
artean, barriz, goza dezadan
oraingo libertadea.
Oi honi luze deretxanori⁷³
120 ze bego ene ustean⁷⁴.
Oi ni(k) daukat⁷⁵ emazte on bat,
zeina dan ama andrea;
Jaun zerukoak honi demala⁷⁶
bizi ona ta luzea,
zegaiti honek sustenduko nau

⁶² Jende askorekin, alegia. ⁶³ ireki. ⁶⁴ dio. ⁶⁵ miseria, eskasia. ⁶⁶ erotzen naiz. ⁶⁷ Honi, hots, ezkontzari eta ezkontzaren ondoko zoritxarrari, alde egin ahal diezaiona; hortik ihes egin ahal dezana. ⁶⁸ (ezkondata etxetik) irten artean. ⁶⁹ urterekin. ⁷⁰ eman diezadala. ⁷¹ lasaitu bedi. ⁷² itxaron beza, itxaron dezala. ⁷³ honi, hots, dozenatxo bat urte itxaroteari, luze irizten dion hori. ⁷⁴ ez dezala egon nire zain. ⁷⁵ Eskuizkribuan: *nitaucat*. ⁷⁶ eman diezaiola.

egunean ta gabeen.
 Gradu handian jarririk nago,
 ene egitafedea⁷⁷;
 oi orain ez letorket⁷⁸ ondo
 130 harereanik jastea⁷⁹.
 Orain dama bat zerbieten dot⁸⁰,
 lindea parebagea;
 oi ez dauko merezidurik
 niganik a(ha)ntzietea⁸¹,
 egin deustan mesedeak
 zerbidu jagin artean⁸²,
 zegaiti nei traspasadu⁸³
 amorearen legea.
 Oraindo⁸⁴ beti izan nax
 140 oi amoradu firmea;
 orain ez neuke errazoarik⁸⁵
 izenau borraetea⁸⁶,
 ez gehiago gaztazaroau⁸⁷
 hain laster a(ha)ntzietea.
 Klaramente dakustan gero⁸⁸
 galtzaiten⁸⁹ libertadea,
 ezkonduz gero probetxaetan
 oi ez da damuket[e]a⁹⁰.
 Uztarriori ezarriz gero,
 150 sufridu behar goldea;
 orapilagaz⁹¹ lotuaz gero,
 neke da askaetea.
 Gauza fortitza oi dana bakust⁹²
 ezkonduaren kargea;
 karga handia sufrietako
 oraindo nax gaztea.
 Hazaiteau galdu lerait⁹³

⁷⁷ ene egia eta fedea; fedezko, benetan sinesteko, egia. ⁷⁸ letorkidake. ⁷⁹ handik jaistea. ⁸⁰ zerbitzatzen dot. ⁸¹ nik hura ahaztea. ⁸² zerbitzu egiten dida(te)n bitartean; balio dida(te)n bitartean. ⁸³ hautsi nezake. ⁸⁴ Orain arte. ⁸⁵ arrazoirik. ⁸⁶ borra - tzeko, ezabatzeke. ⁸⁷ gatzaro hau. ⁸⁸ ikusten dudanez. ⁸⁹ galtzen (da). ⁹⁰ probetxuzkoa ez da damutzea; ez du (ezertarako) balio damutzeak. ⁹¹ orapiloagaz, korapiloarekin. ⁹² bortitza, sendoa, dela badakust, ikusten dut. ⁹³ Hazte hau galaraz liezadake.

ardura usatzakeak⁹⁴;
ene haginok ezin jan leie⁹⁵
160 haragi errebagea⁹⁶;
estomagoau galdu leiket
bianda probatzakeak⁹⁷.
Ohean kalentureak liket⁹⁸
lagunik baneu aldean;
laster batean oi lirakasket⁹⁹
beste mundura bidea.
Gauza sakona bide da, izan,
itsaso hondarbagea;
neure buruau ez nei¹⁰⁰ ondo
170 andratan konfiatzea¹⁰¹.

Ene a(ha)ideak, oi arren, hau da
neuronen respuestea:
akordaetan¹⁰² ez dodala
hain laster ezkonketea.

⁹⁴ ardura ez erabiltzeak; arduragabe jokatzekak. ⁹⁵ ezin jan lezakete. ⁹⁶ Neska gazte dontzeilaren irudi gordina, ziur aski. ⁹⁷ *estomagoau (...) probatzakeak*: bianda probatu gabeak, ez jateak (aurreko irudiari jarraituz), estomago hau galduko liezadake, galaraziko lidake. ⁹⁸ sukarrak joko ninduke, sukarra izango nuke. ⁹⁹ irakatsiko lidake. ¹⁰⁰ ez neike, ez nezake. ¹⁰¹ *Gauza (...) konfiatzea*: irudia eta esanahi zuzeneko espresioa josiz, koplazaharraren moduan. Itsasoa hondorik gabea da, itsasoan ezin da hondoa ukitu, eta kontuz ibili behar; berdin andreekiko harremanetan. Beraz: ez litzateke zentzuzkoa nire ueste ona andreengan jartzea, nire burua andreen esku uztea. ¹⁰² onartzen.

Salbatierra egun ei dago tristerik

Testu honetan, Lazarragak Arabako Agurainen, 1564ko abuztuan, gertatutako sute ikaragarriaren kronika eskaintzen du neurtitzetan.

Fortunato Grandes (1923) historialariak azaldu duenez eta honek aipatzen duen lekaime frantziskotarren artxibo bateko kronikaren arabera, sutea San Joan Portalearen ondoko etxe batean hasi eta, zebilen haize bortitzaren eraginez, hiribildu osoan zabaldu zen. Agurain ia-ia guztiz kiskalia gertatu zen. Egoera are tragikoago bihurtu zen, sutea baino lehenagotik jada herrian hedatua zegoen izurritearen ondorioz. Jendea ihesi bazebilen izurritetik eta izurridunetatik, orain baita sutetik ere. Izurriteak seiehun pertsona baino gehiago eraman zituen, herriko biztanleriaren erdia kasik.

Lazarragak neurtitzok moldatu zituen unean –sutetik zenbat denboraren ondoren?– Agurain nolako egoeran zegoen aurkeztuz hasten da konposizioa: tristura, dolua, herri-bizitarik eza (1-27). Poetak gertakaria kontatu nahi du eta ezbehar honek berekin darraren abisua jakinarazi, baina ahul, ezgai ikusten du bere burua eta laguntza eskatzen du. Erretorikak apalkeriaz edo itxurazko umiltasunaz izendatu ohi duen topikoa, diskurtsoaren hasieran erabili ohi dena (28-40). Gertakariak, biztanleen jarrerak, eta ondorioek betetzen dute testuan zatirik handiena (41-138). Aurrena, sute errukigabea eta honek eragindako suntsiketa (41-84). Ondoren, jende arrunten, handikien, guraso eta seme-alaben erreakzioak (85-138). Poeman zehar –garaiko pentsamoldearen eta jokabidearen adierazgarri– tragedia zeruaren abisu moduko zerbait (23-26) izan litekeela iradokitzen da, sutea Jainkoak, jendea onbideratu zedin, permititutako ezbeharra bailitzan (161-166). Honen harira, azken partean (139-180), aholku moralak ematen dira: kontzientzia garbitasuna, bidegabekeria eta gaiztakeria baztertzea, gizarte arazoetan gobernu zuzena eta abar.

Neurtitz sail luzea 5 / 8a parearen errepika soila da. Bitxia, errima, *-(r)ik*, lerro luzeenean agertzea. Poemaren orriak: 1202 eta 1203.a.

Historia de la quema de Salvatierra, que fue a primero de agosto del año del nacimiento del Señor 1564¹.

Salbatierra²
egun ei dago³ tristerik,
oita⁴ dabela
egiten⁵ asko negarrik,
zerren jarri da

¹ Salbatierraren erreketaren historia, zeina Jaunaren jaiotzatiko 1564. urteko abuztuaren lehenean gertatu baitzen.

² Agurain. Honetaz aparte, poeman zehar: *Salbattera*.

³ gaur egun omen dago. ⁴ Bai *oita*, bai *oi*, oro har, neurtitzaren silaba kopuru egokia lortzeko betegarriak. ⁵ duela egiten.

guztia destruidurik.
Ez da geratu
barruan etxe galantik;
zerka⁶ zabalok
10 jarri ei dira bakarrik;
oi honezkero⁷
ez da merkatu beharrik;
apain ze bedi
oita dontzeila galantik.
Erraz daoke⁸
Araba lutoz jantzirik;
ez hara eroan,
barrundiarra⁹, frutarik;
Nafarroarik
20 jatsi ze bidi gararrik¹⁰.
Salbaterrarrak
ez egin barriz justarik¹¹;
erraz zaozke¹²
oi ondo gaztigaturik¹³,
Jaun zerukoak
honela permitidurik¹⁴.

Ezin esan dot,
egon behar dot exilik;
flakezeonek
30 ez dit emaiten lekurik¹⁵.
Balia bekit
oi badot adiskiderik¹⁶;
ifini nagi
oi arren esportzadurik¹⁷.
Konta dezadan
dolorez asko koitarik¹⁸,

⁶ harresi. ⁷ dagoeneko. ⁸ ziur asko egongo da. ⁹ Barrundia bailarakoa, Agurain ingurukoa. ¹⁰ ez bedi jaitsi, ez bedi ekarri, gararrik. ¹¹ "Justa": zaldunen arteko borroka edo norgehiagoka ikuskizuna, besteak beste, zaldiz eta lantzaz. ¹² ziurrenik egongo zarete. ¹³ abisaturik, ohartarazirik. ¹⁴ utzirik, onarturik, bidea emanik (ezbeharra biztanleentzako abisu gisa, onbideratu daitezen). ¹⁵ aukerarik. ¹⁶ *Balia (...) adiskiderik*: adiskiderik baldin badut, baliagarri, lagungarri, bekit. ¹⁷ *Ifini (...) esportzadurik*: ipini nazala, arren, adoreturik; eman diezadala adore. ¹⁸ koitarik, penarik, atsekaberik.

ez dakienak
 daozen abisadurik.
 Hasi gura dot;
 40 nantzuzu, zaoz exilik¹⁹.
 Mila ta bostehun
 urte alkarri erantzi²⁰,
 hirurogeta
 lau gehiago gaineti
 da jaio zala
 Jaun zerukoa justorik²¹,
 abuztu hilak
 egun bat kunplitzakarik²².
 Oita jagi zan
 50 suori utra fortitzik²³,
 Salbaterragaz
 handiro enojadurik,
 portaleetan
 komientzua harturik²⁴.
 Oita erre dau
 Jandoneanez kalterik²⁵,
 kanpaak²⁶ bere
 txapitelagaz²⁷ harturik;
 bobedaxeok
 60 itxi dau²⁸ eurok bakarrik.
 Zerren ez dago
 nork sokorridu jenterik²⁹,
 zerren eozen
 izurriteaz urtenik³⁰.
 Ifini dabe³¹
 oi eta asko penarik³²
 komarkaetan³³,

¹⁹ entzun nazazu(e), zaude(te), egon zaitez(te) isilik. ²⁰ erantsi. ²¹ hain justu, ze-hazki. ²² konplitzeke, bete gabe. Sutea 1564ko abuztuaren 1ean, goizeko hamarretan hasi eta gaueko hamarretarako ia hiribildu osoa erreta zegoen. ²³ su hori oso bortitzik. *Ultra* (lat.): haratago, areago... ²⁴ hasiera harturik. Sua San Joan Portalearen ondoko etxe batean piztu zen. ²⁵ San Joan (eliza), denon kaltean, zoritxarrez. ²⁶ kanpaiak. ²⁷ eta txapitela: dorrearen goreneko partea, puntan amaitua. ²⁸ utzi d(it)u. ²⁹ lagundu (dezakeen) jenderik. ³⁰ *zerren (...) urtenik*: zeren zeuden izurriteagatik itrenik, hiribildutik kanpo. ³¹ ezarri, agindu, xedatu, dute. ³² zigorrik. ³³ (Aguraingo) ingurumarietan.

hara balloa³⁴ gizonik,
zerren eozen
70 larrin³⁵ guztiak beterik
pertsone askoz
izurriagaz gaxorik.
Oi jente asko
egoan parebagarik³⁶
hara begira,
oi ezin sokorridurik.
Suori, barriz,
oi beti soberbiorik,
ez eukala
80 bapere piadaderik.
Izurridunak
asko eukaen llanturik,
nork bereari
oi ezin kobru emunik³⁷.
Etorri dira
oi barri onok entzunik³⁸
komarkaetan
eozenok rekojidurik³⁹,
oi ta leuela
90 egiten⁴⁰ asko negarrik,
zerren ekusten
euen guztia galdurik,
galdurik eta
suorrek abrasadurik,
emun a(ha)l бага
bapere remediorik.
A(ha)l egienak⁴¹,
esportzuz⁴² animadurik,
ateraetan⁴³

³⁴ hara –Agurainera alegia– balihoa, joango balitz. ³⁵ larrain: herriaren inguruan,
uzta eultzitzeko, labore-alea jotzeko, lur sail laua. ³⁶ neurrigaberik, hots, txit asko.
³⁷ aurre eginik, erantzunik. ³⁸ Berri on horiek zein diren ez da argitzen. Itzultzeko bai-
menik? Sua amataturik? ³⁹ zeudenak babesturik. ⁴⁰ zutela egiten. ⁴¹ Ahal zutenak;
ahal izan zutenak. ⁴² adorez. ⁴³ ateratzen.

- 100 hasi zirean tristerik
 aziendea⁴⁴,
 dolorez kontubagarik⁴⁵.
 Handiok⁴⁶, barriz,
 utra negoziadurik⁴⁷,
 euren etxeak
 oi ezin defendidurik.
 Hala galdu zan
 leku hau desastradurik,
 enparatzaka⁴⁸
 110 etxe bat baize besterik⁴⁹.
 Asko erre da
 barruan joia galantik,
 bai gehiago⁵⁰
 oi asko arka garirik⁵¹.
 Askok dauko
 bihotza ondo errerik,
 eugiko bere
 sekula osatza[ka]rik⁵².
 Eukaiteko⁵³
 120 asko da errazoarik⁵⁴
 zerren egin da
 oi asko kalte handirik:
 guraso asko
 jarri da ume bagarik,
 umeak bere
 oita guraso bagarik;
 asko dabilta
 kureldo⁵⁵ desterradurik,
 nork bere etxe
 130 apaindurean⁵⁶ urtenik,

⁴⁴ ondasunak. ⁴⁵ kontaezineko saminez. ⁴⁶ Handikiok, hau da, armarriz hornitu-
 tako oinetxeetan bizi ziren goi jatorriko jaunok. ⁴⁷ oso lanpeturik. ⁴⁸ itzuri gabe,
 salbatu gabe, onik atera gabe. ⁴⁹ Hiribildu osoa erre zen, salbu Santa Maria eliza, labe
 bat eta etxetxo bat. ⁵⁰ baita ere. ⁵¹ asko kutxa garirik: gari kopuru handia, alegia.
⁵² osatugaberik, ezin osaturik. ⁵³ Hala edukitzeko. ⁵⁴ arrazoirik. ⁵⁵ krudelki.
⁵⁶ apaindutik.

- oita dabela
ekusten asko penarik
zerren ez daukae
nun paseadu kalerik,
ez gehiago
erregalozko tendarik⁵⁷,
ez gehiago
alkate-rejimienturik⁵⁸.
- Jaunak dabela⁵⁹
140 oi asko geraziarik⁶⁰,
bizi garean⁶¹
guztiok rekojidurik⁶².
Oi ez kargadu
nork bere kontzentziarik⁶³,
Jaunak ez digun
oita gaztigu besterik⁶⁴.
Ez inor[k] egin
ezer lukuru-gauzarik⁶⁵,
ez gehiago
150 kontzentziazko⁶⁶ traturik;
ez erabili
deretxo бага auzirik,
eroan ustez⁶⁷
inori aziendarik.
Ze eukaikazu⁶⁸
inogaz injuriarik;
proximoari⁶⁹
ez egin grabiorik.
Akorda zatez⁷⁰,
160 zaoza iratzarrik⁷¹.

⁵⁷ guztiz fin, dotore, ez ezinbesteko dendarik; opariak erosteko dendarik. ⁵⁸ alkate eta erregimenturik, alkate eta zinegotzi talderik. ⁵⁹ izan dezala. ⁶⁰ grazia asko, onginahi handia. ⁶¹ gaitezen. ⁶² nor bere baitan bildurik (atseginkerietatik eta istiluetatik urrundurik). ⁶³ Hots, ez egin gaiztakeriarik. ⁶⁴ *Jaunak (...) besterik*: Jaunak eman ez diezagun beste gaztigurik, beste abisurik. ⁶⁵ irabazia, etekina (ateratzeko) jarduerarik. ⁶⁶ kon-tzientziaren aurkako. ⁶⁷ eramateko, kentzeko asmoz. ⁶⁸ Ez ezazu(e) eduki. ⁶⁹ lagun hurkoari. ⁷⁰ Gogora zaitetz(te), gogoan izan ezazu(e). ⁷¹ zaude(te) iratzarrik, egon zaitetz(te) erne.

Salbaterra,
ez hartu soberbiarik,
zerren dakutsu⁷²
oi asko profeziarik,
Jaun zerukoak
zuri bidaldu jaginik⁷³;
adietako⁷⁴
badezu miramenturik⁷⁵,
ez kontsentidu
170 zeure lurrean gaxtorik.
Rejimentua
ifintzu abisadurik⁷⁶,
ez dagiala⁷⁷
bide ez daben gauzarik⁷⁸;
oi dafinela⁷⁹
republikea⁸⁰ garbirik,
bazterrok bere
oi ondo gobernadurik.
Begirauzu⁸¹,
180 ez egin beste gauzarik.

⁷² ikusten duzu. ⁷³ zuri bidali eginik, bidalirik. ⁷⁴ (gaztiguak) ikusteko, (abisuak) ulertzeko. ⁷⁵ baldin baduzu begirunerik, errespeturik. ⁷⁶ Udalbatza ipin ezazu jakinaren gainean. ⁷⁷ ez dezala egin. ⁷⁸ bidezkoa, legezkoa, ez duen gauzarik. ⁷⁹ ipin dezala. ⁸⁰ errepublika: herriko kontuak, hots, herritar guztien interesekoak diren kontuen multzoa. ⁸¹ Begira ezazu(e), adi egon zaitez(te).

4. JOANES LEIZARRAGA (1508? – 1601?)

XVI. mende hastapenaz geroz, protestanteen Erreforma Europan gaindi hedatu zen. Hedapen horren lekukotasuna badugu euskal le-tretan, Joanes Leizarragak euskarara itzuli zituen idazlanetan hain zuzen. Testamentu Berriaren itzulpena 1571n argitaratu zuen Arroxela (La Rochelle) hiri protestantean.

Testamentu Berriaren itzulpen horren egileaz ez da xehetasun handirik gelditu. Joanes Leizarraga deitzen zen eta, sortzez, beskoiztarra zen. Baina ez da orain artio zehazki jakin noiz sortu zen eta noiz hil, nahiz komunzki 1508-1601 urte mugak ematen diren.

1559. urtetik gora, Nafarroako Erresuma erlijio berriaren alde agertu zen. Joana Albretekoa erreginarekin batean, jendetzaren parte bat protestante bi-lakatu zen, nobleak eta elizako jendeak barne. Joanes Leizarragak hautu bera egin zuen.

Ordurako, Leizarraga apaiza zen jadanik. Erlijio berria onartu ondoan, 1563an Testamentu Berriaren itzultzeko eginbidea emana izan zitzaion, Pauen bildu zen Sinodoan. Horrez gain, beste kargu batzuk eman zizkieten, hala nola, 1567an, Bastidara izendatua izan zelarik, ministro protestante gisa.

1571n, Joanes Leizarraga Arroxela hirian zegoen, Testamentu Berriaren itzulpenaren atarian berak eman zituen xehetasunen arabera. Baina ez dakigu ordutik aitzina xuxen zer bilakatu zen. Joana Albretekoa 1572an hil zen eta haren semeak, Henrike III.ak, eskuratu zuen Nafarroako Erresuma. 1589an, protestantismoari uko eginez, Frantziako errege ere bilakatu zen, Henrike IV.a izenarekin. Haren ondotik, Nafarroa katoliko bihurtu zen.

Protestanteen oinarrizko erabakietan aurkitzen da Biblia eta Elizako libu-ruen itzultzea tokiko hizkuntzetara. Hala egin zuen Alemanian Luterok [Mar-tin Luther] 1522-1534 bitartean, eta haren ondotik, beste hainbat hizkuntzatarara Europa guzian. Frantzian aldiz, 1528az geroz osoki itzulia zen Henri Estienne-ren eskutik baina, 1563an Kalbinek [Jean Calvin] kudeatu zuen protestanteen arauetara arramoldatutako frantses itzulpena. Gisa berean,

Joana Albretekoak Testamentu Berria eta beste oinarritzko testu protestante batzuk euskarara itzultzea erabaki zuen.

1563an egin zioten itzulpenaren eskaera Leizarragari eta, dirudienez, bi urteren buruan, lana egina zuen. 1565eko Sinodoan, itzulpen saio horren zuzentzeko, aditu batzuk izendatu ziren, Iparraldeko euskalki ezberdinetatik heldu zirenak.

1571n argitaratu zen liburua Arroxela hirian, Pierre Hautin-en inprimategian. 1589an Nafarroako erresuma katoliko bilakatu zen eta, ondoko mendean, Kontrarreforma deitzen den mugimendu katolikoa indarrean jarri zen Euskal Herrian. Garai hartatik goiti, Leizarragaren Testamentu Berriaren egoitzapen protestantea baztertua izan zen luzarako.

Bigarren argitalpena Estrasburgo hirian jalgi zen, 1900ean, Theodor Linschmann eta Hugo Schuchardt filologoek prestaturik. Hirugarrena, 1990ean ateratua da, Euskaltzaindiak eginik.

Eskuragai ditugun argitalpenetan denak batean agerturik ere, idazlan mota ezberdinak aurkitzen dira Testamentu Berria deitzen dugun Leizarragaren obran. Haren baitan, *Jesus Krist gure Jaunaren Testamentu Berria* idazlan nagusiaz gain, beste liburutto batzuk badaude bildurik: *Otoitza eklesiastikoen forma*, *Katexis mea*, *Konfesionea*, *Kalendrera*, eta *ABC edo Kristinoen instrukzioea* izeneko idazlanak.

Liburu ezberdin horietan, adituek bi itzulpen mota bereizten dituzte: Testamentu Berria bezalako itzulpen zehatzak eta, bestalde, itzulpen libreagoak, *ABC edo Kristinoen instrukzioea* adibidez. Protestanteen itzultze arauak itzulpen zehatza eskatzen zuten, Bibliatik jalgitako testu finkatuak erabiltzen zirelarik. Arau hori bete beharrez, erabili zituen iturrietatik eginahala hurbil egon zen Leizarraga.

Erliziozko testuetatik kanpo, bi idazki mota bereiz daitezke: gutunak eta aitzinsolas tankerako oharak. Testamentu Berriaren atarikoan artean, lehenik Joana Albretekoari zuzendutako karta –frantsesez eta euskaraz egina– aurkitzen da. Ondoren, badago ohar bat, euskal irakurlearentzat egina dena eta “Euskaldunei” deitua. Bigarren abisua, “Euskal Herrian gatzetasunaren irakasteko kargua dutener (...)” deitu zuen Leizarragak eta *ABC edo Kristinoen instrukzioea* liburuttoaren hastapenean ezarri zuen.

Leizarraga gizon ikasia zenez, ongi ezagutzen zituen ordu arte argitaratuak ziren Bibliaren bertsioak, latinezkoa eta frantsesezkoa, baita ere grezierazkoa menturaz. Baina ikusiz Joana Albretekoak harreman estuak zituela Kalbinekin eta, baita ere, Théodore de Bèze eta beste hainbat kalbinistarekin, pentsa daiteke Genevan finkatu ziren frantses itzulpen eta idazlanetan oinarritu zuela bere lana euskal itzultzaileak.

Badirudi 1563an Genevan argitaratutako bertsio batekin (Salaberri Muñoa, 2007) parezka litekeela Leizarragarena. Uste hori baieztatzen dute orduko edizioari Leizarragak mailegatu zituen testu-gehiagari zenbait, hala nola “Testamentu Berriko hitz eta mintzatzeko manera difizil bakoitz batzu bere deklarazionekin” deitzen den hiztegi ttipia, frantsesezko testutik guztiz hurbil dagoena sarreraren eta definizioen aldetik.

Eta gorago aipatu diren liburutto ezberdinentzat ere jatorrizko testuak atzeman daitezke Genevako argitalpenen artean, izan dadin *Konfesionea* edo *Otoitza eklesiatikoen forma*. Adibide moduan berdin erabil daiteke *Katexis-me*, Kalbinek liburu gisa 1522an publikatu zuenaren itzulpen leiala dena.

Euskarazko lehen argitalpena izanez prosa mailan, Leizarragak behar zuen eredu idatzi koherente bat errotik sortu. “Euskaldunei” egin zien abisuan, itzultzaileak idatzi zuen eskualde bateko hizkuntza (lapurtera nagusiki) baten gainean oinarritu zela. Baina lapurtera baino haratago joan zela adierazi zuen. Iparraldeko euskalkien arteko eredu bat moldatu nahi izan zuen iduriz, irakurle gehienek ulertzeko gisa. Adibidez, ulermen oztopoen gainditzeko, hiztegi labur bat gehitu zuen (irakurle zuberotarrantzat), Testamentu Berriaren hondarrean.

Hiztegi gintza mailan, beste hizkuntzetatik mailegatu zituen hitzak aise ezagun dira, batez ere latinetik heldu zirenak, kasik ziren bezala ezarri baitzituen: *rege*, *crutze*, *spiritu*. Asko daude inguruko hizkuntzetatik hartuak ere, hala nola, frantsesetik (*estranger*, *pur*), gaskoitik (*heretage*) edo gaztelertatik (*comarca*). Askotan, hitz bat ezaguna izanik ere, haren sinonimoa ematen du jatorrizko hizkuntzan: *arrantzale eta pescadore*, *sabhatoa edo neskeneguna*.

Sintaxiaren arloan, gogoratu behar Iparraldeko euskalkietan aditz izenaren aitzinetik genitiboa erabiltzen dela, hala nola ondoko bi adibideotan: “Leizarragak itzultzaile talde bat antolatu zuen Testamentu Berriaren itzultzeko”; *karguaren hartzera batirik ezin naidikeen* (“Guzizko Andre noble”). Aditzaren aldetik, berriz, adizki trinkoaren erabiltze nasaiarekin batean, beste bi ezaugarri nagusi aipa daitezke. Narrazioa iraganean delarik, gaur egun ditugun subjuntiboazko aditz formak ezartzen ditu Leizarragak, indikatiboazko iraganaren paradigmen orde: *Halaber erran zezan* (= erran zion); *Jaikirik bada etor zedin bere aitagana* (= etorri zen); *Eta has zitezen atsegin hartzen* (= hasi ziren) (Lukas, 15). Bestalde, hikako formak (hitanoa) ditu nagusiki erabiltzen elkarrizketetan, jende zaharrei, Jesusi eta berdin Jainkoari mintzatzeko.

Leizarragaren lana, funtsean, itzulpena da. Salbuespenetako bat Antologia honetan. Duen balio historiko –Testamentu Berriaren euskarazko lehenengo itzulpena– eta linguistiko –euskara kultu bat taxutzeko entsegua– berezien-
gatik dago hemen aukeratua.

Testuen bertsiorako oinarria: Leizarragaren idazlan osoa bilduz, Euskaltzaindiak plazaratua duen argitalpena (1990).

Atal arduraduna: Jon CASENAVE

4.1. ATARIKOAK

Gomendiozko karta Joana Albretetako erreginari

Testamentu Berriaren 1571ko euskarazko argitalpenaren aurretik gutun bat aurkitzen da bi hizkuntzetan, frantsesez eta euskaraz. Joana Albretetako Nafarroako erreginari zuzendua da eta Joanes Leizarraga itzultzaileak izenpetu zuen, Arroxelan zelararik, 1571ko abuztuaren 22an. Gomendiozko gutunaren ohiko helburua betetzen du. Hartan, Joanes Leizarragak, molde hanpatu batez, gisa hartako idazkietan bezala, eskerrak bihurtu zizkion Nafarroako erreginari bere lanaren sustatzaile, eta bere buruaren babesle ere izan zelakoan. Erreginak protestantismoa hedatu nahi zuen bere sujeten artean eta Testamentu Berriaren euskarazko itzulpenaren lortzeko gisa, Leizarraga eta haren inguruan ari izan ziren laguntzaileak pagatu zituen.

Gutunaren baitan, itzulpenaren historia laburra egin zuen itzultzaileak, erakutsiz lan luze eta zaila izan zela, euskarak ez zuelako garai hartan tradizio idatzirik. Gutun hori, itzulpen luze eta gogor horretan (Testamentu Berrian) aurkitzen den prosazko sorkuntza lan luzeena da. Halarik ere, laster ohar daiteke frantses bertsoaren itzulpena dela –gehienetan literalegia, agertzen diren maileguez erakusten duten bezala–. Denbora berean, interesgarria da ikustea, XVI. mende hondarrerako, frantsesa zela horrelako idazlan batean erabiltzen zen komunikazio hizkuntza, bearnesa zelararik, oraindik, erresumako administrazio hizkuntza arrunta.

Gutunak bere testuinguruaren beste ezaugarri batzuk erakartzen ditu. Protestantismoaren sineste nagusi batzuk aitzinatu zituen Leizarragak, hala nola Bibliaren testua tokiko jendeei beren hizkuntzan helarazi zitzaizela eta jatorrizko testutik eginahala hurbil egon behar zuela itzultzaileak. Baina sineste horien beste adierazle batzuk badaude oraindik. Leizarragak bi autoritate baizik ez zituen izendatu gutunaren baitan: Jainkoa eta Nafarroako erregina (haren aldeko zenbait jaun ezagun ere aipatzen dira pasatzean).

Protestanteen ohiko sinesteetatik hara, autoritate politikoaren premiazko presentzia horrek garbiki erakusten zuen itzulpen hori borroka baten testuinguruan argitaratua izan zela: erlijioa eta politika nahasten zituen borroka bortitzean.

Guzizko Andre noble Joana Albrete Nafarroako Regina¹, Bearnoko² Andre gehien³, etab., denari, bere zerbitzari guzizko xipiak eta guzizko obedientak, Joanes Leizarraga Beraskoizkoak⁴, Jesus Kristen grazia eta bakea desiratzen.

Andrea, zeren ni zure ezagunabea bezala naizelarik, Testamentu Berriaren euskarazko translazione⁵ hunen zure Maiestateari dedikatzen ausartu

¹ Joana Albretetako (1528-1572), Nafarroako erregina (1555-1572).

² Biarnoko.

³ nagusi, buru, subirano.

⁴ Beskoitzekoak.

⁵ itzulpen.

izan naizen, merezi onez arintasunez akusa ahal neinde⁶, baldin neure auserartgoa⁷ hunez zerbait eskusa bereren⁸ eman ez baneza⁹.

Bada, niri haur eragin draudaten¹⁰ anitz bertze razoinen artean izan dirade, zure humanitate handi jende prestu guziez laudatua, eta Jainkoazko zure zelo¹¹ handia. [...]

[Jarraian, Erreginaren bi bertute horien azalpena: humanitatea eta Jainkoari dagozkion gauzetarako ardura. Erreginari esker Jainkoaren hitza baketsuki ari da predikatzen Bearn osoan.

Ondoren, bere buruaren defentsa, Testamentu Berriaren euskarazko lana gauzatzeko ezgaitasunaz salatzen dutenen aurka. Izan dira, ordea, eginkizun hau bere gain hartzera adoretu dutenak ere, eta, azkenean, erronka onartzea erabaki du. Hala ere, euskaratze lan honek zalantzak eta beldurrak sorrarazten dizkio itzultzaileari. Zereginak, *entrepresak*, dituen arazoan jabe da. Aurrena, euskara bera.]

[...] eta ikusirik ezen halakoekin konparatzera ezdeus baino ezdeusago nintzela, eta neure buruari kasi gogo nahiaz eta probetxu egiteko desiraz bertzerik ez nakusolarik¹², eta nik hala borondate ukanagatik, beldurrez gauza ez ledin moldez burutan ilki¹³: karguaren hartzera batirik ezin naidikeen¹⁴, eta guti falta zedin non ez bainendin xoil gibelera¹⁵, nakusanean hanbatez ene entrepresa handiago, zenbatez nik eskribatu dudan lengoaje mota baita, esterilenetarik eta dibertsenetarik¹⁶, eta oraino, translazionetan behintzat, usatugabea.

Alabaina segur izanez ezen Euskaldunak bertze nazione guzien artean ez garela hain basa¹⁷, non gure lengoajez ezin ezagut eta lauda dezagun gure Jainko Jauna; eta ikusirik ezen okasionea presentatzen zela, bai eta esperantzaz ezen ni baino sufizientagorik ere¹⁸ izanen zela obran esku edukiren luenik¹⁹ (nola eriden ere izan baita Bearnoko Sinodoaren ordenantzaz lan egina bisitatu²⁰ eta koneritu²¹ behar izan denean) azkenean, Jainkoaz landan, zure anitz bertuterekilako autoritate handian esportzu²² harturik, gogo egin nezan²³, neure ahal guziaren egitera, eta Jainkoak eman plazer ukan drautan²⁴ guziaren borondate onez haren Elizaren edifikazionetan enplegatzeraz.

⁶ akusatua izan ahal ninteke. ⁷ ausardia, atrebentzia. ⁸ bederen, behintzat.
⁹ ematen, emango, ez banu. ¹⁰ didaten. ¹¹ arreta, ardura. ¹² ez niolarik ikusten.
¹³ ez zedin (itzulpen) egokia atera. ¹⁴ ezin erabaki nezakeen. ¹⁵ gutxigatik ez nuen atzera egin. ¹⁶ antzuetarik eta ezberdinetarik. ¹⁷ basati, barbaro. ¹⁸ adinekorik ere, hoberik ere. ¹⁹ esku hartuko zuenik; lagunduko zuenik. ²⁰ arretaz ikusi, arakatu, aztertu. ²¹ konferitu: norbaiti lan bat burutzeko mandatua eman. ²² indar, adore; konfiantza. ²³ erabaki nuen. ²⁴ didan.

Baina are gehienik bihotz eman ukan zerautana²⁵ zen nik nuen esperantza, ezen moien²⁶ hunez Jainkoaren hitz purak ukanen luela sartze eta abantzamendu Euskal Herrian: eta hunetakotzat zu, Andrea, hunez zerbitzaturen zinadela²⁷ tronpeta baten antzora, zeinez Jainkoak deitzen baitzaitu hala zure Nafarroako resuman ere Satani gerla egitera, nola egin eta egiten ere baitraukazu²⁸ zure dominazioneko bertze leku guzietan.

Goitikora²⁹, nik obra hunetan ezarri ukan dudan diligentziaz³⁰ eta penaz bai eta hunetarik etor ahal daitekeen emendioaz³¹ den bezenbatean, bertzek jujeaturen³² dute. Haur³³ bai erranen dut, ezen beti oroitik³⁴ nola Jainkoaren manu espresa³⁵ den haren hitzari deus edeki³⁶ ez dakion, ez eratxeki³⁷: hala egin ahal dudan fidelkiena egin ukan dudala. Hunen gainean zure Maiesteari suplikamenduz nagoka³⁸, dena onetakotz otoi rezebitu nahi duzun, obraren handitasunera eta dignitatera behatzenago³⁹ duzularik ezen ez translatazalearen⁴⁰ imperfekzionetara eta xipitasunera.

Hanbatekin Jainkoari otoitz egiten draukat⁴¹, Andrea, nahi zaituen otoi bere Espiritu Sainduaz beti iluminatzen zaituelarik, zure dohain onetako haur Jaun-Andrekin⁴² batean, bere gloriaren abantzamendutan eta zure sujeten⁴³ edifikazionetan luzaki kontserbatu.

Roxelan, agorrilaren 22. 1571.

²⁵ zidana. ²⁶ bide, bitarteko. ²⁷ honetaz baliatuko zinela. ²⁸ baitiozu.
²⁹ Gainera, gainerakoan. ³⁰ arretaz, arduraz, ongi egiteko artaz. ³¹ onuraz, abantailaz. ³² jujatuko, epaituko, deliberatuko. ³³ Hau. ³⁴ oroiturik, gogoraturik.
³⁵ agindu esplizitua, garbia. ³⁶ kendu. ³⁷ erantsi, gehitu, gaineratu. ³⁸ nagokio.
³⁹ gehiago begiratzen, arreta handiago jartzen. ⁴⁰ itzultzailearen. ⁴¹ diot.
⁴² dohain onak dituzten zure haur Jaun-Andreekin; jite oneko zure seme-alabekin.
⁴³ mendekoen, Erreginaren agindupean bizi diren jendeen.

Oharra Euskaldunei

Testamentu Berriaren itzulpenaren atarian, Leizarragak irakurleari zuzendu zion abisu labur bat. “Euskaldunei” deitua den testu horretan, itzultzaileak –eta, agian, inguruan zituen laguntzaileek, testua ez baita izenpetua– euskara idatziaren erabileraz gogoeta zenbait eskaini zuen. Euskararen ahoskatzeko, irakurtzeko eta idazteko aholku batzuk eman zituen aitzinetik.

Ohar horien ondoren, oroitarazi zuen *Euskal Herrian kasi etxe batetik bertzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibertsitatea den*, eta, beraz, saiatu izan dela ahalik gehien guztiei adierazten, guztiengana iristen, eta ez leku zehatz bateko euskara moldeari jarraitzen. Euskara, xvi. mendean, oraindik, tradizio idatzirik gabeko hizkuntza zen, itzulpen arloan bederen.

Itzulpena irakurtzean, argi da, Schuchardt-ek dioenez, beskoiztarrak bere grafolekto propioa sortu zuela, oinarrizko lapurterari beste eskualdetako (Nafarroa Beherea, Zuberoa) mintzamoldeen zenbait adierazgarri eta tasun erantsiz. Zuberotarrentzat, gainera, eratxiki zuen, Testamentu Berriaren amaieran, hiztegi ttipi bat, “Zuberoako Herrian usantzatan ez diraden hitz bakoitz batzu hango antzora itzuliak”.

Alabaina, Nafarroako erreginak bere erresumako jendeak zituen konbertitu nahi. Ez zuen humanista batzuen gisan, bere erresumako hizkuntza arrunt bat latina edo grezieraren mailara garatzeko asmorik. Helburua zehatzagoa zuen: Testamentu Berria eta beste zenbait liburuttoren medioz, protestantismoa eta, zehatzago esatearren, Kalbinen doktrinak bere euskal sujetenganaino helarazi nahi zituen.

Euskaldunei

Euskarazko hitzak, nola eskribatzen, hala letra guziekin latinen antzora pronuntziatzen ere dirade; eta “u” bokala, beteki, “ou”¹ balitz bezala. Bertalde, Testamentu Berriaren euskarazko translazione hunetan hitz bakoitz batzu letra xeheagoz testu artean ezarri izan dirade, ezagun dentzat² ezen hek testuan aditzen diraden hitzak izanagatik, ez diradela ordea testu gorputz berekoak, baina deklaragarri³ jarriak.

Gainerakoaz den bezenbatean, batbederak⁴ daki Euskal Herrian kasi etxe batetik bertzera ere mintzatzeko maneran zer diferentzia eta dibertsitatea den: razoin hunegatik, sentsu⁵ egiazkotik aldaratu⁶ gabe, lengoajeaz den bezenbatean ahalik gehiena guziei adieraziteari jarreiki izan gaitzaitza⁷, eta ez xoil edozein leku jakineko lengoaje bereziri. Eta badakigu ezen denborarekin anitz hitz eta mintzatzeko manera eridenen⁸ dela obra hunetan bertzela ho-

¹ Frantseseko *ou* alegia, [u] ahoskatzen dena. ² dadin. ³ argigarri; azalpen moduan. ⁴ bakoitzak, norberak. ⁵ zentzu, esanahia. ⁶ aldatu; aldendu. ⁷ jarraiki izan gatzazkio. ⁸ edirenen, aurkituko.

beki erran zatenik⁹: halakoetan, gauza zeren den dakitenetarik batbedera¹⁰, oroituren da, otoi, ezen hunelako gauzak, guziz lengoaje oraino usatugabe batetan, ezin behingoaz halako perfekzionetan jar daitezkeela, nola behar bailitzateke. Guziagatik ere, mintzatzeko maneran anitz arrastatu¹¹ gabe, Jainkoaren hitz purari jarreikiteko desira dutenek, esportzu¹² dugu eridenen dutela (suporturekin¹³) zertzaz kontenta.

Eta baldin esperantza dugun bezala, oraindrano egin den hunetan euskaldunak gogorik edo edifikazionerik hartzen badu, hunetan enplegatu izan diradenek bihotz harturen¹⁴ dute, oraindanik gogo ere duten bezala, egin denaren berriz ikusteko eta korigitzeko; bai eta, baldin Jaunak hala plazer badu, pasaje¹⁵ difizilenen deklaragarri anotazionen ezarteko.

Jainkoak otoi, haren desohoretako den doktrina guzia ezaguterazirik eta konfunditurik, haren ohoretako dena beti entreteniri eta abantza dezala Jesus Krist bere Seme gure Jaunaren izenean. Amen.

⁹ erran zatekeenik. ¹⁰ gauza zergatik den dakitenetatik bakoitza. ¹¹ gelditu, baratu; luzatu. ¹² konfiantza, uste on. ¹³ pazientziarekin, egonarrirekin, eroapenarekin. ¹⁴ adore harturen, suspertuko. ¹⁵ pasarte, testu zati.

A d'uerissement à ceux qui ne sçauent point le Basque, pour le sçauoir lire.

Les mots Basques se prononcent avec toutes leurs lettres, à la façon Latine, comme ils s'escriuent u voyele se prononce à pleine bouche comme si c'estoit ou.

HEVSCALDYNEY.

Heuscaraçco hitzak, nola scribatzen, hala letra guciequin Latinen ançara pronuntiatzen ere dirade: eta u vocala, berhequi, ou baliz beçala. Berçalde Testamentu berriaren heuscaraçco trallatione hunetan hitz bakoitz batzu letra che heagoz textu artea eçarri içan dirade, eçaguti dençat eçen hea teztuan aditzen diraden hitzak içanagauie, eçtiradela ordea teztu gorputz berecoac, baina declaragarri iarrirac. Gainera coaz den becebmatean, batbederac daqui heuscil herria quasi eche batetic berçera ere mingatzeco manetan. cer differetia eta diuersitatea den: raçoin luegatic sensu eguiazcoitica aldaranu gabe, lengoageaz den becebmatean ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarreiqui içan gaitzaitza, eta ez choil e docein leku iaquimeco lengoage berceitzi: eta badaquigu eçen demborarequin anhitz hitz eta mingatzeo manera, eridenen dela obra hunetan, berçela hobequi erran çatenic: halacoctan, gauçaceren den daquitentatic batbedera, orhoituen da, o thoi, eçen hunelaco gauçac, guciç lengoage oraino vlatu gabe batetan, eçin behingoaç halaco perfectionetan iar: daitezque la, nola behar baillateque: guciagatic ere mingatzeco manerân anhitz arrastatu gabe, Iaincoaren hitz purari iarreiquiteco desira darenç, sporçu dugu eridenen dutela (suporturequin) cerçaz contenta. Eta baldin sperança dugun beçala, oraindrano eguin den hunetan heuscaldunac goçotie edo edificatiotie batzen badu, hunetan emplegan içan diradenç bihotz harturen dutç, oraindanie gogo ere dutç beçala, eguin denaren berriç: iustiteco eta corrigiteco: bayeta, baldin Iau nac hala plazer badu, passage difficulten declaragarri annota tionen eçarte co. Iaincoaz othoi, haren desohoretaco den do çtrina gucia eçagut eracitit eta confundituric, haren oholeta co dena bethi entreteni eta auança deçala Iesus Christ bere Seme gure Iauaren icenean. Amen.



BATBEDERAC IAQVITE.

co, eta mai iracurtzeco duen Aduertimendua nola Iesus Christ den Iaincoaren Leguearen fina, eta gure saluarzeco moien bakoitz a.



Ainco gauça guciën Creaçale eta o. ^{Gen 1.1.}
brero guciçco perfectioac eta excel
lentac, bere goitico creaturetân mi
raculuzco baino miraculuzcoago e
racutzi içanic, ate berce guciën gai
neco eta bere obra guciën monstra
buru beçala, creatu vkan çuë guçona ere, guciçco ex
cellentia perfectionetacobat hura baithan contempla
ahal ledinçat: eçen creatu vkan çuen bere imaginara ^{Gen 1.27.}
eta irudira, halaco maneraz non Iaincoaren gloriaczco
claretateac hura baithan claroqui arguitzen baitzuen.
Eta perfectionetaco statu eçarri içan çen hunetan irau
eraci ahal ceçaqueon moienan çen, bethi humilia ledin
Iaincoaren maiestate sainduaren aitzinean, hura bethi
remerciamentuquin magnificatzç eta laudatzen lue
laric: eta eçleçan bere burua baithan bere gloriaric bat
tre bilhatzera preliumi: baina nola gauça gucia garaitie
eman içan baitzen, hala goiti bethi beha leçan, laudorio
gucia appartenitzen çayon Iainco baitha glorifica le
dinçat. Baina dohacabeac bere baithan cerbat içan na
hiz, bertan has cedin eçagutze gabetzen, eta nondie ona
heldu çayon ahanciren, eta ingratallueçco hauteneta
te batez bere Creaçaleaç eta gratia guciën emailaren
contra entrepreni ceçan vrgulurçco alchatzera. Eta ^{Gen 3.6.}
halacoz trebuc cedin bere galezapenetan, bere lehen
creationeco dignitate eta excellentia gucia gal ceçan,
bere gloria guciacz billuz eta gabe cedin, hura baithan
eçarri içan çiraden donoctaric aldara eta erauz cedin,
bere vrguluan confus içateco, eta bortchaz sendi leçan
amorioz aditu nahi vka etzuenan, nola bere-bercz eçzen

“Euskaldunei”. Joanes Leizarraga (*Iesus Krist gure Jaunaren Testamentu Berria*, 1571).

4.2. ITZUL-LANA

Ebanjelioa Mateoren arabera (6, 5-15)

Gure Aita

Testamentu Berria deitua izan den bildumak parte ezberdinak baditu. Lau *Ebanjelioak* aurkitzen dira lehenik. Ondotik, *Apostoluen Eginak* ("Apostolu Sainduen Akteak" Leizarragaren itzulpenean), *Gutunak* ("Epistolak" Leizarragarentzat) eta, bukatzeko, *Apokalipsia* ("Joanes Teologianoaren apokalipsea edo rebelazioa" Leizarragaren lumaz).

Ebanjelioak atalean, Jesusen bizia kontatua da, eta beharbada zehazkiago, predikatzen hasi zenetik eraila izan zen arte. Ebanjelioak deituak dira beren ustezko egileen arabera: Matiu, Mark, Luk eta Joani, Iparraldeko moldean; Mateo, Markos, Lukas eta Joan Hegoaldekoentzat.

Testamentu Berriaren arabera, Mateo ("Mattheu" Leizarragarentzat) Jesusen hamabi apostoluetatik bat izan zen. Sortzez judua zen, Markos eta Joan bezala. Jesus hil eta hogeitaz urte berantago, Jesusen parabola eta mintzaldi nagusiak idatzi zituen arameeraz, Jesusen erabiltzen zuen hizkuntzan. Lehen mendearen bukaeran, grezierara itzuli ondoan, orduko mundu guzira zabalduta zen.

Ebanjelio horren azpiko zatian, Testamentu Berriaren pasarte ezagunetatik bat aurkitzen da, "Gure Aita" deitzen dena. Ohartzeko da ere, Erreformak zuen Jainkoari mintzatzeko molde zuzena harturik, Joanes Leizarragak hikako formak erabiltzen zituela latinezko tradizioaren arabera, ondorengo euskarazko tradizio katolikoan "zuka" nagusi zelarik.

- 5 Eta otoitz egiten duanean, ez haizela hipokritak bezala: hei laketziaiek¹ kongregazionetan² eta karrika kantoinetan zutik daudela otoitz egitea, gizonez ikus ditezentzat³. Egiaz erraiten drauzuet⁴ ezen rezebitzen dutela bere saria.
- 6 Baina otoitz egiten duanean, sar hadi heure ganberatxoan, eta heure borta hertsirik, otoitz egiok heure Aita sekretuan denari; eta heure Aita sekretuan dakusanak rendaturen drauk⁵ agerrian⁶.
- 7 Bada otoitz egiten duzuenean, ez dezazuela anitz edas⁷ paganoek bezala; ezen uste dute bere anitz edasteaz entzunen diradela.
- 8 Ez zaretela beraz hetarat irudi⁸, ezen badaki zuen Aitak zeren behar zaiten, eska zakizkioten baino lehen.
- 9 Hunela beraz zuek otoitz egizue: "Gure Aita zeruetan haizena, santifika bedi hire izena.

¹ haiei atsegin zaiek, gustatzen zaiek. ² bilkuretan, batzarretan. ³ daitezen.

⁴ esaten dizuet. Jesus bere ikasleei ari zaie hizketan. ⁵ itzuliko dik, emango dik ordaina. ⁶ agerian, begi-bistan. ⁷ eras: alferretan hitz egin, jardun. ⁸ haien irudiko, antzeko, izan.

- 10 Etor bedi hire resuma. Egin bedi hire borondatea zeruan bezala lurrean ere.
- 11 Gure eguneko ogia iguk⁹ egun.
- 12 Eta kita¹⁰ ietzaguk gure zorrak, nola guk ere gure zordunei kitatzen baitrauegu¹¹.
- 13 Eta ez gaitzala sarrerazi tentazionetan, baina delibra gaitzak gaixotik. Ezen hirea duk resuma, eta puisantza, eta gloria sekulakotz. Amen”.
- 14 Ezen baldin barka badietzezue gizonei bere faltak, barkaturen drauzue¹² zuei ere zuen Aita zerukoak.
- 15 Baina baldin barka ez badietzezue gizonei bere faltak, zuen Aitak ere ez drauzkizue¹³ barkaturen zuen faltak.

⁹ emaguk, eman iezaguk.
dizue. ¹³ ez dizkizue.

¹⁰ garbitu, ezabatu, ken.

¹¹ baitiegu.

¹² barkatuko

Ebanjelioa Lukasen arabera (15, 11-32)

Seme prodigoa

Hirugarren ebanjelioa, Lukasek idatzia du. Tradizioaren arabera, Lukas ("Luc" Leizarragarentzat) Antiokian, Siriako (gaur egun Turkiako) hiri kosmopolitan sortu zen eta ofizioz medikua zen. Beraz, ez zen Jesusen dizipulu edo hurbilekoetatik hastapenean. Paulo ezagutu zuen eta lagundu bere bidaietan. Palestinatik kanpo bizi izan zen.

Bere ebanjelioaz gain, *Apostoluen Eginak* ere idatzi omen zituen, lehen mendeko azken hamarkadetan. Adituen ustez, kultura handiko gizona zen, historialari ona eta maila oneko greziera erabili zuen bere idazlanen egiteko.

Lukasen 15. kapitulu honetan, bi parabola labur aurkitzen dira: "Ardi galdua" lehenik eta "Seme prodigoa" ondotik. Adituen arabera, bi kontaketa horien gisa, Lukasen ebanjelio osoa juduen kulturatik hara hedatzeko idatzia izan zen, mundu zabaleko giristino berri edo gaiei buruz.

- 11 Halaber erran zezan¹: Gizon batek zituen bi seme.
- 12 Eta hetarik² gaztenak erran ziezon³ aitari: "Aita, indak⁴ ondasunetik niri heltzen zaitadan parte". Eta parti zietzen onak⁵.
- 13 Eta egun gutiren buruan, guziak bildurik, seme gaztenor⁶ joan zedin⁷ herri urrun batetara, eta han irion zezan⁸ bere ondasuna, prodigoki⁹ bizi izanez.
- 14 Guzua dependatu¹⁰ ukan zuenean, egin izan zen gosete gogor bat herri hartan, eta hura has zedin behar izaten.
- 15 Eta joanik, leku hartako burges batekin jar zedin, eta hark igor zezan bere posesionetara urden bazkatzera¹¹.
- 16 Eta desir zuen urdek jaten zuten maginxetarik¹² bere sabelaren be-tatzera; eta nehork ez zeraukan¹³ emaiten.
- 17 Eta bere buruari ohart zekionean, erran zezan: "Zenbat alokazer¹⁴ diraden ene aitaren etxean ogia frango dutenik, eta ni gosez hiltzen bainaiz!
- 18 Jaikirik joanen naiz neure aitagana, eta erranen draukat¹⁵: Aita, huts egin diat zeruaren kontra, eta hire aitzinean.
- 19 Eta gehiagorik ez nauk digne hire seme deitzeko. Egin nezak¹⁶ heure alokazeretarik bat bezala".

¹ esan zuen (Jesusek). ² haietarik. ³ zion. ⁴ emadak, eman iezadak.
⁵ banatu zizkien ondasunak. ⁶ gazteen hori, gazteena. ⁷ zen. ⁸ xahutu zuen, al-ferrik gastatu zuen. ⁹ nasaiki, oparoki. ¹⁰ gastatu, xahutu. ¹¹ zerriak larratzera, zerriei jaten ematera. ¹² magitxetarik, hazien azaletarik, leketarik. ¹³ ez zion.
¹⁴ alokatutako langile, eguneko soldatako langile. ¹⁵ diot. ¹⁶ egin nazak.

- 20 Jaikirik bada etor zedin bere aitagana. Eta hura oraino¹⁷ urrun zela, ikus zezan bere aitak, eta konpasione har zezan, eta laster eginik egotz zezan¹⁸ bere burua haren lepora, eta pot egin ziezon¹⁹.
- 21 Eta erran ziezon semeak: "Aita, huts egin diat zeruaren kontra, eta hire aitzinean, eta gehiagorik ez nauk digne hire seme deitzeko".
- 22 Orduan erran ziezen²⁰ aitak bere zerbitzariari: "Ekarzue arropa printzipalena, eta jauntz ezozue²¹; eta emozue eraztun bat bere eskura, eta zapatak oinetara.
- 23 Eta ekarririk aretze²² gizena, hil ezazue; eta jaten dugula atsegin har dezagun.
- 24 Ezen ene seme haur hil zen, eta hartzara biztu da; galdu zen eta eriden da". Eta has zitezen²³ atsegin hartzen.
- 25 Eta zen haren seme zaharrena landan, eta etorten zela etxeari hurbildu zaionean, entzun zitza²⁴ melodia eta dantzak.
- 26 Eta deiturik zerbitzarietarik bat, interroga zezan hura zer zen.
- 27 Eta hark erran ziezon: "Hire anaie etorri izan duk, eta hil ukan dik hire aitak aretze gizen bat, zeren osorik hura rezebitu duen".
- 28 Eta haserre zedin²⁵; eta ez zen sartu nahi izan. Bere aitak bada ilkirik otoitz egin ziezon.
- 29 Baina hark ihardesten zuela erran ziezon bere aitari: "Huna, hanbat urte dik zerbitzatzen haudala, eta egundano hire manurik²⁶ ez diat iragan²⁷, eta egundano pitina²⁸ bat ez drautak²⁹ eman neure adiskidekin atsegin hartzeko.
- 30 Baina hire seme haur, zeinek iretsi³⁰ ukan baitu hire ondasun guzia putekin, etorri izan denean, hil ukan draukak³¹ huni aretze gizena".
- 31 Eta hark erran ziezon: "Seme, hi beti enekin haiz, eta ene guzia hire duk.
- 32 Eta atsegin hartu behar zuan eta alegeratu, zeren hire anaie haur hil baitzen, eta biztu baita, galdu baitzen, eta eriden baita".

¹⁷ oraindik. ¹⁸ bota, jaurtiki, zuen. ¹⁹ musu eman zion. ²⁰ zien. ²¹ jantzi iezaiozue. ²² aratxe, txahal, zekor. ²³ hasi ziren. ²⁴ entzun zituen. ²⁵ haserretu zen. ²⁶ agindurik. ²⁷ bete gabe utzi, pasa. ²⁸ pitika, antxume. ²⁹ ez didak. ³⁰ irentsi. ³¹ diok.

Ebanjelioa Joanen arabera (8, 1-11) Emazte adulteriogilea

Jesusen hamabi apostoluetarik bat zen Joan. Tradizioak dioenez, Testamentu Berriko hiru idazlan ezberdin idatzi zituen: laugarren ebanjelioa, hiru gutun eta *Apokalipsia*.

Ebanjelioa Joanen arabera lehen mendeko azken bi hamarkadetan idatzia izan da Palestinan. Erromatarrek Jerusalemgo tenplua barreiatu ondoko garaian, juduen eta giritinoen artean izandako eztabaiden lekukotasun asko erakartzen omen ditu.

Adituen arabera, laugarren ebanjelioa lehen hiruetarik aski ezberdina da, ez baitu Jesusen haurtzaroa batere kontatzen. Jesus predikatzen hasten den unetik abiatzen da zuzenki eta irakaspen ezagunetarik bat da ondoko pasarteetan aurkitzen den "Emazte adulteriogilea" parabola.

- 1 Baina Jesus joan zedin Olibatzetako mendirat¹.
- 2 Eta argiaren begian² berriz etor zedin tenplera, eta populu guzia etor zedin harengana. Eta jarririk zegoela irakasten zituen hek.
- 3 Orduan dute ekarten harengana eskribek eta fariseuek³ emazte adulterioan atzaman bat. Eta hura artean ezarririk,
- 4 diostate: "Magistrua, emazte haur atzaman izan duk adulterioko egitate berean.
- 5 Eta legean Moisesek manatu diraukuk⁴ hunelakoak lapida ditezen. Hik bada zer diok?"
- 6 Eta haur erraiten zuten hura tentatzen zutela, hura zertzaz akusa luentzat⁵. Baina Jesusek, beheiti gurturik⁶, eriaz⁷ eskribatzen zuen lurrean.
- 7 Eta haren interrogatzez pertseberatzen zutela, xuxendurik erran ziezen: "Zuetarik bekatugabe denak, lehenik horren kontra harria aurdi⁸ beza".
- 8 Eta berriz gurturik eskribatzen zuen lurrean.
- 9 Bada hori entzun zutenean, kontzientziak akusatzen zituela, bata bertzearen ondoan ilkiten ziraden zaharrenetarik hasirik azkenetarako. Eta Jesus bera geldi zedin, eta artean zegoen emaztea.
- 10 Eta xuxendu zenean, Jesusek nehor ez zakusanean emaztea baizen, erran ziezon hari: "Emaztea, non dirade hire akusatzaleak? Nehork ez hau kondenatu?"

¹ "Oliamendi": Jerusalemgo hiri zaharraren ekialdean kokatutako mendia. ² argitzean, argi hastean, egunsentian. ³ "Eskribak" eta "fariseuak": Juduen artean, Moisesen legea zorroztasunez zaintzen omen zuten talde edo sektak. ⁴ agindu ziguk. ⁵ ukan zezaten. ⁶ behera makurturik. ⁷ hatzaz, behatzaz. ⁸ aurtiki, jaurtiki, bota.

- 11 Eta hark erran zezan: “Ez nehork, Jauna”. Eta erran ziezon Jesusek: “Ez haut nik ere kondenatzen. Hoa, eta gehiago bekaturik ez daginala⁹”.

⁹ ez ezan egin.

Paulok Erromatarrei egindako gutuna (3, 21-30)

Fedea eta obrak

Testamentu Berria deitu liburu bilduman, lau *Ebanjelioak* eta *Apostoluen Eginak* idazkien ondotik, *Gutunak* ("Epistolak" Leizarragarentzat) biltzen dituen partea edo liburua aurkitzen da. Hartan, Jesusen Apostoluek, hura hil eta, egin zutenaren berri ematen da. Gisa berean, orduko hiritar batzuei bidalitako gutunak bilduak dira. Hauetan, Paulok, Jakobek, Pedrok, Joanek eta Judasek igorri zituztenak bateratuak dira.

Paulo Jesusen dizipuluen aurka lanean aritua zen. Erlijio berrira konbertituz geroz, apostolu bilakatu eta Mediterraneo itsasoaren inguruan aurkitzen ziren hiri nagusietan (Erroma, Korinto, Tesalonika eta abar) ibili zen, sineste berriaren hedatzeko gisa. Paulok Erromatarrei igorri zien gutuna da saileko lehena.

Gutun hau Pauloren irakaspenen sintesietako bat da. Hirugarren kapitulu honetan, Moisesen legearen eta honetan oinarritutako ekintzen balioa erlatibizatzen da: salbamena Jainkoaren grazia, dohaina da; justifikazioa, salbamena iristea, ez dator Moisesen legeko obrak betetzetik, baizik eta sinesmen legetik, jada guztiei eskuragarria zaien Jesu Kristogan sinestetik. Doktrina protestanteak, luteranoak eta kalbinistak kasurako, testu honen interpretazio propioan du euskarrietariko bat.

- 21 Baina orain legea gabe Jainkoaren justizia manifestatu izan da, legearen eta profeten testimoniajea¹ duela.
- 22 Bada Jainkoaren justizia, Jesus Kristen fedez sinesten duten guztietara eta guzien gainera. Ezen ez da diferentziarik batre, ikusirik ezen guziek bekatu egin dutela, eta Jainkoaren gloriaren falta diradela.
- 23 Eta justifikatzen dirade dohainik haren graziaz, Jesus Krist Jaunean egin izan den redentzioenez.
- 24 Zein ordenatu baitu Jainkoak fedeazko apatzegagarri² haren odolean, bere justiziaren deklaratzeko, aitzineko bekatuen barkamenduagatik, Jainkoaren pazientziatz.
- 25 Diot bere justiziaren deklaratzeko denbora hunetan: bera justo den -tzat³, eta Jesusen fedeko denaren justifikatzale.
- 26 Non da beraz bantazionea⁴? Iraitzi⁵ izan da. Zein legeaz? Obrenaz? Ez, baina fedearen legeaz.
- 27 Konkluditzen dugu, beraz, fedez justifikatzen dela gizona legearen obrak gabe.
- 28 Ala juduen ber⁶ da Jainkoa? Ala ez jentilen⁷ ere? Gertuki⁸ jentilen ere.

¹ lekukotasuna. ² eztigarri, lasaigarri. ³ justo izan dadin. ⁴ harrokeria, urgui-lua; puzteko motiboa. ⁵ bota, jaurtiki; baztertu. ⁶ juduena bakarrik. ⁷ judu ez diren jendeen; paganoen. ⁸ zalantzarik gabe, segurki.

- 29 Ezen bat da Jainkoa, zeinek justifikaturen baitu zirkontzisionea⁹ fedetik, eta prepuzioa¹⁰ fedeaz.
- 30 Legea bada ezdeus bilatzen¹¹ dugu fedeaz? Gerta ez dadila. Aitzitik legea konfirmatzen dugu.

⁹ erdaintzea: zakil mokoari azala moztea. ¹⁰ eta (baita ere) zakil mokoaren azala (erdaindu gabe izatea). ¹¹ bilakatzen, bihurtzen.

Apokalipsia (12) Emaztea eta dragoia

Apokalipsia liburua Testamentu Berriko azken parte da. Tradizio baten arabera, Joan apostolua, laugarren ebanjelioaren idazlea, dela obraren egilea uste da. Autoretza, ordea, eztabaidan dago. Ziur dagoena da autoreak, atariko agurrean, “Joan” izena ematen diola bere buruari.

Apokalipsia K.o. i. mendearen bukaera aldean idatzi zen, Eliza berria, kristauak, jazarpen latzak jasaten, une larriak pasatzen ari ziren garaian. Liburua Jesu Kristoren jarraitzaileengan itxaropena eta adorea pizteko asmoz dago idatzia. Gaizkiaren aurkako borrokan, Jesu Kristok lortuko duen azken eta erabateko garaipena aldarrikatzen da: “Eta ez da gehiago heriotzarik izango, ez dolurik, ez negarrik, ez nekerik, lehengo mundua betiko desagertua baita” (21, 4); “Ez da aurrerantzean gaurik izango” (22, 5).

Apokalypsis grezierazko hitzak “errebelazio”, “agerrarazte” esan nahi du, hots, ezkutuan dagoen zerbait agerian jartzea. Honela, *Apokalipsia*-n, historiaren interpretazio kristauaren arabera, etorkizuna errebelatzen da, mendeen amaieran izango diren gertakariak agerrarazten. Jainkoa da *alfa* eta *omega*, hasiera eta bukaera.

Autoreak agerpen hauek ikuskari misterioitsu eta bitxien bidez helarazten ditu: “Ondoren ikuskari bat izan nuen” (6, 1); “Zeruan beste seinale handi eta harrigarri bat ikusi nuen” (15, 1). Ikuskari horiek osagai eta testuinguru txundigarritz, inoiz fantastikoz ere, eta ulermen zaileko gertakari, iragartze, seinale, zenbaki, mintzo eta sinboloz josita daude: zeruan tronu bat; bertan eserita dagoenak zazpi zigiluz zigitatutako liburua du eskuineko eskuan; Bildotsak zigiluak askatzen ditu, eta zazpigarrenean isilaldia egiten da zeruan; aingeruak, deabruak, piztiak, zazpi izurriteak, zaldiak eta gudarosteak; kristala bezain gardena den itsasoa, eta bi hiriak, Babilonia gaitzesgarria eta Jerusalem zerukoa.

“Apokalipsi” hitza, hedaduraz, gauza, egoera edo gertakari guztiz ikaragarriak, suntsitze eta hondamendiak, adierazteko erabili ohi da. *Apocalypse now* (1979) filma izugarria, kasurako.

Hemen jasotako kapituluan, Joaneke seinale berri bat ikusten du zeruan. Oraingoan, haurdun den emakume bat –Eva edo Eva berria den Ama Birjinaren irudia, agian–, herensuge gaiztaginak erasoa. Aingeruen eta deabruen arteko gudu baten ondoan, herensugea, garaitua, zerutik lurrera da jaurtikia. Emakumeari jada kalte egin ezin dionez, ondorengoei jazarriko zaie.

Testu hau eta gainerakoak ere, Lukasen (15, 11-32) eta Joanen (8, 1-11) zatiak kasurako, idatzizko kontakizunerako, historiak idatziz eta taxu literarioz kontatzeko, gaitzen ari den euskararen lehenengo saio ezagunen erakuskariak edo adibideak dira. Garai bertsuan, Joan Perez Lazarragak ere horretan ziharduen. Euskal prosa narratiboaren has-tapenak dira, Leizarragaren kasuan itzulpenaren bidezkoak.

12. Kapitula

Emazte ertzen¹ zenaren zelata zegoen dragoinaren kontra Mixelek biktoria irabazi fidelen probetxutan.

- 1 Eta ikus zedin² signo handi bat zeruan, emazte iguzkiaz inguratu bat, zeinen oinen azpian baitzen ilargia, eta buruan hamabi izarrezko koroa bat.
- 2 Eta izarra³ izanez, heiagoraz⁴ zegoen erdi beharrezko minez, eta tormenta⁵ iragaiten zuen erdi zedintzat⁶.
- 3 Ikus zedin bertze signo bat ere zeruan, eta huna, dragoin gorrarats⁷ handi bat, zazpi buru zituenik eta hamar adar, eta bere buruetan zazpi diadema.
- 4 Eta haren buztanak tiratzen⁸ zuen zeruko izarren heren parte, eta egotz zitzen⁹ hek lurrera. Eta geldi zedin dragoina emazte erdi behar zuenaren aitzinean, erdi zatenean¹⁰, haren haurra irets lezantzat.¹¹
- 5 Eta erdi zedin¹² seme ar batez zeinek gobernatu behar baitzituen nazione guziak burdinazko berga¹³ batez. Eta harrapa zedin¹⁴ haren haurra Jainkoagana eta haren tronora.
- 6 Eta emazteak ihes zegan¹⁵ desertu batetara, non baitu lekua Jainkoaz apaindurik, han hura haz dezentzat¹⁶ mila eta berrehun eta hirurogei egunez.
- 7 Eta egin zedin bataila bat zeruan: Mixele eta haren aingeruak batailatzen ziraden dragoinaren kontra, eta dragoina konbatitzen zen eta haren aingeruak.
- 8 Baina ez ziraden bortitzenak izan, eta haien lekua ez zedin gehiagorik eriden zeruan.
- 9 Eta iraitz zedin¹⁷ dragoin handia, suge zahar hura, Deabru eta Satan deitzen dena, zeinek mundu guzia seduzitzen baitu; iraitzi izan da bada lurrera, eta haren aingeruak harekin iraitz zitezen¹⁸.

¹ erditzen. ² ikusi zen. ³ haurdun. ⁴ garrasiaz, oihuaz. ⁵ tormentua, oinaze bizia. ⁶ erditu zezan. ⁷ gorrasta, gorrixka. ⁸ herrestan hartzen, arrastaka erakartzen. ⁹ bota, jaurtiki, zituen. ¹⁰ erditua izango zuenean. ¹¹ irents zezan. ¹² erditu zen. ¹³ makila. ¹⁴ harrapatu (eta eraman) zen. ¹⁵ ihes egin zuen. ¹⁶ hazi dezaten. ¹⁷ bota, kanporatu, zen. ¹⁸ bota, jaurtiki, ziren.

- 10 Eta entzun nezan¹⁹ boz handi bat zioela zeruan: “Orain egin da sal-
bamendua, eta indarra, eta gure Jainkoaren resuma, eta Krist hare-
naren boterea; ezen gure anaien akusatzalea iraitzi izan da, zeinek
akusatzen baitzituen gure Jainkoaren aitzinean egun eta gau.
- 11 Baina hek²⁰ garaitu izan zaizkio Bildotsaren odolaren kausaz eta
bere testimoniajeko hitzaren kausaz, eta bere biziak ez dituzte gu-
pida ukan heriorano.
- 12 Halakotz zaitezte alegera, zeruak eta hetan habitatzen zaretenak.
Maledikziona lurreko eta itsasoko habitantei, ezen jautsi²¹ da dea-
brua zuetara, hira²² handiz beterik, nola baitaki ezen denbora apur
bat baduela”.
- 13 Ikusi ukan zuenean bada dragoinak ezen iraitzi izan zela lurrera,
pertsekuta zezan²³ arraz erdi izan zen²⁴ emaztea.
- 14 Baina eman izan zaizkan²⁵ emazteari arrano handi batenik bi hegal,
hegalda ledintzat²⁶ sugearen aitzinetik desertura, bere lekura, non
hatzen²⁷ baita denbora batetakotz eta denboretakotz eta denboraren
erditakotz²⁸.
- 15 Eta iraitz zezan sugeak emaztearen ondoan bere ahotik ur flubio²⁹
bat bezala, hura harrapaerazi lezantzat³⁰ flubioaz.
- 16 Baina aiuta zezan³¹ lurak emaztea, eta ireki zezan lurak bere ahoa,
eta hurrupa zezan dragoinak bere ahotik iraitzi ukan zuen flubioa.
- 17 Orduan haserre zedin dragoina emaztearen kontra, eta joan zedin
gerla egitera haren haziko goitikoen³², Jainkoaren manamenduak
begiratzan³³ dituztenen eta Jesus Kristen testimoniajea dutenen kon-
tra.
- 18 Eta geldu nendin³⁴ itsasoko sable³⁵ gainean.

¹⁹ entzun nuen. ²⁰ haiek. ²¹ jaitzi. ²² haserre, amorru. ²³ pertsegitu, esetsi,
jazarri, zuen. ²⁴ haur arraz, hots, semeaz, erditu izan zen. ²⁵ zitzaizkion. ²⁶ he-
galda zedin. ²⁷ hazten. ²⁸ Hots, hiru urte eta erdiz (bat, bi eta erdia). ²⁹ ibai.
³⁰ harraparazi zezan. ³¹ lagundu zuen. ³² jatorri (bereko) gainerako; ondoko.
³³ zaintzen; betetzen. ³⁴ gelditu nintzen. ³⁵ hondar, harea.

5. GUTUNAK

Antzinate klasikoan, Erdi Aroan eta Errenazimentuan, gutunak erabilera oparoa izan zuen. Ugariak dira garai haietatik gordetzen diren gutun artxiboak edo bildumak. Ondoko garaietan, orobat, elektrizitatean oinarritutako lehenengo komunikazio sistemak asmatu ziren arte (telegrafoa, 1837; telefonoa, 1876), gutun idatzia gertatu zen, praktikan, bitartekorik nagusia, eta ia bakarra, mezuak igortzeko, urrutikoekin harremanetan jartzeko eta irauteko. XIX eta XX. mendeetan ere, ohikoa izan da paperean idatzitako eskutitzaz baliatzea. Gaur egun, ordea, nabarmenki murriztu da paperean idatzi eta posta arruntez bidalitako eskutitz ereduak, eta e-posta, sakelako telefono, sare sozialen eta abarren bidezko komunikazioa haren lekua ari da, ziztu bizian, ordezkatzeko. Dena den, euskarriak, baldintzak, moldaerak eta beste zenbait ezaugarri aldatu badira ere, gutunaren muiak, mezu bidaliak, hor dirau: jada “eskutitza” ez bada ere, hartzaile bati bidalitakoak, lehen bezala, mezua izaten jarraitzen du.

Erdi Aroaren amaiera aldean eta, bereziki, Errenazimentuan, gutunaren erabilera nabarmenki hedatzen da. XVI. mendean, Errenazimentu humanistarekin batera, Europan kronika historikoa biografiarantz lerratu eta, egun orozko bizitzaren prosa batik bat, era guztietako gutun eta epistoletan agertzen da. Eskutitz eta epistola idazleen tradizio luzeak (Zizero, San Paulo...) izen berriak erantsi behar zaizkio, esaterako: Erasmo (1466-1536) eta Kalbin [Jean Calvin] (1509-1564) humanista eta erreformatzaileak; genero propio gisa ere kontsideratu izan diren emakumeen gutun sortak, Santa Katalina Siernakoa (1347-1380) eta Santa Teresa Avilakoarenak (1515-1582), kasurako; Pietro Aretino (1492-1556) eta Torcuato Tasso (1544-1595), Clément Marot (1496-1544) (“*Épîtres au roi*”), Francisco de Sá de Miranda (1481-1558) eta abar.

Ugaltze honen alde jotzen duten zergatiko edo zirkunstantzien artean dira: bidaiak eta aurkitze geografikoak, merkataritza harremanen zabaltzea, eraikitzen ari diren estatuen burokrazia eta azpijokoak, posta zerbitzuan lor-

tutako aurrerapenak, irakaskuntzaren garapena, eta humanismoaren sentiberatasun subjektiboa, ezagutzak eta bizipenak gutunen bidez elkarren artean trukatzeko joerakoa.

Aldi honetan, bizkortu egiten da lehendik jadanik garatzen ari zen gutunari buruzko gogoeta eta sistematizatzeari. Agerturiko tratatu edo azterketen artean, aipagarriak, besteak beste: Erasmoren *Opus de conscribendis epistolis* (1522) eta Juan Luis Vivesen *De conscribendis epistolis* (1534). Obra hauetan, eta bestelakoetan, Antzinate klasikoan eta Erdi Aroan landutako teorizatzeari jarraituz, gutuna informazioa idatziz transmititzeko bide gisa hartzen da, hau da, bidaltzaileari, hartzaileari edo beste bati dagokion eta ezagutu beharrekoa den gorabeheraren bat jakinarazteko bitartekotzat. Teorizatze praktikoa izanik, gutunak idazteko artea eta teknikak azaltzen dira: definizioak, topikoak, gaiak, askotariko sailkapenak, gutunaren atalak, idazketaren prozesua, baliabideak, akatsak eta abar.

Plazaratzen diren sailkapenak laburbilduz, gutunak bi molde orokorretan bil daitezke: gutun pragmatikoak, erabilgarritasun zuzenekoak (*familiares*); eta gutun espekulatiboak (*negotiales*), gogoetara eta eztabaidara bideratua-goak. Gutun praktikoen helburu nagusia, ohikoena, informatzea da, gertaerak, gorabeherak, era bateko edo besteko berriak komunikatzea (funtzio erreferentziala). Askotan, baita ere, aholkatuz, erregutuz edo aginduz, hartzailearengandik erantzun bat, jarreraren bat, lortu nahi izaten da (funtzio konatiboa, arazlea). Bestetan, berriz, bidaltzaileak gutuna bere sentimenduak –kexa, lantua, esker ona, iseka eta abar– adierazteko baliatzen du (funtzio emotiboa, adierazkorra). Inoiz, gutunak ez du xede berezirik ez bada parte-hartzaileen arteko harremanari eustea (funtzio fatikoa). Gutun hauetako batzuk pertsonalak dira, esparru pribatuari lotzen zaizkio: etxeko, senitarteko edo lagunartekoak. Tonua edo mintzaira egunerokoa, familiarra, espontaneoa, laua, intimoa ere, izan ohi da, ahozkoa eta idatzizkoa uztartzen direla. Beste batzuk, berriz, arlo publikoari dagozkio, erakundeei, administrazioari, kargudunei eta abarri zuzendutako gutunak, adibidez. Hauetan, hizkera molde benazkoagoa, formalagoa, zainduagoa, erabili ohi da.

Eduki eta helburu espekulatiboagoa duten gutunak, berez, gai sakonagoe-tan murgiltzen dira: politika, filosofia, artea, erlijioa, zientzia, eztabaida teo-rikoak eta abar. Tonua, jada, benazkoa baino areago, jakituriazkoa, goi-mailako kulturakoa izan ohi da. Izatez, gutun guztiak badira “epistola”, mezu bidalia, “epistola” izena, gehienbat, azken hauei aplikatzen zaie. Helburuz, taxuketaz, luzeraz, osoagoak eta jantziagoak dira. Gogoan, Horazioren *Epistula ad Pisones* (*Ars Poetica*), esaterako.

Gutun molde hauen arteko mugak, dena den, ez dira beti argiak, errazak zehazten. Ereduak gurutzatu edo nahastekatu egiten dira euren artean.

Gutuna forma literario gisa hartu izan da Antzinate klasikoan, Erdi Aroan eta Errenazimentuan, eta hartua izango da ondoko garaietan ere. Eskutitz espekulatiboak bereziki, hots, “epistolak”. Baina gutun pertsonalak, eguneroko gutun arrunt eta praktikoak ere, nahiz eta asmo literarioz idatziak izan ez, funtzio erreferentzial, adierazkor eta konatiboz gain, funtzio poetikoz konfiguratuak gertatzen direnean, literatura gisa hartuak izan daitezke.

Literatur sorkuntzak literatura-lanak egituratzeko edo osatzeko baliatu izan du, eta baliatzen du, eskutitzaren moldea. Errenazimentuan, gutuna erabilia izan da, besteak beste, sentimen-eleberrian eta pikareskan: Diego de San Pedroren *Cárcel de amor* (1492), epistola moldez dago antolatua; *Lazarillo de Tormes* (1554), funtsean, “Bada jakin beza berorren Maiestatea” azalpenez hasten den eskutitz luze bat da. Gutunak tartekatzen dira *Gargantua et Pantagruel* (1531 ing.-1552/1564), *Hamlet* (1603) edo *Quijote*-n (1605), esaterako. XVII. mendetik aurrera, batez ere, ez dira gutxi izango pertsonaien arteko eskutitzen bidez egituratutako eleberriak; ez eta egiazko edo fikziozko hartzaileei zuzendutako gutunen bidez osatutako saiakerak.

Errenazimentuan, herri-hizkuntzen suspertze eta gorakada gertatzen da. Herri hizkuntzek gero eta tarte zabalagoa bereganatzen dute kulturaren eta idatzizko jardueran. Gutunen eremuan ere nabari da joera. Orain arte, eskutitzak nagusiki latinez idazten ziren eta horretarako latina ezagutu behar. Hemendik aurrera, herri hizkuntzetan, euskara barne, taxututako gutunak ohiko bihurtzen dira.

Euskaraz kontserbatzen den lehen gutuna Matxin Zalbakoak, Nafarroako errege zen Karlos III.a Noblearen idazkariak, Martin San Martingoari 1415ean bidalia da (Trebiño, 2001: 24). Erdia nafar erromantzez idatzia izanik, gutun elebiduna litzateke eta lau lerro horiek, sinadura barne, ez lukete lekuri ez aipamenik Euskal Literaturaren antologia batean ez balitz oroitarazteko zein urriak izan diren euskaraz idatzi testuak Erdi Aroan.

Errenazimentuan jada testu gehixeago ageri da. Gutun pragmatikoak dira: batzuk familia edo ezagunen arteko mezu pertsonalak; beste multzo bat berriak helarazteko eskutitz informatiboak, alor publikokoak baina isilpekoak, espioitzakoak, XVI. mendearen bukaeran idatziak Frantzia eta Espainiaren artean gertaturiko gerra garaian, non euskarak funtzio kriptikoa betetzen zuen. Hogeita hiru dira orotara iritsi zaizkigun gutunak, zeinetarik, hemen, zortzi aurkezten diren, beren berezitasunarengatik.

Ez dira fikziozko gutunak. Egiazko pertsona historikoek idatzitakoak dira, eurak bezala errealak diren hartzaileei zuzenduak, benetan gertatutakoak eta bizitutakoak komunikatuz. Egileen asmoa erreferentziala, adierazkorra edo sustatzailea zen batez ere. Ez, ziur asko, lan estetiko bat burutzea. Seguruenik, oraingo testuinguru kulturalan, ez lirateke gaur egungo ikuspuntutik literatu-

ratzat hartzen den esparruan sartuak izango. Hala eta guztiz ere, Antologia honen jomuga aldi bakoitzeko euskal testu bikainenak edo, apalago, egokiak, bilduma izanik, XVI. mendeko ekoizpen literario mugatuaren baldintzapean, gutun hauek berezko sail bat osatzeko adina funts eta osagaiz jantzirik daude.

Atal arduraduna: Karlos OTEGI

Frai Joan Zumarragakoaren gutuna

Frai Joan Zumarragakoa (Durango, 1478 aurretik - Mexiko Hiria, 1548) fraide frantziskotarra izan zen eta Ameriketako predikari. Espainiako Karlos I.ari Ameriketako kolonizatzaileen sarraskiak salatu ondoren, “crueldades dioclecianas” adierazpenez deitu zituenak, Inkisidore eta “Nueva España”ko apezpikua izan zen izendatua eta, itzulita-koan, Valladoliden kontsagratua, 1533an. Berrito Ameriketaratua, Real y Pontificia Universidad de México fundatu zuen eta Ameriketako lehen inprimategia sortu. Erlijioari buruzko zenbait libururen egile izan zen. 1547an Mexiko Hiriko artzapezpiku izendatu zuten.

Hemen jasotako testua bere arreba Katalina Ruizi, Muntzaratz dorretxeko andre alargunari, 1537ko otsailaren 15eko dataz, Mexikotik idatzitako gutunaren euskarazko atala da. Aurretik, gazteleraz, Katalinaren alabaren (Maria Ruiz gutunean) eta Santxo Gartziairen (apezpikuaren iloba) arteko ezkontzaz, eta mandatu edo eskaera batzuez, aritu ondoren, euskaraz idaztera pasatzen da. Arreba agurtu (1-2) eta bidaltzen dituen oparien zerrenda egiten du (3-10). Opari horiek diskrezioz erabiltzeko aholkatzen dio (11-16). Segidan, Durangon eraiki nahi den fraideen ostaturako diruen berri (17-31). Azkenik, arrebari adore eman eta Muntsarazko etxeari eusteko asmo sendoa (32-41).

Testuaren balioa, gehienbat, linguistiko eta historikoa bada ere, gutunak badu lagunarteko, edo etxeko, hizkeraren ezaugarri edo molde zenbait. Azpimarragarria, bestalde, egitura sintaktiko bereziren bat edo beste, eta erakuslea artikulua funtzioan.

Jatorrizko iturria: Indietako Artxibo Orokorra (Sevilla), Justicia 1011, 2 zenb. R 2. (Gutunaren kopia).

Bertsio eta oharren oinarria: Antonio Tovar, Enrique Otte eta Luis Michelena (1981), “Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, fray Juan de Zumarraga”, *Euskeria*, 5-14. or.

Orain bada, ene arrebea deuntsua¹, halaan² izango zara paradisian alkar dakuskula³.

Bidaletan deutsudaz⁴ S[antxo] Gartzia gaz honen izenean doazala gogoan garriak⁵: plater bi, jarra bat, kalderetatxu⁶ bat, tazea konteakaz⁷. Alaba horrendako horren esposo honek bidaletan deutsaz⁸ urra katea eta lau ereztunta joiera⁹, hiru ohe onak. Lepatrapu galantori¹⁰ nik liburuakaz eta aulkiak eta

¹ zorionekoa, dohatsua. ² halan, hala. ³ elkar ikusten dugula; elkar ikus dezagun. ⁴ bidaltzen dizkizut. ⁵ gogoragarriak, oroit daitezkeenak; gogoratu behar direnak. Eskuizkribuan: *gogoan garriac*. Hautabidea: *gogoan guztiak*. ⁶ galdara txikia: pertz formako ontzi txikia. ⁷ aleekin, hots, lepoko, arrosario edo apaingarriak egiteko bolatxo edo piezatxo zulatuekin. ⁸ bidaltzen dizkio. ⁹ joia, bitxi, txikia. ¹⁰ lepoko oihal galaioi, dotoreori (bidaltzen diot nik).

oheak bere bai¹¹. Gitxika-gitxika Maria Ruizen axoarori¹² beteko dogu he-beko¹³ gauzakaz; hobatuko ta ondraduko dogu Muntzarazko etxeori¹⁴ eta zure alabaren hori. Goilaraok bere onak dira.

Guztiokaz atsegin hartuko dau zure arima deuntsu horrek, aporta baite¹⁵ horra gisa onean behin¹⁶ etxe horretara eta zure podrera¹⁷. Eta ene eretxian¹⁸ hoba da guarda ditean¹⁹ exilik horko miokaiti²⁰, zerren mila bider gehiago dala dan baino esango dabeen²¹; inbidiak aurki esango²² behar ez direan gau-zaak. Durangoko jentea bazaut²³: juizio gitxizkoa da gehiaena.

Pare bat kasulla²⁴ eta frontal²⁵ bi doaz orain; joango dira gehiago. Horko elexaren bere gomuta izango gara²⁶, Jaunak bizitzea ematen deuskula²⁷. Orain bada, ene arrebea, fraideon ostatuori; zure alabaen etxe jausi²⁸ horri urgatzi behar deusagu²⁹, eregi³⁰ behar dogu zuk eta nik neba-arrebaok. Jau-sirik dago: zure alabea da horren zimienturik onaena. Gure lobau³¹ bere, gizon prestu egin da, asko irabazten dau eta nik borondate onez emongo deusteet³² edolaan bere³³ garia errenta. Ene borondatea da hogeta hamar edo berrogei mila marabidi³⁴ errenta dabela³⁵ fraide bekatariok akogetako³⁶.

Orain zeuk, ene arrebea, behar dozu hartu errentea eridaiteko³⁷ ardurea; nik barriz bidaletako. Mila dukat bidalduko ditugula urte honetan nik uste: orain bere zerbait boa³⁸, hartuko debe [...]zatak bildurraren ez gehiago³⁹, eta exilik daroaez⁴⁰ maestruok⁴¹ hirurehun bana. Memorian daroaezan⁴² gauzak erosita, ganekoagaz akudidu degizuela⁴³ zuri, halaan eskribietan deusat Urtieri Sivilliar⁴⁴.

¹¹ ere bai. Hautabidea: *oheak bere. Bai, gitxika...* ¹² ezkon-horniori, hots, emazte-gaia, ezkontzerakoan, eraman edo jarri ohi zuen arropa, altzari eta bitxien hornidura. *Ajuar* (gazt.). ¹³ hemengo. ¹⁴ Muntzaratz dorretxea, Abadiñon (Durangaldea). Jatorrizkoan, gutun osoan: *etse*. ¹⁵ aporta badite: ekartzen badute; ekarriko balute. ¹⁶ modu onean aurrena, lehenik. ¹⁷ boterera. ¹⁸ iritzian. ¹⁹ goarda, gorde, daitezen. ²⁰ mihiogatik (mihi-luzeongatik, mihi-gaiztoongatik). ²¹ duten. ²² esango (ditu). ²³ badazagut: ezagutzen dut. ²⁴ "Kasulla": apaizak, meza emateko, beste beztidura guztien gainetik janzten duena. ²⁵ "Frontal": aldarearen aurrealdea osatzen edo estaltzen duen pieza edo apaindura. ²⁶ gogoratuko gara; gogoan izango dugu. ²⁷ ematen badigu; ematen digun bitartean. ²⁸ erori. ²⁹ lagundu behar diogu; babestu behar dugu. ³⁰ eraiki, jaso. ³¹ loba hau. ³² deutset, diet. ³³ gutxienez, bederen. ³⁴ "Marabedi": Espainiako diru zaharra, garaien arabera hainbat balio izan zituen. ³⁵ izan dezatela. ³⁶ hartzeko, harrera egiteko; ostatzeko. *Acoger* (gazt.) aditzetik moldaturiko nominalizazioa dirudi. ³⁷ eridateko, edireteko, aurkitzeko. ³⁸ badoa. ³⁹ *hartuko (...)* *gehiago*: irakurketa zaileko zatia. Agian: (eta) hartuko deben/duten beldurratik ez (doa) gehiago / eta gehiago hartuko ez duten beldurratik ez (doa) gehiago. ⁴⁰ daroetz, daramatzate. ⁴¹ maestruok. *Maestre* (gazt.): doktore edo artetan maisua / ordena militarreko burua. ⁴² daramatzaten. ⁴³ jo dezatela, joan daitezela, zuregana. ⁴⁴ Hortuñori (apezpikuaren iloba) Sevillara.

Alegra bidi zure bihotz garbiori: andrea zara eta bakarria⁴⁵. Zeruetako Jauna izango da zure faborean. Muntzarazko etxeori hobato dago eta herriori bere bai zeruko Jaunagaz eta bere andra naturaleagaz. Olaok bere giadu bite⁴⁶ ondo.

Edolaan bere⁴⁷, ioen⁴⁸ azpian egongo edo jausiko ez zara diruakati. Zeuk izango dozu behar dana zeuretako eta besteaendako bere. Esfortza bidi zure bihotz noble hori. Hobato lagunetan zaituela⁴⁹ Muntzarazko seme lealok en-tzuten dot: eskerrik asko deustet⁵⁰. Ene goraintziak eman bite eta halaan eta oraindo⁵¹ hobato dagiela⁵² honerik aurrera guztiok⁵³. Etxe hori behar dogula adelantadu⁵⁴.

⁴⁵ *bakarrik* edo *bakarrika* ere irakur liteke; *bakarra* espero zitekeen. ⁴⁶ burdinolaok ere gidatu, zuzendu bitez. ⁴⁷ Edonola ere, nolanahi ere. ⁴⁸ *inoen* izan liteke: inoren. ⁴⁹ Hobeto laguntzen zaituztela. ⁵⁰ (ematen) deutset, diet. ⁵¹ oraindik; are. ⁵² egin dezatela. ⁵³ Beharbada: hemendik aurrera guztiok. Hautabidea: (...) *aurrera*. *Guztiok etxe hori* (...). ⁵⁴ aurreratu; hobetu.

[illegible]

Frai Joan Zumarragakoaren gutunaren zati bat: gaztelarazko atalaren bukaera eta euskarazkoaren hasiera (1537; Indietako Artxibo Orokorra).

Bertrand Etxauzen gutuna

Julien Vinsonen arabera (Mixelena, 1964), gutun honen sinatzailea gero Tours-ko artzapezpiku izango zen Bertrand Etxauz (1556-1641) da. R. M. Azkuek, berriz, Edward Spencer Dodgsonen transkribaturiko bertsioa argitaratzean (1899), honako ohar hau eranstean du: “Ez dakigu hau ete dan harako Beltran de Etxauz Baionako apezpiku eta Tours-ko goiapezpiku izandakoa eta Axularrek beren liburu eder *Ceroko gero* (1684. urtean argitaratua) [2. edizioaz ari dela dirudi] zuzendu eutsana”.

Bi ikerlariok aipatutako Bertrand Etxauz, Baigorriko bizkondearen –Labets eta Sallejusan-go jauna zen Antoine Etxauz– eta Catherine-Suzanne de Saint-Esteben-goaren semea izan zen. Sorbonan doktoregoa lortu eta Frantziako Henrike IV.aren (Nafarroako Henrike III.a) kapilau izan zen. 1595ean, Baionako apezpiku izendatua izan arren, 1599 arte ez zen karguaz jabetu, Baionako alkate zen Antonio II.a Agaramontekoak ez baitzion utzi, haren aita beaumontarren, hots, etsaien taldearen buru izan zelako. Pierre de Lancre inkisidoreak sorgin ehizan zenbait apaiz exekutatu ondoren, auzietan zuzenki parte hartzea erabaki zuen akusatuak euskaraz galdekatuz eta, azkenik, Gorteari eskatuz Bordeleko epailearen misioa buka zedin. 1617an, Tours-ko artzapezpiku izendatu zuten. 1641. urtean hil zen. Euskaldun idazleen laguntzaile, Etxeberri Ziburukoak *Elizara erabiltzeko liburua* (1636) eta Axularrek *Cero* (1643) liburuak dedikatu zizkieten.

Gutunaren izenpetzaileak Bordelen zegoen Akizeko jaunaren maiordomo edo etxezain zen bere anaia Frantziskori idazten dio, Olorondik. Hala azaltzen da eskutitzaren atzealdeko idazki laburrean: “À Monsieur mon frère François de Echaux, homme de chambre de Monseigneur Dacqz, à Bourdeaux”. Igorlea Bertrand Etxauz ospetsua bada, gutunak adierazten du ohiko zela euskararen erabilera nobleziaren artean ere.

Aipagarriak, sinatzaileak bere babesik eza eta eskasiazko egoeraz egiten duen deskripzio labur baina adierazkorra, eta gutunean darabilen erreguzko doinua. Kontuan izan behar aditz forma askoren zukako alokutiboaren erabilera (ikus Vinson, 1884).

Jatorrizko iturria: Frantziako Liburutegi Nazionala (Paris), Fonds français, Gaignères bilduma, 20578. lib., 24. f.

Bertsio eta oharren oinarria: Luis Michelena (1964), *TAV*, 154-157. or.

Ene anaie jauna:

Hunekila hirurgarrena dikezi¹ eskribatu darautzudala². Batez ere arropos-
turik ez dizit uken³, zoinez pena baitut, zure berri unen⁴ jakin gabiaz, bai eta
halaber aitaren eta amarenez.

¹ da; izango da (zukako alokutiboa). ² dizudala. ³ Bakar batez ere ez dut erantzunik izan (zukakoa); bakar bati ere ez diozu erantzun. ⁴ berri onen.

Heben ahal bezala nuzu⁵: hortik jalgiz geroz⁶, zamariak pentsaraziten dirauztazu⁷, nitien arropa guziak higatu baititut, eta ez nizi pagatu nahi⁸. Konxit⁹ galdegin dirakozut¹⁰ eta erran diraudazu¹¹ konxit *de gascon*¹² nahi dudanez, hura emanen daraudala¹³. Bertze zerbitzariak orok utzi dizie¹⁴ eta batre ez dizi¹⁵ pagatu nahi uken. Seguratzin zitut¹⁶ ezi gizon terrible bat dela.

Gutun haur daramena¹⁷ etxeko zerbitzari bat duzu¹⁸. Otoi egiten darautzut zure berri unen eta aita-amenez eskribatziaz, zoin baita gauza desiratzen dudana.

Lehiaz ez darautzut¹⁹ eskribatzen luzazago; fin egiten dizit²⁰ presenteko hunetzaz, Jeinkuari otoi egiten darakodala²¹ zaduzen²² osorik eta alegerarik bere grazia sailduian, eta ni ere halaber zurian. Adio.

De S. Piarre de Oloron, nobenbreren 8 garrenian, urtez 1584.

Ene eskusak, otoi, aitari eta amari igor itzazu, plazer baduzu²³, ahalik eta hobekiena.

Zure anaia leala eta hun desiratzen dudana eta zerbitzu egitera obediendatena²⁴ ni nukezu²⁵.

Beltran de Etxauz

⁵ naiz (zukakoa); nabil. ⁶ ateraz gero, irtenez gero. ⁷ zaldiak pentsarazten dizkit (zukakoa); hots, zaldiei pentsua, bazka, emanarazten dit (nagusiak). ⁸ ez nau pagatu nahi (zukakoa); ez dit ordaindu nahi. ⁹ Konjit: baimena. Hemen: lanpostua kitatzeko baimena; zerbitzua uztea, lantokiari agur esatea. *Congé* (fr.); *congiet* (fr. zaharra). ¹⁰ eskatu diot (zukakoa). ¹¹ dit (zukakoa). ¹² zerbitzua uztea, lanpostua kitatzeko baimena, "gaskoi erara", hau da, lansiririk, ordainketarik gabe (nahi dudanez). ¹³ didala. ¹⁴ utzi dute (nagusia) (zukakoa). ¹⁵ ez du (zukakoa). ¹⁶ zaitut. ¹⁷ Aldaera: *dakarrena* (Dodgson: in Azkue, 1899). ¹⁸ da (zukakoa). ¹⁹ presaz, denboraren pre-miagatik, ez dizut. ²⁰ dut (zukakoa). ²¹ diodala. ²² eduki zaitzan. ²³ mesedez, arren. ²⁴ dena; izango dena. ²⁵ naiz; izango naiz (zukakoa).

Urtubiako anderearen gutunak

José Manuel Floristán Imízcoz historialariak, 1993an, Simancas-ko artxiboan aurkitu euskarazko hogeitaz gutun argitara eman zituen. Gutun hauek 1595 eta 1598 bitartean izan ziren idatziak, urte horietan Frantzia eta Espainiaren artean gertatutako gerraren testuinguruan. Espainiako Felipe II.aren (1556-1598) informazioa bidaltzeko espioitza gutunak dira.

1562tik, Frantzia eta Nafarroa (Beherea) “erlijio-gerrak” izenez ezagutzen diren gatazkan zeuden murgilduta. Arrazoi erlijiosoak, funtsean, zergatiko soziopolitiko, militar eta ekonomikoekin zeuden nahasita. Henrike IV.a Borboikoa (Nafarroako Henrike III.a), kalbinista, Frantziako errege gisa irmotu zenean (1589-1610), Frantzia eta Espainiaren arteko gerra piztu zen. Ingalaterra protestanteen alde jarri zen. Joana Albretekoaren erreinaldian ere luzatua zen agaramontarren eta beaumontarren arteko gatazka, orain, erlijio arazoez zipriztindu zen. Nafar noble zenbait, katoliko izateari eutsiz eta erresumako kostumak, libertate edo pribilegioak arriskuan ikusiz, babes bila, espainiar bandora hurbildu ziren. Gerrak, Frantziako erlijio bizikidetzak, ez orekatua hala ere, bermatu nahi izan zuen Nantesko Ediktuak (1598) eta bi estatuen arteko bakea ezarri zuen Vervins-ko Itunak (1598), amaitu ziren.

Espainiako errege Felipe II.aren kolaboratzaile edo informatzaileen artean zeuden: Charles Lukuzekoa (1535-1604), zuberotar beaumontar, katolikoen buru, Joana Albretekoaren erreformen kontrakoak, 1584an Ozazeko Maria Jurgainekin ezkondu zena (ikus “Atharratze jauregian”); Garroko jauna, baxenabartarra; eta Urtubiako andrea, Aimée de Montreal, lapurtarra, zeinaren ezkontzak, 1574an, Jean Ganboa Alzaterekin, Ganboa eta Montreal etxeen arteko liskarrekin amaiera eman zitzaion.

Espioi hauen informazioak jasotzen zituzten Calderónek, Nafarroako Erresumako erregeordeak, eta Hondarribian egoitza zeukan Juan Velázquezek. Velázquez hau, militarra, 1589an Gipuzkoako kapitain jeneral eta Hondarribiko alkate izendatu zuen Felipe II.ak. Baita espioien buru ere. Madrilera igortzen zituen gutunak, informatzaileek bidalitako mezuen eduki, garrantzia eta fidagarritasunarekin zenbaitetan eszeptiko agertuz.

Bitartekariei zuzendutako gutun hauen bidez, espioiek Espainiako erregearen informazioa zuten tropen mugimenduez, itsasontzien joan-etorriez (ingelesekin batik batik), hala nola beste zenbait gorabehera politiko-militarrez ere: Frantziako erregearen tokialdatzeak, setioak (Amiens-ko kasurako), izendapenak, atxilotzeak, akordioak, arma bidaltzeak...

Hemen, Urtubiako andereak igorritako gutunetatik sei (hogeiko multzotik: 3, 5, 10, 13, 14 eta 15.ak) jasotzen dira, Juan Velázquezi zuzenduak. Eskutitz informatiboak dira, berriemate modukoak, laburrak, soilak. Dena den, ez dira falta adierazpen pertsonalak, ironiazko edo burlaizetako zertzeladak, eta irudiren bat edo beste. Berriemaileak zerbitzari gisa aurkezten du bere burua: hartzaileak espero duena betetzea du helburu. Bidalitako informazioa aintzakotzat, sinesgarritzat, hartua izan dadila eskatzen du: egiazkotzat, *ziertotzat* (10. gutuna), emandako “berri freskorik” (17. gutuna) baizik ez du transmititzen. Inoiz, kexu da, beste aukerarik ez duenez, zurrumurruetan oinarritutako informazioak besterik ez eman ahal izateaz. Bere zeregina leialki bete nahi duen espioia edo informatzailea.

Gutunetan jasotako berrien zehaztasunik ezak eta data faltak ez dute errazten mezu hauen segida eta ordena kronologikoa garbi ezartzen. Dena den, hona ekarritakoak, 1597-1598koak dira. Gutunen arteko sekuentzia edo lotura ongi ulertzeko, bestalde, erlijio-gerra horien historia ezagutu behar da, gertaerak, protagonistak eta sakoneko zio politiko, sozial eta merkataritzazkoak. Hemen, gutunen –berez jada aldizkakoak– hautapen bat besterik ez da jasotzen. Historiaren azalpen zehatzago batek atal honen esparru eta helburua gaindituko luke.

Jatorrizko iturria: Simancas-ko Artxibo Orokorra, Estatu Saila, 180 (1597) eta 181. (1598) paper-sortak.

Bertsio eta oharren oinarria: José Manuel Floristán Imízcoz (1993), “Conflictos fronterizos, espionaje y vasculencia a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos”, *FLV*, 177-219. or.

[3. gutuna]

Jauna:

Bart etorri nintzan nire anaia baten etxetik, non aurkitu baitut zure Señoriaren kutun¹ bat etxean. Sinestatzen dut ezin² asko presuna badela xindurriaz hartz egiten dakienik. Zer ere baita³, marexalaren⁴ etorraraz⁵ ez dut uste dela deus intentzio gaiztorik, xoil kondizioz mudatu ez badire handiren bazuek: esparantza nuke zerbait sentimentu banukela, non ez baitut uste dela mudantzarik. Bart Baionan uste⁶ zuten, faltarik gabe, esan den marexala. Bazioiten⁷ ni uketu⁸ naizen parte hotan⁹ Frantzian trublazio handiak hazitzen zirela.

Ez da deus dinorik zure Señoriari gaztiga¹⁰ ahal daitekenik, eta hala fin emaiten diot, gelditzen naizela, beti bezala, zerbitzari hunblea¹¹.

¹ gutun. ² ezen. ³ Den modukoa dela, nolanahi ere. ⁴ Jacques II.a de Gouyon-Matignon jauna (1525-1598), Frantziako mariskala, Guienako (Guyenne) gobernadorea. ⁵ etorreraz. ⁶ espero, itxaro. ⁷ bazioten; esaten ari ziren. ⁸ egon. ⁹ Hautabidea: *hartan*. ¹⁰ adierazi, jakinarazi. ¹¹ umila, apala. *Humble* (fr.).

[5. gutuna]

Jauna:

Zure Señoriaren kutuna errezebitu bezain sarri bidaldu dut jakitera berri parte hunetako. Pataxa¹ batzu etorri dire Erroxelatik²: diote ezin Amians³ desegin duela partida⁴ bat eta barnekoak miserikordia eske daudela, baina zaldundeak⁵ ez diola Erregeri permititu nahi miserikordiaz usatzera eta sarri⁶, horien usteaz, hangoa egingo dela.

Calesgua⁷ ere egia dela, guardak jarri direla barnerat deusik sar ez dadin, eta Amianskoa egin den bezain laster Errege hara dijoala. Nik presentean jakin ahal dudana haur da, eta etorkizunaz asegu bedi zure Señoria esana egonen naizela.

Eta *adieu*⁸ esaten diot, gelditzen naizela, beti bezala, zerbitzari hunblea.

¹ "Pataxa": bi mastako belaontzia, itsasertzean zehar egindako nabigazioan, bereziki estatu bateko portuen artekoan, erabiltzen zena. Hautabidea: (...) *berri. Parte hunetako pataxa* (...). ² Arroxelatik; La Rochelle hiritik. ³ Amiens. ⁴ parte; zona, gunea. ⁵ zalditeriak. ⁶ aurki, laster. ⁷ Calais-koa. ⁸ agur, adio. *Adieu* (fr.).

[10. gutuna]

Jauna:

Pentsa beza zure Señoriak hemen ziertotzat dadukaiei¹ berririk baizen gaztigatzen ez dudala nik. Gaztigatu ditudan azken berriak Arroxelatik etorri ziren; pataxetako jentia² esan zuten³. Nere adiskide ingles bat Baionan izanez tardatu dut hanbat tenpora zerbait berri gaztigatzera.

Egun, zoin baita igandea, gonbidatu ditut sei ingles, berririk neon³ denean lasterrenik sentitzen duenatarik. Esan didate armadaz⁴, ezin⁵ partitu zirenian, almirantaren untzia gutxi bat deskalabratu zitzaie⁶ eta tenpora gaitzak partida bat⁶ Finisterrako partidara egotzi⁷ zituela, baina gero bihurturik almiranta zen lekura bela egin zuela⁸, guztiok elkarrekin. Norat ez dakie⁹ eta daude berok ere espantaturik, nolaz ez den berri segururik ageri; ez da Amianskorik ere deusik ageri. Pataxan ekarri zituzten berriek baizen ez due¹⁰ hemengo inglese⁹, sinesturik Bartzalonara jua direla¹¹. Don Antonio¹², hor egotu zena, Erregeak preso hartu duela esan didate. Seguro marexal *monsieur de Biron* omen da¹³. Nabaski¹⁴ aditu du gobernadorea nola konpaitarzun batean¹⁵ jua den.

Jauna, deus berri denean ez dut faltarik eginen gaztigatzera eta eduki naza, beti bezala, bere zerbitzari hunbletan.

¹ daukaten. ² Hautabidea: (...) *Arroxelatik etorri ziren pataxetako* (...). ³ inon.
⁴ armadari buruz. ⁵ ezen. ⁶ (armadaren) parte bat. ⁷ partera, aldera, bota; ingurura eraman. ⁸ haize-oihalez itsasoan nabigatu zutela. ⁹ Hautabidea: (...) *guztiok elkarrekin; norat ez dakie. Eta daude* (...). ¹⁰ ez dute. ¹¹ Hautabidea: (...) *hemengo inglese sinesturik: Bartzalonara* (...). ¹² Espainiaren zerbitzuan ari zen isileko agente ingelesa omen. ¹³ Ziur omen da, mariskala Biron dela. Charles de Gontaut, De Biron dukea (1562-1602), Henrike IV.aren faboritoa, almirantea, Frantziako mariskala eta Borgoinako gobernadorea. Savoia eta Espainiarekin batera bere erregearen aurkako konspirazioz salatua, atxilotu eta burua moztu zioten. ¹⁴ agian, beharbada; ziur asko, ematen duenez. ¹⁵ norbait(zu)en konpainian, norbait(zuk) lagun izanik.

[13. gutuna]

Jauna:

Zure Señoriak barka biezat zeren ez baitut zure Señoriaren kartak merexi duen bezala erantzuten: bataz¹ zeren ez naizen kortesanoa, baizik montañesa, bestiaz² naiz enpaxatu³ nere bi anaia eta kusin⁴ bat ekustera etorririk. Zer ere baita, naiz zure Señoriaren zerbitzari hunble eta, otoi, hartan eduki naza. Beldurrez hoi en etorraraz zerbait alarma faltso eman dezoten⁵ zure Señoriari, priesaz⁶ eman dut pluma⁷ eskuan. Nere ondrenen gainean aseguratzen dut ez dela hoiekin artean beste pentsamenturik baizin⁸ atsegindarzunik⁹.

Adiskideak gaztigatu zidan deseatzzen zenduela jakitera non zen gobernadorearen jendarma¹⁰: nor bere etxetara erretiratu dire, zituzten marabiriak despendaturik¹¹ eta hura gelditu da ondra guzirekin. Lotsa ere banaiz baina ezin nagoke zure Señoriari esan gabe, eta nolaz parte horretarat apresta¹² ahal zaitekeien, zure Señoriari abertimentu eman zioten bezala. Haren armada zer zen esanen diot klarokin: mustrak¹³ egin ditu Erregeri aditzera emaitagaratik egin duela mila gauza, eta paga eman behar zituen guztiak eduki ditu beretzat. Mondu guztia farraz baitago hartzaz. Gaur heldu da Baionara.

Beste berri segurorik ez dugu presentean, eta hala fina emanen diot, gelditzen naizela, beti bezala, zerbitzari hunblea.

Lehenbiziko ehizia zeren den, atrebitzen naiz zure Señoriari hain present apurraren¹⁴ bidaltzera. Eta parkatu, oraingo faltak estalikoren ditugu. Eta *adieu*.

¹ alde batetik. ² bestetik. ³ galarazi, eragotzi, oztopatu. ⁴ kusi, lehengusu.
⁵ diezaioten. ⁶ presaz. ⁷ hartu dut luma, idazluma. ⁸ baizen. ⁹ atsegintasunik.
Hots: baizik zuri atsegin ematea. ¹⁰ "Jendarma": xvi. mendean, gudaroste frantseseko soldadu mota bat, armaz arras ongi hornitua; inoiz, goi-mailako agintari edo militar baten –hemen, gobernadorearen– zerbitzuan jarria. ¹¹ marabediak (Espainiako diru zaharra) gastaturik, xahuturik. ¹² presta, gerta, antola. ¹³ erakustaldiak, agerraldiak (egin ditu armadak, bere burua erakusteko, Erregeri adierazi nahian...). ¹⁴ opari apurraren, xumearen, txikiaren.

[14. gutuna]

Jauna:

Parte horretako adiskideren batzuek gaztigatu didaie¹ ezin are are² izan dutela gobernadorearen etorraz alarma eta abisu, nabaski³ zure Señoriak ez gutxienik. Armada bortitzagorik etor ez badadi⁴, aise lo egingo dugu. In-glaterratik orain bi untzi etorri dire, bata Baionara eta bestia hemengua zen. Hoiek diotena da Plemura⁵ armada bihurtu dela negu hunetakotz. Pataxa bat Bordeltik etorri da juan den egun hoietan, eta esan due ezin⁶ duk de Mercu-rek⁷ asko ofrezimentu egin diola Erregeri eta esan diola Espainiako erregek dadukan partida bat bark⁸ libratu emanen diola. Ustez⁹ Baionara etorri di-renek zerbait berri hobeto dakiten, hanbat tardatu dut gaztigatzera zertan zerbi ahal dezakedan zure Señoria.

Eta hala suplikatzen natzaio mana¹⁰ nazan puxantza¹¹ duen bezala.

¹ didate. ² oraindik gehiago. ³ agian, beharbada; ziur asko. ⁴ etortzen ez bada. ⁵ Plymouth-era. ⁶ ezen. ⁷ Felipe Manuel de Vandémont, Penthievre eta Mercoeur-eko dukea (1558-1602). Katolikoen aldekoa, 1582tik Britainiako gobernado-rea, Henrike IV.aren arerio. Bakea sinatu zuen Erregerekin 1598an. ⁸ barka, txalupa, sail bat ; barku, itsasontzi, andana bat. ⁹ Uste izanik, pentsatuz. ¹⁰ agindu. ¹¹ ahalmena.

[15. gutuna]

Jauna:

Korteko¹ berri aditu dudan bezain laster ez dut faltatu nahi izan zure Señoriari parte egitera. Lehenbiziko berria da Gramonteko² jaunak egiten dio korte Lorrenako andre alargun baten alabari, hamabortz urtetakoari, eta ditu ehun mila eskutu eskuan dote. Laster ezkonduko dira, baldin Erregeren Maiestatearen Nantesen gainera joateak luzatzen ez baldin badu. Haren Maiestatea³ Fontaneblera⁴ partitzera doa, eta handik Bloisa, eta gero, baldin han Mercurarekin akordatzeko⁵ ez baldin bada, Nantesen gainera doa. Ja partitu dira Paristik hamabi edo hamabortz pieza kanon Bloisko alderat. Konestable jauna eta marexal Biron Pikardian daude deusik han higi ez dadin amoreagatik⁶. Haren Maiestatea Bretanian egonen da. Bitartean ez daki nihork oraino Guienan⁷ nor izanen den *lieutenant* jeneral⁸ Erregerentzat. Marexal Bironek ez du nahi izan. Erregek bila egorri du Alfonso Corso⁹, baina badiote hark ere ez duela rezebitu nahi.

Orai etorri diren berriak hoiek dira, jauna, eta mana naza¹⁰ bere zerbitzuan.

¹ Korteko. ² Antoine II.a Agaramontekoa (1572-1644), 1590ean Baionako betirako auzapeza izendatua eta ondoren Nafarroako erregeorde. ³ Berorren Maiestatea. *Su/Vuestra Majestad* (gazt.); *Sa Majesté* (fr.). ⁴ Fontainebleau-ra. ⁵ akordiora iristen, bat etortzen, hitzartzen. ⁶ mugi ez dadin, ez mugitzearen. ⁷ Guiena, Frantziako eskualde historikoa Akitanian (*Guyenne*). ⁸ Lotinant jeneral, teniente jeneral. ⁹ Korsikarra. Frantses armadako kapitaina, Roselló aldean ibilia. ¹⁰ agin naza.

Jaxua Jaxarrea nare Jeneriac omni nertat
 hadaiguaren berrie bazeen jastigaren etudala nie
 jastigaren ditendan aguen berrie archelatic eterru
 ziren fatchetaco Jentire esanzuten nare adiguide
 inglesat baxonen izanes fatchatoudent antat fexora
 zerkait berrie jastigazera egeen roinkaita izanda
 bonhidatou ditox fex ingles berrie neandean
 lasterene sentizen doxnetarie candidata armadas cin
 fatchitox zirenian almitantaren oxnzia gonchibat
 descalabatou zizagela eta fexora dazac fatchibat
 fimmis ferraco fatchitacoxoxu zifoxela baina gero
 bioxertoxrie almitantacen fexora bella eginzuela
 fexstioe clearequin nerat celagun eta deude beracere
 esantatourie nolas esten berrie fexoxorie agery eta
 amianscorie ere dexie agery fatchan ecaru zifoxsten
 berrie bazeen estoxe emendo inglese sinestoxrie
 barzalonaia ionandirela don antonie berexotou zena
 eregane preso artouduela esantidate fexoure marchia
 fflexioner de biron omenda nabazun adifonda fexoxia
 dorea nola confas fatchen fatchan fexanden fexora de
 berrie denean estox fatcharic eginen jastigazera eta
 edengun nasa berrie besala bere fexisary hoxelata

6. PAREMIAK

Behe Erdi Aroan jadanik abiatua, xvi. mendearen barruan areagotu egin zen, mendebalde europarreko hainbat herrialdetan, herri-hizkuntzan moldatutako atsotitz herrikoien bildumak taxutzeko jarduera kulturala. Euskal Herrian praktika honen lehenengo lekukotasunak xvi. mende honen azken hamarkadan agertu ziren: Esteban Garibaik osatutako bi errefrau-sorta labur eta *Refranes y Sentencias* (1596) izenburua zuen hirugarren bat, zabalagoa. Biltze lan hau hurrengo mendean zehar luzatu zen Zalgize, Voltoire, Isasti, Bela eta Oihenarten atsotitz-sailekin.

Atsotitz, errefrau, erran zahar edo bestelako izenez ere ezagutzen diren esaldi motak, horrelako beste hizkuntza-unitate autonomo eta esaeratsuak bezala –aforismoa, maxima edo axioma, esaterako–, “paremia” hitz generikoaren barruan sartu ohi dira. Guztiak “paremiak” dira. Atsotitzen eta, oro har, paremien jatorria antzinakoa da, mendetako emaitzak dira, eta euren sortzea euren bildumatzea baino askoz lehenagokoa. Gizabanako batek asmatua edo komunitateak landua, paremia, atsotitz bakoitza, hitzeko komunikazioan kolektibitatearen onarpen eta erabileraren bidez txertatu ohi da. Belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ahoz egin da nagusiki.

Atsotitzei herri-jakinduriaren izpiak, atalak, darizkie. Eguneroko bizimoduaren sortzen diren gertaera material, espiritual eta sozialen aurrean izandako esperientzia komun eta behin eta berriz errepikatuetatik eratorritako sumatzeak, egiaztatzeak, begi-bistako ondorioak edo aholkuak, jaso eta adierazten dituzten formulak dira.

Errefrau herrikoietatik askok, eta xvi. mendean bildutakoek nabarmen, funtsean laborantza-giroko mundua islatzen dute, hots, naturarekin harreman zuzenean, lurra landuz, oinarritzko bizibideak ziurtatzen eta asetzen kezkatutako jendeen gizarteak.

Paremien ikertzaileen gehiengoaren iritziz, atsotitzetan mundu-ikuspegi gehienbat kontserbatzailea, tradizionala eta moralista adierazten da, zuhurtzia, neurribidea, zentzuz jokatzeko, aholkatzen duena. Hala eta guztiz, bada

errefrauetan, osotasunean hartuz, jarrera baita ere kritiko, akuilagarri, ironikoa aurkitzen duena; are gehiago, ezarritako ideologia eta botere nagusien aurkako “kontraideologia” moduko bat ere bai.

Erasmoren obrak, 1500 eta 1540 bitartean latinez ondutako esaeren bildumak, *Adagia* izenaz ezagunak, eragin handia izan zuen eta errefrau-bildumen gorakadarako bultzadetariko bat izan zen. Baina Erasmok bere *adagia* kultuak jakintsu greko-latindarrengandik jaso bazituen, atsotitz herrikoien biltzaileek, batez ere herri barruan, han-hemenka hartuz, herritar xumeen jakinduria sakon eta apaletik, iturri tradizionaletatik edanez, osatu zituzten euren zerrendak.

Zertarako, zein xedez bildu zituzten euren errefrau-sortak jasotzaile errenazentistek? Helburua, besterik gabe, norbaiten mandatu edo eskaerari erantzutea izan zitekeen, edo herri baten bizimodua, mundu-ikuspegia, bizitzari buruzko jarrerak eta hizkuntzaren lekukotasun etniko, folkloriko edo linguistikoak jasotzea, eta, euskararen kasuan, hizkuntza honetan ere errefrau multzo zabala bazegoela erakustea; baita ere, agian, beste zenbait arrazoi politiko-sozial edo estamental gisakoak, ez hain agerikoak. Herri-hizkuntzen gorakada eta lanketak ere lagun zezakeen paremia herrikoien bildumen sustatzean. Atsotitzen biltzaileek esaldi labur hauetan bertako hizkuntzaren biltegi eta adierazpide aberatsa topatu zuten. Gainera, herri-hizkuntza latina baino baliabide eskuragarriagoa zen jakinduria eta aholkuak herriari helarazteko.

Baina atsotitzen funtzio nabarmenenak, besteak beste, hiru ziren. Irakas-teko edo moralizatzeko funtzioa: jakituria edo eduki filosofikoa, kultua edo herrikoa, eskaintzen zuten, bertuteak gomendatuz eta jarrera okerren aurka aholkatuz. Funtzio erretoriko edo sinetsaraztekoa: atsotitzak baliagarriak ziren ikaskizun moral eta praktikoekiko konbentzimendua sorrarazteko, argudioak argiago, egiantzekoago eta eraginkorrago bihurtzen baitzituzten. Azkenik, apaindura funtzioa, ludikoa ere: une egokian eta trebeki txertatuz gero, errefrauak elkarriketaren, ahozko eta idatzizko berbaldiaren edergarriak izan zitezkeen, atsegina sortuz, gozamina eraginez.

Esteban Garibaik (1533-1599) bere *Memorias*-en dioenez, Felipe II.aren Estatu-kontseilukoa zen Joan Idiakez jaunak (1540-1614) euskal atsotitzen beste bilduma bat eskatu zion –lehenengoa urte berean edo lehentxeago bidalia zion–. Horrela, 1592ko uztaillean, galdegindako bigarren sorta hori igorri zion.

Lekukotasun horrekin zerikusia duten bi dokumentu edo atsotitz-bilduma ditugu. Batak, xvii. mendekoak, “A bilduma” ikertzaileentzat, 63 atsotitz biltzen ditu (G. 139 kodizea: 2058 esk., Espainiako Liburutegi Nazionala, Madrid). Besteak, xvi. mendekoak, “B bilduma”, 64 (Cc 79 kodizea: 3537 esk.,

Ste. Geneviève-ko Liburutegia, Paris). Bi zerrenden artean 37 atsotitz komun daude, eta errefrau bakoitzak gaztelaniazko glosa edo azalpen laburra eta hitzez-hitzezko itzulpena darama. Hizkera ekialdeko bizkaiera zaharra da.

Bai Julio Urkixo, bai Joseba Lakarra, bilduma hauen aztertzaile nagusienetarikoa bi, ados dira esatean bigarren dokumentua, hau da, B bilduma, Garibairena dela, hain zuzen Idiakezi bidalitako lehenengo bilduma. Ez datoz bat lehenengoari dagokionez. Urkixorentzat ez dirudi Garibaik igorritako ezein bildumaren kopia zehatza denik, baizik xviii. mendean historialariaren bi zerrenda horietarikoa bat aurrean izanik, bere bilduma propioa osatu zuen euskaltzale batena. Lakarrak, bere aldetik, A, B bezalaxe, Garibairena dela ziurtatzen du: zehatzago, hark Idiakezi bidalitako bigarren bildumaren kopia bat, gipuzkoar batek egin, seguruenik xviii. mendean.

Hirugarren dokumentua, *Refranes y Sentencias (...)* (1596) (RS), Iruñean 1596an inprimatua da. Oihenartek eta Larramendik, behintzat, ba omen zuten errefrau-sorta honen berri. Bildumaren arrastoa, ordea, galdua zen, harik eta W. J. van Eys euskalariak, 1894an, Alemaniako Darmstadt hirian ale bat topatu eta 1896an quasi-faksimile moduan argitaratu zuen arte. Ale bakar hori Bigarren Mundu Gerran galdu zen. Urkixok aurretik argazkiak atera eta edizio iruzkindu baliotsua argitaratu zuen *RIEVen* (*Revista Internacional de Estudios Vascos*) (1911-1933).

Darmstadt-eko aleak 64 orrialde zituen eta 539 atsotitz, baina osatugabea zen. Nolanahi ere, Mitxelenak (1967a) beste hogeia atsotitz egiaztatu zituen Oihenarten koadernoetan eta beste bat Larramendik bere Hiztegi Hirukoitzari gehitutako Eranskinean (1745).

Atsotitz bakoitzak gaztelaniazko bertsioa edo baliokidea du, eta, izenburuak dakarrenez, bi hizkuntzak ulertu ahal izateko, euskarazko testuan hitz bakoitzak zenbaki bat darama gero gaztelaniazkoan dagokion hitzean errepikatzen dena.

Hizkuntza bizkaiera zaharra da, mendebalekoa. Ezaugarri linguistikoen artean zenbait aipatzeko: “h”ren agertzea hainbat hitzen hasieran, nahiz eta ordurako hasperentze fonologikoa desagertuta egon (*hodolak*, 146; *hogasuna*, 161; *huda*, 304; *hurak*, 472; eta abar); bokal sudurkarituak (*burdiarik*, 15); *-rean* ablatibo (*-tik*) gisa (*lezerean*: leizetik, 368); eroan / joan aditzak ohiko-tasuna adieraziz (*asko egin doa*: asko egin ohi da, 61); eta abar.

Bilduma honen autoretza ere eztabaidan dago. Urkixoren iritziz, Garibairena da seguru asko, Idiakezi bidalitako bigarren zerrenda, hain zuzen. Lakararentzat, berriz, *Refranes y Sentencias* ez da Garibairena, beste egile ezezagun bat(zur)ena baizik. Erabateko argudioen ezean, oraingoz, bilduma anonimotzat hartu ohi da.

Garibairen zerrendetan eta *Refranes y Sentencias*-en aurkitzen diren paremiak euskal girotik, hots, garai haietako egiazko euskal erabileratik, jasoak ala bilduma hauetarako beste hizkuntzetatik itzuliak edo moldatuak ote dira? Saioak egin diren arren (ikus Urkixo, 1911-1933; Lakarra, 1996: 29-75), arazoa behar bezala argitu gabe dago. Seguru asko, bitariko paremia sortak dira: bertakoak eta mailegatuak, egiazki erabiliak eta itzuliak, biltzen dituztenak. Baina zenbat eta zeintzuk? Onomastika sailekoak, besteak beste, zalantzarik gabe euskal jatorrikoak dira. Bestalde, ordea, ez gutxi gaztelaniazko bertsiokeen parekideak edo ia-ia hitzez-hitzezko itzulpenak dirudite. Euskal atsotitz edo erran zaharretan ezaugarri eta eduki originalak, bereziak, antzematen badira ere, alde askotatik beste hizkuntza edo kulturetan aurkitzen diren paremien antzekoak edo berdintsuak dira: paremien funts edo gordailu unibertsal batez hitz egin ohi da.

Paremiak esaldi osoak dira, unitate itxiak, beren forman irauteko sortuak, hizkuntzazko komunikazio-katean autonomia fonikoz txertatzen direnak. Enuntziatu laburrak, bilduak, izanik, zenbaitetan bi hitz ere nahiko dira atsotitza osatzeko (B 40); morfema, adizki edo juntagailuen elipsiaz taxutuak daude (RS 22), gehienak atal bikoz (RS 20) eta asko aposizio eran (RS 28). Horrela, maiz, definizio moduan zizelkatuak, inskripzio tankeran, izen formako esaldien itxura hartzen dute, atsotitzaren bi atalak erabat identifikatuz, adierazten den egia eztaba daezin eta unibertsala bailitzan (RS 130).

Paremietan baliabide estilistiko-erretoriko ugari erabili ohi da. Horietako zenbaitek, errefracua estetikoki janzteaz gain, helburu mnemotekniko garbia dute, zeren eta, laburtasunak bezala, erabilerarako memorizatzea errazten baitute: lexikoaren errepikak (RS 114), paralelismo edo simetriak (B 1), anaforak eta epiforak (RS 85), elkarritzeta laburrak (RS 451), kanta hasierak (RS 517), joko erritmiko-fonikoak, hala nola errima batez ere (RS 137), aliterazioa (RS 83), paronomasia (B 50), hitz jokoa (RS 149) eta abar.

Atsotitzek esanahia, batzuetan, modu zuzenez eta maila denotatiboan adierazten dute, bestelako mezu ezkuturik aurkitzera behartu gabe (RS 13); beste zenbaitetan, zeharbidez, desestaltze edo interpretazioa eskatzen duen maila irudizko edo konnotatiboan. Irudizko zentzu hori komunikatzeko, figura erretorikoez baliatzen dira: metafora (RS 395), sinekdokea (RS 119), ironia (RS 305), paradoxa (RS 173), oximorona (RS 130), disemia (RS 442), antonimia edo kontrajartzea (RS 289) eta abar. Edonola ere, erabilera-testuingurua, erabiltzaileak enuntziazioan hartzen duen jarrera da, azken finean, atsotitzaren egiazko zentzu konkretua erabakitzen duena. Horrela, atsotitz bera ñabardura desberdinez egunera daiteke testuinguruaren arabera.

Paremien estatus literarioa ez dago argi. Batzuen iritziz, atsotitzak Erdi Aro eta Errenazimentuko gizarteari zegozkion adierazpide literarioetariko bat

ziren. Beste batzuek, aldiz, paremiak gertakari edo emaitza folkloriko, ez literario, gisa ikusten dituzte. Tartean, paremien estatusa anbigua dela diotenak: paremiak ez dira literatura zentzu hertsian, baina bai, agian, zentzu zabalean, ez baitaie zantzu literariorik falta.

Eztabaida korapilatsua, edozertara ere. Ez dirudi, ez berez, ez eta literatur komunitatearentzat, gaur egun zentzu propioan literatura direnik. Baina, guxtienez, literaturaren, herri-literaturaren, esparrutik gertu daude. Hortaz, herri-literaturaren adierazpen bereziak direnez, paremiak, atsotitzak, sartu egiten dira Antologia honetan.

B, A eta *Refranes y Sentencias* bildumetako testuak hartuta daude, funtsean eta hurrenez hurren, Patri Urkizuk (1989), Jose Ramon Zubiaurrek eta Jesus Arzamendik (1976), eta Joseba Lakarrak (1996), argitaratuak dituzten faksimiletatik, eta zehaztu dira ikertzaileek beraiek, aipatu edizioetan, landutako transkribatze edo irakurketa gaurkotuak kontuan izanik.

Ez dira jaso faksimiletan agertzen diren gaztelaniazko bertsioak, ez eta, *Refranes y Sentencias*-en, euskal testua eta gaztelaniazkoa lotzen dituzten zenbakiak. Egia da jatorrizko testuari zor zaion begiruneak bere osotasunean ematea eskatzen duela, eta, oraingoetan, gaztelaniazko bertsioak eta zenbakiak xvi. mendean euskarak zuen egoera soziolinguistikoari eta biltzaileen hizkuntza-sentierari buruz lekukotasun estimagarria eskain dezaketela. Haatik, Antologia honetarako, soilik euskarazko testuari atxikitzea hautatu da. Testuinguru soziolinguistikoak bilakaera itzela jasan du eta gaur egungo baldintzetan, testuen ulermena lortzeko aski dira eransten diren oharrak. Puntuazioa, bestalde, neurriz erabili da, batik bat bi lerrotan banaturiko paremietan, lerro-etenak, eskuarki, bereizketa sintagmatikoa eta geldia adierazten baititu.

Tarteka gehitzen diren atsotitzen interpretazioak –ez dira posible bakarrik–, gaztelaniazko bertsioetan, Urkixok biltzen dituen iruzkinetan eta, Garibairen testuetan, beronek glosa moduan eransten dituen azalpenetan, daude oinarrituak.

Atal arduraduna: Karlos OTEGI

Ezagumena eta gogoeta existentziala

Atsotitz alorrean ez dira falta aholku erabilgarri edo praktiko hutsa gainditzen duten gogoeta eta egiaztatze sakon, fin eta zoliak. Adimenaren funtzioak eta ariketak, norberaren ezagutza, bizitza gidatzeko ikasketak edo zahartzaroari dagokion jakinduria balaratzen da. Gezurraren moztasunaren aldean, egiaren zorrozatasuna nabarmentzen da; itxura edo hutsalkeriaren aurrean, benetakotasuna. Hausnartu egiten da denboraren joanaz: batzuetan eszeptikoki edo ironikoki, oro baitoa harekin; besteetan baikortasunez, atsedena eta une atseguinei bide emanez, saminak eta nekeak ere badaramatzala ziurtatzen baita.

- | | | |
|----|-----|--|
| B | 6 | Mila urte igaro eta, ura bere bidean. |
| | 13 | Otsoak bere burua, mandataririk onaena. |
| | 25 | Saiak, pikua ezaun ez ¹ . |
| | 35 | Usteak, albo erdia ustel. |
| RS | 1 | Adi hadi ²
ze Jaungoikoa dagok adi ³ . |
| | 22 | Zaharrago, ikaskurago ⁴ . |
| | 32 | Anbiolako supitak ⁵ , egiak. |
| | 41 | Nekearen ostean poza. |
| | 59 | Guzurak, buztana labur. |
| | 114 | Handia da ene mina
esan nahi ta esan ezina. |
| | 123 | Aho itxian ez doa sartu ⁶ eulia
ta aldi guztietan ez da eder egia. |
| | 158 | Ezaun hadi ⁷
ta haxate ondo bizi ⁸ . |
| | 159 | Eguzkibako laurenbatik ⁹ ez. |

¹ ez du ezagutzen / ez du ezagutu. Putre moldakaitzaren irudiz, onena aukeratzen ez dakiten zuhurtzia gutxikoengatik. ² adi egon hadi, hots, begira ezak. ³ zegok adi, begira dagokik. ⁴ orduan eta jakiteko, ikasteko, gura handiago. ⁵ Behinolako atsotitzak, behialako errefrauak, aspaldi bateko erran zuhurak. ⁶ ez ohi da sartu. Jatorrizkoan: *ysian*. ⁷ Ezagut(u) hadi. ⁸ biziko haiz ondo. ⁹ Eguzkirik gabeko larunbatik.

- 194 Uler ezak lehenago
ta hitz egik¹⁰ geroengo.
- 221 Ez da gatzik¹¹
aldiak ez daroeanik¹².
- 226 Intxaurrak¹³ baino
hotsak handiago.
- 262 Ez da aldatsik¹⁴ ibarbakorik¹⁵.
- 285 Ulertzaila¹⁶ onari
hitz gitxi.
- 289 Ule luzea ta zentzun txaburra¹⁷.
- 395 Gaba, gogaieren¹⁸ Ama.
- 452 Ni hilaz gero bere
idiok exar daie¹⁹.
- 472 Urak dakarrena
urak daroa²⁰.
- 518 Egia da latz ta garratz
ta mergatz²¹.
- 538 Otso zaharrak, arratsean ulua.

¹⁰ hitz egin ezak. ¹¹ gaitzik, kalterik. ¹² daramanik. ¹³ Jatorrizkoan: *Ynsaurrak*.
¹⁴ aldaparik. ¹⁵ haran gaberik; zelai, ordeka, gaberik. ¹⁶ ulertzaile. ¹⁷ zentzu la-
burra, adimen urria. ¹⁸ gogoeten ("gogaiera" pluralean). ¹⁹ goldatu egingo dute,
hots, lurra goldez lantzen jarraituko dute. ²⁰ darama. ²¹ zakar, gozakaitz.

Pertsona arteko eta gizarte harremanak

Giza eta gizarte harremanen esparru plural, konplexu eta askotarikoak tarte zabala bete ohi du erretra-bildumetan: maila bereko pertsonen arteko erlazioak; boteretsuen *-lantzea* eskuan dutenen¹ eta ahulen edo babesgabeen, goikoen eta eroritakoen artekoak; familia barrukoak, hots, senar-emazteen, gurasoen eta seme-alaben, edo anai-arreben artekoak. Atsotitz hauek, nola ondasunei buruzkoak, kolokan, zalantzan sumatzen dira: zenbaitetan, jarrera berekoia, norberarena zaintzea, eta bestetan, eskuza-baltasuna, ondasunen banaketa, aholkatzen baitute. Hori bai, pertsonen arteko elkarrekiko beharra eta dependentzia ez bairik gabe azpimarratzen dute.

- | | | |
|----|-----|---|
| B | 14 | Andra ederra, etxean gerra. |
| | 17 | Nok bere opilari ikatza. |
| | 23 | Onak, onari goraintzi ¹ . |
| | 28 | Urra hakio ² , bai ahal bahakio ³ . |
| | 37 | Lotsabageak, mundua bere. |
| | 40 | Handiak, handiro ⁴ . |
| | 45 | Mendiak, mendia behar ez dau ⁵
baia ⁶ gizonak, gizona bai. |
| RS | 9 | Atzerrian lurra garratz
oina ibini egik ⁷ baratz ⁸ . |
| | 13 | Badegiok ⁹ inori
eingo deusk ¹⁰ bestek hiri. |
| | 80 | Igazko lapurrok
aurtengoen urkatzaila ¹¹ . |
| | 102 | Ezkonduta garbatu ¹² . |
| | 119 | Bizar hilari ¹³ lotsa gitxi. |
| | 130 | Adiskidok etsai. |

¹ Tratu garbitan aritu ez, eta elkar hartzen, elkarri gomendio egiten, dutenengatik.
² Urrun(du) hakio, urra loturak harekiko. ³ egiatan ahal bahakio. Iruzurgileen amarruetan nahasita dabilzan tolesgabeentzako aholkua. ⁴ handi eran. ⁵ ez du.
⁶ baina. ⁷ ipin ezak. ⁸ poliki, emeki, kontuz. ⁹ egiten badiok. ¹⁰ egingo dik.
¹¹ urkatzaile. ¹² damutu. ¹³ Sinekdokea: zatia, *bizar hila*, osoaren, "hildako", orde. Aholku moduan: hildakoa joan da; biziak bere nahia egin dezala.

- 133 Atean¹⁴ uso, etxean otso,
hala bizikidea¹⁵ gaxo.
- 137 Adiskidebako¹⁶ bizitzea
auzobako¹⁷ heriotzea.
- 154 Izekoa¹⁸ edo lobe¹⁹
ez dakit zein dan hobe.
- 193 Semea etena²⁰ ta ase,
alabea jantzia ta gosea.
- 198 Jausi din ezkurra²¹
oroen su egur.
- 261 Errege barri, lege barri.
- 296 Gatx egiten bok²²
hainbesteri itxadok²³.
- 326 Lantzea²⁴ eskuan dauenak
gauza guztiak bereak.
- 349 Orik²⁵ ez dan herria²⁶
ibarjaun²⁷ da azeria.
- 382 Ezkon ezak semea nahi doanean²⁸
ta alabea ahal dagianean²⁹.
- 400 Lurra bigunago
haarra³⁰ barrunago³¹.
- 409 Bazint banikezu³².

¹⁴ Kanpoan. ¹⁵ horrela bizikidetza, era horretan elkar bizitza. ¹⁶ Adiskiderik gabeko. ¹⁷ auzokorik, auzokiderik, gabeko. ¹⁸ Izeba. ¹⁹ iloba. ²⁰ lanez leher egina, jota. Aholkua, berez: etxea ondo gobernatzeko burubidea. ²¹ Erori den zuhaitza. ²² badok: baduk. ²³ itxaron iezaio. ²⁴ Lantza, ezten haga. ²⁵ Zakurrik, artzakurrik. ²⁶ Hautabidea: (*h*)*erria*[*n*] (Urkixo). ²⁷ "Ibarjaun": erregearen izenean lurralde, merindade, batean epaitze lana egiten zuena. ²⁸ nahi duanean. ²⁹ ahal dezaanean. ³⁰ harra. ³¹ Pertsona zenbat eta otzan edo onberago, orduan eta errazago abusatu ohi da hartaz. ³² Lehenengo adizkian, "nork" adierazten duen pertsona marka eta, bigarren adizkian, "nori" adierazten duena, bai singularra, bai plurala, izan daitezke: emango bazenit emango nizuke / emango bazenidate emango nizuke.

- 446 Esalea, entzula³³.
451 Ene alabea, hax³⁴ on.
 Ama, markaak³⁵ dabiltz itsasoan.
464 Erroiak³⁶ mikeari³⁷ uzpeltza³⁸.
517 Eder elaea³⁹ goxean kantatzean,
 enearen kanteak jo nau bihotzean.

³³ Besteez gaizki esaka ari denak beregatik ere entzun beharko du. ³⁴ haiz; izan hadi. ³⁵ barkak, barkuak, itsasontziak. Amak alabari ona izan dadila eskatzen dio; honek ez ulertuarena egin eta harira ez datorren erantzuna ematen dio. ³⁶ Beleak. ³⁷ mikari. "Mika": belearen familiako hegaztia, hegoak eta gainaldea beltzak, eta sabe-laldea zuria dituen. ³⁸ beltz hutsa, erabat beltza / ipurbeltza. ³⁹ elaia, enara.

Lana eta ondasunak

Atsotitz askok biziraupenerako behar nagusietan, hots, janaria, etxebizitza, oinarrizko baliabideak eta lanean, jartzen dute arreta. Behar horiek ez badira betetzen, pertsonaren oreka eta elkarren arteko bizikidetzak arriskuan gerta daitezke. Horrela izanik, alferkeria eta bere ondorioak ironikoki, garrazki ere, arbuizaten dira. Nahiz eta gizakiak gero eta gehiago edukitzeko joera duen –berak baino gutxiago duenari eskatzeraino ere iristen delarik–, atsotitzek gehiegikeria kaltegarria dela egiaztatzen dute, hobe dela gutxi ziur eta eskura ezen asko baina etorkizun. Pixkana-pixkana eta iraunkorki aurreratzea da benetan baliagarriena.

- B 1 Jagi zidin¹ nagia, erra zizan² uria.
 4 Gizon utra³ ederra, gehiaenean alperra.
 21 Gizon beharra⁴, gogo huts.
 32 Ez jan, eta ez lan⁵.
 60 Saraak⁶ hurrago, arrainak estuago.
- A 29 Etorkizuna, kontakizuna.
- RS 5 Harri ebilokiak⁷ oroldirik⁸ ez
 erle uzatuak⁹ abarrik¹⁰ ez.
 15 Balizko¹¹ oleak¹², burdiarik¹³ ez.
 40 Nahiago dot to¹⁴ bat
 ze hamabi emon deiat¹⁵.
 45 Laarrik¹⁶ ez onik.
 61 Gitxia-gitxia¹⁷, asko egin doa¹⁸.

¹ Jaiki zen. ² erre zuen. Alferrak berandu hasi lana eta presaka bukatu nahi.
³ oso, guztiz. *Ultra* (lat.): haratago, areago... ⁴ beharrean dagoena, premiaduna.
⁵ Lan egiten ez, edo lan ez egiteagatik, euren egoera hobetzen ez dutenei buruzko esakunea. ⁶ Sareak. Ezarritako epemuga zenbat eta hurbilago, orduan eta larriago egin-beharra bete behar duena. ⁷ ibilokiak: ibilitakoak, ibilia denak. ⁸ goroldiorik.
⁹ uxatuak: ihesera eraginak, haizaraziak. ¹⁰ abarrik, abaraskarik. ¹¹ Ustezko edo hipotetiko den, litzatekeen baina ez den. ¹² olak: burdina egiteko eta lantzeko lantegiak. ¹³ burdinarik. ¹⁴ tori, hartu. ¹⁵ emango diat. ¹⁶ Larregirik, gehiegirik.
¹⁷ Gutxika-gutxika. ¹⁸ egin ohi da (*doa* formak ohikotasuna adierazten duela).

- 75 Oparinak nengian behargin¹⁹
a alperkeriak auzkin²⁰.
- 85 Jaunak asko daude
gehiago behar daude²¹.
- 124 Asko badok, asko beharko dok.
- 138 Haginak hurrago, ahaideak baino²².
- 155 Egin ta egin
ta irapazi²³ ezin.
- 161 Gosaldu, barazkaldu²⁴, askaldu²⁵ ta afaldu,
ta ogasuna²⁶ galdu.
- 237 Subako²⁷ etxea
gorputz odolbagea²⁸.
- 406 Bagenduko bagineakike²⁹.
- 432 Hoba txori bat eskuan
ze ez bost ezkurreen³⁰.
- 442 Etxe hutsa, errieta³¹ hutsa.
- 445 Enea neuretzat
zurea bioentzat.
- 498 Ardia, ahuntzari ule eske.

¹⁹ Beharrak, behartasunak, egin ninduen langile. ²⁰ auzizale, hots, beti auzitan sartuta dabilen bat. ²¹ *daude (...)* *daude*: dute (...) dute. ²² Aurrena nork bere burua, bere beharrak, zaindu; besteak eta besteenak gero. ²³ irabazi. ²⁴ bazkaldu. ²⁵ arratsaldeko otordua hartu. ²⁶ ondasuna(k), ondarea. ²⁷ Surik gabeko. ²⁸ odolgabea. ²⁹ Izango bagenu (zerekin...), jakingo genuke (nola...). ³⁰ zuhai - tzean. ³¹ errieta, liskar.

Eguraldia, egutegia eta laborantza

Jan-edana, ondasunak eta lana, batez ere Erdi Aroko eta xvi. mendeko laborantza giroa bezalakoan, eguraldia eta egutegiaren menpe zeuden. Sail honetan, zenbait atsotitz aipamen meteorologiko soila egitera –euria, eguzkia edo hotzarena, esaterako– muga-tzen dira; beste batzuek, gehienek, eguraldia landa bizitzarekin eta uztarekin lotzen di-tuzte. Urte-sasoi eta ia hilabete bakoitzak badu bere izaera propioa, bere ondorio eta eraginak, onuragarriak eta kaltegarriak. Oro har, atsotitzek alde mesedegarriak, *pozak*, nabarmentzen dituzte. Eguraldiaren egiaztatzeak erabatekoak, salbuespenik gabeak, ba-lira bezala aurkezten dira, betierekotasunez jantziak. Egutegiaren datak, maiz, dagokion santuaren izenaz adierazten dira, gizartean txertatutako eliza edo erlijio tradizioaren seinale.

- | | | |
|----|-----|---|
| B | 49 | Gox gorri de Nabarra, remojar te ha la zamarra. |
| | 50 | Arrats gorri de Castilla, calentar te ha la costilla. |
| | 51 | Jaun done Laurenti, esku batean euria, bestean ilinti ¹ . |
| | 52 | Sant Simon eta Juda ² , negua heldu da. |
| A | 62 | San Simon eta Judaetan, ontziak ankoraetan ³ . |
| RS | 4 | Abenduko lainoa
euria edo hegoa. |
| | 28 | Daguenileko ⁴ euria
ardaoa ta ezta. |
| | 43 | Maiatz iluna ta bagil ⁵ argia
urte guztiko ogia. |
| | 70 | Kukuen kantatzean
euri ta eguzki. |
| | 129 | Opeil ⁶ bustiak, dakaz ⁷ ogiak. |
| | 149 | Urrieteak ⁸ urri ⁹ gauzak
ta urri dira haren beharrak. |

¹ Garrik gabe, kea botatzen duen egur zati erdi erre. Done Laurendi / San Lorentzo jaiaren inguruan, abuztuaren erdi aldean, beraz, aldi bertsuan euri jasak bota eta bero handiak egin ohi dituela eta. ² Urriaren 20a. ³ aingurak botata, itsasoratu gabe. ⁴ Dagonileko, abuztuko. ⁵ ekain. ⁶ Apiril. ⁷ dakartza. ⁸ Urriak. ⁹ eskas, neurri edo kopuru txikian.

- 254 Doneaneko¹⁰ euria
garien galtzaigarria¹¹.
- 304 Uda ta negu
eguzu¹² ogi ta su.
- 318 Done Bizen¹³ argia
guztioentzat dakar ogia.
- 323 Otsailean aldiz eguzkitan,
aldiz sutantzean¹⁴.
- 330 Done Meterii Zeledon¹⁵
porru ereiario¹⁶ on.
- 368 Otsailean
urteiten daroa¹⁷ hartzak lezerean¹⁸.
- 373 Neguan okin
udan txiribogin¹⁹.
- 512 Leia ta erurra²⁰
garia dakar eskura.
- 552 Maiatz hotzak
dakaz²¹ pozak.
- 558 Ilbeheran
erein zegik²² arean²³.

¹⁰ San Joanetako (Done + Joane + ko). ¹¹ galgarria, kaltegarria. ¹² eman ieza-
guzu(e) ("nork" singularra edo plurala izan daiteke). ¹³ San Bizente (urtarrilaren 22a).
¹⁴ sutondoan. ¹⁵ San Emeteri eta (San) Zeledon (martxoaren 3a). ¹⁶ ereiteko aro.
¹⁷ irten ohi du (ohikotasuna adieraziz). ¹⁸ leizetik. ¹⁹ tabernari. ²⁰ elurra.
²¹ dakartza. ²² erein ez egik; ez ezak erein. ²³ ezer.

Onomastika

Bere jatorria honelako edo halako hizkuntza, herrialde edo kulturaren datzala argien eta garbien erakusten duen errefrau-saila onomastika arlokoa da, hots, komunitateko pertsona eta herri izenak, edo gertakari historikoak jasotzen dituzten atsotitzak. B, A, eta *Refranes y Sentencias* (1596) errefrau-bildumetan, sail honetako errefrau asko Euskal Herrian, Erdi Aroan, bereziki XIV eta XV. mendeetan, zaldiz eta ezpataz erabaki ziren Ahaide Nagusien arteko borroka bortitz eta ankerrei dagozkie. Gertakari historiko bakarra eta nabarmena egiaztatze orokor edo esperientzia eredu garriaren mailara jaso eta testuinguru arruntagoetan erabilia izatera pasatzen da, jazoera historiko hartatik ondorioztatutako ideia adieraziz. Erabilera horretan jokatzeko du, hain zuzen, atsotitz gisa; esaldia, bere horretan, egintza historiko baten lekukotasun hutsa besterik ez da, fosil bihurtutakoa. Bada, bestalde, sail honetako eta bestelako errefrauaren eta garai hartako herri-kantu zaharren arteko harreman frogatua.

- B 54 Edrigu de Villandran, egun eben eta bihar han¹.
 55 Gonzalo Moro² tati tati³, gaxtoa gaxtigaetan daki.
 56 Bilbao, han bere dongeak⁴ birao.
 57 Bergara, zeinatu⁵ eta igara⁶.
 58 Villarreal de Urretxu, beti gerrea darraizu⁷.

¹ Gaztelako erregea eta Bizkaiko Jauna izandako Joan II.aren garaian (1405-1454), Valladolideko ospe handiko kapitain bat nabarmendu zen, Rodrigo de Villandran, hain azkar, bizkor eta arduratsua ezen gutxien uste zuten unean eta aldetik erasotzen omen zien etsaiei. Hortik, esakunea euren eginbeharrak arretaz betetzen zituzten kapitain edo buruzagiei aplikatzen zitzairen. ² Joan II. horren kontseilukoa, zuzen eta zorrotza, herrialdea asaldatzen ari ziren oñaztarren eta ganboarren bando eta alderdikarien kontra justizia betearazi zuena, izua zabalduz. ³ Harridura eta ustekabea, edo baita ere arreata, kontuz ibiltzea, adierazteko interjekzioa: a zer nolakoa! kontuz horrekin! ⁴ gaiztoak. ⁵ aitaren egin. ⁶ igaro. Lizentzia poetikoa, *Bergara* hitzarekin errima edo hoskidetasuna osatzeko. Bergarara iristean, bizilagunen artean auzi ugari izaten omen zenez, zuhurrena aitaren egin eta gelditu gabe aurrera segitzea. ⁷ jarraitzen dizu. Urretxuk, garai batean, ingurukoekin liskar eta gatazka ugari izan zituenenez, esakune hau beti eztabaidan eta auzitan murgilduta ibiltzen direnengatik esan ohi da.

- 61 Dardoak egin arren bere aldia⁸
Olaso izango da ene aulkia⁹.
- A 49 Bardin Burgos eta Markina¹⁰.
50 Larrea, Burgos baino hobe, Toledoren idea¹¹.
- RS 88 Olaso¹², gitxi batzuk hi laso¹³.
92 Zelangoa da¹⁴ Butroe¹⁵
orok dakie¹⁶.
- 167 Herioak erezan¹⁷
Butroeko alabea Plentzian¹⁸.
- 270 Muxika, arerioakaz hagika¹⁹.

⁸ txanda; hots, dardoak bere unea, bere egitea, izan arren. ⁹ Butroe eta Muxikako Gomez Gonzalez jaun oñaztarrak bere alaba Joana Olaso etxeko Martin Ruiz ganboarrarekin ezkontzea erabaki zuen. Bitartean, ganboarren eta Gomez Gonzalezen arteko guda piztu, eta Martin Ruizek, hitzartutako ezkontzaren gainetik, ganboarren alde borrokatu zuen, gatazkan Gomez Gonzalez hil zelarik. Alargunak aurrez erabakitako ezkontza hura galarazi nahi izan zuen, baina alabak hitzari eutsi eta aurrera egin zuen ezkontza betez. Joanak orduan esandakoa, gurasoek, ados ez egon arren, seme-alabek erabakitako ezkontzari amore ematen dutenean esan ohi da (ikus "Olasoko kanta"). ¹⁰ Ironiaz, gauza txikiak edo apalak neurrigabeki puztuz, handizkatuz, haiek baino askoz handiagoak edo bikainagoak direnekin berdindu edo parekatu ohi dutenengatik. ¹¹ kidea. Aurrekoaren antzeko esanahia. ¹² Behe Ardi Aroan, Ahaide Nagusien arteko borroketan, ganboarren bandora bildutako Deba bailarako leinua. ¹³ hi lako, hi bezalako. Esakunea Olasotarren armarriko ikurritza edo goiburua da, etorki handitasuna eta boterea aldarrikatzen duena. ¹⁴ Nolakoa den, halakoa dela. ¹⁵ Euskal nekazal nobleziaren borroketan, oñaztarren bandoko Bizkaiko familia, jatorriz Gatikakoa, Ibaizabal-Nerbioi ibaiaren ezkerreko ertzean kokatua. ¹⁶ Urkixoren susmoz, esakune hau ez omen da armarriko ikurritza, Butroetarrek meniak, borroka-etenak, gordetzen ez jakitearen salaketa baino (Ikus aurrerago RS 404 esakunea). ¹⁷ hil zuen (ero + (z)ezan, gertaera gauzatu adieraziz). ¹⁸ Zoritzarra egiatan nola gertatu zen (ezbeharra, pozoitzea...), gertaerak Ahaide Nagusien arteko gatazka giroan nolako zerikusia izan zuen eta, ondorioz, esakunearen sakoneko esanahia, ez da argitu. ¹⁹ etsaiekin haginka, hozo-kaka. Oñaztarren bandora bildutako Gernika aldeko Muxika leinuaren ikurritza, agian Ahaide Nagusien gatazketako gertaeraren batean oinarritua.

- 273 Gatzean²⁰, gatzean,
 ta ez lbarguengorean²¹.
- 284 Aramaio²², dabenak ez lemaio²³.
- 334 Daigu²⁴ Goliz²⁵ auzi
 ta garea bakez bizi²⁶.
- 387 Albia²⁷, deunga dustien²⁸ habia²⁹.
- 404 Butroeko meniakgaiti³⁰
 ez iskilosai etxi³¹.

²⁰ Gatzetik (nondik, ablatiboa). ²¹ Ibarguengotik (nondik, ablatiboa). Lope Gartzia Salazarrek, *Las bienandanzas e fortunas*-en 22. liburuan kontatzen duenez, 1330.urtean, oñaztarren bandoko Ibarguendarrek Zaldibatarren familiakoak gonbidatu zituzten otordu batera Ibarguen dorretxera (Gordexola). Mahaian jarrita zeudela, gonbidatuek gatza eskatu zuten, “Sal, sal”, gaztelaniaz. *Sal*/hitzak, hizkuntza honetan, bi adiera dituenenez, gatza batetik, baina baita ateratzeko deia edo agindua ere bestetik, “Sal, sal” entzutean, aurrez prestaturik zeuden berrogeita hamar gizon armatu irten eta gonbidatu guztiak hil zituzten. Ordutik, esakune honekin adierazi nahi da: gatza eskatzean, gatzetik hartzean, ez dadila Ibarguengotikoa, Ibargueneren “eskaini” bezalakoa izan.

²² Ahaide Nagusien liskarretako lekuko. Herria oñaztarren esku zelarik, Peru Abendañoakoak eta bere gizonak erre egin zuten 1443an. ²³ Aramaio duenak ez lioke (inori) emango. ²⁴ Egin dezagun / egingo dugu. ²⁵ Gorliz. ²⁶ bizi gaitezen bakez / biziko gara bakez. ²⁷ Bilbo aldeko oinetxe eta sailak, 1430. urtean Ahaide Nagusien arteko borroka-leku gisa aipatua. ²⁸ donge, gaizto, guztien. ²⁹ Albiari bezala, -ia-z bukatutako bestelako herriei ere (Plentzia edo Mungia, adibidez) egotzi zaie antzeko esaldia. ³⁰ Butroekoek tregoa iragarri arren, nahiz eta gudu-etenak aldarrikatu (ez armei utzi). Lope Gartzia Salazarrek dakarrenez: “los de Butrón nunca supieron guardar treguas” (Ikus goraxeago RS 92 esakunea). ³¹ iskiluei, armei, utzi.

Bestelako egiaztatze eta aholkuak

Atsotitzetan ia-ia denetarik aurkitzen da eta denari buruz mintzo. Bizitza berarena bezala, ezinezkoa da alde guztien sailkapen zehatza. Errefrau-bilduma bakoitzak baditu bere gai gogokoen, errepikatuenak eta baita bere hutsuneak, baina guztietan egiaztatze eta aholku aukera zabala biltzen da. Aurreko sailetan jasotakoez gain, badira aholkuak, esaterako, bizitzako oztopoei aurre egiteko moduaz, izen onari eusteaz, edo norberaren gaitasunen arabera jokatzear. Baina, batez ere, egiaztatzeak, nabarmentzeak, arlo askotarikoei buruz: gorputza eta bere itxura, pertsonaren izaera eta garapena, giza izaeraren eta bere etorki edo sustraiairen arteko jarraitutasuna edo ia ezinbesteko lotura determinista (nolako... halako...), oldar naturalak, berritasunen iheskortasuna eta abar.

Espazioz eta denboraz unibertsalenak diren egoerak, jarrerak, behar edo ezaugarriak egiaztatzen dituzten atsotitzak dira mendez mende ondoen iraun dutenak, gaur egun indar eta bizirik handiena eta geroan ere jarraitzeko aukerarik garbiena dutenak.

B 7 Gox¹ saltsa hotsa, berandu barazkaria².

20 Ardi txipia, beti bildots³.

24 Ederrak, estaria higuni⁴.

36 Naharra⁵, onderean⁶ zorrotz⁷.

62 Haxea⁸ nora, kapea⁹ hara.

RS 20 Zelan baista oihala
 halakoa mendela¹⁰.

53 Surik ez dan lekuan keerik ez.

64 Luki¹¹ kume, azeri.

83 Iradu¹² noa nahira¹³.

127 Ahal daigun¹⁴ legez
 ta ez nahi degun legez.

142 Oinak hotz elexarakotz
 bero ezkontzarakotz.

¹ Goiz. ² bazkaria. ³ Gorputz txikikoak beti gazte itxura. ⁴ estalkia, estalgarria, higuin. ⁵ Laharra. ⁶ ondetik: puntatik, muturretik (hasita) (nondik, ablatiboa).

⁷ Jaiotzetik, haurtzarotik, nabari da geroago izango dena. ⁸ Haizea. ⁹ kapa, soin-gainekoa. ¹⁰ Zelakoa baita oihala halakoa oihal-ertza; nolakoa den oihala halakoa oihal-bazterra. ¹¹ Azeri. ¹² Presaka, lehiaz. ¹³ nahi dudana horretara, desirara.


¹⁴ Ahal dezakegun.

- 146 Odolak su baga¹⁵ diraki¹⁶.
 173 Hoa laster, baratxexe¹⁷.
 188 Gal bidi¹⁸ gizona
 ta ez haren ospe ona.
 218 Pilotuen eskuan haxerik¹⁹ ez.
 239 Kibel²⁰ ekatxari
 bular aldi onari.
 276 Aharrausi luzea
 loa edo gosea.
 305 Idiak oinon²¹ bidean²², gurdiak.
 405 Harria urtigi²³ ta eskua ostu²⁴,
 hax²⁵ gizon galdu²⁶.
 436 Ugaraxoen triskea²⁷
 lehorrerean²⁸ hezera²⁹.
 515 Leloa³⁰ berri dan artean aita³¹.
 539 Ogi gogorrari hagin zorrotza.

¹⁵ gabe. ¹⁶ irakiten du. ¹⁷ poliki, geldiro. ¹⁸ bedi. ¹⁹ haizerik. ²⁰ Gibel
 (-a eman), bizkar (-ra eman). ²¹ Oinon (egin), marmar (-rean egin), purrustaka aritu.
²² beharrean, ordeztu. ²³ jaurti, bota. ²⁴ ostendu, ezkutatu. ²⁵ haiz. ²⁶ gaizto,
 makur; noragabe. ²⁷ Igelaren jauzia. ²⁸ lehorretik. ²⁹ Gehiegi edaten dutenen
 aurkako esakunea. ³⁰ Errepika; kanta. ³¹ aipa (-tu ohi da).



Garibairen "A" atsotitz-bilduma-
ren bigarren (260 v.) eta hiruga-
rren (261 r.) orrialdeak (xvii.
mendeko dokumentua; Espai-
niako Liburutegi Nazionala).



Refranes y Sentencias (...) (1596):
lehenengo orrialdea (Darmstad-
eko ale galduaren quasi-faksimila).

BIBLIOGRAFIA

1. Lehen mailako bibliografia

(Liburukiko testuetarako lehen eta bigarren eskuko iturriak)

ALTUNA, Patxi (ed.) (1980), *Bernard Etxepare. Linguae Vasconum Primitiae*. Bilbo: Mensajero.

ARAQUISTAIN, Juan V. (1866), "Gau-illa", in *Tradiciones Vasco-Cántabras*. Tolosa: Imprenta de la Provincia, 25-42. or. [Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1972, 452-456. or.].

ARRIOLABENGOA, Julen (2008a), *Euskara 'Ibarguen-Cachopin Kronika'n (xvi. mendea)*. Bilbo: Euskaltzaindia / BBK.

—(2008b), "Los textos vascos en la *Crónica Ibarguen-Cachopin*" ["'Monumenta Linguae Vasconum' proiektua (2002-2008). Sei urte ikerketan" mintegia]. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. <http://www.ehu.eus/monumenta/pdf/mintegia2008/Arriolabengoa-Los_textos_vascos_en_la_Cronica_Ibarguen_Cachopin.pdf>.

BILBAO, Gidor et al. (arg.) (2010 eta hurr.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa*. Vitoria-Gasteiz: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>>.

- ETXEPARE, Bernat (1545), *Linguae Vasconum Primitiae*. Bordele: François Morpain. [Faksimile edizioa: Euskadi: Euskal Editoreen Elkarte, 1974]. [Edizio kritikoa: Patxi Altuna, 1980].
- (1545), *Olerkiak*. Donostia: Edili, 1968. [Lino Akesoloren edizioa, gaztelaniazko (Lino Akesolo) eta frantsesezko (René Lafon) itzulpenez hornitua].
- FLORISTÁN IMÍZCOZ, José Manuel (1993), “Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos”, *FLV*, 63, 177-219. or.
- FRANCISQUE-MICHEL (1857), *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature et sa musique*. Paris: Librairie de Firmin Didot Frères. [Paris: Hachette-BnF, 2012].
- GARCÍA DE SALAZAR, Lope (1471-1476), *Las bienandanzas e fortunas* (I-IV). [Edizioa: Ángel Rodríguez Herrero. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 1967].
- GARIBAY Y ZAMALLOA, Esteban de (1571), *Los Quarenta Libros del Compendio Historial de las Crónicas y Universal Historia de todos los Reynos de España*. Anberes: Christophoro Plantino.
- (1573-1598 bitartean idatzia), *Grandezas de España: noticias de los títulos y casas ilustres en ella y otras particularidades* (I-XI). [Madril: Historiaren Errege Akademia. XI. tomoa argitaratua bakarrik]. [Estraktua: Juan Carlos de GUERRA, 1908-1912, 1922-1924].
- (1586-1598 ing. idatzia), *Memorias de Garibay* (izenburuean argitaratua), in *Memorial Histórico Español*, VII. Madril (Historiaren Errege Akademia): José Rodríguez, 1854, 1-753. or. [Faksimile edizioa: Valentzia: Librerías París, 1995].
- GÓMEZ DE TOLEDO, Gaspar (1536), *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina*. Medina del Campo. [Edizio kritikoa: Mac Eugene Barrick. Philadelphia: University of Pennsylvania Press, 1973].
- GUERRA, Juan Carlos de (1921-1923), *Viejos textos del idioma. Los cantares antiguos del Euskera*. Donostia: Martín y Mena, 1924.
- (1908-1912, 1922-1924), “Ilustraciones genealógicas de los linajes bascongados contenidos en las Grandezas de España compuestas por Esteban de Garibay (...)”, *R/IV*, 2-6 eta 13-15.
- HARITSCHELHAR, Jean (1963), “Baigorriko zonbait kantu”, *Gure Herria*, 25 (4), 243-256. or.

- (1983), “Une poésie basque du milieu du ^{xvi}ème siècle (1554) célébrant la naissance de Henri III de Navarre (le futur Henri IV)”, in *Piarres Lafitte-ri omenaldia (Iker-2)*. Bilbo: Euskaltzaindia, 259-274. or.
- (1985), “Bereterretxen khantoria”, in *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. Vitoria-Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea (*Veleia*-ren eranskinak), 1063-1074. or.
- IBARGUEN, Juan Iñiguez eta CACHOPIN semea (1558-1598 ing.), *Crónica General Española y Sumaria de la Casa Vizcayna y su antigua fundación y nobleza*. [Ibarguen-Cachopin Kronika]. [Espainiako Liburutegi Nazionala / Bizkaiko Aldundiaren Artxiboa].
- JAURGAIN, Jean de (1899), “Quelques légendes poétiques du Pays de Soule”, in *La Tradition au Pays Basque*. Paris: Aux Bureaux de la Tradition Nationale, 368-383. or.
- LAFITTE, Pierre (1967), “‘L’art poétique basque’ (Un inédit d’Arnaud d’Oyhénart) (1665)”, *Gure Herria*, 39 (4), 195-234. or.
- LAKARRA, Joseba (ed.) (1996), *Refranes y Sentencias (1596)*. *Ikerketa eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- LAKARRA, Joseba; Koldo BIGURI; Blanka URGELL (1983), *Euskal baladak*. *Azterketa eta antologia*. Donostia: Hordago.
- LANCRE, Pierre de (1612), *Tableau de l’inconstance des mauvais anges et démons, où il est amplement traicté des sorciers et de la sorcellerie (...)*. Paris: Jean Berjon. [Edizio kritikoa: Piole Jacques-Chaquin. Paris: Aubier, 1982].
- LAZARRAGA, Joan Perez de (1567-1602), *Lazarragaren eskuizkribua*. [Faksimile edizioa: Edilán -Ars Libris (Medieval Institute at Western Michigan University), 2004]. [Edizio kritikoa: Gidor Bilbao, et al., 2010 eta hurr.; Patri Urkizu, 2004].
- (1600 ing.), *Relación histórica de las casas y apellidos de Lazarraga, privilegio de la Fundación de la Torre de Larrea dada en el año 839, linage de Erdoñana, de los Otaloras y Zuazo Gamboa, de los Velascos, de los puestos y dignidades de unos y otros, todo con remisión a documentos y otras cosas pertenecientes a ella*. [Espainiako Liburutegi Nazionala (11263/7 eskuizkribua) / Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoa (5041/1)].
- LEIZARRAGA, Joanes (1571), *Iesus Christ gure launaren Testamentu Berria. Othoitza ecclesiasticoen forma. Catechisme. Kalendrer. ABC edo Christinoen instruccionea othoitz eguiteco formarequin*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990.

- MAIORA MENDÍA, Fernando (2011), *Reino de Navarra. Euskera. Injurias, coplas, frases*. Villatuerta (Nafarroa). [Autorea editore].
- MARTÍNEZ DE ISASTI, Lope (1625), *Compendio Historial de la M. N. y M. L. provincia de Guipúzcoa*. [Inprimaketa: Donostia: Ignacio Ramón Baroja, 1850].
- MARTÍNEZ DE ZALDIBIA, Juan (1575 aurretik), *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas*. [Edizioa: Fausto Arocena. Donostia, 1945].
- MENDIETA, Francisco de (1588-1592 ing.), *Quarta parte de los Annales de Vizcaya, que Francisco de Mendieta, vezino de Vilbao, recopiló por mandado del Señorío*. [Edizioa: Juan Carlos de Guerra. Donostia, 1915].
- MICHELENA, Luis (1964), *Textos arcaicos vascos*. Madril: Minotauro. [Obras completas, XII, 2011]
- OIHENART, Arnaud d' (1665), *L'art poétique basque*. [Edizio kritikoa: Pierre Lafitte, 1967].
- OTAZU, Alfonso (1975), "'El Cantar de Breña' (Un poema inédito de fines del siglo xv en la lengua vasca)", *FLV*, 19, 43-73. or.
- POEY, Bernard du (1554), *Poésie en diverses langues sur la naissance de Henry de Bourbon Prince tres heureux, né au chasteau de Pau au mois de décembre (1553)*. Tolosa (Okzitania): Jacques Colomiés.
- Refranes y Sentencias comunes en Bascuence, declaradas en Romance con números sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas*. Iruña: Pedro Porralis de Amberes, (1596). [Edizio kritikoa: Joseba Lakarra, 1996].
- SALLABERRY, J.-D.-J. (1870), *Chants populaires du Pays Basque*. Baiona: Imprimerie de Veuve Lamaignère.
- SARASOLA, Ibon (1983), "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos", *ASJU*, 17, 69-212. or.
- SATRUSTEGI, Jose Maria (1991), "Miscelánea de textos antiguos vascos", *FLV*, 58, 283-299. or.
- URKIZU, Patri (1989), "Garibairen eskuzkiribu bat (1592)", *Mundaiz*, 37-38, 33-85. or.
- (2004), *Joan Perez de Lazarraga. Dianeja & Koplak. Madrid 1567*. Donostia: Erein.
- (2006), *Agosti Chahoren kantutegia (1844-1855)*. Zarautz: Susa.

- URQUIJO, Julio de (1911-1933), "Los Refranes y Sentencias de 1596. Estudio comparativo", *RIEV*, 5-24. [*Refranero vasco. Los Refranes y Sentencias de 1596*. Donostia: Auñamendi, I (1964), II (1967)].
- (1919), "Los refranes de Garibay", *RIEV*, 27 (1936), 493-624. or. [*El refranero vasco: I. Los refranes de Garibay*. Bilbo, 1976 (2. ed.)].
- VINSON, Julien (1884), "Un vieux texte basque inédit", *Revue de Linguistique et de Philologie Comparée*, 17, 215-222. or.
- XAHO, Augustin (1850 ing.), "Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques". [Bergara: Georges Lacomberen Ondarea. Olaso Dorrea Sorrerakundea].
- (1844-1855), *Agosti Chahoren kantutegia (1844-1855)*. [Edizio kritikoa: Patri Urkizu, 2006].
- ZAVALA, Antonio (1998), *Euskal erromantzeak. Romancero Vasco*. Oiartzun: Sendoa (Auspoa Liburutegia).

2. Bigarren mailako bibliografia

(Liburukiko testuen inguruko bildumak eta azterketak)

2.1. Antologiak

- JUARISTI, Jon (ed.) (1989), *Flor de baladas vascas*. Madril: Visor.
- Klasikoen Gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.eus/zaharrak.htm>>
- LAFITTE, Pierre (1931), *Eskualdunen Loretegia, XVIIIgarren mendetik hunateko liburuetarik bildua. Lehen zathia (1645-1800)*. Baiona: Laserre.
- MENDIGUREN ELIZEGI, Xabier eta Koldo IZAGIRRE (1998), *Euskal literaturaren antologia*. Donostia: Elkar / Ikastolen Elkarte.
- ONAINDIA, Santi (1954), *Milla euskal olerki eder*. Larrea-Amorebieta.
- URKIZU, Patri (1992), *Antología de la literatura vasca*. Madril: UNED.
- (2009), *Poesía vasca. Antología bilingüe*. Madril: UNED.

2.2. Historia eta ikerketa orokorrak

- ALDEKOA, Iñaki (2004), *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein, 2008.

- AULESTIA, Gorka (ed.) (1996), *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*. Vitoria-Gasteiz: Sancho el Sabio Fundazioa.
- ESTORNES LASA, Bernardo, et al. (1969), *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Arte, Lengua y Literatura. Literatura, I*. Donostia: Auñamendi.
- GABILONDO, Joseba (2014), *Before Babel. A History of Basque Literatures*. <www.joseba.net/books.htm>.
- KORTAZAR, Jon (1997), *Euskal literaturaren historia txikia. Ahozkoa eta klasikoa (XVI-XIX)*. Donostia: Erein.
- MICHELENA, Luis (1960), *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro. [*Obras completas*, XIII, 2011, 81-205. or.].
- MUJICA, Luis Mari (1979), *Historia de la literatura euskérica*. Donostia: L. Haranburu.
- OLAZIREGI, Mari Jose (ed.) (2012), *Basque Literary History*. Reno (Nevada): University of Nevada (Center for Basque Studies). <<http://www.basqueliterature.com/basque/historia>>.
- ONAINDIA, Santi (1972), *Euskal literatura (I)*. Bilbo: Etor.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste (1996), *Précis d'histoire littéraire basque (1545-1950)*. Baigorri: Izpegi.
- SALABERRI MUÑOA, Patxi (2002), *Iraupena eta lekukotasuna. Euskal Literatura idatzia 1900 arte*. Donostia: Elkar.
- TORREALDAI, Joan Mari (1977), *Euskal idazleak, gaur*. Oñati-Arantzazu: Jakin.
- (1997), *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Donostia: Jakin.
- URKIZU, Patri, et al. (2000), *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED.
- VILLASANTE, Luis (1961), *Historia de la literatura vasca*. Bilbo: Sendo.

2.3. Monografía bereziak

- ALDEKOA, Iñaki (2009), "Bernard Etxepare: 'Doctrina Christiana' y poesía amorosa", *ASJU*, 44 (2), 1-40. or.
- (2010), "Lazarraga, Errenazimentuko idazle", *Sancho el Sabio*, 33, 135-152. or.
- ALTUNA BENGOCHEA, Francisco María (1979), *Versificación de Dechepare. Métrica y pronunciación*. Bilbo: Mensajero.

- ARRIOLABENGOA, Julen (1996), "Erdi Aroko kanta ezezagunak *Ibarguen-Cachopin Kronikan* (1570-1620)", *ASJU*, 30 (1), 71-98. or.
- AZKUE, Resurreccion M. de (1899), "Euskerazko eskutitzik zaarrena", *Euskalzale*, 3, 206. or.
- (1925), "Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo de Humboldt, a 5 de agosto de 1922", *Euskera*, 6 (4), 60-66. or.
- GAVEL, Henri (1924), "La chanson de Berteretch", *Bulletin de la Société de Sciences, Lettres, Arts et d'Études Régionales de Bayonne*, 3-4, 147-180. or.
- GIFFORD, D. J. eta M. MOLHO (1957), "Un antiguo texto en vascuence", *Príncipe de Viana*, 66, 241-243. or.
- GÓMEZ LÓPEZ, Ricardo eta Blanca URGELL LÁZARO (2010), "Hacia una edición crítica del manuscrito Lazarraga", *Oihenart*, 25, 63-88. or.
- GOROSTIAGA BILBAO, Juan (1952), *Épica y lírica vizcaína antigua*. Bilbo: Centro de estudios vascos de F.E.T. y de las J.O.N.S.
- (1953), *Vocabulario del refranero vizcaíno de 1596*. Salamanca: Universidad de Salamanca [*Acta Salmanticensia*, 6 (1)].
- GRANDES, Fortunato (1923), "Peste y fuego. Destrucción de Salvatierra", *Euskalerriaren Alde*, 234, 201-229. or.
- HARITSCHELHAR, Jean (2011), "Amorosen disputa", *Euskera*, 56 (3), 833-846. or.
- HUMBOLDT, Wilhelm von (1812), "Fragment eines Altvaskischen Liedes", in *Schriften zur Sprachwissenschaft, II: Die Baskischen Schriften, 2: Baskische Wortstudien und Grammatik*. Paderborn: Ferdinand Schöningh, 2012, 356-363.or.
- INTXAUSTI, Joseba (1995), "Leizarraga eta Leizarragatarrak (1563-1571), Erreforma- Kontrarreformetako ilun-argitan", *RIEV*, 40 (1), 119-160. or.
- IRIGARAY, Angel (1963), "Sobre la elegía vasca de 1564", *BRSVAP*, 19, 217-219. or.
- IRIGOYEN, Alfonso (1996), "Gnomica biscaiensis. *Refranes y Sentencias* de 1596, junto a los recopilados por Oihenart", *Euskera*, 41(3) , 689-718. or.
- JIMENO JURÍO, José María (1996), "Juan de Amendux, poeta euskaldun de Pamplona (c.1540-1580)", *FLV*, 71, 99-117. or.

- LAFON, René (1951), "La langue de Bernard Dechepare", *BRSVAP*, 7, 309-338. or.
- LEIZAOLA, Jesús María de (1951), *Estudios sobre la poesía vasca*. Buenos Aires: Ekin.
- LEKUONA, Juan Mari (1982), *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.
- LEKUONA, Manuel (1918), "Métrica vasca", in *Idazlan guztiak. 1. Aozko literatura*. Tolosa: Librería Técnicas de Difusión, 1978, 131-157. or.
- (1925), "Viejos Textos. ¿El primer refrán vasco impreso? El Cantar de Peruchó. ¿Anbiola?", *RIEV*, 16 (4), 470-476. or.
- (1961), "Transcripciones y traducciones de viejos textos vascos", *BRSVAP*, 17 (4), 369-375. or.
- (1965), "Orixeren metrika", in *Orixen. Omenaldi*. Donostia: Euskaltzaindiaren ardurapean, 209-234. or.
- MICHELENA, Luis, *Obras completas* (I-XV lib.). Donostia eta Gasteiz: "Julio Urkixo' Euskal Filologia Mintegia" / Euskal Herriko Unibertsitatea, 2011.
- (1954), "Nota sobre algunos pasajes de los *Refranes y Sentencias de 1596*", *ASJU*, 1 (1. aldia), 25-33. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 131-140. or.].
- (1959), "Los cantares de la quema de Mondragón (1448)", *BRSVAP*, 15, 371-381. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 31-40. or.]. [A. RODRÍGUEZ HERREROekin lankidetzan].
- (1961), *Fonética histórica vasca*. Donostia: Seminario Julio de Urquijo / Diputación Foral de Gipuzkoa, 1977 (2. ed.). [*Obras completas*, VI, 2011].
- (1964), "Preámbulo", in Julio de URQUIJO, *Refranero vasco. Los Refranes y Sentencias de 1596* (I. lib.). Donostia: Auñamendi, 9-17. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 141-148. or.].
- (1966), "Euskal kanta zaharrak (Adabakiak)", *Egan*, 25, 134-135. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 27-28. or.].
- (1967a), "Los refranes del cuaderno de Oihenart", *ASJU*, 1, 11-44. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 299-326. or.].
- (1967b), "Tradición viva y letra muerta", in *Homenaje a don José Miguel de Barandiarán, II*. Bilbo, 121-145. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 9-26. or.].
- (1971), "Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", *FLV*, 3, 149-169. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 327-350. or.].

- (1977), “Euskal hizkera eta euskal neurkera”, *Euskera*, 22, 721-733. or. [*Obras completas*, XIII, 2011, 277-289. or.].
 - (1981a), “Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak”, in ZENBAITEN ARTEAN, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 259-278. or. [*Obras completas*, XIII, 2011, 211-231. or.].
 - (1981b), “Nuevo y más extenso texto arcaico vasco: de una carta del primer obispo de México, fray Juan de Zumárraga”, *Euskera*, 26, 5-14. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 67-77. or.]. [Antonio TOVAR eta Enrique OTTE-rekin lankidetzan].
 - (1986), “Contra Lekobide”, *ASJU*, 20 (1), 291-313. or. [*Obras completas*, XI, 2011, 229-250. or.].
- ORIXE: ikus ORMAETXEA.
- ORMAETXEA, Nikolas, *Orixé* (1963), “Itzak nola neurtu”, in *GAZTELU* (Joan Ignazio GOIKOETXEA), *Musika ixilla*. Donostia: Auñamendi, 48-49. or.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste (1999), “Lire et comprendre les textes poétiques de tradition orale: l'exemple de la chanson souletine ‘Atharratze jauregian’”, *Lapurdum*, 4, 57-79. or.
- PEILLEN, Txomin (1986), “Altzürükü Urrutiako leinuaren eresiak xv. mendeko”, *Euskera*, 31, 69-85. or.
- PULGAR, Hernando del (1486), “El Conde don Rodrigo de Villandrando”, in *Claros varones de Castilla*. Madril: Cátedra, 2007, 128-135. or.
- SAINZ PEZONAGA, Jabier (2006), “‘Hemen natza ortzirik’. Joan Amenduzekoa-ren epitafioa (c.1568). Edizio kritikoa”, *Sancho el Sabio*, 24, 57-90. or.
- SALABERRI MUÑOIA, Patxi (2004), “Lazarragaren artzain-nobela irakurtzen”, *Egan*, 56 (3-4), 39-66. or.
- (2007), *Leizarraga zaharra, Leizarraga gaurkoa. Hautatu orriak*. Amorebieta: Erroteta.
- SALABERRI ZARATIEGI, Patxi (1996), “Amenduxen olerkiaz. Oharrak”, *FLV*, 71, 87-97. or.
- SARRIONANDIA, Joseba (1985), “Sagar errea eta ardao gorria”, in *Ni ez naiz hemengo*. Iruñea: Pamiela, 207-212. or.
- SATRUSTEGI, Jose Maria (1963), “Hallazgo de una elegía vasca del año 1564”, *BRSVAP*, 19, 63-85. or.

- (1993), “Relectura de los textos vascos de espionaje del siglo xvi”, *FLV*, 64, 443-475. or.
- TOLEDO LEZETA, Ana M. (2003), “Maitasun mundutiarra Etxeparerengan: ‘bas-koen gaztiguia’”, in Aurelia ARKOTXA eta Lourdes OTAEGI (ed.), *Euskal gramatika eta literaturari buruzko ikerketak XXI. mendean*. Bilbo: Euskaltzaindia, 237-256. or.
- (2008), “*Linguae Vasconum Primitiae* bi partetan banaturik”, in Jean Haritschelhar-i omenaldia (*Iker-21*). Bilbo: Euskaltzaindia, 625-644. or.
- URKIZU, Patri (2005), *Balada zaharrez*. Donostia: Erein.
- (2005), “Euskal poesia idazleen artean lehen anderea”, *Lapurdum*, 10, 287-302. or.
- (2012), “Bernat Etxepareren bizitza-garaiaz albiste gehiago eta *Linguae Vasconum Primitiae* (1545)-ren berrirakurketa”, *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* (UNED), 17, 203-224. or.
- URRIZOLA HUALDE, Ricardo (2007), “La copla de Etxaleku”, *FLV*, 104, 59-63. or.
- ZUBIAUR, Jose Ramon eta Jesus ARZAMENDI (1976), “El léxico vasco de los refranes de Garibay”, *ASJU*, 10, 47-144. or.

3. Bibliografia osagarria

- ASENSIO, Eugenio (1952), “El erasmismo y las corrientes espirituales afines”, *Revista de Filología Española*, 36, 31-99. or.
- AUSTER, Paul (1984), “Introduction”, in *The Random House Book of Twentieth Century French Poetry*. New York: Vintage Books, xxvii-xlix. or.
- AZPILICUETA, Martin (1552), *Manual de confesores y penitentes*. Salamanca: Andrea de Portonaris, 1556.
- BATAILLON, Marcel (1937), *Erasmus y España*. México: FCE, 1950.
- (1945-1946), *Los jesuitas en la España del s. xvi*. Valladolid: Junta de Castilla y León, 2010.
- BATLLORI, Miguel (1994), “San Ignacio de Loyola, ¿personaje medieval o renacentista?”, in José Luis ORELLA (ed.), *El pueblo vasco en el Renacimiento (1491-1521)*. Bilbo: Mensajero.

- BAYLE, Pierre (1695-1697), *Diccionario histórico y crítico, 1*. Oviedo: KRK, 2012.
- BLADÉ, Jean-François (1869), *Études sur l'origine des basques*. Paris: A. Franck.
- BURCKHARDT, Jacob (1860), *La cultura del Renacimiento en Italia*. Madril: EDAF, 1990.
- BURKE, Peter (1978), *La cultura popular en la Europa moderna*. Madril: Alianza, 1991.
- CARO BAROJA, Julio (1972), *Los vascos y la historia a través de Garibay*. Madril: Caro Raggio, 2002.
- (1975), *Brujería vasca*. Donostia: Txertoa.
- COVARRUBIAS, Sebastián de (1611), *Tesoro de la lengua castellana o española*. Madril: Castalia, 1994.
- CURTIUS, Ernst Robert (1948), *Literatura europea y Edad Media latina*. México: FCE, 1974.
- DERRIDA, Jacques (1974), *Glas*. Paris: Éditions Galilée.
- DIDEROT, Denis (1752), "Traité du beau", in *Œuvres*, IV. lib. Paris: Robert Laffont, 1996, 77-112. or.
- DI LEO, Jeffrey R. (ed.) (2004), *On Anthologies. Politics and Pedagogy*. Lincoln: University of Nebraska Press.
- ELIAS, Norbert (1936), *El proceso de la civilización*. Madril: FCE, 2011.
- EVERETT, Jane (2010), "Anthologies et anthologisations", *Voix et Images: De l'anthologie*, 35 (2), 57-72. or. [Montréal : Université du Québec à Montréal].
- FAVYN, André (1612), *Histoire de Navarre, contenant l'origine, les vies et conquests de ses roys (...)*. Paris: Laurent Sonnius, Pierre Mettayer et Pierre Chevallier.
- FEBVRE, Lucien (1942), *El problema de la incredulidad en el siglo XVI. La religión de Rabelais*. México: Hispano Americana, 1959.
- FLORISTÁN IMÍZCOZ, Alfredo (2010), *1512. Conquista e incorporación de Navarra: historiografía, derecho y otros procesos de integración en la Europa renacentista*. Bartzelona: Ariel.

- GANDIAGA, Bitoriano (1977), *Uda batez Madrilen*. Arantzazu-Oñati: Jakin.
- GARCÍA GIBERT, Javier (2010), *La "Humanitas" hispana. Sobre el humanismo literario en los Siglos de Oro*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- GARCÍA HERNÁN, Enrique (2013), *Ignacio de Loyola*. Madril: Taurus.
- GOMBRICH, Ernst H. (2001), "The Renaissance: Period or Movement?", in Robert BLACK (ed.), *Renaissance Thought. A Reader*. Londres: Routledge.
- GUILLÉN, Claudio (1985), *Entre lo uno y lo diverso*. Bartzelona: Tusquets, 2005, 40-41 eta 375-378. or.
- HEGEL, Georg F. W. (1838-1845), *Lecciones sobre la filosofía de la historia universal*. Madril: *Revista de Occidente*, 1974.
- HUIZINGA, Johan (1919), *El otoño de la Edad Media*. Madril: Alianza, 1974.
- JIMENO JURÍO, José María (1997), *Navarra. Historia del euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- LACARRA, José María (1957), *Vasconia medieval, historia y filología*. Donostia: ASJU.
- LARRAÑAGA, Koldo (1992), *Euskal Herria Antzinate Berantiarrean eta Lehen Ertaroan. Materiale eta agiriak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LE GOFF, Jacques (2003), *En busca de la Edad Media*. Bartzelona: Paidós.
- LESSING, Gotthold Ephraim (1759-1765), *Briefe, die neueste Literatur betreffend*, in *Werke*, V. lib. Munich: Carl Hanser, 1973, 30-329. or.
- MADARIAGA, Pedro de (1565), *Honra de escrivanos*. Valentzia: Juan de Mey.
- MANGUEL, Alberto (1987), "La antología como creación", *Quimera*, 78-79, 68-73. or.
- MARCA, Pierre de la (1640), *Histoire de Béarn, contenant l'origine des rois de Navarre (...)*. Paris: Jean Camusat.
- MARTÍN BAÑOS, Pedro (2005), *El arte epistolar en el Renacimiento europeo (1400-1600)*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- MICHELET, Jules (1855), *Histoire de la France: VII. Renaissance*. Paris: Hetzel.
- MONREAL, Gregorio (1973), *El Señorío de Vizcaya*. Bilbo: *Anuario de Historia del Derecho Español*.
- NORA, Eugenio (1995-1996), "¿Para qué sirven las antologías?", *Leer*, 80, 62-66. or.

- OCAÑA, Francisco de (1603), *Cancionero para cantar la noche de Navidad y las fiestas de Pascua*. Alcalá de Henares: Juan de Gracián, 18-21. or.
- OIHENART, Arnaud d' (1638), *Notitia utriusque Vasconiae, tum Ibericae, tum Aquitanicae (...)*. Paris: S. Cramoisi.
- ORPUSTAN, Jean-Baptiste (1999), *La langue basque au moyen âge (IXe-XVe siècles)*. Baigorri : Izpegi.
- PADORNO, Eugenio eta Germán SANTANA HENRÍQUEZ (ed.) (2001), *La antología literaria*. Las Palmas de Gran Canaria: Fundación Mapfre Guanarteme / Universidad de la Palma de Gran Canaria.
- PALENQUE, Marta (2007), "Cumbres y abismos: las antologías y el canon", *Ínsula*, 721-722, 3-4. or.
- POZUELO YVANCOS, José María (1994) "La teoría literaria en el siglo XX", in Darío VILLANUEVA (koord.), *Curso de teoría de la literatura*. Madrid: Taurus, 69-98. or.
- POZUELO YVANCOS, José María eta Rosa María ARADRA SÁNCHEZ (2000), *Teoría del canon y literatura española*. Madrid: Cátedra.
- RABADÉ VILLAR, María do Cebreiro (2004), *As antoloxías de poesía en Galicia e Cataluña. Representación poética e ficción léxica*. Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela.
- REYES, Alfonso (1930), "Teoría de la antología", in *La experiencia literaria*. México: FCE, 1983 (3. ed.), 125-129. or.
- RICO, Francisco (1978), *Nebrija frente a los bárbaros*. Salamanca: Universidad de Salamanca.
- (1982), "El quiero y no puedo de Santillana", in *Primera cuarentena y Tratado General de literatura*. Barcelona: Quaderns Crema (El Festín de Esopo).
- (1993), *El sueño del humanismo. De Petrarca a Erasmo*. Madrid: Alianza.
- RUIZ CASANOVA, José Francisco (2007), *Antólogos. Poética de la antología poética*. Madrid: Cátedra.
- (2009), "Canon y 'Teaching Anthologies': en torno a la enseñanza de la poesía y la pervivencia de ambas", *Signa*, 18, 115-128. or.
- SEVILLA MUÑOZ, Julia (1988), *Hacia una aproximación conceptual de las parremias francesas y españolas*. Madrid: Editorial Complutense.

- SHESGREEN, Sean (2009), "Canonizing the Canonizer: A Short History of *The Norton Anthology of English Literature*", *Critical Inquiry*, 35 (2), 293-318. or.
- STAËL, Madame de (1810), *De l'Allemagne*. Paris: Librairie Aristide Quillet, 1928.
- TORRE, Guillermo de (1942), "El pleito de las antologías", in *Tríptico del Sacrificio. Unamuno, García Lorca, Machado*. Buenos Aires: Losada, 1948, 117-126. or.
- TREBIÑO, Imanol (ed.) (2001), *Administrazio zibileko testu historikoak*. Oñati: Herri-Ardularitzaren Euskal Erakundea (HAEE).
- URKIZU, Patri (2007), "El euskera durante la Edad Media", in *Gramática de la lengua vasca*. Madril: UNED, 38-46. or.
- VASARI, Giorgio (1550 eta 1568), *Las vidas de los más excelentes pintores, escultores y arquitectos italianos desde Cimabue hasta nuestros tiempos*. Madril: Cátedra, 2011.
- VOLTAIRE (1756), *Essai sur les mœurs et l'esprit des nations*. Geneva: Kramer.

IRUDIEN KREDITU-ORRIA

Testuen irudiak

159. or.: Francisco de Mendieta, *Quarta parte de los Annales de Vizcaya*, 11594 esk., 8. f.r. © Espainiako Liburutegi Nazionala (BNE).
165. or.: *Ibarguen-Cachopin Kronika*, 11760 esk., 346. fotograma. © Espainiako Liburutegi Nazionala (BNE).
183. or.: "Tomo onzeno de las obras no impresas de Esteban de Garibay", 9/2111 esk., 2. lib., 60. f. r. / v. eta 61. f. r. © Historiaren Errege Akademia (RAH).
185. or.: "Tomo onzeno de las obras no impresas de Esteban de Garibay", 9/2111, 1. lib., 23. f. © Historiaren Errege Akademia (RAH).
188. or.: *Kodizeak*, L. 4, 26 r. © Nafarroako Artxibo Orokorra (AGN).
204. or.: Joan Perez de Lazarraga, *Lazarragaren eskuizkribua*, 1205. f. r. © Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea.
215. or.: Augustin Xaho, "Chants populaires de la Navarre et des Provinces Basques", 83. kanta. © Georges Lacomberen Ondarea / Olaso Dorrea Sorrerakundea.

270. or.: Joan Perez de Lazarraga, *Lazarragaren eskuizkribua*, 1152. f. v. eta 1153. f. r. © Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea.
275. or.: Joan Perez de Lazarraga, *Lazarragaren eskuizkribua*, 1165. f. r. © Gipuzkoako Foru Aldundia / Koldo Mitxelena Kulturunea.
340. or.: "Fraí Joan Zumarragakoaren gutuna", Justicia 1011, 2 zenb., R 2. © Indietako Artxibo Orokorra (AGI).
351. or.: " 10. Gutuna", Estatu Saila, 180. (1597) paper-sorta. © Simancasko Artxibo Orokorra (AGS).
374. or.: "Garibairen atsotitz-bilduma", G. 139 kodizea, 2058 esk., 260 v. eta 261 r. © Espainiako Liburutegi Nazionala (BNE).

Koloretako kaierako irudiak

129. or.: © Joan Mari Torrealdei, *Euskal kultura gaur*, Donostia, Jakin, 1997, 54. or.
130. or. : © Eduardo Perez Rodriguez, *Atlas historikoa. Euskal Herria munduan*, Donostia, Elkar, 2008, 108.or.
131. or.: "Joan Sebastian Elkano". Antonio Valverde *Aialde*. © Intsausti jauregia, Azkoitia.
134. or.: "Fernando Bosgarrena errege jaunari eskumuinak egiten". Frantzisko Mendieta (Jose Ignazio Urrutiaren kopia). © Gernikako Batzarretxea.
136. or.: Esteban Garibairen erretratua. © Esteban Garibairen idazlanetako grabatua. Historiaren Errege Akademia (RAH).
136. or.: "Bake ezteiak". Pablo Uranga. © Kutxa Fundazioaren arte-ondarea.
138. or.: "Kristoren pasioa" (xehetasuna). Juan Oliver. © Nafarroako Museoa.
139. or.: © Louis Colas, *La tombe basque*, Baiona, Foltzer, 1923, 285. or.